

ELGOIBARKO AHOZKO EUSKARA

ELGOIBARKO AHOZKO EUSKARA



ELGOIBARKO AHOZKO EUSKARA

ELGOIBARKO AHOZKO EUSKARA

iker - 25

JESUS MARI MAKAZAGA EIZAGIRRE

**ELGOIBARKO
AHOZKO EUSKARA**

IKER-25

EUSKALTZAINDIA
2010

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.net/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.net/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.net/azkue



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
The University of the Basque Country



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

© Jesus Mari Makazaga Eizagirre

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

© UPV / EHU

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoeekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Preinpresioa: Composiciones RALI, S.A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao

Inprimategia: GRAPHICEMS, Gráficas CEMS, S.L.
San Miguel industriagunea
31132 Villatuerta
Nafarroa / Navarra

ISBN: 978-84-95438-66-9

Lege-gordailua: NA-3509-2010

Ascen,
zuri eskaintzen dizut liburu hau,
bihotz-bihotzez.

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda betezko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan
nolabaitezko kate geldian
unez uneko lerroan
guztia present bihurtu arte
nor izanaren erroan.

Ez nau beldurtzen egunsentian
arnas zuridun izotzak
nun dirudien bizirik gabe
natura zabal hilotzak
eguzki eder joan guztien
argia baitu bihotzak
eta begien milla ernegai
iraganaren oroitzak.

Ez nau larritzen azken orduan
arnasa galdu beharrak
bide xumea hesituarren
amildegiaren larrak,
ardo berriak onduko ditu
mahastietan aihen zarrak
gure oraina arrazoiturik
beste batzuren biharrak.

Ez nau iluntzen baratzatikan
azken loreak biltzeak
muga guztien arrazoi billa
arnas gabe ibiltzeak
arratsaldeko argi betera
zentzu denak umiltzeak
amets betezko loa baitakar
behin betirako hiltzeak.

Xabier Lete

AGURRA

(EUSKALTZAINDIA)

Geroak erranen du ... Hola idatzi zuen euskal olerkariak, behinola, etorkizuna zuela gogoan eta euskara mintzagai. Modu berean, geroak erranen digu Jesus Mari Makazagaren lanak zer-nolako ibilbidea daraman.

Gero horren esperoan, alabaina, oraingoa da Makazagaren eginetan poztekoa eta mirestekoa. Poztekoa, herrian herriko egin duelako eta txiki-txikitandik, jaiotzetik bertatik, barne-muinetan duen herria, Elgoibar hain zuzen ere, aukeratu duelako doktore tesia biribiltzeko eta ontzeko. Zer eta, bere ofizioari jarraituz, bertako euskara izan du aztergai, zoli eta zabal, hainbat arlo ukitu dituela artean; besteak beste, fonologia, izenaren morfologia, aditzaren morfologia, sintaxia, esaerak, esapideak eta interjekzioak, hiztegia, testuak eta aurreko horiekin lortu dituen ondorioak.

Mirestekoa ere bada nola egin duen egileak bere ikerketa. Hainbatez, unibertsitate irakasle izanik, egun hizkuntzalaritza garaikideak eskaintzen dituen baliabide guztiak erabili ditu herri mailatik goi mailara eramateko Elgoibarko euskararen xehetasun, zertzelada eta ezaugarriak.

Horretarako meritua baditu Jesus Mari Makazagak, batez ere, akademikotasunaren aldetik. Irakasletzak ez ezik, Euskaltzaindiaren Gramatika batzordearen idazkaritzak ere halakoak eman dizkio, euskararen normatibazio ahaleginetan arlo horrek duen pisua ukatu ezina baita.

Horrexegatik ere, eskertzekoa da egilearen ekimena, aukera eman diolako Euskaltzaindiari *IKER* bilduman argitaratzeko. Pozarren hartu du Akademiak hori, eta hala gauzatu du.

Egun, kulturgintzak, inoizkorik agerikoan, behar ditu loturak indartu, sinergiak bilatu. Aspaldikoa da Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren artekoa. Aspaldikoa bada ere, ez, ordea, azalekoa. Hala

frogatzen du bi erakundeen arteko soka luzean liburu honek dakarren
koxka berria.

Har bitza, hortaz, egileak, gure agiantzarik onenak, eginarentzat eta
egitekoentzat!

Andres Urrutia
euskaltzainburua

AGURRA

(EHU/UPV)

Hala egilearen ibilbideagatik nola liburuagatik beragatik, *Elgoibarko ahozko euskara* liburuak toki berezia merezi zuen Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko hitzarmenean.

Jesus Mari Makazaga doktoreak urte luzeetan lan egin du Euskal Herriko Unibertsitatean, Euskal Filologia saileko irakasle-lanetan eta Euskara Zerbitzuko aditu-lanetan, eta urte horietan guztietan lan egin du Euskaltzaindiaren Gramatika batzordearentzat ere, azken urteetan batzordearen idazkari. Eta esan behar da bai irakasle-lanetarako eta bai Euskara Zerbitzuko lanetarako oso aberasgarria izan dela Jesus Mari Makazagak aldi berean Euskaltzaindiaren Gramatika batzordean ere jardutea, garrantzizkoa baita gramatika egosten ari den unean eta gunean dagoen norbait izatea unibertsitatean ere, ikasleen aurrean eta hizkuntzaren kalitatearen ardura duen zerbitzuan.

Liburua bera ere bereziki egokia da bi erakundeen arteko hitzarmenerako. Tesia izan arren, ez da ikerketan lehenengo urratsak ematen ari den gaztearen lehendabiziko emaitza, ikerketa-lanean urteetako esperientzia duen ikerztailearen lan biribildua baino; eta hain zuzen tesia delako, ikerketa zientifikoari eskatzen zaizkion estandar guztiak betetzen ditu, hala lan-metodologian nola emaitzen aurkezpenean.

Gaia ere bereziki interesgarria da Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaarentzat: herri-hizkera baten azterketa sistematikoa da, eta, euskarazko prosa zientifikoa sendotzeko gure ahaleginean, ezin da ukatu herri-hizkerak ongi ezagutzea dela abiaburuko baldintzetako bat, prosa zientifikoa aberastu nahi duenak herri-hizkeretan aurkituko baitu baliabideen harrobietako bat.

Liburuaren etekin handiena irakurle adituak erdietsiko du, zalantzarik gabe, baina, ni bezala, hizkuntzalaritzan aditua ez denak ere erraz (eta gozame-nez!) irakurriko ditu liburu honetako orrialde gehienak, Jesus Mari Makaza-garen idazkera dotoreari esker.

Jon Irazusta
UPV/EHUko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordea

erabaki behar da lehenik zer-nolako datuak bildu nahi diren. Hau da, ikerketak muga batzuk behar ditu. Gero erabaki behar da nondik jasoko diren datu horiek, berri emaileen lekukotasunek ez baitute berdin balio: Elgoibarko hizkera dela eta, aukeratzen bada han bizi den norbait lekuko gisa, baina lekuko horrek bizitza erdia Kalifornian egin badu, edo Hondarribian, hark eman ditzakeen datuek ez dute balio bere bizitza osoa Elgoibarren eman izan duen beste lekuko baten datuek bezainbat. Jakina, lanak arrakastaz izateko, datu horiek guztiak aztertu behar dira gero, kontraesanak ikusten direnean berriz ere lekukoengana jo eta kontraesan horiek argitzen saiatu (batzuetan ez da modurik izaten hori egiteko, gainera). Eta gero, datuen emaitzak ordenatu ondoren, txukun aurkeztu behar dira. Hori guztia eta gehiago aurkituko duzu lan honetan.

Uste gabeko gauzak aurkitzen dira euskalkiak aztertzeke orduan. Beti izaten dugu barneko inpresio bat, “mintzo hau ondo ezagutzen dut, neurea baita, neure etxean ikasitakoa”. Baina behin baino gehiagotan ez da hori betetzen, eta konturatzen gara, konturatu, ustez hain ongi genekien horretan beti badirela, norekin hitz egin, nondik bildu datuak, berriak gertatzen zaizkigun hainbeste esateko modu, arrotz egiten zaizkigun hainbeste hitz, pentsatzen ez genituen ahoskatze moduak, eta abar. Horiexek dira, hain zuzen ere, galduko direnak, baten batek horiek guztiak biltzeko lana hartzen ez badu behintzat.

Ordu asko daude lan honen azpian, eta ordu horiei esker, eta Makazagaren argitasunari esker, orain gehiago dakigu Elgoibarko hizkeraz, eta gehiago, jakina, euskararen gainean ere. Lan honetan informazio nahiko aurkituko duzu Elgoibarko euskararen sistemaz: fonologiako ezaugarri nagusiak, eta ahoskeran dauden arauak, izenaren eta aditzaren morfologiak eta sintaxiak. Hori gutxi izango balitz bezala, esaerak eta esapideak ere biltzen ditu, eta azkenean bada hiztegi berezi bat, eta euskalki horretako hizkera islatzen duten testuak.

Holako lanak egitea ezinbestekoa da. Holako lanak eginez bakarrik joango gara osatzen pixkanaka zein den egiaz euskara mintzatuaren egoera, eta gai izango gara errazago, eta datu fidagarriagoekin, zedarritzeko euskalkien arteko mugak ere. Holako lanek bakarrik berrituko dute XX-XXI. mendeko euskalkien mapa. Egia da Bonapartek berea egin zuela bere garaian. Harritzekoa da, horretara jarriz gero, zenbat lan egin dezakeen pertsona batek, besteok ikusten ez ditugun gauzak ikusteko abilezia duenean. Eta lan egiteko ardura. Mapa horrek eragin handia izan du euskaltzale eta euskalari guztien artean. Modu sistematiko batean Koldo Zuazo gure unibertsitateko irakaslea hasi da berriz ere, aspaldi honetan, mapa hori gaurkotzen eta beste eredu bat proposatzen.

Jesus Mari Makazagak dakarrena ondo dator guztiontzat mapa horren beste ezaugarri batzuk erakutsian uzteko. Izango ahal dugu aukera holako lan gehiago ikusteko! Azken batean, euskalkiak ezagutzea euskara bera ezagutzea besterik ez baita.

Pello Salaburu
EHUko katedraduna eta doktoretza-tesiaren zuzendaria

EUSKALKIAK EZAGUTU

Euskal hizkuntzalaritza urrats handiak ematen ari da azken urteotan, batez ere Koldo Mitxelena zenaren lanak astindu berria eman zionean egin behar horri, euskara aztertzeari alegia. Horren atal bat besterik ez da euskal dialektologia bera ere.

Batek baino gehiagok pentsa dezake Bonapartek egin zituen lanak egin ondoren, eta gero gure herriak (herri batzuk bederen) mikrofonoz eta kameraz bete ondoren, euskalkien inguruan dena, edo gehiena, egintxe dagoela. Ez da egia. Eta Jesus Mari Makazaga irakasleak aurkeztzen duen liburu honetan (Euskal Herriko Unibertsitatean aurkeztutako doktore tesiaren ondorioetako bat) ikusten da argi eta garbi hemen diodana. Ezinbestekoa da segitzea holako lanak egiten, herriz herri mintzo den euskara biltzen. Biltzen eta aztertzen modu sistematiko batean. Hainbeste arrazoi daude hori egiteko.

Hasteko, euskara mintzatzeko modu bat galtzen ari da, edo aldatzen bederen: ez dute berdin hitz egiten 10 urteko haurrek, haien gurasoekin edo haien aitona-amonekin erkatzen baditugu. Hori hizkuntza guztietan gertatzen da, egia da. Baina euskaraz jauzi hori handiagoa da, aldaketak lastertasun handiagorekin gertatzen baitira. Euskara erregistro berrietara hedatzeak eragin dio kontuari: telebista ikusten badugu, irratia entzuten, eta eskola eta ikaste-txeetan bidalitako liburuak irakurtzen, pentsatzekoa da azkenean horren azpian geratuko garela eta gero eta joera handiagoa izango dugula modu berdintsuraz hitz egiteko. Horretara jotzea da naturalena. Egia da, horrekin batera, euskalkien artean badirela ñabardura eta berezitasun asko, baina beste asko galdu egiten dira. Eta galduko dira, inork ere biltzen ez baditu. Horregatik da hain beharrezkoa dialektologia lanak egitea, horrek ematen baitigu aukera gure hizkuntza hobeki ezagutzeko.

Makazaga irakasleak lan handia egin du hemen. Kontua ez baita bakarrik datuak biltzea. Datuak biltzeko, hemen eta ikerketa mota guztietan,

ESKER ONA

Liburu hau Euskal Herriko Unibertsitatean 2009ko azaroaren 20an aurkeztu zen doktoretza-tesi baten emaitza nagusia da. Doktoretza-tesia *Elgoibarko hizkera* izenburuarekin aurkeztu zen, eta *Aho batez bikain cum laude* kalifikazioa eman zion epaimahaia.

Pello Salaburu Etxeberria izan nuen tesiaren zuzendari, eta honako jaun-
andre hauek izan ziren epaimahaikide: Miren Azkarate Villar, Xarles Videgain
Castet, Patxi Goenaga Mendizabal, Orreaga Ibarra Murillo eta Beñat Oihar-
tzabal Bidegorri.

Bihoakie guztiei nire esker ona; zuzendariari, urte hauetan eman didan
laguntzagatik, eta epaimahaikideei, tesia hain xeheki aztertzeke hartu zuten
lanagatik eta egin zizkidaten ohar zoliengatik: zalantzarik gabe, aberatsagoa da
liburu hau egun hartan aurkeztu nuen tesia baino, epaimahaikideen ohar ho-
riengatik.

Euskaltzaindiari eta Euskal Herriko Unibertsitateari ere adierazi nahi diet
nire esker ona, doktoretza-tesia argitaratzeko eman didaten erraztasunengatik.

Halaber, jende askoren laguntza izan dut lana burutzean, eta haiei guztiei
ere eskerrak eman nahi dizkiet; Atariko atalean aipatzen ditut guztiak.

Jesus Mari Makazaga Eizagirre

AURKIBIDE OROKORRA

ATARIKOA	1
0. SARRERA	7
1. FONOLOGIA	33
2. IZENAREN MORFOLOGIA	95
3. ADITZAREN MORFOLOGIA	179
4. SINTAXIA	247
5. AHOZKO HIZKERAREN EZAUGARRI BATZUK	319
6. HIZTEGIA	411
7. TESTUAK	535
8. ONDORIOAK	581
9. BIBLIOGRAFIA	613

AURKIBIDE ANALITIKOA

ATARIKOA	1
0. SARRERA	7
0.1. ZENBAIT DATU ELGOIBARREN KOKAPENAZ ETA MUGEZ .	7
0.2. ELGOIBARKO HIZKERAREN KOKAPENA DIALEKTOLOGIA- REN HISTORIAN	10
0.3. ZENBAIT DATU ELGOIBARKO HIZKERAREN EZAGUTZAZ ETA ERABILERAZ	18
0.4. IKERLANA ZERTAN DATZAN. ERABILITAKO METODOLO- GIA ETA OINARRI TEORIKOAK	19
0.5. ERABILI DIREN GRAFIARI BURUZKO IRIZPIDEAK	26
1. FONOLOGIA	33
1.1. ELGOIBARKO EUSKARAREN SISTEMA FONOLOGIKOA	33
1.1.1. BOKALAK	33
1.1.1.1. Bokal luzeak	33
1.1.2. DIPTONGOAK	35
1.1.3. KONTSONANTEAK	36
1.1.3.1. Herskariak	37
1.1.3.2. Frikariak	38
1.1.3.3. Afrikatuak	39
1.1.3.4. Sudurkariak	39
1.1.3.5. Albokoak	40
1.1.3.6. Dardarkariak	41
1.2. ARAU FONOLOGIKOAK BOKALETAN	42
1.2.1. -O- BOKALAREN IGOERA: <i>o > u / _ a, e, o</i>	44
1.2.2. /i_ V/ ARTEKO [j] EPENTESIA	45

1.2.3.	DISIMILAZIOA: <i>-a + a > -ia</i>	47
1.2.4.	<i>-E</i> - BOKALAREN IGOERA: <i>e > i / _ a, e, o</i>	49
1.3.	BILAKABIDE FONETIKOAK BOKALETAN ETA DIPTON- GOETAN	50
1.3.1.	<i>-E > -A</i> HITZ-AMAIERAN	50
1.3.2.	<i>E > A / _rr</i>	51
1.3.3.	BOKAL ASIMILAZIOA: <i>A > E / I, U (Konts.)</i>	52
1.3.4.	HITZ-HASIERAKO <i>U- / I-</i> ALTERNANTZIA	54
1.3.5.	BOKAL-SINKOPA	55
1.3.6.	<i>-OI / -OE</i> ALTERNANTZIA HITZ-AMAIERAN	56
1.3.7.	<i>-AI / -EI</i> ALTERNANTZIA	57
1.3.8.	DIPTONGOEN BAKUNTZEAK	57
1.3.9.	<i>-OI / -UI</i> ALTERNANTZIA	58
1.3.10.	BOKALERDIAK KONTSONANTE BIHURTZEA	58
1.4.	KONTSONANTEEN ARAU FONOLOGIKOAK	59
1.4.1.	TXISTUKARIEN BEREIZKETAREN NEUTRALIZAZIOA	59
1.4.2.	KONTSONANTEEN PALATALIZAZIOA EDO BUSTI- DURA	60
1.4.2.1.	<i>N</i> eta <i>L</i> -ren bustidura	61
1.4.2.2.	Leherkarien bustidura: <i>T</i> eta <i>D</i>	62
1.4.2.3.	Txistukarien bustidura: <i>S</i>	65
1.4.2.4.	Bustidura adierazgarria	66
1.4.3.	LEHERKARI AHOSTUNEN AHOSKABETZEA	67
1.4.4.	TXISTUKARI FRIKARIEN AFRIKATZEA	68
1.4.5.	KONTSONANTE-TALDEAK BAKUNTZEA	69
1.5.	KONTSONANTEEN ALDAKETA FONETIKOAK	71
1.5.1.	BOKAL ARTEKO KONTSONANTEEN LEUNTZEA eta ERORTZEA	71
	• <i>d > ð > Ø / V_V</i>	72
	• <i>g > ɣ > Ø / V_V</i>	72
	• <i>b > β > Ø / V_V</i>	73
	• <i>r > Ø / V_V</i>	73
	• <i>j > Ø / V_V</i>	74
	• <i>k > Ø / V_V</i>	74
1.5.2.	<i>L / D</i>	75
1.5.3.	<i>D / R</i> ALTERNANTZIA	75
1.5.4.	<i>F / P</i> ALTERNANTZIA	76
1.5.5.	<i>K / G</i> ALTERNANTZIA	77
1.5.6.	<i>-ND- / -NT-</i> ETA <i>-NB- / -NP-</i> ALTERNANTZIAK	78
1.5.7.	<i>-Z / -TZ</i> ALTERNANTZIA	78

1.5.8.	<i>L > N</i>	79
1.5.9.	<i>EZ</i> PARTIKULAK ERAGITEN DITUEN BILAKABIDEAK	79
1.5.10.	ADITZ-IZENETAKO AZKEN <i>-N</i> -AREN GALERA.....	80
1.5.11.	ADITZEAN GERTATZEN DIREN TXISTUKARIEN AFRIKATZEAK	81
1.5.12.	BESTELAKO ALDAKETA ETA ALTERNANTZIA BAZUK	81
	▪ <i>-M- / -NB-</i> ALTERNANTZIA	81
	▪ KONTSONANTE-TALDEAK SORTZEA	82
	▪ METATESIAK	82
	▪ <i>G / R</i> ALTERNANTZIA	82
	▪ <i>T / P</i> ALTERNANTZIA	82
	▪ <i>J / K</i> ALTERNANTZIA	82
	▪ ERROTAZISMOA (<i>RS / ST</i>)	83
	▪ <i>L / R</i> ALTERNANTZIA	83
	▪ KONTSONANTEAK SORTZEA	83
	▪ ADITZ-TALDEETAKO ETA BESTELAKO KONTRAKZIOAK.....	83
1.6.	AZENTUA.....	84
1.6.1.	ELGOIBARKO AZENTUERA	86
1.6.1.1.	Lexikoa: izenak eta izenondoak	86
1.6.1.2.	Kasu-markak eta postposizioak	88
1.6.1.3.	Aditza	89
1.6.1.4.	Toponimia	91
1.6.2.	LABURBILDUZ	92
2.	IZENAREN MORFOLOGIA	95
2.1.	KASU-MARKEN ETA POSTPOSIZIOEN TAULAK.....	97
2.1.1.	ATZIZKIEN TAULA OROKORRA.....	97
2.1.2.	BOKALEZ AMAITUTAKO IZEN BIZIDUNAK: <i>EMAKUME</i>	98
2.1.3.	KONTSONANTEZ AMAITUTAKO IZEN BIZIDUNAK: <i>GIZON</i>	99
2.1.4.	BOKALEZ AMAITUTAKO IZEN BIZIGABEAK: <i>MENDI</i>	100
2.1.5.	KONTSONANTEZ AMAITUTAKO IZEN BIZIGABEAK: <i>TONTOR</i>	101
2.1.6.	BOKALEZ AMAITUTAKO PERTSONA-IZEN BEREZIAK: <i>IRENE</i>	102
2.1.7.	KONTSONANTEZ AMAITUTAKO PERTSONA-IZEN BEREZIAK: <i>IBON</i>	103

2.1.8.	BOKALEZ AMAITUTAKO LEKU-IZEN BEREZIAK: <i>KARAKATE</i>	104
2.1.9.	KONTSONANTEZ AMAITUTAKO LEKU-IZEN BEREZIAK: <i>ATXOLIN</i>	105
2.1.10.	IZENORDAINAK	106
2.1.11.	IZENORDAIN INDARTUAK	108
2.1.12.	ERAKUSLEAK: <i>HAU, HORI, HAURA</i>	110
2.1.13.	ERAKUSLE INDARTUAK: <i>BE(R)AU, BE(R)ORI, BE(R)A</i>	113
2.1.14.	<i>BAT</i> eta <i>BATZUK</i>	116
2.2.	ATZIZKI-JOKOAREN EZAUGARRI OROKOR BATZUK	117
2.2.1.	GENERO-BEREIZKETA	117
2.2.2.	PLURAL HURBILA (- <i>OK</i>)	118
2.2.3.	FORMEN SINKRETISMOA	119
2.2.4.	AZENTUA, ADIEREN BEREIZGARRI	120
2.2.5.	- <i>AN</i> ESPLETIBOA ZENBAIT POSTPOSIZIOTAN	120
2.3.	ATZIZKIAK BANAN-BANAN: FORMAK ETA ERABILERA AIPAGARRI BATZUK	121
2.3.1.	ABSOLUTIBOA	121
2.3.2.	PARTITIBOA	122
2.3.3.	ERGATIBOA	123
2.3.4.	DATIBOA	124
2.3.5.	GENITIBOA	125
	▪ Kasu berezi bat: <i>-rena (-renekua, -renian...)</i>	125
2.3.6.	SOZIATIBOA	126
	▪ Zenbait pentsamendu- eta sentimendu-aditzekin	126
	▪ Postposizioek eskatuta: <i>-kin batera</i>	126
	▪ Kidetasuna adierazteko	127
	▪ <i>-eLA</i> moduzkoaren ordaina izan daitekeena (edutea)	127
	▪ Baliabidea edo instrumentaltasuna adierazteko	128
	▪ Kausa-kutsua dutenak (= <i>-eLA ETA</i>)	128
	▪ Emendiozkoa (<i>ETA</i> -ren ordain)	129
	▪ Zenbait esapide	129
	▪ Konparazioak egiteko	129
	▪ Postposizio-metaketa: <i>-kingo</i>	129
2.3.7.	DESTINATIBOA	130
	▪ Adizlagun-erabilera	130
	▪ Izenlagun-erabilera	131
	▪ <i>-RAKO</i>	132
2.3.8.	MOTIBATIBOA	132
	▪ Arrazoia edo zergatia	133

▪ Hizketagaia ere adieraz dezake: <i>preguntau, esan, (berbetan) jardun, ari izan ... -gatik</i>	133
▪ Aditz-izenari eransten zaio kausazko edo helburuzko mende-koak osatzeko	134
▪ <i>-AN</i> espletiboa ere eransten zaio	134
▪ <i>Ze(r)g)atik, ze(r)g)atik eze</i>	134
2.3.9. INSTRUMENTALA	134
▪ Adberbio eta lokuzio adberbialak sortuz	135
a) Nolakotasunezko adberbioak	135
b) Denborazko adberbioak	136
▪ Postposizio batzuek hala eskatuta	136
▪ Esapide jakin batzuetan	136
▪ Aditzari atxiki dakiok: <i>hartu(a)z</i>	137
▪ Izenlagun zenbait osatzeko (<i>-z + -ko</i>)	137
2.3.10. PROLATIBOA	137
2.3.11. INESIBOA	138
2.3.12. LEKU-GENITIBOA	139
▪ <i>Nongo berri izan / Zeren berri izan</i>	139
▪ <i>Norako bidea / Nongo bidea / Nora bidea</i>	140
▪ <i>Ha(r)ako ... haura / Horrako ... / Handiko</i>	140
2.3.13. ABLATIBOA	140
▪ Zenbait aditzek edo predikatuk hala eskatuta	141
▪ Postposizio jakin batzuk hala eskatuta	141
▪ Denbora-mugaren hasiera: <i>...-tik ...-ra</i> korrelazioa	141
▪ Maiztasuna adierazteko	142
▪ Balio partitiboa	142
▪ Esapide bereziak	142
▪ <i>-RIK</i> ablatibo zaharra	142
▪ <i>-AN</i> espletiboa duen forma, <i>-TIKAN</i>	143
▪ ABLATIBOA + (<i>KO</i>) + <i>ALDIAN</i> : <i>hemendikaldian, handikaldian</i>	143
2.3.14. ADLATIBOA	143
▪ Zenbait aditzek hala eskatuta: <i>nora ezkondu, nora egin</i>	144
▪ Zenbait aditzen oinarri	144
▪ <i>-ra bidian</i>	144
2.3.15. HURBILTZE-ADLATIBOA	144
2.3.16. MUGA-ADLATIBOA	146
▪ Espazioa	146
▪ Denbora	146
2.3.17. BIZIDUNEN PARADIGMAK	146

2.4. POSTPOSIZIO ASKEAK	148
2.5. IZEN-SINTAGMARI BURUZKO BESTE JAKINGARRI BATZUK	157
2.5.1. ERAKUSLEA + IZENA + ERAKUSLEA: <i>HAU GIZONAU</i>	157
2.5.2. ZENBATZAILEAK	158
A. IZENA + <i>BI</i>	158
B. FORMA MUGATUAK DENBORA ADIERAZTEN DUTEN SINTAGMA ZENBATZAILEDUNETAN	159
C. ZENBATZAILE ZEHAZTUGABE BATZUK	159
2.5.3. IZENONDOEN eta ADBERBIOEN GRADUATZAILEAK	160
2.6. HITZ ERATORRIAK: ERATORPEN-MORFEMAK	162
2.6.1. ATZIZKIAK	162
▪ IZEN- ETA IZENONDO-SORTZAILEAK	162
▪ ADITZ-SORTZAILEAK	172
▪ ADBERBIO-SORTZAILEAK	173
2.6.2. AURRIZKIAK	174
2.6.3. ARTIZKIAK	174
2.7. HITZ ELKARTUAK	175
2.7.1. IZEN-SORTZAILEAK	175
2.7.2. IZENONDO-SORTZAILEAK	175
2.7.3. ADITZ-SORTZAILEAK	175
2.7.3. HITZ-ELKARTUETAKO BIGARREN OSAGAI OHIKO BATZUK	176
3. ADITZAREN MORFOLOGIA	179
3.1. TRATAMENDUEI BURUZKO OHAR BATZUK	179
3.2. ADITZ-FORMAK AZTERTZEN	183
3.2.1. ADITZ-FORMA JOKATUGABEAK	183
3.2.1.1. Aditz-partizipioak	183
3.2.1.2. Aditz-izenak	185
3.2.1.2.1. Aditz-izena duten egitura berezi batzuk	187
- <i>TZIA EIN</i>	187
- <i>TZIA EUKI</i>	187
- <i>TZERIK EZ EUKI / EZ EGON</i>	187
- <i>TZERA JUAN</i>	188
- <i>TZEKO EGON</i>	188
- <i>TZEKUA IZAN</i>	188
- <i>TZIA NAHI IZAN</i>	188

3.2.2.	ADITZ-FORMA JOKATUAK: ERROAK ETA MORFEMAK	188
3.2.2.1.	PLURALGILEAK ELGOIBARKO HIZKERAN . . .	188
	▪ <i>-Z</i> da pluralgile nagusia	188
	▪ Pluralgileen erredundantzia	189
	▪ Pluralgilea falta duten formak: komunztadura eza . .	189
3.2.2.2.	ANALOGIAREN ERAGINA MORFEMETAN . . .	190
3.2.2.3.	PARADIGMEN ARTEKO NAHASTEAK	191
3.2.2.4.	ADITZ-ERROAK ETA BESTELAKO MORFEMAK	192
	▪ NOR sailean, <i>-A-</i> eta <i>-E-</i> erroak erabiltzen dira . . .	192
	▪ NOR-NORK saileko aditzetan, <i>-O-</i> eta <i>-E-</i> erabiltzen dira orainaldian	192
	▪ NOR-NORK saileko aditzetan, <i>-AU-</i> eta batez ere <i>-EU-</i> erroak erabiltzen dira orainaldian eta baldintza-ondorioko formetan	193
	▪ NOR-NORI-NORK paradigmako erroa <i>*-I-</i> da, eta ez <i>EUTSI</i>	193
	▪ <i>EGIN</i> aditza zenbait adizkiren erro	194
	▪ <i>JUAN</i> eta <i>ERUAN</i> aditzak	194
	▪ <i>IBILI</i> eta <i>ERABILI</i> aditzak	194
	▪ <i>JARDUN</i> eta <i>ARI IZAN</i> aditzak	194
	▪ NOR-NORI sailean, bereizgarria da hasierako <i>J-</i> . .	195
	▪ Adizki alokutiboetan, bereizgarria da hasierako <i>J-</i> . .	195
	▪ Iraganeko adizki batzuk: <i>Ø-</i> / <i>Z-</i>	196
	▪ Bigarren eta hirugarren pertsona pluralekoen marka <i>-E</i> da, eta ez <i>-TE</i>	196
3.2.2.5.	ADITZ PERIFRASTIKOAK ERABILTZEKO JOERA	197
3.2.2.6.	ADITZAREN JOKOKO BILAKABIDE FONOLOGIKOAK	197
3.2.2.7.	ADITZ FAKTITIBOAK EDO ERAGILEAK, <i>ERA(G)IÑ</i> ADITZAREN BIDEZ	198
3.3.	ADITZ BATZUEN ERREGIMEN BEREZIAK	199
	▪ <i>AKORDAU</i>	199
	▪ <i>BE(G)ITTANDU</i>	199
	▪ <i>DAMUTU</i>	199
	▪ <i>ENTENDI(D)U</i>	199
	▪ <i>EKIÑ</i>	200
	▪ <i>ERTEN (URTEN)</i>	200
	▪ <i>EUTSI</i>	200
	▪ <i>GOGORATU</i>	200
	▪ <i>HASARRAU</i>	201
	▪ <i>HELDU</i>	201

▪ <i>IXO</i>	201
▪ <i>JARDUN</i>	201
▪ <i>LAGUNDU</i>	202
▪ <i>ORATU</i>	202
▪ <i>PENTSAU</i>	202
▪ <i>ZORATU</i>	203
3.4. ADITZ-TAULAK	203
3.4.1. Aditz laguntzailea (indikatioa, ahalera, subjuntioa, agintera, baldintza)	206
3.4.1.1. NOR (DA aditza)	206
3.4.1.2. NOR-NORI (ZAIIO aditza)	210
3.4.1.3. NOR-NORK (DU aditza)	215
3.4.1.4. NOR-NORI-NORK (DIO aditza)	223
3.4.2. Aditz trinkoa (indikatioa eta baldintza)	234
3.4.2.1. NOR (DA aditza)	234
3.4.2.2. NOR-NORK (DU aditza)	236
3.4.2.3. Aditz trinkoei buruzko ohar batzuk	240
4. SINTAXIA	247
4.0. SARRERA	247
4.1. PERPAUS JUNTATUAK	248
4.1.1. PERPAUS JUNTATUEN ADIBIDEAK	249
4.1.2. EMENDIOZKOAK	249
▪ <i>ETA</i>	249
▪ <i>EZ EZE</i>	249
▪ <i>BANAKARITZA</i>	249
4.1.3. HAUTAKARITZAKOAK	251
▪ <i>EDO</i>	251
▪ <i>ALA</i>	251
4.1.4. AURKARITZAKOAK	251
▪ <i>BAINA</i>	251
4.1.5. IZEN-SINTAGMEN JUNTADURA BEREZI BATZUK ...	252
4.1.5.1. IZEN SINTAGMA + <i>ETA</i>	252
4.1.5.2. IZEN SINTAGMA + <i>EDO</i>	252
4.1.5.3. <i>ALA</i> ASKEA	252
4.2. MENDEKO PERPAUSAK	253
4.2.1. PERPAUS OSAGARRIAK	253
4.2.1.1. <i>-eLA</i>	253

4.2.1.2.	<i>EZE ...-eLA/Ø</i>	254
4.2.1.3.	<i>-eNA</i>	255
4.2.1.4.	<i>-eNIK</i>	256
4.2.1.5.	PERPAUS OSAGARRI IZENLAGUNAK: <i>-eN ERREZELUA; NOTIZIA ETORRI...-eLA; -eLAKUAN; -TZEKO KONTUA</i>	257
4.2.1.6.	ZEHARGALDERAK	259
	A. <i>-eN</i> menderagailua dutenak (bai-ez erakoak) . . .	259
	B. Galde-hitza ... <i>-eN</i> (zati-zehargalderak)	259
	C. <i>IA/ABER/IA ABER...-eN</i>	260
	D. GAUZAK ZEREN ARABERA DIREN ADIE- RAZTEN DUTENAK.....	261
	E. BEREZ ZEHARGALDERAK EZ DIRENAK. .	262
4.2.1.7.	SUBJUNTIBOKO ADITZA DUTENAK.....	262
4.2.1.8.	<i>-TZIA</i>	263
4.2.1.9.	<i>-TZERIK(AN)</i>	264
4.2.1.10.	<i>-TZEKO</i>	264
4.2.1.11.	<i>-TZEN</i>	265
4.2.2.	PERPAUS ERLATIBOAK	265
	4.2.2.1. <i>-eN</i>	265
	4.2.2.2. <i>-eNA</i>	268
	4.2.2.3. <i>-TUTAKO</i>	269
	4.2.2.4. GALDE-HITZA + PARTIZIPIOA + (<i>-A/-RIK</i>) . . .	271
4.2.3.	DENBORAZKO PERPAUSAK	271
	A. ALDIBEREKOTASUNA	271
	4.2.3.1. <i>-eNIAN</i>	271
	4.2.3.2. <i>-eNETAN</i>	272
	4.2.3.3. <i>-eN BAKOITZIAN (GUZTI(ET)AN, APURRE- TAN...)</i>	272
	4.2.3.4. <i>-TZERAKUAN</i>	273
	4.2.3.5. <i>BEHIÑ ...-eNIAN</i>	273
	4.2.3.6. <i>-eLA</i> denbora-balioa duena	273
	A.1. Aldiberekotasun estua	274
	4.2.3.7. <i>-eNERAKO</i>	274
	4.2.3.8. <i>-TZERAKO</i>	274
	4.2.3.9. <i>-TU ORDUKO</i>	275
	B. ALDI DESBERDINTASUNA	275
	B.1. Aurrekotasuna	275
	4.2.3.10. <i>-TU BAIÑO LE(HE)N(TXU)AGO</i>	275

4.2.3.11.	-TU AURRETIK(AN)	276
4.2.3.12.	-TZERAKO	276
4.2.3.13.	-TU ORDUKO	276
B.2.	Ondokotasuna	277
4.2.3.14.	-TU ONDOREN/ONDORENIAN/OSTIAN	277
4.2.3.15.	-TU ETA GERO	277
4.2.3.16.	-TUTAKUAN	278
4.2.3.17.	-TU ETA SEGITTUAN	278
4.2.3.18.	(BEHIÑ) ...-TU EZKERO	279
C.	IRAUPENA	279
C.1.	Iraupenaren aurreko muga	279
4.2.3.19.	-eNETIK(AN)	279
4.2.3.20.	-eN EZKERO	280
C.2.	Iraupenaren azken muga	280
4.2.3.21.	-eN ARTE/ARTIAN	280
4.2.3.22.	-TU ARTE/ARTIAN	281
4.2.3.23.	HARIK ETA ... ARTE/ARTIAN	281
D.	BESTELAKO ESAMOLDE BAT	282
4.2.3.24.	JUN DANEKO X URTIAN	282
4.2.4.	KAUSAZKO PERPAUSAK	282
4.2.4.1.	-eLAKO	282
4.2.4.2.	ZE(RG)ATIK(AN) ... Ø	283
4.2.4.3.	ZE(RG)ATIK EZE ... Ø	283
4.2.4.4.	ZE ... Ø	284
4.2.4.5.	ETA ENKLITIKOA	284
4.2.4.6.	ZELA / NOLA ...-eN	285
4.2.4.7.	ADITZ-PARTIZIPIO HUTSA (-TU)	286
4.2.4.8.	-eN ALDETIK	286
4.2.4.9.	-TZIAGATIK(AN)	286
4.2.4.10.	-TZIARREN	287
4.2.4.11.	-eLA TA	287
4.2.4.12.	BAIT-	288
4.2.4.13.	PORKE	288
4.2.4.14.	ZE(R) BA menderagailu?	288
4.2.5.	BALDINTZA-PERPAUSAK	289
4.2.5.1.	BA-	289
4.2.5.2.	BALDIN BA-	290
4.2.5.3.	-TU EZKERO	291
4.2.5.4.	-TZE EZKERO	291

4.2.5.5.	-TU EZIK(AN)/EZIAN	292
4.2.5.6.	-T(Z)EKOTAN, -TZEKUAN.	292
4.2.5.7.	-TZERA	292
4.2.5.8.	-TUANIAN.	293
4.2.5.9.	-eNIAN	293
4.2.5.10.	-eLA	293
4.2.6.	KONTZESIO-PERPAUSAK	294
4.2.6.1.	NAHIZ TA/DA ...-TU.	294
4.2.6.2.	-TU ARREN.	295
4.2.6.3.	BA-... ERE	295
4.2.6.4.	-TUTA ERE	296
4.2.6.5.	BAIÑA ENKLITIKOA	296
4.2.6.6.	BANAKARITZAZKOAK.	297
4.2.6.7.	PARTIZIPIODUN ESAPIDE BAT	298
4.2.6.8.	AUNKE	298
4.2.7.	KONPARAZIO-PERPAUSAK	298
4.2.7.1.	BERDINTASUNA.	298
4.2.7.1.1.	Maila	298
	▪ BEZIÑ (BEZAIÑ)	298
4.2.7.1.2.	Zenbatasuna	299
	▪ BESTE.	299
	▪ AIÑA.	299
	▪ -TZEKO LAIÑ.	300
4.2.7.1.3.	Modua	300
	▪ BEZELA/MODUAN	300
	▪ LEGEZ (LEZ, LEGE(Z)TXE).	301
	▪ LAKO(XE)	302
4.2.7.2.	DESBERDINTASUNA	302
4.2.7.2.1.	Maila	302
	▪ BAIÑO ...-AGO.	302
	▪ -REN/-KO ALDIAN.	302
	▪ ALDIA EGON	303
4.2.7.2.2.	Zenbatasuna (BAIÑO GEHIXA(G)O/GI- TXIA(G)O)	303
4.2.7.3.	KORRELAZIOAK.	304
	▪ ZENBAT (ETA) ...-AGO, (ORDUAN ETA) ... -AGO	304

4.2.8.	HELBURUZKO PERPAUSAK	304
4.2.8.1.	SUBJUNTIBOKO ADITZA DUTENAK.	304
4.2.8.2.	-TZE ALDERA.	305
4.2.8.3.	-TZIARREN.	305
4.2.8.4.	-TZIAGATIK.	306
4.2.8.5.	-TZEKO.	306
4.2.8.6.	-TZEKO INTENTZIUAKIN, ASMUAN	306
4.2.8.7.	-TZEKOTAN, -TZEKUAN	307
4.2.8.8.	-TU NAHIXAN.	307
4.2.8.9.	-TZERA.	307
4.2.9.	MODUZKO PERPAUSAK	308
4.2.9.1.	-eLA	308
4.2.9.2.	-eLARIK	309
4.2.9.3.	-TUAZ/-TUEZ.	309
4.2.9.4.	-TU A(HA)LA / -TU A(HA)LIAN	309
4.2.9.5.	-eN BEZELA	310
4.2.9.7.	-eN MODUAN	311
4.2.9.8.	-TZEKE.	311
4.2.9.9.	-TUTA.	311
4.2.9.10.	-TU BE/BA(G)E.	312
4.2.9.11.	-TURIK.	312
4.2.9.12.	-TU BIHARRIAN	312
4.2.9.13.	IXA ...-TUAN / -TZEKOTAN.	312
4.2.10.	ONDORIO-PERPAUSAK.	313
4.2.10.1.	HAIN/HAINBESTE ..., + PERPAUS NAGUSIA	313
4.2.10.1.	PERPAUS NAGUSIA, + HAIN/HAINBESTE ...	314
4.3.	TESTU MAILAKO LOTURA: LOKAILUAK.	314
4.3.1.	EMENDIOZKO LOKAILUAK.	314
4.3.2.	HAUTAKARIAK.	315
4.3.3.	AURKARITZAKOAK	315
	▪ BARREN lokailua, inguruetako lokailu berezia	316
4.3.4.	ONDORIOZKOAK	317
4.3.5.	KAUSAZKOAK.	318
5.	AHOZKO HIZKERAREN EZAUGARRI BATZUK	319
5.0.	SARRERA	319
5.1.	ESAERAK eta ESAPIDEAK.	323
5.1.1.	ESAEREN ETA ESAPIDEEN BILDUMA BAT.	324
5.1.2.	KONPARAZIO BIDEZKO ESAPIDE BATZUK	366

5.1.3.	ANIMALIAK ESAERA ETA ESAPIDEETAN	368
5.1.4.	ZENBAKIAK ESAERA ETA ESAPIDEETAN	369
5.1.5.	KOLOREAK ESAERA ETA ESAPIDEETAN	369
5.2.	INTERJEKZIOAK, ESKLAMAZIOAK, ERANTZUNAK....	369
5.2.1.	ESAPIDEAK ETA INTERJEKZIOAK ZERBAITI ERANTZUNEZ	371
	▪ Aurretik esan dena berrestekoak	371
	▪ Aurretik esan dena ukatzekoak	372
	▪ Norberaren egoeraren berri ematekoak	373
5.2.2.	LOKAILU BIDEZKO EGITURA ADIERAZGARRIAK	373
5.2.3.	GALDERA ERRETORIKOAK	374
5.2.4.	ERANTZUNA EMAN NAHI EZ DENEAN ERABILTZEN DIRENAK	375
5.2.5.	ERLIJIO-KUTSUKO INTERJEKZIOAK	375
5.2.6.	ERAKUSLEAK ETA ADBERBIOAK DITUZTEN INTERJEKZIOAK.	376
5.2.7.	BIRAO GISAKOAK.	377
5.2.8.	ANIMOAK EMATEKO ERABILTZEN DIRENAK	377
5.2.9.	BESTELAKO INTERJEKZIO ADIERAZGARRI BATZUK	378
5.3.	ONOMATOPEIAK.	379
5.4.	ELIPSIA.	384
5.5.	ERREPIKAPENAK	388
	▪ Errepikapen hirukoitzak	389
	▪ Errepikapena eta hurrenkera-aldaketa	389
	▪ Hitzen forma (eta ahoskera) ere alda daiteke	390
	▪ Maiztasuna adierazten duten errepikapenak	390
	▪ Aditzaren errepikapenak	390
	▪ Soinuen errepikapenak	391
	▪ Oihartzun-egiturak	391
5.6.	KONTAKIZUNAK BIDERATZEKO MOLDEAK.	391
	▪ <i>ETA</i> juntagailua (<i>TA</i> eta <i>DA</i> aldaerak)	391
	▪ <i>ZER DA, TA ... (ZE, TA ...)</i>	392
	▪ <i>HOLA TA HOLA, HAU TA HAU</i>	392
	▪ KONTAKIZUNETAKO BETEGARRIAK eta MAKULUAK.	392
5.7.	KONTRAKO ADIERA DUTEN UKAPENAK	393
	▪ Harridura adieraztekoak	394
	▪ Esaten duguna enfatizatzeakoak	394
	▪ Esan duguna berrestekoak	395
5.8.	EUFEMISMOAK	396

5.9.	ERDARAKADAK	397
	▪ Lokailuak	398
	▪ Zenbakiak (urtea eta adina batez ere)	398
	▪ Hiztegiko hitz arruntak	398
	▪ Interjekzioak ere izaten dira mailegu-iturri	399
5.10.	HITZ-ORDENA BEREZIA	399
5.11.	HASIERA-MARKATZAILEA DUTEN MENDEKO PERPAUSAK	401
5.12.	BESTELAKO EZAUGARRI AIPAGARRI BATZUK	402
	▪ Estilo zuzena	402
	▪ Mailegutza berezia	403
	▪ Graduatzaile, zenbatzaile eta izenlagun indargarriak egitura adierazgarrietan	403
	▪ Indargarri fonikoak	404
	▪ Bokatibo adierazgarriak	404
	▪ Egitura antitetikoak	404
	▪ Hiperbolea	404
	▪ Entonazioa	404
	▪ Mintzakideak osatu behar dituen enuntziatu bertan behera utziak .	405
	▪ Orainaldia iraganeko pasarteak kontatzean	405
	▪ Neurriak adierazteko egitura batzuk	405
	▪ Gutxi gorabeherako kantitateak adierazteko egitura bat: <i>bi-biru, lau-bost</i>	406
	▪ Adina adierazteko egitura batzuk	406
	▪ Data adierazteko egitura batzuk	406
	▪ Adibideak emateko egitura batzuk	406
	▪ Deskribapenak egiteko egitura batzuk	407
	▪ Aho-korapiloak	407
	▪ Hitz- eta soinu-jokoak	407
	▪ “Euskarakadak”	408
	▪ Code-switching-a	408
6.	HIZTEGIA	411
7.	TESTUAK	535
7.1.	ESKOLA	536
	7.1.1. ESKOLAKO ZIGORRAK	538
	7.1.2. DOTRINA ETA ESKOLAKO ZIGORRAK	539
7.2.	NESKAMETZA	540
7.3.	SOLDADUTZA	541

7.4.	GERRA ZIBILA	543
	7.4.1. GERRAOSTEKO POBREZIA	546
	7.4.2. GERRAOSTEKO HILETAK	548
	7.4.3. GERRAKO KONTUAK	549
7.5.	BASERRIA	549
	7.5.1. AZOKA ETA GANADU-FERIA	551
	7.5.2. KALEA ETA BASERRIA	552
	7.5.3. BASERRIKO LANA	553
	7.5.4. BASERRIA ETA EGURALDIA	553
7.6.	LANTEGIA	554
7.7.	ERROMERIAK	555
	7.7.1. “DULTZE MENE”	555
	7.7.2. IBILALDI LUZEAK	555
	7.7.3. NESKA-LAGUNTZEA	555
	7.7.4. NESKATAN EGITEN	556
7.8.	EZTEIAK, EZTEI-BIDAIK	557
7.9.	JOKOAK / JOLASAK	558
	7.9.1. ZINTA JOKOA	559
	7.9.2. PILOTAN MADALAN	559
	7.9.3. KAMIÑEROKO FRONTOIA	560
	7.9.4. PILOTA	560
	7.9.5. IBAIA	561
	7.9.6. APUSTUAK	561
7.10.	OSPAKIZUNAK	562
	7.10.1. “AMABIRJINA GAROTARAKO”	563
	7.10.2. DOMUSANTU EGUNA	564
	7.10.3. SAN ANTONIO EGUNA (URKIOLAN)	564
	7.10.4. SANTA ESKE EGUNA	564
	7.10.5. INUZENTE EGUNA	565
7.11.	EUSKARA	566
	7.11.1. EUSKALKIEI BURUZKO IRITZIA	567
	7.11.2. AUZOETAKO HIZKEREN ARTEKO DESBERDINTA- SUNAK ETA KALEKO ETA BASERRIKO HIZKERAK	567
	7.11.4. EUSKARA ETA FRANCO	570
	7.11.5. EUSKARA ETA FRANCO (2)	570
	7.11.6. EUSKARA ETA ESKOLA	571
	7.11.7. EUSKARA BATUA	571
	7.11.8. <i>ETB</i> -REN EUSKARA	571
	7.11.9. MARKINAKO ETA ELGOIBARKO EUSKARA	572

7.11.10.	GAZTEEN ETA ZAHARREN EUSKARA	572
7.11.11.	TRATAMENDU ALOKUTIBOA	573
7.12.	GAITZIZENAK	573
7.12.1.	POSTARIA	573
7.12.2.	GUTUNA DONOSTIARA	574
7.13.	GOSE- ETA HAIZE-URTEA	574
7.14.	ALTZOLAKO BERRI	575
7.14.1.	TXIRRINDULARIAK ALTZOLAN	578
8.	ONDORIOAK	581
8.1.	ELGOIBARKO EUSKARA MENDEBALEKO EUSKARAREKIN ALA ERDIALDEKOAREKIN?	582
8.1.1.	EZAUGARRI FONOLOGIKOAK	583
8.1.2.	EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK: IZENA	584
8.1.3.	EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK: ADITZA	585
8.1.4.	EZAUGARRI SINTAKTIKOAK	586
8.1.5.	LEXIKOA ETA ALDAERAK	587
8.2.	ELGOIBARKO EUSKARA INGURUKO BATZUEKIN ALDE- RATZEN: EIBAR, ELGOIBAR, MENDARO, MUTRIKU ETA DEBAKO DATUAK TAULETAN	588
8.2.1.	EZAUGARRI FONOLOGIKOAK DEBABARRENEAN	590
8.2.2.	EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK DEBABARRE- NEAN: IZENA	591
8.2.3.	EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK DEBABARRE- NEAN: ADITZA	592
8.2.4.	EZAUGARRI SINTAKTIKOAK DEBABARRENEAN .	596
8.2.5.	LEXIKOA ETA ALDAERAK DEBABARRENEAN	598
8.3.	AZKEN ONDORIOAK	607
9.	BIBLIOGRAFIA	613

LABURDURAK

Euskaltzaindiak bere gramatika- eta hiztegi-lanetan erabiltzen dituen laburdurak baliatu ditut, *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak* gramatikakoak eta *Hiztegi Batukoak*.

ad.	Aditza
adb.	Adberbioa
adlag.	Adizlaguna
arrunk.	Arrunkeria
euf.	Eufemismoa
fig.	Figuratua
g.er.	Gutxi erabilia
g.g.er.	Gaur gutxi erabilia
grad.	Graduatzailea
haur.	Haur hizkera
ik.	Ikus
interj.	Interjekzioa
IS	Izen-sintagma
iz.	Izena
izlag.	Izenlaguna
izond.	Izenondoa
izord.	Izenordaina
junt.	Juntagailua
lgart.	Lagunartekoa
lok.	Lokailua
onomat.	Onomatopeia
pei.	Peioratiboa
postpos.	Postposizioa
zah.	Zaharkitua
zenbtz.	Zenbatzailea

ATARIKOA

Hemen aurkezten dudan lan hau buruan aspaldi samarretik erabili dudan asmo baten emaitza da. Gasteizen, orduko Filologia eta Geografia-Historia fakultatean, ikasten ari nintzen garaitik behintzat bai, lehenagotik ez bada.

Garai hartako ikasketek eta ariketek zaletu egin ninduten hizkera edo corpus jakin baten sistema hartu eta hura xeheki aztertzea: Patxi Goenagak eta Pello Salaburuk sintaxiaren alorrean, Lourdes Oñederrak fonologiarenean, Ibon Sarasolak eta Blanca Urgellek dialektologiarenean, Endrike Knörr zenak morfologiarenean. Tamalez, ez ziren garai haietako ikasketa-planak gaur egungoak bezain trinkoak eta berezituak euskal gaietan, eta zegoenarekin konformatu behar (literatura grekolatinoa, gaztelaniaz idatzitako literatura lau urte luzetan, eta abar). Han hasi nintzen, gure gaietan eskaintzen zitzaigun-
txoarekin, hizkuntza-corpusak arloz arlo aztertzen.

Garai hartan, oso gustuko nituen Auspoa sailak argitara ematen zituen liburuak: Manuel Lasarterenak, Uztapiderenak, Antonio Zavalarenak... Liburu haiei zerien euskararen bizitasuna eta naturaltasuna biziki gozatzen eta estimatzen nituen.

Aldaerak aldaera, gurasoen eta aiton-amonen euskara zen liburu haietakoa: zuzena, zehatza eta naturala. Eta ikusten nuen belaunaldi berrietan ahultzen eta galtzen ari zela ahozko tradizioko euskara hori. Gazteen belaunaldian, gertakizunak eta bizikizunak kontatzeko erabiltzen den euskara ez da zaharragoek erabiltzen zutena, ez da haiena bezain zehatza eta naturala.

Ikusten nuen Deba ibarreko zenbait herritan hasiak zirela herri-hizkerak jasotzeko eta aztertzeko eginkizunean. Eibar izan da halako lanetan herri aitzindaria eta eredugarria: Toribio Etxebarriaren gerraosteko lanek eta Juan San Martinenek erakusten dute aspalditik zeudela interesatuta herri-hizkera ezagutzeko eginkizun horretan; geroago, batzordeka antolatutako ikertzaileak

hasi ziren izen-sintagma, aditza eta hiztegia aztertzen; Bergaran ere, urteak dira UNEDen inguruan langintza horretan hasi zirela, Juan Martin Elexpuru eta Jerardo Elortza, besteak beste; baita Arrasate eta Aramaio aldean ere, Txipi Ormaetxea eta Jerardo Elortzaren inguruan bildutako talde bat. Bazen Deba ibarrean Euskal Herri osoan ezagutu ez den tradizio bat herri-hizkerak ezagutzeko eta ezagutzera emateko.

Baziren, bestalde, handik eta hemendik jasotako aipamenak ere; Mitxelenak (1981a) egina da irakurri nuenez geroztik gogotik kendu ezinda erabili dudana:

“Pero esa frontera, que coincide en trechos con el frente de guerra tal como quedó estabilizado en octubre de 1936, jamás ha sido explorada, que yo sepa, en detalle, punto por punto. (...) Así, en relación con la ‘distancia’ entre Brinkola y Oñate, ¿cuál es la que separa a Eibar de Elgoibar o a Ondarroa de Motrico? Antes de levantar teorías, sería necesario dedicar algún tiempo al humilde, trabajoso pero indispensable menester de observar los hechos. Habría también que ver, puesto que las consideraciones que se hacen son cuantitativas, si no hay manera de cuantificar las observaciones.”

Elgoibarren ez zegoen ezer askorik landua, eta goian aipatu ditudan arrazoi horiek guztiek eraman ninduten Elgoibarko euskara aztertzen hastera: halako lanak egitea gustuko izatea, ahozko euskara landu nahia, egoera soziolinguistikoari nolabait aurre egin beharra, Deba ibarreko tradizioari era naturalean jarraitzea eta, azkenik, elgoibartar ez diren gurasoen seme izanik, Elgoibarko euskara sakonkiago ezagutzeko interes pertsonala.

Horrek guztiak ekarri nau orain aurkezten dudan lan honetara.

Hasieran, urteetan nik neure aldetik batuta neuzkan egitura aipagarri eta bereziak alde batera utzita, datu-bilketa sistematiko bati ekin nion, Elgoibarko Izarra kultur elkartearen laguntzaz osatutako talde baten gidari nintzela: adineko hiztunengana jo genuen indargaltzen edo are galtzen ari zitzaizkigun hitzen, egituren eta esamoldeen bila, haien euskararen bila. 1999-2001 urteen inguruan egin genizkien elkarrizketa libreak (eta, gerora, berariaz bilatutako inkestak) garaitu haietan 70 urte ingurutik gora zituzten berri-emaileei, gizonetzko nahiz emakumezko, kaleko zein baserriko, Elgoibarko auzo guztietako eta inguruko herrietako (Eibar, Soraluze, Mendaro, Mutriku, Deba, Azkoitia eta Etxebarri).¹

¹ Lan honetan guztian zehar, askotan erabili dut “adineko” izendapena: izendapen hori erabiltzen dudan bakoitzean, berri-emaile hauei buruz ari naizela adierazi nahi dut.

Handik abiatu zen ikerlana, eta handik etorri zen lehenbiziko emaitza: Elgoibarko Izarrari eta herriari “zor” nion dibulgazio-liburu bat, *Elgoibarko euskara: berbak, egiturak eta irakurgaiak*, Elgoibarko Izarraren ekimenez eta Elgoibarko Udalaren laguntzaz 2007 urtean argitaratu zena.

Lehenbiziko urrats horren ondoren, erkidego zientifikoari zuzendutako lana erredaktatzeari ekin nion, eta esku artean duzun lan hau da ekimen horren azken urratsa.

Ez dut hemen agortutzat ematen gaia; gauza asko falta da oraindik ikeritzeko: azentuaren eta entonazioaren arlotik hasi eta akaberarik ez duen hiztegian amaitzeraino. Ikusten ditut, han eta hemen, hobebideak, eta ez dut zalantzarik Elgoibarko euskararen sakontze honetan jarraituko dudala. Gustuak gustu, ge-roak erabakiko du zer arlori helduko diodan bihar-etziko eginkizun horretan.

Gizalegekoa da, eta ezin naiz geratu ikerlan honetan lagundu didatenei eskerrak eman gabe.

Lehenik eta behin, eskerrak Elgoibarko Izarrari, hasierako urratsetan proiektua abian jartzen eman zidaten laguntzagatik: Ibon Arriola, Irune Iriondo eta Ainhoa Lodoso izan nituen laguntzaile finak hasierako datu-bilketa hartan. Elgoibarko Udalari ere bai, datu-bilketa hura aurrera eramateko emandako diru-laguntzagatik.

Datu-biltzaileok, ordea, ez genuke aztergairik berri-emailerik gabe. Finak eta jarrera ezin hobekoak izan ditugu. Batzuk, zoritxarrez, joan zaizkigu gure arteak. Denei, dauden lekuan daudela, bihotzez eman nahi dizkiet eskerrak, euren etxe eta baserrietako ateak hain era eskuzabalean irekitzeagatik eta eskatu zaien guztia emateko prest agertzeagatik.

Honako hauek dira elkarrizketatutako berri-emaileak, herriz herri sailkatuak:

ELGOIBAR

Pastora Ansola (Otso Txiki baserria, 80 urte)²

Teodora Arakistain † (Antxola baserria, 93 urte)

Joxepa Aranberri † (kalea, 89 urte)

Bittor Arrieta (kalea, 71 urte)

Juanito Arrieta † (kalea, 80 urte)

Ventura Arrieta (San Antolin, Olazarra baserria, 72 urte)

² Elkarrizketa egin zitzaizenean zuten adina jaso dut hemen.

Agustina Arrizabalaga (kalea, 85)
Pedro Artetxe † (Andikao baserria, 84)
Pedro Barrutia † (kalea, 80)
Joxe Mari Betelu † (kalea, 66)
Balentin Egaña (Bigoiñ baserria, 62)
Inazio Egaña (Bigoiñ baserria, 70)
Luis Etxaniz † (Munaundi baserria, kalea, 70)
Joxe Gurrutxaga (Garagartza baserria, 78)
Katalina Iriondo (Altzola, 70)
Pako Isasti (Altzola, 68)
Bizente Lariz † (Altzola, 77)
Pedro Lariz (Altzola, 73)
Floren Leiaristi (kalea, 69)
Juliana Lete † (Ipintza baserria, 92)
Joxe Lizarralde † (Agarre baserria, 83)
Imanol Mendikute (kalea, 72)
Eulali Mugerza † (Arriaga, 88)
Agapita Soraiz † (kalea, 86)
Margari Soraluze † (kalea, 67)
Dionisio Txurruka † (Talaixa baserria, 77)
Manolo Unzilla (kalea, 73)
Iñaxi Zendoia † (Andikao baserria, 86)

EIBAR

Serafin Basauri

SORALUZE

Bernardo Maiztegi
Jose Luis Unamuno

MENDARO

Joxe Mari Arrizabalaga
Luzia Elorza
Mari Karmen Elorza
Maria Elorza
Manuel Garate
Pedro Garate
Felisa Olazabal
Julian Urain

MUTRIKU

Karmen Sustaeta
Pedro Txurruka
Idoia Arrizabalaga
Aurora Ansorregi

DEBA

Iñaki Elustondo
Fermin Garate

AZKOITIA

Agustin Lizarralde

ETXEBARRI

Agustin Solozabal
M^a Jesus Zubillaga

Berri-emaileenganako bidea erraztu didatenei ere adierazi nahi diet, nola ez, nire esker ona: Elgoibarko auzo-alkateei (Pello Rubio, Agustin Irusta, Jabier Arrizabalaga, Patxi Elustondo, Migel Juaristi, Jon Loiola, Ramon Larrañaga), Mutrikun bizi den Abel Irizar adiskide onari, Mendaroko Dorleta Lazarobaster lehengusinari eta Haritz Goikoetxeari.

Elgoibarko Upaitza baserriko Juan Mari Elustondo ere ezin aipatu eta eskertu gabe utzi. Nola, ba! Batere nekerik erakutsi gabe, galtzeko zorian dauden (baserriaren inguruko, garai bateko bizimoduko...) ezin konta ahala hitz eta egitura eskuratu dizkit euskara hain maitea duen adiskide fin honek.

Jabier Arriola aspalditik Elgoibarren bizi den mendaroarra ere bereziki aipatu nahi nuke: zenbat esatera eta esapide adierazgarri eman ote dizkidan ateraldi xelegre-xelebreak dituen adiskide honek! Bertsoetan jarduna dela jakinik ere, harrigarria da Jabierren ateraldiek dituzten bizkortasuna eta grazia. Gustura asko joaten nintzen harekin elkartzera La Unión elkarteko hitzorduetan.

Juan Mari eta Jabier bezala, Joxe Mari Arrizabalaga mendaroarra ere izan dut datu-emaile berezia, Mendaroko berri-emaile zehatza; hark ere mede handia egin dit ia batere zalantzarik gabe Mendaroko hizkeraren gainean galdera mota guztiei erantzunez: ondo ezagutzen du, bai, Mendaroko euskara, bere bizitzaren erdia Gasteizen pasatu duen arren... edo beharbada horregatik.

Mutrikuko Aurora Ansorregi eta Idoia Arrizabalagari eta Debako Fermin Garate osabari ere eskerrik zintzoenak, Debabarreneko “azken portuko” herrietako ezagutza osatzen laguntzeagatik.

Arlo akademikoan, iritziak ematen, zalantzak argitzen, nire lana xeheki aztertzen lagundu didatenak ere gogoan ditut. Bihotzez estimatzen dizuet ardua berezia erakutsi didazuen adiskideon lana: Gotzon Aurrekoetxea, Gidor Bilbao, Txipi Ormaetxea eta Koldo Zuazo.

Pello Salaburu adiskide, lankide eta tesi-zuzendariari ere esker bereziak eman nahi dizkiot, nirekin izan duen jarreragatik, pazientziagatik eta eman dizkidan aholku zuhurrengatik.

Gogoan ditut, eta bihotzean, Elgoibarren euskararen alde lan egin dutenak: euskara belaunaldiz belaunaldi transmititu duten familiak; Elgoibarko Ikastola sortu zutenak; Elgoibarko Izarra abian jarri zutenak eta elkarte horretan euskararen eta euskal kulturaren alde lan egin dutenak; Elgoibarko eskolak eta euskaltegiak; eta Elgoibarko Udaleko Euskara Batzordea eta Euskara Zerbitzua, Elgoibarko Izarrarekin batera euskara jasotzeko eta biziberritzeko ahaleginetan dabiltzanak. Horien guztien ahaleginak gabe alfer-alferrik ibiliko nintzateke ni euskararen corpusa biltzen eta aztertzen, nire lana apalategi batean hautsa hartzera kondenatua egongo litzateke eta.

Gogoan eta estimu handitan ditut, orobat, Deba ibarrean tokian tokiko hizkerak jasotzen eta aztertzen aritu diren ikertzaileak, haietako asko adiskideak; haien lanak gabe argi daukat nire saio hau oso bestelakoa izango litzatekeela (batek daki burutzera iritsiko ote nintzatekeen ere): Toribio Etxebarria, Juan San Martin, Fernando Muniozgueren, Serafin Basauri, Koldo Zuazo, Asier Sarasua, Aintzane Agirrebeña, Leire Zenarruzabeitia, Nerea Areta, Antton Narbaiza, Leire Narbaiza, Fernando Aranberri, Pello Mugarza, Juan Martin Elexpuru, Estepan Plazaola, Jaione Isazelaia, Jone Larrañaga, Jerrardo Elortza, Amaia Erostarbe, Txipi Ormaetxea, Egoitz Unamuno, Iban Aranzabal, Alberto Telleria, Jabi León... Badihardugu Euskara Elkartearen inguruan bildutakoak horietako gehienak.

JESUS MARI MAKAZAGA EIZAGIRRE
Elgoibarren, 2010eko ekainaren 25ean

0. SARRERA

0.1. ZENBAIT DATU ELGOIBARREN KOKAPENAZ ETA MUGEZ

Gipuzkoako lurralde historikoaren ipar-mendebalean kokatzen da Elgoibar, Deba ibarreko Debabarrena eskualdean, itsasotik 13 kilometrora.

Mendi malkartsuz inguratuta dago Markina eta Azkoitia aldera, eta honako herri hauekin egiten du muga: Iparraldean, Mendarorekin; Ekialdean (Azkarate gaina tarteko dela), Azkoitiarekin; Hegoaldean, Eibar eta Soraluze-rekin; eta Mendebaldean (Urkaregiko gaina tarteko dela), Etxebarria eta Markinarekin. Beraz —dialektologiaren ikuspuntutik begiratuta deigarria izan daitekeelako diot hau—, lehen begiratu batean, argi ikus dezakegu Eibar eta Soraluzerekin eta Mendarorekin duena baino muga orografiko markatuagoa duela Azkoitiarekin eta Etxebarriarekin. Hizkeran ere, lehenbiziko unetik antzematen zaio, antzematen zaionez, Eibarko eta Mendaroko hizkerekiko aldea txikiagoa dela Etxebarria eta Azkoitiko hizkerekiko duena baino. Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mendaro eta Deba ibar berean daude, Deba ibaiaren igarobidean, eta Azkoitia eta Etxebarria, berriz, beste ibar banatan, Deba ibarretik banatzen dituen mendate bana bitarte dutela.

Hauek dira Elgoibarko auzoak eta haien kokapen geografikoak:¹

- Iparraldean, Altzola.
- Ekialdean, Sallobente-Ermuaran (San Lorentzo).
- Mendebaldean, Aiastia (San Migel).
- Hego-mendebaldean, Idotorbe (San Pedro).
- Hego-mendebaldean, Azkue (San Roke).

¹ Parentesi artean eman ditut gaur egun herritarrek darabilten izenak, nahiz izen ofizialak ez izan.

- Ipar-mendebaldean, Urruzuno.
- Ipar-mendebaldean (Urruzuno baino iparralderago), Arriaga (San Antolin).

Biztanleriari dagokionez, 10.767 biztanle ditu Elgoibarrek gaur egun, azken erroldaren arabera, eta, Eibarrekin batera, Gipuzkoako hiri-bilgunerik handienetako bat osatzen du. Udallerriaren hazkundera neurritz kanpokoia izan da, batez ere gerraostean, 1950. urtetik aurrera, herriak eta eskualdeak izan zuten industria-garapenarekin, etorkin-kopuru handia iritsi baitzen Elgoibarrera. Datu horrek ere nabarmen baldintzatuko ditu euskararen ezagutza eta erabilera.

1980. urtetik gaur egunera bitarte, biztanleriak pixkana-pixkana behera egin du. Jaitsiera nabarmenena 1983an gertatu zen, Mendaroko Garagartza eta Mendarozabal auzoak Elgoibartik banandu zirenean, Mendaro herri bihurtu zen urtean: 1.100 biztanle inguru gutxiago izango zituen Elgoibarrek harrezkerotik.²

Antzinako garaietara bagoaz, Elgoibarko herria sortu aurretik, bazen jendeztaturiko lurralde bat, “Marquina de Suso y de Yuso” deitzen zena. Lurralde hori gaur egungo Elgoibarko, Soraluzeko eta Eibarko lurretan zegoen. Lehenengo biak, Elgoibar eta Soraluze, Marquina de Yuso delako lurraldean zeuden, eta Eibar, Marquina de Suso izenekoan.

Pixkanaka, banatuz joan ziren, eta bakoitzak bere mugak ezarri zituen. Horrela hasi ziren herriak sortzen. Lurralde haietan bizi zirenek lapurretak eta harrapaketak jasan behar izaten zituzten, eta horregatik, beren buruak hobeto babesteko, Gaztelako errege Alfonso XI.ari eskabide bat egin zioten “Campo de Elgoibar” izeneko lurretan herria sortu eta harresiz inguratzeko. Erregeak baimena eman, eta “Villa Mayor de Marquina” hiribildua sortu zen, 1346 urtean. Hango bizimodua arautu ahal izateko, Logroñoko forua eman zion “Villa Mayor de Marquina” izenekoari.

Elizaren antolamenduari dagokionez, uste da erromatarrak etorri aurreko leinuen banaketa erabili zuela, besteak beste, Elizak antzinako elizbarrutien banaketa egiteko. Elizaren antolamendu horretan, giza eta gizarte-harremanak nabarmen baldintzatzen zituen antolamendu horretan, Kalahorrako elizbarrutiarren barruan kokatzen da Villamayor de Marquina, geroago Elgoibar izena hartu zuena (1457 eta 1463ko dokumentuetan jadanik izen horrekin bakarrik izendatzen da herria); 1862 urtea arte egon zen Kalahorrako elizbarrutian, Elgoibarreara egiten zuen gaur egungo Mendaroko Mendarozabal auzoarekin batera, baina

² Mutrikura egiten zuen Azpilgoetarekin batera osatu zen Mendaro herria.

Mendaroko Azpilgoeta eta Garagartza auzoak ez bezala (haiek Iruñeko elizabarrutira egiten zuten herrietakoak ziren, Mutriku eta Debakoak, hurrenez hurren)³; Mutriku eta Deba izan ezik, Kalahorrako elizbarrutira egiten zuten Deba ibarreko gainerako herri guztiek: hain zuzen ere, karistiarren eta barduliarren arteko muga berberari eutsi zion Elizak elizbarrutien banaketa egiteko. Beraz, bai erromatarren aurreko leinuen banaketan, bai elizbarrutien banaketan, muga-mugan dagoen herria dugu Elgoibar: beti mugaren mendebaldean, karistiarren leinuei eta Kalahorrako elizbarrutiari zegozkien lurraldeetan.

Muga administratibo dei ditzakegun horiez gain (Elizaren administrazioa izanik ere), ordea, badugu Elgoibar inguruan bestelako muga bat ere, euskaldunentzat garrantzitsua izan den muga bat: euskalkiena. Hizkuntza-kontuei dagokienez ere, berriz dago muga batean gure herria: tradizionalki Bizkaiera eta Gipuzkera izendatutako euskakien arteko muga-mugan dago gure herria, Debarreneko mugan.

Ikus dezagun <http://weblandarbaso.miarroba.com/> webgunetik ekarri dudan mapa hau, non gainjartzen baitira antzinako leinuen banaketa eta euskalkien banaketa:



³ Geroago bai, ordea: Astigarribiako San Andres eliza 1607 urtetik aurrera Kalahorrakoa zen; Mendaroko Azpilgoeta auzoko eliza, 1569tik aurrera; Mendaroko Garagartza auzoko eliza, 1715etik aurrera; guztiak izan ziren Kalahorrakoak 1862 urtera arte, elizbarrutien banaketa berria egin zuten arte.

Kalahorrako elizbarrutiak gaur egungo ia Errioxa osoa, Bizkaia, Araba, Burgoseko eta Soriako zati bat, Biana aldea eta, Mutriku eta Deba izan ezik, Deba ibar osoa hartzen zituen. Iruñekoak, berriz, gaur egungo Gipuzkoaren kostalde osoa, haren barnealdea (Deba ibarra izan ezik) eta Nafarroaren parte handi bat.

1862tik aurrera, Gasteizko elizbarrutia sortu zen, eta han bilduko dira gaur egungo Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herriak, harik eta garai modernoagoetan, 1950 urtean lurralde historikoka egindako banaketaren ondorioz, Donostiako elizbarrutian kokatzen den arte.

Harreman komertzialei dagokienez, berebiziko garrantzia izan zuen Altzolako ibai-portuak; hona iristen zen Elgoibar inguruko burdinola ugarietarako Somorrostrotik zetorren burdina, eta hemendik abiatzen ziren, ibaian nabigatzen zuten txanaletan, Espainia guztian zehar banatzen ziren burdinolotako ekoizpenak: burdin sareak, arma zuriak eta su-armak; Altzolara iristen ziren, orobat, Gaztelatik zetorren artilea, Flandeserako bidean nagusiki. Ardoa, argizaria, olioak, mahatsa, eztiak, anisa... ere esportatzen ziren Altzolatik abiatuta; inportatzen ziren produktuetatik estimatuenetakoa, berriz, bakailoa zen, batez ere Gasteizen eta Errioxan saltzen zena⁴. Mugimendu komertzial hauetan guztietan, Bergarara zihoan Errege Bidea erabiltzen zen.

Horrek guztiak adierazten digu historikoki zer-nola gauzatzen ziren elgoibartarrek ingurukoekin zituzten harreman komertzialak.

0.2. ELGOIBARKO HIZKERAREN KOKAPENA DIALEKTOLOGIAREN HISTORIAN

Antzinatek aipatu izan da gure herria dialektologia-lanetan. Azaldu dugun kokapen geografiko bereziak eraginik, seguruenik. Bi hizkera nagusiren, bi euskalkiren artean kokatuta dago gure herria: aurrerantzean Mendabalekoa eta Erdialdekoa izendatuko ditudanen artean, Koldo Zuazoren azken urteetako terminologiari jarraituz (lurralde historikoeekin bat ez datorrenez euskalkikako banaketa, ez du egoki ikusi Gipuzkoa osoan hitz egiten ez den euskalkiarentzat *gipuzkera* ohiko izendapena erabiltzea, eta gauza bera *bizkaiera*-rekin: lehenbizikoari Erdialdekoa eta bigarrenari Mendebalekoa esatea proposatzen du, eta halaxe egingo dut nik ere lan honetan zehar).

⁴ Ikus Goikoetxea (2002, 70-71).

Geroagorako utziko dut euskalki batetik eta bestetik zer duen bereizteko eginkizuna, edota euskalki batetik bestetik baino gehiago duen ala ez erabakitzekoa. Argi dagoena da (hain nabarmena izanik, Elgoibarko euskara aztertzen hasi baino lehen aurreratu daiteke) bietariko ezaugarriak dituela, Mendebalekotik eta Erdialdekotik. Inguruko herrietan, argiago egon izan dira beti kontuak, eta argiago dago gaur egun ere zer euskalkitakoak diren erabakitzeko auzi hori: argi dago Eibar eta Soraluze Mendebaleko euskalkikoak direla; bai eta, azpieuskalkiak gorabehera, Etxebarria eta Markina ere. Iparraldetik eta ekialdetik, bestalde, argiago dago Erdialdeko euskalkikoak direla Deba eta Azcoitia. Elgoibar dago horien guztien artean, eta egoera ez hain argian, Murtiku eta Mendarorekin batera.

Kokapen dialektologiko “ilun” hori izan dute hizpide antzinatik hasi eta gaur egunera arte dialektologia-bereizketez arduratu izan direnek: beti eman du zeresana Elgoibarko euskarak. Inoiz ez da argi egon Elgoibarko euskararen kokapena: zalantza agertu dute denek, eta zalantza hori nabaritzen da bai aipamenak egiteko orduan, bai kokapen-dialektologikoaren aldaketa etengabeetan.

Lehendabiziko aipamena XVIII. mendekoa dugu, Manuel Larramendirena; hala dio bere *Corografía de Guipúzcoa* lanean (1756 [1969], 322 or.):

“(…) En Elgoibar y más en Eibar empieza el dialecto de Vizcaya en mucha parte *eman eutsan, egin euen, buruagaz*, etc., y corre por Plasencia, más o menos por Vergara, Mondragón, Arechabaleta, Escoriaza, Salinas, Oñate y todas aquellas aldeas. En la marina de Motrico hasta Fuenterrabía apenas hay distinción del dialecto común de Guipúzcoa.”

Badirudi gurea ez duela bete-betean bizkaieraren esparruko hizkeratzat hartzen; ez eta gipuzkeraren esparrukotzat ere; zalantza bera egiten du bere *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín* hiztegian ere, oraingoan Erdialdeko hizkerari begira (1745, XXX, §. XVI):

“Los lugares rayanos de Bizcaya usan mas del dialecto de Bizcaya: los interiores, empezando desde Elgoibar, ó desde Azcoitia por el lado septentrional, y desde Cegama, y Segura por el lado de Navarra hasta Irun, y Fuenterrabia, usan el dialecto de Guipúzcoa”.

Beraz, badirudi tarteko hizkeratzat jotzen zuela Elgoibarkoa.

Hurrengo mendean ekin zion Luis Luciano Bonaparte printzeak euskararen dialektoak ikertzeari, eta *Carte des sept provinces basques* (1863) izeneko mapa hau osatu zuen:



Bonapartek ere egin zuen Elgoibarko hizkeraren aipamena. Larramendik baino sistematikoago aztertu zituen Bonapartek Euskal Herriko hizkerak, nahiz esan beharra dagoen ia aditza bakarrik (eta aditzaren barruan, ezaugarri gutxi batzuk: *dot* ala *det* egiten den, bereziki) hartu zuela bereizketa-irizpidez. Aipatu mapan, *Carte des sept provinces basques*-en, Gipuzkoako euskaran sartu zituen Itziar, Deba, Mutriku eta Mendaro. Bizkaiko euskaran, berriz, Deba ibarreko gainerako hizkerak (Elgoibar barne).

Hala ere, kokapen horrek ez zuen sendotasun handiegirik Bonaparteren laguntzaile Uriararentzat, hala baitzioen honek hari eginiko gutun batean (Ruiz de Larrinaga 1954: 83):

“En Elgóibar sucede que la parte de la población, que se halla situada hacia Azcoitia, participa algo más del guipuzcoano, pero aún debe agregarse a Vizcaya, aunque esto no acomoda a los guipuzcoanos.”

Deserosotasun hori, dirudienez, herritarrena ere bazen. Ondorengo pasarte batean azaltzen du (Ruiz de Larrinaga 1954: 83):

“Sucede en todas estas poblaciones⁵ que miran con desdén el bascuence de Vizcaya y son muy apasionados al dialecto de Beterri: los sermones y pláticas se predicán en ese dialecto de Beterri, y muchísimas personas hacen estudio de este dialecto, por cuyo motivo hacen una mezcla; pero todavía no han podido guipuzcoanizar al vulgo.”

Resurrección M^a de Azkue datorkigu ondoren, kronologiari jarraituz, euskalki eta hizkera-kontuetan. *Diccionario vasco-español-francés* hiztegian (1905-1906, XXIX or.), Elgoibarko beste auzoetatik bereizten zuen Altzola, Bonapartek (Uriartek hala eskatuta) hasierako banaketa aldatuz egin zuen bezala (dirudienez, *dot/det* aditz-erroen banaketa zela eta): gipuzkeraren barruan kokatu zuen Altzola auzoa, baina bizkaieraren barruan Elgoibar.

Urte batzuk geroago, ordea, *Morfología vasca* gramatikian (1923-25), biak sartu zituen gipuzkeraren barruan, bai Altzola eta bai Elgoibar. Hala dio Pedro de Yrizar-ek (1981, 216):

“En cuanto a la extensión de cada dialecto, Azkue sigue (...) a Bonaparte, pero en la enumeración de los pueblos agrupados por dialectos, expuesta en el índice de abreviaturas de su monumental diccionario, hay algunas diferencias con relación a los datos del Príncipe, de las que nos parece la más importante la inclusión de Alzola y Elgoibar (vizcainos para Bonaparte) en el dialecto guipuzcoano.”

Bähr hizkuntzalariak ere aipatu zituen gure herriko eta inguruetako hizkerak. Euskalkien arteko beste mugaleku batzuetan (Debaerdikoan eta Deba-goienean) baino euskalki-jauzi txikiagoa zegoela zioen Debabarrenean, Elgoibar inguruan. Hala dio bere *Flexiones verbales de uso actual en Legazpia* lanean (Bähr, 1926-1935, 95-96):

“Presenta extraordinario interés esta “encrucijada lingüística”, constituida por los pueblos de Elgóibar, Motrico y Deva, en la zona limítrofe septentrional de los dos dialectos colindantes más distintos entre sí, el vizcaino y el guipuzcoano, en la que por la mayor facilidad de comunicación, la interacción entre las hablas locales de ambos dialectos es superior a la existente entre las de los pueblos situados más al sur, en la región más montañosa del interior.”⁶

Pedro de Yrizar-ek ere bazituen bere zalantzak. Ikus dezagun, bestela, *Contribución a la dialectología vasca* liburuan (1981 [II], 245) zer zioen:

⁵ Deba ibarreko herri bizkaieraz hitz egiten zutenei buruz ari da.

⁶ Bergara-Antzuola/Zumarraga-Urretxu mugaz, eta Oñati/Legazpi-Zegama-Segura mugaz ari da.

“Respecto a la cuenca del Deva, tampoco hay duda de que desde la parte más meridional, hasta Placencia inclusive (comprendiéndose naturalmente Oñate) es lingüísticamente vizcaina. Puede haberla en lo que se refiere a Elgóibar.”

“En el dialecto vizcaíno hay sus diferencias y no pocas. Se extiende a parte de la provincia de Guipúzcoa ya que por esta parte empieza en Elgóibar y más en Eibar continuando por Vergara, Mondragón, Arechavaleta, Escoriaza, Salinas, Oñate.”

Kontuak kontu eta zalantzak zalantza, azkenean Altzola eta Elgoibar, biak, Gipuzkoako euskararen barruan kokatu zituen. Hasieran Bonaparteri jarraituz hartu zuen erabakia (bizkaieraren barruan sartzekoa) aldatuz, hona zer dioen (Yrizar, 1991 [I], 599):

“En aquella ocasión habíamos seguido en principio la clasificación de Bonaparte, quien consideró a Elgóibar lingüísticamente vizcaíno, aunque ya entonces pusimos de relieve nuestra opinión favorable a incluir a dicha población en el dialecto guipuzcoano.”

“La distribución de variedades corresponde a la clasificación del Príncipe Bonaparte. Sin embargo, Elgóibar ha sido incluido por nosotros en el dialecto guipuzcoano, aun reconociendo la fuerte influencia vizcaína que se aprecia en su habla.”

Koldo Mitxelenak urte berean (1981a, 298) aipatu zuen Elgoibar inguruko hizkerak eta haiek ikertzeak euskal dialektologian zuten garrantzia:

“Sin salirnos del impresionismo, es indudable que la frontera vizcaíno-guipuzcoana se presenta abrupta para el que va, por ejemplo, como íbamos en un tiempo, de Brinkola a Oñate, franqueando algún puerto en el trayecto. (...) Pero esa frontera, que coincide en trechos con el frente de guerra tal como quedó estabilizado en octubre de 1936, jamás ha sido explorada, que yo sepa, en detalle, punto por punto. Así, en relación con la ‘distancia’ entre Brinkola y Oñate, ¿cuál es la que separa a Eibar de Elgoibar o a Ondarroa de Motrico? Antes de levantar teorías, sería necesario dedicar algún tiempo al humilde, trabajoso pero indispensable menester de observar los hechos. Habría también que ver, puesto que las consideraciones que se hacen son cuantitativas, si no hay manera de cuantificar las observaciones.”

Azkenean, garai berriagoetara etorri, Koldo Zuazoren lanetara iristen gara, Bonaparteren euskalki-banaketa berritu duen dialektologoaren lanetara (ikus *Euskalkiak, gaur*, 1998, 230): besteak beste, Deba eta Itziar Erdialdeko

euskalkian sartu ditu, baina Elgoibar, Mendaro eta Mutriku Erdialdekoaren eta Mendebalekoaren *tarteko hizkeratzat* hartu ditu, *zubi hizkeratzat*, ez bateko eta ez besteko garbi ez diren hizkeratzat: trantsizio-hizkerak dira *tarteko* deitutako hauek.

Elgoibarkoak du, haren esanetan, hiru herri horien artean bizkaieraren ukiturik handiena. Hala dio:

“(...) eta tarteko hizkera horiei esker, urratsez urrats, ia oharkabean egiten da azpieuskalki batetik besterako bidea. (...) Administrazioz Gipuzkoa izateak hizkuntzaz ere Gipuzkoara hurreratzea ekarri du, eta (Deba bailarako) iparraldeko alderdian agertzen da gardenen gertutasuna. Elgoibar, Mendaro eta Mutriku ezin dira, gaur egun, ez mendebaleko euskalkian (bizkaieran) ez erdialdekoan (gipuzkeran) erabat sartu: tarteko hizkerak dira bete-betean.”

Bähr-ek aipatutakoa ekarri digute gogora Zuazoren hitz horiek: euskalki batetik besterako bidea urratsez urrats egiten da gurean, eta ez Antzuola/Zumarraga-Urretxu eta Oñati/Legazpi-Zegama-Segura mugetan gertatzen den bezain bortizki.

Hori bai, erabaki hori ez du zalantzarik egin gabe hartu: izan ere, Zuazo 1998 (230 or.) lanean Elgoibar eta Mendaro Mendabaleko hizkeretan sartu zituen, eta hark aipatzen duen Debabarreneko “hirukitik” (Elgoibar, Mendaro eta Mutriku osatzen duten triangelutik), Mutriku bakarrik jo zuen tarteko hizkeratzat. Geroago, lan horretan bertan, dio Elgoibar eta Mendaroko hizkerak sakonago aztertzeak ekarri diola erabakia aldatu beharra: Debabarreneko hiru hizkerak, Elgoibarkoa, Mendarokoa eta Mutrikukoa, ezin har daitezkeela —dio (Zuazo 2000b, 47)— ez euskalki batekotzat ez bestekotzat, bien “tarteko hizkeratzat” baizik.

Elgoibarko euskararen kokapenarekikoak amaitzeko, *perceptual dialectology* edo oharmenezko dialektologia esaten zaionari bere garrantzia aitortu nahi izan diot lan honetan.

Hona zer dioen Iñaki Caminok (1997, 45) dialektologia egiteko modu honi buruz:

“Trantsizionalak izan daitezkeen eremuetan, ikertzaileek edo biltzaileek ez dute soilik datu dialektal primarioez galdegin behar, baita konszientzia lektikalaz eta berriemaileen guztizko hizkuntz jarrerez ere. Berriemaileen hizkuntz jokabidea aztertzeke komenigarria da berek hizkuntz jokabide desberdinez egiten dituzten balioespenak ezagutzea. Beste hizkera erkidego batean erabiltzen den arau diber-

gentearen hautematea dialektorearen mugaketaren oinarri objektiboa da; usu ez da arau dibergente bakar bat izaten, multzo bat baizik. Berriemaileari eskatu behar zaio batetik besterako desberdintasunak zein diren adieraz dezan. Egiten duen hizkuntzaren interpretazio orokorra —eta baita hizkeren multzoez egiten duena ere—, elkar ulermenaren irizpidearen arabera da (Meeussen 1962: 383)⁷. Informazio subjektibo hori maiz ezinbestekoa gerta daiteke dialektologilariarentzat ingurune dialektal berezi baten egoera azaltzeko (Taedelman 1989).⁸

Dialektologia egiteko modu honetaz jakingarri gehiago aurkitu daiteke Preston 1988 lanean.

Hortaz, ez hizkuntza-kontuetan ez dialektologian aditu ez direnen iritzi batzuk jaso nahi izan ditut, hiltun arrunten iritziak. Herritar biren iritziak jaso ditut hemen, haiek ere lagungarriak eta argigarriak direlakoan Elgoibarko euskara ingurukoekin konparatuz kokatzeko.⁹

Hona hemen Aiastia auzoko Talaixa baserriko Dionisio Txurrukaren pasarte bat, hizkeraren gainean diharduena:

—Eta auzuetan, berdin eitten dozue euskeraz?

—Bueno, auzo artian, Elgoibarren, konparazio baterako, auzo artian danak iual eitten dou. Bestela, diperente eitten dabe, bai, diperente oso. Oso diperente Azkoittira ere. Elgoibartik Azkoittira sartu zaitte, Madarixara juan zaitte, eta diperente eitten dok han. Azkaraten bertan pasatze zaranian, diperente eitten dozu berba ya.

Guk iual eitten dogu, baiña eurak diperente eitten dabe. Oiñ, entendi u ondo eitte gera alkarrekiñ, e, ezta? Baiña euskera batuaua, hor zihar; euskera... edarraua.

—Auzuen artian bada alderik?

—Ez, ez, ez. Hamen Elgoibarren dana iual eitten dou. Hamen ere, pasatzen zera Urkaregiñ, Gipuzkua-Bizkaia mugan...

—Bai.

—Hor ere kanbixau eitten da, kanbixau eitten da; hain da gauza rarua...

—Bai, bai.

⁷ Erreferentzia hau jasotzen du: Meeussen, A. E., 1962, "Bibliographie", *Orbis* 11, 383-384.

⁸ Taedelman, J., 1989, "Typology of dialect transitions in Flanders", in M.E.H. Schouten and P. Th. van Reenen (eds.), *New Methods in Dialectology*, 1989, Foris, Dordrecht – Holland/Providence RI – U.S.A., 155-163.

⁹ Elgoibarko eta inguruetako euskarari buruzko iritzi gehiago jaso ditut zarpigarren kapitulan, testuei dagokien atalean, euskarari dagokion azpiatalean.

—Eta Debara ere bai. Debara ere jute zera, eta diperente eitten dabe han ere. Eta Azkoitti aldera ere bai. Mondragoi aldera juten baldin bazera, han ere bai. Han ere diperente. Oñ, herri bakoitzian entendi alkarrekin iual eitten dou, e! Hori dao ipinitta, itxitura bat bueltan ipintzia bezela, berba iuala eittia.”

(Dionisio Txurruka)

Sallobente-Ermuarian auzoko Garagartza baserriko Joxe Gurrutxagak ere halatsu dio:

“—(...) Eta gero, hemen auzuen artian ere diferente eitzen dozue zuek? San Migelekuak, Urruzunokuak...

—Ez, ez, ez. Hemen dana iual samar eitten dok.

—Bai? Eztao alderik?

—Hemen, Arratez hemendikan, San Migelen, eta hemen Mendaron da, ez. Mendaron pixkat zertzen dittuk: *badek* eta *badok*. Guk esaten dogun bezela: *Bai holako badek!* Edo, *halatan dek!* Eta holako gauzak Mendaron, baiña bestela, berdintsu. Debatik harutz gehixao, diferenzia gehixao jaukak.

—Eta eztozu pentsatzen auzuen artian alderik dauanik?

—Ez. San Migelen izen, hemen izen, hemen San Lorentzon izen, hemen goi etxetan izen, berdiñ: iual eitte juau danok.

—Eztakitx, igual eragiñen bat Azkoitxi aldekoa edo...

—Bai, hemen Azkaratekuak eta Kortaberri ta, badakik nun dauazen?

—Bai.

—Horrek Azkoittikua asko nahaste juek. Guk bai, *bi'juat nik* esan biharrian, *ber ditt nik*, eta holako gauzak. Hor Azkarate, hemen Otxortia, Kortaberri, Azkaraten ere bai, pixkat nahaste juek. Horrek gehixao juten dittuk Azkoittira gu baiño, eta azkoittiarrekin kontato gehixao jaukek horrek. Entenitzen dok?

Ertetzen dien auzuak dittuk, eta hau Azkaraten hemengua dok, eta hau Azkoittikua dok, baiña bixak hona datoz alkarrekin lanera. Auzuak egote'ittuk alkarri lagun-zeko, eztakik? Lanetan da, zeretan. Eta nahastu eitte'ittuk pixkat. Baiña gitxi, gitxi.

—San Migel aldian berdiña pasauko jakue iual.

—Baitta, baitta. Horrek, horko ta, honek ere..., Belaustegi ta, horrek [Marina] Etxeberri aldeko hizketia nahaste juek pixkat. Baiña San Migeletik honuzkuak eta, ez.”

(Joxe Gurrutxaga)

Berri-emaile gehientsuenen iritziak gisa horretakoak dira¹⁰. Aipatu nahi nuke berri-emaileek batez ere hizkera-muga horiek aipatzen dituztela euskalkien arteko desberdintasunak aipatzen zaizkienean, Etxebarria eta Markinarekikoa alde batetik, eta Azkoitiarekikoa bestetik¹¹; gutxiagotan aipatzen dute Eibarrekin edo Soraluzerekin legokeen muga (Eibarkoak bizkaiera aldera egiten duela gehiago esaten dute, hori bai), eta ia aipatu ere ez dute egiten Mendarekikoa. Zerbaiten seinale, nonbait.

0.3. ZENBAIT DATU ELGOIBARKO EUSKARAREN EZAGUTZAZ ETA ERABILERAZ

Elgoibarko euskararen corpusa aztertzen hasi aurretik, hango euskararen ezagutzaz eta erabileraz datu batzuk eman nahi nituzke.¹²

Azken erroldari buruz EUSTATen datuek diotenaren arabera, 10.767 biztanle daude Elgoibarren¹³. Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTATen) arabera, eta betiere 2 urtetik gorako biztanleak kontuan hartuz, 10.450 biztanletatik 6.253 lagun dira euskaldunak (%59,83), 1.624 ia euskaldunak (%15,54), eta 2.573 erdaldunak (%24,62).

Ama-hizkuntzari dagokionez, biztanleria osoaren artean 4.674 lagunek (%43,41) dute euskara ama-hizkuntza; 5.092k (%47,29), gaztelania; 789k (%7,32), gaztelania eta euskara, biak; eta azkenik, 212 biztanlek (%1,33), ez euskara ez gaztelania ez den beste hizkuntza bat.

Etxeko erabilerari dagokionez, 2.987 lagunek (%27,74) euskaraz hitz egiten dute etxean; 5.555ek (%51,59), gaztelaniaz; 2.131k (%19,79), euskaraz eta gaztelaniaz; eta, bukatzeko, 94 pertsonak (%0,87), beste hizkuntzaren batean.

¹⁰ Sallorenteko Upaitza baserriko Juan Mari Elustondo berri-emaileak ere Joxe Gurrutxagarenaren antzeko informazioa eman zidan: Azkarate gainean eta inguruan dauden baserrietakoei, Kortaberri, Otxortia, Azkarate eta inguruetakoei, Azkoitiko hizkeren eragina nabaritzen zitzaie: adibidez, aditzean, *egin jok*-en ordez, *egin dik* modukoak erabiltzen dituztela, eta *etorri ei da*-ren ordez, *etorri emen da* gisakoak.

¹¹ Elgoibartarrek *Etxeberri* edo *Markiña-Etxeberri* esaten diote herri horri.

¹² Hizkuntza-ezagutza eta -erabilerari buruzko datu gehiago nahi izatera, sarean dago eskuragarri Elgoibarko Udal Euskara batzordeak 2003an egindako Elgoibarko Diagnostika izeneko lana. Helbide honetan: <http://tinyurl.com/yat2p5>

¹³ 2006 urteko datuak dira www.eustat.es webgunean eskura dauden datu berrienak.

Kaleko erabilerari dagokionez, 2006ko martxoaren bukaeran egindako kale-neurketaren arabera, elgoibartarren %39,78k hitz egiten du euskaraz gure herriko kaleetan. Azterketa hau egin ahal izateko, 4.959 elgoibartarren hizkuntza-jokaera neurtu zen.

pertsonak	euskaraz	%
4.959	1.973	39,78

Hona adinaren arabeko erabilera:

	GUZTIRA	haurrak	gazteak	helduak	adinekoak
Euskaraz %	%39,7	%60,8	%39,3	%27,7	%40,3

Haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (%60,8); helduak, gutxiengien darabiltenak (%27,7).

Hona, adinaren arabera, azken urteetako euskararen erabileraren bilakabidea:

	1995	1996	1997	1998	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Haurrak	%58,9	%52,9	%68,6	%68	%66,7	%63	%70,9	%63,5	%63,6	%58,5	%60,8
Gazteak	%25,2	%29,5	%39,3	%39,1	%37,6	%40	%44,6	%43	%41	%36,7	%39,3
Helduak	%23,4	%23,3	%26,7	%29,8	%27,6	%25,7	%32,9	%35,1	%30,6	%31,5	%27,7
Adinekoak	%39,4	%40,8	%35,1	%40,6	%33,2	%33,2	%40,8	%41,1	%40,8	%36,7	%40,3
GUZTIRA	31,9	31,7	37	40,3	38,3	37,4	45,5	44,7	41,4	40,9	39,7

Datuon arabera, ohartu gaitezke euskararen ezagutzak gora egin duela baina ez horrela erabilerak, honek behera egin baitu; euskaldunak eta ia euskaldunak %70 inguru dira, baina Elgoibarko kaleetan %40 ingurukoa da euskararen presentzia.

0.4. IKERLANA ZERTAN DATZAN. ERABILITAKO METODOLOGIA ETA OINARRI TEORIKOAK

Atariko atalean aipatu ditut lan hau egitean izan ditudan motibazioak. Orain lana zehazki zertan datzan eta nola burutu dudana azaltzea dagokit.

Lan hau sinkronikoa da, eta gaur egungo hiztun elgoibartar adinekoen ahozko euskara jaso eta aztertzea du helburu. 70 urte ingurutik gorako hiztunak hartzen ditut “adineko”tzat, eta beste hizkuntza edo hizkerek “kutsatu” gabeko hiztunak aukeratzen ahalegindu naiz: herritik atera gabeak edo gehiegi atera gabeak, Elgoibarren jaioak eta guraso elgoibartarren seme-alabak, euskaraz alfabetatuak ez direnak, ahoskatzeko arazo fisiko berezirik ez dutenak. Berdin jokatu dut inguruko herrietako berri-emaileak hautatzerakoan ere.

Haiek lagunarteko elkarrizketetan erabiltzen duten euskara, kolokiala edo lagunartekoa ere esan izan zaiona, arloz arlo ezaugarritzen ahalegindu naiz, gero, lanaren amaieran, inguruko herrietako datuekin alderatzeko, eta dialektologiaren aldetik ondorio garbirik atera daitekeen jakiteko.

Hizkera kolokiala edo lagunartekoa aztertzean halako hizkera motaren ezaugarri batzuk biltzen ditu Antonio Briz-ek (1996, 31). Hona zein diren nagusiak:

- Ahozko hizkuntza.
- Prestatu gabeko elkarrizketa, bat-batekoa eta berehalakoa.
- Erregistro lagunartekoa, informala.
- Berdinen artean gertatzen dena (lagunen artean, familian...).
- Interaktiboa.
- Hizketagai eguneroko gaiak izaten dituen, eta ez gai espezializatua.

Horiek dira aztertu nahi izan dudana Elgoibarko euskara motaren ezaugarri orokorrak.

Halaxe ekin nion 1999 urtearen bukaeran datuak biltzeari. *Minidisc* grabagailuak eta mikrofonoak hartu, eta herriz herri, auzoz auzo eta baserri baserri ekin genion grabaketak egiteko lanari. Laguntzaile izan nituen hasierako urrats haietan, datuak biltzeko urratsean, Elgoibarko Izarra kultur elkar-teak emandako laguntzaren ondorioz, hiru lagun: Ibon Arriola, Irune Iriondo eta Ainhoa Lodoso, bailararik bailara, baserririk baserri, etxerik etxe. Nire gidaritzapean egin zituzten elkarrizketak eta bai zenbait transkripzio ere (gero nik gainbegiratuak eta, behar zenean, zuzenduak).

Lagunarteko erregistroa duen jarduna bilatzeko, lagunarteko giroa zuten elkarrizketak sortzeko, taldetxoak antolatzen ahalegindu nintzen: pare bat edo hiru lagun hartu eta, hizpidea jarriz, haiek berbetan utzi. Senar-emazteak, adiskide minak... izan ohi ziren bikote-hirukoteak. Zenbaitetan, elkarrizketa-tzaile pare ere bai, buruz buruko elkarrizketen galdekizun-itxura izan ez zezan. Hala saihesten zen, elkarrizketa taldeak sortuz, berri-emaileak “uzkurtzera”

eraman zezakeen galdekizun-sentsazioa; hala lortu ahal izan dut berri-emailea era lasaian eta arduragabeen aritzea hizketan; hala jaso ahal izan dut, orobat, bestela nekez bil nezakeen informazio mota bat, adibidez, adizki alokutiboen: lagunen arteko jardunean, errazago sortzen da tratamendu alokutiboa erabiltzeko giroa. Emakumeen kasua da deigarria: ez dizute hika hitz egingo Elgoibarren ezta emakumezko elkarrizketatzailea bidalita ere: parekoen arteko tratamendutzat daukate, nonbait, eta ezinezkoa da libreki hartutako testuetan halakorik jasotzea, baldin eta ez baduzu lagunarteko giro bat prestatzen, eta baldin eta ez baduzu emakumezko bidaltzen grabazioa egitera. Gizonezkoen kasuan, berriz, ez da hain larria, baina haiengana ere gizonezkoa joatea da onena tratamendu alokutiboa duen jarduna lortu nahi izanez gero.

Esan bezala, lehenbizi elkarrizketa libreak bildu nituen, herriko auzo guztietan eta inguruko herrietan: Elgoibarrez gain, bereziki Debarrena osatzen duten gainerako herrietan (Mendaro, Mutriku eta Deba), baina baita Eibarren, Soraluzen, Azkoitian eta Etxebarrian ere.

Geroago etorri ziren, lanaren norabidea argituz joan ahala, berriaz prestatutako inkesten garaia: testu libreetan jaso ez den informazioa osatzeko aukera ematen digute arloka antolatutako inkesta horiek (fonologia, izenaren morfologia, aditzaren morfologia, sintaxia, esaerak eta hiztegia), bereziki izenaren eta aditzaren flexioan. Beharbada ez da datuak biltzeko modu naturale-na, baina batzuetan ez dago beste aukerarik ezaugarri jakin bat eskuratzeko. Elgoibarko hizkeren kasuan, ugariak izan dira era honetara egin ditudan galderak, hiztegiko galdekizunek nahikoa puze baitute inkesta hau.

Inguruko zenbait herritako hizkerekin ere egin dut konparazio-ahalegin bat azken kapituluan, eta horretarako, Elgoibarko euskararen ezaugarri nagusiak laburbildu ondoren osatu dut inguruko herrietarako inkesta; horretarako, baliagarriak izan zaizkit Zuazo eta Badiharduguk (2002) erabilitako ezaugarri-zerrenda eta Txipi Ormaetxeak (2006) bere doktoretza-tesirako osatu zuena.

Aditzen kapituluan, bai Elgoibarrerako eta bai alboko herrietarako, Pedro de Yrizar-en datuak ere erabili ditut behar izan ditudanetan (hala dator tesian zehar aitortuta); izan ere, 1983an 76 urte zituen Lazaro Unzueta elgoibartarrari bildutako datuak dira, eta iruditzen zait gizon horrek eta nik aztergai izan ditudanek ez zutela, adinari dagokionez behintzat, euskara desberdina egingo: 1999 urtean 90 urtetik gora zituzten hiztunen euskara ere izan dut aztergai, eta hiztun horiek 1983 urtean 73-75 urte inguru izanik, ez dago alde horretatik desberdintasunik horien artean: hiztun talde berekotzat hartzen ditut.

Hiztun-talde berekotzat hartzen dut, orobat, 1979 urtean *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa osatzeko* elkarrizketatutako Felix Zabaleta elgoibartarra, urte hartan 55 urte zituena. Hango datuak ere erabili ditut.

Testu libreen transkripzioekin, tesian zehar *corpus* esaten diodan dokumentu bat osatu dut: garamond 12 letra motan dagoela, 265 orrialde ditu, 7.521 paragrafo, 13.143 lerro, 122.639 hitz eta 662.267 karaktere ditu dokumentu horrek. Baliagarria izan zait aldaeren artean estatistikak egiteko: zein da bi edo hiru aukeraren artean gehien erabiltzen den adizkia? Zein da bi aldaera lexikalen artean gehien erabiltzen dena? Jakina, agerpen kopurua esanguratsua zenean bakarrik erabili ditut estatistikok, eta helburu hauetarako, besteak beste: hiztegi-sarrera agerpen gehien duen aldaerari emateko, halako ezaugarri jakin baten adibide argigarriak aurkitzeko (gero azalpenak argituz erabiltzeko), edo, aditzaren kasuan, tauletan, dagokion gelaxkan lehenbiziko aukeratzat zer aldaera eman erabakitzeko. Esan gabe doa adineko hiztun hauek baino gazteagoak garen elkarrizketatzaileon jardunak corpus honetatik kanpo utzi ditudala, azken emaitza ez baldintzatzeko.

Atalez atal eta laburbilpen gisa, lanaren berri emango dut orain: zer egin dudan kapitulu bakoitzean eta zer oinarri bibliografiko izan ditudan horietako bakoitzean.

1. KAPITULUA: FONOLOGIA

ZER EGIN DUDAN: Elgoibarko euskararen sistema fonologikoa aurkeztu dut atal honetan: zein den fonemen errepertorioa eta zer arau fonologiko eta bilakabide fonetiko nagusi gertatzen diren deskribatu. Kapitulu guztietan bezala, adibideekin ilustratu ditut hemen emandako arauak eta bilakabideak.

OINARRITZAT ZER HARTU DUDAN: izan ditudan oinarriak Koldo Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca*, Pello Salabururen *Arau fonologikoak* eta *Hizkuntzaren soinu egitura*, eta Lourdes Oñederraren *Euskal Fonologia: palatalizazioa*, eta berrikiago, azken urteetan egin diren tesiak eta azterlanak (Hualde-Elordieta-Elordieta 1995, Ibarra 1995, Camino 1997, Ormaetxea 2006, eta Hualde 1997 eta Gaminde 1999-ren azentu-azterketak). Terminologiari dagokionez, lan berrietan erabiltzen ari diren terminologia erabili dut, eta bereziki Lourdes Oñederraren *Fonetika Fonologia hitzez hitz* hiztegi terminologikoa.

2. KAPITULUA: IZENAREN MORFOLOGIA

ZER EGIN DUDAN: izen-sintagmaren inguruak aztertu ditut kapitulu honetan: kasu-markek eta postposizioek (lotuek eta askeek) zer forma hartzen duten (taulak osatu ditut) eta zer erabilera duten (sintaxiaren eta semantikaren aldetik); izen-sintagmaren arloan Elgoibarren aipatzeko modukoak diren kontu batzuk (genero-bereizketa, sinkretismoa, plural hurbila, *-an* espletiboa...), zenbait zenbatzaile berezi eta, amaitzeko, hitz-sorkuntzako jakingarriak: eratorpen-atzizki nagusiak zein diren eta hitz elkartu ugarienen bilduma bat.

OINARRITZAT ZER HARTU DUDAN: *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I* (hemendik aurrera, *EGLU*), inguruetako herrietako azterketa monografikoak (aipatu nahi nuke Nerea Aretaren doktoretza-tesia, Eibarko kasu-marka eta postposizioen erabilerari buruzkoa), eta berri-emaileen adibideak eta haietako batzuei egindako inkesta berariazkoak.

3. KAPITULUA: ADITZAREN MORFOLOGIA

ZER EGIN DUDAN: aditzaren jokia aztertu dut kapitulu honetan: aditz jokatu-gabeek eta jokatuak (aditz laguntzaileek eta aditz trinkoek) zer forma izaten duten (taulak osatu ditut), adizkietan zer morfema mota erabiltzen diren, eta aditzaren arloan aipagarriak diren erabilera batzuk: zenbait aditzen erabilera bereziak eta zenbait aditz-lokuzio berezi.

OINARRITZAT ZER HARTU DUDAN: Makazaga (2006b), *EGLU II*, Yrizar (1991) eta, bereziki, inguruko hizkerak (Eibar, Bergara, Aramaio, Antzuola...) jasotzeko erabili den aditz-sistema.

4. KAPITULUA: SINTAXIA

ZER EGIN DUDAN: Elgoibarko hizkerako egitura konplexuen “gramatika” bat osatzen ahalegindu naiz hemen; ez da beharbada dialektologiarako arlo emankorregia, baina enfatizatu ditut dialektologiaren aldetik pertinen-teak izan daitezkeen ezaugarriak. Perpaus juntatuak hasieran (adibideak batez ere, ez baitago, nire ustez, berezitasun handirik arlo honetan Elgoibarko hizkeran), mendeko perpausak (*EGLU V, VI* eta bidean den *VII*-ko sailkapena erabili dut) eta, amaitzeko, testu mailako lotura edo lokailuak (Gramatika ba-

tzordeak *EGLU III*-n aztertu zituenak). Azalpenez eta erabilera bereziez gain, adibide ugari eman ditut, argi gera dadin egitura bakoitzaren erabilera.

OINARRITZAT ZER HARTU DUDAN: *EGLU III*, *EGLU IV*, *EGLU V* eta *EGLU VI* (eta *VII*) eta arlokako tesiak (Beñat Oyharçabal, Patxi Goena-ga, Iñaki Amundarain...).

5. KAPITULUA: ESAERAK, ESAPIDEAK eta INTERJEKZIOAK

ZER EGIN DUDAN: gai honi arreta berezia eskaini diot: iruditzen zait baliagarria izan daitezkeela gazteen belaunaldientzat kapitulu honetan egin-dako azterketak eta sailkapenak: ahozko hizkeraren ezaugarri nagusiak aztertu ditut, indargalduz doazkigunak; aral nagusian, testu libreetatik eta galdekizunetatik jaso ditudan esaerak eta esapide eginak bildu ditut; horiez gain, elkarrizketetan gertatzen diren interjekzioak, harridura-perpauzak eta egitura adierazgarriak bildu ditut, eta semantikaren eta sintaxiaren arabera nolabait sailkatzen ahalegindu naiz; halaber, ahozkoan hain erabiliak diren ezaugarriak: elipsiak, onomatopeiak, errepikapenak, ezezko perpausen ugaritasuna, hitz-ordena bereziak...

OINARRITZAT ZER HARTU DUDAN: Joxerra Garzia, Andoni Egaña eta Kike Amonarrizen ahozkotasanari buruzko argitalpenak, Iñaki Amundarainen doktoretza-tesia elipsiaren gainean, hizkera kolokialari buruzko erdarazko bibliografia, Gotzon Garateren esaerak (Elgoibarri dagokion *EL* marka zutenak bildu ditut), *Auspoa* liburutegiko hainbat liburu (Lasarte, Zavalá, Zubimendi...), eta berri-emaileen datuak, testu libreetakoak nahiz berriaz bilatutako esaerak eta esapideak.

6. HIZTEGIA

ZER EGIN DUDAN: Deba ibarrean, bateko eta besteko euskara jasotzeko, hiztegi garrantzitsuak egin dira: *Bergara aldeko hiztegia* (Elexpuru), *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes* (Izagirre), *Eibarko Hiztegi Etnografikoa* (Basauri-Sarasua), *Lexicón del euskera dialectal de Eibar* (Etxebarria), Aramaioko, Antzuolako eta Mallabiko lan monografikoetako hiztegiak (Ormaetxea, Larrañaga eta Mugarza). Tradizio horri jarraitu nahi izan diot nik ere, betiere hiztegi guztiek eta lan mota guztiek beharrezko duten muga ezarriz. Elgoibarko eta inguru hurbileko hitz bereizgarriak sartu ditut, Elgoibar dialektologikoki kokatzeko pertinentek izan daitezkeen lexemak eta

aldaerak bildu (mendebaleko hizkeretara egiten dutenak eta erdialdekoetara egiten dutenak); baina ez naiz horretan gelditu, eta zaharkituak geratzen ari diren hitzak ere jaso nahi izan ditut, bai eta, azkenean, elgoibartar hiztunaren hiztegi txiki bat egin ere (ia 2.500 sarrerakoa); ahalegin berezia egin dut txorien, belarren, loreen eta nekazaritza-munduko izenekin.

GINARRITZAT ZER HARTU DUDAN: berri-emaielen datuez gain, goian aipatu hiztegiak erabili ditut, bai eta Sarasolaren *Zehazki* eta *Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegia* eta, hitzen forma estandarra emateko, *Hiztegi Batua* ere.

7. TESTUAK

ZER EGIN DUDAN: Elgoibarko euskararen erakusgarri batzuk eman ditut hemen; orekatua egiten ahalegindu naiz: Elgoibarko auzo guztietakoak, emakumezkoenak eta gizonezkoenak, zuka eta hika ari diren hiztunen jarduna... Elgoibarko euskara erakustea du lehenbiziko helburu (euskarari eta hizkereri buruzko testuak ere badira, garrantzitsua iruditzen baitzait oharmenezko dialektologiaren ekarria), baina, bide batez, galtzen ari zaigun garai bateko mundu-ikuskeraren berri ematen ere ahalegindu naiz: nola bizi ziren gure guraso eta aitona-amonak, nola pentsatzen zuten, nola sentitzen... Horregatik, haien bizitzak markatu zituzten sasoiak, gertaerak eta erritoko jasotzen ahalegindu naiz: umetako bizimodua, gaztaroa, neskametza, soldadutza, gerra, ezkontza, lan-kontuak, feriak, azokak, jolasak, erromeriak...

GINARRITZAT ZER HARTU DUDAN: Gotzon Aurrekoetxeak (1997) *Uztaro* aldizkarian proposatzen dituen transkripzio-arauak erabili ditut testuak idazteko, ikerlanean zehar argi eta garbi markatzen ditudan salbuespenak salbuespen.

8. ONDORIOAK

ZER EGIN DUDAN: Elgoibarko euskara dialektologikoki kokatzeko ahalegin bat ere egin dut; jakina den bezala, mendebaleko hizkeren ezaugarri asko ditu Elgoibarkoak (adibidez, aditzaren parte handi bat mendebalekoa dela esan daiteke), baina erdialdeko ezaugarrien nahasketa ere badu: hainbat ezaugarri eta hitz edo aldaeraren isoglosak igarotzen dira Elgoibartik gertu, mendebaldera edo ekialdera, eta isoglosa horietako nagusiak identifikatzen ahalegindu naiz. Kokapen geografiko bertsuan daude Mendaro eta Mutriku,

eta hizkera hauekin dituen antzekotasunak eta desberdintasunak finkatzen ere ahalegindu naiz. Zuazok (1999, 2000b) eta Zuazo-Badihardugu elkarteak (2002) eginak dituzte inguru honetan azterketa batzuk, eta horiek abiapuntu-tzat hartuz, datu gehiago ematen ahalegindu naiz.

OINARRITZAT ZER HARTU DUDAN: Zuazo-Badihardugu elkarteak (2002) Deba ibarrari buruz eta bereziki Zuazok (1999, 2000b) Debabarrenari buruz argitaratutako lanak, Eibarko euskararen azterketa ugariak (Sarasua-Agirrebeña-Zenarruzabeitia, Basauri-Sarasua...), eta Soraluzeko, Mendaroko, Mutrikuko eta Debako berri-emaileak, Debako euskarari buruzko Txurruka-Urbieta (2003), Mutrikukoari buruzko Arrieta (1974) eta www.ahotsak.com webgunea.

0.5. ERABILI DIREN GRAFIARI BURUZKO IRIZPIDEAK

Lan honetan euskara batuan eman ditudan azalpenez gain, badira bestelako esaldiak eta testuak ere: hizkuntza bera deskribatzeko erabiltzen ditudan hitzunen aipamenak. Berri-emaileen esanak dira, halako ezaugarri edo fenomeno jakin bat argitzeko haien jardunetik atera ditudan hitzak, esaldiak eta pasarteak. Azpialan honetan deskribatuko ditut berri-emaileen jardun hori transkribatzeko erabili ditudan irizpideak.

Ulergarritasunaren eta zehaztasunaren arteko dinamika erabili dut aipamen horiek transkribatzeko irizpidetzat: ahalik eta modu ulergarrienean eman nahi izan ditut ahalik eta ahoskera-ezaugarri gehienak¹⁴. Bi irizpide horietako lehenbizikoa dela eta, Euskaltzaindiaren euskara batuko alfabetoa, idazkera ortografikoa, erabili dut, irakurleari neke handiegirik ez ematearren.

Denbora luzean ikertzaile bakoitzak bere erara egin izan ditu testuen transkripzioak, baina, gorago esan bezala, bada orain guztiak bateratzeko proposamen bat, eta hari jarraitzea erabaki dut, garbi adieraziko ditudan salbuespen batzuk gorabehera: ikus Aurrekoetxea 1997 lana.

Aurrekoetxearen irizpideei jarraituz, hauek dira erabili ditudan irizpide nagusiak:

¹⁴ Gotzon Aurrekoetxeak *Uztaro* aldizkarian ("Ahozko testuak transkribatzeko irizpideak", *Uztaro*, 23. alea, 1997) argitaratutako irizpideak erabili ditut hemen, azalduko dudan salbuespentxo bat edo beste gorabehera.

1) Kontsonante bustiak edo palatalizatuak gorde egin ditut:

il → ill (*zaila, makillia...*)

in → iñ (*baiña, zaiña, bebiñ...*)

it → itt (→ itx) (*zaitut, dittut, ditxut...*)

ind, ild → indd, ildd (*ninddun, inddar, bilddur...*)

is → ix (*ixilik, pixu ...*)

its → itx (*jaitxi...*)

4) *Ba-* eta *ez-/e-* partikulak aditzari lotuak idatzi ditut: *balitz, banixe...*; *eztator, ezpadator, eneuke eingo...*

5) Apostrofoa (') honako kasu hauetarako erabili dut:

a) Aditz nagusia eta laguntzailea elkarrekin ahoskatzean, bietatik batek edo biek kontsonanteren bat galtzen dutenean:

hartuko`ittuzu (< *hartuko dittuzu*)

esango`iazu (< *esango di(d)azu*)

b) Aditz nagusia eta laguntzailea elkarrekin ahoskatzean, silabaren bat galtzen denean:

bi`ot (< *bihar dot*)

Orobat jaso ditut bestelako aldaketa fonetikoak: bokalarteko kontsonanteen erorketak, bokal-erorketak, diptongoen monoptongatzeak...

6) Soinu berriak sortzen direnean, batez ere herskarien artean, parentesi artean ipini dut galdu den hotsa. Berdin, soinu berririk sortu ez arren sandhian dauden hitzen batek kontsonante bat galtzen duenean:

eztaki(t) pa (< *eztakit ba*)

Beste kasu batzuetan, parentesiak aldaera biak aukeran daudela erakusten du, bi ahoskerak egiten direla, edo, kasu jakin batzuetan, nekez bereiz daitekeela bata ala bestea egin den: *etxe(r)a*, *e(g)on*, *bixa(r)amona*, *a(g)uazill...*

7) Azentua ere erabili dut, esanahia bereizteko behar izan dudanean: *gizónak* (singularra) / *gizonak* (plurala).

Fonologiaren atalean azaltzen ditut Elgoibarko euskararen arau fonologikoak eta bilakabide fonetikoak. Ahoskeraz jabetzeko, horiek hartu behar dira aintzat, lehenik eta behin. Behin horiek aintzat hartu eta gero, idatziak

berezko dituen konbentzio batzuk hartu behar, eta nik ere hartu ditut, betiere irakurlearentzat testuak ulertzen eta irakurtzen errazagoak gertatzeko baina ahalik eta informazio gehien emateko asmoarekin. Horretan aldendu naiz Aurrekoetxearen proposamenetatik; haren proposamenen bi salbuespen hauek erabiltzea erabaki dut:

- Salbuespen bat da, konbentzio horietako bat, transkripzioetan *h*-a erabiltzea, nahiz jakina den Elgoibarko euskaran ez dela ahoskatzen. Nire ustez, grafia hura gabe dezente nekezagoa egingo litzaioke testuon irakurketa gure hizkerara ohituta ez dagoen irakurleari, hura ondo ezagutzen ez duen irakurleari, eta horrek eraman nau Aurrekoetxearen transkripzio-irizpideen salbuespen hau egitera.
- Bigarren salbuespen bat, *h*-arekin batera, *s* eta *z*, eta *ts* eta *tz*, bikote bakoitzean bi grafia erabiltzearena da, goiko salbuespenaren arrazoi berberetatik. Jakina da kasu honetan ere gurean neutralizatu egiten dela bikote hauetako bi kontsonanteen arteko oposizioa, eta frikarietan apikoalbeolarearen alde eta afrikatueta bizkar-albeolarearen alde neutralizatzen dela ahoskeran. Hala ere, idatzirako gorde egin dut bereizketa hori, eta grafia guztiak erabiltzea erabaki dut, ulermenaren mesedetan hori ere.


Salbuespen bi hauek ez dira salbuespen fonologiaren kapituluan, non, gai horretaz ari garenez, hitzak eta aldaerak ahoskatzen diren bezal-bezala transkribatu baititut, hau da *h*-rik gabe eta txistukarietako neutralizazioa kontuan hartuz. Irakurleak ulertuko eta barkatuko ahal du “salbuespenaren salbuespen” hau!



Koldo Zuazok (2006) *Deba ibarreko euskara* liburuan argitaratutako mapa. Mapa honetan, hiru eskualdetan banatzen du Deba ibarra: Debagoiena, Erdigunea eta Debabarrena, ibaiari jarraituz Elgoibartik beherako hizkerak.

• • • • •

Ondorengo orrialdean, “Euskalkiak, gaur” artikuluan (1998) Zuazok argitaratu zuen mapa dugu. Debabarrenean euskalkien arteko eragina dagoela erakusten du mapa horretan, bai eta tarteko hizkeratzat duela ere, besteak beste, Elgoibarkoa.



1. FONOLOGIA

Atal honetan Elgoibarko euskararen sistema fonologikoa erakutsi nahi dut, han gertatzen diren arau eta bilakabideak aztertu. Lehenbizi, zer sistema fonologiko duen erakutsiko dut. Ondoren, Elgoibarko euskararen gertatzen diren arau fonologikoak eta beste maila bateko bilakaera fonetikoak erakutsiko ditut, bai bokaletan eta diptongoetan, bai kontsonanteetan.

Gatozen, hasteko, sistema fonologikoarekin.

1.1. ELGOIBARKO EUSKARAREN SISTEMA FONOLOGIKOA

1.1.1. BOKALAK

Elgoibarko euskararen, euskalki eta hizkera gehienetan bezalatsu, bost fonema bokaliko ditugu: /i/, /e/, /a/, /o/, /u/.

Hiru irekiera-maila daude bokaletan: *a* da irekiena, *e* eta *o* tartekoak dira, eta *i* eta *u* itxienak.

i		u
	e	o
	a	

1.1.1.1. Bokal luzeak

Bokal luzeak ere badira Elgoibarko euskararen, Zuazok (1999, 52) oro har Deba ibarreko hizkerari buruz dioen bezala:

“Deba ibarreko berbeta guztietan dagoz bokal luziak, gazterixiaren jardunian galduaz doiazan arren”.

Tinbre bereko bokalarteko kontsonante bat galtzetik sortzen dira Elgoi-barko euskaran bokal luzeak batez ere.

Gatozen banan-banako adibideekin:

-AA-

<i>Aatik (hargatik)</i>	<i>Gaartza (Garagartza)</i>	<i>Konpaasio (konparazio)</i>
<i>Laa (laga)</i>	<i>Naaste (vahaste)</i>	<i>Txaal (txahal)</i>
<i>Maltzaa (Maltzaga)</i>	<i>Etaa (etara)</i>	<i>Esan naan (naban)</i>
<i>Baauka (badauka)</i>	<i>Gaa (gara)</i>	<i>Soldautzaa (soldautzara)</i>
<i>Maatz (mahats)</i>	<i>Saata (zarata)</i>	

-EE-

<i>Ee (ere)</i>	<i>Leengo (lehengo)</i>	<i>Esan seen (zeben)</i>
<i>Beeko (beheko)</i>	<i>Nee aldian (nere)</i>	<i>Esan dee (debe)</i>
<i>Difeente (diferente)</i>	<i>Seeko seera (zereko zerera)</i>	<i>Mee (mehe)</i>

-OO-

<i>Goorra (gogorra)</i>	<i>Soo-barrena (soro-barrena)</i>	<i>Goorik (gogorik)</i>
<i>Oilloor (oilagor)</i>	<i>Buenooo (bueno)</i>	<i>Txabola mooko bat (moduko)</i>
<i>Saloontzo (San Lorentzo)</i>	<i>Boondatia (borondatia)</i>	

-II-

<i>Iitaixa (igitaixa)</i>	<i>Astiik (astirik)</i>	<i>Argiik (argirik)</i>
<i>Ipini'ik (ipini egik)</i>	<i>Urki (Urkiri)</i>	<i>Biini (Bidania)</i>
<i>Inbiixa (inbidixa/inbirixa)</i>		

-UU-

<i>Daukuu (daukagu)</i>	<i>Dittuu (dittugu)</i>	<i>Kuutzeta (Kurutzeta)</i>
<i>Kuuntzuna (kuruntzuna)</i>	<i>Muskuutxu (Muskurutxu)</i>	<i>Kuutze (kurutze)</i>
<i>Irukuutzeta (Irukurutzeta)</i>		

Hemen eman ditudan adibideren batzuetan, gerta daiteke hizkera ardura-gabe bizkorrean bokal luze hori laburtzea (*leen>len*, *iitaixa>itaixa*, *ee>e*, adibidez), baina bokal-bakuntze hori ez da ahoskera arruntena.

1.1.2. DIPTONGOAK

Hona zein diren Elgoibarko euskaran diptongoa osa dezaketen bokal-elkarketak. Bigarren osagaitzat bokal itxia (bokalerdia) duten zenbait konbinazio, behearazko diptongo ere esan izan zaienak: *a, e, o, u + i, u* konbinazioak batez ere.

- [aj] *aista, lain, jai...*
- [aw] *gausa, arda, lau...*
- [ej] *eiñ, sei, bei...*
- [ew] *euskera, eualdi, neu...*
- [oj] *gois, nois, goi, sasoi...*
- [uj] *ipuiñ, deskuidau...*

Bestelako bokal-elkarteak, berriz, bokal itxia aurretik daramatenak, normalean bi silabatan ahoskatzen dira, eta ezin dira diptongotzat hartu.

- [i.a] *gonia, biar (lan), esan sian...*
- [u.a] *juan suan, astuan, rarua...*
- [i.e] *siesta, ies, iesi...*
- [u.e] *uekua, suerte, uesaba (ugazaba), Askue (Azkue)...*
- [i.o] *desio, semiok, reunio...*
- [u.o] *astuok, fuola, geruo...*
- [i.u] *pasiua, entenu, ekarri siuen...*
- [u.i] *suisidau, piñui (piñudi), kontuik (konturik)...*

Honela banatzen dira silabatan hitzok, adineko elgoibartarrek ahoskatzean:

[i.a] <i>go / ni / a</i>	<i>bi / ar</i>	<i>si / an</i>	
[u.a] <i>su / an</i>	<i>as / tu / an</i>	<i>ra / ru / a</i>	
[i.e] <i>si / es / ta</i>	<i>i / es</i>	<i>i / e / si</i>	
[u.e] <i>u / e / ku / a</i>	<i>su / er / te</i>	<i>u / e / sa / ba</i>	<i>As / ku / e</i>
[i.o] <i>de / si / o</i>	<i>se / mi / ok</i>	<i>re / u / ni / o</i>	
[u.o] <i>as / tu / ok</i>	<i>fu / o / la</i>	<i>ge / ru / o</i>	
[i.u] <i>pa / si / u / a</i>	<i>en / te / ni / u</i>	<i>si / u / en</i>	
[u.i] <i>su / i / si / dau</i>	<i>pi / ñu / i</i>	<i>ko / ntu / ik</i>	

Zenbait mailegu berritan gerta daiteke diptongo gisa ahoskatzea azken sail honetako bokal-elkarteren bat, baina ez da ohikoena: *iuak, fuerte...*

Diptongoetan gertatzen diren bilakabideak eta alternantziak geroago aztertuko ditugu, bokaletan gertatzen direnen ostean.

1.1.3. KONTSONANTEAK

Elgoibarko euskararen kontsonanteak aztertuko ditut atal honetan.

Lehenbizi, kontsonanteen azalpen labur bat egingo dut; zer fonema eta alofono nagusi dauden, eta, kontsonante-sail bakoitzaren barruan, kasuan kasuko fonema hitzaren zer lekunetan aurkitu dezakegun eta zer debeku duen aztertuko dut.

Ondoren, kontsonanteen arloko bilakabide fonetiko garrantzitsuenak bilduko ditut.

Lehenik eta behin, hona, ondoko taula honetan, Elgoibarko euskarako fonemen inbentarioa. Euskal Herriko Hizkuntza Atlasean erabili duten alfabetoa erabili dut nik ere.

Ohar gisa, esan dezadan gelaxka bakoitzean ezker partean eman dudala fonema ahoskabea eta eskuin partean ahostuna.

	Ezpain- bikaria	Ezpain- horzkaria	Hor- zkaria	Apiko- albeolarea	Bizkar- albeolarea	Sabai- aurrekoa	Belarea
Herskaria	/p/ /b/ [p] [b]		/t/ /d/ [t] [d]				/k/ /g/ [k] [g]
Sudurkaria	/m/ [m]			/n/ [n]			
Frikariak		/f/ [f]		/s/ [s]		/x/ [x]	/j/ [j]
Afrikatuak					/tz/ [ts]	/tx/ [tʃ]	
Albokoak				/l/ [l]		/ʎ/ [ʎ]	
Dardarkari bakuna				/r/ [r]			
Dardarkari azkarra				/rr/ [r̄]			

Hona, berriz, soinu edo alofono nagusien berri (ezkerraldean grafia eta ondoren ahoskera ematen dut):

b	[β]	Frikari ezpainbikari ahostuna
d	[ð]	Frikari horzkari ahostuna
g	[ʎ]	Frikari belare ahostuna
tt	[tt]	Herskari palatal ahoskabea
dd	[dd] ¹	Herskari palatal ahostuna
ñ	[ɲ]	Sudurkari palatal ahostuna
ll	[λ]	Alboko sabaikari ahostuna
y	[j]	Frikari sabaikari ahoskabea

Gatozen, bada, kontsonanteak multzoka aztertzerara.

1.1.3.1. Herskariak

Herskarietan, bi eratakoak ditugu, ahoskabeak eta ahostunak. Alde bate-tik hiru fonema ahoskabe ditugu: /p/ ezpainbikaria, /t/ horzkaria eta /k/ belare-a. Hirurak aurkituko ditugu hitz-hasieran: *pentzau, tapau, kumun*.

Hitz-amaieran /t/ eta /k/ bai, baina /p/ ez dugu aurkituko (ez baldin bada erabilera bereziren batean, onomatopeiaren batean-edo: *iep, eup*): *dot, bat, beintzat, bost, ixilik, esik, eurak...*

Geroago ikusiko dugun bezala, bakanak dira herskariz osaturiko kontsonante-taldeak. Mailegu berrien salbuespen batzuk gorabehera, mailegatu-tako hitzak kontsonante-talderik gabeko sistema horretara egokitzen dira adinekoen euskaran, jatorrizko hizkuntzako taldeak bakunduz:

anedotia (anécdota)
karaterra (carácter)
tratore (tractor)
otubre (octubre)
esatamente (exactamente)
direto (directo)

/t/ fonemak alofono palatalizatu bat du, [tt]-ren bidez adieraziko duguna, *i* bokalaren edo *Vj*- bokalardiaren ondoren gauzatzen dena: *saittu, sittuen, sittal, baitta, beittandu...* Baina badu ingurune horretan bertan beste alofono bat ere, zenbait herritarren artean gertatzen dena: [tʃ] afrikatu sabaiaurrekoa; batez ere kaleko ezaugarria dela esan behar, nahiz baserritar gutxi batzuek ere egiten du-

¹ Herskari palatalak ezin izan ditut egokitu Nazioarteko Alfabeto Fonetikora, eta horregatik erabili ditut zeinu berak grafiarako eta ahoskerarako.

ten, eta hitzun gazteagoen arteko ahoskera dela esan izan den arren, azterkizun izan ditudan adinekoen artean ere egiten dute ahoskera hori: *aitxa, ditxu...*

Herskarietan, hauek dira fonema ahostunak: /b/ ezpainbikaria, /d/ horzkaria eta /g/ belarea. Fonema hauek bokal artean doazenean, batez ere hizketa bizkorrean, frikari bihurtzeko joera dute, galtzera iristen ez direnean:

[β], [ð] eta [ɣ]

/d/ fonemak ere badu, bere kideko ahoskabeak bezala, alofono palatal bat, betiere ingurune honen ondoren doanean: [i, Vj + n, l]²: *eindda, inddar, ninddun, illdda, bilddur...* Hala ere, gero ikusiko dugu, bustidura aztertzean, indargalduta dagoela bilakabide hau.

1.1.3.2. Frikariak

Lau fonema frikari ditugu elgoibartarrok, laurak ahoskabeak: /f/ ezpainhorzkaria, /s/ apiko-albeolarea, /ʃ/ sabaiaurrekoa eta /x/ belarea.

/f/ hitz-hasieran nahiz hitz-barruan agertzen da, baina ez hitz-amaieran (ez baldin bada, betiere, onomatopeiaren baten kasuan: *uf, buf...*): *fijau, afan, diferente*. Gehienetan, /f/ agertzen den hitza mailegatua da. Gurean, arruntak dira halakoetan /f/ eta /p/-ren arteko alternantzia erakusten duten adibideak: *afisiolapisis, afai/apai, ferixa/perixa, golfeixa/golpeixa, famelixa/pamelixa, fulano/pulano...*

/s/ apiko-albeolarea lekune gehienetan ager daiteke: *saldu, esan, neska, gogos, nekes* (kontuan izan behar da hizkera honetan, mendebaleko hainbatetan bezala, bizkar-albeolare frikaria /s/ (idatziz <z>) apiko-albeolarearen alde neutralizatzen dela).

/ʃ/ sabaiaurrekoa ezaguna dugu gure jardunean, batez ere bokal artean. Bokal artean, *i* (edo *Vj*) eta beste bokal baten artean, tartekatzen den epentesiak ahoskera hauxe bera du (*satixa, abixa, erdixa, bixok, erdixen, selaixa, beixa...*). Hitz-hasieran eta -amaieran ere aurkitu daiteke, baina bokal artean baino askoz urriago³: *xamar, xuabe, exkax...*

² Geroago ikusiko dugu kasu honetan *i* bokalak edo *Vj* bokalardiak ez duela berez horzkari ahostuna palatalizatzeko gaitasunik: kontsonante sudurkaria edo albokoa behar du horretarako.

³ Ikus daitekeen bezala, hizkuntzaren erabilera adierazgarria erakusten duten adibideetan batez ere. Elgoibarren ez da gertatzen Eibarren hasi eta Debagoienan zehar ezaguna dugun hitz-

/x/ fonema belarea oso arrunta da gure hizkeran, bai hitz-hasieran, bai hitz-barruan ere: *jaun, (esan) juan, masaje, ajola...* Elgoibarko eta inguruko herrietako bereizgarrietako bat da zenbait adizkitan aurkitzen dugun hau: *esan jauat, ein jok, jibarduk...*

1.1.3.3. Afrikatuak

Elgoibarko euskarari, bi fonema afrikatu ditugu: /ts/ bizkar-albeolare ahoskabea (idatziz, <tz>) eta /tʃ/ sabaiaurreko ahoskabea (idatziz, <tx>).

/tʃ/ apiko-albeolarearen (idatziz <ts>) eta /ts/ bizkar-albeolarearen artean, bigarren honen aldeko neutralizazioa gertatzen da Elgoibarko euskarari, mendebaleko hizkera gehienetan bezala.⁴

/ts/ ez dugu hitz-hasieran aurkitzen, baina bai hitz-barruan eta hitz-amaieran: *atzo, etzi, antzeman, antz, beltz...*

Sabaiaurrekoa (/tʃ/) posizio guztietan dugu, nahiz ez izan oso ohikoa hitz-amaieran: *txapel, txakur, txori, ementxe, etxe, txepetx, motx...*⁵

1.1.3.4. Sudurkariak

Berez, bokal aurreko lekunean hiru sudurkari ahostun aurkitu ditzakegu: /m/ ezpainbikaria, /n/ apiko-albeolarea eta /ɲ/ sabaikaria.

/m/ eta /n/ hitz-hasieran, bokal artean eta kontsonante ondoren ager daitezke:

makal, kumun, konforme...
neska, bentana, karniserixa...

amaierako palatalizazioa (*goix, elex...*), eta ez da hizkera horietan bezain ohikoa hitz-amaieran soinu sabaiaurrekoa aurkitzea.

⁴ Aurrerago aztertuko dut neutralizazio hau.

⁵ Geroago ikusiko dugun bezala, ez da gertatzen Eibarren bertan hasi eta Debagoienan zehar hedatua dagoen palatalizazioa, *-i* bokalardiaren ondorengoa: guk [aits] ebakitzen dugu, eta ez [at].

Hori bai, zenbait hitzun adinekok, herskari horzkari ahoskabearen palatalizazioa sabaikaria egin beharrean [tʃ], sabai-aurrekoa egiten dute ([tʃ]), eta hortik badatoz, bai, hitz-amaierako sabai-aurrekoen adibide mordozka bat: *ditx, estakitx...*

/ñ/, ez dugu aurkitzen ez kontsonante ondoren ez eta hitz-hasieran ere (salbuespen batzuk izan ezik: *ñan-ñan...* gisako haur-hizkerako hitzen bat edo beste). Bokal artean bai, baina ia beti /n/ apiko-albeolarearen bustiduraren ondorio: *baiña, inusente, ipiñi, kamiño...*

Kontsonante aurrean, neutralizazioa gertatzen da, eta ondoren datorren kontsonantearen artikulazio-puntua hartzen du kontsonante sudurkariak:

senbat [sémbat]

Hitz-amaieran, ez dugu ezpainbikaririk, eta bai /n/ apiko-albeolarea, salbu palatalizazioa gertatzen den kasuetan, hau da *-i* bokalaren edo *Vj* bokalardiaren ondoren egokitzen denetan:

a, e, o, u _____ #

esan

amen

eon

lagun

i _____ #

eiñ

laiñ

jakiñ

miñ

1.1.3.5. Albokoak

Bi kontsonante alboko ditugu Elgoibarko euskaran, biak ahostunak: // apiko-albeolarea eta // sabaikaria.⁶

Apiko-albeolarea hitz-hasieran, hitz-amaieran, bokal artean eta kontsonante ondoren agertzen da: *langa, odol, olixo, arlote...* Sabaikaria, berriz, ez da ugaria hitz-hasieran, eta maileguetan bakarrik aurkitu dezakegu (eta horietako zenbaitetan erabilera lagunarteko arduragabeen): *llabero, llabe, llaga, llamada, llanta, llabada*. Kontsonante ondoren ezinezkoa da; bokal artean, berriz, // apiko-albeolarearen palatalizazioaren ondorioa da: *mutilla, sailla, milla...*

⁶ Beharbada egokiagoa da esatea bakar bat badugula, eta sabaikaria // -ren alofono bat dela, ez baita benetakoa oposiziorik gertatzen apiko-albeolarearen eta sabaikariaren artean (zenbait maileguren kasuan bakarrik: *lagallaga, labellabe*).

Hitz-amaieran, sabaikaria dugu *-i* bokalaren eta *Vj-* bokalardiaren ondoren, eta */l/* apiko-albeolarea, berriz, gainerako bokalen ondoren (*a, e, o,* eta *u*):

i _____ #

ill

mutill

saill

a, e, o, u _____ #

sabal

epel

odol

mardul

Aipatu nahi nuke adinekoek ez dutela yeismorik egiten soinu alboko sabaikaria duten hitzetan ([muti<a]); gazteagoen artean, berriz, arruntagoa da honelako ahoskera aurkitzea: [mutija].

1.1.3.6. Dardarkariak

Bi fonema dardarkari ditugu Elgoibarko euskaran: bakuna (*/r/*) eta azkarra edo gogorra (*/rr/*).

Bokalarteko ingurunean bakarrik daude elkarren artean oposizioan: *gori/gorri, arilarri, ereleerre, arelarre, sorol/sorro, siri/sirri...*

Gainerako ingurune guztietan, dardarkari azkarra bakarrik aurkituko dugu, alegia, bai hitz-amaieran, bai kontsonante baten aurreko testuinguruan, dardarkari azkarraren aldeko neutralizazioa gertatzen da: *takar, eser, orko, erten...*

Hitz-hasieran, euskarak ez du izan ohi dardarkaririk, eta, mailegu bidezko hitzetan, ingurune horretan zetozen dardarkariak egokitu egin ohi ziren euskararen sistemara: *a* edo *e* bokal protetikoak ezarri ohi ziren hitzaren hasieran: *arratoi, errege, Erroma...*

Elgoibarko euskaran ere, halatsu egokitu izan dira maileguak, oro har.

- Hitz hauetan, *e-* protetikoa erabiliz (jokabiderik ohikoena):

errege

errenta

erreparau

errespeto

erretirau

erresau

erromerixa

errekau

errota

erreja

erresarixo

errota

errubera

erretratu

...

- Hitz gutxi batzuetan, *a-* protetikoarekin:

<i>arrasoi</i>	<i>arrasto</i>	<i>arrasa</i>
<i>arratoi</i>	...	

Hala ere, esan beharra dago gaur egungo euskaran, mailegu berrietan, ez dela hain erabatekoa bokal protetikoa ezartzearen araua, ez behintzat aztergai dugun euskaran, Elgoibarko adinekoen lagunarteko jardunean: oso arruntak ditugu *R-* hasiera duten hitzak, esan bezala, mailegu berriagoetan:

<i>radixo</i>	<i>raro</i>	<i>rekadista</i>
<i>reunio</i>	<i>raketista</i>	<i>Rusia</i>
<i>reketete</i>	...	

1.2. ARAU FONOLOGIKOAK BOKALETAN

Atal honetan eta hurrengoan, bokalei dagozkien arau eta bilakabide nagusiak aztertuko ditut. Honetan, arauak direnak aztertuko ditut (sistematikoki gertatzen diren bilakabide fonologikoak, soinuaren oposizioak gauzatzen dituztenak), eta, hurrengoan, arauak izan gabe lexikoan gertatzen diren bilakabideak, orokorrak ez izanik zenbait hitzi bakarrik eragiten dietenak (aldaerak ere deituak) eta oposiziorik gauzatzen ez dutenak. Gauza bera egingo dut konsonantei dagokienez ere.

Adibidez, bi kontuak bereizten hasteko, gatozen bi mailatako bilakabide bi hartzera; ezin ditugu, esate batera, maila berekotzat jo bi hauek:

- A) *-a + a > -ia*: *gonia, alabia*...
- B) *e > a / ___R*: *txarri, basarri*...

Lehenbizko ezaugarria arau fonologikoa da gure hizkeran, sistematikoki gauzatzen dena, eta oposizioa eragin dezake (*alaba ≠ alabia*); bigarrena, berriz, hitz batzuetan baizik ez (adibidez, hauetan ez da gertatzen: **bardin, *barri*), eta, edozein kasutan, ez du oposiziorik gauzatzen (aldaerak baino ez lirateke *txarri* eta *txerri*): ezin har dezakegu arau fonologikotzat.

Ezinbestekoa da, bestalde, arauak ordena edo hurrenkera jakin batean gertatzen direla esatea: arauak nola ordenatzen ditugun, horren arabera emaitzak izango ditugu. Sistema bat osatuz elkarren artean ordenaturik daudela esan daiteke. Hori argitzeko, adibide bat ekarriko dut hona: Elgoibarko *gonia, semia* eta *ardixa* hitzak. Forma zehatz horiek azaltzeko, zenbait arau

aurkeztu behar ditugu, baina betiere ordena jakin batean. Honako hauek dira arauak, eta honako hurrenkera honetan aplikatu behar dira nahitaez:

- (1) a > e / __a
- (2) ø > x / i__a
- (3) e > i / __a

	/gona-a/	/seme-a/	/ardi-a/
(1)	gonea	_____	_____
(2)	_____	_____	ardixa
(3)	gonia	semia	_____

Arau bakoitza, dagokion hurrenkera aplikatzen da, eta horregatik dugu emaitza hori (*gonia*, *semia*, *ardixa*). Arauen ordena aldatuko bagenu (adibidez, 1-3-2 izango bagenu arau horien hurrenkera), beste emaitza bat genuke, Elgoibarko euskararen gauzatzen ez dena (balizko hurrenkera horretatik aterako lireratekeen **gonixa* eta **semixa* ez dira zuzenak gure hizkeran):

	/gona-a/	/seme-a/	/ardi-a/
(1)	gonea	_____	_____
(3)	gonia	semia	_____
(2)	* <i>gonixa</i>	* <i>semixa</i>	ardixa

Beste hurrenkera hau (3-1-2) balitz ere, ez genituzke Elgoibarren gauzatzen diren formak lortuko (*gonia*, *semia*, *ardixa*):

	/gona-a/	/seme-a/	/ardi-a/
(3)	_____	semia	_____
(1)	* <i>gonea</i>	_____	_____
(2)	_____	* <i>semixa</i>	ardixa

Hala, bada, ezin dugu arauen nolanhiko hurrenkera planteatu, ez bokaletan, ez eta kontsonanteetan ere.

Gatozen, bada, bokalen arauak aztertzeraz, bere hurrenkera egokian betiere.

1.2.1. -O- BOKALAREN IGOERA: *o* > *u* / _ *a, e, o*

Alegia, *o* bokala goiko *u* bokala bilakatzen da *a, e* eta *o* bokalen aurreko kokagunean.

Halaxe gertatzen da izenaren flexioan:

<i>beso</i> + <i>a</i>	→	<i>besua</i>
<i>beso</i> + <i>etan</i>	→	<i>besuetan</i>
<i>beso</i> + <i>ok</i>	→	<i>besuok</i>
<i>arto</i> + <i>a</i>	→	<i>artua</i>
<i>asto</i> + <i>ok</i>	→	<i>astuok</i>
<i>karro</i> + <i>etan</i>	→	<i>karruetan</i>

Halaxe gertatzen da erakusle mota batekin ere, izenaren aurretik eta ondoren doan erakuslearekin. Hona hemen erakusgarri pare bat:

<i>asto</i>	+ erakuslea	→	<i>ori astuori</i>
<i>astillero</i>	+ erakuslea	→	<i>ori astilleruori</i>

Hitz-barruan ere gauzatzen da arau hau:

<i>joan</i>	→	<i>juan (jun)</i>
<i>eroan</i>	→	<i>eruan</i>

Bai eta aditzaren jokoan ere:

ein juan
etorri suan
gertau jakuan
etorri giñuasen
jaruat
ein juau
jausi jakue

Ez da, ordea, araua aplikatzen bigarren mailako bokal-elkartze bat dugunean, hau da, bokalarteko kontsonanteren bat erori ondorengo bokal-elkartzea dugunean:

Kanpora → *kanpoa* → **kanpua*
Nora → *noa* → **nua*
Barkora → *barkoa* → **barkua*

Horrek esan nahi luke bokalarteko kontsonantea erori baino lehenagoko araua dela bokalen igoerarena, eta behin kontsonantearen erorketa gertatu eta gero ezin daitekeela aplikatu bokal-igoeraren araua.

Hitz-eratorpenaren mailan, ez da gauzatzen arau hau:

igo + *-era* → *ixoera* (**ixuera*)

Ez eta hitz-elkarketaren mailan ere:

Ondo + *ondo* → *ondo-onduan* (**ondu-onduan*)

Oso + *oso* → *oso-osua* (**osua-osua*)

1.2.2. /i _ V/ ARTEKO [j] EPENTESIA

I bokala nahiz *Vj* bokalardia *a*, *e* edo *o* bokalaren aurretik doanean, [j] soinu sabaikari epentetikoa tartekatzen da bien artean.

Halaxe gertatzen da, aurreko araua bezala, izenaren flexioan:

gorri + *a* → *gorrixa*

gorri + *etan* → *gorrixetan*

gorri + *ok* → *gorrixok*

zati + *etan* → *satixetan*

Hitz-barruan ere gertatzen da kontsonante epentetikoaren arau hau:

kanbiatu → *kanbixau*

bihar → *bixar*

ia → *ixa*

biharamon → *bixa(ra)mon*⁷

radio → *radixo*

jaio → *jaixo*

merienda → *merixenda*

Bai eta aditzaren jokoan ere:

ein daixen (< *da(g)ien*)

daixola (< *da(r)iola*)

⁷ Lehenago esan bezala, jatorrizko *-i* baten ondoren bakarrik aplikatzen da arau hau, eta ez beste arau baten bitartez *i* bilakatu den beste bokal baten kasuan, *i* sekundario baten kasuan: *egin behar* → *ein biar* → **ein bixar*; *etorri dira* → *etorri dia* → **etorri dixia*.

<i>ekarri daixoun</i>	(< <i>da(g)iogun</i>)
<i>es genkixen</i>	(< <i>genkien</i>)
<i>basakixen</i>	(< <i>zakien</i>)
<i>gertau leikixo</i>	(< <i>le(g)ikio</i>)

Elgoibar inguruko leku-izenetan ere gertatzen da arau hau:

Saturixo (Saturio)

Madarixa (Madariaga)

Askoitixa (Azkoitia)

Oso arau emankorra dela esan daiteke. Nolanahi ere, badira salbuespenak; flexio-morfologian, *GUZTI* hitzarena da nabarmenena, baina badugu *ERDI* hitzean ere salbuespen aipagarri bat⁸. Gauza bera *GORANTZI* izenarekin ere (*gorantziak!*, eta ez **gorantzixak!*).

Horiez gain, badira bestelako salbuespen batzuk ere:

- **Maileguzko hitzen kasuan** (esan behar da Elgoibarko euskarak ondo gorde izan dituela maileguetako *-a* amaierak), *-ia* amaiera duten kasuetan, batzuetan soinu epentetikoa tartekatzen da (*ferixa*, *animalixa*...: *Ola animalixa mordo bat. / San Bartolome egunian ere bai, ferixa egunian ere bai. / Ba, amen, ba, makixak sabiltzalako tontokeixa batzuegatik. / Eliminau sittuen sorginkeixa orrek eta*), baina ez beti (*Onek botikak ustu sitxuen Donostian, farmasia gustiak ustu ta kamioikarak ekartze sitxuen... bi-iru egunian*).
- **Diptongoz amaitzen diren hitz batzuetan** ere ez da beti soinu epentetikorik txertatzen. Ikus ditzagun salbuespenok, diptongoz diptongo:
 - *AI* diptongoa: normalean soinu epentetikoa dugu (*Biskaixa*, *jaixa*, *anaixa*, *naixa*, *i(g)itaixa*...), baina zenbait kasutan ez dago halakorik (*kanpaiak*, *anaiak*...; *ANAI* hitzaren kasuan, batez ere pluraleko erabileran ahoskatzen da epentesi-soinu hori gabe: *Anaiak alkarren kontra gerran. / Anaiak si(r)an*).
 - *EI* diptongoa: kasu honetan, ez dago arauaren urratzerik, eta epentesia tartekatzen da: *esteixak*, *beixa*, *arpeixa*...

⁸ *GUZTI* hitza *-x-* epentetikorik gabe ahoskatzen da beti, paradigma osoan (*etxe gustietan*, *emakume gustiak*...); orduak ematerakoan, berriz, *ERDI* hitzak ere ez du epentesirik hartzen (*lau t'erdietan*, *amar t'erdiak*...).

- *OI* diptongoa: amaiera hori duten hitzak soinu epentetikorik gabe ahoskatzen dira: *abioiak, kañoiak, morroiak, galoiak, kanbioiak, ka-joiak...*

– Beste salbuespen jakin batzuk ere baditu arauak, mailegu batzuetan:

<i>komunio</i>	<i>sosio</i>	<i>presio</i>
<i>junio</i>	<i>julio</i>	<i>gorantziak</i>
<i>(estietako) bisua</i>		

bai eta morfema arteko lekune batzuetan:

sorionak

eta hitz-elkarketako elkargunean ere:

beatzi-amar aldis
aundi-aundixa
erdi-erdiko

Ez da epentesirik txertatzen bokalarteko kontsonante bat galdu ondoren-go bokal taldeetan, ez eta, jakina, jatorriz *i* bokala ez dugun kasuetan:

derrior (**derrixor*)
abadiak (**abadixak*)
txintxuak sian (**sixan*)

Bokalarteko kontsonante frikariren bat erori osteko *-io-* soinu-kateek ere ez dute araua jarraitzen:

gitxiago → *gitxiao* → *gitxio* → **gitxixo*

1.2.3. DISIMILAZIOA: *-a + a > -ia*

-a berezkoa duten hitzei *-a* mugatzailea eranstean, disimilazioa gertatzen da:

-a + a → *-ia*

Berez, honako bilakabide hau bide da gertatzen dena: *aa* → *ea* → *ia*.⁹

⁹ Debagoienan, Aramaion adibidez, bilakabide luzeagoa gertatzen da: *aa* → *ea* → *ia* → *ie*: *arrebie, guardixie...* (Ormaetxea, 2006, 106). Gurean ez da halakorik gertatzen, eta azken-aurreneko urratsean gertatzen da araua.

<i>neska</i>	+	<i>-a</i>	→	<i>neskia</i>
<i>gona</i>	+	<i>-a</i>	→	<i>gonia</i>
<i>gauza</i>	+	<i>-a</i>	→	<i>gausia</i>
<i>okela</i>	+	<i>-a</i>	→	<i>okelia</i>
<i>txorakeixa</i>	+	<i>-a</i>	→	<i>txorakeixia</i>

Gertatzen dira mendebaleko erakusle mota batekin ere, izenaren aurretik eta ondoren doan erakuslearekin hain zuzen. Hona hemen erakusgarri batzuk:

<i>gauza</i>	+	erakuslea	→	<i>ori gausiori</i>
<i>gona</i>	+	erakuslea	→	<i>ori goniori</i>

(1) *Nik ori gausiori... gero enterau nitzan. Eta olaxe ba, aura ere estakitt nun il tzan eta nola, baiña etzan ill orduan. Eta, gau aretxetan san ori alarmiori nola sortu san Markiñan.*

(2) *Bitorrenekua, oiñ Iriondonekua dana, (...), orixe taberniori.*

Bestelako kasu-marka eta postposizioetan ere arau bera dugula esan behar; betiere, singularrean:

<i>neska</i>	+	<i>-ak</i>	→	<i>neskiak</i>
<i>gona</i>	+	<i>-ari</i>	→	<i>goniari</i>
<i>gauza</i>	+	<i>-arekin</i>	→	<i>gauzia(re)kin</i>
<i>okela</i>	+	<i>-aren</i>	→	<i>okelian (saiña)</i>

Kontuan izan behar dugu, bestalde, salbuespen direla berez mugatutzat jotzen ditugun (eta mugatzailerik behar ez duten) ahaidetasun-hitz batzuk: *ama, aita, amama, aittitta*... Hitz hauek ez dute araua jarraitzen, normala den bezala:

*ama (*amia)*
*aitta (*aittia)*
*aittitta (*aittittia)*

Hitz-eratorpenean gauzatzen ez den araua dugula esan behar da. Hona hori berresten duten adibideak:

*laga + -aldi → lagaaldixa (*lagialdixa)*
*Deba + -ar → debar (*debiar)*
*denda + -ari → dendari (*dendiari)*
*dantza + -ari → dantzari (*dantziari)*
*kaza + -ari → kasari (*kasiari)*
*taberna + -ari → tabernari (*taberniari)*

Hitz-elkarketaren mailan ere ez du indarrrik arau honek:

aska + *aurre* → *aska aurrian* (**askiaurrian*)
anaia + *arreba* → *anaixa-arreba* (**anaixi-arebak*)
nola + *hala* → *nola-ala*
hona + *hara* → *ona-ara*

1.2.4. -E- BOKALAREN IGOERA: *e > i* | *_ a, e, o*

Alegia, *e* bokala goiko *i* bokala bilakatzen da *a*, *e* eta *o* bokalen aurreko testuinguruan. Hitzaren flexioan, salbuespenik gabeko araua dela esan behar:

<i>eme</i>	+	<i>a</i>	→	<i>emia</i>
<i>etxe</i>	+	<i>etan</i>	→	<i>etxietan</i>
<i>seme</i>	+	<i>ok</i>	→	<i>semiok</i>
<i>esne</i>	+	<i>a</i>	→	<i>esnia</i>
<i>ume</i>	+	<i>ok</i>	→	<i>umiok</i>
<i>beste</i>	+	<i>ak</i>	→	<i>bestiak</i>
<i>oste</i>	+	<i>an</i>	→	<i>ostian</i>

Gertatzen dira, halaber, *hori semiori* gisako erakuslearekin, alegia, izenaren aurretik eta ondoren doanarekin. Hona hemen erakusgarri batzuk:

<i>ume</i>	+	erakuslea	→	<i>ori umiori</i>
<i>seme</i>	+	erakuslea	→	<i>ori semiori</i>
<i>beste</i>	+	erakuslea	→	<i>orrek bestiorrek</i>

Hitz-barruan ere gertatzen da:

<i>behor</i>	→	<i>bior</i>
<i>behar</i>	→	<i>biar</i>

Mailegu bakarren batzuetan ere gertatzen da:

<i>anteojos</i>	→	<i>antiojo</i>
<i>peoi</i>	→	<i>pioi</i>

Goiko erakusle motarekin gauzatzen den bezala, ez da gauza bera gertatzen beste erakuslearekin, izenaren ostean bakarrik ematen denarekin¹⁰; hona testuetatik ateratako pasarte batzuk:

¹⁰ Adierazgarria da, nire ustez, erakusle mota desberdinetan arauak desberdin jokatzea: barruragokoa dela adierazten du honek mendebaleko bereizgarria den erakusle bikoitza (*au etxiau* erakoa).

*urtebete onetan...(*urtebeti onetan)*

*es san deporte ortarakua...(*deporti ortarakua)*

*Bueno, i, ona! Etxe onekin tratua ein bia juau; i es onen fabore, es nere fabore: senbat balixo dau etxe onek?(*etxi onekin; *etxi onek)*

Antzeko debekua dugu postposizioen kasuan ere:

*ate ondora (*ati ondora)*

*nere ondoren sabillen (*neri ondoren...)*

Arau hau ez da gauzatzen bokalarteko kontsonante frikari bat erori ondorengo *-ea-* kateetan: *beatzi/*biatzi (bederatzi)*, *gaiñeal/*gaiñia (gainera)*, *laneal/*lania (lanera)*, *orreatik/*orriatik (horregatik)*, *earki /*iarki (edarki)*, *bea /*bia (bera)*, eta abar.

Eratorpen-morfologian ere ez da gertatzen arau hori:

*etxe + -oste → etx(e)oste (*etxioste)*

*etxe + -orde → etxeorde (*etxiorde)*

*luzera + -era → luzera (*luziera)*

Bilakabide hauek direla eta, kontu aipagarri bat ekarri nahi nuke hona: hitz baten kasuan, bitariko formak aurkitu daitezke, *illuntze* hitzaren kasuan, hain zuzen: *illuntzian* eta *illuntzixan*, bi formak entzun daitezke. Hona, bereizgarria den *illuntzixa* formaren erakusgarri batzuk.

(3) *Antxe, euskixa sauan arte, eta gero, illunabarrian, illuntzixan, lan asko eitteko, eta arrapataka.*

(4) *Da etortze suan aitta, illuntzi aldian etortze suan.*

(5) *Oin junda, enaiz etorriko iual illuntzira arte.*

1.3. BILAKABIDE FONETIKOAK BOKALETAN ETA DIPTONGOETAN

1.3.1. -E > -A HITZ-AMAIERAN

Hitz askotan, mugatzailerik gabeko formetan, *-e > -a* egiteko joera dago Elgoibarren:

lore > lora bat

labe > bi laba

landare > senbaitt landara

<i>andre</i>	>	<i>seiñ andra</i>
<i>zizare</i>	>	<i>sembat txitxara</i>
<i>kume</i>	>	<i>(txakur)kuma</i>
<i>bele</i>	>	<i>bela</i>
<i>ote</i>	>	<i>ota artian</i>
<i>emakume</i>	>	<i>emakuma</i>
<i>une</i>	>	<i>una bat</i>
<i>lau-une</i>	>	<i>lau-una</i>
<i>aldare</i>	>	<i>altara</i>
<i>golde</i>	>	<i>golda</i>

Joera hau nahiko indartsua da gure hizkeran, baina esan behar da mende-balderago, adibidez Eibarren¹¹ eta Debagoienean, indar handiagoa duela, hango hizkeretan hitz gehiagotan gertatzen baita *-E* > *-A* bilakabide hori. Esate baterako, Elgoibarren ez dira erabiltzen Eibarko eta Debagoieneko forma hauek: *agura*, *oba*, *suba*, *basurda*...

Hona elgoibartarren jarduneko adibide batzuk:

(6) Orrek *lorak*, danak eskus ebate'ia... Oiñ ori ere esta eitten.

(7) Oiñ, gu eote gean sasoiari, hau "tercera edad" eoten dok asko. *Andra* saarra, emazte, *andra-gisonak*, saarrak geixenak.

(8) Baiña au sela dan *landara* aundixa, onek lur geixo eskatze jok.

(9) Da beiñ ein sittuan ume *kumak*, *txakurkumak*, eta gure gison sanari esan tzion: (...)

(10) Ori esaututa gaure, an *altara* ixa geixenetan [abade] danak mesak ematen batera.

(11) Eon san *una* bat... batzuek dirua ere basauken baiña, ala ere, esin saben erosi.

(12) Arekin ibiltzen da *emakuma* bat altiaua

1.3.2. *E* > *A*/ __*rr*

-R- azkarraren aurreko kokagunean, *-A-* bilakatzen da *-E-* erdiko bokala.

¹¹ Ikus Eibarko adibide gehiago Sarasua (2005) liburuan, 74. orrialdean. Han *-a* amaiera-ekin ematen diren zenbait hitzetan, ez da Elgoibarren hala gertatzen (*agura*, *basurda*, *erla*, *suba*...). Aitorzen dute, hori bai, halako kasuetan Eibarren ere "nahaste handi samarra" dagoela, *-e* amaiera duten formak ere entzuten baitira hitz horietan.

Ikus ditzagun adibide batzuk:

<i>tallar</i>	<i>basarri</i>	<i>bastar</i>
<i>edar</i>	<i>txarri</i>	<i>bidar</i>
<i>istar</i>	<i>isardi</i>	<i>pipar</i>
<i>e(d)arki</i>	...	

Nahiko indartsua da Elgoibarren bilakabide hau, baina hemen ere ez da gertatzen ingurune fonetiko hori duten hitz guzti-guztietan: adibidez, *berdin* eta *berri* erabiltzen dira, eta ez mendebalderagoko *bardin* eta *barri* (Markina ondoko herriari (*Markiña-*)*Etxeberri* esaten zaio Elgoibarren, esate baterako, nahiz hangoentzat *Etxebarri* den).

Hona bokal-irekiera erakusten duten adibide batzuk beren testuinguruan:

(13) *Gero, tallarretan ere, ba, jun da autuekiñ ere berdiñ.*

(14) *(...) eta Tolosakuekin eta danekin, e(d)arki ni.*

(15) *Or dago, goixan, Aittola onduan basarri bat.*

(16) *Danak ganauak libre eote'ia bastarretan.*

Esan beharra dago, nolana ere, ez dela testuinguru foniko guztietan gertatzen; salbuespen ugari dagoela, alegia:

– Dardarkari gogorra leherkari baten aurrean dagoenean, ez da bokala irekitzen, salbuespenen bat edo beste (*eguardi*) baden arren:

<i>atertu</i>	<i>erten</i>	<i>okertu</i>
<i>berba</i>	...	

– Hitz-hasieran ere ez da gertatzen bokal-irekitze hau, ez euskal jatorriko hitzetan, ez bokal protetikoa duten mailegu bidezkoetan ere:

<i>errez</i>	<i>erri</i>	<i>erramu</i>
<i>erretirau</i>	<i>errekau</i>	<i>erreja</i>
...		

1.3.3. BOKAL ASIMILAZIOA: A > E / I, U (*Konts.*)__

Beheko -A- bokala itxi egiten da (E bilakatzen da) aurreko silabako bokal itxiaren (I-ren edo U-ren) eraginez.

Hona erakusgarri batzuk:

<i>ikesi</i>	<i>iez (< iaz)</i>	<i>uezaba (< ugazaba)</i>
<i>siketui</i>	<i>ikeragarri</i>	<i>ueri (< ugari)</i>

<i>izen</i> (< <i>izán</i>)	<i>ihertu</i> (< <i>ihartu</i>)	<i>isera</i> (< <i>izara</i>)
<i>illera</i>	<i>itxeso</i>	<i>bietz</i>
<i>maietz</i>	<i>iuel</i>	...

Batzuetan, bokala erabat ixteraino ere iristen da: $a \rightarrow e \rightarrow i$.

ikasi > *ikesi* > *ikisi / ikixi*

Hona goiko hitz horien zenbait adibide beren testuinguruan:

- (17) *Da oin guk eztozu balio telebisorako, ezer ikesi be.*
 (18) (...) *iez, eta oin bi urte ere bai.*
 (19) (...) *bedarra siketzia.*
 (20) *Etzi zortzi egun, Irukurutzetako eguna izeteko.*
 (21) *Itziar esaten dabe ai dala zabaltzen. Ikeragarri, ikeragarri.*
 (22) *Eta nik esate jauat landariari: “Nabi b’ok, ihertu hari”.*

Esan behar da, hala ere, Debagoiena aldean baino indar gutxiago duela Elgoibarren bokal-asimilazio honek. Batetik, ez da sistematikoa: zenbait hitzetan besterik ez da gertatzen, eta horietako askotan ere asimilaziorik ez duten formak ere entzuten dira. Bestetik, lexema-barruan bakarrik gertatzen da, eta ez, adibidez, hitzaren flexioan: ez dugu *-a* mugatzailea ixten den bilakabiderik, nahiz *-i* edo *-u* amaiera duten erroen ondotik joan.

satixa (eta ez **satixe*)
astua (eta ez **astue*)
ganaua (eta ez **ganaue*)
eguna (eta ez **egune*)
mutilla (eta ez **mutille*)
abioia (eta ez **abioie*)

Gauzak horrela, hitz-barruan gertatzen den fenomenoak dugula esan daiteke.

Hitz-barrukoak bai, baina, gainera, ez nolana hiko baldintzetan gertatzen dena. Adibidez, badirudi ez direla oso ohikoak diptongoetako *-j* edo *-w* bokal-lerdien eraginez asimilatutako kasuak:

maietz
beintzet (gutxitan)

Halakoetan, esan bezala, formarik arruntenak asimilaziorik gabekoak dira:

baiña (eta ez **baiñe*)
baitta (eta ez **baitte*)
gausa (eta ez **gause*)

aitta (eta ez **aitte*)
eualdi (eta ez **eueldi*)
euardi (eta ez **euerti*)

Hitz barruan ere, ez da edozein hitzetan gertatzen asimilazioa:

sekula (eta ez **sekule*)
ixa (eta ez **ixe*)
biskar (eta ez **bisker*)

Hitzaren esparrutik urrunduz goazen heinean, beraz, indarra galtzen du bilakabide honek; lehen aipatu dugun mugatzailearen kasutik hasi (bai eta, oro har, izenaren flexioan ere¹²), eta kanporagoko egitura (hitz eratorriak, hitz elkartuak) hauetaraino:

ardi bat (eta ez **ardi bet*)
etorri da (eta ez **etorri de*)
sartu da (eta ez **sartu de*)
arrikada (eta ez **arrikeda*)
anai-arreba (eta ez **anai-erreba*)
mendi-saill (eta ez **mendi-seill*)

Bilakabide hau dela eta, aurreko bilakabidea (hau da, *e* bokala *R* azkarra-
 ren aurrean irekitzearena) izan duten hitz batzuk ekarriko ditut hona:

bidar *iztar*
izardi *pipar*

Hizpide ditugun bilakabideen aplikazio-hurrenkerak izan dezake hitz hauen forma zein den ulertzeko giltza. Badirudi, forma hauek ikusita, bokal-asimilazioa gertatu dela aurrena:

1. $A > E / I, U$ (*Konts.*)__

Eta gero *E* irekitzearena:

2. $E > A / __rr$

1.3.4. HITZ-HASIERAKO *U- / I-* ALTERNANTZIA

Alternantzia honi dagokionez, esan behar da Elgoibarko euskara ez datorrela bat mendebaleko euskararekin; mendebalean *u-* hasiera duten

¹² *Astuakin, satixakin* esaten da, eta ez **astuekin* (sing.) eta **satixekin* (sg.).

hitzetatik, kasu jakin bi hauetan bakarrik erabiltzen da *u-* hasiera duen aldaera:

ugarixo

*urten*¹³

Ez ditugu erabiltzen, ordea, mendebalean nagusi diren aldaera hauek (Eibar aldean eta Debagoienean, besteak beste, erabiltzen dira forma hauek):

**ule* (Elgoibarren, *ille*)

**ultze* (Elgoibarren, *iltze*)

**urun* (Elgoibarren, *iriñ*)

**uri* (Elgoibarren, *iri*)

Ez eta, Debagoieneko beste adibide bat jartzearen, Aramaion erabiltzen diren beste hauek:¹⁴

upiñ (ipuin)

usen (izain)

1.3.5. BOKAL-SINKOPA

Ez da indar handiegiko fenomeno azenturik ez daraman bokal baten erortzearen hau, baina badira adibideren batzuk edo beste, batez ere hizkera bizkorrean eta lagunartekoan.

Hona adibide horietako batzuk:

(*arratzalde*) *ártzalde* → *átzalde*

(*peseta*) *pésta*

(*isaten/iseten*) *ísten*

(*bederatzi*) *be(d)rátzi* → *berátzi*

Hona adibide batzuk beren testuinguruan:

(23) *An tiraka ibiltzia isten suan, pixkat askeneako nekatzen suan baiña.*

(24) *Artzaldian geatuko gaittuk txikito pare bat jotzeko.*

(25) *Senbat pesta isango sian, ba?*

¹³ *Erten* aldaera erabiltzen da gehiago, nolahi ere.

¹⁴ Ormaetxea (2006, 110).

Hitz-hasieran ere, inoiz gal daiteke bokala:

(*etxakixat*) → *txa(k)ixat*
 (*etorri!*) → *torri!*

Ikus ditzagun beren testuinguruan:

- (26) *Txakixat i eonda eongo aisen an.*
 (27) *Torri ona!*

1.3.6. -OI/-OE ALTERNANTZIA HITZ-AMAIERAN

Hitz-amaieretan, ohikoa da gure hizkeran -OI eta -OE diptongoen txandakatzea: bietariko formak aurkitzen ditugu zenbait hitzen mugagabeko formetan. Hona hemen horietako batzuk:

<i>morroe/morro</i>	<i>milloe/millo</i>
<i>sasoe/saso</i>	<i>batalloe/batallo</i>
<i>frontoe/fronto</i>	<i>bagoel/bagoi</i>
<i>turroel/turro</i>	<i>kamioel/kamio</i>
<i>pabelloe/pabello</i>	<i>korrokoel/korrokoi</i>
<i>robelloel/robello</i>	<i>txanpiñoel/txanpiño</i>

...

Ikus ditzagun -OE amaiera duten adibide batzuk beren testuinguruan:

- (28) *Bata morroe eta bestia kalian.*
 (29) *Eske len, sasoe baten, medikuak-eta basarri askotara etzeben jun nai iseten.*
 (30) *Oingo gastiak orrenbeste milloe batuta! Eta ontxe ere saldu eitte'ia etxiak! Ogeta bi milloe ta, ogeta lau milloe ta.*
 (31) *Elgoibarren ere ortxe fallo aundixa dao: prontoe ganorasko bat es.*

Hona, berriz, goiko hitz horien -OI aldaera duten adibide batzuk:

- (32) *Ortze morroi eon nitzan baiña ni, basarrixan.*
 (33) *Baiña berua, ta garixa jotzia ta orretxek, saso txarrenak.*
 (34) *Ba, tratora bat nai saban. Tratora usautakua, berrixa bi-iru milloi eskatze sebela ta.*
 (35) *Geo Larraitz baiño lenao beste, beste erri txiki bat dao an... sela esate jako? Larraitzea jun baiño lenao, pronto edar bat-eta daukas.*

Esan beharra dago, hitz bakar baten salbuespenarekin, -OI amaiera duten formak direla nagusi hitz horietan. Salbuespena *sasoe/saso* da: lehenbiziko for-

ma 12 aldiz eta bigarrena 9 aldiz agertu da nire corpusean. Gainerakoetan, alde handiz ez bada ere, gehiago dira, esan bezala, *-OI* amaiera dutenak (*mi-lloe/milloi*: 7/11; *frontoe/frontoi*: 2/3...).

Zenbait hitzetan, ez ditut aurkitu *-OE* amaiera duten aldaerak testu libreetan (*balkoi*, *kartoi*, *melokotoi*, *biberoi*, *bastoi*...), baina esan beharra dago, batetik, agerraldi baxuko hitzak direla *-OI* aldaeran ere, eta, bestetik, berriemaile zenbaiti galdetuta, nahiko arruntzat jotzen dutela hitz horiek *-OE* ebakitzea.

1.3.7. *-AI-* / *-EI-* ALTERNANTZIA

Hitz gutxi batzuetan, diptongo bi hauen alternantzia gertatzen da, eta bi aldaerak erabiltzen dira:

gaistua / *geistua*
gaiski / *geiski*
naikua / *neikua*
gaiñera / *geiñera*
gaixo / *geixo*

Adibide batzuk ekarriko ditut, hitz beretan bietariko aldaerak dituztenak, alternantzia dagoela erakusteko; *-EI-* diptongoarenak lehenbizi:

- (36) *Geiski ikusitta sauan basarritarra len.*
 (37) *Geistua pertsonia aura san!*
 (38) *Esteixak, ondo: soiñua neikua beintzat eta.*
 (39) *Kalian estao lekurikan. Eta, geiñera, kalian kotxia nun lagarik estao.*

Eta *-AI-* diptongoarenak ondoren:

- (40) *Kalian daure onduen bisi dianak ta gaiskixen bisi dianak ere bai.*
 (41) *Bu! Jente gaistua asko juntatzen dok.*
 (42) *Or sebisela billurra sauken naikua itxuria, eskutauta eon sittuan pixkaen baten o.*
 (43) *Suk esautuko'su aura, gaiñera.*

1.3.8. DIPTONGOEN BAKUNTZEAK

Zenbait kasutan, diptongoak bakuntzeko joera nabaritzen da Elgoibarko adinekoen euskaran. Monoptongazioa esan izan zaio fenomeno horri.

Hona hemen alternantzia hori erakusten duten hitz batzuk:

guraisak / gurisak
bakoitza, bakuitza / bakutza
laurden / laren

Ez da gertatzen, berriz, mendebalerago hitz-amaieran gertatzen den dip-tongo bakuntze berezi bat¹⁵: **AIN** > **AN**. Adibidez, Eibarren eta Soraluze ez bezala, hauek erabiltzen dira Elgoibarren:

espaiña (eta ez **espana*)
labaiña (eta ez **labana*)
saiña (eta ez **sana*)

1.3.9. OI / UI ALTERNANTZIA

Hitz jakin batzuetan, gutxitan, alternantzia hau gertatzen da hitz-barruan:

bakoitz / bakuitz
Askoitti / Askuitti
askoittiar / askuittiar
igoiñ / iguiñ

Hona bietariko adibide batzuk beren testuinguruan (oharrarazi nahi dut hitzutun batek bietariko formak erabili dituela hitz berean, azken adibidean):

- (44) *Kuarteleko bakuitzari tokatze jakuan.*
(45) *Askuitti aldian-da ertetze sittuan gainera [sorgin] asko.*
(46) *Jose sakan isena eta aserretu dia bixak, askoittiar ori tta auek, ta burrukia.*
(47) *Diferentia da, erri bakoitzak diperentia [euskara].*
(48) *Bai, ta igoña diot playiari, iguiña diot nik playiari.*

1.3.10. BOKALERDIAK KONTSONANTE BIHURTZEA

Ez da halakorik gertatzen Elgoibarko egungo euskaran. Diakroniara ba-goaz, ikusten dugu kontsonante bihurtutako bokalerdiak edo kon-sonanteerdiak baditugula; honako kasu hauetan, adibidez:

¹⁵ Soraluze bertan, eta Debagoienan, *espana*, *labana* eta *sana* ebakitzen dira (Ormaetxea 2006, 477, 494 eta 510, hurrenez hurren).

gaba
gabez
esan debe
ein seben
*ekarri naban*¹⁶

1.4. KONTSONANTEEN ARAU FONOLOGIKOAK

Gatozen orain kontsonanteetan gertatzen diren arau fonologikoekin eta aldaketa fonetikoekin. Lehenbizi, bokaletan bezala, araei ekingo diegu.

1.4.1. TXISTUKARIEN BEREIZKETAREN NEUTRALIZAZIOA

S, Z → **S**
TS, TZ → **TZ**

Mendebaleko hizkeretan bezala, Elgoibarkoan ere neutralizatu egiten dira txistukari frikariak, idatzizko <Z>-ren eta <S>-ren ahoskerak: [s] ahoskatzen da guztietan, frikari apiko-albeolarea. Horri esaten diogu S-ren aldeko neutralizazioa.

Hona txistukari frikarien adibide batzuk, eta haien egungo ahoskera:

ezagun → *esagun*
esan → *esan*
zakixan → *sakixan*
izan ziran → *isan sian*
hazi → *asi* [aʃi]
hasi → *asi* [aʃi]

Gaur egun, mendebaleko hainbat lekutan bezala, batere salbuespenik gabe gertatzen da neutralizazio hau.

Txistukari afrikatuekin ere beste neutralizazio bat gertatzen da: kasu honetan, ez dira bereizten <TZ>-ren eta <TS>-ren ahoskerak, eta TZ-ren aldeko

¹⁶ Adizki hauetan dago Mendaroko aditzarekiko desberdintasun bakanetako bat: Mendaron diptongoz ematen dira adizki hauek guztiak: *esan deue*, *ein seuen*, *ekarri nauan*... Elgoibarren, berriz, bokalardia kontsonante bihurtuta.

neutralizazioa gertatzen da¹⁷, hau da, afrikatu bizkar-albeolarea ahoskatzen da bi kasuetan: [ts].

Hona horren adibide batzuk:

<i>arratsalde</i>	→	<i>arratzalde</i>
<i>etzi</i>	→	<i>etzi</i> [etsi]
<i>etsi</i>	→	<i>etzi</i> [etsi]
<i>atso</i>	→	<i>atzo</i> [atso]
<i>atzo</i>	→	<i>atzo</i> [atso]

Ohar gisa honako hau esan nahi dut: gaur egun salbuespenik gabeko araua da neutralizazio bikoitz hori. Hala ere, sarrerako hitzetan adierazi dudak bezala, testuak transkribatzeko erabili dudak grafiari buruz ari nintzenean, berri-emaileen testuak transkribatzerakoan (artifizialki beharbada baina) gorde egin ditut bereizkuntza horiek, eta grafia guztiak erabili ditut (*s*, *z*, *ts* eta *tz*), horrela Elgoibarko hizkera ezagunegia ez zaion irakurleari irakurketa samurragoa eta ulergarriagoa egingo zaiolakoan. Gauza bera esan behar, bide batez, *H*-ari dagokionez ere: dakigun bezala, galdua da gurean, ez da ahoskatzen, baina transkripzioetan erabili dut <h> grafia. Hori bai, kapitulu hau fonologiari eta fonetikari eskainitakoa denez, hemen hitzak ahoskatzen diren bezala jaso nahi izan ditut: beraz, txistukarien bereizketarik gabe eta *h*-a idatzi gabe eman ditut hitzak eta testuak.

1.4.2. KONTSONANTEEN PALATALIZAZIOA EDO BUSTIDURA

Euskal Herriko beste hainbat lekutan bezala, Elgoibarko euskaran ere indar handia du *i* bokalaren nahiz *Vj* bokalerdiaren ondorengo kontsonanteen bustidurak edo palatalizazioak.

Hona, hasteko, adibide batzuk; honelakoez jardungo dugu ondorengo partartetan:

¹⁷ Hona Yrizarrek zer dioen soinu-bereizketa honetaz (Yrizar, 1991): “En el núcleo urbano elgoibarrés no se hace distinción entre *ts* y *tz*, por un lado, ni entre *s* y *z*, por otro, según pudimos comprobar con nuestro informador D. Lázaro Unzueta. Sin embargo, tal distinción sí fue apreciada en algunos caseríos, según atestigua una observación anotada en el cuaderno del “*Erikkizundi Irukoitza*” (1920-1925) correspondiente a Elgóibar, en la que se hace constar que en el núcleo no se realiza tal distinción”.

<i>milla</i>	<i>mutilla</i>	<i>iñor</i>
<i>baiña</i>	<i>itturrixa</i>	<i>dittut</i>
<i>habittasio</i>	<i>etorri deiñ</i>	<i>ikusi ninddun</i>
<i>ofisiña</i>	<i>gasoliña</i>	<i>inddar</i>
<i>sainddu</i>	<i>bilddur</i>	<i>abixu</i>
<i>pixu</i>	...	

Gatozen, atalez atal, palatalizazio mota bakoitza aztertzeraz: zer ingurune fonikotan gertatzen den eta zer indar duen. Hasteko, heldu diezaiozun sudurkariari eta albokoaren palatalizazioari edo bustidurari.

1.4.2.1. *N* eta *L*-ren bustidura

Kontsonante sudurkari eta alboko apiko-albeolareak palatalizatu egiten dira *i* bokalaren eta *-j* bokalerdiaren ostean:

<i>-IL-</i> → <i>-ILL-</i>	<i>milla, mutill, makilla...</i>
<i>-VJL-</i> → <i>-VJLL-</i>	<i>saila, saltzaille, eskaillu...</i>
<i>-IN-</i> → <i>-IÑ-</i>	<i>iñor, miñ, suiña, giñan, sorgiñ...</i>
<i>-VJN-</i> → <i>-VJÑ-</i>	<i>baiña, saiña, oiñ, baiñu, gaiñera...</i>

Adibideetan ikusi dugun bezala, hitz-barruan eta -amaieran gertatzen da palatalizazioa, era automatikoan gertatu ere. Salbuespenen batzuk baditugu, hala ere.

Lehenbizikoa Lurdes Oñederrak (1990, 30) deskribatutako ingurune batean gertatzen da: alegia, *i*-ren ostean palatalizatu ohi diren bi kontsonante hauek *i* bokalak inguratua aurkitzen direnean, aurretik eta atzetik *i* bokal bana dutenean. Halako kasuetan, normala izaten da palatalizaziorik gabe ahoskatzea, nahiz eta izaten diren palatalizatutako aldaerak ere (*ibilli* eta *ipini* dira nabarmenenak):

<i>ixilik</i>	<i>ibili</i>	<i>familixa</i>
<i>militar</i>	<i>klinika</i>	<i>txilixo</i>
<i>opiniua</i>	<i>ipini</i>	...

Salbuespen-iturri den ingurune foniko hori izan gabe ere, badira, ordea, palatalizatu gabeko kasuak, maileguzko zenbait hitzetan:

<i>kilo</i>	<i>kilometro</i>	<i>pilotu</i>
<i>estilo</i>	<i>tila bat</i>	<i>jubilau</i>
<i>fusilau</i>	<i>desfilau</i>	<i>marina</i>

<i>pisina</i>	<i>eliminau</i>	<i>dominau</i>
<i>mina</i>	...	

Hala ere, salbuespenak salbuespen, esan behar da maileguzko hitzetan normalagoa dela palatalizazioa gertatzea adinekoen jardunean:

<i>abilla</i>	<i>illeria</i>	<i>iskiña</i>
<i>domiña</i>	<i>gabardiña</i>	<i>makiña</i>
<i>kosiñerua</i>	<i>kamiñua</i>	<i>ofisiñia</i>
<i>botikiña</i>	<i>aspiriña</i>	<i>fasill</i>
<i>killo</i>	<i>bakillaua</i>	<i>trankilla</i>
<i>milla</i>	<i>guardasibilla</i>	<i>automobilla</i>
<i>abrilla</i>	...	

Hona bi kontsonanteen palatalizazioa duen adibide bat:

iñutilla

Pertsona-izenetan eta deituretan ere palatalizazioa da arruntena:

<i>Gabiñ</i>	<i>Sabiñ</i>	<i>Hillario</i>
<i>Arakistaiñ</i>	...	

Hitzaren eratorpen-jokoan ere badu *i* bokalak nahiz *-j* bokalerdiak palatalizatzeke ahalmena:

<i>bi + na</i>	→	<i>biña</i>
<i>sei + na</i>	→	<i>seiña</i>

Ez da hala gertatzen, ordea, horiek baino urrunagoko testuinguruetan, hitzaren mugatik haratago doan hitz-elkarketan, adibidez:

afari-legia eiñ
euri-lanbrua
iru-lau egun
lodi-lodixa
begi-lusia

1.4.2.2. Leherkarien bustidura: *T* eta *D*

Leherkarien kasuan, goikoak *L* eta *N* bezain automatikoa den palatalizazioa dugu horzkari ahoskabearena: *i* bokalaren nahiz *Vj* bokalerdiaren ondoren, palatalizatu egiten da.

*-IT- → -ITT- (→ -ITX-)*¹⁸
-VJT- → -VJTT- (→ -VJTX-)

Hala gertatzen da hitz-barruan nahiz -amaieran:

<i>aitta</i>	<i>dittuk</i>	<i>kitto</i>
<i>senbaitt</i>	<i>estakitt</i>	<i>eitten</i>
<i>ibilittako</i>	<i>Askoitti</i>	<i>sittuen</i>

Lexemaren barruan, bada, eta salbuespenak salbuespen, palatalizazio honen indar handia duela esan daiteke.

Ikus dezakegu morfema-mugan ere baduela indarra:

<i>mendi + tik</i>	→	<i>mendittik</i>
<i>bi mendi + -tako</i>	→	<i>bi mendittako</i>
<i>sei selai + tan</i>	→	<i>sei selaittan</i>
<i>bi sati + tan</i>	→	<i>bi satittan</i>

Hitzaren eratorpen-jokoan ere badu indarra:

<i>basarri + tar</i>	→	<i>basarrittar</i>
<i>Biskai + tar</i>	→	<i>biskaittar</i>
<i>argi + tasun</i>	→	<i>argittasun</i>
<i>sati + -tu</i>	→	<i>satittu</i>

Hitzaren mugetatik haratago ere badu oraindik indarra:

Illobai tta esan niuen.
Kontxi tta etorri sian.
Bi tta bat irabasi nion partidua.
Sei tt'erdiak sian.

Hitz-elkarketan agortu egiten zaiola dirudi hona bitartean izan duen indarra:

*Mendi + tontor → mendi-tontorra (*mendi-ttontorra)*
Nekasari + turismo → nekasai-turismo

¹⁸ Parentesi artean eman dut gure artean entzuten den soinu hori ere; kontua da oraindik (adinekoen jardunaz ari garela gogorazi behar dut) nagusi dela herskari sabaikariaren ahoskera, txistukari afrikatuaren aldean, baina kalean batez ere eta zenbait baserritarrek ere [tʃ] ahoskatzten dute era honetako palatalizazioetan.

T herskariaren bustidurari dagokionez, goragoko oinoharrean esan dudan bezala, jatorrizko bustidura *-ITT-* dela esan behar (*dittu, aitta, maittia...*). Nolanahi ere, aspaldi samarreko urteetan zabaltzen hasita dago *-ITX-* bustidura, kalean, bai adinekoen jardunean, bai eta (batez ere) gazteagoen jardunean ere. Ez dirudi azken urteetako bilakaera denik honek, honela baitio Yrizarrek (1991).

“En el momento actual (1983), se emplea exclusivamente, en el núcleo urbano, el sonido *tx*, incluso por personas mayores. (...) En cuanto a la pronunciación hacia 1920-1925, época en la que Bähr recogió las formas verbales en los pueblos guipuzcoanos, se deduce (...) que se empleaban ambas pronunciaciones, si bien *tx* se usaba más bien en el núcleo y entre los jóvenes.”

Gaur egungo berri-emaile baseritar batzuek kaletarren ahoskera berri hori arbuatzen dute nik jasotako elkarrizketetan:

“Nik askotan esan isan jauet tallarran ibiltze giñanian da: “suek estakisue es erderas eta es euskeras”. Egixa dok, geñera. Gausa bat *eittia* esan bia dok, eta *eitxia* gaiski daok. Au geiski daok. Ume bat ero, iual dok nobixiari edo andriari esan bia badiok *maitxia!* *Maittia* esan biar badiok ere, *maitxia*.”¹⁹

Gatozen orain *D* horzkari ahostunarekin zer gertatzen den aztertzeraz; honi dagokionez, beste baldintza foniko bat behar da palatalizazioa gertatzeko, eta, horrez gain, indar gutxiago duela ere esan behar da. Honako ingurune hau behar da (*i* bokala nahiz *-j* bokalerdia izan daitekeelarik) *D*-ren palatalizazioa gertatzeko:

<p><i>-IND- → -INDD-</i> <i>-VJND- → -VJNDD-</i></p>

inddar
a(g)inddu
sainddu
eiñ esindda
dantzan eindda
bilddur
ildda
bilddotz

¹⁹ Joxe Lizarralde berri-emailearena da aipamen hau.

Kasu honetan, ez adibideak dira ugariak, ez adibide horietan beretan ere beti gauzatzen da ahoskera palatalizatua (*indar, bildotz, bildur, saildu...*): indargaltzen ari den palatalizazio mota baten aurrean gaudela esan daiteke, zalantzarik gabe, gazteagoen jardunera joan beharrik gabe horretaz jabetzeko.

1.4.2.3. Txistukarien bustidura: S

Frikari apiko-albeolarearen palatalizazioa bakarrik aipa daiteke hemen, ez baita afrikatu bizkar-albeolarearen palatalizaziorik gertatzen:

-IS- → -IX-
(*-ITZ-, -ITS- → -ITX-*)

<i>peso</i>	→	<i>pixu</i>
<i>aviso</i>	→	<i>abixu</i>
<i>chorizo</i>	→	<i>txorixo</i>
<i>ceresia (lat.)</i>	→	<i>keixa</i>

Mailegu horiez aparte, palatalizazio gutxi batzuk baino ez dira erabiltzen txistukarietan:

atxur
aixkora
ixilik
ixigi (eseki)
jaitxi
...

Hualde-Elordieta-Elordieta hirukoteak (1994, 30) dioenez, txistukarien palatalizazioak beste edozein palatalizazio motak baino salbuespen gehiago izaten ditu, oro har, euskararen kasuan, eta Elgoibarren ere hala dela esan behar. Han emandako palatalizaziorik gabeko hitz guztietan bat dator Elgoibarkoa ere (leku bakoitzeko aldaerak gorabehera):

<i>bisi</i>	<i>bisitta</i>	<i>bisio</i>
<i>indisio</i>	<i>malisia</i>	<i>notisia</i>
<i>ofisio</i>	<i>sakrifisio</i>	<i>isotz</i>
<i>eisian</i>	...	

Lexema-barruan indar handirik ez badu, ez da espero izatekoa morfema mugan eta handik haratago, hitz-elkarketan ere, palatalizaziorik aurkitzea: eta gertatu ere, halaxe gertatzen da, ez dagoela txistukarien bustidurarik:

mendigoisale
argisari
suri-suri
sei-saspi
mendi-saill
gari-sorta

Txistukarietan, batez ere afrikatuetan, mendebalderagoko herrietan (Ei-barren bertan eta bai Debagoienez ere) *Vj* bokalerdiaren ondoren gauzatzen da bustidura; Elgoibarren ez da gertatzen, adibidez, haietan indarra duen palatalizazio mota hau:

bakotx, gatx, aretx, elexa, aixe, gatxisen, eritxi...

Elgoibarren, honela ebakitzen dira hitz horiek:

bakoitza (bakuitza), gaitz, elisa, aise eta gaitzisen, iritzi...

1.4.2.4. Bustidura adierazgarria

Erabilera adierazgarrietan, jakina, egiten da bustidura, baina halako bustidura motan, dakigun bezala, ez du izaten zerikusirik testuinguru fonikoak, ez arauaren automatikotasunak ere, baizik hizkuntzaren erabilera berezi bat, zeinetan txikitetasuna, hurbiltasuna, biguntasuna, gozotasuna... adierazi nahi baita.

Hona bustidura adierazgarriaren adibide batzuk, gure hizkerakoak:

<i>a(d)ixkirau</i>	<i>otxana</i>	<i>exkax</i>
<i>dexente</i>	<i>gixajo</i>	<i>gixaixo</i>
<i>txintxilik</i>	<i>neskakoxkor</i>	<i>errex</i>
<i>goxo-goxua</i>	<i>pixkat</i>	<i>xamar (txamar)</i>
<i>txankaluse</i>	<i>txankamee</i>	<i>motxa</i>
<i>xixko eñ</i>	<i>xelebria</i>	<i>xirrixto</i>
<i>xurrut</i>	<i>xamur</i>	<i>xebet²⁰</i>
<i>xuabe</i>	...	

²⁰ Mitxelenaren arabera (1977 [1990], 191, 10.8 §), gipuzkerak, bizkaierak eta goi-nafarreraren parte batek hitz-hasierako *x-* bustia duten kasuetan beti omen da bustidura adierazgarria, eta ez automatikoa.

Oñederra (1990) lanean aurkitu ditzake interesa duenak bustidura adierazgarrien adibide ugari, haien inbentario bat egiten baitu han; hain zuzen, lan honetara ekartzen du Oñederrak (1990, 19) Joxe Austin Arrietaren aipamen bat, Elgoibarko euskararen kasuari bete-betean egokitzen zaiona:

“Bustidura adierazkorraren “etsai” rik handiena, nolabait esan, bustidura automatikoa da, eta azpimarkagarria da seinalatzea nola hain zuzen bustidura adierazkorra motelen edo ahulen dagoen euskalkietan gertatzen diren bustidura automatikorik gehienak: gipuzkeraz eta batez ere bizkaieraz.”

Gurean, bustidura automatikoa edo testuinguruak agindutakoa hain indartsua izanik, ez da harrizkoa bustidura adierazgarrietan hain joriak ez izatea.

1.4.3. LEHERKARI AHOSTUNEN AHOSKABETZEA

Aurretik kontsonante ahoskabe bat dutenean, ahoskabetzeko joera dute *B*, *D* eta *G* leherkari ahostunek.

KONTS. AHOSKABEA + B, D, G → KONTS. + P, T, K

Hona adibide batzuk:

- (49) *Estuasuntxo ba pai.* (< *bat bai*)
 (50) *Baiña gu paiño euskera obia dauke an.* (< *guk baiño*)
 (51) *Etxakixa pa!* (< *etxakixat ba*)
 (52) *Oin beintzat peseta biren bilddurri pe bisi gea, trankill.* (< *bildurrik be*)
 (53) *Eta olakorik esan biar, umia!*
 (54) *Beñepeñ* (< *behinik behin*)

Aurreko kontsonante ahoskabea, behin ondorengo kontsonantean aipatu-tako ahoskabetzea eragin eta gero, galdu egiten da gehienetan, ez da ahoskatzen.

Hitz elkartu zaharretan ere ahoskabetze hau gertatu dela esan behar:²¹

burkaiñekua (< *burdi + gaiñekua*)
burtragia (< *burdi + draga*)

²¹ Ikus era honetako [leherkari + leherkari] taldeak Mitxelena 1977 ([1990], 345, 18.2 §) lanean.

Bigarren osagaia bokalez hasten denean ere kontsonante ahoskabea dugu hitz-elkarketaren juntagunean:

burtardatza (< *burdi* + *ardatza*)

burtetxia (< *burdi* + *etxe*)

1.4.4. TXISTUKARI FRIKARIEN AFRIKATZEA

L, N, R + S, Z → L, N, R + TS, TZ

Elgoibarko euskaran /n, l, r/ kontsonanteen ondorengo txistukari frikariak afrikatu bihurtzen dira normalean. Bilakaera hori erakusten digute bai euskal jatorriko hitzek, bai euskarara ekarri ditugun maileguek ere. Txistukari afrikatuen neutralizazioa dela eta, ahoskeran afrikatu bizkar-albeolarea gauzatzeko da: [ts] (idatzian, <tz>).

Hona adibide batzuk:

kantzontzillo

dantza

kintzena

poltza

saltza

kartzela

pertzonia

pentzau

bertzua

...

Badira, hala ere, salbuespen batzuk, joera nagusi honi jarraitzen ez diotenak:

konsegidu

anibersarixo

eskursiua

konsultau

konserbau

anunsio

ensegida

konsegidu

konsigna

korresponsal

transporte

unibersidadia

...

Salbuespen horietako bat dugu, sistematikoa gainera, bilakaera honetako soinuak hitz-barruan gertatu beharrean morfema-mugaren batean gertatzen direnean (halakoak dira jatorrizko hizkuntzan goian eman ditugun maileguzko zenbait hitz, eta seguruenik ez da kasualitatea izango horiek afrikatu gisa ez ahoskatzea); halakoetan ere ez da afrikatzerik gertatzen:

mutilsarra

arrain-sopa

matxinsaltua

beittansiua

Aditz formetako loturetan, berriz, bietariko joera dago; forma afrikatuak alternantzian ikusten ditugu frikariekin:

al sabana / al tzabana
il san / il tzan
isan san / isan tzan
ser san ori?/ ser tzan ori?

Edozein kasutan ere, esan behar da Elgoibarko euskaran ahoskera frikaria dela arruntagoa.

1.4.5. KONTSONANTE TALDEAK BAKUNTZEA

Nahiko arrunta da Elgoibarren ere euskaraz hedatua den joera hau: euskal sistema fonologikoarentzat arrotzak ziren maileguzko hitzetako zenbait kontsonante-talde, eta talde horiek hautsi egiten ziren, bakundu. Argi ikusten da jokabide hori gure adinekoen jardunean, maileguzko hitzak erabiltzen dituztenean.

Kontsonante taldeak desberdinak izanda ere, joera izaten da talde horiek saihestea.

▪ [herskaria + albokoa]

Talde horietako bat izan daiteke [herskaria + albokoa]; halakoetan, normalean herskaria erortzen da, baina bada albokoa desagertzen den adibiderik ere:

arrelau
bisiketia
bisiletia
prolemak
karo (< klaro)

Esan beharra dago, hala ere, ez dela erabatekoa kontsonante taldeen soil-tze hau, zeren eta bai baitira taldea gordetzen duten lekukotasunak ere, eta ez gutxi, gainera; batez ere [herskari + alboko] taldeetan gertatzen dira salbuespen hauek:

arreglau
globo
terrible

problema

obligasio

ingles

kable

doble

republika

klaro

klase

klima

...

▪ [herskaria + herskaria]

Kontsonante herskariaren taldeak ere izan daitezke arazo-iturri adineko euskal hiztunarentzat. Normalean, *-kt-* taldeak izaten dira, eta halakoetan, lehen-biziko kontsonantea desagertzea da ohikoena, adibide hauetan ikusiko dugun bezala:

tratoria

karaterra

anedotia

direto

pratikau

otubria

setienbria

diretoria

eletrisidadia

dotriñia

...

Hona adibide batzuk beren testuinguruan:

(55) *Eta gero, ba, bisiketia amasaspi urtekiñ edo, bisiketa saar bat artu naban.*

(56) *Eta nik an ikusi najuan sela arrelatze saban, eta gero etorri ona, eta banakixan nik sela arrelau deposittua.*

(57) (...) *anedotia politta, seatik guk dotriñia-ta euskeras emate gendusen, beti. Liturgia beti eman juat euskeras.*

(58) *Bai isates, geure moruan dia baiña, nik ikusten dot euron karaterra geurian aldian lotzagabiau eukiko dabela órrek.*

Kontsonante-talde hauetan, goikoetan baino salbuespen gutxiago dago; hemengo hauetan, arruntena kontsonante-taldea bakuntzea da. Taldea gordezten den adibide gutxi batzuk jaso ditut, hala ere; hona hemen:

diktado
direktore
elektriko
praktikak
proiektu

1.5. KONTSONANTEEN ALDAKETA FONETIKOAK

1.5.1. BOKAL ARTEKO KONTSONANTEEN LEUNTZEA ETA ERORTZEA

Bokal artean, kontsonante asko leundu edo are erori ere egiten dira ahoskatzerakoan; normalean, kontsonante leherkari ahostunei gertatzen zaie hori, baina, ikusiko dugun bezala, ez horiei bakarrik.

Leherkari ahostunak (ezpainbikaria, horzkaria eta belarea) frikari bihurtzen dira bokalarteko kokagune horretan: [β], [ð] eta [ɣ], hurrenez hurren. Zenbait kasutan, ahoskera frikari horretan geratzen da bilakabidea, baina beste zenbaitetan (kontsonante guztietan ez neurri berean) erori ere egiten da bokalarteko kontsonante frikari hori.

Ikusiko dugu horzkariaren eta belarearen kasuan errazago gertatzen dela erortze hori ezpainbikariaren kasuan baino; azken honetan, arruntena da ahoskera frikariarekin gauzatzea; besteetan, berriz, salbuespenak salbuespen, frikaria erortzea iruditzen zait arruntagoa.²²

Edozein kasutan ere, eta ondorengo kasu hauetarako guztietarako balio du honek, zeresan handia du hizketaldiaren erregistroak, moduak eta bizkortasunak: zenbat eta jardun lagunartekoagoa, arduragabeagoa eta bizkorragoa, orduan eta aukera hndiagoa dugu bokalarteko kontsonante hauek erabat erortzeko.

²² Hizketa-erregistroak ere berebiziko garrantzia du kontu honetan; zer erregistrotan eta zer bizkortasunekin ari garen, desberdin ahoskatuko ditugu hemen jaso ditudan adibideak. Letra lodiz adierazi nahi izan dut kasu bakoitzean ahoskera arruntena iruditzen zaidana: frikaria erortzearena edo frikaria ahoskatzearena (parentesi artean ezarri dut frikaria azken kasu honetan).

Ikus ditzagun bateko eta besteko adibideak:

• **d > ð > Ø / V_V**

Joera handia erakusten du kontsonante honek bokal artean erortzeko:

amistaia < **amista(d)ia** < *amistadia*

eo < *e(d)o* < *edo*

emango'ixat < *emango (d)ixat* < *emango dixat*

jan da ean < **jan da eran** / **jan da e(d)an** < *jan da edan*

bearra < **be(d)arra** < *bedarra*

earki < *e(d)arki* < *edarki*

esa'iak < *esa i(d)ak* < *esan egidak*

esan sian < *esan si(d)an* < *esan zidan*

...

• **g > γ > Ø / V_V**

Kontsonante honek ere joera handia erakusten du bokal artean erortzeko:

euskixa < *e(g)uskixa* < *eguzkia*

euena < *e(g)uena* < *eguenta*

eualdixa < *e(g)u(r)aldixa* < *eguraldia*

ebai < *eba(g)i* < *ebagi*

eon < *e(g)on* < *egon*

naok < *na(g)ok* < *nagok*

arrandeixa < **arrande(g)ixa** < *arrandegixa*

eurra < **e(g)urra** < *egurra*

auro < *a(g)uro* < *aguro*

ainka eiñ < *a(g)inka e(g)iñ* < *ainka eiñ*

txapliuak < *txapli(g)uak* < *txapliguak*

preuntau < *pre(g)untau* < *preguntau*

esa'ixok < *esa'e(g)ixok* < *esan egixok*

sosius < *sosi(g)us* < *soseguz*

siarro < **si(g)arro** < *zigarro*

biarra < **bi(g)arra** < *bigarra*

eleantia < **ele(g)antia** < *elegantia*

...

Izenaren flexiora ere iristen da kontsonante-galtze honen indarra, dirudienez:

areatik < *are(g)atik* < *haregatik*
nereana < *nere(g)ana* < *neregana*
gureandikan < *gure(g)andikan* < *guregandikan*
 ...

Hitz-eratorpenean, berriz, bietariko jokaerak ditugu:

ikara + *-garri* > *ikaragarrixa* / *ikaraarrixa*
barre + *-garri* > *barregarrixa* / *barrearrixax*
lau + *-garren* > *laugarren* / **lauarren*

• **b > β > Ø / V_V**

Bokalarteko herskari ezpainbikaria erortzea ez da beste bi herskari ahostu-
 nak (*D* eta *G*) erortzea bezain ohikoa. Hemen, frikari gisa ahoskatzearen urra-
 tsean geratzea da ahoskerarik hedatuena, nire ustez:

jardun seen < *jardun se(b)en* < *jardun zeben*
makiña'at urte < *makiña (b)at urte* < *makina bat urte*
oe biarres < *o(b)e biarres* < *hobe biharrez*
artu naan < *artu na(b)an* < *hartu naban*
 ...

Jardun arduragabe bizkorrean gertatzen direla esango nuke erabateko
 kontsonante-erortze horiek.

• **r > Ø / V_V**

Dardarkarietara etorritz, esan behar da dardarkari bigunak joera handia
 erakusten duela bokal artean galtzeko; hemen ere, bietariko adibideak ditugu,
 eta letra lodiz ezarri dut nire ustez gehien egiten den ahoskera:

au ee bai < *au ere bai* (*hau ere bai*)
saata < *sarata* (*zarata*)
suixa < *surixa* (*zuria*)
seako sea < *serako sera* < *zerako zera*
afai-meixendia < *afarixa*
etxea < *etxera*
jenealian < *jeneralian* (*jeneralean*)
soua < *sorua*
keispia < *kerispia* (*gerizpea*)
difeentia < *diferentia*
etorri gaa < *etorri gara*
etorri dia < *etorri dira*

konpaasio bateako < *konparasio baterako*

Kuutzeta < *Kurutzeta*²³

...

• **j** > Ø / V_V

Zenbait adizkitan gertatzen den bilakabide fonetikoa dugu hau; frikari belarea bokalar-teko kokagunean leundu egiten da, eta ia galdu ere egiten dela esan daiteke zenbait kasutan: adinekoen artean, bi ahoskera horiek entzuten dira, batzuetan oso leun (parentesi arteko idazmoldearekin adierazi nahi izan dut hori), eta beste batzuetan, frikaria ia ez entzuteraino (ezkerrekoa).²⁴

gustatze'ata < *gustatze (j)ata* < *gustatzen jata*

ein bia'ako < *ein bia (j)ako* < *egin bihar jako*

akordatzen ba'ako < *akordatzen ba(j)ako* < *akordatzen bajako*

ikusi naaittuan < *ikusi na(j)aittuan* < *ikusi najaittuan*

laga in bia'ako < *laga in bia (j)ako* < *laga egin bihar jako*

Ahoskera hau gazteen artean indargalduta dagoela esan behar da.

Badira beste hizkera askotan hain arrunki erortzen ez diren kontsonante batzuk ere; adibidez, ondorengo hau.

• **k** > Ø / V_V

Kontsonante-erortze hau, testuinguru hauetan, salbuespen dela esan behar; batetik, ez dirudi batere erraza leherkari ahoskabe bat erortzea, eta, bestetik, kasu bakan batzuetan besterik ez dut jaso: horietan, gainera, lagunarteko hizkera bizkorrean, arduragabean galtzen dela esango nuke.

etxaixat < *etxa(k)ixat* < *etxakixat*

estaitt < *esta(k)itt* < *estakitt*

maiñat bidar < *ma(k)iña (ba)t bidar* < *makiña bat bidar*

Adibidez, bigarren forma hartzen badugu, ikusten dugu ez dela gauza bera gertatzen beste pertsona bati dagokionean, hizkera arduragabe bizkorra erabiliatik ere:

estakigu (**estaigu*)

estaki (**estai*)

²³ Elgoibarko baserri baten izena da Kurutzeta.

²⁴ Hemen ez naiz ausartzen aurreko kasuetan erabili dudana letra lodia erabiltzera; izan ere, maiztasunez berdintsu ebakitzen direla iruditzen zait bata zein bestea.

1.5.2. L / D

Zenbait hitz jakinetan, gertatzen da mendebalean nagusi den bilakabide hau; ez dago alternantziarik, era batera bakarrik erabiltzen baitituzte adinekoek hitz horiek, *-D-* kontsonantearekin. Hitz hauek dira:

bedarra
idarra
zidarra
edurra

Inguruko herrietan ere gertatzen da: Eibar, Soraluze, Mendaro, Mutriku eta Deban (azken herri honetan *belar* izan ezik), besteak beste.

Hona adibide batzuk beren testuinguruan:

(59) *Len, segia ta, itaixa ta, dana auxe. Eta oiñ, berris, bedarra ta olakua; ba, bedarra esta ainbesterako oiñ.*

(60) *Ta oin, badakisu: porrua, ero idarra, ero baba beltza, eta ola...*

(61) *Eta orduan edurrik ere es sauan eiñ negu gustian, es sauan edurrikan eiñ; eurixa bakarrik.*

1.5.3. D / R ALTERNANTZIA

Indar handia du alternantzia honek elgoibartarron ahotan. *D* eta *R*-ren arteko txandakatze honen adibide ugari dago:

birial/bidia
ero/edo
eroser /edoser
 ...

Maileguzko hitzetan ere bai:

abaria / abadia
entzegira /entzegida
partirua /partidua

Horiekin batera, *-kada* atzizkia duten hitz eratorrietan:

saldikara / saldikada
ostikara / ostikada

eskukara / eskukadia
kamioikara / kamioikada

Bai eta aditzaren jokoko forma batzuetan ere:

ikusi sindduran / sinddudan
ekarri disueras / disuedas
aura etorri dakiran / dakidan
emen daure / daude
esan deiran egixa / deidan

...

Hona alternantziaren *-R-* aldaeradun adibide batzuk beren testuinguruan:

(62) *Gaur diparentia da. Biriak ere, ba, Diputasiua portau san. Bire semen-tuskuak ein tzittuan hainbeste basarritara, danetara.*

(63) *Ori, telebisiua ere, ba, euskeras ere bai. Eta partirua ugeri ere ikusten dok aspaldixan.*

(64) *Udakua. Bedarra ero garua, ero ortariko gausia sauanian, ba esin siñan jun danak lagata oera.*

(65) *Andra gastiak-eta, biskaitarrak-eta daure asko.*

(66) *Egunero jute sian txandan saldixakin jana erutera, iru saldikara.*

(67) *Aura jute san baldakariakin.*

Inoiz edo behin, alderantzizko bidea ere egin izan du fenomeno honek: hiperkorrekzioa esan izan zaiona, alegia: hitzunak, alternantziaren jakitun izan-nik, jatorrian *D* zegoela uste izatea, eta, berezko *R*-a zuzentzea. *Berrido* da adibide horietako bat.

1.5.4. *F / P* ALTERNANTZIA

Ugariak dira maileguzko zenbait hitzetan *F*-ren eta *P*-ren arteko txandakatzea egiten duten hitzunak, denak adinekoak, 70 urte ingurutik gorakoak.

<i>konpesau</i>	<i>diperente</i>	<i>apari</i>
<i>perixia</i>	<i>plakua</i>	<i>pamelixia</i>
<i>golperixia</i>	<i>konpiantzia</i>	<i>depentsa</i>
...		

Horiekin batera, *F*-dun forma hauek ere erabiltzen dira, goiko *P*-dunak erabiltzen dituzten hitzun horiek berek ere bai:

<i>konfesau</i>	<i>diferente</i>	<i>afari</i>
<i>ferixia</i>	<i>flakua</i>	<i>famelixia</i>
<i>golferixia</i>	<i>konfiantzia</i>	<i>defentsa</i>
...		

Ekar ditzagun -P- aldaera duten adibide batzuk beren testuinguruan:

(68) *Klaro, ori diperente da. Oingo gastien bisimodua eta lengüena diperentia da.*

(69) *Eske, badakik amen se pamilixa sauan?*

(70) *Beste batzuk, an ainbeste denporan eon, eta golpeixara ero, ...*

(71) *Aren aitta San Lorentzoko semia suan: plako altu bat.*

(72) *Gero, berris, inpartua eman tzion, eta orduantxe jua tzan.*

(73) *Baitta amen ere, suen etxeke patxadan, lora edarrak ikuste'ia, e!*

(74) *Aiba Dios! Au dok konpiantzia!*

(75) *Geuk eitte genduan inpanterixan; ni inpanterixakua nitzuan.*

(76) *Kurutzetan eote suan [erromeria], pijo.*

(77) *Eta telebisiua, berris, eguardixan eukitze juat pixkat; gabian, apalostian.*

(78) *Konpesatzera jun biar isate suan orduan. Eta biako gainera jun, etxian lo eingo basuan!*

1.5.5. K / G ALTERNANTZIA

Maileguzko beste zenbait hitzetan, hitz-hasierako kokagunean, alternantzia dago belare ahoskabearen eta ahostunaren artean:

<i>ganbixau/kanbixau</i>
<i>gonbidau, gonbirau /konbidau, konbirau</i>
<i>gonbestazio/konbestazio</i>
<i>ganbion/kanbiona, kamioia</i>
<i>kindak/gindak</i>
...

Hona hemen bietariko adibide batzuk beren testuinguruan:

(79) *Kamionak eskus kargatze sian danak, artu, eta bun eta bun; oin kamiona artuta lastua ekartze'ozu, eta aurrera.*

(80) *Eta gero gonbirauak, ba, preparau ein bi'osu, egun gustian lana. Ostian, ondo. Eta beti, ba, gonbirauak.*

(81) *Baiña Askaraten arutz pasau eskero, asko ganbixatzen dok.*

(82) *Bueno, iñois kanbixatze juat Radio Euskadira.*

1.5.6. -ND- / -NT- ETA -NB- / -NP- ALTERNANTZIAK

Kontsonante-talde hauei dagokienez, bi aldaeretan erabiltzen da gurean kasu honetan:

*jentia / jendia*²⁵

Bada beste bikote bat ere:

denpora / denbora

Kasu honetan, lehenbizikoa erabiltzen da askoz gehiago Elgoibarren, aldaera ahoskabea²⁶; bai eta hartatik eratorritako hitzetan ere: adibidez, *denporale*, *denporalia(n)*.

Hirugarren bikote batean,

konparasio / gonbarasio

ahoskabea nagusitzen zaio ahostunari, eta hura bakarrik erabiltzen da Elgoibarren.

Hona esandakoen erakusgarri batzuk:

(83) Gero *jentia* asko.

(84) *Jendia* ugeri jute san.

(85) *Etorri ordu bixetan, baskaldu, jentia* eoten da ostian ere.

(86) *Baiña trenak ere denpora* asko eitte jok.

(87) *Gerra denboran* asi nitzan, amairukin da.

(88) *Bueno, auso artian, Elgoibarren, konpaasio* bateako, *auso artian danak iual itten dou.*

1.5.7. -Z / -TZ ALTERNANTZIA

Zenbait hitzen amaieran, alternantzia edo txandakatzea gertatzen da txistukari bizkar-albeolareen artean. Hitzun beraren jardunean ere, gertatzen da hitz beraren bi aldaerak entzutea.

²⁵ Beharbada gehixeago aldaera ahoskabea, *jentia*, (80 agerraldi nire corpusean) *jendia* ahostuna baino (61 agerraldi).

²⁶ Hemen alde handiagoa da: *denpora* (81 agerraldi) eta *denbora* (11 agerraldi).

Hona hitz horietako batzuk:

berriz / berritz

errez / erretz

pendiz / penditz

Berriz-en kasuan, jakina da bi erabilera dituela; horietatik, aditzondo da batez ere alternantzia izaten duena, bietara esaten dena (*berriz/berritz* *egingo dogu*); lokailuak (*semia mendira jua zan; aitta, berriz, kalera*) aldaera frikaria izaten du gehienetan.

Hona alternantzia honen adibide batzuk:

(89) *Len-len bai, eta gero lagaaldixa, eta gero, berritz.*

(90) *Lanera berris ere.*

(91) *Eta oiñ, eskribitzeko ta, erderas erretzago dok, e!*

(92) *Izen baneu bizimodu errez bat kalia...*

1.5.8. *L > N*

Zenbait hitz jakinetan, hitz-hasierako *l*- orokorrari *n*- dagokio Elgoibarko euskarari:

nasai

narru

1.5.9. EZ PARTIKULAK ERAGITEN DITUEN BILAKABIDEAK

Ezezko partikulak adizkiekin elkartzean eragiten dituen ahoskerak bilduko ditut orain.

Gatozen kontsonantez kontsonante:

• **EZ + B- → EZP-**

Ez bada → espada; Ez bazan → espasan

• **EZ + D- → EZT-**

Ez dabil → estabill; Ez dizut → estisut; Ez dator → estator

• **EZ + G- → EZK- / EZG- (bietara)**

Ez gatoz → eskatos; Ez giñan → eskiñan

Ez gaittuzu → esgaittusu; Ez gara → esgara

Bi aukerak entzuten dira, nahiz frikaria (bigarren aukera) arruntagoa den.

• **EZ + N- → EN-**

Ez naok → enaok; Ez nizun → enisun; Ez nixe → enixe

• **EZ + L- → EL-**

Ez leuke → eleuke; Ez litzake → elitzake

• **EZ + Z- → ETZ- / EZ Z- (bietara)**

*Ez zan → etzan; Ez + zittuen → etzittuen; Ez zatorren → etzatorren
Ez zaitez → esaitte; Ez zauan → esauan*

Hemen ere bi aukerak entzuten dira, afrikatua eta frikaria; beharbada frikaria (lehena) gehiago, baina alde handirik gabe, edozein kasutan ere.

• **EZ + J- → ETX-**

Azkenik, ezezko EZ partikula hasieran J- duten adizkiekin juntatzean (hau da, NOR-NORI sailekoekin eta adizki alokutibo batzuekin), txistukari afrikatu palatal baten ahoskera gertatzen da:

*etxako jausi (← ez jako jausi)
etxata etorri (← ez jata etorri)
etxakan arrasoirik (← ez jakan arrasoirik)
etxone esan (← ez jone esan)
etxok ekarri (← ez jok ekarri)
etxonat ikusi (← ez jonat ikusi)*

Gazteen artean erabat indargaltzen ari da ahoskatze modu hau.

• **EZ + V- → EZ V-**

Bokal bat dugunean, ez da bilakabide berezirik gertatzen:

*es ais etorri (← ez haiz etorri)
es 'ixok esan (← ez (eg)ixok esan)*

1.5.10. ADITZ-IZENETAKO AZKEN -N-AREN GALERA

-tzen, -ten > -tze, -te / __ kots.

*haste giñan
eskontze sian
halaxe isete san
etortze jatan*

...

Salbuespena *D-* hasiera duten aditzak dira, non hau gertatzen baita:

-tzen, -ten + *D-* > -tze, -te + Ø

etortze'ia (< *etortzen dira*)

esate'isut (< *esaten dizut*)

1.5.11. ADITZEAN GERTATZEN DIREN TXISTUKARIEN AFRIKATZEAK

• **-N + Z- → -NTZ- / -NZ- (bietara)**

Esan tzaban / esan saban; ein tzeben / ein seben

• **-L + Z- → -LTZ- / -LZ- (bietara)**

Al tzabana / al sabana; al tzan / al san

Goiko ingurune fonetikoetan, bietariko ahoskerak entzuten dira: afrika-
tuak (binomio bakoitzeko lehenak) nahiz frikariak (bigarrenak); beharbada
frikariena gehiago.

1.5.12. BESTELAKO ALDAKETA ETA ALTERNANTZIA BATZUK

Hainbeste indar ez duten bilakabide eta alternantzia batzuk jasoko ditut
azpiatal honetan. Orain artekoetatik bereiz eman ditut hemengo hauek, hitz
jakin batzuetan bakarrik gertatzen dira eta.

▪ **-M- / -NB- ALTERNANTZIA**

Alternantzia honek azaldu ditzake hiperkorrekzioko adibide batzuk: *kan-
bioi*, adibidez.

senbat / semat

senbaitt / semaitt

kanbioiak, ganbioiak / kamioia

Hona alternantzia honen adibide batzuk:

(93) *Sela ferixa aundixak dian orrek, eta sela karabanak dauren kanbioiak
kargatzeko, makiñak kargatzen denporia bi'osu.*

(94) *Semat, semat kontu esate ete juek! Horrek jaukek berriketia!*

▪ KONTSONANTE-TALDEAK SORTZEA

Zenbait mailegutan, kontsonante herskari bat sartzen da ustez ezohikoa den [(sudurkari edo alboko) + dardarkari] kontsonante-talde bat saihesteko:

(Enredar) endredau
(Enredo) endredo
(Al revés) aldrebés, aldrebestu
(Enrique) Endrike
(San Roque) Sandroke
(Honra) ondra-baskari

▪ METATESI BATZUK

Ez dira ugariak halako bilakabideak, edonola ere:

prepezios / perpesios
Gabriela / Grabiela
bienke /beinke

▪ G / R ALTERNANTZIA

eroki /legoki

(95) *Au bastante eroki ikuste naban, eta andriari esan nion.*

▪ T / P ALTERNANTZIA

aispa / aista

(96) *Gero ementxe; ba, emen, ama ta ama-semiak eta nere andria, emastia, bisi sian. Eta beste aispa ere bai. Artian soltera sauan oin kaliau dauana.*

(97) *Bi aista sian orrek.*

Era honetako beste bikote batean (*aipatu/aittatu*), *TT*-duna da elgoibartarren ahotan erabiltzen dena.

▪ J / K ALTERNANTZIA

joño /koño
majiña (b)at /makiña (b)at
errejistau / errekistau

Ez da ohikoa alternantzia mota hau. Hona adibide pare bat:

(98) *Sospetxa bat bai, txarra. Joño, ser da, ta...*

(99) *Majiña (b)at lagun bildu sian!*

▪ **ERROTAZISMOA (-RS- / -ST-)**

Kasu bakanen batean aurkitu daiteke:

konbersazio / konbestazio

▪ **L / R ALTERNANTZIA**

komurgau / komulgau

karkulau / kalkulau

armusau / (almorsau)

Hona alternantzia honen adibide pare bat:

(100) *Bai gisona! Gu komurgau giñan inguruan.*_

(101) *Edarki armusau gendun, ba!*

▪ **KONTSONANTEAK SORTZEA**

(102) *Eta jun dittuk bañura, eta emen orduan ere, barkasiuekin da.*

(103) *Surtara bota nittuan urte osoko gausa txar gustiak.*

▪ **ADITZ-TALDEETAKO ETA BESTELAKO KONTRAKZIOAK**

BIHAR IZAN aditza:

Egin bihar dot → E(g)in bi(ar) dot / bi'dot / bi'ot

BA- menderagailua:

Nahi badok → nai b'ok

EGIN aditza:

EIN̄ > IN̄

Zenbakiak:

HOGETA HAMAR > otamar

BERROGETA HAMAR > berrotamar

Leku- eta baserri-izen batzuk:

Maala (Magdala, Magdalena)

Maaltza (Maltzaga)

Salontzo (San Lorentzo)

Gelatxorrota (Gelasoro-errota)

...

1.6. AZENTUA

Azken urteetan, neurri handi batean Hualde eta Gaminderen ikerketei esker, nahikoa aurreratu dugu euskal azentuaren ezagutzan: ugariagoak dira azentuari buruzko ikerketak eta gehiago dakigu euskeraren azentu-moldeez. Pluralean eman dut, bai, argi baitago azentu-molde bat baino gehiago dugula, Hualdek (1997) dioen bezala.

Lau azentu-molde nagusi bereizten ditu Hualdek lan horretan: Ekialdeko azentubidea, Erdialdekoa, Mendebaleko zenbait sistema berezi eta Bizkaiko kostaldeko doinu-azentu sistemak.

Elgoibarkoa Erdialdekoan kokatzen da. Azentuera-molde honetan, [+2] da azentuera orokorra, hau da, azentua normalean hasieratik bigarren silaban kokatzen da. Hualdek dioenez (1997: 109), hauxe da gaur egungo euskeran aurkitzen den azentuerarik orokorra:

“Azentuera hau gaurrengungo euskeran aurkitzen den orokorra dela esan dezakegu. Arau hau Gipuzkoako alderdirik haundienean baita Nafarroako mendebaldean (Bidasoa haranean) eta Bizkaiko zenbait eskualdetan ere erabiltzen da. Euskararen batuan gehien erabiltzen den azentuera mota honelakoa dela gainera dezakegu.”

Azentuaz aritzean, garrantzi handiko kontua da azentuak balio bereizgarriarik duen ala ez, esanahia bereizteko gaitasuna duen ala ez. Gamindek eta Hualdek (1995) azentuaren bereizgarritasuna dute hizpide, besteak beste, eta Euskal Herri osoko mapak argitaratu zituzten auzi hau dela eta. Bi irizpide aipatzen dituzte, bi isoglosa, nahi bada: azentua bereizgarria den ala ez, eta singularra eta plurala bereizteko gai den ala ez.

Lehenbiziko isoglosari dagokionez, azentua bereizgarria den eremuaren barruan kokatzen dute Elgoibar; “azentua bereizgarria da ia bizkaiera eta gipuzkeraren eremu osoan”, diote lan horretan (177). Hala diote ondoren:

“Azentua ez da silaba berean ezartzen hitz guztietan, eta modu bateko edo besteko bereizketak edo oposaketak egiteko erabiltzen da.”

Elgoibarri dagokionez, hala dela berretsi besterik ez dut.

Bigarren isoglosa dela eta, pluralaren eta singularraren arteko bereizketari dagokiona, diote Gamindek eta Hualdek (178) azentu bereizgarria duten hizkera gehienetan singularraren eta pluralaren arteko bereizketa egiteko balio duela azentuak. Bi isoglosen mapak erkatuz, oso antzekoak direla esan behar da (ikus 190

or.). Bizkai-Gipuzkoetako herri gehienetan egiten dela diote singular-plural bereizketa. Salbuespen batzuk ematen dituzte, ordea, eta horietako bat, aztergai duguna, Elgoibarko hizkera. Diote Gipuzkoako iparraldean, Zumaian, Elgoibarren eta Usurbilen ez direla inoiz bereizten singularra eta plurala azentuaren bidez.

Ez da hori nik jasotako datuetatik ondorioztatzen dena: bete-betean erabiltzen da singular-plural bereizketa Elgoibarko adinekoen euskaran. Hona, bestela, adibide batzuk, zeinetan ikusten baitugu singularreko eta pluraleko azentuera desberdina (singularrean, bigarren silaban doa azentua, eta pluraleko kasuetan, lehenbiziko silabara lerratzten da azentua):

- *Umíari esin diou la(g)undu (sg.) / Umieri esin diou la(g)undu (pl.)*
- *Etxe orréetakua dok (sg.) / Peskero txiki órretakua suan (pl.)*
- *Etxe orrétan bisi giñan (sg.) / Jate genduan San Pedruetan da, Gabonetan da, órretan (pl.)*
- *Árétxek autobus bat jakan bakarrikan (sg.) / Árétxek ikuste gendusén (pl.)*
- *Árétxekin ibiltzen nitzuan (sg.) / Árétxekin jute gera bakasiotara (pl.)*
- *La(g)únakin juten nitzuan (sg.) / Lá(g)unekin eo (pl.)*
- *Eta arén saiñ eote sittuan (Pilarika egunan zaiñ) / Áren zaiñ, garotarako lagunen saiñ (pl.)*
- *Eskólan, gitxi guk (sg.) / Baiña gerra onduan éskoletan eon tzuan disiplina bat... (pl.)*
- *Rakétiakin jo saban (sg.) / Ráketekin ibiltze ittuk umiak frontoian (pl.)*
- *Árétxek esan saban (sg.) / Eta, áretxek, gero illuntzixan, gástaiñak afalonduan jan (pl.)*
- *Maixu arékiñ es sauan berriketarik! (sg.) / Árekiñ eote suan aitta (pl.)*
- *Arén billa! (sg.) / Áren billa! (pl.)*
- *Galdutako ardíxakin lanak (sg.) / Árdíxekin ibiltze giñan (pl.)*

Berri-emaileen kontua izan daiteke: justu Elgoibarkoa salbuespentzat eman eta gero, honako hau diote (179):

Lehen esan bezala, badirudi belaunaldi gazteetan bereizketa galtzen ari dela eskualde batzuetan. (...) Herri hauetan singular eta pluralaren artean azentuzko bereizketarik ez egitea, azken belaunaldiotan gertatu den ohiko azentu sistema osoaren galera edo berregituraketaren ondorioa da.

Hitz horiek irakurrita, hobeto ulertzen dut Elgoibar isoglosatik kanpo ematea; ikerketa berezirik egin ez dudán arren (ez zen helburuen artean sartzen), adinekoen azentu-moldetik gazteen azentu-moldera, nabarmenak dira aldaketak. Guri dagokigun kontu honetan, adinekoek azentu bidezko singu-

lar-plural bereizketa egiten dute, zalantzarik gabe, eta gazteen artean galtzen ari da bereizketa hori. Beharbada, bereizketa hori galdua duen berri-emaile gazteren batengandik bildu dute informazioa Hualdek eta Gamindek.

1.6.1. ELGOIBARKO AZENTUERA

Atal honetan, orain arte azentuaz esan dudana datuen bidez ilustratzen ahaleginduko naiz. Datu-bilketetan, honako informazio hau bildu dut: lexikoa (hitz elkartuak barne), kasu-markak eta postposizioak, aditza (aditz jokatuak eta jokatugabeak) eta toponimia.

1.6.1.1. Lexikoa: izenak eta izenondoak

Absolutibo singularrean eta pluralean zer azentu duten erakutsiko dut. Hitz bakartu gisa jaso ditut hitzak.

▪ Singularra

Silababakarreko hitzetan, [+1] da azentua, baina gainerakoetan, oro har, [+2]:

▪ Silaba batekoak:

<i>lúrra</i>	<i>béixa</i>	<i>úra</i>
<i>béltza</i>	<i>sárra</i>	<i>óna</i>

▪ Bi silaba dutenak:

<i>burúa</i>	<i>begíxa</i>	<i>eskúa</i>
<i>illía</i>	<i>txoríxa</i>	<i>sagárra</i>
<i>babía</i>	<i>asía</i>	<i>astúa</i>
<i>katúa</i>	<i>ardíxa</i>	<i>gisóna</i>
<i>txarríxa</i>	<i>txakúrra</i>	<i>semía</i>
<i>erríxa</i>	<i>ogíxa</i>	<i>ardáua</i>
<i>afúixa</i>		

▪ Hiru silabakoak:

<i>Bekókíxa</i>	<i>atzámarra</i>	<i>atzáskala</i>
<i>arrátoia</i>	<i>ittúrrixa</i>	<i>okélia</i>
<i>alárguna</i>		<i>alábia</i>

Salbuespen batzuk badira, ordea: adibidez, lehenbiziko silaban dute azentua hitz hauek, markatutzat joko ditugunak:

<i>árpe(g)ixa</i>	<i>bélarrixa</i>	<i>árrautzia</i>
<i>óllaxkua</i>	<i>sábaldua</i>	<i>básarrixa</i>
<i>béntania</i>		

- Lau silabakoak:

<i>alkóndaria</i>	<i>illátargixa</i>	<i>apéllidua</i>
<i>errúberia</i>	<i>elémentua</i>	<i>elégantia</i>
<i>dotória</i>	<i>parrókixia</i>	

- Bost silabakoak:

<i>ánimalixia</i>	<i>konfórmidadia</i>	<i>koméstasiua</i>
-------------------	----------------------	--------------------

▪ Plurala

Pluraleko erabileran, singularrean [+2] azentua duten hitz hauetan pluralean lehen silabara lerratzen da azentua, hitz silababakarretan (horietan, singularrean ere lehen silaban kokatzen zen azentua) edo bisilabadunetan; bestela ez:²⁷

- Silaba batekoak:

<i>lúrrak</i>	<i>béixak</i>	<i>úrak</i>
<i>béltzak</i>	<i>sárrak</i>	<i>ónak</i>

- Bi silaba dutenak:

<i>búruak</i>	<i>bégixak</i>	<i>éskuak</i>
<i>ílliak</i>	<i>txórixak</i>	<i>ságarrak</i>
<i>bábak</i>	<i>ásak</i>	<i>ástuak</i>
<i>kátuak</i>	<i>árdixak</i>	<i>gísonak</i>
<i>txárrixak</i>	<i>txákurrak</i>	<i>sémiak</i>
<i>érrixak</i>	<i>ógixak</i>	
<i>áfaijak</i>		

- Hiru silabakoak:²⁸

<i>bekókixak</i>	<i>atzámarrak</i>	<i>atzáskalak</i>
<i>arrátoiak</i>	<i>ittúrrixak</i>	<i>okélak</i>
<i>alárgunak</i>	<i>alábak</i>	

²⁷ “Lúrretan, gízonak, txákurra, baina *émakumeak, *txístulariak.”, diote Gamindek eta Hualdek (181); Elgoibarren ere, *emákumiak* eta *txístúla(r)ixak*, eta ez *émakumiak eta *txístula(r)ixak.

²⁸ Esan bezala, hauetan eta silaba gehiago dutenetan, ez dago azentuaren kokagunean aldatetarik: bigarren silaban ezartzen da, singularreko erabileran bezala.

▪ Lau silabakoak:

<i>alkóndarak</i>	<i>illátargiak</i>	<i>apélliduak</i>
<i>errúberak</i>	<i>elémentuak</i>	<i>elégantiak</i>
<i>dotóriak</i>	<i>parrókixak</i>	

▪ Bost silabakoak:

<i>ánimalixak</i>	<i>konfórmidadiak</i>	<i>koméstasiuak</i>
-------------------	-----------------------	---------------------

Hitz elkartuen azentueran aldaketaren bat egonenean ere, haien azentuera ere aztertu nahi izan dut. Halakoetan, azentu nagusia bigarren silaban doala esan daiteke, [+2] azentuera dutela Elgoibarren, bai singularrean, bai pluralen. Hona adibide batzuk:

<i>amábirjiña</i>	<i>amá(g)inárreba</i>	<i>amálau</i>
<i>anáí-arrebak</i>	<i>andrá-gisonak</i>	<i>astókillua</i>
<i>asúrbeltsa</i>	<i>begiurdiña</i>	<i>artáburua</i>
<i>illéluzia</i>	<i>ipúrtxontxorra</i>	<i>hankámeia</i>
<i>jatórdua</i>	<i>junáldixa</i>	<i>ekiñaldixa</i>
<i>lepámotza</i>	<i>odólostia</i>	<i>txarri-kortia</i>
<i>semé-alabak</i>	<i>uésaba</i>	

1.6.1.2. Kasu-markak eta postposizioak

Kasu-markak eta postposiziorik erabilienak aukeratu ditut azentuak duen jokamoldea erakusteko.

▪ **Singularra**

	GIZON	NESKA	PLAZA	TABERNA	HERRI
ABSOL.	gisóna	neskía	plasia	tabérnia	erríxa
ERGAT.	gisónak	neskiák	plasiák	tabérniak	erríxak
DATIB.	gisónari	neskiári	plasiári	tabérniari	erríxari
GENIT.	gisónan	neskían	plasián	tabérnian	erríxan
SOZIAT.	gisónakin	neskiákin	plasiákin	tabérniákin	erríxakiñ
DESTINAT.	gisónantzat	neskiántzat	plasiántzat	tabérniantzat	erríxantzat
INESIB.	—	—	plásan	tabérnan	erríxan
ABLAT	gisóna(g)andik	neskía(g)andik	plásatik	tabérnatik	erríttik
ADLAT.	gisóna(a)ana	neskía(g)ana	plásara	tabérnara	erríra

■ Plurala

	GIZON	NESKA	PLAZA	TABERNA	HERRI
ABSOL.	gísonak	néskak	plásak	tábernak	érrixak
ERGAT.	gísonak	néskak	plásak	tábernak	érrixak
DATIB.	gísoneri	néskeri	pláseri	táberneri	érrixeri
GENIT.	gísonen	nésken	plásen	tábernen	érrixen
SOZIAT.	gísonekin	néskekin	plásekin	tábernekin	érrixekin
DESTINAT.	gísonentzat	néskentzat	plásentzat	tábernentzat	érrixentzat
INESIB.	—	—	plásetan	tábernetan	érrixetan
ABLAT	gíson(e)g)andik	néske(g)andik	plásetatik	tábernetatik	érrixetatik
ADLAT.	gíson(e)g)ana	néske(g)ana	plásetara	tábernetara	érrixetara

Datuokin ikusten dugu pluralean lehen silabara lerratzen dela azentua; hori normala izaten da hitz silababakarretan eta silababikoetan, baina ez da oso arrunta hiru silaba edo gehiago dituztenetan; kontua da *TABERNA* hitzarekin ere, *-A* amaiera duena izanik, bereizketa gertatzen dela²⁹. Salbuespen da, nolabait esateko, zeren eta, lehen esan bezala, hiru silabatik gorako hitzetan ez baita azentu-lerratzerik gertatzen pluralean.

1.6.1.3. Aditza

Aditzaren azentuerari ere eman nahi izan diot lekutxo bat. Aditz jokatu-gabeen eta jokatuaren azentuera jasoko ditut.

Aditz jokatugabeak

- Silaba batekoak:

éiñ

éitten

éingo

jó

jótzen

jóko

ill

iltzen

ilko

²⁹ Gaminderen eta Hualderen azalpena da erroaren azken bokala pluralean galdu egiten dela (1995, 181); hala, Elgoibarren kasurako ere balio duten Ermuko adibide batzuk ematen dituzte: *béntanak, tábernak, álabak, árrebak*.

▪ Silaba bikoak:

<i>ártu</i>	<i>ártzen</i>	<i>artúko</i>
<i>gáldu</i>	<i>gáltzen</i>	<i>galdúko</i>
<i>sáldu</i>	<i>sáltzen</i>	<i>saldúko</i>
<i>bísi</i>	<i>bisítzen</i>	<i>bisiko</i>
<i>éman</i>	<i>emáten</i>	<i>emángo</i>
<i>béte</i>	<i>betétzen</i>	<i>betéko</i>
<i>érre</i>	<i>errétzen</i>	<i>erréko</i>
<i>jáso</i>	<i>jasótzen</i>	<i>jasóko</i>

▪ Hiru silabakoak:

<i>afáldu</i>	<i>afáltzen</i>	<i>afálduko</i>
<i>berótu</i>	<i>berótzen</i>	<i>berótuko</i>
<i>sabáldu</i>	<i>sabáltzen</i>	<i>sabálduko</i>
<i>ikúsi</i>	<i>ikústzen</i>	<i>ikusiko</i>
<i>erántzun</i>	<i>erántzuten</i>	<i>erántzungo</i>

▪ Lau silabakoak:

<i>Atzéatu</i>	<i>atzéatzen</i>	<i>atzéatuko</i>
<i>enténdi(d)u</i>	<i>enténditzen</i>	<i>enténdi(d)uko</i>
<i>erákutzi</i>	<i>erákusten</i>	<i>erákutziko</i>

Aditz jokatuak

▪ Aditz nagusi silaba batekoak:

<i>Íl dot</i>	<i>il dósu</i>	<i>íltzen dot</i>	<i>ílko'(o)su</i>
<i>Jó dot</i>	<i>jo dósu</i>	<i>jótzen dot</i>	<i>jóko'(o)su</i>
<i>Ján dot</i>	<i>jan dósu</i>	<i>játen dot</i>	<i>jángo'(o)su</i>
<i>Éin dot</i>	<i>ein dósu</i>	<i>éitten dot</i>	<i>éingo'(o)su</i>

▪ Aditz nagusi silaba bikoak:

<i>Artú dot</i>	<i>artú dosu</i>	<i>ártzen dot</i>	<i>artúko'(o)su</i>
<i>Erán dot</i>	<i>erán dosu</i>	<i>eráten dot</i>	<i>erángo'(o)su</i>
<i>Erré dot</i>	<i>erré dosu</i>	<i>errétzen dot</i>	<i>erréko'(o)su</i>
<i>Josí dot</i>	<i>josí dosu</i>	<i>jóstzen dot</i>	<i>josiko'(o)su</i>
<i>Galdú dot</i>	<i>galdú dosu</i>	<i>gáltzen dot</i>	<i>galdúko'(o)su</i>

▪ Hiru silabako aditz nagusiak:

<i>Berótu dot</i>	<i>berótu dosu</i>	<i>berótzen dot</i>	<i>berótuko'(o)su</i>
<i>Erósi dot</i>	<i>erósi dosu</i>	<i>eróstzen dot</i>	<i>erósiko'(o)su</i>

Erántzun dot *erántzun dosu* *erántzuten dot* *erántzungo'(o)su*
Sapáldu dot *sapáldu dosu* *sapáltzen dot* *sapálduko'(o)su*

▪ Lau silabako aditz nagusiak:

Atzéatu dot *atzéatu dosu* *atzéatzen dot* *atzéatuko'(o)su*
Enténdi(d)u dot *enténdi(d)u dosu* *enténditzen dot* *enténdi(d)uko'(o)su*
Erácutzi dot *erácutzi dosu* *erákusten dot* *erácutziko'(o)su*

Deba ibarreko beste hizkera bateko azentuerekin konparatuz (Aramaiokoarekin), ohargarria iruditu zait Elgoibarko hizkeran *-T(Z)EN* atzizkiak azenturik ez eramatea³⁰. Aditz jokatueta, ikusiko dugu azentua aurreko silabak edo haren aurrekoak hartzen duela, baina inoiz ez *-T(Z)EN* atzizkiak. Aramaion, berriz, *illtén dot*, *jotén dot*, *jostén dot*, *galtzén dot* gisako azentuerak entzuten dira.³¹

Gainerakoan, aditzean izen eta adjektiboetan betetzen diren arau berberak ditugula esan daiteke: azentua, oro har, bigarren silaban doa; silaba bakarreko aditz-partizipioetan, azentua partizipioak hartzen du aditz laguntzailea silaba bakarrekoa bada (*ján dot*, *éin dot*), eta aditz laguntzaileak hartzen du, silaba bat baino gehiago badu (*jan dósu*, *ein dósu*).

1.6.1.4. Toponimia

Leku-izenetan zer azentuera daukagun ikusteko, iruditu zait inguruko toponimiara jotzea dela egokiena: inguruko herrien izenak, Elgoibarko auzoen eta baserrien izenak nola ahoskatzen diren erakustea, alegia.

▪ Inguruko herrien izenak:

<i>Bergára</i>	<i>Déba</i>	<i>Mendáro</i>
<i>Askóitti</i>	<i>Markíña</i>	<i>Etxéberri</i>
<i>Éibar</i>	<i>Pláentxi(a)</i>	<i>Élgoibar</i> ³²
<i>Ermúa</i>	<i>Mutriku</i>	

³⁰ Ez baldin bada erabilera markatu berezi batean: *IkusTÉN se pasatzen dan kasorik eitte espadiasu?!*

³¹ Azentuera ia salbuespenik gabea dela dio Ormaetxeak (2006, 206) Aramaiokoa: oro erregularra, [+2] duena, eta arau garbiak dituena.

³² Gazteen azentueran, herriaren beraren azentu-moldea ere aldatu da: Élgoibar (adinekoek) > Elgóibar (gazteek).

- Elgoibarko auzo batzuen izenak:

<i>Sí(g)ma</i>	<i>Tolétxe</i>	<i>Artétxe</i>
<i>Urbítarte</i>	<i>Urásandi</i>	<i>Maála</i>
<i>Sandróke</i>	<i>Sallóbente</i>	<i>Karkísao</i>
<i>Áltzola</i>	<i>Santáklara</i>	

- Elgoibarko baserri batzuen izenak:

<i>Askúe</i>	<i>Be(r)áseta</i>	<i>Goéna</i>
<i>Ibártola</i>	<i>A(g)árre</i>	<i>Bigoiñ</i>
<i>Panpárron</i>	<i>Laprámendi</i>	<i>Andikao</i>
<i>Míntxeta</i>	<i>Errétxindi</i>	<i>Urkiola</i>
<i>Kortáso</i>	<i>Galbúso</i>	<i>Úpaitza</i>
<i>Otsó Txiki</i>	<i>Olásarra</i>	<i>Errésabal</i>
<i>Metálkua</i>	<i>Kaskánte</i>	<i>Úrkitta</i>
<i>Séleta</i>	<i>Tálaixa</i>	<i>Garáte</i>
<i>Úrki</i>	<i>Básueta</i>	<i>Úpei</i>
<i>Ármaitta</i>	<i>Máusitxa</i> ³³	<i>Lisundia</i>
<i>Parápan</i>	<i>Gaártza</i>	<i>Gelátxo(e)rrota</i>
<i>Sabáleta</i>	<i>Iriarte</i>	<i>Etxéberri Metal</i>
<i>Irábaneta</i>	<i>Sabále</i>	

1.6.2. LABURBILDUZ

Laburbilduz, hauek dira Elgoibarko azentuari buruz eman ditzakedan ezaugarri nagusiak:

a) Azentua txertatzeko norabidea eta kokapena

Elgoibarren, salbuespenak salbuespen, azentua ezkerretik hasita bigarren silaban ([+2]) doa (silababakarrekoetan izan ezik; haietan, lehen silaban: [+1]).

b) Azentu bereizgarria

Salbuespenak aipatu ditut goiko atalean, eta hau da horietako bat: azentua bereizgarria da Elgoibarren, esanahiak bereizteko erabiltzen da. Beraz, arau orokorra [+2] izan arren, aldatu egingo du kokalekua esanahi-bereizketa egin ahal izateko.

³³ Elgoibarren bada fanfarre famatu bat, baserri honen izena duena; hala ere, gazteek desberdin ahoskatzen dute, azentuari dagokionez: Mausítxa.

- Adiera desberdineko hitz bikoteak bereiz ditzake azentuak Elgoibarren. Zuazok (1998: 219) azentuak bereizten dituen hitz-bikote mordo bat jaso zuen Mallabiko hizkeran. Haren zerrenda hura hartu (Elgoibarko euskarara egokiturik), eta Elgoibarren honako bikote hauek behintzat bereizten direla esan dezaket: *artía* ‘zuhaitza’ / *ártia* ‘trebetasuna, artea’; *basúa* ‘oihana’ / *básua* ‘edalonzia’; *botía* ‘oinetako’ / *bótia* ‘pilotak egiten duena’; *emía* ‘arra ez dena’ / *émia* ‘M letra’; *erría* ‘errea’ / *érria* ‘R letra’; *porría* ‘barazkia’ / *pórrua* ‘marihuana, erretzekoa’; *sosúa* ‘txoria’ / *sósua* ‘gatzik gabea’; *serúa* ‘zerua’ / *sérua* ‘0 zenbakia’.

- Azentuak singularreko eta pluraleko erabilera bereizten ditu:

Gísonak ekarri dau (sing.) / *Gísonak ekarri debe* (pl.)

Atzo galdutako ardíxakin akordau (sing.) / *Nere árdíxekin egon* (pl.)

- Azentuak plurala eta mugagabea bereizten ditu:

Etxeko txákurrekin jolas eín (pl.) / *Senbait txakúrrekin kontus* (mugag.)

Atzoko gísonen malaletxia (pl.) / *Senbait gísonen malaletxia* (mugag.)

- Izenak eta nominalizazioak bereizteko ere balio du azentuak:

astía (iz. ‘astea’) / *ástia* (nom. ‘hastea’)

lotzía (iz. ‘lotsa’) / *lótzia* (nom. ‘lotzea’)

- Perpaus osagarrien aditzak eta aginterazkoak ere bereiz ditzake:

Krisi haundixa datórrela esan dau (osag.) / *Dátórrela hona!* (zehir-agintera)

Kotxe berrixa dakárrela entzun dot (osag.) / *Dákarrela behingoz ardo-botíllia!* (zehir-agintera)

c) Doinu-azentua

Elgoibarren ez dago doinu-azenturik.

2. IZENAREN MORFOLOGIA

Izenari eta izen-sintagmari dagozkion jakingarriak aztertuko ditut bigarren kapitulu honetan.

Sintaxi-jokoari buruzkoak aipatuko ditut aurrena: zer forma hartzen duten kasu-markek eta postposizioek Elgoibarko hizkeran, zer aldaketa morfologiko gertatzen diren haiek erro lexikalekin elkartzean, zer erabilera duten atzizkiok, erabilera-testuingurua, erabilera nabarmentzekoak... Kasu-markak lehenbizi eta postposizioak ondoren; postposizioetan, lotuak eta askeak bereizi ditut, eta azken horietan, haien zerrendatze alfabetiko bat egin dut, Elgoibarren erabiltzen ditugun postposizio aske ohikoekin¹. Aurretik daramaten sintagmari eskatzen dioten atzizkia markatu dut, eta bai postposizioek berek erabiltzen dutena ere. Erabilera bakoitza argitzeko, adibideren bat edo beste ekarri dut, ahal nuelarik elkarrizketetako testu libreetatik, baina horietatik ez nuenean, berariaz eskatuta edo, azken aukera gisa, nik neuk asmatuta.²

¹ Azken urteetan terminologia desberdina erabiltzen denez atzizki hauek izendatzeko, ez dut erabili *EGLU* gramatikan arlo honetan erabiltzen dena; alegia, han, *kasu-markak* eta *postposizioak* erabiltzen ziren: lehenbizikoak, nolabait esateko, erro lexikalari lotuta idazten diren atzizkiak izendatzeko, eta bigarrenak, hitzetik bereiz idazten direnak izendatzeko. Nik, azken urteotako gramatikagintzan erabiltzen den terminologia onartuz, *kasu-markak* eta *postposizioak* terminoak erabili ditut (bereizketa eginez) lehengo *kasu-markak* izendatzeko, eta *postposizio askeak* *EGLU*etako *postposizioak* izendatzeko. Hona egin dudana bereizketa: *kasu-marka* izendatu ditut kasu gramatikalak, aditzaren jokoan parte hartzen dutenak; eta *postposizioak*, berriz, hitzari lotuak ematen diren bestelakoak, adjuntuak. Azkenik, esan bezala, *postposizio askeak* ditugu, hau da, lehen *postposizio* izen hutsa zutenak (Euskaltzaindia, 1991, 299-302).

² Kapitulu honetako tauletan eta zerrendetan agertzen diren forma guztiak, bestalde, ez dira testu libreetan aurkituak, normala den bezala; sistema osoa jasotzeko, berariaz prestatutako inkesta bat erabili dut. Ikusi dudanean atzizkiren bat ez dela erabiltzen, ez dut jaso tauletan. Ez dut, beraz, Elgoibarko kasu eta postposizio-sistema osoaren berreraikuntzarik egin; jaso dudana izan da adineko hiztunek erabiltzen duten sistema, bere hutsuneekin eta, baleude, nolabait esateko, bere “inkoherentziekin”.

Izen-sintagma osatzen duten gainerako osagaiez ere jaso ditut kontu aipagarri batzuk; adberbio eta zenbatzaile berezi batzuk jaso ditut, Elgoibarko hiztunen ahozko jarduna erakustera emateko egokiak iruditu zaizkidanak.

Izenaz ari garenez, hitz-sorkuntza ere ezin ahaztu. Kapituluaren amaiera aldera eratorpen-atzizki ohikoenak eman ditut, eta haiekin osatzen diren zenbait hitzen adibideak (guztiak dira testu libreetatik atereak); atzizkiak sailkatzeko irizpideari dagokionez, haiek sortzen duten hitzaren kategoria erabili dut: izenak eta izenondoak sortzen dituztenak aurrena, eta aditzak eta adberbioak sortzen dituztenak ondoren.

Kapituluaren amaieran, hitz-elkarketari buruzko ataltxo bat ere osatu dut. Batetik, ohikoak diren hitz elkartu mota batzuk, horiek ere beren kategoria gramatikalaren arabera sailkatuak; bestetik, hitz elkartuak osatzeko joera handi samarra duten hitz batzuk jaso ditut, elkartuaren bigarren osagai gisa agertzeko duten maiztasun nabarmenagatik.

Gatozen, bada, hasteko, kasu-marken eta postposizioen taulekin.

2.1. KASU-MARKEN ETA POSTPOSIZIOEN TAULAK

2.1.1. ATZIZKIEN TAULA OROKORRA

	SINGULARRA	PLURALA	MUGAGABEA
ABSOLUTIBOA	-A	-AK	-Ø
PARTITIBOA	—	—	-(R)IK
ERGATIBOA	-AK	-AK	-(E)K
DATIBOA	-ARI	-ERI	-(R)I
GENITIBOA	-AN	-EN	-(E)N
SOZIATIBOA	-AKIN	-EKIN	-(E)KIN
DESTINATIBOA	-ANTZAT / -ANTZAKO	-ENTZAT / -ENTZAKO	-(E)NTZAT / -(E)NTZAKO
MOTIBATIBOA	-AGA(IT)TIK	-ENGA(IT)TIK	-(E)NGA(IT)TIK
INSTRUMENTALA	—	—	-(E)Z
PROLATIBOA	—	—	-TZAT
INESIBOA	-(I)AN	-ETAN	-(E)TAN
LEKU-GENITIBOA	-(E)KO	-ETAKO	-(E)TAKO
ABLATIBOA	-(E)TIK	-ETATIK	-(E)TATIK
ADLATIBOA	-(E)RA	-ETARA	-(E)TARA
HURBILTZE-ADLATIBOA	-(E)RUTZ	-ETARUTZ	-(E)TARUTZ
MUGA-ADLATIBOA	-(E)RAIÑO	-ETARAIÑO	-(E)TARAIÑO

2.1.1.2. BOKALEZ AMAITUTAKO IZEN BIZIDUNAK: *EMAKUME*

	SINGULARRA	PLURALA	MUGAGABEA
ABSOLUTIBOA	emakumia	emakumiak	emakume
PARTITIBOA	—	—	emakumerik
ERGATIBOA	emakumiak	emakumiak	emakumek
DATIBOA	emakumiari	emakumieri	emakumeri
GENITIBOA	emakumian	emakumien	emakume(re)n
SOZIATIBOA	emakumiakin	emakumiekin	emakume(re)kin
DESTINATIBOA	emakumiantzat/ emakumiantzako	emakumientzat/ emakumientzako	emakume(re)ntzat/ emakume(re)ntzako
MOTIBATIBOA	emakumiaga(it)tik	emakumienga(it)tik	emakumega(it)tik
INSTRUMENTALA	—	—	emakumez
PROLATIBOA	—	—	emakumetzat
INESIBOA	—	—	—
LEKU-GENITIBOA	—	—	—
ABLATIBOA	emakumia(ga)ndik	emakumie(g)andik	emakume(g)andik
ADLATIBOA	emakumia(g)ana	emakumie(g)ana	emakume(g)ana
MUGA-ADLATIBOA	—	—	—

2.1.3. KONTSONANTEZ AMAITUTAKO IZEN BIZIDUNAK: GIZON

	SINGULARRA	PLURALA	MUGAGABEA
ABSOLUTIBOA	gizona	gizonak	gizon
PARTITIBOA	—	—	gizonik
ERGATIBOA	gizonak ³	gizonak	gizónek
DATIBOA	gizonari	gizoneri	gizoni
GENITIBOA	gizonan	gizonen	gizonen
SOZIATIBOA	gizonakin	gizonekin	gizónekin
DESTINATIBOA	gizonantzat / gizonantzako	gizonantzat / gizonantzako	gizonantzat / gizonantzako
MOTIBATIBOA	gizonaga(it)tik	gizonenga(it)tik	gizonega(it)tik
INSTRUMENTALA	—	—	gizonez
PROLATIBOA	—	—	gizontzat
INESIBOA	—	—	—
LEKU-GENITIBOA	—	—	—
ABLATIBOA	gizona(g)andik	gizone(g)andik	gizone(g)andik
ADLATIBOA	gizona(g)ana	gizone(g)ana	gizone(g)ana
MUGA-ADLATIBOA	—	—	—

³ Geroago ere aipatuko dudan ohar bat egin nahi dut: bereizgarria den kasuetan, markatu egin dut azentua; alegia, azentuaren kokalekuak esanahi-aldaketa dakarren kasuetan.

2.1.4. BOKALEZ AMAITUTAKO IZEN BIZIGABEAK: MENDI

	SINGULARRA	PLURALA	MUGAGABEA
ABSOLUTIBOA	mendixa	méndixak	mendi
PARTITIBOA	—	—	mendirik
ERGATIBOA	mendíxak	méndixak	mendik
DATIBOA	mendíxari	méndixeri	mendiri
GENITIBOA	mendíxan	méndixen	mendiren
SOZIATIBOA	mendíxakin	méndixekin	mendirekin
DESTINATIBOA	mendíxantzat	méndixentzat	mendirentzat
MOTIBATIBOA	mendíxaga(it)tik	méndixenga(it)tik	mendiga(it)tik
INSTRUMENTALA	—	—	mendiz
PROLATIBOA	—	—	menditzat
INESIBOA	mendixan	méndixetan	mendittan
LEKU-GENITIBOA	mendiko	méndixerako	mendittako
ABLATIBOA	mendiritik	méndixeratik	mendittatik
ADLATIBOA	mendirira	méndixerara	mendittara
HURB.-ADLATIBOA	mendirutz	méndixerarutz	mendittarutz
MUGA-ADLATIBOA	mendiraiño	méndixeraraiño	mendittaraiño

2.1.5. KONTSONANTEZ AMAITUTAKO IZEN BIZIGABEAK: TONTOR

	SINGULARRA	PLURALA	MUGAGABEA
ABSOLUTIBOA	tontorra	tóntorrek	tontor
PARTITIBOA	—	—	tontorrik
ERGATIBOA	tontórrak	tóntorrek	tontorrek
DATIBOA	tontórrari	tóntorri	tontorri
GENITIBOA	tontórran	tóntorren	tontorren
SOZIATIBOA	tontórrakin	tóntorrekin	tontorrekin
DESTINATIBOA	tontórrantzat/ tontórrantzako	tóntorrentzat/ tóntorrentzako	tontorrentzat/ tontorrentzako
MOTIBATIBOA	tontórraga(it)tik	tóntorrnga(it)tik	tontorrnga(it)tik
INSTRUMENTALA	—	—	tontorrez
PROLATIBOA	—	—	tontortzat
INESIBOA	tontórrian	tóntorretan	tontorretan
LEKU-GENITIBOA	tontóreko	tóntorretako	tontorretako
ABLATIBOA	tontórretik	tóntorretatik	tontorretatik
ADLATIBOA	tontórrera	tóntorretara	tontorretara
HURB.-ADLATIBOA	tontórreruz	tóntorretaruz	tontorretaruz
MUGA-ADLATIBOA	tontórreraíño	tóntorretaraíño	tontorretaraíño

**2.1.6. BOKALEZ AMAITUTAKO PERTSONA-IZEN BEREZIAK:
*IRENE***

ABSOLUTIBOA	Irene
PARTITIBOA	Irenerik
ERGATIBOA	Irenek
DATIBOA	Ireneri
GENITIBOA	Irenen
SOZIATIBOA	Irekin
DESTINATIBOA	Irenentzat/-tzako
MOTIBATIBOA	Irenega(it)tik
INSTRUMENTALA	—
PROLATIBOA	Irenetzat
INESIBOA	—
LEKU-GENITIBOA	—
ABLATIBOA	Irene(g)andik
ADLATIBOA	Irene(g)ana
MUGA-ADLATIBOA	—

2.1.7. KONTSONANTEZ AMAITUTAKO PERTSONA-IZEN BEREZIAK: *IBON*

ABSOLUTIBOA	Ibon
PARTITIBOA	Ibonik
ERGATIBOA	Ibonek
DATIBOA	Iboneri
GENITIBOA	Ibonen
SOZIATIBOA	Ibonekin
DESTINATIBOA	Ibonentzat/-tzako
MOTIBATIBOA	Ibonega(it)tik
INSTRUMENTALA	—
PROLATIBOA	Ibontzat
INESIBOA	—
LEKU-GENITIBOA	—
ABLATIBOA	Ibone(g)andik
ADLATIBOA	Ibone(g)ana
MUGA-ADLATIBOA	—

**2.1.8. BOKALEZ AMAITUTAKO LEKU-IZEN BEREZIAK:
KARAKATE⁴**

ABSOLUTIBOA	Karakate
PARTITIBOA	Karakaterik
ERGATIBOA	Karakatek
DATIBOA	Karakateri
GENITIBOA	Karakaten
SOZIATIBOA	Karakatekin
DESTINATIBOA	Karakatentzat/-tzako
MOTIBATIBOA	Karakatega(it)tik
INSTRUMENTALA	Karakatez
PROLATIBOA	Karakatetzat
INESIBOA	Karakaten
LEKU-GENITIBOA	Karakateko
ABLATIBOA	Karakatetik
ADLATIBOA	Karakatera
HURB.-ADLATIBOA	Karakaterutz
MUGA-ADLATIBOA	Karakateraiño

⁴ Elgoibarko mendi baten izena da *Karakate*.

**2.1.9. KONTSONANTEZ AMAITUTAKO LEKU-IZEN BEREZIAK:
*ATXOLIN*⁵**

ABSOLUTIBOA	Atxolin
PARTITIBOA	Atxoliñik
ERGATIBOA	Atxoliñek
DATIBOA	Atxoliñeri
GENITIBOA	Atxoliñen
SOZIATIBOA	Atxoliñekin
DESTINATIBOA	Atxoliñentzat/-tzako
MOTIBATIBOA	Atxoliñega(it)tik
INSTRUMENTALA	Atxoliñez
PROLATIBOA	Atxolintzat
INESIBOA	Atxoliñen
LEKU-GENITIBOA	Atxolingo
ABLATIBOA	Atxolindik
ADLATIBOA	Atxoliñera
HURB.-ADLATIBOA	Atxoliñerutz
MUGA-ADLATIBOA	Atxoliñeraiño

⁵ Elgoibarko mendi baten izena da *Atxolin*.

2.1.10. IZENORDAINAK

	NI	HI	GU
ABSOLUTIBOA	ni	hi	gu
ERGATIBOA	nik	hik	guk
DATIBOA	neri	hiri	guri
GENITIBOA	nerre	hire	gure
SOZIATIBOA	nerekin	hirekin	gurekin
DESTINATIBOA	neretzat/-tzako	hiretzat/-tzako	guretzat/-tzako
MOTIBATIBOA	nerre(g)atik	hire(g)atik	gure(g)atik
INSTRUMENTALA	—	—	—
PROLATIBOA	—	—	—
INESIBOA	—	—	—
LEKU-GENITIBOA	—	—	—
ABLATIBOA	nerre(g)andik	hire(g)andik	gure(g)andik
ADLATIBOA	nerre(g)ana	hire(g)ana	gure(g)ana
MUGA-ADLATIBOA	—	—	—

	ZU	ZUEK
ABSOLUTIBOA	zu	zuek
ERGATIBOA	zuk	zuek
DATIBOA	zuri	zueri
GENITIBOA	zure	zuen
SOZIATIBOA	zurekin	zuekin
DESTINATIBOA	zuretzat/-tzako	zuentzat/-tzako
MOTIBATIBOA	zure(g)atik	zue(g)atik
INSTRUMENTALA	—	—
PROLATIBOA	—	—
INESIBOA	—	—
LEKU-GENITIBOA	—	—
ABLATIBOA	zure(g)andik	zue(g)andik
ADLATIBOA	zure(g)ana	zue(g)ana
MUGA-ADLATIBOA	—	—

2.1.11. IZENORDAIN INDARTUAK

	NEU	HEU	GEU
ABSOLUTIBOA	neu	heu	geu
ERGATIBOA	neuk	heuk	geuk
DATIBOA	neuri	heuri	geuri
GENITIBOA	neure	heure	geure
SOZIATIBOA	neurekin	heurekin	geurekin
DESTINATIBOA	neuretzat/-tzako	heuretzat/-tzako	geuretzat/-tzako
MOTIBATIBOA	neure(g)atik	heure(g)atik	geure(g)atik
INSTRUMENTALA			
PROLATIBOA			
INESIBOA	—	—	—
LEKU-GENITIBOA	—	—	—
ABLATIBOA	neure(g)andik	heure(g)andik	geure(g)andik
ADLATIBOA	neure(g)ana	heure(g)ana	geure(g)ana
MUGA-ADLATIBOA	—	—	—

	ZEU	ZEUEK
ABSOLUTIBOA	zeu	zeuek
ERGATIBOA	zeuk	zeuek
DATIBOA	zeuri	zeueri
GENITIBOA	zeure	zeuen
SOZIATIBOA	zeurekin	zeuekin
DESTINATIBOA	zeuretzat/-tzako	zeuentzat/-tzako
MOTIBATIBOA	zeuregatik	zeuegatik
INSTRUMENTALA		
PROLATIBOA		
INESIBOA	—	—
LEKU-GENITIBOA	—	—
ABLATIBOA	zeure(g)andik	zeue(g)andik
ADLATIBOA	zeure(g)ana	zeue(g)ana
MUGA-ADLATIBOA	—	—

2.1.12. ERAKUSLEAK: HAU, HORI, HAURA

HAU

	Sing.	Plurala
ABSOLUTIBOA	hau	hónek
ERGATIBOA	honék	hónek
DATIBOA	honi	hóneri
GENITIBOA	honén	hónen
SOZIATIBOA	honekin	hónekin
DESTINATIBOA	honéntzat/-tzako	hónentzat/-tzako
MOTIBATIBOA	honé(g)atik	hóne(g)atik
INSTRUMENTALA	—	—
PROLATIBOA	—	—
INESIBOA	honetan	hónetan
LEKU-GENITIBOA	honetako	hónetako
ABLATIBOA	honetatik	hónetatik
ADLATIBOA	honetara	hónetara
MUGA-ADLATIBOA	honetaraiño	hónetaraiño

HORI

	Sing.	Plurala
ABSOLUTIBOA	hori	hórrek
ERGATIBOA	horrék	hórrek
DATIBOA	horreri	hórleri
GENITIBOA	horrén	hórren
SOZIATIBOA	horrékin	hórrekin
DESTINATIBOA	horréntzat/-tzako	hórrentzat/-tzako
MOTIBATIBOA	horré(g)atik	hórre(g)atik
INSTRUMENTALA	—	—
PROLATIBOA	—	—
INESIBOA	horretan	hórretan
LEKU-GENITIBOA	horretako	hórretako
ABLATIBOA	horretatik	hórretatik
ADLATIBOA	horretara	hórretara
MUGA-ADLATIBOA	horretaraíño	hórretaraíño

HAURA

	Sing.	Plurala
ABSOLUTIBOA	haura	hárek
ERGATIBOA	harek	hárek
DATIBOA	hari	háleri
GENITIBOA	harén	háren
SOZIATIBOA	harékin	hárekin
DESTINATIBOA	harentzat/-tzako	hárentzat/-tzako
MOTIBATIBOA	haré(g)atik	háre(g)atik
INSTRUMENTALA	—	—
PROLATIBOA	—	—
INESIBOA	haretan	háretan
LEKU-GENITIBOA	haretako	háretako
ABLATIBOA	haretatik	háretatik
ADLATIBOA	haretara	háretara
MUGA-ADLATIBOA	haretaraiño	háretaraiño

2.1.13. ERAKUSLE INDARTUAK⁶: *BE(R)AU*

	BE(R)AU
ABSOLUTIBOA	be(r)au
ERGATIBOA	be(r)onek
DATIBOA	be(r)oni
GENITIBOA	be(r)onen
SOZIATIBOA	be(r)onekin
DESTINATIBOA	be(r)onentzat
MOTIBATIBOA	be(r)onegatik
INSTRUMENTALA	—
PROLATIBOA	—
INESIBOA	—
ABLATIBOA	be(r)one(g)andik
ADLATIBOA	be(r)one(g)ana
MUGA-ADLATIBOA	—

⁶ -XE atzizkiaren bidez ere osatzen dira erakusle indartuak gurean: *hauxe, horixe, hauraxe*. Flexio guztirako balio dute -XE atzizkia duten erakusle horiek.

Bestalde, hiru graduetako erakusleei dagozkien aditzondoak hauek dira: *hemen, hor, han* (*hona, horra, bara*), eta honako hauek aditzondo horien forma indartuak: *bementxe, hortxe, hantxe* (*honaxe, horraxe, baraxe*).

BERORI, BERORREK

	BE(R)ORI
ABSOLUTIBOA	be(r)ori
ERGATIBOA	be(r)orrek
DATIBOA	be(r)orri
GENITIBOA	be(r)orren
SOZIATIBOA	be(r)orrekin
DESTINATIBOA	be(r)orrentzat
MOTIBATIBOA	be(r)orregatik
INSTRUMENTALA	—
PROLATIBOA	—
INESIBOA	—
ABLATIBOA	be(r)orre(g)andik
ADLATIBOA	be(r)orre(g)ana
MUGA-ADLATIBOA	—

BERA, EURAK

	BERA	EURAK ⁷
ABSOLUTIBOA	bera	éurak
ERGATIBOA	berak	éurak
DATIBOA	berari	éureri
GENITIBOA	beran/bere	éuren
SOZIATIBOA	berakin	éurekin
DESTINATIBOA	berantzat/beretzat	éurentzat
MOTIBATIBOA	bera(g)atik/beregatik	éure(g)atik
INSTRUMENTALA	—	—
PROLATIBOA	—	—
INESIBOA	—	—
ABLATIBOA	bere(g)andik	éure(g)andik
ADLATIBOA	bere(g)ana	éure(g)ana
MUGA-ADLATIBOA	—	—

⁷ Plural hurbileko formak ere erabiltzen dira, nahiko arrunt, gainera: *euok, eurori, euron, eurokin, eurontzat/-tzako, eurogatik, eurogana*.

2.1.14. *BAT* eta *BATZUK*

	BAT	BATZUK
ABSOLUTIBOA	bat	batzuk/batzuek
ERGATIBOA	batek	batzuek/batzuk
DATIBOA	bateri	batzueri
GENITIBOA	baten	batzuen
SOZIATIBOA	batekin	batzuekin
DESTINATIBOA	batentzat	batzuentzat
MOTIBATIBOA	bate(g)atik	batzue(g)atik
INSTRUMENTALA	—	—
PROLATIBOA	—	—
INESIBOA	batian / baten	batzuetan
LEKU-GENITIBOA	bateko	batzuetako
ABLATIBOA	baterik	batzuetatik
ADLATIBOA	batera	batzuetara
HURB.-ADLATTIBOA	baterutz	batzuetarutz
MUGA-ADLATIBOA	bateraiño	batzuetaraiño

Izen bizidunekin:

INESIBOA	—	—
LEKU-GENITIBOA	—	—
ABLATIBOA	bate(g)andik	batzue(g)andik
ADLATIBOA	bate(g)ana	batzue(ga)na
HURB.-ADLATTIBOA	—	—
MUGA-ADLATIBOA	—	—

Hona *BAT*-en joko mugatua, *BATA*-ri dagokiona:

	BATA
ABSOLUTIBOA	bata
ERGATIBOA	batak
DATIBOA	batari
GENITIBOA	batan
SOZIATIBOA	batakin
DESTINATIBOA	batantzat/-tzako
MOTIBATIBOA	bata(g)atik
INESIBOA	batian
ABLATIBOA	batetik / bata(g)andik
ADLATIBOA	batera / bata(g)ana

2.2. ATZIZKI-JOKOAREN EZAUGARRI OROKOR BATZUK

2.2.1. GENERO-BEREIZKETA

Euskaraz, eta berdin Elgoibarko euskaran, ez dago berez genero gramatikalik. Hala ere, kategoria hau sartu da gure herriko euskaran, maileguzko zenbait hitzetan; halakoetan, bereizi egiten da genero gramatikala, izen batzuetan eta batez ere izenondoetan:

tonto (tontua) / tonta (tontia)
alto (altua) / alta (altia)
temoso (temosua) / temosa (temosia)
raro (rarua) / rara (raria)
majo (majua) / maja (majia)

Izenetan ere gertatzen da bereizketa hori, bereziki ahaidetasunezko hitz batzuetan eta ogibidea adierazten dutenetan:

tio (tiua) / tia (tia)
suegrua / suegria
karnizerua / karnizeria
pelukerua / pelukeria

koziñerua / koziñeria
panaderua / panaderia
aparketerua / aparketeria

Esan bezala, mailegu bidezko hitzetan gertatzen da hori, nahiz eta badiren maileguzkoak ez diren salbuespen bakanen batzuk ere, seguruenik analogia bidez sortuak:⁸

mozolua / mozolia
txotxolua / txotxolia
gixajua / gixajia

2.2.2. PLURAL HURBILA (-OK)

Plural hurbila nahiko arrunt erabiltzen da Elgoibarko hitzunen ahotan, baina ez edozein kasu-marka edo postposiziotan: oro har, absolutua (batez ere) eta ergatiboa duten lekukotasunak bakarrik aurkitu ditudala esan behar (bi kasuetan, -OK da atzizkia). Ez dirudi, beraz, oso ohikoa denik bestelako horiez gaindikoetan erabiltzea.

Hona adibide batzuk:

(104) *Oin pasatzen dana da, lengo zaharrok eskola gitxi daukogula hori di-da eitteko, etaratzeko.*

(105) *Bestiak ere azkar, baiña horrek bixok alkar dabizenian, eztao kristaurik entenitzekorik.*

(106) *Honek barko haundixok hola jun biha'ia.*

(107) *Atia zabaldu zabanian... bestiak ihesi. Aiba Dios! Danok ihesi.*

(108) *Ta gero geratu giñan, ba, andra-gizonak, bixok, eta semiak.*

(109) *Da han eote zian mutillok.*

(110) *Ta oiñ holaxe bajatze naiz, porsiakaso, holaxe, kolpe eitxen, kolpe eitxen, kolpe eitxen, bai: eskillarako hautsok ointxe kentze itxut ondo.*

(111) *Gero, horrek denporok pasauta, Maalako kapellauan zera, monagillo izan nitzan.*

(112) *Bai, da gerria sortu zanian, ba, egun batetik bestera enterau giñan maixuok eta bazixezela.*

⁸ Hala dio Hualde-Elordieta-Elordieta hirukoteak (1994, 108), eta hala iruditzen zait niri ere.

(113) *Ya preparau nitxuan papelok eta gauzok, eta Donostiara.*

(114) *Arto-saillak eta honek piñuok daurenak, danak labrau eitxe zitxuen.*

(115) *“Hala, retiraros a vuestros caseríos”. Ixi-ixil-ixilikan etxera orduantxe. Da dana, honek Franconok hartu zaben San Pedro.*

Bestelako atzizki batzuekin ere aurkitu dut plural hurbila, baina *eurak* izenordainari dagokion jokoan bakarrik:

(116) *Baiña, eurontzako izan tzan “el fin de la aventura”, zeatik ez, gerria amaitxu ein tzan.*

(117) *Gaiñera, pentsatzen debe euron inbirixia daukaula, geu ez geala gauza!*

(118) *Da holaxe jua nitzan, juate nitzan elizkizunetara, monjak frantsesak izan arren, ba, euron kantuak eta euren gauzak eta...*

Bestelako izenekin, erakuslea duen sintagma da erabiltzen dena: *mutill hónekin, neska hónentzat, egun hónetan...*

2.2.3. FORMEN SINKRETISMOA

Zenbait atzizkitan, formen sinkretismoa gertatzen da; alegia, forma bakarra baina funtzio gramatikal bat baino gehiago duten kasuak egokitzen dira.

Har ditzagun bi forma: *amana* eta *soruan*. Forma bakoitzak bina balio izan ditzake:

AMANA:

1. *Amarena (Amana da soiñeko hori)*

2. *Amagana (Amana nixe, bixitia eittera)*

SORUAN

1. *Soroaren (Soruan barrenian jauazen nazionalak)*

2. *Soroan (Soruan aurkittu naban perretxiko haundi hau)*

Sinkretismo horrek, jakinekoa da, anbiguotasuna dakarkio atzizki-jokoari. Anbiguotasunak ditugun kasuetan, hala ere, badira desanbiguatze bideak: batetik, hitzaren ingurunea, testuingurua; bestetik, azentu bereizgarria. Bi lagungarri hauen bitartez jakingo dugu kasu bakoitzean zer balioaren, zer kasu-marka edo postposizioaren aurrean gauden.

Kasu hauetan, adibidez, bi egoera desberdinen aurrean gaude: lehenbiziko kasuan, azentuazio desberdinak eta testuinguruak laguntzen digu desanbiguatzeko; bigarrenean, berriz, azentuak bakarrik:

(119) *Gizónak esan jok (singularra) / Gizonak esan juek (plurala)*

(120) *Honéna dok etxia (singularra) / Hónena dok etxia (plurala)*

2.2.4. AZENTUA, ADIEREN BEREIZGARRI

Aipatu berri dudana bezala, zenbait kasutan azentua markatu dut bokal baten gainean, tauletan; horrekin adierazi nahi izan dut azentua bokal horretan dagoela; izan ere, esanahia bereizteko balio du azentuak formaz berdinak diren kasu batzuetan, lehen kapituluan azaldu bezala: horietan, forma bera dute, baina azentuazio desberdina.

Zenbaitetan, singularra izan edo plurala izan, azentua bi forma bereizteko gai da; goian ikusi ditugunez gain, hona beste adibide bat:

(121) *Honégana etorri nok / Hónegana etorri nok (pl.)*

Beste batzuetan, ez da azentua bereizgarri bakarra, baina bada bereizketa egiten laguntzeko modu bat: kokagune desberdina dute halakoetan ere (singularra izan edo plurala izan):

(122) *Lagúnari esan diot (sing.) / Láguneri esan diuet (plurala)*

(123) *Lagunántzat ekarri juat oparixa (sing.) / Lágunentzat ekarri juat (pl.)*

2.2.5. -AN ESPLETIBOA ZENBAIT POSTPOSIZIOTAN

Oso ohikoa da -AN atzizkia eranstea kontsonantez amaitutako postposizio batzuei. Hautazkoa da gehigarri hau, eta berez ez dio hitzari esanahi berririk eransten. Honako kasu hauetan jaso ditut lekukotasunak, guztiak -k amaiera duten postposizioetan:

- Partitiboa + -AN: *Qgirikan ekarri al dozu?*
- Motibatiboa + -AN: *Zuregatikan etorri naiz honaiño.*
- Ablatiboa + -AN: *Eztau etxetikan erten egun guztian.*
- Aditz jokatu gabea + -AN: *Miñ hartuta nao, eta etxaukat jokatzerikan.*
- Aditz jokatu mendekoa + -AN: *Eztot uste aittak ein dabanikan.*

Adibideak ugariak dira⁹; hona horietako batzuk:

(124) *Etxauan orduan autobusikan.*

(125) *Hor ibili giñanian, kanpuan, bakarrikan...*

(126) *“Fazill” esate juau. Ez erderaz, da ez euskeraz. Azkoitixan-da “leixua” esate jauk. Horreatikan, euseria hor askoz garbixaua daok hamen baiño.*

(127) *Estellara jun giñuazen lenengo soldau. Eta gero, Zaragozatan, Terueletikan, Castellondikan, Valentzia aldian zihar da.*

(128) *Hortik bai, hortik jaiero etortze giñuazen, Irundikan.*

(129) *Mutillak-eta etxuen eukitzen ordurikan fijorikan.*¹⁰

(130) *Ez zan komeni han gelditzerikan, zeatik eze berriz ere beste dispare bat ero, neu hantxe nauala iual alleauko zan!*

(131) *Etxuat, baiña, nabi jakitzerikan, honek danak irakurtzerikan.*

(132) *Eta gure bizimodua hortik aurrera, ba, eskolia laga giñuanetikan...*

2.3. ATZIZKIAK BANAN-BANAN: FORMAK ETA ERABILERA AIPAGARRI BATZUK

Sailean aztertuko ditut kasu-markak eta postposizioak atal honetan: lehendabizi, kasu-marka gramatikalak, eta gero, postposizioak. Horietako bakoitzaren barruan, lehenbizi Elgoibarko euskaran zer forma hartzen duten adieraziko dut, eta gero, egoki ikusi dudan kasuetan, erabilera aipagarri batzuk jasoko ditut.

2.3.1. ABSOLUTIBOA

Hauek dira absolutiboak mugatu singularren, pluralean eta mugagabeen, hurrenez hurren:

	SING.	PL.	MUGG.
ABSOLUTIBOA	-A	-AK	-Ø

⁹ Gero, postposizio bakoitza aztertzean, adibide gehiago emango ditugu; bai eta menderakuntzari dagokion kapituluan ere, han agertuko baitira aditzean oinarritutako formak (aditz jokatugabeen eta aditz jokatuak: *-TZERIKAN*, *-eNETIKAN*).

¹⁰ Ohargarria da egitura hau, zeinetan sintagmako bi osagaiak baitaude partitiboan eta biak *-AN* atzizkiarekin, espero izatekoa zenaren kontrara.

Plural hurbilaren atzizkia *-OK* da.

Hona, fonologiaren kapituluan aurreratu dugun bezala, bokalez amaitzen diren hitzetan nola eranstean diren hondarkiak:¹¹

• ***-a + a > -ia***

-a + -ak, -ok > -ak, -ok

<i>Gona + -a</i>	→	<i>gonia</i>
<i>Okela + -a</i>	→	<i>okelia</i>
<i>Neska + -ak</i>	→	<i>neskak</i>
<i>Neska + -ok</i>	→	<i>neskok</i>

• ***-e + -a, -ak, -ok > -ia, -iak, -iok***

<i>Eme + a</i>	→	<i>emia</i>
<i>Etxe + ak</i>	→	<i>etxiak</i>
<i>Seme + ok</i>	→	<i>semiok</i>

• ***-o + -a, -ak, -ok > -ua, -uak, -uok***

<i>Beso + a</i>	→	<i>besua</i>
<i>Beso + ak</i>	→	<i>besuak</i>
<i>Beso + ok</i>	→	<i>besuok</i>

• ***-i + -a, -ak, -ok > -ixa, -ixak, -ixok***

<i>Zati + a</i>	→	<i>zatixa</i>
<i>Zati + ak</i>	→	<i>zatixak</i>
<i>Zati + ok</i>	→	<i>zatixok</i>

▪ Hona, bestalde, mugagabeko erabilera duen predikatu osagarriaren adibide pare bat:

(133) *Haura morroe eon tzan umetan. Gero, berriz, soldau zazpi urte inguru, esate jok berak ein dittuala gerratian.*

(134) *Eta geo, umetan ardizaiñ ibili nitzuan beti, e!*

2.3.2. PARTITIBOIA

Mugagabeko erabilera bakarrik du partitiboak, jakina den bezala:

¹¹ Arau hauen salbuespenak fonologiaren kapituluan eman ditut, eta ez ditut hemen errepikatuko.

	SING.	PL.	MUGG.
PARTITIBOA	—	—	-(R)IK

Bokalez amaitutako hitzek *-R-* epentetiko bat hartzen dute partitiboko formetan, eta kontsonante hori ez ahoskatzeraino ere irits daiteke, bokalarteko testuinguruak lagundurik; hizkera bizkorrean eta arduragabean gertatzen da batez ere:

Etxaukat dirurik → *Etxaukat diruik*.

Ba al daukak semerik? → *Ba al daukak semeik?*

Hona, bestalde, partitiboaren forma berezi bat, Elgoibarren asko erabiltzen dena: *hortarikua*; ‘mota horretakoa’ edo esan nahi du. Ikus ditzagun adibide batzuk:

(135) *Linterniak in jun, hauraxe beti ikusten. Eta urria edo billau zebela han lehenao. Oin dala urte asko urria ero, zeoze horta(r)ikua.*

(136) *Bedarra ero garua, ero horta(r)iko gauzia zauanian, ba, ezin ziñan jun danak lagata ohera.*

(137) *Eske, gaiñera, ganaua toki askotan “limusiña”, ero hortariko tipo hori ipiñi debe, “blonda” edo holakua. Danian, basarri guztietan, ipiñi dabe hori.*

2.3.3. ERGATIBOA

Hauek dira kasu-marka ergatiboaren formak mugatu singularren, pluralean eta mugagabeen, hurrenez hurren:

	SING.	PL.	MUGG.
ERGATIBOA	-AK	-AK	-(E)K

Plural hurbilari dagokion atzizkia *-OK* da.

Ergatibo pluralean *-AK* atzizkia erabiltzen da; *-EK* atzizkia euskara batuan alfabetatu direnek bakarrik darabilte Elgoibarren.

(138) *Auzoko gizonak ein dabe kamiño berri hori.*

Salbuespen bakar bat egin nahi nuke: *EUREK* izenordainaren kasua; arrunta da *-EK* amaierarekin erabiltzea, asimilazio-prozesu batengatik, seguruenik. Plural hurbileko erabileran ere salbuespena zela gogoan izan behar da.

(139) *Han pasau ta holaxe ikuste zittuen geo sasitxikan billurtuta eurek.*

(140) *Eurek [milizianoek] erun jaittuen, asko erun zittuen aurrera.*

Kontua da, ordea, absolutiboko erabileran ere *-EK* amaierarekin erabiltzen dela sarritan izenordain hori:

(141) *Eurek etortze'ia, hamen patatia ein, da hau ta bestia.*

(142) *Eurek pamilixakuak juntatze'ittuk, senidiak eta, etxea etortze jakuezak.*

Horrek erakusten digu *-EK* hori ez dela ergatiboaren morfema bat, baizik morfonologiak eragindako bilakabide baten ondorio.

Lehen ere aipatu dut *-AK* singularra eta *-AK* plurala bereizteko moduetako bat azentuera dugula:

(143) *Aldameneko gizonak eindako etxe berrixa* (singularra)

(144) *Aldameneko gizonak eindako etxe berrixa* (plurala)

Beste bereizketa-modu batzuk baditugu, hala nola hizkuntzaz kanpoko ingurunea (guk dugun inguruaren ezagutza) eta sintaktikoa (aditzaren jokia, adibidez):

(145) *Aldameneko gizonak ein dau etxe berrixa* (singularra)

(146) *Aldameneko gizonak ein debe etxe berrixa* (plurala)

2.3.4. DATIBOA

Hauek dira kasu-marka datiboaren atzizkiak mugatu singularren, pluralen eta mugagabeen, hurrenez hurren:

	SING.	PL.	MUGG.
DATIBOA	-ARI	-ERI	-(R)I

Zenbait aditzek datiboko erregimena eskatzen dute: *laga, eutsi, eman, begiratu...* Ikus ditzagun adibide batzuk:

(147) *Harek oiñ, usten dot ofiziñiari laga ein diola oiñ.*

(148) *Panaderua beti lo-gosian eon dia. Lo-gosian beti, luan faltia beti, neuk ere bai. Neuk horreatik laga nion panadeixiari, e!*

(149) *Bueno, lanari lagata dago, eta haura iual zaharraua da.*

(150) *Ez, prohibiruz ez [euskara]. Baiña, pasau zana da, ba, ze esango izut, jendiak erderiai eman tzion.*

(151) *Bai, ba, handikan eutsi jauen da [nazionalei, gerran].*

(152) *Nik esan najuan eze “Bueno, hemen honi hala eutsi bi'io, e!”*

(153) *Eutsi goixari!*

(154) *Basarriko jiran gauza asko dao, gauza askori begiratu biha jako.*

2.3.5. GENITIBOA

Hauek dira genitiboaren formak mugatu singularren, pluralean eta muga-gabeen, hurrenez hurren:

	SING.	PL.	MUGG.
GENITIBOA	-AN	-EN	-(E)N

Genitiboaren singularreko forma *-AN* da:

(155) *Atzo ezautu gendun [gizonan etxia] harako haura dok.*

Genitiboan oinarritzen diren postposizioek ere (lotuek nahiz askeek), *-AN* atziki hori izango dute oinarri, bistan denez:

– NORENTZAT: *Gizonantzat ekarri debe oparixa.*

– NOREN GAINEAN: *Gizonan gainian jardun debe.*

– NOREN ALDEAN: *Gizonan aldean emakumia argixaua dok.*

▪ **Kasu berezi bat: *-rena* (*-renekua*, *-renian...*)**

Etxeak, dendak, lantegiak edo tabernak izendatzeko, asko erabiltzen da atziki hau. Deitura edo familia batekin lotua egoten da normalean:

(156) *Gure aitxak, tallartxua ero zaukan da, hamen ez zauan, bueno, bazauan ferreterixia, baiña, Eibarko Unzetanekua ere bazan, oiñ oindiokan zerian daoz, hor San Antoliñen.*

(157) *Arananeko taillarra zuan haura.*

(158) *Canalestarrak, oindiok hamen Elgoibarren badao bat ero, hau... Barrutianian ezkutautakua, hori... Ramon Canales eta horren illoba bat ero beste ero, hamen bizi dia.*

(159) *Eta gero, handikan, ba, ni sartu nitzan (ate batetik erten, eta beste batian sartu) Alkortanian.*

2.3.6. SOZIATIBOA

Hauek dira soziatiboaren formak mugatu singularren, pluralean eta mugagabeen, hurrenez hurren:

	SING.	PL.	MUGG.
SOZIATIBOA	-AKIN	-EKIN	-(E)KIN

-KIN forma bakarrik erabiltzen da gaur egun Elgoibarren, eta ez da erabiltzen oso hurbil (Eibarren bertan) ezagutzen duten -GAZ forma.¹²

(160) *Eta atzetikan bat, ño! Zaintzen moruan edo, eztakizu? “Honek gurekin bilddurra jaukek” edo... pentsatzen.*

▪ **Zenbait pentsamendu- eta sentimendu-aditzek eska dezakete:** *enamora, gustauta egon, txorau, txokau, enterau, konturau, gogoratu, abaztu, akordau, pentsau, fijau, aspertu, gogaitu...*

(161) *Da ez zebeu billatzen inor itxuria da, nerekin akordau zian.*

(162) *Oiñ lanakin pentsatzen eoten da ta...*

(163) *Da han diskutitze juau, ba, politikiakin aspertuta gauaz da, ostiango dana.*

(164) *Ni akordatzen naiz ogixakin. Häreke eztakitt zerekiñ einda zaozen.*

(165) *Zurekin enamorautu zauan haura.*

(166) *Andra horretxekin gustauta daok Juanito.*

▪ **Postposizioek ere eska dezakete:** *-kin batera...*

(167) *Haura zubixa zela in tzebeu? Han soporterik ezin zeiken sartu haura, hari masia sartzeko... Orduan zeoze kabliakin batera, zeoze, han soportetik eutzitxa izango zan.*

¹² Ikus Sarasua-Agirrebeña-Zenarruzabeitia (2005, 135): “Eureaz juaten giñan, gaztiak”. Galtzen ari dela aitortzen da, nolnani ere.

(168) *Eta gero, erun nahi zittuen hemengo Josepa zana ta. Asko erun zittuen aurrera. Eta aittak ezetz, berakin batera jungo ziela, bera jun biha bazan, eurek etzixezela. Laga ez harek neskak eruaten, bestela bajiezak.*

▪ **Kidetasuna** adierazteko erabil daiteke sozietiboa:

Kidetasuna adierazten duten zenbait predikaturekin ere bai¹³: *ezkondu, amistadia euki, laguna izan, tratatu, konfiantzia euki, segurantzia euki, egon, (ibiltzen) hasi...*

(169) *Ni akordatzen nok harek etortzen eta ni ume txikixakin titixa ematen da, tak! Ta danak handik jotzen zittuen balazuak, eta ataiko atia. Horrek pasau zian, fletxazo edarra gure etxosteko atiak.*

(170) *Baiña gero nola bigarrenian ni juan nitzan, emaztiak itxain in zian. Berriz etorri nitzanian, ba, berriz berakin hasi ya [mutil-lagun].*

(171) *Talaixa [baserria]. Beste bat ahizta dao Santa Anan bizi dana, Zeletakin ezkonduta.*

(172) *Eustakio lagun haundixa zuan zerakin, hau, e... Roke Regillekin.*

(173) *Kriston amistadia jaukau harekin.*

(174) *Ez, nik ez, problemarik sekula eztoz euki horrekin. Ba, asko ibili nai zelako, batakin da bestiakin tratau dotelako asko.*

▪ **-eLA moduzkoaren ordaina** izan daitekeena (edutea):

Esniakin juan = esnea neramala

(175) *Len bai. Len esniakin juten nitzan beti [kalera].*

(176) *Eta orduan etorri zian Santa Eskaliak hona. Ni akordatzen naiz, al-deko Bittorik, Joxen amak zela esan tzaban: “Soiñuakin zatozte hona? Errosarixuakin etorri biha dok hona, errosarixuakin!”*

(177) *Bai, beti gabiz gu kanporako haiziakin, da hola, ta gero...*

(178) *Bai, eztulakin-da dabil, da zeoze dauka ta eruan giñon [medikuarenena].*

(179) *Eunero juten nitzan ni ogixakin Debara.*

(180) *Atakia, tronbosixakin eon tzan denpoalian.*

(181) *Berroeta bost eguneko permisuakin, etxera [baimena nuela].*

(182) *Andra haundi bat, da gizona ere bai demasa, eote zuan ille luziakin da. Haraxe jute giñuazen kafia ta esnia hartzera, armuzua.*

▪ **Denbora, adina:** goiko -eLA-ren antzekoak dira, baina adinari dagokio kasu honetan.

¹³ EGLUI liburukian aipatzen da kideetasunaren kontzeptua, 288 or.

(183) *Ni urtiakin-eo etorri nindduan.*

(184) *Sei urtekiñ hasi nitzan eskolan.*

▪ **Baliabidea edo instrumentaltasuna** adierazteko:¹⁴

Erruz erabiltzen da balio hau Elgoibarko adinekoen jardunean. Ikus dizagun adibide ugarietako batzuk:

(185) *Eon. Bai, hola gustatze jatana neri, jorria; errezena, jorria. Atxurrakin triki-triki-triki.*

(186) *Zera ta barrez. Harek pixkat serixau eon balia, iual hobe. Andres da Itziar barrez, barrez harek. Eta ni, eskuakin ogixa ebaitzen.*

(187) *Honi barkuoni oin zulua pasatze jako depositxuan, da ze in bi'ozue orduan? Tornilluekin lotu hola zerian eo?*

(188) *Orduan garo ebaten, itaixakin eskuz.*

(189) *Makiñiakiñ jaixten genduazen [behiak].*

(190) —*Ta zela bajatzen ziñan?* —*Astuakin. Astuakin beti. Eta antxitxika zortzi tt'erdietako mezetara; astua hartu eta esniak ere.*

(191) *Eta, geñera, eztao bizi izeterikan basarrixa berakin bakarrik. Ezin leike, ezin leike bizi. Oin, kalian [lan] einda badao, ta jubilaziotik eta hola [bai].*

(192) *Eske, derrior eman biha dabe, bestela euskeriakin bakarrik etzuaz iñoa ere.*

(193) *Horretxek zittuan txarrak. Oiñ bedarra ere, esan dotena, ba, segado-riakin ebaitzen dok. Da len lau ero bost ordu eitte zittuan lanak, oiñ horrekin makiñiakin ordubetian eitten dok. Da nekatu be eitten dok.*

(194) *Len eskribittu eta jaten. Ogixa ebai ere, nik [esku] ezkerrakin ein bihar. Eta pelotan, ez gea oiñ ibiltzen baiña ibili bihar bada, hau, ezkerra, nagusi.*

Gero instrumentolarekin ikusiko dugun erabilera bat sozietiboarekin ere betetzen da: gaia, materia (-z betel-rekin bete) adierazteko:

(195) *Eta hori garbitzen dok hola. Da gero ipintze juau, urakin bete atzera. Guk ura beteta eruate juau atzera, barkua. Barkua eztok hutsikan juten.*

▪ **Kausa-kutsua dutenak** (= -eLA ETA)

(196) *Humedae haundixa dao hamen. Da humedadiakin zeoze dakana, ba, ezta ondo ibiltten. Eualdixan kanbixuetan-da i(g)erri itxe (j)ako.*

¹⁴ Ikus *EGLU I*, 288 or.: "...gainera, kasu hau modua, kausa edo instrumentaltasuna adierazteko erabil daiteke: makilarekin jo dut; liburu harekin dakidan euskara guztia ikasi dut; bero honekin ezin da lanik egin...".

(197) *Bai, bai. Da gu lenengo hasi giñanian, gaiñera, hamabi-hamahiru ordu eitxe zian. Oiñ, en kanbio, bariantiakin-da, atajuak asko dao. Ta oiñ hamar orduan hortxe-hortxe juten da autobusa. Baiña, hala ere, ordu mordua dao.*

▪ **Emendiozkoa** (ETA-ren ordain)

(198) *Da ikusi Bartzelona, han jun giñan zer batera, da Bartzelonan hoeta zazpi pezta, hoeta zortzi pezeta. Kafe konpletua kopiakin da dana.*

▪ **Esapideak:** *Zaharran zaharrakin...*, *-rekin jai izan*, *-rekin alferrik izan*, *-rekin kontuz ibili...*

(199) *Zenbat aldiz entzun biha down “gizonezkuekin alperrik don”!*

(200) *Kontuz horrekin, letxe txarra jakak eta!*

(201) *Mozkorran mozkorrakiñ, ezin zan ibili ere eiñ.*

(202) *Neure artian, “emate’ixaten kolpiakin, soltauko ’k”.*

▪ **Konparazioak egiteko** ere erabiltzen da:

(203) *Lengo euseria daok oiñguakin zihero diperentia.*

▪ **Postposizio-metaketa:** *-kingo*.

Gaur egun ez da gehiegi erabiltzen, baina adinekoentzat arrunta da atzizki-metatze hau:

-kin + -ko → -kingo

Hona adibide batzuk:

(204) *Ba, haura ferreterixia [Unceta] inportantia zan hónekingo! [≡ hauen aldean]*

(205) *—Ze begintxantze jatzu telebisiuan eitxen dan euseria? —Gurekingo, diferentia, hori... [≡ gurearen aldean].*

(206) *Lagun horrekinguak ein dittut.*¹⁵

-KIKO atzizkirik ez dut aurkitu testu libreetan, ez eta inkesta lotuetan ere.

▪ **Bitxikeriak:** asko erabiltzen da sozietiboa elgoibartarren jardunean, bitxiak iruditzen zaizkidan egituretan ere. Hona pare bat adibide:

(207) *Gizona hil tzanian horrekiñ enbaraza gelditxu zan.*

(208) *Ni erutaille haundixa naiz miñakin, e!*

¹⁵ Alegia, amaitu dut horrekin nuen tratua, harremana.

2.3.7. DESTINATIBOA

Hauek dira destinatiboaren formak mugatu singularren, pluralean eta mugagabeen, hurrenez hurren:

	SING.	PL.	MUGG.
DESTINATIBOA	-ANTZAT / -ANTZAKO	-ENTZAT / -ENTZAKO	-(E)NTZAT / -(E)NTZAKO

Hegoalderago, Deba ibar gehiengan (Eibarren, Ermuan, Soraluzen eta Bergaran, adibidez), erabiltzen den *-TAKO* atzizkia ez da erabiltzen Elgoibarren.¹⁶

Tauletan ikusten den bezala, *-TZAT* eta *-TZAKO*, bi formak erabiltzen dira gure artean; adizlaguna denean, era nahiko bereizgabeen erabiltzen dira (hiztun berak biak erabil ditzake, are esaldi berean ere); izenlaguna denean, *-TZAKO* forma erabiltzen da beti.

▪ Adizlagun-erabilera:

Hona adizlagun-erabileraren adibide batzuk, zeinetan, *-TZAT* nahiz *-TZAKO* formak erabiltzen baitira, ustez behintzat araurik gabe:

(209) *Ba, nahikua guretzako.*

(210) *Hauraxe zuan hola pixkat jazte zana, eta haretxen gaztetako erropia ja(r)abik horrek, neretzako.*

(211) *Da karnizerixia segitzen badio, andriantzako ere lan asko. Han lotuta eon bi'ozu.*

(212) *Bai, bai. Astia bastante ein dau, astia. Ta eskerrak horri. Oiñ ein daban eurixa ere, ba, mesederakua da patatiantzako ta. Asko eztaixela eiñ. Oin komeni da, garbitxu eualdixa, garbi eon dailla. Osasumeako ta, garbi eon dailla.*

(213) *Da hala, kaleko umiantzako primeran etortze ok haura. Jolasian eiñ han kanpuan da. Da hala ere, txakur txiki bat ero bilddots txiki batzuk ero baldin badaure ta...*

(214) *Nere ama etortze zanian, oporrak pasatzea Urkira. Neretzako etzauan mundu guztian gauza edarraorik haura baiño!*

(215) *Gero, astelen goizian kalera jun nitzan ganauantzat pentsua ekartzera.*

¹⁶ Sarasua eta beste, 2005, 137 or.: "Ona zala, batetik, Eibarko herrixandako".

(216) *Eta harek zakan han (...) hola animalixa mordo bat, beste pare bat behi, eurentzat esnia, ortua, berduria eurentzako izeteko, eta dana holako palazio edar bat zakan.*

(217) *Ibiltzia danentzat da ona, e!*

(218) *Da, zer asko, alargunantzat umiekiñ bakarrik, gizoni(k) pe, tabernia tristia da.*

▪ **Izenlagun-erabilera:**

Erabilera honetan, -TZAKO da aukera bakarra:

(129) *Bai, bai, bai, bai. Oiñ, geiñera, ba, jubilautenzako autobusa merkia dao. Jun da etorri bakoitzana, lau milla pezeta. Da hamar ordu kotxian.*

(220) *Hi, monjak hirezako erreka jaukek.*

Izena isildua egon daiteke, kasu hauetan bezala (-TZAKUA):

(221) *Ez, etxia? Oiñ harek ein jaittuek jardiñak ikaragarrixak. Haek zauken etxe haundi bat, txaleta eta beste etxe bat. Txoferrantzakua aparte jardiñian.*

(222) *Katiekin mobitze zan, katiak eztakizu, ez zenduzen ezautu baiña, lenengo kamioiak onak eta berrixak hamen eztakitt nun eitxe zianak, katiekin mobitze zian. Oiñ eztao holakorik baiña. Eta, haura ere, holakotxia zan, biajeruentzakua zan.*

▪ Pertsonak izan gabe ere -TZAT/-TZAKO har dezakete landare-izenek eta animalienek:

(223) *Oiñ ein daban eurixa ere, ba, mesederakua da patatiantzako ta.*

(224) *Gero, astelen goizian, kalera jun nitzan, ganauantzat pentsua ekartzera.*

▪ Bai eta objektu bizigabeek ere, arruntena bizidunekiko erabilera den arren:

(225) *Bilbon eitxe zan orduan, Deuston, torno berrixak, motor berrixak, automobillentzako motorra arrelau ta.*

(226) *Venezuelatikan, olixuakin da, autuentzako olixuakin da. Haura deskargatzen, da Lasak esan zion eze...*

▪ Destinatioaren erabilera edo balioetako bat **ustea edo iritzia** adierazten duena da. Lerratze semantiko bat gertatu da jatorrizko balio destinatibotik ustea adierazten duen honetara. Nahiko arrunta da erabilera hau ahozko jardun lagunartekoan. Ikus ditzagun adibide batzuk:

(227) —*Eta telebisioko-ta euskertia, euskera batua eo esaten da. Ta ententizeko ta erretz?*

—Neetzat behintzat asko badaka, [nahaste] asko.

(228) —Bai. Nik uste'ot orduan gogorrao hartze zitxuela [maisu-maistrek umeak]. —Bai, bai. Baiña orduko goortasuna neetzat txarrao. Jo etxok ein bihar. Buruan da iual.

(229) Bueno, lanik gogorrena neetzako izate zan kalian biharrian ibiltze nitzanian, ba, udia, udakua.

▪ **-RAKO:** Pertsona edo izaki biziduna ez dugun kasuetan, alegia, leku edo denborazko oinarria dugunean, **-RAKO** atzizkia erabiltzen da nagusiki, nahiz batzuetan **-TZAT/-TZAKO** ere erabili izan diren.

(230) Ba, hoeta hamar bat lagun ero eote giñan, hoeta bost eo ta. Mar harek prestatze zitxuanak ee, onak, Eskola Armeixarako beti lehengo etaratze zeбен.

(231) Oin komeni da, garbitxu eualdixa, garbi eon dailla. Osasuneako ta, garbi eon dailla.

(232) Marinarako ere bai dihar ein tzien da.

(233) Gaur ezetarako eztau balixo.

(234) Okeletaako bakarrik [behiak].

(235) Haura zan goorra, (...) etxerako emate zizuen leziua, ta harek eiñ ein bi'izete zuan, bestela...

(236) Aste baterako jute haiz, ta jun da etorri, eun bi kentze'itxuk eta ezer ee ez.

(237) Enkargatze zuan, ba, etxian zauan neskaen bat ero, ama ero, gaberako garbitzen.

(238) Bai, ordurako itxota zauden. Zea, geo etaa zitxuen, baiña gero alpe-rrikan.

2.3.8. MOTIBATIBOA

Hauek dira motibatiboaren formak mugatu singularren, pluralean eta mugagabeen, hurrenez hurren:

	SING.	PL.	MUGG.
MOTIBATIBOA	-AGA(IT)TIK	-EGA(IT)TIK	-(E)GA(IT)TIK

Izenkiak ditugun kasuetan, forma nagusia genitiboaren markarik ez due-na da mugagabeen eta mugatu singularrean: **-GATIK**. *Emakumia(g)atik* da askoz arruntagoa genitiboduna (*emakumiangatik*) baino.

Atzizkiaren aldaera palatalizatua ere erabiltzen da (-*gaittik*), baina palatalizatu gabea da arruntena (-*gatik*).

Atzizkiaren -G- kontsonantea ahostuna bokal artean gertatzen den kasuetan, oso arrunta da haren ahoskera ahultzea (frikari egitea) eta, zenbaitetan, galtzea; hona hemen beheragoko adibideetako forma batzuk, horren erakusgarri: *eualdixa(g)atikan, alargunaatik, horreatik...*

▪ Ekintza edo gertaeraren baten **arrazoia edo zergatia** adierazten da atzizki honen bidez:

(239) *Ospitxalian zauan, bonbardeuen bildurragatikan.*

(240) *[Telebistari begira] Aizkura-jokua dala, bestia dala, Perurena dala, ero umia(g)aittik...*

(241) *Ni, berritz, ama alargunaatik librau nitzan [soldadutzatik]. Nik hamasei nitxuala hil zan aitxa. Horreatik librau nitzan.*

(242) *Bai, ba. Nik oiñ dana, berdin don, honek etxakixek iñok. Baiña haatik esate jua(t) pa, nik, gauzok, "trapos viejos", azaldu itte'ittuk. Trapu zarrak!*

(243) *Panaderuak beti lo-gosian eon dia. Lo-gosian beti, luan faltia beti, neuk ere bai. Neuk horreatik laga nion panadeixiai, e!*

(244) —*Hemen kulpaa haundixa, haundixa, haundixa euki dabena abadiak izan dia.*

—*Abadiak? —Abadiak, bai. Gero, horreatik galdu da relijiua dana, e!*

(245) *Bestia etxian, erten ere eztau eitxen harek. Esate jako, baiña ezteu nahi erten ere. Da argixetakua. Hainbeste liburu, hainbeste liburu... Ta horreatik esate'uet nik: "Bueno, estudixau ondo dao, e! Baiña osaba bezela ez, e! Burua galtzeraiño, ez".*

(246) —*Basarriko bizimodua gustatze jatzue zueri? —Bueno, gustau bai. Beti hauxe usau dou, ta badakizu. —Zuri? —Gustau bai. Horretxeatik etorritta gauaz, bestela...*

(247) *Holaxe ibiltze giñuazen. Horreatik zuan oingo aldian astuna. Da geo, txarren-txarrena zuan, zera, biderik ez basarrixetara.*

Adibide hauek ikusita, joera nabarmena dagoela esan behar erakusleekin erabiltzeko.

▪ **Hizketagaia ere adieraz dezake atziki honek:** *preguntau, esan, (berbetan) jardun, ari izan ...gatik:*

(248) *[Irratian] Ia ze esate deben eualdixa(g)atikan, eztakik?*

(249) *Edozeiñek esate zizun: "Jode, vaya queso que tienes", burua(g)atikan.*

(250) “*Baiña honek bestionek eztau asko balixo*”, *neskia(g)atikan [esan zuen]*, “*mebiak ero...*”.

(251) “*Etxuat ikusi gizonik –esate juan guriak, Vallejo(g)atik– haiñ ondo ta haiñ azkar eitxen daban gizonik*”.

▪ **Aditz-izenari ere eransten zaio** postposizio hau kausazko edo (gutxiagotan) helburuzko perpaus mendekoak osatzeko. Hemen, balio bakoitzeke adibide bana besterik ez dut jasoko (azalpen gehiago sintaxiaren kapituluari emango dut):

(252) *Sei pezeta [biajia], jolin! “Ya lo creo”! Da ni, ba, aitxa zanakin da ikustia(g)atik autuak eta, hola zerian junda.* (HELBURUZKOA)

(253) *Neskiari hola helduta jutia(g)atikan, hola helduta jutia(g)atikan, “doscientas cincuenta pesetas”, multia.* (KAUSAZKOA)

▪ **-AN espletiboa ere sarritan eransten zaiola** esan behar, *-k* amaiera duten beste atzizkiekin gertatzen den bezala: *-GATIKAN*.

(254) *Erreñak ere etxequak, ba, lan asko daka umiekin. Oin ikastolara eruan bi’ittu, ta goizian eruan, euardixan berriz jun, da geo illuntzixan berriz. Da allau bae. Ta horreatikan kotxiak ere bi bihar.*

(255) “*Fazill*” *esate juau. Ez erderaz, da ez euskeraz. Azkoitixan-da “leixua” esate jauek. Horreatikan, euskeria hor askoz garbixaua daok hamen baiño.*

(256) *Ospitxalian zauan, bonbardeuen bilddurratikan.*

▪ **Ze(rg)atik, ze(rg)atik eze:**

-GATIK atzizkia daramaten gailu hauek, menderagailu eta lokailu izan daitezkeen hauek, kausazko mendeko perpausak osatzen dituzte (menderagailuek), eta kausa-balioa duen testu-mailako lotura ahalbidetzen dute (lokailuek).

2.3.9. INSTRUMENTALA

Instrumentalak ez du Elgoibarren, beherago ikusiko dugun bezala, erabileren sistematikorik izen arruntekin; ez behintzat singularreko eta pluraleko erabileretan, erabileren mugatutan: hori dela eta, mugagabeari dagokion gela bakarririk eman dut instrumentalari dagokion forma, hura bakarririk baita, egitura jakin batzuetan bada ere, erabiltzen dena:

	SING.	PL.	MUGG.
INSTRUMENTALA	—	—	-(E)Z

▪ **Adberbio eta lokuzio adberbialak sortuz:**

Izenekin, forma fosilduetan, ihartuetan bakarrik erabiltzen da instrumentala Elgoibarko hizkeran, Hego Euskal Herriko beste hainbat hizkeratan bezalatsu; adberbio-funtzioa dute hauek guztiek:

<i>nekez</i>	<i>ahuspez</i>	<i>garaiz</i>
<i>egunez</i>	<i>gabaz</i>	<i>oiñez</i>
<i>kamiñoz</i>	<i>harrezkero</i>	<i>aurrez</i>

Saia gaitezen adberbio hauen nolabaiteko sailkapena egiten:

a) Nolakotasunezko adberbioak: *zer moduz, oiñez, sosisuz, kontuz, negarrez, barrez, kasualidadez, ahuspez, nekez, ganoraz, mendiz, kamiñoz, patxadaz, mesedez, faborez, penaz, buruz, eskuz, euskeraz, erderaz, kastillanoz...*

(257) *Bueno, jaixotzez, ni Iriarte-Etxeberrikua, ni beti Iriarte-Etxeberrikua.*

(258) *Bai, bai, bertan jaixotakua, bertan jaixota. Ni nok jaixotzez, Salontzoko partia, Urruzuno ballia baatik nun daon? —Bai. —Ba, Aranbelzkua.*

(259) *Alberto geuria ere, txiripaz librau zan. Hori gerria amaitxu ondoren, e!*

(260) *Ta hemen pasau bi'eu, da jun giñan atzera Burgostikan. Ba, oiñez bastante bidia zaon, da beste launen paketiak eta horrek hartu eta eruteko.*

(261) *Ta gero, kasualidadez, etorri baten bitxartez zeera, ta jun gara Donostiara ama zana ta bixok eta...*

(262) *Txa barrez-barrez eurak.*

(263) *Bergarara, Azkoitxira, Azpeitxira... Mondra(g)oraiño da... fin. Horko salidak-eta kanbioiez izete zian.*

(264) —*Ta jun da etorri zela itxe zendun Burgosera? —Trenez ta, ba. —Ze baiña? —Jun da etorri. Burgosera. —Trenian.*¹⁷

(265) *Ba, biajia guk azkenengo aldiz, hamen Bilbon eon giñanian, Bilbon trenez etortze giñan gu, trenian.*

(266) *Zumarrara jun tzian hamendik; baiña penaz jun tzian, ohittuta zauden da.*

(267) *Dotriñak ee halaxe, bat txikixaua, ta bestia haundixaua. Dotriñia buruz, preguntia eiñ, da hartu hor maixuak eo maistriak hartu hor, da galdetu hortik preguntia, ta buruz esan bihar.*

(268) *Hau preuntiau esango zizan, da buruz esan bihar.*

¹⁷ Adibide honetan eta hurrengoan ikusten den bezala, bietara eman daitezke halakoak, inesiboaren nahiz instrumentalaren bidez. Gauza bera gertatzen da denborazko adberbioen kasuan ere.

(269) *Guk dotriña eta “manoeskritua” esate zitzakon len. Eskritura, eskuz eskribidutako liburu bat zan, manuskrito esate jakon. Eskuz eskribitzeko liburu bat.*

(270) *Kamionak eskuz kargatze zian danak, hartu, ta bun da bun. Gaur eztao holakorikan.*

(271) *Horrek lorak, danak eskuz ebaten da... Oiñ hori ere ezta itxen.*

(272) *Azkoitti, Azpeitti, hor Tolosa. Hor goittik beherakua, hori euskera garbixaua dala. Hori dana. Hau Elgoibarrek asko, hamengo jentia eta Eibarkuak eta ere, erderaz etxuau eitten, da euskeaz etxuau eitten.*

(273) *Kalian etxakixek euskeraz iñok ere ez. Kalian euskeraz gaizki, gaizki, beti gaizki. Nik askotan esan izan jauat tallarrian ibiltten giñanian da, eztakik?, oiñ ez baiña. “Da zuek eztakizue ez erderaz da ez euskeraz.”*

Batzuetan, beste atzizki adberbio-sortzaile bat ere atxiki dakioke: -Z + -KA.

(274) *Fuerazka, atzerazka...*

(275) *Datorren astian gabaz, eo eztakitt zela? Ta beste batzuek goizetik eta hola. Hola itxen deu. Oiñ txandazka.*

b) Denborazko adberbioak: *gabaz, egunez, atsaldez, goizez...*

(276) *Beste batzuek lo. Lo dixena ondo. Iez gabaz jun giñuan. Gabaz erten Donostian, ta hurrengo goizeako allau hara.*

(277) *E(g)unez jokatu, baiña geo gabian botatze itxue [pilota-partidak].¹⁸*

▪ **Postposizio batzuek hala eskatuta** ere erabiltzen da instrumentala:

(278) *Hankaz gora jausi zuan uretara.*

(279) *Han, buruz behera umia, hi!*

(280) *Atzekoz aurrera jantzi dok alkondaria.*

(281) *Hemen Arratez hemendikan, San Migelen, da hemen Mendaron da... Mendaron pixkat zetzen dittuk, eee...: “badek” eta “badok”.*

(282) *Go(g)uaz kontra jute giñan eskolara.*

▪ **Esapide jakin batzuetan** ere bai:

(283) *Ibilixan ibilixaz...*

(284) *Etxez etxe...*

(285) *Bilddurrez akabatzen eon giñan.*

(286) *Gosez amorratzen naok.*

¹⁸ Aurreko azpiatalean aurreratu bezala, hemen ere bietara eman daitezke halakoak, inesi-boaren nahiz instrumentalaren bidez.

(287) *Hautsez beteta dao txabolia.*

(288) *Jendez gainezka zeuan.*

(289) *Jendez jositta zauan.*

▪ **Aditzari ere atxiki dakiok:**

Aditzari ere lotzen zaio, mendeko perpausak edo aditz-esapideak osatzeko:

(290) *Izatez, markiñarra naiz, baiña Elgoibarrera ezkondu nitzan.*

(291) *Entrenauaz hobetzen da jokua.*

(292) *Bai, bai lautzen ziun orduan. Orduan lautzen ziun. Geo, ba, berba batzuk, ba, dispaatiak esanez kontestau-ta eitte genduzen.*

(293) *Basarrixan beti dakazu eo sagarra dala, eo patatia dala, eo hau dala, bestia dala. Denporia pasaez, ba, gustoa.*

(294) *Han jarri mahaixan bueltan, ekarri txanpana mahaira, eta bueltan edanez danok hantxe eote gaittuk.*

(295) *Bai, zazpi urte. Gerran, gainea, e! Gaur leku baten, da... Jota albokuak hillez ikuste jaittuen, da "hurrengua guria izengo'k", pentsauta.*

▪ **Izenlagun zenbait osatzeko (-z + -ko):** *izugarritzko, ikaragarritzko, bildugarritzko...*

(296) *Holaxe juan giñan Debara, eualdi ikaragarritzko edarra.*

Ez da erabiltzen arrunki, gorago esan bezala, mugatuko formetan, singularrean eta pluralean. Egitura hauek ez ditu erabiltzen euskara batuan alfabetatu gabe dagoen hiztunak:

(297) **Etxiaz jardun dou. (Etxiaren gainian)*

(298) **Lagunez akordau (gogoratu) nitzuan oiñ hurrenguan. (Lagunekin)*

Testuinguru horietan, beste atzizki eta postposizio batzuk erabiltzen dira:

– Inesiboa: *arratsaldian, gabian, trenian...*

– Postposizioen bat: *-ren gainian (nire gainian jardun juau), -ren berri, -ren inguruan...*

– Soziationboia: *Mikelekin akordau naiz, enamorau, gustau...*

– Motibatiboa: *Zuengaittik ai giñan.*

– Ablatiboa: *Telefonotik hots egiñ.*

2.3.10. PROLATIBOA

Hau da prolatiboko atzizkia mugagabea:

	SING.	PL.	MUGG.
PROLATIBOA	—	—	-TZAT

Mugagabeko erabilera bakarrik du, dakigun bezala, eta xedezko balioa izan dezake, batetik, eta ustea edo iritzia, bestetik.

Hona aurkitu ditudan prolatiboaren adibide bakanetako batzuk:

(299) —*Andria noiz ezautu zendun? —Handikan denporara, bastante denporara izango zan, ze normalizauta zauan, “dentro de lo que cabe” [egoera]. Behintzat gerria ya amaitxutzat ero hamen bueltetan.*

(300) *Tontotzat hartze zebeñ beti.*

(301) *Semetzat hartu juen.* [alegia, seme izateko]

Bada -TZAT prolatiboa darabilen esapide bat ere:

(302) *Merezi dau, eta aintzakotzat hartuko dou hamendik aurrera.*

Eibarko erabileran, xedezko balioa duten kasuetan, -TZAKO aldaera ere erabiltzen da¹⁹. Elgoibarren, era lexikalizatuan baizik ez dut jaso aldaera hau: *amatzakua, aittatzakua...*²⁰

(303) —*Maria. Aitxa bigarrenen haura, ama bat baiña aitxa bigarrena. —Ahiztatzakua behintzat.*

Ez da gehiegi erabiltzen postposizio hau: batzuetan, mendeko egitura osagarri bat erabiltzen da (*dalakuan*) antzeko balioa adierazteko; beste batzuetan, bestelako egitura perifrastiko batzuk (*-ela uste izan...*). Erabileretako baterako, mugagabeko predikatu osagarria erabiltzen da maizago:

(304) *Morroj hartu dou Patxi basarrixan.*²¹

2.3.11. INESIBOA

Hauek dira inesiboaren atzizkiak mugatu singularren, pluralean eta mugagabean, hurrenez hurren:

¹⁹ Ikus Areta, 2003 (175 or.), izen sintagmaren kasu- eta postposizio-sistemari buruzko doktoretza-tesian.

²⁰ Hurrenez hurren, ‘amaordea’ eta ‘aitaordea’.

²¹ Halakoetan, *morroizat hartu* moldea ere erabil liteke, baina bestea da arruntagoa.

	SING.	PL.	MUGG.
INESIBOA	-(I)AN	-ETAN	-(E)TAN

Maiztasuna adierazteko erabil daiteke:

(305) *Zortzixan behiñ juate gara frontoira.*

Zenbatzailedun sintagmetan, singularra bakarrik erabiltzen da etenik gabeko denbora-tarteak adierazteko:

(306) *Ibillitxa nao ferrokarrillian hoeta hamar-hoeta zazpi urtian.*

(307) *Gerratan, han bi-hiru urtian haura, ta gu hemen.*

(308) *Biarritzen eon nitzan bi urtian.*

(309) *Hiru urtian izan gaittuk, eta hiruretan ganbixaeuz.*

(310) *Bueno, kanpuan ee bai, beti izeten da laguna. Horrenbeste urtian beti izeten da.*

2.3.12. LEKU-GENITIBOA

Hauek dira leku-genitiboko atzizkiak mugatu singularren, pluralean eta mugagabeen, hurrenez hurren:

	SING.	PL.	MUGG.
LEKU-GENITIBOA	-(E)KO	-ETAKO	-(E)TAKO

▪ *Nongo berri izan / Zeren berri izan*

-*KO BERRI*: lekua eta denbora adiera duten izenekin: *nongo berri* eta *noizko berri*.

(312) *Mendaroko berri banakixan nik.*

(313) *Orduko berri ondo emango'izu Patxik.*

(314) *Nik banakixan basarriko berri, eta ze eitten zan, dana.*

-*REN BERRI*: pertsonen eta gauzez ari garenean erabiltzen da: *noren (zei-nen) berri* eta *zeren berri*.

(315) *Zure berri Mirenek eman zian estraiñekoz.*

(316) *Nik al dakit, ba, politika kontuen berri?*

(317) *"Bai, bai", esan nion, "badakitt nik horren berri".*

▪ **Norako bidea / Nongo bidea / Nora bidea**

(318) (...) Amorobietarako bide batera. *Eta gero handikan ya Bilbora belaxe juan gainan.*

(319) San Pedroko bidian gertau jakun istripua.

Ez da egokia era honetako sintagmak *-ra* postposizio hutsean jartzea, gaur egungo gazteen artean zabaltzen hasia dena: adibidez, ez da oso egokia Elgoibarren urtero antolatzen den kirol lehiaketa baten izena:

(320) (??) Pilarika egunian izaten dok San Pedrora igoeria.

Egokiagoa litzateke, adibidez, *-KO* atzizkia erabiliz:

(321) San Pedroko igoera (?San Pedrorako igoera)

▪ **Ha(r)ako ... haura / Horrako ... / Handiko ...**

(322) Haura, hasi Azkaraten, eta Ekaitzen handiko baztarrerainokua piko-tzekin eta atxurrekin ebaitta dao haura.

(323) Ikusi dok ha(r)ako mutill haura?

(324) Ezkundu nitzanian? Tabernan! Lelengo tabernan, ez. Lelengo bizi nitzan han, horrako bigarren pisuan lelengo.

(325) Da, hi! Lenengo prantsesa banderia eote zuan handiko zubixan, eta hemendikaldian española eote zuan.

(326) Saldia, edo zeoze emate zioun, eta han, handiko gainian eote zian, mendi-punta gainian.

2.3.13. ABLATIBOA

Hauek dira ablatiboko atzizkiak mugatu singularren, pluralean eta muga-gabeen, hurrenez hurren:

	SING.	PL.	MUGG.
ABLATIBOA	-(E)TIK	-ETATIK	-(E)TATIK

Amailerako *-K* kontsonante leherkaria beti ahoskatzen da, Debagoieneko hizkera batzuetan ez bezala (*-TI* erabiltzen da haietan).²²

²² Ikus Ormaetxea, 2006, 229-230 or.

▪ **Zenbait aditzek edo predikatuk hala eskatuta:** *pentsau, jakiñ, kontuak etara, diferente izan (egin), sufriu, operau...*

(327) (...) *pentsau hortikan zenbat denpora eingo genduan [soldadutzan].*

(328) (...) *pentsa'ik hortik ze miserixa zauan.*

(329) *Ta handik jakitze juek gero zeñek ein tzaban ta etzaban pazkukua.*

(330) *Handik jakitzen da nun ibili giñan [agendatik].*

(331) (...) *etara kontuak hortik zenbateraiño sartuta zauren gaitzizenak.*

(332) —*Zuek uste dozue inguruko herrixetan, Eibarren, Azkoittixan diferente te eitxen dabela berba?* —*Zela, hemendik? Baai!*

(333) *Bai. Jun hari Markiñara eo, Markiña Etxeberrira ero, Bizkaira, ze diferentzia dauan Elgoibartik hara, mugan daok eta!*

(334) *Ta goitxik behera asko hobe ez askotan. Goitxik behera txarrao batzuetan. Belaunetatik eta, behiñ edade batera ezkerro, txarrao gelditze'ok.*

(335) *Bihotzetik operau zebeñ gizajua, hain gazterik!*

(336) —*Gaur jungo gera amamana? (Bakaziuak iual da, eskolatik eta).*
—*Bueno, amamana edo aittittana jungo gara basarrira, eun batzuk pasatzera.*

(337) *Da lenengotikan gaztañia pixkat heldu arte eo, gogortu arte. Bestela, arbolatik hartutako, batutako haura makala eote zuan.*

(338) *Euskal Telebistatik ere toki askotako berrixak jakite'itxuzu. Egunero ematen debe "Gaur egun", da bestia ta kanpokua, estranjeixakua...*

(339) *Makiña'at bider biájia ta, eote'ittuk hor, Kutxatik eta, esate juek: "Ez al dozue jun bihar?"*

▪ **Postposizio jakin batzuk hala eskatuta:** *-tik zihar, aparte, bueltan, kanpo...*

(340) *Bai, bai. Oiñ ere han eskoletatik zihar dixe etxe illeria, ta, buf! Asko, bai.*

(341) *Ardi-txabolia etxetik aparte dauke.*

(342) *San Migeldikan, Urkaregittikan bueltan, hor gainian geratu zittuazen.*

(343) *Bi urte inguru eman zittun herritik kanpo.*

(344) *Oiñ Fulanokin eon gara, ta datorren jaixan zeeraiño biha jonau, Lekei-txio, bai Lekeitxioraiño. Da gero handikan, Markiñatikan zihar, hola etorri.*

▪ **Denbora-mugaren hasiera ere adieraz dezake:** *-tik ... -ra* korrelazioa.

(345) *Neri asko pasatze jatek. Hor goizian eoten dok zer bat, programa bat, goizeko lauretatik zazpietara eote'ana ero. Hori askotan entzute juat nik.*

(346) *Bai. Arrate (...) Ba, gauza asko esate juek hortikan, euskera hutsian. Gauza asko emate juek. Entzuten dok, ba, eskeletatik hasi, tta aurrera.*

(347) *Bai, bai, eon da hor, bai. Haura eztok gaztia. Hirurogeittik gora.*

(348) *Ba, harek ee, bi urtetik gaiñea. Hiru urte eztakitt, baiña bi urtetik gora. Biarren eunian erun zebeñ, da geo, ba, len esan doana: kuadrilla haundixa hamen.*

▪ **Maiztasuna adierazteko** ere erabil daiteke: zenbatzaileekin (...-tik ...-ra; ...-tik behiñ):

(349) *Oiñ sei ordutik sei ordura pastilla bi.*

(350) *Egun bitxik bat jute naiz.*

(351) *Haura ere egun bitxik bat etortzen da.*

▪ **Balio partitiboa** ere badu:

(352) *Bai, ba, goizeko seiretako hasi biharrian, da ohian zauana, dinbi da daunba, dinbi da daunba! Ta, joe, danak, aurreko etxequetatik danak lo eiñ ezinda. Eta beti keña sartzet jauen, da keña.*

(353) *Hónetatik egokixena Xabier dok.*

(354) *Bai, basarri askok, ba, hamarretatikan zortzik kendu ein ditxu ganauak, danak, ta osteko larreko ganauak ipini. Larreko ganauak eta larreko ganauak. Basarrixan zelaixa pixkat garbitxu ta hola eitxeko.*

▪ **Esapide bereziak:**

(355) *Bertatik bertara gauaz bizi izeten.*

(356) *Basurdia-ta asko, gaiñea. Asko, e! Ez hola bat eta bi, e! Bueno! Ba, nee andriak ikusi zittula esaten dau. Bost eo ziala hor. Bost. Da dihar batzuk ein zittula, ta goittik behera.*

(357) *Han behetikan gora datorrela, illunabarrian kamioia kargau, ta bator behetik gora.*

(358) *Iñundik iñora ere eztau nahi dabana lortuko!*

▪ **-RIK ablatibo zaharraren aztarrenak:**

Ablatiboaren forma hau erabiltzen da oraindik gure artean, baina zenbait esapide eginetan, ihartutan bakarrik: -rik behin eta x-rik x.

(359) *Beherakuakin jauan, eta bi ordurik behin jaikitzen zuan kumunera.*

(360) *Kalerik kale ibili giñan kantuan, dirua batzen.*

(361) —*Karruakin ibiltze zan hori?* —*Bai, herririk herri ibiltze zan, astian-astian eitxe zaban rekorridua.*

(362) *Hor basaririk basarri ibiltze giñan, garixa ebai txa, bata ta bestia ta...*

Egitura hori bezala, honako hau ere erabiltzen da adiera bertsuan:

(363) *Gau guztia Santa Eskian ibilli, etxetik etxera, eta gero, bixa(ra)mon goizian, lanera zuzenian, lorik batere ein be.*

▪ **-AN espletiboa duen forma, -TIKAN:**

-k amaiera duten atzizkietan arrunta da, lehen esan bezala, -AN espletiboa eranstea. Adibideak ugariak dira:

(364) *Jota ura nundikan dixen, jota handik juten da agudo aingiria. Da presatikan zela etzan jausten...*

(365) *Denpoaliaman ibili nitzan ni eskolan, baiña gero eskolatikan erten ein biha izan genduan.*

(366) *Da luzian, ba, luzian da, ba, harek eukiko deu luzian Elgoibarko es-taziotikan horraiño bai, mendiraiño bai luzian.*

(367) *Tolosatikan beatzi kilometro daure. Pernando zana hangotxia zan. Han dao prontoi barrenian estatua.*

(368) *Bueno, hemen bonbak eta bota, bonbardeua ta dana. Gernika ta Eibar, botatzen eon zianian, hor Karakatetikan eon giñan begira. (...) Ta tiruak batetikan da bestetikan.*

▪ **ABLATIBOA + (KO) + ALDIAN:** *hemendikaldian, handikaldian...*

Ablatiboan oinarrituz osatzen den egitura berezi hau lekuzko adberbioak sortzeko erabiltzen da. Hona adibide batzuk:

(369) *Eta, hi, Lenengo prantsesa banderia eote zuan handiko zubixan, eta hemendikaldian española eote zuan.*

(370) *Baiña jun bihar izaten dot, hamendik gora jun, gero, autopista barren-na, jun handikaldera, gero autopista gaiñekaldetixik buelta, kilometro bat dakat.*

(371) *“Orduan, lelengo ein tzebena hemendikaldia da”, esan nion, “eta gero beste aldia eingo zebeñ”.*

(372) *Hori etxe haundixa, hortikaldeko hori? Bi bizitza zian hor.*

2.3.14. ADLATIBOA

Hauek dira adlatiboko atzizkiak mugatu singularren, pluralean eta muga-gabeen, hurrenez hurren:

	SING.	PL.	MUGG.
ADLATIBOA	-(E)RA	-ETARA	-(E)TARA

Hona, bestalde, atzizki honen erabilera aipagarri batzuk, testu libreetan jaso ditugunak guztiak:

▪ **Zenbait aditzek hala eska dezakete:** *nora ezkondu, nora egin...*

(373) *Markiñakua naiz izatez, baiña Elgoibarrera ezkondu nitzan.*

(374) *Altzolara eitten dau Bigoin basarrixak.*

▪ **Zenbait aditzen oinarri:**

Aditzak osatzeko ere balio du adlatiboak, -TU atzizkiaren laguntzarekin betiere, noski:, *atzeratu, gogoratu, konturatu, oheratu, sasoeatu...*

(375) *Bilbon pasau genduzen zortzi egun, da etxeratu giñan, eta akabo, hamentxe, harrazkero hamentxe lanian.*

(376) *Da danak sasoeatu dianian, neska ta mutil, ba, danak kotxia...*

▪ **-ra bidian:**

Lotura-markarik gabe ere erabil daiteke adlatiboa, alegia, ondoren daraman izenarekiko lotura bideratzen duen markarik gabe; egitura lexikalizatu honetan, hain zuzen:

(377) *Baiña orduan Azkoitxitxik Elgoibarrera bidian ere auto bat etzan pasatzen.*

2.3.15. HURBILTZE-ADLATIBOA

Hauek dira hurbiltze-adlatiboko atzizkiak mugatu singularren, pluralean eta mugagabeen, hurrenez hurren:

	SING.	PL.	MUGG.
HURBILTZE-ADLATIBOA	-(E)RUTZ	-ETARUTZ	-(E)TARUTZ

Lehenik eta behin, atzizkiaren forma -rutz dela esan behar, eta ez -ruNtz.

Bestalde, atzizki honen erabilera ez da erabatekoa, zenbait kasu jakinetan bakarrik erabiltzen da, adberbioekin eta erakusleekin batez ere: *gorutz, honutz, harutz* eta abar. Izen arruntekin ez da asko erabiltzen, egia esateko.

Gatozen adibide batzuekin:

(378) *Nik dakidana dok, astuak haruzkuan neka-neka eindda jute ziala. Eta honutzian, jolasian.*

(379) *Belaustegi tta horrek, Etxeberri aldeko hizketia nabaste juek pixkat. Baiña San Migeletik honuzkuak eta, ez.*

(380) *Ezkondur eta harrezkero hementxe, harutz eta honutz.*

(381) *Markiñatik harutz, Santa Eufemia.*

(382) *Bai. Jun hari Markiñara eo, Markiña Etxeberrira ero, Bizkaira, ze diferentzia dauan Elgoibartik hara, mugan daok eta! Badakik mugatik harutz eta mugatik honutz ze alde dauan?*

(383) *Hemen zeetzen dok. Debatik harutz gehixao, diferentzia gehixao jaukak [euskarak].*

(384) *Merkatua zan, ta ferixatik goruzkuan han errondia laga, ta...*

Izen arruntekin eta leku-izen bereziekin, askoz ohikoagoa da postposizio-egitura hau entzutea: -Ø ALDERA.

(385) *Etxe aldera abantau bihako gaittuk, eztok?*

(386) *Eta alarmia zan, eta “badatozela, badatozela”, eta jendia hasi zan ihesika Lekeittio aldera.*

(387) *Bilbo aldera edo ein genduan “viaje de novios”.*

(388) *Lelengo lana ein nabana zan bueltia eman automobillari, ta kale aldera ero hona herri aldera begira jarri, deskuiduan estuasun bat sortzen baldin bazan, prest eukitzeko alde eitxeko.*

(389) *Asturias aldera igesika zixezen.*

(390) *Ta hamenguak Bitorixa aldera bialdu ere bai. Armuetako tiok, bere seme bat haraxe, Irene karnezzeria basarrira, eruan jonan, denporale bat eitxeko, erderaz ikesi zeixan.*

(391) *Juan nitzan hor San Antoliñ aldera ero, peskan eitxeko intenziauakin ero.*

Egitura postpositibo hau, nolnahi ere, ez da beti norabidea adierazteko erabiltzen; uste dut leku finkoa adierazteko ere erabiltzen dela, honako adibide hauek erakusten duten bezala:

(392) *Orduan, medikua ta hola eitxeko, Valladolid aldera ta urrutira ta juan bi`izate zan. (= Valladolidera)*

(393) *Berandu don, eta etxe aldera juan bihako jonau (= etxera)*

2.3.16. MUGA-ADLATIBOA

Hauek dira muga-adlatiboko atzizkiak mugatu singularren, pluralean eta mugagabeen, hurrenez hurren:

	SING.	PL.	MUGG.
MUGA-ADLATIBOA	-(E)RAIÑO	-ETARAIÑO	-(E)TARAIÑO

Espazioa eta denbora, biak adierazteko erabiltzen da, baina, edozein kasutan ere, asko erabiltzen ez den atzizkia dugula esan behar.

▪ ESPAZIOA:

(394) *Da artian gu, zer? Mendaroaiño jun be eongo giñan. Ezta oingo mouko gastiak... Hoixe, Mendaoaiño jun be gu, artian.*

(395) *Bergarara, Azkoitxira, Azpeitxira... Mondra(g)oraiño da... fn. Horko salidak-eta kanbioiez izete zian.*

(396) *Eta alemanak sartu zianian, ba, han gauazen gu zubixan, hemendik geure guardixia eitten. Hondarrabittikan, Irundikan, hau autopistia oiñ amaitzen dan tokiraiño.*

▪ DENBORA:

(397) *Ezkondu gu ein giñan, ba, “el año cuarenta y ocho” ezkondu giñan, bai. “Kuarentaiotxuan”. Harta(r)aiño bittartian, ba, erromeixara, batera-bestera.*

(398) *Bestia etxian, erten ere eztau eitxen harek. Esate jako, baiña ezteu nahi erten ere. Da argixetakua. Hainbeste liburu, hainbeste liburu... Ta horreatik esate iuet nik: “Bueno, estudixau ondo dao, e! Baiña osaba bezela ez, e! Burua galtzeraiño, ez”.*

(399) *Gu monagillo. Jota belaunak mintzeraiño, hantxe belaunak pegauta!*

Bokalarteko -R- kontsonantzea sarritan ez da ahoskatzen, goiko sortako adibide batzuetan ikusten dugun bezala.

2.3.17. BIZIDUNEN PARADIGMAK

Bizidunei dagozkien leku-denborazko kasuak gure artean gutxi erabiltzen direla esan behar da, gaur egun behintzat. Murrizketa handiak gertatu direla esan daiteke bizidunen erabileran eta formetan, eta ez dira sistematikotasunez erabiltzen.

Aurkitu ditudan erabilera urrietatik gehienak izenordainenak eta erakusleena dira, eta **adlatiboari** dagozkionak:

- (400) *Etorri daixela nereana.*
- (401) *Hireana etorri barikan, ene...*
- (402) *Haura etortze zan gaba eitxera, hareana.*
- (403) *Ba, ju'ari halakona bai, ta ...*
- (404) *Mutil danak asko harena jute giñuazen.*²³

Izen arrunten adibideak ere badira, nahiz asko ez izan:

- (405) *Medikuana juan nitzan.*
- (406) *Hau jungo litzake hara, harek han daurelako baiña, e! Alabana jutia-
rren baiña, honbre, ez bestela, ez haura parajia gustauta.*

Ablatiboko adibide bakar bat jaso dut:

- (407) *Gure(g)andikan gauza gitxi ikesiko'ezu. Kalian, bai.*

Horrekin batera, ordea, balio bera baina beste forma bat duten lekukotasunak ere jaso ditut, hiztun hauek ziurtasun gutxi duten seinale:

- (408) *Gugaittikan urrian zauan haura basarrix.*
- (409) *Ze espero dozu, ba, horrekin?*

Ez dut **inesiboko** adibiderik aurkitu, eta ohargarria da adieraztea beste postposizio batzuen bitartez adierazten direla Elgoibarren inesiboari dagozkionak:

- Soziatiboa: *Nerekin konfiantza haundixa dauka aittak.*

Beste atzizkiei dagozkienetan ere, gerta daiteke bestelako forma batzuek hartzea beste euskalki batzuetan haiek hartzen duten esanahi-esparrua. **Adlatiboari** dagokionez, adibidez:

- Genitiboan oinarritua: *medikuanera, amanera (← medikuarenera, amarenera).*

Bai eta ablatiboaren kasuan ere:

- Genitiboan oinarritua: *medikuanetik, amanetik (← medikuarenetik, amarenetik).*

²³ Genitiboan oinarritutako formak dira izenordainen hauek: *neREana*, *hiREana*, *háREana*, *halakoNa*...

Hurbiltze- eta muga-ablatiboan, ez dugu jaso ez eta lortu ere (hala galde-
turik, eta eskaturik) bizidunen sistemako formarik.

Pluralean, oro har, singularrean baino erabilera murrizagoa dutela esango
nuke bizidunei dagozkien formek:

(410) *Neskatara Elosura jute giñuazen.*

(411) *Lagunetara nixe.*

2.4. POSTPOSIZIO ASKEAK

Azpisail honetan Elgoibarren gehien erabiltzen diren postposizio askeak
jaso ditut²⁴; bai eta haien erabilera argitzen laguntzen duten adibide batzuk
ere. Alfabetikoki ordenatuta daude, osagai beregainaren, bereiz idazten dena-
ren, arabera (*ALBO, ALDE, GAIN, OSTE, PARE...*). Kasuan-kasuan zehazten
da osagai beregain horrek berak duen atzizkia eta haren aurreko sintagmak
duena, postposizioen erabilera deskribatzeko oinarritzkoa iruditzen zaidan in-
formazioa.

-REN ALBUAN

Gure albulan bizi dok Inazia.

Kuartelian eote'ia armak ipinitta euren albulan.

-REN ALDAMENIAN

Gure aldamenian bizi zuan Prantzisko.

*Ein zebeñ oin soziedadia dan lekuan beste etxe txiki bat ere, haren alda-
menian.*

-REN ALDE

Olaizolan alde eingo juat posturia domekako fnalian.

-Ø ALDIAN

Eta etortze zuan aitta, illuntzi aldian etortze zuan.

Sorgiñak Azkoitti aldian da ertetzen zittuan, gainera, asko.

²⁴ *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak* gramatikan postposizio deituak, izenetik bereiz idaz-
ten direnak.

-REN ALDIAN

Zuen aldian, bestemoduzko patxadia dauka Mikelek.

Kalian erretzao bizi dok, buenoo... basarrixan aldian.

-Ø ALDERA

Etxe aldera inguratzen hasi bibako dou, ezta?

Bilbo aldera edo ein genduan.

Itziar aldera ta, diferente eitxen da berba.

-REN ANTZERA

Gurasuen antzera ibiltzen dok semia ere: nolako egurra, halako ezpala.

-Ø ANTZIAN

Gaixo antzian dao aspaldixan.

Libre antzian topau dot, eta laguntzeko eskatu diot.

“Baiña eztakau dirurik”, kaleko jentiak esate zaban. Da gu ere, baakizu, gu ere estu antzian.

Denporaletxuan ibili zan makal antzian.

-TIK APARTE

Hortik aparte, etxakat ezer esatekorik.

Ardi-txabolia etxetik aparte dauke.

-Ø ARTE

Lau t'erdiak arte eongo naiz eskolan.

-RA ARTE

Ordura arte danak konforme zian; geo etorri zian hasarriak.

-Ø ARTIAN

Ganau artian ibiltzen dok beti ume hori.

-REN ARTIAN

Zuen artian eztao laguntasunik.

-REN ARTIAN (ARTIETAN)

Nere artian niharduan berbetan.

Eta, hor dator pastelekin. Ene! Ni lotsatu ere neure artian. Harek amari ze gerra eman ete zion dirua emateko, pastelak erosteko!

-Ø ARTETIK

Sasi artetik dator zaratia.

-Ø AURRIAN

Ferixia kuartel aurrian eitte zuan Basurton.

*—Zu, baiña, lelengotik gu hara jutera orduko, zure arreba eon tzan.
—Bueno, hori ezkon aurrian ein tzaban.*

-REN AURRIAN

Gure aurrian eon zian gurasuak zinian.

Arrandegixa estankuan aurrian dao.

-Z AURRERA

Atzekoz aurrera jantzi dot jertsia.

-Ø AZPIXAN

Zubi azpixon bizi izateko eztau asko bihar horrek.

-RIK BE (PE), BA(G)E (PA(G)E)

Diruri(k) pe eztao eze gaur egunian.

Botikiakin, miñi(k) pe behintzat!.

-Ø BARRU

Bi urte barru jungo gaittuk Ameriketara.

-KIN BATERA

Eta aittak ezetz, berakin batera jungo ziela.

-TIK BEHERA

Ni akordatzen nok zela eote giñan, han etxetik behera, Urruzunoko mi-na-zuluan.

-KO BERRI

Basarriko berri eztakixe kaletarrak.

-REN BERRI

Etxuat aspaldixan hire berri jakiñ.

-REN BESTERA

Ni entzunda nao behintzat, aitta zanari tta hórreri, hartu umiak danak, eta horra beheko zeera, mendixan bestera [joaten zirela].

-REN BIHARRIAN

Danan biharrian nao ointxe.

Aditzekin ere erabiltzen da:

Gaixotu biharrian ibili da.

Gauzak ganoraz ein biharrian, beti aldrebes.

-REN BILLA

Zeren billa zabizte, ba, hainbeste afanekin?

-Z BESTALDE

Mendixaz bestalde bizi dok gure lagun hori.

-REN BITTARTEZ

Gero, kasualidadez, etorri lagun baten bittartez etxera, eta jun gara Donostiara ama zana ta bixok.

Galbusoko alaban gizona, Mendaroko semia, bizi da ondio ere, Duran-gon, eta, harek zeoze zakan Frantzian, da haren bittartez bialdu genduan abixua.

-Ø BITTARTIAN

Sasi bittartian ixkuta zuan.

Aditzekin ere erabiltzen da:

Haura etorri bittartian, bazkaldu eingo dou.

-REN BIZKAR

Patxiren bizkar ein debe barre.

-Ø BUELTAN

Etxe bueltan da, hara handiko basarrira ta, Sartzuitxa ta Akeira...

-REN BUELTAN

Han jarri mahaixan bueltan, ekarri txanpana mahaira, eta bueltan edanez danok hantxe eote gaittuk.

-TIK BUELTA(N)

Txankako zubixan sartu kalera, eta hortik buelta juan dittuk.

San Migeldikan, Urkaregittikan bueltan, hor gainian geratu zittuazen.

-REN BURUAN

Urtien buruan, ba, gazteteixia nola datorren ikastolekin da, oiñ hola [euskalduna]...

-RI ESKER(AK)

Jangoikuari eskerrak, amaittu dok partidua.

-Ø ESKE, ESKIAN

Beti diru eske dabill ume hori.

-REN ESKU

Hire esku lagatze jonat umian arduria.

-RIK EZA

Eskasa dok, pa, dirurik eza.

-RIK EZIAN

Besterik ezian, ura edango dou.

Aditz-partizipioekin ere bai:

Ondo eiñ ezian, ez eik eiñ.

-REN FALTAN

Baten faltan, bi alaba ekarri dittu batera.

-REN GAIÑIAN

Asko erabiltzen da “hizketagaia” adierazteko:

Fubolan gainian jardun jonau.

Bai, nik andriari majiñat bider esan jauat: “Guri Getarixak, Donostiari ere bai, e!, Getarixak asunto horren gainian, urtiak kendu diuz, e!” Adelan-tauau, Getarixa.

Zure tiakin hitz einda nao asunto horren gainian.

-AN GORA

Bajiezak txirrindularixak, aldapan gora.

-TIK GORA

Larogeittik gora eukiko`ittu Antoniok, urtiak.

-Z GORA

Hankaz gora jausi dok andria, labaiñ einda.

-Ø HURRENGO

Agarrauan ez zebeñ lagatzen Azkoitxixan. San Isidro hurrengo jaixan izate zan.

-Ø INGURU

Hamar urte inguru eman zittuan Ameriketan, artzai.

-Ø INGURUAN

Etxe inguruan ibiltze`ittuk oilluak beti.

-TIK KANPO(RA)

Bi urte inguru eman dittu herritik kanpo.

-Z KANPO

Lekuz kanpo eoten naiz jende askoren artian.

Sasoiz kanpo habill, perretxikotan ein nahi baok.

-REN KASA(N)

[Landarea] gainera, ipiñi eta bere kasa urtetzen dalakuan [daude gaz-teak].

Da haura, Josepa, haura eitxera eztixe bere kasan, hari merikuen batek ero esan dio: “Gimnasia ein bi`ozu”.

-REN KONTRA(RA)

Ta gero, ba hamen [gerran] ibili ziran, ba, anaiak alkarren kontra.

Ta eguen honetan, gainera, epeldu ezinda, [berotzeko] katxarrua ipini, ta epeltzen haren epelan kontrara, sikira lotaatu eitze naiz, baiña hozten naizenian... uf!

-REN KONTURA

Bere kontura jarri da lanian.

Barrez dihardue lagunan kontura.

“Autonomos”, Seguridade soziala da hori ere, baiña hori da, mediku ta, abade ta, dendarixak eta, norbere kontura diharduenentzat segurotxo bat da hori.

-REN LEPOTIK

Horren lepotik eingo juau barre.

-TIK LIBRE

Lanetik libre geratu nok.

-REN MENDE

Beti iñon mende ibiltzia ere ez tok, ba, ona.

-REN MENDIAN

Beti haretxen gainian eon bi'ozu, iñon mendian beti.

-Ø MODUAN

Gu ez gaude oin gazte batzuk moduan ibiltzeko ere.

-KO MODUAN

Orduan etxauan tallarrik eta ere, etxauan oingo moduan.

Askotan eskolara ez giñuazen jun ere eitten. Gaurko moduan? Bueno!o!

-REN MODUAN

Eta gure moduan zauden, hamen Zumarrako jentia; eta Elgoibarkuak ere bai.

-Ø ONDUAN

“Makixak” esate jauen gerra onduan, ba, hola, orduan taka-taka eitte jauen askori gerria amaittu zanian.

Hamen estazio onduan, oiñ etxiak eindako leku horretan.

-REN ONDUAN

Amakin jute giñuazen, ba, bost lagun edo. Koxkorrak danak, ttiki-ttaka, ttiki-ttaka, txarrikumak aman onduan bezelaxe jute giñuazen.

-Ø OSTIAN

Ondo eiñan pagua, ate ostian palua.

Baiñuetxe ostian zauan ahatia, lau-bost arrautzakin.

Meza ostian da, iual, juntau ezkerro zera ta, [mus] partida bat ra-ra bota ta...

Munaundi baakizu nun dauan? Izabaletatik aurrea junda. Han, Amesti ostian.

Aditzekin (partizipioekin) ere erabiltzen da:

Ezkondu ostian izan zuan atarramentua!

-REN OSTIAN

Urnobittako puntian ostian ere bai, beste egun baten eonda gauaz, ixkuta-tauta.

-Ø PARETIK

Ni juten nitzanian, Mendaroko estazio pare ingurutikan, ospitala oin dauan paretikan gora, gorao.

-REN PARE

Zoruan pare jarri zan albistia eman nionian.

-REN PARIAN

Eta basarrixan ere, nun daukan etxiak paretarik lodixena, haren parian. Dinbi eta danba, dinbi eta danba, bonbak!

-REN PARTETIK

Gure partetik eztao arazorik.

-REN PARTEZ

Aman partez, gorantziak.

-REN PODERIOZ

Jardunan poderioz, azkenian ikasi ein jok.

-REN PURUAN

Garbi esan biha da, hemen lana eiñan puruan bizi biha da.

Jardunan puruan, eiñ eitten dok.

Ibilixan puruan ikaste'ittuk gauzak.

-Ø TARTIAN

Arbola tartian eongo gaittuk, freskuran.

-Ø TRUKE

Bazkari truke lagunduko'ixat lan horretan.

-REN TRUKE

Hutsan truke eztixat ezer emango.

-REN ZAI

Zeinen zai zaude, ba?

-AN ZIHAR

Mobimentua, mobimentua bai, eta etxiak ere bai, etxiak ere hamen Itturin zerian da, hamen zihar eta, dana honek edifikatzeko.

Hartu ardixak, eta juten nitzan Elgoibarko plazan zihar. Metalkuak nola zauken zea, terrenotxo bat, San Roke ballian, hara eruatzen nittuan larra.

-TIK ZIHAR

Hortik zihar dabiz.

Datorren jaixan zeraiaño biha jonau, Lekeitxio, bai Lekeitxioraiño. Da gero handikan, Markiñatikan zihar, hola etorri.

Hauek dira Elgoibarren erabiltzen diren postposizio ohikoenak. Mendebalderago (Eibarren eta Soraluzen bertan, urrutirago joan beharrik gabe)

erabiltzen diren postposizio batzuk ez dituzte erabiltzen elgoibartarrek: adibidez, ez da *LEZ* (*LEGEZ*) erabiltzen; ez eta *LAKO* eta *BARIK* ere.²⁵

Ez dira erabiltzen, horiez gain, gaur egungo euskara batuan hedatuak diren beste hauek ere, gaur egungo adinekoen errepertorioan behintzat: *-EN AURKA*, *-RI BURUZ*, *-AN BARRENA*, *-TIK AT*, *-Z LANDA*, besteak beste.

2.5. IZEN-SINTAGMARI BURUZKO BESTE JAKINGARRI BATZUK

2.5.1. ERAKUSLEA + IZENA + ERAKUSLEA: HAU GIZONAU

Mendebaldeko hizkeretan hain arrunta den egitura hau Elgoibarren ere oso ohikoa da adineko jendearen artean. Erakuslea izenaren aurretik eta ondoren erabiltzen da sarritan, erakuslearen gradua errespetatuz: alegia, bi erakusleak lehen gradukoak, bigarrenekoak edo hirugarrenekoak, baina ez nahasirik, normalean behintzat; gerta liteke, adibidez, neutralizatutako *-a* hirugarren gradukoa beste gradukoekin ere erabiltzea (adibidez: *horrek ohiak, honek makiñak*, eta abar).

Egitura hauen beste ezaugarri bat ere aipatu nahi nuke: aldaketa morfofonologikoak eragiten ditu hitzaren bukaeran. Alegia, ez dela erakusleekin gertatzen dena gertatzen (*etxe hau, ogi zati hori*, eta abar), non ez baitago aldaketa morfofonologikorik. Aipatzen ari garen kasuan, *-a* artikuluaekin gertatzen diren aldaketa berak gertatzen dira:

- a + erakuslea → -i + erakuslea (*gona: hori goniori*)
- e + erakuslea → -i + erakuslea (*etxe: hau etxiau*)
- i + erakuslea → -i + x + erakuslea (*alderdi: hori alderdixori*)
- o + erakuslea → -u + erakuslea (*mozolo: hori mozoluori*)
- u + erakuslea → -u + erakuslea (*katu: hori katuori*)

Hona hemen egitura honen adibide batzuk:

- (412) *Gero, Frantziara juañ tzañ haura mutilla.*
- (413) *Harek erua, eta haura neskia etortze zuañ beti.*
- (414) *Beti ikusteko daukat haura ortua.*

²⁵ Ikus *Eibarko euskara*, 187 or. (*barik*), 189 or. (*lez*), 337 or. (*lako(xe)*). Soraluzeko informazioa hango berri-emailetatik eta www.ahotsak.com/soraluze webgunetik bildu dut.

- (415) *Eta len, lau ero bost ordu eitte zittuan lanak, oiñ hórrekin makiñiakin ordubetian eitten dok. Eta nekatu be eitten dok, hi!*
- (416) *Eta nahi baok, honek makiñiak ere, honek, paketiak eittekuak eta.*
- (417) *Goizian jaikitzeo ere haura prixa haura ez.*
- (418) *Gero, behian eote'ia... Badakizu, horrek obiak, bi alkarren gainian.*
- (419) *Gero, horrek denporok pasauta, Maalako kapellauan monagillo izan nitzan.*
- (420) *Bitorrenekua, orduan guk; oiñ Iriondonekua, eta oin traspasoren bat ero zeoze hola izan da: horixe taberniori!*
- (421) *Bueno hau errekiu hola ta hola zatorren hortikan.*
- (422) *Pixkat zainduta zauan haura mutilla, zeatik eze aittak puesto haundixa zaukan, ministrua zan da.*
- (423) *Da, juan, da zeñek daki, ba, nun falta daban haura piezia automobillak!*
- (424) *Mutrikurako bidian, Debatikan, han badao, ba, "Plásticos Reiner"? Ba, hantxe inguruan zauan hori astilleruori .*
- (425) *Harek bixak hil tzian, harek andra-gizonak.*
- (426) *Eta, gainera, aurrera sartzen dixe hori beori ere, e!*
- (427) *Bai, edarra ikusteko. Ikusi be nakan hori, hori alderdixori, txa edarra ikusteko.*
- (428) *Ikusten dok? Hori depositxuori? Hori daok husten oiñ.*

2.5.2. ZENBATZAILEAK

Zenbatzailedun sintagmetan ere badira aipatzeko moduko kontuak gure hizkeran:

A. IZENA + BI

Mendebaldeko hizkeren ezaugarri hau ere nahiko arrunta da Elgoibarren, beti bezala, adineko hiztunetan: alegia, *bi* zenbatzailea izenaren ondoren erabiltzea. Erabiliagoa da beharbada izenaren aurretik doana, baina ez dira gutxi bestelako testigantzak ere.

- (429) *Jute zian barreño haundi birekin.*
- (430) *Animaliak daukuuz, daukuuz zaldixak, bihor bi...*
- (431) *Han bazittuan bost neska ero, eta mutil bi.*
- (432) *Bai, urte bi tta erdi in najittuan han ere.*

- (433) Bertan kaletikan erten gora, eta kilometro bi inguru daure.
 (434) Bera, Pedro Unzeta, ferreterixia sortu zaban gizona, hantxe dendan eote zan beste bere seme bi, eta beste dependienteren bat ere bai.
 (435) Eta ni ibilli, eta handik ordu bira ero hirura sartu zian reketiak.
 (436) Bixok, beste laun bi laga, eta etxera hanka ein genduan, febreruan.
 (437) Harek urte bi pasau zittuan han.
 (438) Karburadorak litro bi hartze jaittuan, zera, gasoliñia.
 (439) Ba, mutilkoskorrak han, Iziar esate giñon baten illoba bi, eta bikixak emate juan ziala, baiña ez zitxuan.

B. FORMA MUGATUAK DENBORA ADIERAZTEN DUTEN SINTAGMA ZENBATZAILEDUNETAN

Euskaltzaindiaren 110. arauan esaten denarekin bat etorritz, zenbatzailedun sintagmetan mugatua erabiltzea da arruntena, Hegoaldeko Euskal Herri ia osoan bezala, Elgoibarko erabileran ere; betiere, sintagma horrek adierazten duen denbora etengabeko unitate bakar gisa hartzen den kasuetan. Inesiboa aztertzean jaso ditut adibide batzuk, eta orain beste batzuk gainera-tuko ditut:

- (440) Hemen eon zian harek ere? Bai, ba. Beratzi hillabetian.
 (441) Sartu, eta hiru bat orduan euki.
 (442) Eta oiñ, azkenaldixan, ba, urte askuan, guk jun daneko hogei urtian edo, makiñiakin jeizten genduazen.
 (443) (...) beste lau orduan ere bai, pixkat edanda eon ezkerero.

Euskaltzaindiaren arauan distantzia aipatzen ez bada ere, berdintsu erabiltzen da Elgoibarren halako kasuetan ere:

- (444) Atia pixkat zikinduta dauka, baiña harek, hor hirurogei bat metruan garbi-garbixa dauka harek barrua.

C. ZENBATZAILE ZEHAZTUGABE BATZUK

ASKO

- (445) Jente asko ibiltzen dok hamen, pasiaran.

EDOZENBAT²⁶

(446) *Soñujoliak? Len erozenbat zian; onak baiña, e!*

GITXI

(447) *Denpora gitxi in naban. Hiru hillabete bakarrik.*

HAINBESTE

(448) *Bai, gogorra. Eman egin biha da hainbeste pelotazo, e!*

HAMAIKA

(449) *Hamaika holako ikusteko jaixuak gara.*

HUTSA

(450) *Hutsa denpora bihar izan gendun adarjotzen ai zala konturatzeko.*

KANTIDADIA

(451) *Ta gero belgak eta suekuak eta. Suekuak kantidadia, gaiñera; sasoi haretan, kantidadia!*

MAKIÑA BAT

(452) *Bar Puri, ointxe akordatze jat, makiña bat soldau jute zan.*

MORDUA, MORDOZKIA (MORDOXKIA)

(453) *Hola basarriko jente mordo bat, edadetua gehixena, izaten da [Arraten, San Isidro egunean].*

(454) *Han [ume] mordoxkia sartze zan, eskolan.*

PILLIA/PILLUA

(455) *Zelako diru pillia kobrau zaban!*

ZENBAITT

(456) *Ez giñan gu, zenbaitt bezela, hola ibiltze giñanak!*

2.5.3. IZENONDOEN ETA ADBERBIOEN GRADUATZAILEAK

Hona Elgoibarren erabiltzen diren graduatzaileen zerrenda:

²⁶ Galtzear dago gaur egun.

PIXKAT	ZATIXA	ZATI BAT
SAMAR (SAMARTU)	ZIHERO	IKARAGARRI
INGURU	SEKO	LARREGI
MORDUA	APUR	NAHIKUA
BASTANTE	KASIK(AN)	OSUA
TOTAL	ZIHEROKO	EGUNDOKO
-TXO	IXA(-IXA)	HORTXE(-HORTXE)
PASAU	...	

Hona hauetako batzuen erabileraren adibide batzuk:

(457) *Hórrek ere, ba, pelotan ondo eitten dabe hórrek ere, bastante ondo.*

(458) *Lo ondo eitten det, bastante ondo, baiña nahi detenian haura ipintzen det nik al dala [irratia].*

(459) *Urkittik eundoko bota kaxkarrak eo zeozekin, baakik zela jungo giñan gu horra.*

(460) *Epoka haretan kasikan promesa moruan ere bai...*

(461) *Alkarrekin ere ez giñan kasik ikusi ere eitxen.*

(462) *Arratekua [euskara] kasik hobeto [ulertu].*

(463) *San Migeldikan Bizkaira sartzen da, ta Bizkaikua diferente osua berbetia, diferentia.*

(464) *Zera ta, barrez. Harek pixkat serixau eon balia, iual hobe.*

(465) *Hor total diferentiak dira [ETBn, euskarari dagokionez].*

(466) *Gure euskera ere da, ba, esaten deu "bentania" eztakitt zer, da "ma(ha)ixa" badakit zer eta, baiña, euskeraz garbi hasi ezkeru ziheroko diferentiak dia.*

(467) *Len, zar-zar-zarra zauan [etxea], ni etorri nitzanian, ziheroko zarra zeuan da.*

(468) *Gaur alpertu ere bai, zati bat, baiña kapazidadia bai.*

(469) *[Kilometro] asko. Eunian, osea, hillian, ba... milla kilometro eo hortxe eitxe`itxut, ero pasa.*

(470) *Lau litro inguru eroste genduan.*

(471) *Bilddotxak daukaz lau kilo pasau.*

(472) *Eta bentania hola pixkat zabalik baldin badaukak, dana entzuten dok.*

(473) *Zatixa haundixaua dok hire etxia nerian aldian.*

(474) *Dakitten apurra soltauta nao ni umiakñ.*

(475) *Hamen dana iuale samar eitten dok.*

(476) *Zihero diferentia dok gaurko euskera.*

Horiez gain, konparazio-graduak adierazten dituzten atzizkiak ditugu: -AGO (-ao, -au), -EN eta -EGI (-e(g)i).

-AGO > -A(G)O > -AO > -AU (*zu baiño altuaua*)

-EN (*danetan altuena*)

-EGI (-E(G)I) (*azkarregixa neretzat*)

2.6. HITZ ERATORRIAK: ERATORPEN-MORFEMAK

2.6.1. ATZIZKIAK

Elgoibarren gehien erabiltzen diren eratorpen-atzizkiak eta haiekin osatutako hitz eratorri batzuk bildu ditut azpiatal honetan. Mugagabe eman ditut haien adibideak, eta berariaz egin dut adibide gehiago edo gutxiago jasotzea: atzizki bakoitzaren erabilera-maiztasuna erakutsi nahi izan dut horrekin.

Sortzen duten hitzaren kategoria gramatikalaren arabera sailkatu ditut atzizkiak. Lehenbizi, izenak eta izenondoak sortzeko ahalmena duten atzizkiak²⁷; horien ostean, aditzak sortzen dituztenak eta, azkenik, adberbioak sortzeko erabiltzen direnak.

▪ IZEN- ETA IZENONDO-SORTZAILEAK

-ALDI

ALPERRALDI

EGONALDI

EKIÑALDI

IBILLALDI

JUNALDI

KASKETALDI

MAKALALDI

MERKEALDI

ZOROALDI

-AR/-TAR

ELGOIBARTAR

EIBARTAR

ERMUAR

DEBAR

MUTRIKUAR

PLAZENTZIAR²⁸

AZKOITTIAR

MARKIÑAR

PLAZATAR

²⁷ Elkarrekin eman ditut izenkiak osatzeko atzizkiak, hau da, izenak eta izenondoak osatzeko atzizkiak; erlazio berezia dago bi kategoria gramatikal hauen artean (erraz gertatzen dira izenondoak izen bilakatzea eta alderantzizko fenomenoak), eta horregatik eman ditut denak batera.

²⁸ *Plazentziar* ere entzun daiteke; adinekoen artean entzuten ez dena Euskaltzaindiak araututako *soraluzetar* hitza da.

MAALATAR	BASARRITTAR	KALETAR
KANPOTAR	GUTAR	MENDAROAR

(477) *Elgoibarren eitxen ba'ozu, ba "noventa por ciento" dakazu posibilidadia elgoibartar eitxia [Elgoibarko hizkera].*

(478) *Ibartxikitarra zan haura [baserri-izena da Ibartxiki].*

-KO atzikia aztertzean esan bezala, joera handia dago herritarren izenak atziki horren bitartez emateko; arruntak dira *Elgoibarkua, Mendarokua, Plaentxiakua...* gisako sintagmak²⁹. Hori horrela izanik ere, erabiltzen da -AR/-TAR atzikia, eta goiko adibideetan eman ditut Elgoibarko eta inguruetako herrietako herritarren izenak.

-ARI / -LARI

DENDARI	AIXKOLARI	ATZELARI
AURRELARI	BURRUKALARI	DANTZARI
EHIZTARI	KAZARI	MUSLARI
PEKATARI	PELOTARI	PROBALARI
TABERNARI	TRATULARI	...

-BERA

MINBERA	HOZPERA
---------	---------

-DADE³⁰

BAKARDADE	SOZIEDADE	AMISTADE
MENTALIDADE	TRINIDADE	...

-DI

PIÑUDI	PAGADI	SAGASTI
ARBOLADI	...	

-DUN I

BIZARDUN	DIRUDUN	ERDALDUN
----------	---------	----------

²⁹ Hona adibide bat: *Mendaron ere ez zauan pelukerixarik itxuria, da horrek Mendarokuak zian.*

Bestalde, *-ko seme* esapidea ere erabiltzen da. Hona adibide bat: *Gero, Frantzian zauken lengusu bat, Galbusoko alaban gizona, Mendaroko semia: bizi da oindio ere, Durangon.*

³⁰ Erabilera nahiko arrunta dute hitz hauek, eta horregatik erabaki dut atzizki hau zerrenda honetan sartzea, nahiz jakitun naizen ez direla hitz eratorri berezkoak, mailegu bidezkoak baizik.

-DUN 2

Ogibidea adierazteko erabiltzen da:

ESNEDUN *TXARRIDUN* *ARRAINDUN*

-DURA / -TURA

OHITTURA *TRISTURA* *ITXITURA*

-ERA

ESAERA *ENTZUERA* *ETORRERA*
IBILLERA *HIZKERA* *ZABALERA*
IXOERA *LUZERA* ...

-ERO/-ERA³¹

Gizonezkoen kasuan *-ERO* eta emakumezkoenean *-ERA* erabiltzen da, eta ogibidea adierazteko erabiltzen dira.

BIZKOTXERA *KOZIÑERA* *LABANDERA*
PELUKERA *KARNIZERO* *KAMIÑERO*
IGELTSERO *ABARKETERO* *MUSIKERO*
KARTERO *TXATARRERO* *HOJALATERO*
BARKILLERO ...

Forma mugatuan, *-ERO* → *-ERUA* eta *-ERA* → *-ERIA* egiten dute:

- *Felix ABARKETERUA*
- *Butron HOJALATERUA*
- *Kontxa LABANDERIA*
- *Teodora PELUKERIA*

-GABE³²

ARDURAGABE *LOTSAGABE* *EZKONGABE*
NAHIGABE ...

³¹ *-DADE* amaieraren atalean egin dudan ohar bera egin beharrean nago *-ERO/-ERA* amaiera honetan: ez dela atzizki eratorle berezkoa. Horretaz gain, esan behar da asko erabiltzen dela jendea izendatzeko; pertsonaren izenari bere (edo arbasoen) ogibidea eranstean zaio zenbaitetan: *Felix ABARKETERUA*, *Antonio TXATARRERUA*, *Eugenia BIZKOTXERIA*, *Madalena KOZIÑERIA*, *Teodora PELUKERIA*, *Santi BARKILLERUA*, *Erramon SILLERUA*...

³² Sintaxi-erabileran, *BE* forma erabiltzen da (*Ixildu be ibiltzen dok beti Inazio*), baina *-GABE* da atzizki eratorlearen forma: *Lotsarik be (pe) ibiltzen da / Lotsagabia da sierokua*.

-GARREN

LAUGARREN

ZENBATGARREN

-GARRI

Testu libreetan aurkitu ditudan adibide guztiak atzizkiaren balio aktiboa, eragilea dutenak dira:³³

BARREGARRI

BILDURGARRI

ERRUKARRI

HIGUINGARRI

IKARAGARRI

IZUGARRI

LOTSAGARRI

MAITTAGARRI

MINGARRI

NEGARGARRI

ONGARRI

PENAGARRI

POZGARRI

ZORAGARRI

...

-GILLE

LANGILLE

-GIÑ

Ez da ogibidea adierazteko bakarrik erabiltzen, ekintza bat adierazteko ere bai (inesiboan):

ETXEGIÑ

IKAZGIÑ

ATXURGIN

AIXKORAGIÑ

KAPELAGIÑ

...

(479) *Atxurgiñan ai dok andria.*

(480) *Habixa(g)iñan jharduk txorixa.*

(481) *Paretan kontra, txixa(g)iñan harrapau najuan Mikel.*³⁴

-GURA³⁵

BARREGURA

LOGURA

AZKURA

KAKAGURA

NEGARGURA

TXIXAGURA

-KA

EHUNDAKA

LAROGETAKA

...

³³ Ikus Euskaltzaindia (1994, 1047-1048 or.) lana.

³⁴ Berdintsu *kaka(g)iñan* ere.

³⁵ Atzizki-erabileran bakarrik; aditz gisa ez da erabiltzen *GURA IZAN* aditza Elgoibarren, *NAHI IZAN* baizik. Atzizki-erabileran ere, beharrian fisiologikoetarako, *-LARRI* da erabiliagoa.

-KADA / -TADA / -ADA

ADARKADA	AIZKORAKADA	ATXUMURKADA
ATZAPARKADA	EZKERKADA	HAGINKADA
ZAQTADA	ZARTADA	EUPADA
ATZERAKADA	AURRERAKADA	BEHERAKADA
PARRASTADA	PURRUSTADA	...

-KADA 2

KATILLUKADA ³⁶	MAHAIKADA	PITXARKADA
KAZUELAQADA	ESKUTADA	ASTOKADA
MOLTZOKADA	...	

(482) Harek ekarri jaittuan, karakolak kazuelakada demasa ekarri juan.

(483) Egunero jute zian txandan, zaldixakin jana erutera; hiru zaldikara.

(484) Oiñetakuak? Armaixokadak!

-KARA

GORRIXKARA	HORIXKARA ³⁷
------------	-------------------------

-KERA

JANZKERA	HIZKERA	ILLUNKERA
----------	---------	-----------

-KERIXA

ALPERKERIXA	ARLOTEKERIXA	ASTAKERIXA
EPELKERIXA	FALTSUKERIXA	GAIZTOKERIXA
HARROKERIXA	HAUNDIKERIXA	HUSKERIXA
IÑUZENTEKERIXA	LIZUNKERIXA	TONTOKERIXA
UMEKERIXA	GRANUJAKERIXA	DEMONIOKERIXA

-KETA / -ETA

BERRIKETA	BERBETA	HIZKETA
LAPURRETA	EROSKETA	GOLDAKETA
LAIXAKETA	APARIKETA	...

³⁶ Oso arrunta da hauetan, R/D alternantziaren ondorioz, *katillukara* gisakoak entzutea.

³⁷ Hauetan, aldaera palatalizatuak ere arruntak dira: *gorrixka(r)ia*, *horixka(r)ia*...

-KI³⁸

TRIPAKI	TXARRIKI	ARDIKI
---------	----------	--------

-KI 2

HAUNDIKI	ZAZPIKI	...
----------	---------	-----

-KIZUN

ETORKIZUN	IKUSKIZUN	EGINKIZUN
ELIZKIZUN	...	

-KO

BELARRONDOKO	BIHOTZEKO	EZPAIÑETAKO
BIZKARREKO	MATRAILLEKO	BOSTEKO

-KO 2

ESKEKO

-KO 3

ELGOIBARKO	KARKIZAOKO	MENDAROKO
------------	------------	-----------

Beharbada ezin daiteke berezko atzizki-eratorletzat jo, baina herritarren izenak osatzeko *-(T)AR* atzizkia bezainbat (edo gehiago) erabiltzen delako ekarri dut *-KO* hau atzizki-zerrenda honetara.

(485) *—Orduan elgoibartar-elgoibartarra zera. —Bai, Elgoibarkua ni. —Eta gurasuak nunguak zian? —Elgoibarkuak. Karkizaokua ama, ta aitta Irabane-takua. Basarrikuak.*

-KOR

LABAINKOR	USTELKOR
-----------	----------

-KOTE

LODIKOTE	ZABALKOTE	MOZKOTE
SENDOKOTE	ZARKOTE	GIZENKOTE

-LARRI

GOMITTOLARRI	KAKALARRI	TXIXALARRI
--------------	-----------	------------

³⁸ Euskaltzaindiaren LEF batzordearen lan batean, hitz eratorriak aztertzen dituen lan argitaragabe batean, *-KI objetibala* esaten zaio erabilera honetako atzizkiari.

-LE

SOIÑUJOLE ESKALE ...

-MEN / -PEN

AURRERAPEN	ETSIPEN	GOZAMEN
NABARMEN	SINISMEN	ZORAMEN

-ORDE

ETXEORDE

-OSTE

ETXEOSTE (ETXOSTE)

-PE

HANKAPE	ZANKAPE	ARKUPE
ATERPE	ETXEPE	ESKILLARAPE
GILTZAPIAN	AIUNTAMENTUPE	ELIZPE

-SA (-SIA, mugatuan)

Gaitzizenetan, ezizenetan erabiltzen da atzizki hau. Senarraren deiturari edo gaitzizenari *-SIA* erantsiz, emaztearena osatzen da:³⁹

MARKONESIA (← MARKONi ren emaztea)

BUTRONESIA (← BUTRONen emaztea)

-SO / -SA (generoaren arabera)

DROGOSO	ITXUROSO	POTROSO
TEMOSO	TEMOSIA	...

-TASUN

ABERASTASUN	ALKARTASUN	ARGITTASUN
BEROTASUN	BIZITTASUN	ERREZTASUN
ESTUASUN	GARBITTASUN	GORRITTASUN
HARROTASUN	ILLUNTASUN	LAGUNTASUN
LARRITTASUN	LODITTASUN	ZURITTASUN

³⁹ Baliabide honetaz gain, bada beste bat emazteak izendatzeko: emaztearen beraren deituraren ordez senarraren deitura (zenbaitetan ezagunagoa) ematea: *Bitxori KONDE, Ramona IRURETA, Mari Tere GABIOLA, Pakita CANALES, Martina RIVERO...*

-TE

SIKUTE	EDURTE	GOSETE
--------	--------	--------

-TEGI

LANTEGI	LIBURUTEGI	LORATEGI
ARDANDEGI	ARRANDEGI	...

-TERIXA

Asko erabiltzen da atzizki hau jende-talde mota bat adierazteko.

GAZTETERIXA	ZAHARTERIXA	KRIATERIXA
KASTELLANOTERIXA	...	

(486) *Tabernan jente asko eote zan gurian. Gazte jentia ta asko, ez zan oingo moduan, hainbeste taberna ta, dana gamteterixia.*

(487) *Oin daon kastellanoterixia, orduan ez zaon kastellanorikan, orduan ezer ez.*

(488) *Harek ekarri zitxuen euren kriedak, txoferra ta dana. Ta gu eote gihan beatzi lagun inguru ero kriateixia, harek jun arte.*

(489) *Hamengua ezta geldittuko, hamengo zabarteixia juten daneako, gatzia dator berritz.*

-TI

BAKARTI	EZKERTI	GIZURTI
LOTI	LOTSATI	NEGARTI

-TUN

JAKITTUN	JATUN	JOSTUN
----------	-------	--------

(490) *Jatuna demasa zuan gure aitta zana.*

-TSU

BAKETSU	BURUTSU	EGUZKITSU
EURITSU	HAIZETSU	HAZURTSU
INDARTSU	JAKINTSU	ZORIONTSU

-TSU 2

ORAINTSU	BERDINTSU	IGUALTSU
----------	-----------	----------

(491) *Bixak igualtsuak dittuk, orduan.*

-TURIXA

JAKITTURIXA

-TXO

Oso atzizki erabilia da Elgoibarren. Ugariak dira lekukotasunak:

GITXITXO	ASKOTXO	TXARTXO
GEHITXO	TRAGOTXO	ONDOTXO
GORATXUAGO	TERRENOTXO	DENPORALETXO
APARTETXO	BAJUTXO	...

Asko erabiltzen da txikigarria bakarrik ez den atzizki hau (-xe atzizkiaren baliokide ere izan daiteke). Horregatik jaso ditugu adibide hauek guztiak:

(492) *Bai, bai. Guk erosi, zenbat urtian eztoz eiñ, ez jenerorik. Beti etxeko jenerotxua hartu.*

(493) *Jai-egunetan? Ezer ez guk. Juntatzen gea hamentxe lau laguntxo zapatu atsaldian, eta zerian, jokuan eiñ.*

(494) *Bai, eta gero kaletarrak, oin gitxitxuau, oin kaleko ta zer guztia.*

(495) *Eta gu askotan, behera. Andria behian dao oiñ. Hamen eote gea, baiña illobatxua zaintzen dau.*

(496) *Gurasuak zian bata Santsongua ama, eta Gaartzakua, Salontzotik goratxuo, Gaartza basarrikua, aitta, zian.*

(497) *Haura, ño! "por parejas", aurrian laguntxo batekin, hiru oneneri jokatze ziuen harek!*

(498) *—Joño! Oiñ ere bapo bazkaltzen! Ondotxo bizi haiz, e!*

(499) *Udan hamen; aspaldixan ganorazko egualdirik eztabala eitzen, baiña sikutxuago, ero bero gehixo, ero zeoze eoten dala neguan baiño.*

(500) *Eta jute giñan San Mielera, da holantxe geure erromeixatxu hori einda, etxera gatozela, juntau giñan.*

(501) *Luzetxuak [32 hilabete soldadutzan].*

(502) *Denporaletxuan ibili zan makal antzian.*

(503) *Apartetxuo zauren zentrotik...*

(504) *Potolo bat dok, ni baiño bajutxuaua.*

Aditzondo eta izenonondoekin doanean graduatzaile-funtzioa betetzen du atzizki honek. Izenekin doanean, berriz, txikigarria dela esan daiteke.

-TZA

BASATZA	BEDARTZA	DIRUTZA
KAKATZA	LOKATZA	...

-TZA 2

BIZITZA	JAIOTZA	SOLDAUTZA
BOSEOTZA		

-TZAILLE/-TAILLE

AGINTZAILLE	ERNEGATZAILLE	ASMATZAILLE
GALTZAILLE	GARBITZAILLE	GASTATZAILLE
KARGA-JASOTZAILLE	SALTZAILLE	UME-ZAINTZAILLE
JUTAILLE	ERAKUSTAILLE	ERUTAILLE

(505) *Amorratua jutallia [ganadu-feriara], ta oiñ, gogua gastau.*

(506) *Ni erutalle haundixa naiz miñakin, e!*

(507) *Azkoitxiarra dake erakustallia [irakaslea].*

-TZAKO

Ahaidetasunei dagokienez, ‘ordekoa’ adierazteko erabiltzen da: *amatzakua* = *amaordea*.

AITTATZAKO	AMATZAKO	AIZTATZAKO
ANAITZAKO		

(508) *Kalian... ba... aitxa bigarrenan haura, ama bat, baiña aitxa bigarre-na. Ahiztatzakua, behintzat.*

-UNE (-UNA)

BELTZUNE	GORRIUNE	HUTSUNE
ISILLUNE	ZURIUNE	...

-XKA

MORDOXKA	HERRIXKA	...
----------	----------	-----

-ZAIÑ

UMEZAIÑ	ARDIZAIÑ	...
---------	----------	-----

-ZALE

ANDRAZALE	ARDOZALE	DIRUZALE
GONAZALE	GOZOZALE	MENDIGOIZALE
TABERNAZALE	IBILIZALE	...

(509) *Enaiz batere kalezalia ni.*

(510) *Enaiz izen ibili zalia sekula, ta esate zian: “Hire gizonak neretzako biha jonan, da neria, hiretzako”.*

-ZALE 2

Zaletasunarekin baino gehiago ogibidearekin du zerikusia **-ZALE** atzikiaren bigarren adiera honek. Ez da, nolahi ere, ogibidea adierazteko erabiltzen diren atzizkien artean emankorrena.

ARDOZALE (ardo-banatzaille)

KAMIOIZALE (kamioi-gidari)

-ZAR

ETXEZAR

TRIPAZAR

GIZONZAR

-ZAR 2

MUTILZAR

NESKAZAR

-ZKO

ANDRAZKO

GIZONEZKO

(511) *Horrek, andrazkuen azokia nola izate dan. Oin kaletarrak, ba, gizonezko dana han eote'a. Eske, gizonezko asko dao kalian, e!*

-ZIO⁴⁰

AMORRAZIO

BURU-KANTSAZIO

BEGITTANZIO

TXIKIZIO

ESTIMAZIO

...

-ZTA

FLAKOZTA

(512) *Plakozta bat zuan haren aitta.*

▪ ADITZ-SORTZAILEAK

Izenak eta izenondoak sortzeko erabiltzen diren atzizkiak jaso ondoren, gatozen aditzak sortzeko eskura ditugun atzizkiekin.

Hauek dira, mailegutaz gain, aditz berriak sortzeko eskura ditugun baliabideak.

⁴⁰ Eibarren, Deba arroaren erdialdean eta Debagoienean erabiltzen den **-ZIÑO** aldaera ez da erabiltzen Elgoibarren, **-ZIO** baizik. Ikus, besteak beste, *Eibarko Euskara* (225 or.) eta *Bergara aldeko hiztegia* (*Begintaziño* sarrera, adibidez, 147 or.).

Bestalde, mailegu bidez hartutako hitz askoren amaiera ere bada **-ZIO** hau: *estazio, ba(r)-kazio, konparazio...* **-CIÓN** > **-ZIO**. Halakoetan, **-ZIÑO** egiten da goian aipatu esparruetan.

-TU

<i>ABERASTU</i>	<i>JABETU</i>	<i>GIZENDU</i>
<i>FLAKATU</i>	<i>BELZTU</i>	<i>BAZTARTU</i>
<i>ALKARTU</i>	<i>BIGUNDU</i>	<i>ZORATU</i>
<i>GOSETU</i>	...	

-RATU

<i>OHERATU</i>	<i>ETXERATU</i>	<i>AURRERATU</i>
<i>KONTURATU</i>	<i>SASOERATU</i>	<i>GOGORATU</i>
<i>ATZERATU</i>	<i>BEGIRATU</i>	...

▪ **ADBERBIO-SORTZAILEAK**

-(R)IK

<i>GELDIRIK</i>	<i>IXILIK</i>	<i>BIZIRIK</i>
<i>GAZTERIK</i>	...	

(513) *Ibartolakua gazte askorik jun tzan.*

-KA

<i>GAIZKI ESAKA</i>	<i>PIXKANAKA</i>	<i>EZINKA</i>
<i>SALTAKA</i>	<i>ANTXITXIKA</i>	<i>BANAKA</i>
<i>DIHARKA</i>	<i>ATZERUZKA</i>	<i>ZARATAKA</i>

-KI 2⁴¹

<i>EDARKI</i>	<i>GAIZKI</i>	<i>POLIKI</i>
<i>GALANKI</i>		

-MENTE

Ezaguna da Elgoibarren eta inguruetan erdarakadak ez direla gutxi. Horren lekuko, honako adibide hauek:⁴²

<i>SEGURAMENTE</i>	<i>TRANKILAMENTE</i>	<i>DIRE(K)TAMENTE</i>
<i>TONTAMENTE</i>	<i>UNIKAMENTE</i>	

⁴¹ Mendebalderago (Eibartik hasita) baino gehiago erabiltzen da Elgoibarren *-KI* atzizki hau; *-TO (-DO)* atzizkia baino gehiago. *-KI* modala esaten zaio aipatu dugun LEF batzordearen lanean.

⁴² Erabilera nahiko arrunta dute hitz hauek, eta horregatik erabaki dut atzizki hau zerrenda honetan sartzea, nahiz jakitun izan ez direla hitz eratorri berezkoak, mailegu bidezkoak baizik.

Esapide modura geratu da bide honetatik etorritako hitz bat, *-MENTIAN* aldaera duena:

TONTAMENTIAN

-RO 1

ASTERO

HILLERO

HAMABOSTERO

-RO 2

ASTIRO

BERRIRO

-TO

Ez da gehiegi erabiltzen, kasu gutxi batzuetan baizik ez:

ONDO

HOBETO

Ez dira erabiltzen, adibidez, *txarto* eta *ederto* hitzak.

2.6.2. AURRIZKIAK

DES-

Ez da aurrizki oso emankorra hitz mailegatuetatik kanpo:

DESAGERTU

DESBERDIN

DESEGIN(DU)

EZ-

EZEZAGUN

EZIKUSI (EGIN)

SASI-

SASIMEDIKU

SASIKOIPETSU EGUNA

SASILETRAU

2.6.3. ARTIZKIAK

-RA-

Aditz kausatiboak, faktitiboak osatzeko artizki zaharra dugu; dakigun bezala, ez da emankorra gaur egun:

ERAGIN

ERAKUTSI

ERUAN

2.7. HITZ ELKARTUAK

2.7.1. IZEN-SORTZAILEAK

- **Izen + izen:** *seme-alabak, andra-gizonak, atzera-aurreria, maixu-mais-trak, aitta-semiak, aittitta-amamak...*
- **Izen + izen:** menderakuntzazkoak: *artaburu, bizimodu, txakurkuma...*

2.7.2. IZENONDO-SORTZAILEAK

Personen deskribapenak egiteko, ugaria da izenondo elkartuen aukera. Horietako asko zentzu gutxiesgarrian erabiltzen dira. Hona hemen batzuk:

<i>begiurdin</i>	<i>illehori</i>	<i>illeluze</i>
<i>kaxkamotx</i>	<i>illegorri</i>	<i>amazulo</i>
<i>astopotro</i>	<i>txankamehe</i>	<i>titihaundi</i>
<i>begioker</i>	<i>lepamotz</i>	<i>lepaoker</i>
<i>lepamehe</i>	<i>buruargi</i>	<i>buruhaundi</i>
<i>hankamehe</i>	<i>hankamotz</i>	<i>hankaoker</i>
<i>hankazabal</i>	<i>hortzaundi</i>	<i>ipurtaundi</i>
<i>artaburu</i>	<i>potrozorri</i>	...

2.7.3. ADITZ-SORTZAILEAK

Aditz elkartu batzuk bildu ditut azpiatal honetan; hona aditz-perifraisi edo -lokuzio hauetako batzuk, bigarren osagaiaren arabera sailkatuak:

EBA(G)I: *Garo-ebaten, bedar-ebaten...*

EIÑ: *Lo eiñ, miñ eiñ, maittia-maittia eiñ, zintz eiñ, irrist eiñ, ja(r)amon eiñ, jolas eiñ, kale eiñ, txahala eiñ, botaka eiñ, hots eiñ...*

EMAN: *Miñ eman, egurra eman, galduan eman, haizia eman, jaboia eman, lanak eman, latia eman, bakia eman...*

EUKI: *Familixia euki, gibelak euki, goguan euki, entzueria euki, gorraizia euki, haizia euki, hartzekuak euki, jai euki, urak euki, ojo euki, (buruko) pitzatua euki, segurantzia euki, sakia euki, barruak euki, erretolikia euki...*

HARTU: *Lo hartu, deskantsua hartu, alkar hartu, begittan hartu, jipoia hartu, eretirua hartu, kolpia hartu, begittan hartu...*

IPINI: *Heguak ipini, bertsuak ipini, multia ipini, amama ipini...*

IZAN: *Ezagun izan, beltza izan, markia izan, don izan...*

JO: *Txalo jo, garixa jo (gari-jotzen), adarra jo, behia jo, txikitua jo, kontu jo, kukuak jo...*

2.7.3. HITZ-ELKARTUETAKO BIGARREN OSAGAI OHIKO BATZUK

Hitz elkartuak osatzeko gaitasun berezia duten hitz batzuk aipatuko ditut, bukatzeko. Maiztasun altua dute hitz-elkartuetan agertzeko, eta horregatik jaso ditut hemen.

-ALDIXA: Denbora-tarte bat adierazteko erabiltzen da: *miñaldixak, eonaldixak, lagaaldixak, ekiñaldixak, ekittaldixak, junaldixa, janaldixa...*

Adibideak: *Hamendik Elgoibarrea ta, (...) ekitxaldixa eitxen dala. / Nik kalian eitte nittuan eonaldixak junda. / Oiñ, bigarren junaldixan, ba, gu Bur-gosen eon giñan.*

-ANTZA: Usain txarra adierazteko: *kaka-antza, txixa-antza...*

-ASUNTUA: Gaia edota ogibidea adierazteko erabiltzen da:

Adibideak: *Nik eletrizidade-asuntuan. / Nik eskupeta-asuntuan [lan egiten nuen] da honek berritz plantxak eta... / Artesania-asuntuak eta, holako gauzak ikustea [joaten ginen azoka batera]. / Ta lanian ai zan muniziuia eitten, muni-zio-asuntua eitten.*

-BARRENA: Lursailen baten edo beste zerbaiten beheko alde adierazten du: *zelai-barrena, praka-barrena, soro-barrena, Debarrena...*

-BEDARRA: Belar-izen askotan erabiltzen da: *pasmo-bedarra, berbena-bedarra, benda-bedarra, sube-bedarra, Lekeittio bedarra...*

-DENPORIA: Garaia, sasoa adierazteko erabiltzen da: *gerra-denpora, gazte-denpora, zahar-denpora, txiki-denpora...*

Adibideak: *Nik gerra denporan bi urte nakazen, ei nakazen. / Bai, holaxe ibiltten giñuazen gure txiki denporan.*

-**GAUZIA**: Produktuak adierazteko erabiltzen da normalean: *ortu-gauzia, esne-gauzia...*

Adibideak: *Esne-gauzia ta bai gehixao guk, esne-gauzia dianak gehixao ostian baiño. / Kaletikan ekartzen baldin badezu jornala, seguru-seguru dakazu basarrixan bizimodua, ataratzen dozu ortu-gauzia, haragixa etxian ateratzen da, zera ere bai, arrautzia...*

-**GUENA**: Lursailen baten edo bailara baten goiko aldea adierazten du: *zelai-guena, soro-guena, Debaguena...*

-**HOTSA**: Zerbaitek egiten duen zarata adierazteko erabiltzen da: *hanka-hotsa, egur-hotsa, perra-hotsa...*

Adibideak: *Haura zan hanka-hotsa! / Aguazilla ikusi zabenian, haura zuan perra-hotsa atara zabena! / Haura zan egur-hotsa atara zabana!*

-**JANA**: Otorduetan, jaki nagusiak ematen duen hitza: *baba-jana, bildots-jana, karakol-jana...*

Adibideak: *Kaakol jan bat in bia juau Salontzon noizpaitten. / Aittolazarren eitten dira baba-jan edarrak.*

-**JENDIA**: Jende-taldeak adierazteko erabiltzen da⁴³: *gazte-jendia, basarritar-jendia, kaletar-jendia...*

Adibideak: *Lehen, jendia goixan egoten zan, goiko plaza aldian dana. Oiñ, en kanbio, Maala aldian, gazte jendia.*

-**LANA**: Lan motak adierazteko erabiltzen da: *heldu-lana, sega-lana, bedar-lana, auzolana, eskulana...*

Adibideak: *Heldu-lana esate jauen, ta geo ipini jauen "El dulce meneo" ize-na heldu-lanai. / Ostian sega-lana len gustatze zakun. / Gaur makiñak eitten debe bedar-lana ere. / Danian, lurretan ere bai. Danian len, auzolana / Pixkat eskulanian eta pixkat mañoso dana [denarentzat], gaur egunian lana badao.*

-**LEGIA**: 'Zerbaitekikoak egin' adieran erabiltzen da; adibidez, lehenbikoan, 'bazkariarekikoak egin' adierazten du, hau da, bazkaldutzat ematen dugula geure burua, gehiago edo gutxiago jan: *Bazkari-legia, afari-legia, saniau-legia...*

⁴³ Ikus, izenak osatzeko atzizkien artean, -*TERIXA* atzizkia, antzeko eginkizuna duena.

Adibideak: Afari legia egin juagu soziedadian. / Bai, da... saniau legia einda bialdu juek etxera, ta... egun da erdi barruan, han tzan estu.

-**PLANTIA**: Itxurak adierazteko erabiltzen da: tonto-plantak (eiñ), negar-plantak (eiñ), gizajo-plantak...

Adibideak: Negar plantak ein jittuk umiak! / Tonto plantak ein dittut, diximulatzeke.

-**SAILLA**: Terreno bati dagokion zatiak adierazteko erabiltzen da: mendi-saillak, lur-saillak, bide-sailla...

-**USAIÑA**: Erabilera gutxiesgarria du: txorousaiñ, tontousaiñ, txorimalousaiñ...

3. ADITZAREN MORFOLOGIA

Aditzaren arloak berebiziko garrantzia izan du orain arteko euskal dialektologian. Bonaparteren sailkapenetik hasi, Yrizarrekin jarraitu, eta gaur egunerainoko dialektologian, giltzarria izan da euskalkien eta azpieuskalkien arteko bereizketak egiteko.

Horren jakitun izanik, gaur egungo adineko elgoibartarren aditz-sistemaren ahalik eta informazio gehien ematen ahalegindu naiz.

Hasieran, ohar orokor batzuk ekarri ditut Elgoibarko aditz-sistemako morfemez eta aditz jokatuaren zenbait ezaugarritz (kapitulua amaieran emango ditudan tauletatik atera eta orokortu daitezkeen ezaugarriak dira, handik estrapolatuak: adizetako erroak zein diren eta zer forma hartzen duten, pertsona eta denborari dagozkion morfemak zein diren, eta abar), bai eta aditz jokatuagabeei buruzko ohar batzuk ere: aditz nagusiek edo jokatuagabeei hartzen dituzten formak (partizipioak, aditz-izenak), aditz batzuen erabilera bereziak, eta abar.

Kapitulua amaieran, esan bezala, tauletan bilduko ditut elgoibartarren aditz-forma ohikoenak, aditz laguntzailearenak eta aditz trinkoenak; aditz-paradigma bakoitzaren ostean (DA, ZAI0, DU, DIO paradigmaren ostean), dagokion paradigmatik formei buruzko ohar argigarri batzuk eta haien erabilera-adibide batzuk tartekatuta ditut, tauletakoa hobeto interpretatzeko eta aditzak beren testuinguruan ikusarazteko asmoarekin.

Has gaitezen, bada, tratamenduei buruzko ohar orokor batzuk eginez; horren ondoren ekingo diogu aditz-formak aztertzeari.

3.1. TRATAMENDUEI BURUZKO OHAR BATZUK

Gaur egun, bi dira Elgoibarren bizirik dauden tratamenduak: **neutroa** eta **alokutiboa**.

Berorikako tratamendua erabat indargalduta dagoela esan behar da. Gairai batean bai, abadearengana zuzentzeko erabiltzen zen batez ere, bai eta gu-raso eta adineko hiztunengana zuzentzeko ere, baina, esan bezala, ez da gaur egun erabiltzen.

Alokutiboari dagokionez, Euskaltzaindiak hiru baldintza edo debeku gramatikalki aipatzen ditu adizki alokutiboaren erabilerarako; ikus dezagun baldintza horiek Elgoibarko jardunean betetzen diren ala ez:

1. Oro har, betetzen da **lehenbiziko ezaugarria**: alegia, perpaus nagusietako adizkietan erabiltzen dira aditzaren forma alokutiboak, eta ez menderatuak dauden adizkietan. Salbuespentxo batzuk aurkitu ditudala esan behar, hala ere.

Berez, jatorriz, menderakuntzari ez dagokion perpaus mota batean, Euskaltzaindiak nolabaiteko mendekotzat jotzen duen batean, aurkitu ditzakegu forma alokutiboak: *ETA* enklitikoa duten kausazko perpausetan. Hona adibide bat:

(515) *Jun hari Markiñara edo, Markiña Etxeberrira edo, Bizkaira, ze diferentzia dauan Elgoibartik hara, muga daok eta!*

Perpaus mendekoen beste mota batean ere aurkitu dugu alokutiboko formaren bat, baldintzazkoetan; hala ere, esan behar da ez dela aukera erabiliena:

(516) *Gizurra esatia libre. Gero, [egia] azaltzen badok, txarra.*

(517) *Jakin balejuek, etorriko zittuan.*

(518) *Jakin balejone, eingo jonen.*¹

Era honetako adibideren batzuk izan ezik, esan behar da Elgoibarko euskeran ez dagoela alokutiboaren erabilerari dagokionez Euskaltzaindiaren lehenbiziko debekuaren urratze gehiago². Normalean, adinekoek ondo

¹ Arruntak dira oso berri-emaile batek eman dizkidan pluraleko bi adizki baldintzazko hauek: (*hárek jakin*) *balejuek* eta *balejone*. Singularrekorik ezin izan dit eman, ordea.

² Non eta, betiere, ez garen ari adizki alokutiboa menderatzen ez duten hiztunen jardunaz. Jardun horretan (batez ere gazteagoen kasuan gertatzen da hori), arauaren desbideratze batzuk entzun daitezke:

**Nik esaten juatenian juango gaittuk.*

**Esan dixat etorriko dittukela.*

Normala da hori gertatzea, edozein kasutan ere, alokutiboko formen transmisioa ez baita behar bezala gertatu familia askotan, batez ere kalean. Gazte batzuk ahalegintzen dira alokutiboak aditz-formak erabiltzen, baina behar bezala menderatu ez, eta batzuetan huts egiten dute.

errespetatzen dute alokutiboaren erabilerarako debeku hau, baina tarteka gerta daiteke, eman ditugun salbuespen horietatik haratago, honako perpauis erlatibo alokutibodun hau bezalakoren batek edo bestek ihes egitea:

(519) *Iñoiz, ni zela egon nitzan hor Eibarren, Agiña(g)an eo morroi eon nitzuan lekuan?*

2. Bigarren debekuari edo murriztapenari dagokionez, ohartu gaitzke ez dela erabat betetzen Euskaltzaindiak dioena: alegia, galderetan ere erabiltzen dira adizki alokutiboak, Euskaltzaindiak dioenaren kontra. Puntu honetan ugariak dira esan dudaren lekukotasunak. Ikus ditzagun batzuk:

(520) *Bueno, zetatik hasi biha juau? Ze modutan hasi biha juau?*

(521) *Bueno, martxan daok hau ala ez?*

(522) *Baiña hónek, esan dittugun hónek, hartu jaittuk?*

(523) *Eta hau, konbersazio hau, entzun jok?*

(524) *Gero nere izena ta azalduko ittuk hemen?*

(525) *Zeiñ ete daok hor?*

(526) *Hala esan zaban, eztok?*

3. Bada hirugarren debeku bat ere: harridurazko esaldiena; halakoetan ere, ez omen dira adizki alokutiboak erabiltzen, Euskaltzaindiaren ustez; gu-rean, ordea, aurkitu ditugu kasu batzuk:

(527) —*Aurten ondo ibiliko nok lasterketa horretan. —Etxakixat, pa!*

(528) *Hi, hau eztok edozeiñ, gero, e!*

(529) *Hau dok txatxaria, hau!*

Ikusi dugu gramatikaren aldetik Euskaltzaindiak aipatzen dituen debekuak betetzen diren ala ez. Orain ikus dezagun **nork** erabiltzen dituen aditz-forma hauek eta **zer testuingurutan**.

Euskal Herri osokoak diruditen ezaugarri orokor batzuk betetzen dira Elgoibarren ere; alegia, seme-alabek ez diete hika egiten gurasoei, ezezagunei ere ez zaie hika egiten, ez nagusiari, apaizari eta medikuari ere (oso ezaguna ez bada behintzat). Gazteek zaharrei ez diete hika egiten. Nork bere buruari hika egiten dio normalean. Haur jaio berriari ez, baina 2-3 urtetik gorakoei bai. Animaliei ere hika egitea da normalena. Ezkongaien artean hika egin eta gero, tratamendu neutrorra pasatzea da ohikoena ezkontzen direnean.

Adinari, sexuari eta inguruneari dagokienez, bereizi beharra dago. Baserri giroan, adibidez, osasun ona dauka alokutiboak bai adinekoen bai gazteen artean ere, salbu beharbada neska gazteen artean. Kalean, berriz, ez du osasun

onik adin batetik beherakoen artean: 50-60 urtetik gorakoek bakarrik erabil-tzen dute arazorik gabe alokutiboa. Hortik beherako hiztun askorengana, oro har, ez da ondo transmititu aditz hauen ezagutza eta erabilera (familia askotan gaizki ikusia izan da seme-alabei hika jardutea; gainera, guraso asko ez dira elgoibartarrak, beste asko euskaldunak ere ez), eta ahalegin handiak egin behar izaten ditu hiztun gazteagoak forma hauek berreskuratzeko.³

Familia batetik bestera, berriz, alda daiteke egoera. Familia batzuetan se-meei bakarrik egin ohi zaie hika, eta ez alabei. Beste batzuetan, berriz, bi sexuetakoei, baina bigarren kasu hau lehena baino gutxiagotan gertatzen da.

▪ Emakumezkoen alokutibozko forma batzuk

Ez da arrunta emakumezkoen alokutiboko formak entzutea: euren artean egiten dute adineko emakumeek, baina ez da erraza, adibidez, elkarrizketa-tzaileari tratamendu horretan zuzentzea, ezta hura emakumezkoa izanda ere. Horregatik jaso nahi izan ditut hemen tratamendu horren adibide batzuk, lagunak diren bi berri-emaile emakumezkoren jardunetik atereak:⁴

Ikus ditzagun adibide batzuk, hori argitzeko:

(530) *Bai, ba, nerekin lo itxen jon, barren!*

(531) *Honek etxakiñeben! Hik bai! [alegia, elkarrizketa-tzaile gazteak ez da-kiela garai bateko bizimoduaren berri; bere lagunak, berriz, baietz].*

(532) *Labadora eukitzeik...! Iñok etxekonan orduan labadorarik!*

(533) —*Hara urten kanpora eta, kamiño baztarrian abarketa josten koadri-lla haundixa, abarketa josten. —Haura gogorra, haura gogorra don!*

(534) *Benantxio urtetze bazunan...! [alegia, kontuz ibili beharra zegoela Benantxiorekin!]*

(535) *Hi, baiña Krone ere etzunan salaua, e!*

(536) *Ba, ba, bixoi esate'izuet: "Zaku baten sartzeko gaonaz bixok! [alegia, berdintsu dabiltzala biak].*

(537) *Aaa! Amabirjiña ta santu danak hasarre daonaz nerekin honetzkerok!*

(538) —*Eta jinasia ona dala neuk ere sinisten dot. Da baitxa honetxek eixia ere, honetxek ere bai, holaxe. —Danak dixun onak, baiña sasoian! Guk etxekonau sasoirik! —Eitxe jixunat nik pasilluan! —Eitxe itxun? —Baai!*

(539) —*Jakiña! Gure mahaixetan, kastellanak! —Han zixunan beti eta!*

³ Goraxeago esan bezala, hiztun mota honi gertatzen zaio lehen aipatu dugun arau-urra-tzea; alegia, saiatu bai, baina erabilera-arauak garbi ez dituenek, honelako perpausak osatzen ditu: **Nik esaten juatenian juango gaittuk.*

⁴ Joxepa Aranberri eta Agustina Arrizabalaga dira bi berri-emaile hauek.

(540) *Guk etxakonau arreglorik!*

(541) *Gure amak etxakiñan erderaz!*

(542) *Arpeixa ipini'xon behintzat, berba ei'xon behintzat gizajuari, beixu'ixon behintzat. [agintera].*

Adibide horietan, ohargarria iruditu zait batez ere testuinguru adierazgarrietan erabiltzen dituztela alokutibozko adizkiak, modu adierazgarrian zerbait esateko, edo harridura adierazteko, galdera-erantzunetan edo aginteran. Jardun neutroagoan, adizki neutroetara jotzen dute gehiago.

3.2. ADITZ-FORMAK AZTERTZEN

3.2.1. ADITZ-FORMA JOKATUGABEAK

3.2.1.1. ADITZ-PARTIZIPIOAK

Elgoibarko euskaran, honako hauek ditugu aditz-partizipioen amaiera nagusiak, aditz jokatueta aspektu burutua adierazten dutenak:

- a) *-TU/-DU*
-ATU
-AU
-I(D)U

- b) *-I*
- c) *-N*

Hona, atalez atal, sail bakoitzeko adibide batzuk:

a) **-TU/-DU amaiera duten aditzak**

Euskal oinarria duten hitzei eransten zaie amaiera hau, euskaraz orokorra den hau:

AMAITTU, BATU, BAZKALDU, BEITTU, BEROTU, GALDU, GARBITTU, GELDITTU, GIZENDU, LAGUNDU, LOTU, MOZTU, OHITTU, SALDU, SARTU, SORTU, ZABALDU, ZURITTU...

Horrela erabiltzen dira, *-TU* amaierarekin, Debarroko beste herri batzuetan *-ITTU* amaiera mendebalekoarekin erabiltzen diren aditz batzuk:

HOZTU, HUSTU, BELZTU (Elgoibar)
HOTZITTU (Eibar ingurua, Aramaio, Mutriku)

HUTSITTU (Oñati, Aramaio, Eibar ingurua, Mutriku)

BELTZITTU (Aramaio, Eibar ingurua)

-*TU* amaiera dutenen artean, bereizketa bat egin nahi dut, amaiera desberdinak aurkitu baititzakegu honen barnean, jatorriaren araberakoa, normalean. -*ATU*, -*AU* eta -*I(D)U* bereiziko ditugu hemen:

-*ATU* amaiera duten aditzak

Euskal jatorria duten aditzek eta antzina mailegatutako aditzek izan ohi dute amaiera hau. Hona adibide batzuk:

ALDATU, BARKATU, BUKATU, BURURATU, DESIATU, GARATU, GERATU, GOGORATU, GOZATU, HASARRATU, HURRERATU, MAILLATU, NEKATU, OBATU, OSATU, SASOERATU, SIKATU, TIRATU...

-*AU* amaiera duten aditzak

Gaztelaniatik mailegatutako -*AR* infinitiboa duten aditzen partizipioa ahoskatzen da honela, gaztelaniazko partizipioa -*ADO* egiten duten aditzetan. Hona adibide batzuk:

AKORDAU, ALLEAU, APARTAU, ARMUZAU, ARREGLAU, ARRI-MAU, ARRIKKAU, AZERTAU, DESKUIDAU, ENDREDAU, ENPLEAU, ERNEGAU, ERREPARAU, ESTIMAU, EZKUTAU, FIXAU, GASTAU, GOBERNAU, GUSTAU, JUNTAU, KANBIXAU, KANTSAU, KARGAU, KARRIAU, KATIAU, KEJAU, KONTESTAU, LUTXAU, MANEJAU, MERIXENDAU, MOLDAU, OKUPAU, ORIAU, PAGAU, PENTSAU, PORTAU, PREGUNTAU, SANIAU, SUERTAU, TAPAU, TOKAU, TOPAU...

Salbuespen gisa edo, badira euskal erroko aditzen kasu bakan batzuk ere amaiera hori dutenak:

AIXKIRAU, AMORRAU, AZTORAU, BILLAU, INGURAU, IZURRAU, MALLAU.

-*I(D)U* amaiera duten aditzak

Gaztelaniatik mailegatutako -*IR* eta -*ER* infinitiboa duten aditzen euskal partizipioa ahoskatzen da honela, gaztelaniaz partizipioa -*IDO* egiten duten aditzetan:

ABURRIDU, AMETI(D)U, ATENDIDU, ATREBI(D)U, DEFENDI(D)U, DESAPAREZI(D)U, DESPEDIDU, DISKUTI(D)U, ENTEN(D)IU, ENTRETENIU, ERRENDIU, ESISTI(D)U, ESKRIBI(D)U, HERIDU, JODIU,

KONSEGIDU, KORRIDU, KUBRIU, OKURRI(D)U, PARTI(D)U, PADEZIU, SEGI(D)U, SENTIU, SERBIDU, SUFRIDU...

Elgoibarko ahoskeran, arrunt samarra da atzizkiaren bokalarteko leherkaria (-D-) galtzea. Horregatik eman ditut batzuk parentesi artean (bietara ahoskatzen direlako) eta beste batzuk, batere bokalarteko kontsonante hori gabe (hala iruditzen zaidalako ahoskatzen direla). Edozein kasutan, mende-balderago, Eibartik bertatik hasita, ez da Elgoibarren bezain erraz galtzen bokalarteko kontsonante hori.

b) -I amaiera duten aditzak

Euskal erroa duten aditzak dira. Hona batzuk:

BIZI, ERABILI, EKARRI, ERAKUTSI, EUKI, EUTSI, GALERAZI, IGARRI, HASI, HAZI, IBILI, IKUSI, IPINI, IRABAZI, IRIKI, JARRI, JAURTI, JOSI...

Badira aditz hauen artean amaiera berezia duten batzuk, orokorra den -KI amaieraren aldean:

EBAGI, ERABAGI, IXIGI...

c) -N amaiera duten aditzak

Euskal erroa duten aditzak dira. Hona batzuk:

EIÑ, EMAN, ESAN, ERUAN, EDAN, ENTZUN, IRITZI, ITXAIÑ, JAKIÑ, JARDUN, JUAN, ERTEN...

Horietaz gain, badira hain ugariak ez diren beste partizipio-amaiera batzuk ere:

d) -A amaiera duten aditzak: *ATARA, BOTA, LAGA...*

e) -E amaiera duten aditzak: *ERRE, BETE, GORDE...*

f) -O amaiera duten aditzak: *IXO, JASO, ITTO, JO...*

g) -L amaiera duten aditzak: *HILL.*

3.2.1.2. ADITZ-IZENAK

Aditz-izenaren formari dagokionez, bi amaiera mota ditugu Elgoibarko euskaran, aldaerak aldaera:

-TZEN

-TEN

Ez ditugu ezagutzen Debagoiengan hain emankorrek diren *-ETAN*, *-KETAN* atzizkiak (*amorraketan*, *deiketan*, *jarraiketan*...)⁵, ez eta mendebaldeko hizkera askotan ezagunak diren hauek ere: *-TUTEN* edo *-DUTEN* (*hartuten*, *aburriduten*...).

Hona zein litzatekeen, nire ustez, gurean erabiltzen ditugun bi atzizkien banaketa:

a) -TZEN amaiera hartzen duten aditzak:

▪ *-TU* amaiera duten aditz guztiak, *-ATU* eta *-AU* amaierak dituztenak barne: *amaitzen*, *batzen*, *bazkaltzen*, *beitzen*, *garbitzen*, *geratzen*, *gizentzen*...

-ATU amaiera duten aditz guztiak: *aldatzen*, *barkatzen*, *bururatzen*, *desiatzen*, *gozatzen*...

-AU amaiera duten guztiak: *akordatzen*, *alleatzen*, *armuzatzen*, *arrimatzten*, *deskuidatzen*, *estimatzten*, *juntatzen*, *kanbixatzen*...

-I(D)U amaiera duten guztiak: *aburritzen*, *atrebitzen*, *eskribitzen*, *sufritzen*...

▪ *-I* amaiera duten aditzak, salbu [txistukari + *-I*] dutenak: *ekartzten*⁶, *erabiltzen*, *eukitzen*, *ipintzen*, *ibiltzen*⁷, *eukitzen*...

▪ *-A*, *-E*, *-O* amaiera duten aditz guztiak: *lagatzen*, *etaratzen*, *erretzen*, *jotzen*...

▪ *-L* amaiera duten aditzak: *hiltzen*...⁸

b) -TEN amaiera hartzen duten aditzak:

-I amaiera duten aditz batzuk, [txistukari + *-I*] amaiera dutenak: *ikusten*, *hasten*, *hazten*, *erakusten*, *josten*, *galeratzen*...

⁵ Lexikalizatutako zenbait formatan bakarrik agertzen zaigu amaiera hori: *apariketan*, *burruketan*, *antxixiketan*... Baserriko zenbait langintzak ere badute amaiera hori: *goldaketa*, *jorraketa*, *atxurketa*...

⁶ Ohikoena *-TZEN* atzizkia izan arren, jaso ditut *-TEN* aldaera duten ahoskera batzuk ere: *ekarten* (4) eta *etorten* (14).

⁷ Aditz honetan eta *-L* amaiera duen *hill* aditzean, badira *-TTEN* aldaera duten lekukotasun batzuk, gutxienez hiru hiztunenak: *ibiltten*, *hiltten*. Beste hiztun batek ahoskera bera egin du *jakin* aditzarekin: *jakitten*, eta beste batek ere bai *ipini* aditzean: *ipintten*.

⁸ Ikus goraxeago *ibili* aditzari buruz egindako oharra.

-*N* amaiera duten aditzak: *esaten, ematen, juaten...*

Bigarren multzo honetan, salbuespen ugari dagoela esan behar da (horregatik jarri ditut zerrendan -*TEN* amaiera garbia duten adibideak bakarrik). Arruntak dira gure artean -*N* amaiera duten aditz horietako batzuetan -*TZEN* amaiera duten aditz-izenak:

<i>ertetzen</i>	<i>jakitzen</i>	<i>entzutzen</i>
<i>jardutzen</i>	...	

Maiztasunak desberdinak dira, aditzaren arabera: lehenbiziko kasuan, *ertetzen* aldaera bakarrik jaso dut nire corpusean (ez dut *erteten* ahoskerarik aurkitu); bigarrenean, bada *jakiten*-en bat edo beste, baina nagusi da -*TZEN* aldaera duen *jakitzen*; hirugarrenean, bietariko ahoskerak jaso ditut, baina -*TEN* duena da nagusi (*entzuten*); *jardun* aditzari dagokionez, agerraldi gutxi batzuk besterik ez dira guztira, baina, nolana ere, bietarikoak hemen ere (*jardutzen* eta *jarduten*).

3.2.1.2.1. Aditz-izena duten egitura berezi batzuk

-*TZIA EIN*

Hitz egiten ari garen momentuan bertan jazo diren gertaerarako erabiltzen da.

(543) *Ointxe etortzia ein juat* (= *oraintxe bertan etorri naiz*)

-*TZIA EUKI*

Desioak edo zeharkako aginduak adierazteko erabiltzen da egitura hau:

(544) *Jutia dauka pikutara, neregatik!*

(545) *Hartzia dauka palia!*

(546) *Ez daukala dirurik? Hastia dauka lanian!*

-*TZERIK EZ EUKI / EZ EGON*

Debekuak edo ezintasunak adierazteko erabiltzen da:

(547) *Len ez zauan gaur egunian bezela ibiltzerik!*

(548) *Taberna horretan ez dao erretzerik.*

(549) *Aurten etxaukat oporretara juaterik.*

-TZERA JUAN

Zerbait egiteko asmoa adierazteko erabiltzen da:

(550) *Ikastera nixe, unibersidadera.*

-TZEKO EGON

Gertaera edo ekintzaren bat egin gabe dagoela adierazteko erabiltzen da:

(551) *Allegatzeko daure garai onak.*

-TZEKUA IZAN

Zerbait egiteko asmoa adierazteko erabiltzen da.

(552) *Oporretara jutekua nitzan, baiña gaixotu, eta etxian geratu biharra izan dot.*

-TZIA NAHI IZAN: *Ameriketara [ni] juatia nahi dot.*

Elgoibarren bada ezaugarri berezi bat **NAHI IZAN** aditzari dagokionez: aditz horren osagarria aditz bat denean, aditz-partizipioaren formaz gain, aditz-izenarena ere har dezake, aditz nagusiaren eta aditz mendekoaren subjektua bera izanik ere.

Arruntak dira honako hauek bezalako adibideak:

(553) *Hónetan, ya komandantiak ere bere obligaziuak zittuan, eta Bilbora juatia nahi zaban, eta holaxe, ba, illunduta, abantau giñan hortikan, Aulestiatikan Bilbora, Gernikatikan pasauaz.*

(554) (...) *eta, gasolinerua handikan urruti zauan, nik gasolinia nundik hartuko zaban nahi naban jakitzia.*

(555) *Gero etorri jatzun bateron bat balnearixotik zu kontratatzer, aber nahi zendun juatia.*

(556) *Eta, etxetikan ikusi naban bat automobilla eruatia nahi zabala (or duan erretza zan automobilla eruatia).*

(557) *Fubola ikustia nahi izeten dau, ta gu sukaldian lagatze gaitxu.*

3.2.2. ADITZ-FORMA JOKATUAK: ERROAK ETA MORFEMAK

3.2.2.1. PLURALGILEAK ELGOIBARKO HIZKERAN

▪ **-Z da pluralgile nagusia**

Kontu honetan, mendebaleko hizkerekin bat dator Elgoibarkoa, oro har. Nagusiki, **-Z** mendebaleko pluralgilea erabiltzen da, baina ez da mendebalean

bezainbeste erabiltzen, beste batzuk ere erabiltzen baitira: *-IT-* (*zittuan, ditut...*) eta *-TZA* (*zabiltza...*). Bitasuna ere agertzen da zenbait kasutan, pluralgile desberdinak erabili direlako: *DITTUGU/DOGUZ, GAUDE/GAOZ...*

Baina esan beharra dago *-Z* dela Elgoibarren erabiltzen den pluralgile nagusia, alde handiz, gainera. Horretaz jabetzeko, kapituluaren amaieran bildu ditudan aditz-taulak ikusi besterik ez dago.

▪ Pluralgileen erredundantzia

Zenbait aditz-formatan, aukeran daudenen artean bat bakarra aukeratu beharrean, bi pluralgile erabiltzen dira. Nahiko arruntak dira elgoibartar adinekoen ahotan era horretako adizki erredundanteak.

Hona adibide ugarietako batzuk:

(558) (...) eta gero jaitxi Aulestiara, eta, han abioiak zabiltzazen orduan, bonbardeatzen Gernika, arratsalde haretan.

(559) Lagunak ere etorri zittuazen bixitara.

(560) Ez, hau zan merkantia. Baiña belerua zan, eta ipiñi ziuzezen eztakitt Afrikatikan edo nundikan ekarri zittuezen holako hau baiño haundixaua.

(561) Da han ibiltze giñuazen.

(562) Patatia zu(r)itzera, da bakillaua txikitzera-ta jute giñuazen.

(563) Gero, Markiñan gaudezela, gau haretan bertan, alarma faltso bat sortu zan.

(564) Berandu etorri diraz.

(565) Egunero juate giñazen Plazentziara bi-hiru aldiz bai.

(566) Soldau edo, gudari edo zaudezenak astuekin etortze zian Markiñara, guk zakagun almazenera.

(567) Nola ya bazakigun Azkoitixan alleauta zaudezela reketiak eta, [bidea txikitu zuten lebergailu batekin] harek pasau ez zeitxian ero.

(568) Han Kalamua barrenian zaudezenak zazpi hillabetian ero han geldieon tzian.

▪ Pluralgilea falta duten formak: komunztadura eza.

Berez pluralgilea behar luketen formak ere agertzen dira elgoibartarren jardunean, numero-komunztadurarik gabeak, alegia; alabaina, esan beharra dago Debagoiena aldean dela askoz markatuagoa joera hau; han ia sistematikoki egiten dute numero-komunztadurarik gabeko erabilera⁹; Mutrikun ere,

⁹ Ikus Ormaetxea (2006, 299): "Pluralgilea ia inoiz ez da erabiltzen".

gaur egungo erabilera pluralgilerik gabeko adizkiak dira nagusi, galtzen ari dira pluralgilea dutenak. Gurean, berriz, ikusi besterik ez dago kapituluaren amaierako aditz-taulak konturatzeko pluralgilearen “araua” nahiko ondo gordetzen dela.

Hona, edozein kasutan ere, numero-komunztadurarik ez duten adibide batzuk:

(569) *Gero, kolejiora; eta han eon nitzuan, ba, hoixe, gerria etorri arte. San Juan inguruan hartu gendun oporrak, eta... uuuf!... Juliuan hasi zuan gerra hori.*

(570) *Etxeberrin, anaixan etxian bi hillebete ein dot.*

(571) *Eta holakotxe gauzak asko ein dou.*

3.2.2.2. ANALOGIAREN ERAGINA MORFEMETAN

Analogiaren eraginez seguru asko, NOR-NORK sailean, lehenaldian, bigarren pertsona pluraleko markak lekuz aldatzeko joera dago. Hasieran jarri beharrean, amaieran kokatzen dira: ZAUkazun, ZAKIZun, ZARABI-Zun...

(572) *Zuk topau ziazun laguna, aburriduta ez eoteko.*

(573) *Eta leleno pisuan zaukagun, hango sala baten, su bajua.¹⁰*

(574) —Zeuk zabizun autua? —Neuk naabilen autua.

(575) *Nola ya bazakigun Azkoitixan alleauta zaudezela reketiak eta, [bidea txikitu zuten lehergailu batekin] harek pasau ez zeitxian ero.*

Forma hauetan, orainaldiko kasuan kasuko formaren kalkoa egiten da iraganerako ere; alegia, orainaldiko formaren egitura bera gordez, baina iragane-ko morfemak erantsiz:

– *Daukazu* → z- (iragana) *aukazu* + -n (iragana) = *zaukazun*

– *Da(ra)bizu* → z- (iragana) *arabizu* + -n (iragana) = *za(ra)bizun* (> *zabizun*)

Zenbaitetan, bi muturren bitarteko zera gertatzen da; alegia, pertsonen dagokien marka hasieran (arauak agindu bezala) edo bukaeran (analogiak eragindakoa) erabili beharrean, bietan erabiltzea:

(576) *Baiña errez laga giñon, ze zatorren ez genkigun da.*

¹⁰ Forma hau esan duen berri-emaile berak erabili du *geunkan* forma ere, geroxeago. Bi aukeren arteko dialektika horretan aurkitu daiteke sarri hitzun bera: aruari dagokion morfema-hurrenkera aldatzen ari den seinale.

3.2.2.3. PARADIGMEN ARTEKO NAHASTEAK

Aditz-paradigmen nahasketak arruntak dira Elgoibarren zenbait kasutan; ez dira hiztun zabarren adibideak, baizik nahiko sarri gertatzen den fenomeno bat. Batez ere kaleko hiztunen desbideratzeak direla esango nuke; hala uste dut nik, eta halaxe dio kaleko berri-emaile batek ere:

“Oñ, gauza batzuk basarritxarrak hobeto esate zeben gu(k) paiño, ta bai. Zeatikan? Nik garbi esango izut: ni bizi guztian saiatu naiz, esate baterako, “ikusi nixan”; nik hori eztot esan, baiña normalian asko esaten da. Da hori basarritxarrak hobeto zaindu dabe gu(k) paiño: “ikusi hinduan”. Bai, joskera hori, joskeratik beixuta, e! Baiña ostian, nik eztiot igarri, e! [alegia, ez du igarri desberdintasunik baserriko eta kaleko euskararen artean].”¹¹

Adibide nahikotxo jaso ditut, fenomeno honen ugaritasunaz ohartarazteko; gehienak DU eta DIO aditzaren artekoak dira, eta objektua pertsona bat izaten dute:

- NOR (DA aditza) → NOR-NORK (DU aditza)

(577) *Pedro, etorri deixela nerekin, jungo gera ta.*

(578) *Abioiak, ba, jute ittuk, pilotua kantsau ezteixan, hankak libre dittuela, ez automobilian balitz bezela.*

- NOR-NORK (DU aditza) → NOR-NORI-NORK (DIO aditza)

(579) *Eta bestela bialtzen zixen zapata zikiñekin formauta igual, eta garbitzera atzera kuartelera bialtze zixen.*

(580) *Unzeta, ferreterixia sortu zaban gizona hantxe dendan eote zan, eta hara bialtze zian aittak, tallarrerako ero zeozer, piezaren bat ero, bihar zanian.*

(581) *Gero, Lekeittiotikan poliki-poliki desegindu giñan. Neri ere beste leku baterako ero bialdu zien, eta, en fin...*

(582) *Eon nitzan etxe baten, gaua pasau naban; eztakitx zeñek eruan zian hara.*

(583) *Ez zeben billatzen inor, itxuria, eta nerekin akordau zian, neri ikuste zien noizik behinetan automobilian ibiltzen nitzana.*

(584) *Bai, eztulakin da dabill, da zeoze dauka, ta eruan giñon lenguan, da “gaur eramateko”.*

(585) *Ta holaxe, deteniru ein tziuen.*

¹¹ Bittor Arrieta berri-emailearen hitzak dira.

(586) Goenkalek *eztitx eitxen, pixkaten eote naiz, baiña eztitx itxen... eztitx betetzen.*

(587) *Da han ibili nitzuan ni hiru bat urtian. Sei urte in nitxuanian, kolejixora erun jaen.*

(588) *Da gero, handikan bialdu zien... tallar batea, sartu zien aitzak eta amak.*¹²

(589) *Da Bergaran destinatzen eon giñan hiru eunian ero, ta geo ne(r)i Bitorixaa bialdu zien.*

(590) *Da gero, ba, ero eguardirako zera ipiñi, eo ganauari, oillueri atendidu, oillua ero, konejo ero, horrek gobernau ero... holako gauzak.*

(591) *Gaiñera, andriak [senarra], hildda, Elgoibarrera ekarri zion enterratzera! Pentsa'izu!*

(592) *Eztakiu, ba, zela izen zan. Luis beti ibiltze zan hari manejatzen, da... [hura manejatzen].*

3.2.2.4. ADITZ-ERROAK ETA BESTELAKO MORFEMAK

▪ NOR sailean, -A- eta -E- erroak erabiltzen dira

Hirugarren pertsonan, -A- erabiltzen da (*da, zan, zalako, zaneko...*).

Lehen eta bigarren pertsona pluraletan, berriz, bi erroak erabiltzen dira: *gara (gaa)* eta *gera (gea)*.

Hiztun oso zaharrek¹³, bestalde, gaur egun singularrerako erabiltzen den forma darabilte pluraleko bigarren pertsonari dagokienean ere:

(593) *Non bizi zara?* (bikote bati galdetuz)

(594) *Zuek kotxian etorri zara?* (bikote bati galdetuz)

(595) *Hara juango zara zuek.*

▪ NOR-NORK saileko aditzetan, -O- eta -E- erabiltzen dira orainaldian

DOT, DOGU, DOZU erabiltzen da ia Elgoibar osoan; Elgoibarko auzo ekialdekoenean, Altzolan, *DET, DEGU* eta *DEZU* formak erabiltzen dira.

¹² Goian aipatu da batez ere kalekoen joera dela paradigmaren nahasketa hau, baina adibide hau baserriko hiztun baten ahotik jasoa dela esan behar da.

¹³ Hona ekarri ditudan galdera hauek egin zituen berri-emaileak, Juliana Letek, 91 urte zituen elkarrizketa grabatu genuenean.

Eta Altzolan hasi, eta Mendaro, Mutriku eta Deban jarraituz, *-E-*dun adizkiak erabiltzen dira.

Elgoibarren dago, beraz, bi aldaeren arteko banaketa-lerroa, Elgoibar bitan banatzen duen isoglosa.

DOT, DOGU, DOZU, DOZUE... (Elgoibarko auzo guztiak, Altzola izan ezik)

DET, DEGU, DEZU, DEZUE... (Altzola auzoa, Mendaro, Mutriku eta Deba)

▪ **NOR-NORK saileko aditzetan, *-AU-* eta batez ere *-EU-* erroak erabiltzen dira lehen eta hirugarren pertsonetan, orainaldian eta baldintza-ondorioko aditz-formetan**

DAU eta *DEU* erabiltzen dira singularrean; lehenbizikoa gehixeago. Pluralekoan ere, berdintsu gertatzen da: diptongoko bokalerdia kontsonante bihurtutako formak erabiltzen dira hemen, *DABE* eta *DEBE*, eta hemen ere *DABE* erabiltzen da gehixeago adinekoen jardunean.¹⁴

-EU- duen forma da nagusi, berriz, baldintza-ondorioetan: *neuke, leuke, baleu, banau...* Hemen askoz gutxiago erabiltzen dira *-AU-* diptongoa duten formak: lehen pertsonako *nauke* eta *banau* batzuk agertzen dira, *-EU-* dutenak baino gutxiago, baina hirugarren pertsonan *-EU-* dutenak bakarrik bildu ahal izan ditut: *leuke, baleu*.

Iraganean, diptongoko bokalerdia kontsonante bihurtutako formak erabiltzen dira, eta hemen ere alternantzia dago: *naban, zaban* alde batetik, eta *neban* (gutxiago), *zeben* (pl.) beste aldetik.

▪ **NOR-NORI-NORK paradigmako erroa **-I-* da, eta ez *EUTSI***

Erdialdeko erroa erabiltzen da (*DIOT, DIO, NION...*), sistematikoki erabili ere, eta ez mendebaldeko (Eibarren eta Soraluzen hasita) erabiltzen dena, *EUTSI* erroa.

DIOT, DIO, NION (Elgoibarren eta handik ekialdera)

DETSAT, DETSA, NETSAN (Eibarren eta handik mendebaldeko)¹⁵

Eibarren bertan, *detsa, detsat* modukoak erabiltzen dira; Soraluzen, *dotxa, dotxat*; Bergaran, *dotsa, dotsat...*

¹⁴ Gazteagoen jardunean, *DEBE* ari da nagusitzen.

¹⁵ Aldaerak aldaera, *EUTSI* erroa duten adizkiak dira mendebaleko horiek.

Alegia, Elgoibartik mendebaldera eta hegoaldera (Debarroan gora), *EU-TSI* aditz-erroa duten formak erabiltzen dira. Elgoibar eta Soraluze/Eibar artean dago, beraz, aditz-erro horren erabilera eta *-I- erroa duenarena bereizten duen isoglosa.

▪ **EGIN aditza zenbait adizkiren erro**

Mendebalde guztian bezala, *EGIN* erroa erabiltzen da Elgoibarren ere ahalerako, subjuntiboko eta aginterako adizkietan; salbuespenik gabe erabiltzen da, kasuan kasuko bilakabide fonetikoekin:

NEIKE (← *NEGIKE*)

LEIKE (← *LEIKE*)

DEIDAN (← *DEGIDAN*)

DEIXODAN (← *DEGIODAN*)

ESA'IXOK (← *ESAN EGIOK*)

Mendaron eta Mutrikun ere *EGIN* erroa erabiltzen da; bai eta Deban ere, baina hemen **EZAN* erroa duten formekin lehian.

▪ **JUAN eta ERUAN aditzak**

Elgoibarren ez da inguruko hizkera batzuetan bezain ohikoa aditz hauetan -I- bokala tartekatzea: *nua, dua, guaz, darua, jaruan...* formak arruntak dira; Eibarren, berriz, *noia, doia, goiaz, daroia, jarioan...*

Horiekin batera, ordea, badira Deba erdian eta Debagoienan askoz ugariago erabiltzen diren -I-dun formen arrastoak: *joan* aditzean, *nixe, dixe* eta *dixez* formak ditugu, eta alokutiboko erabileran, *gaiezak/goiazak, jiezak* bezalako formak. *Eruan* aditzean, berriz, ez da arrastorik gelditzen gaur egun behintzat: *daruat, darua, jaruan, jarunan, daruau...*

▪ **IBILI eta ERABILI aditzak**

Zenbait kasutan, galdu egiten du erroaren -L- kontsonantea: *zabiz, gabiz, dabitt, nabik, jabixaz...* Zenbait kasutan, ordea, agerian geratzen da: *gabiltza, zabilgtza...* gisakoak ere entzuten dira, nahiz ez besteak adina.

▪ **JARDUN eta ARI IZAN aditzak**

Biak erabiltzen dira Elgoibarren, *jardun* eta *ari izan*. Beharbada *jardun* gehixeago, baina nahiko arrunta da *ari izan* entzutea ere. *Jardun* aditza, bestalde, nahiko sitematikoki erabiltzen da forma trinko gisa ere; beharbada lehenaldiko formaren batzuetan (bigarren pertsona pluraletan), zalantzak izan ditzakete hiztun batzuek (halakoetan, molde perifrastikoetara jotzen dute),

baina paradigma trinkoko aukera gehientsuenak arrunt erabiltzen direla esan behar.

Aditz hauekin batera, *IBILI* eta *EGON* aditzak ere erabiltzen dira jarduera fisikoa adierazteko: *lan* hitzarekin, aldaera hauek guztiak agertu zaizkit grabazioetan:

- *Lanian jardun.*
- *Lanian ibili.*
- *Lanian a(r)i izan.*
- *Lanian egon.*¹⁶

▪ **NOR-NORI sailean, bereizgarria da hasierako J-**

Mendabaldeko hizkera askotan bezala, *J-* hasiera duten adizkiak erabiltzen dira gurean ere: *JATA, JAKO, JAKU...* Mendaron ere *J-* dutenak erabiltzen dira, baina Mutriku eta Deban, *Z-* hasiera dute adizki horiek: *zat, zaku, zatzu...*¹⁷

JAT(A), JAKO, JAKU... (Elgoibar eta Mendaro)

ZAT, ZAKO, ZAKU... (Mutriku eta Deba)

Halako adizkietan, beraz, Mendaro eta Deba/Mutriku artean dago bi erabilerak bereizten dituen isoglosa.

Ezezko partikula (*ez*) aurretik dutenean, ahoskera berezia izaten dute *j-* hasiera duten aditz hauek:

EZ + JAKU BURURATU → ETXAKU BURURATU

EZ + JATA → ETXATA GUSTATZEN

Aurretik bokal bat dutelarik ere, izaten dute bilakaera morfonologiko bat: leundu egiten da kontsonante hori, ia erortzeraino zenbaitetan:

GUSTATZE(N) JATA → GUSTATZE (J)ATA

ETORRIKO JAKO → ETORRIKO (J)AKO

▪ **Adizki alokutiboetan, bereizgarria da hasierako J-**

Gauza bera gertatzen da alokutiboko adizki batzuetan ere; halakoetan, *J-* Elgoibarren eta Mendaron (*juat, jaok, jauat, jaukak, jakixat...*), mendebaleko

¹⁶ Azkeneko aukera honek txantxarako bidea ere ematen die beste euskalki batzuetako hiztunei, *EGON* aditzaren erabilera hau arrotza egiten zaieinei.

¹⁷ Debarroan, hiru kontsonante erabiltzen dira halako adizkietan: *x-*, *j-* eta *-z* (Zuazo-Badihardugu, 2002, 82. or.). Debarrenean, hortaz, azken bien artean dago lehia.

hizkeretan bezala, eta Z-/D- Deban eta Mutrikun, adizkiaren arabera (*diat, ziok, ziot, zaukak, zakixat // diat, diok/ziok, dixuat, zaukak, zakixat...*).¹⁸

JUAT, JAOK, JAUAT, JAUKAK, JAKIXAT, ... (Elgoibar eta Mendaro)

DIAT, ZIOK/DIOK, DIXUAT, ZAUKAK, ZAKIXAT... (Mutriku)

DIAT, ZIOK, ZIOT, ZAUKAK, ZAKIXAT... (Deba)

Halako adizkietan ere, Mendaro eta Deba/Mutriku artean dago bi erabilerak bereizten dituen isoglosa.

Aditz-formaren hasieran bezala, tartean ere koka daiteke *-J-* hau, iragane-ko forma batzuetan:

(596) *Basarrixa berritu najuan gaztetan.*

(597) *Liburua ekarri najauan lagunari.*

▪ **Iraganeko adizki batzuk: Ø- / Z-**

Eibartik hasi eta handik mendebalderantz, eta Soralezetik hasi eta handik hegoalderantz, normala da lehenaldiko hirugarren pertsonen dagokien morfema ez agertzea (edo, beste era batera esanda, Ø- morfema agertzea) adizkiaren hasieran, ez aditz laguntzaileetan ez aditz trinkoetan. Elgoibarren, beti Z-morfema erabiltzen da halakoetan, honako aditz pare hauetatik bigarrena, alegia:

eguan (Eibartik mendebaldera) / *zauan* (Elgoibar)

eban (Eibartik mendebaldera) / *zaban (zeban)* (Elgoibar)

ekarren (Eibartik mendebaldera) / *zekarren (zakarren)* (Elgoibar)

esan etsan (Eibartik mendebaldera) / *esan zion* (Elgoibar)

▪ **Bigarren eta hirugarren pertsona pluralekoen marka -E da, eta ez -TE**

Hona Elgoibarren erabiltzen diren forma batzuk:

DITTUE erabiltzen da, eta ez *DITTUZTE*.

ZAITTUE, eta ez *-TE* amaiera duen formarik (*ZAITTUZTE*).

DAKIXE, eta ez *DAKITE*.

ETORRI ZAITTIE gehiago *ZAITTEZTE* baino.

EKARRI DIUE, eta ez *DIOTE*.

ETORRIKO ZIÑAKIE (ZUEK), eta ez *ZIÑAKETE*.

EINGO LEUKIE, eta ez *L(E)UKETE*.

¹⁸ Mutrikun, gaur egun ia galduak daude alokutiboko adizkiak; Yrizarren aditz-tauletatik (1991) ekarri ditut aditz laguntzaileei dagozkienak.

Hori da arau orokorra; hala ere, badira salbuespen batzuk: *ETORRI ZE(R) ATE*, *ETXIAN ZAUDETE*, *BAZABIZTE*, *BAZUAZTE* adizkiak erabiltzen dira. Debagoienean (eta Eibarren bertan) baino *-TE* duten adizki gehiago erabiltzen dira, nolnahi ere.¹⁹

3.2.2.5. ADITZ PERIFRASTIKOAK ERABILTZEKO JOERA

Nabarmentzekoak iruditu zaizkit, aditzaren datuak biltzerakoan, berri-emailek ematen dituzten ingurumariak. Badirudi adizkiak errazteko edo parafrasi bidez emateko joera bat badagoela.

Adibidez, *etorri jatazen* esan beharrean, *neregana etorri ziran* esango dizute zenbait berri-emailek; *ziharduan-en* ordez, *jardun juan*, nahiz eta baliokideak ez izan; *guk ekarri haugu-ren* ordez, *gurekin etorriko haiz*, eta abar.

Perifrasi kontuekin jarraituz, nabarmena da aditz-lokuzioen erabilera adinekoen jardunean; gaur egun ezagunak zaizkigu *jolastu*, *dantzatu*, *usaindu* eta enparauak, baina esan behar da adineko hauek ez dituztela erabiltzen halako aditzak: lokuzio edo perifrasi gisakoak erabiltzen dituzte: *jolas eñ* (*jolasian ibili*), *dantzan eñ* edo *usain eñ* bezalakoak.

3.2.2.6. ADITZAREN JOKOKO BILAKABIDE FONETIKOAK

Fonologiaren atalean eman ditugun aditzaren adibide batzuk bilduko ditut, arlo honetan ere, besteetan bezala, aldaketa edo bilakabide fonetikoak gertatzen baitira. Horietako zenbait aipatu besterik ez dut egingo hemen:

etorri gera → *etorri gea*
etorri dira → *etorri dia*
badakigu → *badakiu*
egongo dira → *eongo'ia*
egingo dizut → *eingo'izut*
etorri jako → *etorri(j)ako* → *etorri'ako*
gustatzen jata → *gustatze jata* → *gustatze'ata*

¹⁹ Eibarren, adibidez, *ETORRI ZARIE*, *ZAGOZIE*, *ZABIZIE* eta *ZOIAZIE* erabiltzen dira Elgoibarko *-TE* duten horien alloan.

esan zidan → *esan zian / esan tzian*

hil zan → *hil zan / hil tzan*

deixodan → *deixoran*

3.4 azpiatalean erakusten ditut bilakabide horietako nagusiak, aditz-
taulen ondoreneko oharretan.

3.2.2.7. ADITZ FAKTITIBOAK EDO ERAGILEAK, ERA(G)IÑ ADITZAREN BIDEZ

Erdialdeko hizkeretan, *ARAZI/ARAZO/ERAZI* erabiltzen dira aditz fakti-
tiboak osatzeko, baina Elgoibarko hizkeran *ERAIÑ (ERAGIN)* da sistema-
tikoki erabiltzen dena.

Aurretik aditzaren partizipioa hartzen du beti, eta ez aditzoina:

EROSI ERAIÑ

LO HARTU ERAIÑ

JAN ERAIÑ

(598) *Katona erosi erain zi(g)un maixuak.*

(599) *Danak laga diou esnia eruatiari ere. Behi pinttak, ba, kendu erain
diue askori.*

(600) *Hauraxe akordau erain zian.*

(601) *Euskeraz berbetan eitxia galdu erain ziuen.*

Erregimenari dagokionez, NOR-NORI-NORK aditzerako lerrokatzea
eragiten du aditz faktitibo honek, bai aditz iragangaitzetan, bai iragankorretan
ere; alegia, oinarrian duen aditzaren paradigma aldatu egiten da *ERAGIN* adi-
tza erabilita:

ETORRI DA → *ETORRI ERAIN DIOT*

Akordau zan → *akordau erain zion*

EROSI DAU → *EROSI ERAIN DIOT*

Kendu debe → *kendu erain diue*

Erosi gendun → *erosi erain ziun*

EKARRI DITT → *EKARRI ERAIN DIOT*

3.3. ADITZ BATZUEN ERREGIMEN BEREZIAK

▪ **AKORDAU**

NOR

(602) *Altara ixa gehixenetan danak mezak ematen batera, abade asko zauan orduan Elgoibarren mezak ematen. Akordauko zara hori!*

(603) *Ez zebeñ billatzen inor, itxuria, eta nerekin akordau zian.*

(604) *Ba, haura ogixa nik eztakitt ze zan. Harekin akordatzen naiz.*

(605) *Neure alboko laguna zein tzan akordatze naiz: Urbano Arriaga.*

(606) *Eta, akordatze naiz detallia: zaudezen danak militararak.*

NOR-NORI

(607) *Eta zauan dana jenerua, ointxe dauan dana, botata zauan. Neri horrek akordatze jataz oiñ.*

(608) *(...) eta, gainera, haura espezialistia Mendarora etortze zana, ene!, apellidua etxata akordauko, eibartarra, euskalduna da.*

(609) *Izena horrena etxatak akordatzen.*

▪ **BE(G)ITTANDU** (NOR-NORI)

(610) *Hala beittandu zitzakuen.*

(611) *Jatorra begittandu zitzakuen gure laguna.*

(612) *Han jarritta eotia, bankuan, tristia beittantzen jata neri.*

(613) *Etxata, ba, beittentzen hainbeste izan zeikianik.*

▪ **DAMUTU**

NOR

(614) *Damutu nok, bai.*

NOR-NORI

(615) *Damutu jata faena hori eittia nere lagunari!*

(616) *Damutu jakon, bai, hori eittia.*

▪ **ENTENDI(D)U** (NOR-NORI)

(617) *Jesus! Andriari asko gustatze (j)ako pelotia! Neri baiño gehixao ententze (j)ako, gainera.*

▪ **EKIÑ**

NOR

(618) *Zazpi hillabeteko kontua jun zan gero bakarrik! Bueno, hor ekin dia kanpotik etortzen, soiñeko-erropak, beste maleta zahar bat eta.*

(619) *Eta ekin zan gaixotzen, e! Medikua juate zan Donostiara, eta gero indiziuak eta hartze zittuan.*

(620) *Ekin zan klasia ematen Bergaran, euskerazkoa.*

(621) *Hamabost urtekin ekin nitzan lanian.*

NOR-NORI-NORK

(622) *Lanari ekin jauat.*

(623) *Ostikoka ekin jauan astuak.*

▪ **ERTEN (URTEN)**

Bietara jokutzen da aditz hau, baina arruntena erabilera iragankorra dela esan behar da:

NOR

(624) *Honek erten tzian hamazazpi urtekin erten zaban kriada, e!*

(625) *Ni ez, ni enaiz erten... boda-egunian, boda-egunian bakarrikan.*

NOR-NORK

(626) *Aurrekaldian itxasua zauan; bueltia eman, eta atzera urten genduan kaletikan.*

(627) *Amaitzerakuan gerria, segiduan barko guztiak urten tzeben.*

(628) *Bixa(r)amonian guk erten ein genduan.*

▪ **EUTSI**

NOR-NORI-NORK

(629) *Eutsi'xok txahalari!*

▪ **GOGORATU**

NOR

(630) *Gogoratze naiz, bai; ondo asko, gainera.*

NOR-NORI

(631) *Eta ni Primerara eta Segundaraiño allauta nauan. Eta Segundan nabillela, gogoratze jata, maixua, neure alboko laguna, zein tzan akordatze naiz.*

▪ **HASARRAU**

NOR

(632) *Oingo honetan, benetan hasarrau nok.*

NOR-NORI

(633) *Aittari hasarrau jako azkenian. (= aita haserretu da)*

▪ **HELDU**

NOR-NORI-NORK

(634) *Heldu ixok ondo bolantiari!*

▪ **IXO**

Bietara jokutzen da aditz hau, baina arruntena erabilera iragankorra dela esan behar da:

NOR

(635) *San Pedroko gainera ixo gara, ta, “eup!”*, bestaldetik soldauak, “*A dónde vais?*”.

(636) *Da angulia oin gora ixotzen da.*

NOR-NORK

(637) *Haren ama Gatzagaraiño jun baldin bada, da handik bajatu bada, anguliak haraiño ixotzen deu.*²⁰

(638) *Ta pentsau ta, aber noa ixo daben. Horrek [prezioek] ixo beti.*

(639) *Eta, ixo naban Aulestiatikan Santa Eufemiara.*

(640) *Ixo zaban [txirrindu] gainera momentuan da...*

(641) *Azkar ixotze juan harek Karakatera!*

▪ **JARDUN**

Erabilera iragankorra du, salbuespenik gabe, aditz honek:

NOR-NORK

(642) *Ointxe etorri da seme bat. Hamen, hor jardun dau, eta oin kalera jun biha(r)ko dau seguru asko.*

(643) *Hortxe jardun genduan jo ta ke.*

²⁰ Erabilera iragangaitza erabili duen hitzun berak (*Da angulia oin gora ixotzen da*) hurrengo esaldian iragankor gisa jokatu du aditz bera (*ixotzen deu*).

NOR-NORI-NORK

(644) *Eta hola, ba, esaten jardun jauat: ...*

(645) *Eta esaten jardun zien eze haura eitteko ein bihar izen zebela berroeta bi milloi arbola kendu.*

▪ **LAGUNDU** (NOR-NORI-NORK)

NOR-NORI-NORK paradigmán jokutzen da.

(646) *Baiñau ere ein deu, ta laundu ei zion harek jazten!*

(647) *Hauxe husten laundu biha'iazue.*

(648) *Ezin diou laundu! Umieri ezin diou laundu [eskolako lanak egiten].*

Baita 'lagun egin' ('acompañar') adieran ere:

(649) "Tallarretik hau ta hola ta hola, laundu in bi'iak, ta laundu in bi'iak [Bartzelonara].

Aparteko erabilera honetan, esapide berezi honetan (*mezia lagundu*), NOR-NORK gisa jokutzen da:

(650) *Bai, monagillo ibiltze giñanian da. Balneaixora gustora jute giñan, gaiñea launtzera goizian. Da ez bat bakarrikan, e!, lau eo bost meza iual goizian laundu!*

▪ **ORATU**

NOR-NORI-NORK

(651) *Besotik oratu diot andriari.*

▪ **PENTSAU**

Ez dut jaso Elgoibarren Debagoienan eta erdian erabiltzen den erdue-tako bat, NOR-NORI paradigmakoa dena, alegia.²¹

(652) *Eta gero, etxera, ez genduan pentsatzen etortzia oindik, baiña etxera etorri giñan.*

(653) *Ni ez naiz akordatzten, baiña pentsa'izu zelako bizimodua zatorren, e!*

(654) *Harek pentsau zaban ni háren danen artian bilddurtu eingo nitzala, baiña toki edarrera etorri zan!*

²¹ Ikus Ormaetxea 2006 (297 or.: *Neuri obeto pentzeta(n) jat, gañea, oiñ itten dana*), eta Larrañaga 1998 (105 or.: *Oso ondo PENTZATZE jat*).

(655) *Gaiñera, pentsatzen debe euron inbirixa daukaula, geu ez geala gauza.*

(656) *Erderaz eitte jone dana. Zeattik don? Ba, erderia elegantiaua dalako, holaxe pentsatze jone.*

▪ **ZORATU**

NOR

(657) *Zoratu ein zan, zoratu. Jota... galdu ein zaban kontrola!*

NOR-NORI

(658) *Gure alabiari zoratu ein jako.*

3.4. ADITZ-TAULAK

Gatozen orain, aditzaren kapitulu honi amaiera emateko, aditz-taulekin; hemen sartu ditut, lehenago esan bezala, aditz laguntzaileek eta trinkoek Elgoibarren hartzen dituzten aditz-formak.

Izan ere, esan behar da aditz-forma hauek ez dutela sistema itxi eta koherente bat osatzen; aldaera asko daude aditzaren jokoan, denok dakigun bezala; hiztun berak forma bat baino gehiago erabil ditzake erabilera baterako.

Erabilera-maiztasun handienak dituzten formak sartu ditut tauletan; eta taulen ondoko oharretan eta oinoharretan jaso ditut maiztasun txikiagoarekin erabiltzen edo entzuten diren aditz-formak. Tauletako gelaxka batzuetan, aditz-forma bat baino gehiago sartu dut: biak nahiko sarri erabiltzen diren seinale da hori (erabilera bakanak, anekdotikoak, oinoharretan aipatu ditut); alegia, bi forma horiek erabiltzen dira, eta maiztasun-desberdintasun handirik gabe. Halakoetan, nolabaiteko “hierarkia” bat ezarri nahian, lehenbizi eman dut nire corpusean gehien agertzen dena edo berri-emaileen eta nire ustez gehiago erabiltzen dena, eta bigarren eman dut (barra etzanaren eskuinaldean) gutxiago erabiltzen dena. Hona horren adibide bat:

	NIK	HIK
HAURA	dot/det juat jonat	dok/dek don/den

Hor adierazi nahi dut *DOT* eta *DET*, eta *DOK*, *DON* eta *DEK*, *DEN* erabiltzen direla Elgoibarren, baina gehiagotan *-O-* erroa duena. Maiztasunari buruzko datu zehatzagoak (zenbat, non...) oinoharretan eta taulen osteko oharretan eman ditut.

Hemen ere, izenaren morfologian aipatu dudan bezala, gutxi-asko erabiltzen diren formak jasotzen ahalegindu naiz, ahal dela aditzen “berreraiketa” teorikorik egin gabe. Indikatiboko formak dira erabilienak, guztiok dakigun bezala, eta hauetan, ohikoenetan behintzat, ez dut arazo handirik izan aditz-formak testuetatik lortzeko; ahalerazko eta subjuntiboko erabilerak, dakigun bezala, erabilera murriztagokoak dira, eta hauetan gehiago erabili behar izan ditut berariazko inkestak. Tauletan eman ditudan formak nire ustez gehien erabiltzen direnak dira.

Aditz-taulak sailkatzeko, era honetako lan monografikoetan tradizionalki erabili izan den moldea erabili dut; honako hau, alegia:

3.4.1. ADITZ LAGUNTZAILEA

3.4.1.1. NOR (DA aditza)

3.4.1.2. NOR-NORI (ZAIIO aditza)

3.4.1.3. NOR-NORK (DU aditza)

3.4.1.4. NOR-NORI-NORK (DIO aditza)

3.4.2. ADITZ TRINKOA

3.4.2.1. NOR (DA aditza)

3.4.2.2. NOR-NORK (DU aditza)

Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak *EGLU II* gramatikan (Euskaltzaindia 1987, 135-137) aurkeztutako molde berria egokia ikusten dut euskara estandarren deskribapenerako. Molde berri horretan, ez daude ordu-ra arte (*Euskal Aditz Batua* gramatikan, adibidez) erabili izan diren kontzeptu eta termino batzuk: indikatiboa, ahalezkoa (ahalera), subjuntiboa, agintera (agintaldia), baldintza, ondorioa... Horiek desagertu egin dira, eta batetik aditz-erroa erabiliz, eta bestetik modua (\pm ahal) eta tempusa (\pm orain, \pm iragan) kontzeptuak, molde berri batean eman zuen gramatika horrek aditz-sistema osoa.

Hala ere, nirea bezalako lan batean, hizkera jakin bat deskribatzeko lan batean, nahikoa ikusi dut molde tradizionala, horrek ekar ditzakeen inkohereziaz jakitun izanik ere (*neike* eta *nedin* bezalako formak, adibidez, *IZAN* aditzaren formen artean kokatzera eramaten nau). Beraz, indikatiboa,

subjuntiboa, ahalera eta baldintza eta ondorioa kontzeptuak agertuko zaizkigu taula hauetan; horiek izango dira, atal nagusi bakoitzaren barnean, sailkapen-irizpide.

▪ **Aditz perifrastikoak**

NOR sailekoak du erabilera zabalena, indikatiboan behintzat; iraganeko ahalera eta subjuntiboa ez dira asko erabiltzen.

NOR-NORI sailari dagokionez, NOR hirugarren pertsona singularra eta plurala diren kasuak bakarrik jaso ditut; bestelakoak, NOR lehen eta bigarren pertsonak diren kasuak, ez dira erabiltzen.

NOR-NORK sailean, indikatiboa da gehien erabiltzen dena; subjuntiboa, gutxi, eta ahalera, objektua hirugarren pertsonak diren kasuetan bakarrik.

NOR-NORI-NORK sailean, indikatiboa erabiltzen da batez ere.

▪ **Aditz trinkoak**

Garai batean baino aditz trinko gutxiago erabiltzen da Elgoibarren; kontu hori ez dagokigu, ordea, elgoibartarroi bakarrik, orokorra dela esango nuke; aditz batzuk nahiko arrunt erabiltzen dira oraindik ere, eta beste batzuk era defektiboan, zenbait erabilera eta baldintza jakinetan bakarrik; bietarikoak jaso ditut aditz-tauletan, baina aditz erabilienak, betiere.

Aditz iragangaitzetan, ez da NOR-NORI paradigma erabiltzen, eta iragankorretan, ia indikatiboko formak bakarrik erabiltzen dira, eta horiek ere objektua hirugarren pertsonak diren kasuetan bakarrik.

Adizkiak eman ditudan grafiari dagokionez, *h*-a eta *s/z* bereizketa adieraztearen salbuespena bakarrik egin dut, beste kapituluetan bezala; alegia *h* eta *z* grafiak erabili ditut, jakinda ere lehena ez dela ahoskatzen eta bigarrena bestela ahoskatzen dela. Bustidurak eta bestelako bilakabide fonetikoak gorde ditut sistematikoki gauzatzen direla iruditu zaidanetan (bestela, zalantza nuen kasuetan, edo bitariko datuak ditudan kasuetan, parentesi artean eman dut dena delako soinua); halako kontuak erabakitzerakoan ere, estatistiketara jo dut, jakiteko zenbateraino adierazgarri edo pertinente zen bilakabide fonetiko bakoitza.

3.4.1. ADITZ LAGUNTZAILEA

3.4.1.1. NOR (DA aditza)

⇒ INDIKATIBOA²²

	Oraina	Iragana
NI	naiz nok non	nitzan nitzuan nitzunan
HI	haiz haiz	hitzan hitzanan
HAURA	da dok don	zan zuan zunan
GU	ga(r)a/ge(r)a gaittuk gaittun	giñan giñuazen ²³ giñunazen
ZU	za(r)a/ze(r)a	ziñan
ZUEK	ze(r)ate	ziñaten
HÁREK	di(r)a dittuk dittun	zi(r)an zittuan zittunan

²² Aditz-tauletako gelaxka bakoitzean, hiru aditz-forma agertzen dira. Lehendabizikoa (goikoa) adizkiaren forma neutroa da; bigarrena (erdikoa), gizonezkoari dagokion adizki alokutiboa; eta hirugarrena (behekoa), andrazkoari dagokion forma alokutiboa. Gelaxka batzuetan ezinezkoa da hiru formak agertzea, eta beste batzuetan, ezinezkoa ez izan arren, ez dira hiru formak agertuko erabiltzen ez direlako.

²³ *Giñuan* eta *giñonan* ere erabiltzen dira; Yrizarrek ere (1991, 602. or.) jasotzen ditu.

⇒ AHALERA

	Oraina	Iragana
NI	neike neikek neiken	neikian neikian neikiñan
HI	heike heike	heikian heikenan
HAURA	leike ²⁴ leikek leiken	zeikian zeikian zeikiñan
GU	geinke geinkezak geinkezan	geinkian geinkian geinkenana
ZU	zeinke	zeinkian
ZUEK	zeinkie	zeinkien
HÁREK	leikez leikezak leikenaz	zeikezen zeikiazzen zeikiñazzen

⇒ SUBJUNTIBOA

	Oraina	Iragana
NI	naíñ	neíñ
HI	haiñ	heíñ
HAURA	daiñ/deíñ	zeiñ/zaiñ
GU	gaittian	—
ZU	zaittian	—
ZUEK	zaittien	—
HÁREK	daittian	zaittien

²⁴ *Laike* formarekin alternantzia txiki bat du.

⇒ AGINTERA²⁵

	Agintera
NI	—
HI	ha(r)i ha(r)i
HAURA	dailla
GU	—
ZU	zaitte
ZUEK	zaittie
HÁREK	daittiela

⇒ BALDINTZA HIPOTETIKOA

	Baldintza	Ondorioa
NI	banitz	nitzake
HI	bahitz bahitz	hitzake hitzake
HAURA	balitz(a)	litzake
GU	bagiña	giñake
ZU	baziña	ziñake
ZUEK	baziñate	ziñakie
HÁREK	bali(r)a	litzakez

▪ NOR SAILEKO ADITZEI BURUZKO OHAR BATZUK

1. Hitzun zaharrek *gara* eta *zara* darabiltzate, baina baita *gera* eta *zera* ere. Gaztegoen artean, ordea, *gera* eta *zera* dira nagusi.

²⁵ Agintea adierazteko, bi modu daude elgoibartarron artean: aditz-partizipio hutsa (*Etorri azkar!*; *Juan etxera!*), eta forma jokatua, zeinetan aditz-partizipioa hartzen baitu oinarritzat laguntzaileak (*Etorri hari azkar etxera*; *Hartu izu liburua*); beste forma batzuek pentsatzera eraman gaitzakete aditzoina dela hor dagoena (adibidez: *etorr'ái*, *izurr'ái*), baina nik ez nuke esango horietan aditzoina dugunik, baizik bilakabide fonetiko baten eraginez sortutako forma batzuk.

2. Oso adinekoek *zuek etorri zara* forma ere gordetzen dute, nahiz jadanik ia galdutzat eman daitekeen.

3. Indikatibo iraganeko *giñuan*-ekin batera, *giñuazen* bezalako forma erredundanteak ere erabiltzen dira.

4. O/U alternantzia gertatzen da iraganeko adizki batzuetan: *nitzonan/nitzunan, zonan/zunan, giñunan/giñonan, zittunan/zittonan*.

5. *Leiket, leikezu* eta gisakoak berriak dira: nik aztergaitzat hartu ditudan hiztunen jardunetatik ez dut halakorik bildu. Are berriagoak dira *leikedot, leikedizut* modukoak. Badirudi gaur egun *leike-* hartzen dela ahalerako adizki gehienen errotzat, eta horren gainean eraikitzen direla aditz guztiak, analogiaren laguntzarekin.

6. *Gaittian, zaittian, zaittien, daittian* aditz formekin batera, erabiltzen dira beste hauek ere: *gaittezen, zaittezen, daittezen*. Nolanahi ere, hiztun gazteagoen jardunekoak izaki, berriagoak dirudite elgoibartarren erabileran.

7. Berez aginterazko formarik ez duten pertsonetan (bigarren pertsonak ez diren guztietan), subjuntiboko formek balio dezakete agintera egiteko (modu ahulagoan eta zeharkakoagoan bada ere). *-eLA* atzizkiarekin ere erabil daiteke subjuntibo hori: Hona San Roke bailarako hiztun adineko batek nola hitz egiten zien hango festetara inguratutako haurrei: *Etorri daittiela jolas ein nahi deben ume guztiak*.

8. Subjuntiboan, singularreko pertsonetan, *A/E* alternantzia gertatzen da: *neiñ/naiñ, heiñ/haiñ, deiñ/daiñ*.

9. Aginterako *hi* pertsonari dagokion forma, *R/D* alternantziaren ondorioz, *hari* ebakitzea da arruntena: *etorri hari hona*. Bokalarteko kontsonantea galtzea ere arrunta da: *[etorri ari ona] → [etorri ai ona]*.

▪ ERABILERA-ADIBIDE BATZUK (DA saila, indikatiboa)

Hona DA aditzen adibide batzuk, syntaxian txertatuta emateak haien erabilera argituko duelakoan:

(659) *Umetan ardizaiñ ibili nitzuan beti.*

(660) *Elgoibarrera etortze zittuan Trinidadietan eta San Bartolomietan.*

(661) *Gazteena zuan hori, hamabi urte edo jaukazen.*

(662) (...) *eta hi ez hitzan enteratzen lau ala hamar kendu zixazen.*

(663) *Askok adarra joten esan juek: ez haiz zahartu, txarri hori! Geruo eta gaztiao eite haiz.*

(664) *Esaten juen [sorginak] katiak arrastaka zittuela ibiltzen ziela...*

(665) *Bueno, amamana edo aittittana jungo gara basarrira, egun batzuk pasatzera.*

(666) *Jute giñuazen, eta kriston bakillau-janak eitte genduzen.*

(667) *Eta Segundan nabillela, (...) neure alboko laguna, zein tzan akordatze naiz.*

3.4.1.2. NOR-NORI (ZAIO aditza)

⇒ INDIKATIBOA

	Oraina	Oraina (pl.)	Iragana	Iragana (pl.)
NERI	jata jatak jatan	jataz jatazak jatanaz	jatan/zitzatan jat(i)an jatanan	jatazen jatazen jatanazan
HIRI	jak jan	jaz janaz	jaan janan	jazen janazen
HARI	jako jakok jakon	jakoz jakuaz jakonaz	jakon/zitzakon jakuan jakonan	jakozen jakuazen jakonazen
GURI	jaku jakuk jakun	jakuz jakuaz jakunaz	jakun/zitzakun jakuan jakunan	jakuzen jakuazen jakunazen
ZURI	jatzu	jatzuz	jatzun/zitzazun	jatzuzen
ZUERI	jatzue	jatzuez	jatzuen/zitzazuen	jatzuezen
HÁRERI	jakue jakuek jakone	jakuez jakuezak jakonez	jakuen/zitzakuen jakuen jakonen	jakuezen jakuezen jakonezen

⇒ AHALERA

	Oraina	Oraina (pl.)	Iragana	Iragana (pl.)
NERI	leikitt leikidak leikidan	leikidaz leikidazak leikidanaz	zeikidan	zeikidazan
HIRI	leikik leikiñ	leikezak leikenaz	zeikian zeikiñan	zeikiazan zaikiñazan
HARI	leikixo leikixok leikixon	leikixoz leikixozak leikixonaz	zeikixon	zeikixozan
GURI	leikigu leikiguk leikigun	leikiguz leikiguzak leikigunaz	zeikigun	zeikiguzan
ZURI	leikizu	leikizuz	zeikizun	zeikizuzan
ZUERI	leikizue	leikizuez	zeikizuen	zeikizuezan
HÁRERI	leikixue leikixuek leikixone	leikixuez leikixuezak leikixuenaz	zeikixuen	zeikixuezan

⇒ SUBJUNTIBOA²⁶

	Oraina	Iragana
NERI	dakidan/dakiran	zakidan/zakiran
HIRI	dakixan dakiñan	zakixan zakiñan
HARI	dakixon	zakixon
GURI	dakigun	zakigun
ZURI	dakizun	zakizun
ZUERI	dakizuen	zakizuen
HÁRERI	dakixen	zakixen

²⁶ Aditz hauek gutxi erabiltzen dira. Bestelako egitura perifrastikoak erabiltzen dira askoz maizago hauek baino; era honetakoak, adibidez: *Neska hori nereana etortzeko, e(g)inahalak ein bihar...*

⇒ BALDINTZA HIPOTETIKOA

BALDINTZA

	Objektu singularra	Objektu plurala
NERI	balitzat	balitzataz
HIRI	balitzak balitzan	balitzaz balitzanaz
HARI	balitzako	balitzakoz
GURI	balitzaku	balitzakuz
ZURI	balitzazu	balitzazuz
ZUERI	balitzazue	balitzazuez
HÁRERI	balitzakue	balitzakuez

ONDORIOA²⁷

	Objektu singularra	Objektu plurala
NERI	litzakitt	litzakidaz/litzakiraz
HIRI	litzakik litzakiñ	litzakiaz litzakiñaz
HARI	litzakixo	litzakixoz
GURI	litzakigu	litzakiguz
ZURI	litzakizu	litzakizuz
ZUERI	litzakizue	litzakizuez
HÁRERI	litzakixue	litzakixuez

▪ NOR-NORI SAILEKO ADITZEI BURUZKO OHAR BATZUK

1. Indikatibo iraganeko zutabeen, *jatan*, *jakon*, *jakun*, *jatzun* eta horrelakoak dira nagusi; entzuten dira, hala ere, *zitzatan*, *zitzakon*, *zitzakun*, *zitzazun* eta horrelakoak, Erdialdeko hizkeren eraginez.

²⁷ Taula honetako formak gaur egun gutxi erabiltzen direla esan behar da. Horien ordez, zabalduak daude indikatiboko forma arruntak: *Neri gustauko jaten Ameriketara juatia*.

2. *Jatak* bezala, *jatek* ere entzuten da. Bai eta *jatan* eta *jatian* bezala *jaten* eta *jatien* ere.

3. Lehen pertsonako iraganeko bi forma, Yrizarrek dioen bezala, azen-tuak bereizten ditu: *jatán/játan*. Lehenbizikoa aditz forma neutroa da, eta bigarrena alokutiboa. Forma neutroan, bestalde, entzun daiteke *jaten* forma ere.

4. Pluralgilea ez da beti erabiltzen: batzuetan desagertu egiten da. Gerta daiteke, adibidez, *jakuezen*-ekin batera *jakuek* ere erabiltzea (*oin dala astebete jausi egin jakuen txanpon batzuk*); *jatazak* bezala, *jatak*; *jakuaz* bezala, *jakok* eta *jakuk*; *leikioxak* bezala, *leikixok*; eta abar.

5. Jakina, beti dago zenbait forma esan beharrean, era perifrastikoan esateko modua, eta era horiek asko erabiltzen dira; adibidez, *etorri jatazen*-ekin batera, *neregana etorri zittuazen* esatea.

6. Ahoskerari dagokionez, ohiturazko aditz nagusiekin NOR-NORI paradigmatako *j-* askotan desagertu egiten da, bokal arteko posizioan egokitzen baita halakoetan: *etortzen jata* → *etortze(n) jata* → *etortze (j)ata*.

7. Beste ahoskera-kontu bat ere aipatu behar da NOR-NORI aditz hauetan. Ezezko formetan, *EZ* ukapenaren ondoren egokitzen da sarritan hasierako *j-* duten adizkiak; halakoetan, hau gertatzen zen orain arte sistematikoki: *ez jako gustatzen* → *etxako gustatzen*. Gazteen hizkeran, indarra galtzen ari da bilakabide fonologiko hau, eta *ez jako gustatzen* erabiltzen dute batez ere.

8. NOR-NORI adizkietan, ahalera ez da gehiegi erabiltzen gaur egun; hirugarren pertsoneri dagozkienak erabiltzen dira gehien, baina horiek ere gehiegi ez.

9. NOR-NORI adizkietan, ez dira erabiltzen aginterako formak.

10. Subjuntibokoak ere ia ez dira erabiltzen.

11. Ahalezko formetan ere, batez ere iraganean, hutsuneak nabari dira: gehiegi erabili eta landu ez diren seinale, inondik ere.

▪ ERABILERA ADIBIDE BATZUK (ZAIIO saila, indikatiboa)

Hona ZAIIO aditzen adibide batzuk, sintaxian txertatuta emateak haien erabilera argituko duelakoan:

(668) *Etxatak ahiztuko sekula.*

(669) *Hola, gustatze jatana neri, jorria dok bat.*

(670) *Oiñ umia hil jakue, ba? Ba, háretxek.*

- (671) *Neri ardixak gobernatzia da oin gehixen gustatze (j)atena.*
- (672) *Eta hasten danian politiko bat bere diskurso bat eitten edo, etxaaz pasatzen hitzen batzuk? Pasatzen jaaz? Neri asko pasatze jatek hori.*
- (673) *Eta barixakuetan, zafarrantxua, hala esate jakuan.*
- (674) *Baten batzuk etortze (j)akozen beti basarrira, eta hárekin eote zuan aitta.*
- (675) *Haura zuan bronkia! Joe! Peligrosua gaiñera, e! Gero akordau jatien.*
- (676) *Eta ointxe ere junda, han harri-koskorak ikuste`ittuk, ttak! Brillua ikuste (j)akuek.*
- (677) *Neri gustau eitte jat basarrira ere.*
- (678) *Eta Segundan nabillela, gogoratze jata, maixua, neure alboko laguna, zein tzan akordatze naiz.*
- (679) *Eta edurrakin da nola eon tzan ere akordatze jata.*
- (680) *“Milizianuak” esate zitzakuen háveri.*
- (681) *Eta gero hamasei urte ero hamazazpi etorri zitzatazenian, lanera.*
- (682) *Eta elizara, eta konpesatzen giñuazen Makariokin. Abadia zuan, Makario esate zitzakona.*

3.4.1.3. NOR-NORK (DU aditza)

⇒ INDIKATIBOA/ORAINA

	NIK	HIK	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
NI	—	nauk ²⁸ naun	nau najok najon	—	na(u)zu	na(u)zue	naue/nabe najuek najone
HI	haut haut	—	hau hau	hauu hauu	—	—	haue/habe haune
HAURA	dot/det ²⁹ juat jonat	dok/dek don/den	dau/deu jok jon	dou/deu juau jonau	dozu/dezu	dozue/dezue	dabe/debe juek jone
GU	—	gaitruk gaitrun	gaittu gaitruk gaitrun	—	gaitruzu	gaitruzue	gaitrue gaitruek gaitrunne
ZU	zaitrut	—	zaitru	zaitruu	—	—	zaitrue
ZUEK	zaitruet	—	zaitrue	zaitruue	—	—	zaitrue
HÁREK	ditrut jaitruat ³⁰ jaitrunat	ditruk ditrun	ditru jaitruk jaitrun	ditruu jaitruau jaitrunau	ditruzu	ditruzue	ditrue jaitrue jaitrunne

²⁸ *Nok* eta *non* ere entzun daitezke.²⁹ Elgoibarko Altzola auzoan, *-E-* erroa duten aditzak erabiltzen dira; handik ekialdera, Mendaro, Murriku eta Deba aldera, *DET*, *DEGU*... erakoak erabiltzen dira.³⁰ Zenbaitetan, *jai-* hasiera duten adizki hauetan diptongoa monoptongatu egiten da: *jaitruat*, *jaitrunat*, *jaitruu*...

⇒ INDIKATIBOA/LEHENA

	NIK	HIK	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
NI	—	ninduan nindunan	nindun ninduan nindunan	—	ninduzun	ninduzuen	ninduten ninduten nindunen
HI	hindudan hindunan	—	hinduan hindunan	hindugun hindugunan	—	—	hinduten hindunen
HAURA	naban ³¹ najuan najonan	zuan zonan	zaban/zauan ³² juan jonan	gendu(a)n genduan gendunan	gendu(a)n	zenduen	zeben/zaben juen jonen
GU	—	ginduazen gindunazen	ginduzen ginduazen gindunazen	—	ginduzun	ginduzuen	ginduezen ginduezen gindunezen
ZU	zindudazen	—	zinduzen	zindugun	—	—	zinduezen
ZUEK	zinduedazen	—	zinduezen	zindugun	—	—	zinduezen
HÁREK	nittuan naj(a)ittuan naj(a)ittonan	hittuan hittunan	zittuan jaittuan jaittunan	genduzen/ giñuzen genduazzen gendunazzen	zenduzen	zenduezen	zittuen jaittuen jaittunen

31 *Naban* ere entzun daiteke, baina *naban* baino askoz gutxiago.

32 *Zaban* ere agertu zait testuetan (bi aldiz). *Zaban* (136 agerraldi) eta *zauan* (100) dira nagusi, hala ere.

⇒ AHALERA/ORAINA

	NIK	HIK	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
NI		neikek neiken	neike neikek neiken		neikezu	neikezue	neikie neikiek neikene
HI	heiket heikenat		heike heiken	heikegu heikenagu			heikie heikene
HAURA	neike neikek neiken	heike	leike leikek leiken	geinke geinek geinken	zeinke	zeinkie	leikie leikiek leikene
GU		geinkiaz geinkenaz	geinkez geinkiaz geinkenaz		geinkezuz	geinkezuez	geinkiez geinkiezak geinkenez
ZU	zeinkedaz		zeinkez	zeinkeguz			zeinkiez
ZUEK	zeinkiedaz		zeinkiez	zeinkieguz			zeinkieze
HÁREK	neikez neikiaz neikenaz	heikez heikenaz	leikez leikiaz leikenaz	geinkez geinkiaz geinkenaz	zeinkez	zeinkiez	leikiez leikiezak leikenez

⇒ AHALERA/IRAGANA

	NIK	HIK	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
NI		neikian neikian neikenan	neikian neikian neikenan		neikezun	neikezuen	neikien neikien neikenen
HI	heikedan heikedanan		heikian heikenan	heikegun heikegunan			heikien heikenen
HAURA	neikian neikian neikenan	heikian heikenan	zeikian jeikian jeikenan	geinkian geinkian geinkenana	zeinkian	zeinkien	zeikien jeikien jeikenen
GU		geinkiazan geinkenazen	geinkezen geinkiazan geinkenazen		geinkezuzen	geinkezuezen	geinkiezen geinkiezen geinkenezen
ZU	zeinkedazen		zeinkezen	zeinkeguzen			zeinkiezen
ZUEK	zeinkiedazen		zeinkiezen	zeinkieguzen			zeinkiezen
HÁREK	neikezen neikiazan neikenazen	heikiazan heikenazen	zeikezen jeikiazan jeikenazen	geinkezen geinkiazan geinkenazen	zeinkezen	zeinkiezen	zeikiezen jeikiezen jeikenezen

⇒ SUBJUNTIBOA

ORAINA

	NIK	HIK	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
HAURA	deidan	deixan deixanan	deixan	deigun	deizun	deizuen	deixen
HÁREK	deidazen	deixazen deixanazen	deixazen	deiguzen	deizuzen	deizuezen	deixezen

LEHENA

	NIK	HIK	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
HAURA	neixan	heixan heixanan	zeixan	geixan	zeizun	zeizuen	zeixen
HÁREK	neixazen	heixazen heixanazen	zeixazen	geixazen	zeizuzen	zeizuezen	zeixezen

⇒ AGINTERA

	HIK (giz.)	HIK (emak.)	ZUK	ZUEK
HAURA	(e)ik	(e)izu	(e)izue	(e)izue
HÁREK	(e)ixaz	(e)íñaz	(e)izuz	(e)izuez

⇒ BALDINTZA HIPOTETIKOA

BALDINTZA

	NIK	HIK	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
HAURA	baneu ³³	baheu	baleu	bagendu	bazendu	bazendue	bale(b)e
HÁREK	banitru	bahitru	balitru	bagenduz	bazenduz	bazenduez	balitru

ONDORIOA

	NIK	HIK	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
HAURA	neuke	heuke	leuke	genduke	zenduke	zendukie	leukie
HÁREK	nitruke	hitruke	litruke	gendukez	zendukez	zendukez	litrukie

³³ *Baneu* ere entzuten da.

▪ **NOR-NORK SAILEKO ADITZEI BURUZKO OHAR BATZUK**

1. Nahastu egiten dira askotan DU aditzaren paradigma eta DIO aditzarenak, pertsonekin ari garenean, eta *neuk ekarriko haut / ikusi haut* esaten da, baina baita *neuk ekarriko dixat / ikusi dixat* ere, zenbaitetan, adinekoen jardunean ere bai: kontuan hartzeko moduan dago hedatuta erabilera hori, kalean batez ere. Jakina, txantxak eta trufak egiteko bide ematen dio honek zenbaiti (*–Ikusi dixat azokan goizian. –Zer ikusi di(d)ak, ba, ipurdixa, ala?*).

2. Pluralgilea ere desager daiteke paradigma honetan: *Bost lagun ikusi dittue* eta *Bost lagun ikusi debe mendixan*. Hala ere, esan behar da ez duela kontu honek Debagoienan duen sistematikotasunik eta indarririk ere; Murrikun ere, indar askoz handiagoa du komuntadura ezak Elgoibarren eta Mendaron baino.

3. *Dot* aditz-forma da nagusi, baina, gorago esan bezala, Altzolan hasita, eta handik ekialdera, *det* erabiltzen da.

4. *Dau* formarekin alternantzia dago *deu* ere.

5. *Naue* eta *haue* formekin batera, *nabe* eta *habe* ere entzun daitezke.

6. *Debe* formarekin batera, *dabe* ere entzuten da.

7. Bigarren pertsona pluralari dagozkion formetan, bokal artean gertatzen da pertsona horri dagokion *-g-* kontsonantea (*juagu, dogu, jaittuagu...*). Horietan, oso normala da *-g-* hori ahoskatu ere ez egitea: *juau, dou, jaittuau...* (hona hiztun baten adibide bat: *Hemen ekarri jaitxu lau milloi litro olixo pasau*).

8. *Naban* formarekin batera, kontsonantea bokalardi bihurtuz, *nauan* ere entzun daiteke; bai eta *neban* ere, nahiz gutxixeago: Eibar aldean gehiago. Gauza bera esan daiteke *zaban / zauan / zeban* aldaerei buruz ere.

9. *Zeben* formarekin batera, *zaben* ere entzun daiteke.

10. *D/R* alternantziaren ondorioz, *hinddudan/hindduran, zinddudazen/zinddurazen* bikoteak ditugu.

11. Aditz forma batzuetan, bokal arteko *-j-* ia galdu egiten da ahoskatzera; horrela gertatzen zaizkigu honako ahoskera hau bezalakoak: *najaittuan* → *naittuan*.

▪ **ERABILERA ADIBIDE BATZUK (DU saila, indikatiboa)**

Hona DU aditzen adibide batzuk, sintaxian txertatuta emateak haien erabilera argituko duelakoan:

- (683) *Etxera erun nahi zittuen.*
- (684) *Han eruten nindduen.*
- (685) *Bai, hoeta beratzi zittuan egunian juan zan soldau.*
- (686) *Hor esate ittue beste batzuk, “junio”, “julio”...*
- (687) *Hemen jardute zeben jokuan da.*
- (688) *Baiña batek edarrak zapatak zaukazen.*
- (689) *Hemen hillebete t’erdi ein zittuen.*
- (690) *Bai, urte bi tta erdi ein najittuan neskame han.*
- (691) *Pentsa’ik, ba!*
- (692) *Estartanian pasau genduzen ixa berrogei urte.*
- (693) *Eta, len esan dotena, Estartanera lanera gero.*
- (694) *Astuakin ibiltze zittuan len hōnek, eta nik len bizikletiak in esan dote-
na: kotxia ekarri zanian, pentsa’ik hau zelakua jungo zan kalera.*
- (695) *Beti gora begira eon bi’ok.*
- (696) *Ointxe hil dok hori, esan doten hori.*
- (697) *Ze esan nahi zaban horrek?*
- (698) *Ta koiñatak esate jak honek artaburua emango dabela oindio.*
- (699) *Azkenian (...), teleponua: “Beno, ze, holako egunetan, holako lekutara junda, ze?”. Berak esaten dabanian jute gaittuk.*
- (700) *(...) geiztuaua zan! Baiña euskalduna bazan, segittuan dominatzen najuan.*
- (701) *Barixakuetan, zafarrantxua; hala esate jakuan: kuartela, bota ura, zerrautsa bota, eta manta haundi batzuek ipintze jaittuen.*
- (702) *Jute giñuazen, eta kriston bakillau-janak eitte genduzen.*
- (703) *Harek ikusi debe han Azkaratetik goittik han zeozeren seiñia dala.*
- (704) *Bai, gaur gabian etorri, hor ordubatak aldian, eta hurrengo egun guz-
tia pasau zaben behintzat.*
- (705) *Ba, nik zenbat urte eukiko nittuan, ba! Zazpi bat edo?*

3.4.1.4. NOR-NORI-NORK (DIO aditza)
 ⇒ INDIKATIBOA/ORAINA (objektu singularra)

	NIK	HIK	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
NERI	—	diak dian	ditt jak jan	—	didazu	didazue	die jaek jane
HIRI	dixat diñat	—	dik diñ	dixau diñau	—	—	dixek diñe
HARI	diot jauat jaunat	diok dion	dio jaok jaon	dious jauaus jaunaus	diozu	diozue	diue jauek jone/jaone
GURI	—	diuk diun	diu jauk jaun	—	diguzu	diguzue	diue jauek jaune
ZURI	dizut	—	dizu	dizuu	—	—	dizue
ZUERI	dizuet	—	dizue	dizueu	—	—	dizue
HÁRERI	diuet jauet jaunet	diuek diuen	diue jauek jaunen	dious jauaus jaunaus	diozu	diozue	diue jauek jone/jaone

⇒ INDIKATIBOA/ORAINA (objektu plurala)

	NIK	HIK	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
NERI	—	diaz dianaz	diaz jaz janaz	—	diazuz	diazuez	diez jiez jienez
HIRI	dixaaz dinaaz	—	dixaz dinaaz	dixauz dinauz	—	—	dixez dinez
HARI	dioaz jauaaz jaunaaz	diuaz dionaz	dioz jauaz jaunaz	diouz jauauz jaunauz	diozuz	diozuez	diuez jauetz jaunez
GURI	—	diuaz diunaz	diuz jauaz jaunaz	—	diuzuz	diuzuez	diuez jauetzak jaunez
ZURI	dizuaz	—	dizuz	dizuuz	—	—	dizuez
ZUERI	dizueaz	—	dizuez	dizueuz	—	—	dizuez
HÁRERI	diueaz jaucaz jauencaz	diuaz diuenaz	diuez jauetzak jauenaz	diouz jauauz jauenauz	diozuz	diozuez	diuez jauetzak jauenetz

⇒ INDIKATIBO/IRAGANA (objektu singularra)

	NIK	HIK	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
NERI	—	zian zianan	zian jaan ³⁴ jaanan	—	ziazun	ziazuen	zien jaen jaenen
HIRI	nixan niñan	—	zixan ziñan	gixan giñan	—	—	zixen ziñen
HARI	nion najaan najaanan	ziuan zionan	zion jauan jaanan	giñon giñuan giñonan	ziñon	ziñuen	ziuen jauen jaonen
GURI	—	ziuan ziunan	ziun jaun jaunan	—	ziuzun	ziuzuen	ziuen jiuen jiuenan
ZURI	nizun	—	zizun	giñuzun	—	—	zizuen
ZUERI	nizuen	—	zizuen	giñuzuen	—	—	zizuen
HÁRERI	niuen najaan najaanen	ziuan zionan	ziuen jauen jaonen	giñon giñuan giñonan	ziñuen	ziñuen	ziuen jauen jaonen

³⁴ Altzola eta Mendataro aldean, *barék neri jian* eta *hárek neri jien* adizkiak entzuten dira.

⇒ INDIKATIBOA/IRAGANA (objektu plurala)

	NIK	HIK	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
NERI	—	ziazen ziazenan	ziazen j(a)azen ja(a)zenan	—	ziazuzen	ziazuzen	ziezen jjezen jjezenan
HIRI	nixazen niñazen	—	zixazen ziñazen	gixazen giñazen	—	—	zixezen ziñezen
HARI	niozen najuazen najaonazen	ziuazen zionazen	ziozen jauazen jaonazen	giñozen giñuazen giñunazen	ziñozen	ziñuezen	ziuezen jauezen jaonezen
GURI	—	ziuazen ziunazen	ziuzen jauazen jaunazen	—	ziuzuzen	ziuzuezen	ziguezen jiuezen jiuezenan
ZURI	nizuzen	—	zizuzen	giñuzuzen	—	—	zizuzen
ZUERI	nizuezen	—	zizuezen	giñuzuezen	—	—	zizuezen
HÁRERI	ninuezen najuazezen najaonezen	ziuazezen zionazezen	ziuezen jauazezen jaonezen	giñozen giñuazezen giñonazezen	ziñuezen	ziñuezen	ziuezen jauezen jaonezen

⇒ AHALERA/ORAINA

	NIK	HIK	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
NERI		heikitt heikidan	leikitt leikidak leikidan		zeinkitt	zeinkitte	leikitte leikittek leikidane
HIRI	neikik neikiñ		leikik leikiñ	geinkik geinkiñ			leikixek leikiñe
HARI	neikixo najeikixok najeikixon	heikixo heikixon	leikixo leikixok leikixon	geinkixo geinkixok geinkixon	zeinkixo	zeinkixue	leikixue leikixuek leikixone
GURI		heikigu heikigun	leikigu leikiguk leikigun		zeinkigu	zeinkigüe	leikigüe leikigüek leikigüne
ZURI	neikizu		leikizu	geinkizu			leikizue
ZUERI	neikizue		leikizue	geinkizue			leikizue
HÁRERI	neikixue najeikixuek najeikixone	heikixue heikixone	leikixue leikixuek leikixone	geinkixue geinkixuek geinkixone	zeinkixue	zeinkixue	leikixue leikixuek leikixuene

⇒ AHALERA/IRAGANA

	NIK	HIK	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
NERI		heikidan heikidan heikidan	zeikidan jeikidan jeikidan		zeinkidan	zeinkitten	zeikitten jeikitten jeikiranen
HIRI	neikian neikiñan		zeikian zeikiñan	geikian geikiñan			zeikien zeikiñen
HARI	neixon najeixon najeixon	heixon heixon heixon	zeixon jeixuan jeixonan	geixon geixuan geixon	zeinkixon	zeinkixuen	zeikixuen jeikixuen jeixonen
GURI		heikigun heikigun	zeikigun jeikiguan jeikiguan		zeinkigun	zeinkiguen	zeikiguen jeikiguen jeikigunen
ZURI	neikizun		zeikizun	geinkizun			zeikizuen
ZUERI	neikizuen		zeikizuen	geinkizuen			zeikizuen
HÁRERI	najeikixuen najeixonen	heikixuen heixonen	zeikixuen jeikixuen jeixonen	geikixuen geikixuen geikixonen	zeinkixuen	zeinkixuen	zeikixuen jeikixuen jeikixunen

⇒ SUBJUNTIBOA

ORAINA

	NIK	HIK	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
HARI	deixo(d)an ³⁵	deixuan deixonan	deixon	deixoun	deixozun	deixozuen	deixuen
HÁRERI	deixue(d)an	deixuen deixuenan	deixuen	deixeun	deixezun	deixezuen	deixuen

LEHENA

	NIK	HIK	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
HARI	neixon	heixon heixonan	zeixon	geixon	zeixon	zeixuen	zeixuen
HÁRERI	neixen	heixen heixenan	zeixen	geixen	zeixen	zeixen	zeixen

³⁵ Adizki hauetan, arrunta da *-ai/-ei-* alternantzia: *daixodan/deixodan, daixon/deixon, daixogun/deixogun*.

⇒ AGINTERA

	HIK (grz.)	HIK (emak.)	ZUK	ZUEK
NERI	iak	ian	iazu	iazue
HARI	i(x)ok	i(x)on	i(x)ozu	i(x)ozue
GURI	iuk	iun	iuzu	iuzue
HÁRERI	i(x)ek	i(x)en	i(x)ezu	i(x)ezue

⇒ BALDINTZA HIPOTETIKOA

BALDINTZA (objektu singularra):

	NIK	HIK	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
HARI	banio	bahio	balio	bagiño	baziño	baziñue	balie
HÁRERI	baniue	bahiue	balie	bagiño	baziñue	baziñue	balie

BALDINTZA (objektu plurala):

	NIK	HIK	HARÉK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
HARI	banioz	bahioz	balioz	bagiñoz	baziñoz	baziñuez	balieuz
HÁRERI	baniuez	bahiuez	balieuz	bagiñoz	baziñuez	baziñuez	balieuz

ONDORIOA (objektu singularra):

	NIK	HIK	HARÉK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
HARI	nioke	hioke	lioke	giñoke	ziñoke	ziñueke	liueke
HÁRERI	niueke	hiueke	liueke	giñoke	ziñueke	ziñueke	liueke

ONDORIOA (objektu plurala):

	NIK	HIK	HARÉK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
HARI	niokez	hiokez	liokez	giñokez	ziñokez	ziñuekez	liuekez
HÁRERI	niuekez	hiuekez	liuekez	giñokez	ziñuekez	ziñuekez	liuekez

▪ **NOR-NORI-NORK SAILEKO ADITZEI BURUZKO OHAR BATZUK**

1. *Ditt* forma baino askoz berriagoa da (gazteen jardunekoa) beste aditz-forma hau: *lagunak liburua ekarri dia*.

2. Bokal arteko *-d-* normalean galdu egiten da ahoskatzerakoan: *didak* → *diak*; *diadaz* → *diaz*; *didaz* → *diaz*...

3. Hemen ere, lehendabiziko pertsona ergatiboari dagozkion formetan, *D/R* alternantzia dugu: *dixadaz/dixaraz*; *diodaz/dioraz*... Esan beharra dago, hala ere, adizki hauetan gehiagotan ahoskatzen direla *-R-* duten adizkiak Eibarren eta, zer esanik ez, ezaugarri fonetiko nagusietakoa duen Mutriku batean.

4. Bigarren pertsona pluralari dagozkion formetan, bokal artean gertatzen da pertsona horri dagokion *-g-* kontsonantea (*jauagu*, *diogu*, *dixagu*...). Horietan, oso normala da, NOR-NORK paradigmakoetan gertatzen zen bezala, *-g-* hori ahoskatu ere ez egitea: *jauau*, *diou*, *dixau*...

5. *Jan* eta *janan* formekin batera, *jian* eta *jianan* ere entzun daitezke, Elgoibarren iparraldera, Altzola eta Mendaro aldera gehiago.

6. Aginteran, NOR-NORK sailean bezala, adizki guztietan lehen zatia ez da ahoskatzen, eta *egixok*, *egiozu* → *ixok*, *iozu* bihurtzen da, adibidez. *Saldu'ixok*, *ekarri'ixok*...

7. Aginteran, lehendabiziko pertsona singularra datiboan doanean, bokal arteko *D* kontsonantea galdu egiten da: *ez (eg)i(d)ak adarrik jo* → *ez iak adarrik jo*. Gauza bera hauekin ere: *laga (eg)i(d)azu liburua* → *laga'iazu liburua*.

8. Hirugarren pertsonak ez du berezko formarik aginteran, baina, lehenago esan dugun bezala, erabil daitezke subjuntiboko formak (ondoren *-eLA* menderagailua dutela) “zeharkako” agintera adierazteko. Adibidez, *Esan deixola egixa Patxik Mireni. Ekarri deizula lapitza [Joxek zuri]*.

9. *Zuk háveri* eta *zuek háveri* kasuetan, *háveri* esplizitatu ziurtatzen da informazioa, *hari*-ri dagozkion formak baitira; beraz, *esaiozu háveri etortzeko* (= haiei).

▪ **ERABILERA-ADIBIDE BATZUK (DIO saila, indikatiboa)**

Hona DIO aditzen adibide batzuk, syntaxian txertatuta emateak haien erabilera argituko duelakoan:

(706) *Eta “eztixaaz emango”, esan zian lagunak.*

- (707) "Tupi" esate ziuen eurak.
- (708) Lenguan esan jaan.
- (710) Eskolakuak esan dixaaz nahikuak. (= dixadaz)
- (711) Gure tia zuan haura, eta harek ipintze jauazen bazkarixa ume morduari.
- (712) Eta danak pezeta bana eman giñuan; bana eman giñon.
- (713) Eta halako baten esan jan bera aspertuta zauala.
- (714) Hemen bajauan, baiña garixa ixotzekorik ez. Artuanak bai, bajauazan, etxaue lagatzen baiña.
- (715) Eta bi ez hitzan enteratzen lau ala hamar kendu zixazen.
- (716) Bai, soldau lagun bati esan najauan: (...)
- (717) Euskeraz entzuten bahixan maistriak, erun aurrera, eta belauniko.
- (718) Neri Urki; neri Gaartza etxae esaten.
- (719) Azkenerako badakik ze izen ipini zien? (...)
- (720) Lagun batek tiretu, beste bat sartu barruan, eta mantiakin behiari, baldosiari, brillua etaratzen giñuan.
- (721) Eta bat falta bazan: "Nun dao hori?". Eta derrepente kastigua, jakiña. Eta hari ipiniko ziuezen imajinarixak.
- (722) Ba, nik kendu najauazen soldautziari, permisuekin, bost bat hillabete.
- (723) Eta etxian iual andria ta umiak. Eta zela bialduko jauan, ba, dirua hari?
- (724) Hik lagako diaz bi pezeta?
- (725) Eta aurretikan maixuak-edo preparauta etxerako emate zixan, eta ikesi. Eta etxera jun, eta ikesten jarraitu bihar.
- (726) Hamen sorgiñak gabian ertetzen zabela ta. Ba, pailazo batzuek, bertakuak. Eta ezer ez. Neri etxaan sekula erten.
- (727) Baiña neskeri ta, kriston bilddurra sartzen jauen gabeko sorgiñak.
- (728) Gaur basarrixan, basarri askok, piñua daukenak eta, piñuakin da, asko laguntze iue.
- (729) Eta, bestela, bialtze zixen zapata zikiñekin formauta igual, eta garbitzera atzera kuarterera bialtze zixen.
- (730) Unzeta, ferreterixia sortu zaban gizona hantxe dendan eoten za (...)
Eta hara bialtze zian aittak, tallarrerako ero zeozer, piezaren bat ero, bihar zanian.

3.4.2. ADITZ TRINKOA

3.4.2.1. NOR (DA aditza)

⇒ ORAINA

	E(G)ON	ETORRI	IBILI	JUAN
NI	nao naok naon	nator natok naton	nabill nabik nabin	nixe najiek najien
HI	hao hao	hator hator	habill habill	hua hua
HAURA	dao daok daon	dator datok daton	dabill dabik dabiñ	dixe jiek jien
GU	gaude/gaure/gaoz gauaz gaonaz	gatoz gatuaz gatonaz	gabiz/gabiltza gabixaz gabiñaz	guaz guazak/gaiezak guanaz/gaienaz
ZU	zaude/zaure/zaoz	zatoz	zabiz/zabiltza	zuaz
ZUEK	zaudete/zaurete/ zaozte	zatozte	zabizte/ zabiltzate	zuazte
HÁREK	daude/daure/daoz dauaz daonaz	datoz datuaz datonaz	dabiz/dabiltza dabixaz dabiñaz	dixez jiezak jienaz

⇒ IRAGANA

	E(G)ON	ETORRI	IBILI	JUAN
NI	nauan najauan najaonan	natorren natuan natonan	nabillen nabixan nabiñan	nixen najien najienan
HI	heuan heuanan	hatorren hatorrenan	habillen habillenan	huan huan
HAURA	zauan/zaon jauan jaonan	zatorren jatuan jatonan	zabillen jabixan jabiñan	zixen jien jienan
GU	geunden gauazen gaonazen	gatozen gatuazen gatonazen	gabizen/gabiltzan gabixazen gabiñazen	gindduazen gindduazen ginddunazen
ZU	zauden/zauren	zatozen	zabizen/zabiltzan	zindduazen
ZUEK	zaudeten/zaureten	zatozten	zabizten/zabiltzaten	zindduazten
HÁREK	zauden/zauren jauazen jaonazen	zatozen jatuazen jatonazen	zabizen/zabiltzan jabixazen jabiñazen	zixezen jiezzen jaienezzen

⇒ BALDINTZA

	E(G)ON	ETORRI	IBILI
NI	bane(n)go	banetor	banebill
HI	bahengo	bahetor	bahebill
HURA	baleo	baletor	balebilla
GU	bageunde	bagentoz	bagenbiz
ZU	bazeunde	bazentoz	bazenbiz
ZUEK	bazeundete	bazentozte	bazenbizte
HÁREK	baleude	baletoz	balebiz

3.4.2.2. NOR-NORK (DU aditza)

⇒ ORAINA (objektu singularra)

	EUKI	JAKIÑ	ERUAN	ERABILI	JARDUN
NIK	da(u)kat ³⁶ ja(u)kat ja(u)kanat	dakitt jakixat jakiñat	daruat jaruat jaronat	dabitt jabixat jabiñat	dihardut jiharduat jihardunat
HIK	da(u)kak da(u)kan	dakik dakiñ	daruak daruan	dabik dabiñ	diharduk dihardun
HAREK	da(u)ka ja(u)kak ja(u)kan	daki jakik jakiñ	darua jaruak jaruan	dabill jabik jabiñ	dihardu jiharduk jihardun
GUK	da(u)kau ja(u)kau ja(u)kanau ³⁷	dakiu jakixau jakiñau	daruau jaruau jarunau	dabilgu jabixau jabiñau	diharduu jiharduau jihardunau
ZUK	da(u)kazu	dakizu	daruazu	dabizu	diharduzu
ZUEK	da(u)kazue	dakizue	daruazue	dabizue	diharduzue
HÁREK	da(u)ke ja(u)kek ja(u)ken	dakixe jakixek jakixen	darue jaruek jaruene ³⁸	dabixe jabixek jabiñek	dihardue jiharduek jihardune

³⁶ Oso arrunta da *EUKI* aditzaren erroko diptongoa soiltzea: *-AU-* → *-A-*. Horregatik eman ditut parentesiarekin forma guztiak: *da(u)kat*. *Dakat*, *daka*, *dakau*, *dake*... diptongoa duten formak bezain erabiliak dira, kopuruz behintzat (*-AU-*, 115 agerraldi, eta *-A-* 110 agerraldi). Flexio osoan gertatzen da alternantzia hori.

³⁷ *Jakonau* forman ere agertu zait testuetan.

³⁸ *Jarone* ere bai.

⇒ ORAINA (objektu plurala)

	EUKI	JAKIÑ	ERUAN
NIK	da(u)kaz ja(u)kaz ja(u)kanaz	dakidaz/dakiraz jakixaz jakiñaz	daruaz jaruaz jaruanaz
HIK	da(u)kaz da(u)kanaz	dakixaz dakiñaz	daruaz daruanaz
HAREK	da(u)kaz ja(u)kaz ja(u)kanaz	dakiz jakixaz jakiñaz	daruaz jaruaz jaronaz
GUK	da(u)kauz ja(u)kauz ja(u)kanauz	dakiuz jakixauz jakiñauz	daruauz jaruauz jaronauz
ZUK	da(u)kazuz	dakizuz	daruazuz
ZUEK	da(u)kazuez	dakizuez	daruazuez
HÁREK	da(u)kez ja(u)kez ja(u)kenez	dakixez jakixez jakiñez	daruez jaruez jaronez

⇒ IRAGANA (objektu singularra)

	EUKI	JAKIÑ	ERUAN	ERABILI	JARDUN
NIK	na(u)kan ³⁹ naja(u)kan naja(u) kanan	nakixan najakixan najakiñan	naruan najaruan najarunan	nabillen	niharduan
HIK	ha(u)kan	hakixan	haruan	habillen	
HAREK	za(u)kan ⁴⁰ ja(u)kan ja(u)kanan	zakixan jakixan jakiñan	zaruan jaruan jaronan	zabillen	ziharduan jiharduan jihardunan
GUK	geunkan geunkan geunkanan	genkixan genkixan genkiñan			
ZUK	zeunkan	zenkixan			
ZUEK	zeunken	zenkixen			
HÁREK	za(u)ken ja(u)ken ja(u)kenen	zakixen jakixen jakiñe(be)n	zaruen jaruen jaronen	zabixen	ziharduen jiharduen jihardunen

³⁹ Gutxixegotan, baina *neukan* ere erabiltzen da.

⁴⁰ *Zeukan* ere erabiltzen da, *zaukan* baino gutxixego hau ere.

⇒ IRAGANA (objektu plurala)

	EUKI	JAKIÑ	ERUAN
NIK	na(u)kazen naja(u)kazen naja(u)kanazen	nakixazen najakixazen najakiñazen	naruazen
HIK	ha(u)kazen	hakixazen	haruazen
HAREK	za(u)kazen ja(u)kazen ja(u)kanazen	zakixazen jakixazen jakiñazen	zaruazen jaruazen jaronazen
GUK	geunkazen	genkixazen	
ZUK	zeunkazen	zenkixazen	
ZUEK	zeunkazen	zenkixezen	
HÁREK	za(u)kezen ja(u)kezen ja(u)kenezen	zakixezen jakixezen jakiñezen	zaruezen jaruezen jaronezen

⇒ BALDINTZA

	EUKI	JAKIÑ
NIK	baneuka	baneki
HIK	baheuka baheuka	baheki bahekiñ
HAREK	baleuka	baleki
GUK	bageunka	bagenki
ZUK	bazeunka	bazenki
ZUEK	bazeunkazue	bazenkixe
HÁREK	baleuke	balekixe

Gatozen, amaitzeko, *ESAN* aditzaren erabilera trinkora:

	*-IO- (esan)
NIK	diot jiuat jionat
HIK	diok dion
HAREK	dio jiok jion
GUK	diou jiuau jionau
ZUK	diozu
ZUEK	diozue
HÁREK	diue jiuek jione

3.4.2.3. ADITZ TRINKOEI BURUZKO OHAR BATZUK

NOR ADITZAK

1. Bokal arteko *-G-* kontsonantea ez da ia ahoskatu ere egiten *EGON* aditzari dagozkion formetan: *nago* → *na(g)o* → *nao*; *dao*, *hao*, *daok*...

2. Pluraleko pertsonetan *daoz*, *zaoz*... formak ere erabiltzen dira, *daude*, *zaude* eta horrelakoekin batera, baina azken hauek dira askoz arruntagoak.

3. *Gaude*, *zaude*, *zaudeten* adizki hauetan, beste adizki askotan bezala, alternantzia dago R-dun formekin: *gaude/gaure*, *zaude/zaure*...

4. *Gaiezak* eta *gaienaz* formak ere entzuten dira *guazak* eta *guanaz* adizkiekin batera.

5. Iraganean, *gauden* eta *gatozen* formak ere erabiltzen dira, *geunden* eta *gentozen*-ekin batera.

6. Beste adizki batzuetan ere, iragangaitz nahiz iragankorretan, bada iraganeko aditz-formetan *-a/-e-* alternantzia hori: *naukan/neukan, zaukan/zeukan, zabillen/zebillen, zabizen/zebizen, zakixan/zekixan, nauan/neuan, zauan/zeuan...* Maiztasunaren aldetik, askoz gehiago erabiltzen dira *-a-* dutenak, eta horregatik eman ditut tauletan forma horiek; hala ere, adierazi nahi izan dut *-e-* dutenak ere erabiltzen dituztela. Gaur egungo erabileran, *-a-* dutenak doaz nagusituz erabat.

NOR-NORK ADITZAK

1. *EUKI* aditzaren paradigmaman, oso arrunta da *-AU-* diptongoa soiltzea, *AU* → *A* egitea; horrela sortzen dira forma bikoitzak: *daukat/dakat, naukan/nakan, jaukan/jakan...*

2. Zenbait aditzekin (*jardun*-ekin, adibidez), gaur egungo erabileran behintzat, ez dira paradigmako forma guztiak erabiltzen; ez sistematikoki bederen. Forma trinkoa erabili beharrean, forma perifrastikoetara jo izan du hiztunak halakoetan: *jardun jonau, jardun jone, ein jone*, eta abar. Edo, bestela, beste aditz batzuetara: *lanian jabik, lanian daok*, eta abar, *lanian jiharduk*-en ordez.

3. *ERABILI* aditzaren paradigmaman, tarteko *-RA-* batzuetan ahoskatu ere ez da egiten: *Zer dabizu Elgoibar aldian? Zer dabixe gurasuak? Zeuk zabizun autua? Bai, neuk nabillen autua*. Batzuetan, bokal luzea ere entzun daiteke: *ze daabizu?*

4. Objektu pluraleko formetan, lehendabiziko pertsona singularrean, alternantzia dago *-daz* bukaeraren eta *-raz* bukaeraren artean; beste aditz askotan bezala, beraz, *D / R* alternantzia dugu hor ere. Bestalde, bokalarteko testuinguru horretan, *D* edo *R* leun hori galtzea nahiko arrunta da, eta, ondorioz, baita *daruadaz* → *darua(da)z* → *daruaz* ahoskatzea ere.

5. Zenbait aditzetan, eta iraganeko formetan batez ere, hutsuneak gertatzen dira paradigmatan, ez baitira pertsona guztiak erabiltzen. *Eruan, erabilli* eta *jardun* aditzen kasuan, adibidez, ez dira erabiltzen pertsona guztiei dagozkien formak, taulan ikus daitekeen bezala. Halakoetan, aditzaren forma perifrastikoetara jotzen du hiztunak gaur egun: *eruan genduan* (**generuan*), *jardun genduan* (*??geniharduan*)...

6. Pluraleko pertsonetan, berriagoak dira beste forma analogiko hauek: *zaukagun, zaukazun, zakigun, zakizun, zakizuen* eta abar. Eta nik aztergai ditudan hiztunen artean bakanak dira era horietako adibideak.

7. Beste adizki batzuetan bezala, *-an/-en* alternantzia gertatzen da adizkiaren amaieran: *genkixan/genkixen*.

▪ ERABILERA-ADIBIDEAK

Hona aditz trinkoen adibide batzuk, sintaxian txertatuta emateak haien erabilera argituko duelakoan.

– Aditz trinko iragangaitzak

(731) (...) *bakarrik, batzutan, gitxittan, baiña haura kalera dixenian, baka-
rrik.*

(732) *Erderaz ere edarki etortzen dok hori, baiña enajiek erderaz eittera he-
men.*

(733) *Da, injineru horrek ere, pentsau zaban: “ba ya itxasora guazak,
itxasora guazak!”.*

(734) *Berroeta bost eguneko permisuaikin etxera. Eta tallarrian nabixan la-
nian, eta bueno, etxera etorritta, zeoze irabazi ein bihar.*

(735) *Eta basarrixan zaudenak eote zittuan kaleko langillien tallarrian, gu
bezela tallarrian zabizenen zai.*

(736) *Entzunda hao sekula holakorik?*

(737) *Andra gaztiak eta, bizkaitarrak eta, daure asko.*

(738) *Hemen bajauan, baiña garixa ixotzekorik ez. Artuanak bai, bajaua-
zan, baiña etxauen lagatzen.*

(739) *Irunen gauazen, eta handik jaiero etortze giñuazen.*

(740) *Urruti naok?*

(741) *Girua daok oiñ edarra.*

(742) *Gurian lau lagun gauaz, eta hiru kotxe dauaz. Eta neu naok ko-
txeripekorikan.*

(743) *Mendixan-da lan txarrak badauaz oiñ ere.*

(744) *Bageundezen, hiru lagun zian eurak eta beste bost kriaui, bagenguazen
da...*

(745) *Baiña zein izan leikien enaiz konturatzen. Kurutzetakuak hōnek ez al
dia, ba, hamen residentzian daozen hōnek?*

(746) *Gero, pentsau juan Zaragozara eruatia. Han jauazen beste bi taller
txiki, eta hārekin bat ein juen hirurak.*

(747) *Tallar batera sartu zien aittak eta amak. Gerria jatuan, ba, gerria
zatorren, eta taillarrera sartu nitzan.*

– Aditz trinko iragankorrak

(748) *Horrek zian dirua zaukenak.*

(749) *Ganauak badaukauz. Oin ganau gitxiao daukau.*

(750) *Istorixak asko jaukaz nik, Jesus, Maria ta Jose!*

(751) *Gazteena zuan hori, hamabi urte ero jaukazen.*

- (752) *Bueno, nik badaukaz bi edo hiru, baiña...*
- (753) *Takua lodixa eta kolkora. Eta takillan ipiñi, eta hurrengo kalera jute giñanian erun kalera, tabernan amistadia geunkan lekuan...*
- (754) *Baiña aprobe txatzeko gauza haundirik etxakan.*
- (755) *Honek keja haundixa jakan.*
- (756) *Eta lelengo pisuan zaukagun, hango sala baten, su bajua, eta gaztaiñak erretze zitxuan gure aitxak, batez ere Domusantu egunian.*
- (757) *Guk erderia dabilgu gehixao.*
- (758) *Ze lan da(r)abixe hor?*
- (759) *Hauraxe zuan hola pixkat jazte zana, eta haretxen gaztetako erropia jabik horrek, neretzako.*
- (760) *Lehenago han ziharduen langilliak soldau jun zittuan asko.*
- (761) *Nik dakidana dok astuak haruzkuan neka-neka einda jute ziala.*
- (762) *Kalian etxakixek euskeraz iñok ere.*
- (763) *Erromerixan, guk ez gendun dantzan asko eitten, ez genkixen da.*
- (764) *Eta pentsau'ik, haura hil tzala ointxe datuaz hamar urte.*
- (765) *Ni enaiz gogoratzen noiz etorri zian, baiña, hamen urte batzuk zarua-zela, Etxezurixa, Lizundia apellidua...*
- (766) *Entierro baten izen giñuazen, eta txikito batera sartu nitzuan ni taberna batera, eta han jiharduan, erderaz bera. Bozian ezautu najuan.*
- (767) *Izetez, Aranbelzkua nok, baiña hemen jaruaz berroeta hamaika urte ez konduta.*
- (768) *Hala jion launak.*
- (769) *Honek lokala jiok paiña. Lokala jiok honek paiña, lokala!*
- (770) *Iziar esate giñon baten illoba bi, da bikixak emate juan ziala, baiña ez zitxuan, da hala jiok eze: “-Jon!”.*

▪ ADITZEN ERABILERA-ADIBIDE GEHIAGO

Berez askoz ere arruntagoa da indikatiboko adizkiak aurkitzea testu libre-tan subjuntibokoak eta ahalerakoak baino; ez dut maiztasunen chunekorik atera, baina ez dut zalantzarik egiten desberdintasun handia dagoela indikati-boaren eta gainerakoen artean.

Hori dela eta, hain ugariak ez diren adizkien adibideak ekarri nahi izan ditut hona.

- BALDINTZA

(771) *Bestela, hasten bazara gauza bat pentsatzen bakarrikan, ba, zeoze bal-din badaukazu, gaixua edo bestia, ba, txarrao.*

(772) *Gero, lana eitteko, aldia dao. Beti makiña baten baldin bazabiltza, ba, hauraxe hartze'ozu bakarrikan.*

(773) *Eta pixkat ibilitta bazaoz fresadoran, edo mandrinadoran edo, (...) "jun biha dok hona, hau da inportantia, rodamentuen ajustia dao hamen da".*

(774) *Oiñ, makiñiak berak eitten dau lan gehixena. Guk ezkenduke ikesiko hori oiñ.*

(775) *Geuri berbetan eurak [kanpokoek] baldin badihardue, ba, soltatze jakuz geuri ere euren berba batzuk, euren tipora berba eittia. Baiña kontinuamente, ez.*

(776) *Eta bestela, harek zeoze argixa edo mobimentua ikusi balebe, etxian zian laster.*

(777) *Loterixian, asko ez, berrogei bat milloi erten ezkeru, ba, neuk pentsauko'ot zertan, baiña derrepente gastauko neuke.*

(778) *Ta hori peligrasua izate'ok oin, txispa bat jun ezkeru, horrek esplotau eingo leuke.*

(779) *Iual depositoren bat bai hutsikan, baiña bestiak beteta. Zeatik eze, itxasuak harrapau ezkeru, bolkau eingo leuke, edozer gauza eingo leuke.*

(780) *Ta abioietan, automobilian balitz bezela azeleratzeko eruan bihar balitzake, ba, kantsau hankia eta laga, eta igerri be, ba, jausi behera, ezta? Eta kantsauta lagatzen baok, ba, zela indarra hartzen daban... gora haura.*

(781) *Ta zela izaten dan gauzia, e! Haura ikusi bagendu guk...*

(782) (...) *bai, ba, etxuat estudixau ta. Estudixau baneu pixkat, ba bai. Baiña jolin! Neri ez'iak esan neri oiñ, larogei urtekiñ: enok hasiko oiñ estudixatzen euskaria.*

(783) *Bronkitisa harrapatze zaban, bronkixuak harrapatze ziuena da; orduantxe zertu ez pagendu, deskuidatzen bazara, gaur kroniko zauan. Esan diot majiña bat bidar honi: aldrebes etorri balira, ume batekin geratuko giñan.*

(784) *Basarrixan illunduko ezpaleu, ezkiñoke lagako lanari, e!*

(785) *Zera-ta barrez. Harek pixkat serixuao eon balira, iual hobe.*

(786) *Baiña ikusten bazeben gabian Azkaratetik (gure basarrixan bistan dao) argixa edo, ikusten bazeben, da! Iual etortze zittuan.*

- AHALERA

(787) *Eta etxuan erten harek. Bilddurtu ein tzuan, ezin tzaikiela harek ein da.*

(788) *Berak konsultau, eta beste bat billau laikiela, ala nahi izan ezkeru, baiña...*

(789) *Ibilli zan arrankau nahixan automobilla, baiña nik kendu nion pieza bat iñok erabilli ez zeixan, pieza bat txispia emate dabana. Haura gabe ezin zeikien jua garai haretako automobillak.*

(790) *Nik esaten dot eze edozeiñek haura ezin zeikiela ibilli haura katxarro zahar haura.*

(791) *Akontezimento haundixa zan haura. Zein jua leikian Debara!*

(792) —*Eta, zeu manejatzen? —Ez, maneja neikian, edo ezta kitt artietan karneta eukiko naban, Angel Unzuetak, Elgoibarko semia zan.*

(793) (...) *eta azkar asko multia ipiñi. Ezin leike aguantau hola.*

(794) *Oiñ, bigarren junaldixan, gu Burgosen eon giñan, Burgosetik aurrera. Eta handikan ezin etorri izete giñan, urruti tta...*

(795) *Diferentia dana. Ba, aurrera beittu biha da, atzera ezin laike beittu.*

(796) *Oin dakaten suelduakin ezin laike eñ holakorikan baiña.*

(797) *Gure aittak zera eskatu, jornal gehitxuo aber eman leikien, estu zabilleta ta, eta nagusixak kontestau zion ezetz, “gure artikulu horrek konpetentzia haundixa dauka, eta ezin neike”.*

(798) *Haiñ azkar ezin leikezek etorri.*

(799) *Pentsau ere ez ostian. Ezin tzeinkian: batetikan, automobillik ez zauan, autobusik ez zauan, eta zaldixekin karruak eziñ ipiñi.*

(800) *Baiña zein izan leikien enaiz konturatzen. Kurutzetakuak hónek ez al dia, ba, hamen residentzian daozen hónek?*

- SUBJUNTIBOA⁴¹

(801) *Bueno, ezteixogun amenazu gehixegi eman koittauari, ehun urte jaukaz ixa ta.*

(802) *Ibilli zan arrankau nahixan automobilla, baiña nik kendu nion pieza bat iñok erabilli ez zeixan, pieza bat txispia emate dabana. Haura gabe ezin zeikian jua garai haretako automobillak.*

(803) *Oiñ ein daban eurixa ere, ba, mesederakua da patatiantzako ta. Asko eztaixela eñ. Oin komeni da eualdixa garbitzia, garbi egon dailla. Osasunerako ta, garbi eon dailla.*

(804) *Guri, guri etxaku geratzen astirik, baiña behintzat ondoren datozenak ere, ba, eutsi deixela. Gure aittak eta amak, hola ta hola eitte zaben berba ta.*

(805) *Halakotxe toki bat erosi, garajia hurrian izan deixela, eta auto bat. Gero, ibili, batera ta bestera.*

(806) *Imajiñarixia ze dan? Ba, guardixia eittia edo, guardixa moruan, imajiñarixia. Ba, eztaixala iñor sartu kuartelera.*

(807) —*Ze moduz umiak? Ondo? Hori dok, osasuna behintzat euki deixela!*

⁴¹ Adibideetan ikusten den bezala, perpaus osagarriak eta helburuzkoak osatzeko erabiltzen da subjuntiboa. Sintaxiaren kapituluau daude sailkatuta subjuntiboko formak, balio horien arabera; hemen ere, lehenbizi osagarriak eta gero helburuzkoak ezarri ditugu.

- (808) Orduan, kuestiua zuan lana eon deilla, pediduak eon daitxiala.
 (809) Ni hiltze naizenian, iñok eztaixela negarrrik iñ.
 (810) Beno, eon geitxien trankil behintzat, eztou iñor hil da, ze karajo da orduan!
 (811) Baraurik jute giñuazen etxetikan, eta bezperan arpegixa garbittuta geñera, ur tantarik sartu etzeiñ, pekatua zala ta.
 (812) Eta beti indiziua, beti indiziuak, kalenturia ezteiñ eon.
 (813) Eta abioiak, ba, jute ittuk, pilotua kantsau ezteixan, hankak libre, ez automobillian balitz bezela.
 (814) Ta hamenguak Bitorixa aldera bialdu ere bai. Armuetako tiok, bere seme bat halaxe, Irene karnezarian basarrira eruan jonan, denporale bat eitxeko, erderaz ikesi zeixan.
 (815) Hantxe zaudezen, euren misiua, kamiñua ta zertzen, pasau ez zein gorririk, txapel gorririk.
 (816) Lau poste altuak, eta gero harek belak, baakizu, telia ipini bihar, itxasuan juan tzeiñ [belaontzia].

- AGINTERA

- (817) Laga`ik nobixia. Beste bost bat urtian laga`ik. Berakin hasteko gero, e! *Disgusto haundi hori ez`ixok eman, bestela...*
 (818) “Hau begiratu`izu, eta ipini`zu etziko edo”, esate giñon.
 (819) Markiña aldian-da? Enteniu`ik hango euseria!
 (820) “Ez juan urrutiregi”, hola esan tzian, “geldittu hari, geldittu hari!”.
 Eta juntau giñan bixok, eta esan tzian eze “ez e(g)ik pauso bat gehixao eman, zeatik eze beheraiño etorritta dauaz tankiak italianuak eta.
 (821) Bai, danian pasatzen dana. Konparazio baterako, kanpora juan zaitte, eta radixo bat hartu`izu, eta, Kataluña izan edo Valentzia izan, diperente eitten dabe.
 (822) Gaur arratsaldian eztaok iñorako zerarik, eta jun hari, jun hari eskolara.
 (823) Etara, heldu`ixok billurri(k) pe, hori ittota daok eta. Hori aingiria dok.
 (824) “Etorri hari hona”, esan zian.
 (825) —Benga! Su ema`ixok!
 (826) Hori preparau ein biha dau, denpora asko bihar jok —satén naban— hainbeste presumitzen dakizuela gauzia, eta ezer ez. Ba, ikasi`zue zela dan orduan hori.
 (827) —Kend`ik hortik eskua, bestela horrek ebai eingo dik eta!
 (828) Bueno, eruan eingo dou, eta ez zaittezte estutu, hola ta hola aprobia eingo dou ta.
 (829) Hori galdetu`ixok aittari. Aittak esango dik hori.
 (830) Gure lengusu batek, zerak, San Lorentzokuak esate zian: “arpegixa ipini`xon behintzat, berba egixon behintzat gizajuari, beittu`ixon behintzat”.

4. SINTAXIA

4.0. SARRERA

Elgoibarren erabiltzen diren egitura sintaktikoak bilduko eta aztertuko ditut kapitulu honetan. Horretarako, Euskaltzaindiko Gramatika batzordearen *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak* gramatika-bilduma hartu dut oinarritzat: perpaus juntatuei, mendeko perpausari eta lokailuei dagokienez, ontzat eman ditut han egiten diren sailkapenak, eta lan honetara ekarri ditut sailkapenok. Egitura bakoitzaren erabilera argitzeko adibideak, noski, Elgoibarko hizkerakoak dira, eta ez *EGLU*etakoak.

Kasu honetan ere, beste kapitulu batzuetan bezala, bereizgarriak diren egituren lekukotasunak jasoko ditut, batez ere perpaus juntatuetan. Mendeko perpausen eta lokailuen kasuan, adibide-bilketa orokor samarra egingo dut.

Egitura bakoitzaren azalpen teoriko gutxi egingo dut; behar-beharrezkoak iruditzen zaizkidanak bakarrik. Azalpen horiek beste gramatika orokorrago eta teorikoago batzuetan aurkituko ditu haien bila dabilen irakurleak, ez hemen. Egitura bakoitzaren lekukotasunek osatuko dute, beraz, kapitulu honen ardatza.

Perpausaren barneko sintaxia landuko dut lehendabizi: batetik, perpaus juntatuak; hauetan, maila sintaktiko bereko perpausen elkartze edo juntatzea gertatzen da; beste era batera esateko, juntagailuen bidez (*ETA*, *EDO*, *ALA*, *BAINA*...) egiten den juntadura. Bestetik, mendeko perpausak izango ditut hizpide; perpaus mota hauek menderagailuak erabiliz osatzen dira (*-eN*, *-eLA*, *-eNEAN*, *-eLAKO*, *-eN ARREN*, *BA-*, aditz jokaturgabeak...), eta goragoko sintaxi-maila duen perpaus baten (perpaus nagusiaren) edo perpaus nagusi horretako osagai baten mendekoak dira.

Kapituluaeren amaieran, testu-mailako sintaxiaz ere jardungo dut, esan bezala. Esaldiak elkarrekin testu-mailan semantikoki “lotzeko” (hortik, *lokailu*

terminoa¹) erabiltzen diren gailuak bilduko ditut. Hor ere Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak lehen aipatu dudan gramatika-bilduman egin duen sailkapen semantikoa erabiliko dut oinarritzat.

Dialektologiari dagokionez, egia esateko, sintaxia ez da izan arlo eman-korregia, pertinenteegia, orain arteko dialektologiaren tradizioan, euskalkien eta hizkeren sailkapenak egiteko; alde horretatik, interesgarriagoak iruditu ohi zaizkie dialektologoei fonologia, morfologia —izenarena eta, bereziki, aditzarena— eta lexikoa; ikusi besterik ez dago zenbateko pisua izan duen sintaxiak euskalkien sailkapenak egin izan diren lan garrantzitsu batzuetan (aita Zabala, Bonaparte, Azkue, Yrizar...). Gaur egun, gehiago hartzen da kontuan (Euskaltzaindiaren atlasa, Zuazo...).

Hala ere, lan dialektologikoetan aitortu behar zaio, nik uste, bere lekua sintaxiari ere: halako menderagailu jakin baten hedadura noraino iristen den, beste egitura hau alboko herrian bai baina gurean gertatzen den ala ez... Badu halakoetan zeresana sintaxiak.

Horrez gainera, badu bestelako interesik ere kapitulu honek: gramatika-lanetan maiz izaten ditugu zalantzak halako menderagailuak edo egiturak zer nolako balioak izan ditzakeen ebazterakoan, edo bestelako menderagailu zaharkitu bat oraindik erabiltzen den ala ez zehazterakoan... Halako kontu gehiago ere bai.

Hori gogoan izanik, Elgoibarko hizkeraren sintaxi-egituren bilduma edo gramatika txiki bat egin nahi izan dut, nahiz jakitun naizen dialektologiaren ikuspegitik ez dela oso pertinentea, adibidez, *-eLA* menderagailua duten adibi-deak jasotzea.

Gatozen, bada, sintaxi-egituretara.

4.1. PERPAUS JUNTATUAK

Perpaua juntatuetan, adibideak bildu ditut batez ere, perpaua juntatu moten adibideak. *EGLU*etako sailkapena jarraitu dut (emendiozkoak, hautakariak eta aurkaritzakoak), eta azpiatalaren amaieran perpaua juntatuen molde berezi batzuk jaso ditut, bigarren osagaia elidituta duten egiturak, hain zuzen.

¹ Gramatika batzordearen *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak III (Lokailuak)* liburukian erabili zen, nik dakidala, lehenbiziko aldiz termino hau testu-mailako lotura bideratzeko gailu hauek izendatzeko.

4.1.1. PERPAUS JUNTATUEN ADIBIDEAK

4.1.2. EMENDIOZKOAK

▪ **ETA**

(831) (...) *eta hartu ardixak, eta jute nitzan Elgoibarko plazan zihar.*

(832) *Eta etorri zian, da bertan tratau. Eta gero, harek erten, da ni sartu.*

(833) *Gero autopistiak bota ein ziun basarrixa, ta gu jun giñan horra behera; hor behian erosi giñun tabernia, ta hortxe bizi izen giñan hau eñ, da zertu arte.*

(834) *Radio Euskadi, asteunian zazpiretako partia entzuten dot nik. Ra, emate'iot orratzari, eta topatzen det, eta lagatze'iot, eta orratzari pixkat eraitte'iot... Kontra-kontran daure alkarrekin Radio Popularra eta Radio Euskadi.*

▪ **EZ EZE**

(835) *Hori ez eze, beste okerren bat eingo dau ume bihurri horrek.*

▪ **BANAKARITZA**

Bata ... bestia ...

(836) *Eta bizi, hemen bizi dia? Bata bai, bestia ez.*

(837) *[Erromerian] jente asko izete giñan. Toki askotan. Batian batera, bestian bestera. Holaxe.*

(838) *Fubola ere bai, e! Danerakuak. Batari bata gustatze (j)ako, bestiari bestia.*

(839) *Hurrengo emendau, eta batian ura, bestian harrixa palta, bestian... Bueno!*

(840) *Enteniu eitten dou, ba, batak baiño bestiak hobetuao. Eske, toki batzuetan bixkor eitten da.*

(841) *Gurasuak zian bata Santsongua, ama, eta bestia Gaartza basarrikua, San Lorentzotik goratxuo, aitta, zian.*

(842) *[Trenak] bata topua zan, da bestia bizkortxuaua. Bestia, Nortia, bizkortxuaua.*

(843) *Hamasei urtera arte, ba, etxian. Batian hara, eta bestian hamentxe, zeera jun be. Etxian, dirurik irabazi be.*

(844) *Pertsonia jaixotzen danetikan gastatzen hasitta dao, eta urtia juan eta urtia etorri, gastatzen: batian katarruak, bestian bihotzekua, eta bestian estomagogua.*

(845) *Kotxia kostau eitzen da. Bateko, pintxazua dala, ta besteko, eztakitt ze dala.*

Juntagailuaren bidez: *ETA, EDO...*

(846) *Etorri nitzuan, da geizki edo ondo, hemen gabixaz, bueltaka.*

(847) *Egunero harek bi buelta eitte jaittuek. Jai tta aste, e!*

(848) *Eta hamen ibili nitzanian ere, gaixorik, jo batera ta jo bestera ibili nitzanian ere, ba, andria zan, eta harek laguntze zian dana.*

Aditz-partizipioaren bidez eginiko banakaritza:

(849) *San Migelen izen, hemen izen, hemen San Lorentzon izen, hemen goi etxietan izen, berdiñ, iual eitte juau danok euskeraz.*

(850) *Bai, danian pasatzen dana. Konparazio baterako, kanpora juan zaitte, ta radixo bat hartu izu, eta katalana izan, edo Valentzia izan, diperente eitten dabe.*

(851) *Honentzako etxe haren aurretik pasau, atzetik pasau, ez zala alde haundirik eongo, berdin samar izango zala, eta hárentzako libertade haundixa zan atzetik pasatzia, nik uste'ot errazoaia zakela hórrek.*

(852) *Hiri esan edo paretari esan, berdin dok!*

Zenbait elementuren errepikapenaren bidez eginiko banakaritza:

▪ Bai... bai ...

(853) *Gero, Durangotikan, ba, oiñez, bai juan da bai etorri, Urkiolarako atzera-aurreria.*

(854) *Hemen bizi izanda, bai Elgoibar ta bai Markiña, bi aldiak hartze genduzen.*

▪ Dala ... dala ...

(855) *Basarrixan beti dakazu edo sagarra dala, edo patatia dala, edo hau dala, bestia dala. Denporia pasaez, ba, gustora.*

(856) *Zu, honek porruok, hasi landaratik, hazittik, gero landaria, gero bata dala, bestia dala, jorratzia ta, bedarra ataratzia ta...*

(857) *Kotxiakin erretz bajatzen da herrira, baiña kotxia kostau eitten da. Bateko, pintxazua dala, besteko, eztakitt ze dala...*

(858) (...) *eta gero deportiak eote'ittuk, emate'ittuenak, inpormaziuan ero. Hórretan, azkar, horretan: Aixkura-jokua dala, bestia dala, Perurena dala, ...*

▪ Nahiz ... nahiz ...

(859) —*Neri deporte gehixen gustatze (j)atana, fubola. —Neri ez. Neri gustau, gustau... bai [fubola], baiña nik nahixo dot nahiz pelotia, nahiz harri-jasotzia edo aixkoria.*

(860) *Eztauena hil bihar da, nik beti esan dot, ba, sasoian dauan personia; por ejemplo, ume gaztiakin, nahi aitxa nahi ama ero hiltten da, ta aber ze panorama geratzen dan!*

▪ **Edo ... edo**

(861) *Len, basarrixan behiñ urte bi, hiru ezkeru, benga: edo atxurra, edo segia laste izete zan. Behiñ sei-zazpi urtera ezkeru, segia. Eta lan goorra.*

4.1.3. HAUTAKARITZAKOAK

▪ **EDO**

Bokalarteko -R/-D- alternantzia dela eta, oso arrunta da *ERO* ahoskera hartzea. Testuinguruaren arabera eta jardun motaren arabera (lagunartekoa, bizkorra, arduragabea), beste aldaera hauek ere izan ditzake: *EO*, *O*.

(862) (...) *eta gero atsaldia libre; atsaldian jute giñan Elgoibarrera, kalera; handikan etortze giñan edo uda partian musikara edo pasio bat ematera.*

(863) *Ni izan banitz kalia edo bizimodu erretz bat izan baneu...*

(864) *Udan zera, bedarra ebai edo ardixak zainttu edo zeoze; beti zeoze.*

(865) *Abixau ein bihar. Teleponua jo bihar ero bazkaixa aparte ein bihar.*

▪ **ALA**

Galderez ari garenean (galdera zuzenez nahi zehargalderez), *ALA* juntagai-lua ere erabiltzen da:

(866) *Gero, hurrengo kartia zan ondoez bat eman tziola. Eta eongo zan ala etorriko zan, eta ni enuala esan nion hari, harek zela esan tzian hori... Ni enixela.*

(867) *Bueno, martxan daok hau ala ez?*

(868) *Eta, oiñ eztakitt zu sarri pasatze zaran ala ez, baiña...*

4.1.4. AURKARITZAKOAK

▪ **BAIÑA²**

(869) *Ez, konparaziorako, ni han jaixo, baiña hazi hemen.*

(870) *Hamen etorri zianian, pentsatze zaban jentiak, ba, etzala jungo mutillik soldau, baiña gero hartu zittuen atzetik.*

² Aurkaritza (edo, nolabait esateko, desberdintasuna) adieraz daiteke aditz jokatu gabea (aditz-izena) duen egitura baten bidez ere. Ikus ondoko hau:

—Hango frontoia ze izango zan, Plazako frontoia bezelakua? —Iuala! Iuala! Kubiartua izatia; oso frontoe politxa.

(871) *Eta gero, Zumarra(ga)ra jun tzian hemendik. Baiña penaz jun tzian, ohittuta zauden-da hemen, San Lorentzo aldian.*

(872) *Bertakuak izen dienak badakixe, basarrikuak dienak askok, baiña kalian jaixotakuak ze daki, ba, basarriko berri? Kanpuan ibiltzia dala, euzkixa hartzia, eta kitto!*

4.1.5. IZEN-SINTAGMEN JUNTADURA BEREZI BATZUK

Jakintzat ematen den informazioa ez emateko, edo esan nahi duguna zehatz esan nahi ez dugulako, juntagailuak era berezi batean erabiltzen dira izen-sintagmetan: jakina da juntagailuek maila bereko bi unitate (sintagmak, perpausak...) edo gehiago elkartzen edo juntatzen dituztela; kontua da hemen aipatzen ari garen egiturotan bigarren osagaia isildu egiten dela, lehen esan ditugun arra-zoiengatik; hala geratzen da juntagailua sintagma baten bukaeran.

4.1.5.1. IZEN-SINTAGMA + *ETA* + Ø

(873) *Hemen, ortuan da batutakuak.*

(874) *Etxia-ta kalian daukaz, baiña ze eingo dau han, ba?*

(875) *Gero, txahalak-eta kenduta daukuz.*

(876) *Hamar anai-arreba zian gure ama ta.*

(877) *Txarra, berua, ura ere txarra, ura ere bidoietan; ipiñi hola ura bidoietan, ekarri automobillakin da, eta bidoietan. Eta ura epel-epel-epela, txarra.*

4.1.5.2. IZEN-SINTAGMA + *EDO* + Ø

(878) *Umiak badaukez, bost edo, baiña hazitta.*

(879) *Han bertan eguneko etxakixat ze pagatze ziun. Pezetia edo zuan eguneko.*

4.1.5.3. *ALA* ASKEA

Ala-ren kasuan ez dira izen sintagmak, perpausak baizik. *Ala*-k berez bigarren perpaus batekiko juntadura egiteko balio du, baina sarritan bigarren perpaus hori eliditu egiten da, edo haren ordezkotzat den ezeztapena bera bakarrik geratzen da.

- (880) *Ez zauan, ba, razonamiento kartillarik eta, ala?*
 (881) *Hori, baiña, ezta txarra, ala?*
 (882) *Eztakik ni nungua nitzan, ala?*
 (883) *Bueno, martxan daok hau ala ez?*

4.2. MENDEKO PERPAUSAK

Menderakuntzaren barruan sartu ditut aditz beregainaz bestelako aditzak dituzten perpausak, beti perpaus nagusi baten edo nagusi horren osagairen baten mendean daudenak. Egiten den sailkapena semantikoa da lehen maila batean; gero, atal bakoitzaren barruan, formari dagokion sailkapena egin dut: berri-emaileen jardunetik bildu ahal izan ditudan menderagailu mota guztiak ekarri ditut hona, aditz jokatueta nahiz jokatugabeetan.

Gatozen, bada, gramatiketan (gure kasuan, esan bezala, Euskaltzaindiaren gramatika) erabili izan den sailkapena egitera, eta perpaus mota eta egitura bakoitzaren erakusgarri batzuekin ardatz hori gorpuztera.

4.2.1. PERPAUS OSAGARRIAK

4.2.1.1. -eLA

Hauek aditz edo predikatu baten osagarriak dira. Esate- eta pentsamendu-aditzak izaten dira batez ere era honetako mendeko perpausen gobernatzaileak, gertaera komunikatibo bat adierazten dutenak: *esan, entzun, uste izan, pentsatu, akordatu...* Aditz horien osagarriak komunikazio horren edukia adierazten du.

Hona -eLA menderagailua duten adibide batzuk:

- (884) *Eta koiñatak esate jak honek artaburua emango dabela oindio.*
 (885) *Han bai [Argentinan], beitze'ozu hola, eta lurra ustez itxasua dala, joo! Eta dana laua! Joo! Eztozu ikusten ezer ere. Dana jota lau-lau-lau-lau. Dana laua.*
 (886) *Halako baten esan jan bera aspertuta zauala bakarrik, eta etortzeko.*
 (887) *Uste'ot Elgoibar kanbixauta dauala lendik.*
 (888) *Nik esaten dot eztauala deretxorik gaur dixen beste millo estrarjerora bialtzeko Espaiñiatikan, hasi fubolista, hasi entrenadore: danak estrarjeruak daure, ekipo guztiak estrarjerez beteta daure.*

Predikatu egitura konplexuak ere izan daitezke perpaus osagarrien gobernatzaile: *egixa izan, seguru egon, entzuera euki...*

(889) *Egixa da bihar baiño ariketa gitxiao eitten doula.*

(890) *Seguru nao partidua aurrera etarako doula.*

(891) *Entzueria daukat ez ziñala elizaz ezkondu.*

Bestalde, aipatu nahi nuke adineko hiztunek ez dutela inolaz ere *-eLA* menderagailua erabiltzen era honetako perpausetan:

(892) **Kontuz Patxikin, hasarre dauala!*

(893) **Hain gezurtixa da, iñok eztiola sinisten.*

(894) **Aitta, politta dala nere soiñeko berrixa!*

Beste molde batzuk erabiltzen dituzte adiera horietarako; hona, adibidez, horietako batzuk, hurrenez hurren:

(895) *Kontuz Patxikin, hasarre dao ta!*

(896) *Hain gezurtixa da, iñok eztio sinisten.*

(897) *Aitxa, politxa da nere soiñeko berrixa, ezta?*

-eLA denborazko predikatuekin: *x urte dira ... -eLA (10 urte dia ezkondu giñala)*

(898) *Hoeta bost urte domekan ezkondu giñala.*

(899) *Eta gero, ba, ointxe dala hamabost egun izan giñan.*

(900) *Baiña gaur, hori zala berroeta hamar urte da.*

(901) *Eta pentsa'ik, haura hil tzala ointxe datuaz hamar urte.*

Denborazko egitura bat osatzeko ere erabiltzen da *-eLA* atzizkia, esapide finkatu batean:

(902) *Gero, laga najauan, oin dala hamar bat urte laga najauan [lanari].*

(903) *Eta han urria-edo billau zebela han lenao. Oin dala urte asko urria edo, zeoze hortarikua.*

4.2.1.2. EZE ... -eLA/Ø

Ahozko jardunean sarri entzuten dira halako perpaus osagarriak. Perpaus osagarriaren hasieran, *EZE* sarrera-lokailua ageri da; perpaus osagarriaren aditzak *-eLA* menderagailua eramaten du, baina batzuetan batere menderagailurik gabe ere agertzen da; estilo-zuzenean emandako aipamenak jasotzeko ere erabiltzen da (ikus azpiko adibide sortako azken hiru adibideak).

Lehendabiziko bokala galdu dezake ahoskeran lokailu honek: (E)ZE.

Hona adibide batzuk:

(904) *Nik esaten dot eze edozeinek haura ezin tzeikiela ibilli, haura katxarro zaharra.*

(905) *Eta esaten jardun zien eze haura eitzeko berroeta bi milloi arbola kendu zitxuela.*

(906) *Nere tio zan batek esate zaban eze hamen dabizen abioiak-eta itxuria amosperia dana jan dabe, hor goikua.*

(907) *Gogoratze naiz, ba, esan tzian eze “Eibarrera jua bi’ok Unzetanera”, eta “Bien”; muestria edo zeoze emango zian pieziana, eta hauraxe ekartzeko.*

(908) *“Ez jua urrutiregi!”, hola esan tzian. “Gelditxu hari, gelditxu hari!”, eta, juntu giñan bixok, eta esan tzian eze “ez eik pauso bat gehixo eman, zeatik eze beheraño etorritxa dauaz tankiak italianuak eta”.*

(909) *Bueno, esan naban eze “gaurkuakin eztok aprobauko behintzat, etxuat aprobauko!”.*

4.2.1.3. -eNA

Batez ere indarra mendebaleko euskaran duen ezaugarri bat da zenbait aditz gobernatzaileekin perpaus osagarriak -eNA menderagailuaren bitartez osatzea. Elgoibarren ere nahiko arrunt erabiltzen da, adin batetik gorakoan artean bederen (50-60tik aurrera), gazteen artean indarra galtzen ari bada ere.

Hona hemen era honetako perpaus mendekoen gobernatzaileetako batzuk hauek dira: *jakin, akordatu, dudarik ez (izan), ikusi, jakiñekua izan, uste izan, klaro, horixe...*

(910) *Horren aitxa naukan nik neure eskola-laguna. Eta edurra ere behiñ ein tzabana gogoratze naiz.*

(911) *Harekiñ, Lekeitxion, ostatu billa ibilli giñana akordatze naiz. Neuk eruan nitxuan neurekin.*

(912) *Dudarik ez eruango zitxuena!*

(913) *Hoixe etorriko dana!*

(914) *Ez, ez. Ba(d)akixe geurekin ezin leikena ezer eiñ.*

(915) *—Tristia dok, ba, euskaldun guztiak alkar ez ententitzia! —Klaro tristia dana!*

(916) *Ikuste'itxuzu aitxa ta ama kastellanuak diana, euskaldunak eztiala, da euren familixak [seme-alabek], ba, euskeraz eiñ earki.*

(917) *Hoixe ikixten genduna! Ikixiko ez gendun, ba!*

Aditz nagusia falta duten esaldiak ere arrunt-arruntak dira:

(918) *Etzaben nahi bialtzerikan harek. Nik bai beti hori esate zebena!*

4.2.1.4. -eNIK

Aditz nagusia ezezko forman behar dute nahitaez mendeko perpaus hauek; horretaz gain, zenbait aditz gobernatzaile dutela bakarrik osa daitezke era hone-tako perpausak, bereziki ustea edo iritzia adierazten duten predikatuak: *uste izan, pentsatu, iritziz, begittandu...* Beste predikatu batzuekin ere ager daiteke -eNIK, baina predikatu horiek beste menderagailu bat ere har dezakete ezezko forman (-eLA, hain zuzen); hauek dira: *esan, entzun, ikusi, jakin...* Beste predikatu batzuekin, azkenik, ezinezkoa da -eNIK menderagailua duen perpausa, eta -eLA menderagailuaren bitartez osatzen da: *ahaztu, duda egin, dudia izan, egixa izan...*³

Hona -eNIK menderagailuz hornitutako adibide batzuk:

(919) *Gu bizi gean parajia, ba, guk etxuagu hobia dauanik pentsatzen, ezta Canariasen ere.*

(920) *Nik eztot pentsatzen zahartu naizenik, ezta gitxiorik ere. Ni txabalito bat sentitze nok.*

(921) *Oiñ eztakit nik ze, osasunian, txarra daukatenik ezin leike esan: jateko gogo ona, (...); lantzian behiñ eukitze'itxut neure kejatxuak ere, ezta!*

Batzuetan galde-hitz eta guzti ager dakiguke menderagailu hau:

(922) *Zein zanik ere enakixan.*

Kontsonantez amaitutako morfema askok bezala, -AN espletiboa ere har-tu izan du menderagailu honek ondoren:

(923) *Enaban uste hain mozolua zanikan.*

(924) *Biziketia zaukan gizona, mutilla, orduan, ez geo pentsau eozein zanikan, e!*

³ EGLU V liburukian (69-76 or.) zehazten dira -eNIK menderagailuak gauzatu ahal izateko dituen murriztapenak; funtsean, zenbait predikatu jakin, perpaus nagusia galderazkoa izatea, perpaus mendeko baten mendeko izatea, eta presuposizio kontu bat. Elgoibarko erabilera aztertu eta gero, bete-betean berresten da han esaten dena.

4.2.1.5. PERPAUS OSAGARRI IZENLAGUNAK: *-eN ERREZELUA; NOTIZIA ETORRI ...-eLA; -eLAKUAN; -TZEKO KONTUA...*

Osagarri mota honetan, izen bat edo izenarekin osatzen den predikatu konplexu bat izaten da perpaus osagarria gobernatzaren duen elementua: *susmua izan, zurrumurrua entzun (zabaldu), abisua, esperantzia izan, notizia zabaldu (ekarri), errezelua izan, ustia izan, gogua izan...*

Mendeko perpausetako aditzak jokatuak (*-eN* edo, aposatua bada, *-eLA*) nahiz jokatugabeak (*-TZEKO*) izan daitezke; izen gobernatzailerik batzuek bietariko perpaus motak osa ditzakete, baina beste batzuek era bakarrekoak.⁴

Hurrenkerari dagokionez, aukera bi daude halako perpausetan: elementu gobernatzailerik mendeko perpausaren aurretik edo ondoren joatea.

Bi mota horietako egiturak erabiltzen dira gurean, baina ez nolana. Mendeko perpausa izen gobernatzailerik aurretik badoa, *-eN* menderagailua erabiltzen da, eta inoiz ez *-eLAKO*:

(925) *Bixar etorriko dan errezelua daukat.*

(926) *Laste ezkonduko dan susmua daukat.*

(927) **Bixar etorriko dalako susmua daukat.*

Ez dira erabiltzen Elgoibar inguruetan *-eLAKO SUSMUA, -eLAKO US-TIA...* gisako egiturak. Izen gobernatzailerik isilduta dagoen kasuetan bakarrik erabiltzen da *-eLAKO* menderagailua (*egon* aditzari lagunduz normalean: *-eLAKUAN EGON*):

(928) *Eta harek eztakixe, barren, ze dan, zela hartzen dan hori. Lurretik, eta gaiñera, ipiñi eta bere kasa urtetzen dalakuan.*

(929) *Eta alabantzat ere, beste hainbeste geratuko dalakuan gaure.*

(930) *Baten, balia hementxe [izterrean] sartu, Gabonetan zan, eta hementxe geratu: "Hau hazurrau apurtu da", hemendikan erten zialakuan, zuluza zauan da.*

(931) *Urtiak zela dixezen, e! Lenguan zalakuan, baiña...*

(932) *Eta sasoe hori hola zan, lana ein biharrekua. Errekreorik etzauan. Bai, bai, holaxe zan! Halaxe ikisitxa, eta halaxe biha zalakuan.*

(933) *Oiñ harrokeixa gitxi! Len bai, fran-faran. Urkiolara juate baginān, mundua ein gendualakuan. San Antoniora jua, eta... uff!*

⁴ Ezin izango litzateke onartu, adibidez, honako perpaus hau:

*Gu bixok datorren urtian ezkontzeko zurrumurrua zabaldu da herrixan.

Nahiko egitura erabilia da, ikusten den bezala, baina ez da guztiz emankorra: ez du balio zernahi predikaturekin erabiltzeko; egitura egina da: *-eLAKUAN EGON*.

Bigarren motako perpausak dira, nolnahi ere, erabilienak perpaus izenlagun osagarrietan: alegia, izen edo predikatu gobernatzailea mendeko perpausaren aurretik kokatzen den egitura (*perpaus osagarri izenlagun aposatuak* esan geniezaieke). Halakoetan, mendeko aditzak daraman menderagailu arruntena *-eLA* da, baina *-eN* ere har dezake.

(934) *Ba, atzo Jose Luisek ekarri deu notizia gizona oso gaizki dauala, buruan daukala tumorra, eta oso geizki ei zauala.*

(935) *Errezelua daukat bixar etorriko dala.*

(936) *Eta gu lelengo bilddurrak, hantxe jausiko ete dan!*

(937) *Eualdixan kanbixuetan-da, igerri eitxe (j)ako. Eta nik neuk ere, ba, eskerrak hantxe moldau nitzan. Eta harrezkero, ba, urtero juate gara.*

Edo, bestela, aditza jarririk mendeko perpausaren eta izen gobernatzailearen artean.

(938) *Bixar etorriko ete dan dakat errezelua.*

Beharbada ez dira orain artekoak bezain ohikoak, baina aditz jokatugabea erabiliz ere osatzen dira perpaus osagarri izenlagunak. Halakoetan *-TZEKO* menderagailua erabiltzen da:

(939) *Oiñ Gabi, Txaltxa ero lagatzeko kontua dauke. Egixa ete da?*

(940) *Etxe asko, tallar asko eitxeko kontua dao hor goixan ere, hor goiko Albitxuriko esplanada hortan da.*

(941) *Hamen ere etxia danian eitxeko asmuan daure.⁵*

Erizkizundi Irukoitzean ere aurkitu dugu era honetako adibide bat, Elgoibarko berri-emaileak emana:

(942) *Etortzeko ustia dogu.*

Gaur egun mota honetako perpaus osagarrietan egiten den oker bat ekarri nahi dut amaitzeko; *-eNAREN* menderagailuaren bidez egiten dena; hiztun gazteagoen kontua dela esan behar (idatzian, gehiago), adin handiko hiztunek inolaz ere egiten ez dutena.

(943) **Bixar etorriko dana(re)n errezelua daukat.*

⁵ Formaz perpaus osagarria da, baina semantika, esanahia ere aintzat hartuko dudanez, eta helburuzko perpausen artean ere kokatuko dut.

4.2.1.6. ZEHARGALDERAK

A. -eN menderagailua dutenak (bai-ez erakoak)

Bai-ez erako zehargalderak nahiz zati-zehargalderak izan daitezke, alegia, galde-hitzez hornituak daudenak, azken hauek. Azpiatal honetan, lehenbizikoak bakarrik aztertuko ditut, eta galde-hitza dutenak hurrengo azpisailerako utziko ditut.

Hona lehenbiziko moldearen adibide batzuk:

(944) *“Eztakitt bodarako alleauko naizen, zaturako”, esan tzaban.*

(945) *Butrongo tabernia eztakitt ezautu zenduan zuk.*

(946) *Eztakitt ze urtetan izan zan.*

(947) *Esaten dabe euskaldunak banatuegixak ete gauden.*

Goiko bi adibidetan agertzen den *ETE* partikula oso erabilia da zehargalderetan. Hona adibide gehiago:

(948) *[Gabi jatetxea] batzuk hartze ete deben esan tzeben.*

(949) *Radixuak esan tzaban, eta hamengua ete dan, ba.*

Partikula horrek zalantza edo susmo kutsua ekartzen dio zehargalderari.⁶

B. Galde-hitza ...-eN (zati-zehargalderak)

Goikoak bezala, zehargalderak dira hauek, baina bai-ez erako zehargalderak izan ordez, zati-zehargalderak dira, hau da, galde-hitza daramatenak (*zein, zer, zela, zenbat...*); NZ zehargalderak ere esan izan zaie, eta baiezko edo ezezko erantzun baten ordez, perpauseko osagairen baten gainean egiten da (zeharka) galdera, galde-hitzak galdetzen duen perpausaren parteaz, alegia.

Hona erakusgarri batzuk:

(950) *Ni Bilbon soldau eondakua nitzuan, eta honek berdura-plazia nun zauan erakutsi tta...*

(951) *Nik etxakixat zenbat urte naukazen, baiña ni akordatze nok dana zihero, e!*

(952) *Harek amari ze gerra eman ete zion dirua emateko, pastelak erosteko!*

(953) *Neu ezkondu ta gero, kartia; eta zeiñena ete zan, eta harena!*

(954) *Trinidadiak ero eztakit ze zian.*

⁶ Ikus, *OTE* partikulari buruz sakondu nahi izanez gero, *EGLU V*, 106-108.

(955) *Gallegia eo eztakit ze zan.*

(956) *Eztakit zenbat denporan ibilli nitzan monagillo.*

Galde-hitz bat baino gehiago ere izan ditzakegu mendeko perpaus berean; azpiko adibide hauek ditugu horren lekuko.

(957) *Armia desmontau, eta izenak. Zein zetarako zan esplikau bihar.*

(958) (...) *baiña len; oiñ nun zer dauan etxakixat ixa ta!*

(959) *Pentsau nundik nora pasau dian honek, trenian, itxasuan.*

Batzuetan, partitiboaren marka ere eransten zaio zehargalderaren menderagailuari:

(960) *Umia nun zanik ere ez genkixan.*

(961) *Beste bidian jun giñan, da ez nun gabizenik ere, ezer ez.*

C. IA/ABER/IA ABER...-eN

Galdera-aditzek gobernaturiko zehargalderetan, IA edo ABER partikulak erabil daitezke zehargalderari hasiera emateko, hura nolabait indartzeko. Ez dira, hala ere, nahitaezkoak partikula horiek, hiztunaren aukerakoak baizik: haietako bat agertu edo ez agertu, ez da aldatzen mendeko perpausaren esanahia, ez dakarkiotte mendeko perpausari bestelako adiera berezirik.

Nik erabili dudan corpusean, testu librean corpusean, antzeko agerraldiak dituzte bi partikula hauek, IA-k eta ABER-ek.

Bi zehargaldera motekin ager daitezke, bai-ez erakoekin (ikus adibide sorta honetako lehenbiziko lau adibideak) nahiz zati-zehargalderekin (ikus azken lau adibideak):

(962) —“Monjak?”—*Eta, bai. Bueno, eta aber monagillo nahi naban bertan izatia, zeatik eze Bizentek laga ein biha zabala. Ezingo zabala atendidu eztakit ze. Bueno, baietz, ba.*

(963) *Gero, etorri jatzun bateron bat balnearixotik zu kontratatzerara, aber nahi zendun juatia.*

(964) *Presentau zien Alfonso Freire, eta aber harekin ibiliko nitzan, haura ere militarizau eingo zebela...*

(965) *Zera eskatu, jornal gehitxuao aber eman leikien, estu zabilleta ta, gure aitxak (ziharduan “de siete de la mañana a siete de la tarde”).*

(966) *Beitxu debe, eta, aiba Dios! Ia zein dauan hor! Eta hasi dia, ta...*

(967) *Baten preguntau nion ia “bulegua”k ze esan nahi dauan, eta honek, ‘opiziñia’. Eta oiñ bajakixat.*

(968) *Eske, aurten negua luzia dixe. Ia noiz hasi zan? Iezko otubrian.*

(969) *Eta len esan douna, bedarra ebai biha dounian-da ia ze esate deben eualdixaatikan, eztakik?*

Batzuetan, bi sarrera-partikulak edo -lokailuak batera ere erabiltzen dira, zehargalderaren hasiera-gunea gehiago indartu (edo gorpuztu) nahian-edo; halakoetan, *IA ABER* hurrenkeran bakarrik aurkitu ditut testigantzak: *IA ABER ... -eN*.

(970) *Eta honek: “Ia aber iñok antzik emate’iozuen hori montatzeko ze ein bihar izan zan hemen!”.*

(971) *Neuk na(r)abillen autua. Eta, ia aber ze eitxe zaban.*

(972) *Preguntau zian ia aber karnetik naukan.*

D. GAUZAK ZEREN ARABERA DIREN ADIERAZTEN DUTENAK

Azken urteetan, adiera horretarako *segun* erdaratikako lokailuaren bidez osatutako egiturak nagusitzen ari zaizkigu. Erosoa egiten zaio, nonbait, gaur egungo hitzunari (gazteari bereziki) *segun* erabiliz osatzea balio hau duten per-pausak; hala ere, adin handikoen jardunari dagokionez, oso gutxi erabili izan dira egitura horiek. Tradizio sendoa du, berriz, hemen jasoko dugun egiturak; alegia, per-paus hasierako *segun* hori gabe, mendeko per-pausa zehargaldera baten bidez osatzea.

Hona molde honen adibide batzuk:

(973) —*Zuk pentsatze’ozu goorra dala basarriko lana? —Basarriko lana? Bueno, zela hartzen dan da.*

(974) —*Asko irabazte ei jok horrek! —Etxakixat. Zertara obittuta dauan! Zenbat dirukin konformatzen dan!*

Korrelazio bidezko egiturak ere izan daitezke, eta lagungarriak direla esango nuke per-paus mota hau ondo ulertzen laguntzeko:

Zenbat ... -eN, hainbeste ...

Zela ... -eN, hala ...

Zelako ... -eN, halako ...

Nun ... -eN, han ...

Hona halako egituren adibide pare bat:

(975) *Beatzi urtetikan hamaika pasau arte ero [eskolan]: zenbat eualdi txar, hainbeste egunetan.*

(976) *Familixa danetan daoiz bi-hiru... eztaikit zenbat kotxe. Zenbat seme-alaba dauden, hainbeste bihar.*

Nolanahi ere, orain arte esandakoa gorabehera, bada *SEGUN* erdaratikako lekailuaren erabileraren lekukotasun bakanen bat edo beste. Hona hemen bat:

(977) *Mapa bat ipiñi han, lau fletxa ipiñi, ta, segun nundik zatorren abioia, "Ese es de los nuestros".*

E. BEREZ ZEHARGALDERAK EZ DIRENAK

Formaz, zehargalderak dirudite, zati-zehargalderak, baina, haietan ez bezala, ez dago hauetan inongo galdera inpliziturik. *ZELA* galdetzailea (eta *NOLA*, gutxixeago) erabiltzen da halakoetan. Batez ere ahozko kontakizunetan erabiltzen den moldea da, eta, *-eLA* menderagailua duen perpaus osagariaren balio bertsua izaki, hark ordezkia lezake, nire ustez.

(978) *Akordau, bai. Ni akordatze nok zela eote giñan, han itxetik behera Urruzunon, mina-zulua daok han, gure etxetik behera? Mina-zulo haundi bat daok. Han eote giñuazen.*

(979) *Harek nik goguan jaukaz danak. Goguan, gehixenak bai behintzat. Zela eon giñan hamen.*

(980) *Arantzia baakik zela eukitzen daban gaztañiak. Ba, halakotxia dok.*

4.2.1.7. SUBJUNTIBOKO ADITZA DUTENAK

Komeni izan, opa izan, desiatu, nahi izan eta horien antzeko gobernatzaileak izaten dituzte, gogo-jarrera adierazten dutenak, eta kasu askotan isilduta egoten da gobernatzaile hori, haren beharrik ez eta: hortaz, mendeko perpausa bera bakarrik gelditzen da agerian, bere subjuntiboko aditzarekin. Ia gehienetan *-eLA* menderagailua darama subjuntiboko aditzak.

(981) —*Ze mouz umiak?*

—*Ondo.*

—*Hori dok, osasuna behintzat euki deixela!*

(982) —*Imajiñarixia, ba...*

—*Guardixia eittia edo?*

—*Guardixa moduan, imajiñarixia. Ba, eztailla iñor sartu kuarterlera.*

(983) *Oiñ, ein daban eurixa ere, ba, mesederakua da patatiantzako ta. Asko eztaixela eiñ. Oin komeni da eualdixa garbitzia, garbi eon dailla. Osasunerako ta, garbi eon dailla.*

(984) *Halakotxe toki bat erosi, garajia urrian izan deixela, eta auto bat. Gero, ibili, batera ta bestera.*

(985) *Guri, guri etxaku geratzen, baiña behintzat, ondoren datozenak ere, ba eutsi deixela, “gure aitxixak eta amamak, hola eta hola eitxe zaben berba ta...”.*

(986) *Bai baiña esaten dot lantzian bebiñ: “Ni hiltze naizela ta, ez neri negar eiñ, e! Holaxe da, eta kitto”. Gaiñera, gaixua edo zeoze etortze’anian, len baiño len eruan deigula. Ni hiltze naizenian, iñok eztaixela negarrrik eiñ.*

(987) *Bueno, ezteixo(g)un zer gehixegi eman, amenazu gehixegi koittauari, ehun urte jaukaz ixa ta.*

(988) *Orduan, kuestiua zuan lana eon deilla, pediduak eon daitxiala.*

4.2.1.8. -TZIA

Perpau osagarri jokatugabeetara etorriz, -TZIA dugu sarri erabiltzen den menderagailu bat.

(989) *Nik zumua hartze’ot, naranja-zumua goizian, eta hoixe preparau ta hartzia lenengo lana izaten dot.*

(990) *Oso politxa da hori; horrek gauzak ezitia galdu bihar. Galtzia erreza da.*

(991) *Hamendikan bajatzia kostau eitte (j)ata.*

(992) *Hoixe da, irakurtzia da buruan sartzia zetan ai zean.*

(993) *Miña kentzia, inportantiena.*

Perpau nagusiko subjektua eta mendeko perpauseko subjektua berbera direnean ere, Elgoibarren -TU partizipioa ez ezik -TZIA menderagailua ere erabil daiteke, aditz gobernatzailea gurariazkoa denean; honako adibideotan ikusten dugu fenomeno hori:

(994) *(...) nere gizona ere bai, eta harek, itxuria baten batzuek banderia erretzia nahi zebeñ, eta harek banderia altzau.*

(995) *Eta buruan sartu zitzatan karneta hartzia nahi nabala, eta hartu ein biha nabala.*

(996) *Oin nahi dozu jakitzia nola atera zaban karneta?*

EUKI aditzarekin osatzen duen esapidea ere nabarmentzekoa da:

(997) *Jutia dauka pikutara!*

(998) *Eittia dauka nabi dabana!*

4.2.1.9. -TZERIK(AN)

Aditz-izenari partitiboaren -RIK atzikia erantsiz osatzen dira mendeko perpaus hauek. Aditz nagusia ezezko forman izan behar dute.

Ikus ditzagun bietariko adibide batzuk:

(999) *Orduan aittak esandakua, etzauan beste ezer eitterik, e!*

(1000) *Lan da lan pasatze genduan, ezta pentsau ere beste inora juterik.*

Oso arrunta izaten da, -K amaiera duten beste atziki batzuekin gertatzen den bezala, amaieran -AN atziki espletiboa hartzea.

(1001) *Ez zan komeni han gelditzerikan, zeatik eze berriz ere beste disparto bat edo, neu hantxe nauala iual alleauko zan!*

(1002) *Eta nik enaban pentsatzen ezkontzerikan, e!*

(1003) *Etzaban amak nahi bera bakarrik geatzerikan, eta alaba etxian gelditzia nahi zaban, eta bertara ezkondu giñan, bai.*

(1004) *Eta, geiñera, eztao bizi izeterikan basarrixakin berakin bakarrik.*

4.2.1.10. -TZEKO

Agintera-adierako gobernatzailea izaten dute (*agindu, esan...*) aditz jokatugabea duten perpaus hauek; beste era batera esanda, zehar-estiloan ematen diren aginterazko perpausak -TZEKO menderagailua hartzen du.

Hona adibide batzuk:

(1005) *Hamarrak, jaikitzeo sasoia, eta hamarretan jaiki ein biha da, ibilli. Makillia hartu, eta ibilli. Ibiltzeo esate'igue ta!*

(1006) *Gure koiñatak, Ondarrukuak, esate zian ipintzeo arrandegixa.*

(1007) *Ondo portatzeo esate zian amak beti.*

Hemen ere, askotan gertatzen da aditz gobernatzailea isiltzea, testuinguruagatik jakintzat ematen delako-edo.

(1008) *Eta eongo zan ala etorriko zan, eta ni enuala esan nion hari, harek zela esan tzian hori... Ni enixela. Bera etortzeo segiduan. Eta halaxe etorri zan.*

(1009) *Jun tzan hara, eta beste bat topau! Bai, eta neska guapia eta zera zan, e... Eta gero, aitzak ezetz! Ezkontzeo honekiñ, harekiñ etzala ezkonduko. Txoferrak eta (hau txoferra zan), txoferrak eta pelotarixak golfuak izate'iala ta.*

(1010) *Gero, juteko etxera ta juteko etxera, ta zela bialduko zaben, ba! Erdi narrurik zauan da! Etxera abixau erropak ekartzeko, ta hantxe jantzi, txa atzera bialdu.*

4.2.1.11. -TZEN

Zenbait aditzek -TZEN erako perpausa gobernatzen dute; egitura kontrolatuak dira, perpaus nagusiaren eta mendekoaren subjektuak bat bera izan behar du.

(1011) *Han ikasi najuan bizikletan ibiltzen.*

(1012) *Neure umiak leleno hemen, eskola txikixan, gero kolejio Pilarren sartzeko; hemen letzen ikesi biha zan orduan, letzen pixkat.*

4.2.2. PERPAUS ERLATIBOAK

-eN menderagailua duten perpausak dira erlatibo arruntenak Elgoibarko ahozko jardunean: perpaus erlatiboaren ardatz-izena agerian dutenak (-eN: *gaur ikusi doten neskia*) nahiz isildua dutenak (-eNA: *hori da maitte dotena*). Horietaz gain, alabaina, sarri entzuten dira aditz jokatu gabea duten egiturak ere (-TUTAKO menderagailua dutenak bereziki).

Azter ditzagun egitura erlatibo nagusiak banan-banan.

4.2.2.1. -eN

Esan bezala, erlatibo mota ugariena da Elgoibarko ahozko jardunean. -eN menderagailua daramate, eta ondoren, perpaus erlatiboaren ardatz-elementua dena, normalean izen bat. Ondorengo perpausean, azpimarratuta eman dut perpaus erlatiboaren ardatza; ardatz horren aurretik doan perpausa dugu perpaus erlatiboa (perpaus erlatiboaren aditza ere azpimarratuta eman dut):

(1013) *[[Goizian etorri dan] neskia] ezautze naban lendik ere.*

Ikus ditzagun adibide batzuk:

(1014) *Ointxe hil dok hori, esan doten hori.*

(1015) *Etxuat ikusi haiñ ondo eta haiñ azkar eitxen daban gizonik... akaba-tzaille ona. Ondo ta azkar.*

(1016) *Eta ezin leike! "Etorri zaitxe afalostian beste ordu bi lan eitxera", "de siete a siete" lanian diharduan gizona!*

(1017) *Bera, Pedro Unzeta, ferreteixia sortu zaban gizona, hantxe dendan eote zan beste bere seme bi txa beste dependienteren batekin.*

(1018) *Handikan kilometro bira, Urberuaga de Ubilla. Han tzauan zer bat, batalloe bat, komunistia, izena ere ba(d)akitx, "Rosa Luxenburgo" izena zaban batalloia; batalloia ondo formautakua, gero!⁷*

Esan beharra dago adineko hiztunari ez diotela perpaus erlatiboek arazo berezirik sortzen, baina bai hiztun gazteago batzuei: gramatikalak ez diren egiturak sortzen dituzte horiek. Ez dira zuzenak, adibidez, *-eN* erlatiboa erabili beharrean *-eLA* erabiliz osatzen diren honako egitura hauek bezalakoak:

(1019) **Ezautu naban gizon bat bi metro zaukazela.*

Perpaus horretako mendekoa erlatiboa da, eta ez osagarria; beraz, honela zuzendu behar litzateke:

(1020) *[Bi metro zaukazen] gizon bat ezautu naban.*

(1021) *Ezautu naban gizon bat [bi metro zaukazena].*

Erlatibo aposatua-edo esaten zaiona da azken hau, eta, esan bezala, *-eNA* behar du, eta ez *-eLA*; halakoek aurretik daramate ardatz-elementua (ahozko jardunean, oso arrunta da ardatz-aurreratze hau). Hona erlatibo aposatu gehiagoren adibideak (erlatiboaren ardatza ere azpimarratu dut):

(1022) *Reketiak, reketiak zian ekartze ziuenak, reketiak, naparrak.*

(1023) *Faltsuak zian harek balak zatozenak.*

(1024) *Eta batzuek, ba, dirua zaukenak, ba, esnia guretik hartu ta... zuri-ttu eitte zebeñ, da jan.*

(1025) *Gaztaiña erriak, zurittu ta orduan jaten etzienenak, gorde, ta hurrengo eunian jaikitze giñanian jan.*

Lehen esan dut perpaus erlatiboetan, ardatz-elementu bat izaten dela. Ardatz-elementu horrek mendeko perpausaren ere badu funtzio bat. Hona lehen jarritako adibidea:

(1026) *[[Goizian etorri dan] neskia] ezautze naban lendik ere.*

Kasu honetan, honela litzateke perpaus horren azpian legokeen egitura osoa:

⁷ Berbetan egon naizen gizona ezta zure semia beziñ altua (EAEL).

(1027) *Neska bat goizian etorri da // Neskia ezautze naban lendik ere.*

Perpaus erlatiboan osatzen dugunean, menderagailua itsastean zaio mendeko aditzari eta mendeko perpausaren ageri den osagaia, mendeko perpausaren ardatza denaren erreferentziakidea dena, isildu egiten da:

(1028) *[[Ø goizian etorri dan] neskia] ezautze naban lendik ere.*

Kontua da ardatz-elementuaren perpaus erlatiboaren barruko erreferentziakideak ezin duela nolana hikoia izan perpaus erlatiboak sortzeko. Mendeko perpausaren subjektuak eta objektuak izan daitezke:

(1029) *Horixe da [txakurra erosi daban] mutilla.* (subjektua: *mutillak txakurra erosi dau*)

(1030) *Horixe da [lenguan ezautu naban] mutilla.* (objektua: *lenguan, mutilla ezautu naban*)

Ardatz-elementuak zehar-objektu funtzioa betetzen duenean ere egin daiteke erlatibatzea, baina halakoak ez dira hain ugariak eta hiztunak ere ez ditu hain natural sentitzen eta onartzen. Hona adibide bat:

(1031) *?Horixe da [auto berrixa erosi dioten] saltzaillia.* (zehar-objektua: *saltzailliarri erosi diot autua*)

Mendeko perpausaren barruko bestelako argumentuekin (ardatza gramatikala ez den postposizioen bat daramatenekin) are zailagoa da erlatibatzea. Halakoen onargarritasuna balioesterakoan, garrantzi handia du perpaus erlatiboaren testuinguruak, alegia, perpaus nagusiak ematen digun testuinguruak⁸. Baditugu, adibidez, osagai isildua inesiboa duen kasuak, nahiko erraz interpretatzen eta, beraz, onartzen direnak:

(1032) *Markiña Etxeberrin bizi zan ieltserua, ta haura etorri zan [soldaduak] Elgoibarren sartu zian bezperan.*

(1033) *Eta, Gerninako bonbardeua zan arratsaldian urten genduan, sarri juate giñan Bilbora ta.*

(1034) *Zapatu baten jokatu zebeñ: Artazo [baserria] erre zan eguna.*

⁸ Ikus, perpaus erlatiboaren onargarritasunari buruzko kontuetan sakontzeko, de Rijk (1972) eta Oyharçabal (1987). Autore hauen arabera, onartzeko modukoak dira adjuntuak diren elementuen erlatibatzeak, baldin eta perpaus nagusian atzizki bera badaramate (adibidez, hau: *Hitz ein gendun kontu(ar)en gainian preuntau diti*). Testu libreetan ez dut aurkitu halako kasurik, baina berariak egindako galdeketen eta nire hizkuntza-kompetentziaren arabera, guztiz onartzekoak dira halakoak.

Azken hiru adibideetan, denborari egiten dio erreferentzia ardatz-elementuak, eta, halakoetan, *-eN* erlatiboaz gain, *-eNEKO* forma duten erlatiboak ere erabiltzen dira, nahiz ez izan besteak bezain ohikoak⁹. Hona adibide bat:

(1035) *Beti ezagunak hartze`ittuk (...). Gero, soldau eon giñaneko lagunak ere, asko.*

Forma hori bera (*-eNEKO*) erabiltzen da egitura jakin batean, denborazko esapide honetan:

(1036) *Harek kendu, eta gero errepiak garbittu ganaueri, da oiñ azkenaldixan, ba, urte askuan, gu jun daneko hogei urtian eo, makiñiak, makiñiak, jaixten dittuu.*

(1037) *Baiña horrek ibilli bihar zaban, oiñ urtebete honetan ez, baiña jun daneko lau urtian ero, aurrerako lau urtetan, ferixara ta, bai.*

Denbora-kutsua ere badu, eta perpaus mota horietan ere jaso dugu menderagailu honen apamena (ikus denborazko perpausetan, 4.2.3.24 azpiatala).

4.2.2.2. *-eNA*

Perpaus erlatiboaren ardatza menderagailuarekin batera ez dutenak dira: hura jakintzat emanik isildua dugulako, aurretik eman dugulako edo ondoren emango dugulako; ahozko jardunean oso ugariak dira halako erlatibo motak; izan ere, oso arrunta da, batetik, ahozko jardunean informazioa aurreratzeko hurrenkera-aldaketak egitea (zerbait nabarmendu nahi dugulako, estilo-kontuengatik, erlatiboaren ardatza garaiz burura etortzen ez zaigulako, suspentsea erabili nahi dugulako...), eta, bestetik, egitura ahalik eta soilenak erabiltzea: malguagoa gertatzen da, helburu horietarako, *-eNA* erlatibo ardatz-isilduak eskaintzen digun egitura, [*-eN* + ardatza] egitura baino.

Hona, *-eNA* menderagailuaren erakusgarri batzuk:

(1038) *Eta nik Azkarate gainian, alleau giñanian, lelengo lana ein nabana zan, bueltia eman automobilari, eta kale aldera edo hona herri aldera begira jarri.*

(1039) *Eta hola, len esan dotena, Estartanera lanera gero.*

(1040) *Gehixena ikesi genduna baatik zer tzan? Dotriña.*

⁹ Besteak beste, hemen azaltzen da sakonkiago egitura hau: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V*, 196 or.

(1041) *Maaltzan ere eitte zuan erromerixia. Eta beste bat gu izete giñana, haura, oiñez jun bi'izete zuan, eta urruti... Usartzan.*

(1042) *Horrek eitten dabana normala danik ez pentsau, e!*

(1043) *Da pasatzen dana da, bedarra batzen dozun momentuan, onenian dauanian... da!, harrapatze'izu zaparrada batek, eta alperrik galdu.*

(1044) *Oin pasatzen dana da, lengo zaharrok, ba, eskola gitxi dakoula hori di-da eitxeko, etaratzeko.*

(1045) *Don Justo zuan gero dana ederki-ederki pasatze zabana.*

(1046) *Da len esan do(d)ana, Debara ta oin mouan jun jendia? Ezta pentsau ere!*

(1047) *Beste bat jun tzana San Lo(re)ntzokua, gurekin.*

(1048) *Hamentxe daure bizi dienak; hildakuan erretratua ere baakat, e!*

Lehen, -eN erlatiboaren azpiatalean, erlatibo aposatuak aipatu ditut; azpiatal honetakoak dira haiek, eta han eman ditudan adibide pare bat behintzat ekarri nahi dut hona:

(1049) *Eta batzuek, ba, dirua zaukenak, ba, esnia guretik hartu ta... zuri-ttu eitte zeben, da jan.*

(1050) *Gaztaiña erriak, zurittu ta orduan jaten etzienak, gorde, ta hurrengo eunian jaikitze giñanian jan.*

4.2.2.3. -TUTAKO

Aditz jokatugabeetan, euskaraz oro har gehien erabiltzen diren menderagailu bien artean, -TUTAKO menderagailuaren adibideak bakarrik aurkitu ditut; ez dut, ordea, bestearen, -TURIK-en, aztarrenik aurkitu.¹⁰

Gatozen, beti bezala, adibide batzuekin:

(1051) *Dotriña eta manuskritua esate zitzakon len. Eskuz eskribiutako liburu bat zan, manuskrito esate (j)akon.*

(1052) *Esku askotan ibillitako umia naiz ni.*

(1053) *Da lenengotikan gaztaiña pixkat heldu arte eo, gogortu arte. Bestela, arbolatik hartutako, batutako haura makala eote zuan.*

¹⁰ Ormaetxeak (2006), adibidez, jaso ditu halakoak Debagoienean, Aramaioko hizkeran. Hona adibide pare bat (azpimarrak nireak dira):

Geuk ifiniko isena ero lendik atorrena isengo ra.

Jose Luisek ekarriko kotxie oso antiguala da.

Inesibokoa ere izan daiteke perpaus erlatiboan isildutako sintagma, ondorengo adibide hauetan erakusten dugun bezala:

(1054) *Eta, poliki-poliki, pasau ein tzan; eta nik beti esaten dot, egunik ederrena mundu hontakua, lizentziautako eguna.*

(1055) *Ezkondutako urtian [izan zen gerra].*

(1056) *Hor, forjan ein nittun hoeta bi urte ero. Hamen, estazio onduan, oiñ etxiak eindako leku hortan.*

Azkenik, oso arruntak direla esan behar da, perpaus jokatuagabe hauetan, ardatz-izena isildua edo mugitua duten kasuak; [aditz-partizipioa + -TAKO + -A] forma hartzen dute: -TUTAKUA.

Hona molde horren zenbait adibide:

(1057) *Handikan kilometro bira, Urberuaga de Ubilla, han tzauan zer bat, batalloe bat, komunistia, izena ere badakitx, Rosa Luxenburgo izena zaban batalloia, batalloia ondo formautakua, gero!*

(1058) *Len, zuek etzaate akordatzen, baiña lenengo bariantia eindakua hamen inguruetan Elgoibarkua dok, e! Hemen, San Pedron, Txankakuan zihar, Txankako zubixan sartu kalera, eta hortik buelta pasatze zan kamiñua.*

(1059) *Bizkaittik etorri giñan gu hona; ni kalian jaixotakua naiz, eta basarrixan bizi, hoeta zortzi urtian.*

(1060) *Horrek kontatzekuak dia, e! Hori benetan pasautakua da, e!*

Esan behar da, bestalde, denborazko perpausetan sailkatu dudana egitura batek berez perpaus erlatiboa duela oinarri, -TUTAKUAN menderagailua duenak, alegia. Halakoetan, isildu egiten da denbora-kutsua duen ardatz-elementua.

(1061) *Orduan, ba, errotak, eta errotatikan, ba, errotia sartutakuan, gero turbiñak ipini zitxuen, da indarra.*

(1062) *Ba, pentsatzen da gaztetan zahartutakuan eztauala ilusiorik, baiña bai, zahartuta ere badaude ilusiak.*

Formaz perpaus erlatiboak dira, baina, denbora-kutsua duten ardatz-izena dutenez (isildua izanik ere), balioz denborazkotzat jo izan dira, eta nik ere hala joko ditut, mendeko perpaus adberbialetan irizpide semantikoa nagusitzen baita nire sailkapenean; *une, momentu...* edo horien antzeko batzuk izan daitezke halakoetan isilduriko ardatza (ikus, denborazko perpausetan, 4.2.3.16 azpiatala).

4.2.2.4. GALDE-HITZA + PARTIZIPIOA + (-A/-RIK): ZER ...-TUA/-TURIK)

Hiru aukera daude era honetako perpausetan, goiburuan ikusten den bezala; guztietan dugu galde-hitza eta aditz-partizipioa, baina azken hau hiru eratara gauzatu daiteke: partizipioa bera (beste atzizkirik gabe: *-tu*), mugatuta (partizipioa + *-a*: *-tua*) eta partitiboaren marka duela (partizipioa + *-rik*: *-turik*).

Jaso ditzadan erakusgarri batzuk:

(1063) *Hi, Elgoibarko konbersaziua hartziarren dok. Oiñ, hi, gure konbersaziua hik eztakak zeatik hartu, eta korridu hori, e! Holaxe dok, eztakik?*

(1064) *Bakarrikan zeñek pagauko daban, hori falta da. Lana bakarrik eittiak eztau balio. Zeñek pagaua falta da hamen.*

(1065) *Ez, ez, kalian eztao lekurikan. Eta, geñera, kalian kotxia nun lagarik eztao.*

(1066) *Oiñ, abrillian da, Aste Santuan da, gaztia dana, dana gaztia [Benidormen]. Eta hor eztao orduan playara juan ere eitterikan. Eztao nun toallia ipiñirik eta.*

(1067) *Eta gero, amaitxu zan gerria, baiña ez zauan ze janik.*

4.2.3. DENBORAZKO PERPAUSAK

Denborazko perpausetan, molde ugari ditugu aukeran; bakoitza, hori bai, bere ñabardura eta erabilerarekin. Horiek guztiak sailkatzeko, hiru kontzeptu nagusi finkatuko ditut: aldiberekotasuna (A), aldi-desberdintasuna (B) eta iraupena (C). Hiru atal nagusi horien barruan kokatuko ditut denborazko perpausetako egitura nagusiak. Era berean, bi azpisail egingo ditut azken bietan: aurrekotasuna eta ondokotasuna B atalean, eta iraupenaren aurreko muga eta iraupenaren azken muga C atalean.

Gatozen, bada, denborazko perpausak banan-banan aztertzeraz.

A. ALDIBEREKOTASUNA

4.2.3.1. -eNIAN

Hauxe dugu aldiberekotasuna adierazteko forma nagusia, molde erabiliena.

Ikus ditzagun horren adibide batzuk:

(1068) *Madriden bertan eon tzanian ere, hoixe pasau zuan.*

(1069) *Gero, ba, alaba haura hil tzanian, hiru umekin geratu zan.*

(1070) *Etorri zanian, ezkondu be nenguan artian, oindio; gero ein tzian kartia.*

(1071) *Gero, haura jute zanian, bestia jute zanian nunbaittera, errekestatze ziozen kajoiak eta.*

(1072) *Eta hiltze zanian bateron bat, beti jute zan. Gure ama zana hil tzanian ere, hantxe etorri zan holaxe.*

-eNEAN menderagailuak ez du beti denbora-balioa. Izan dezake baldintza-balioa ere:

(1073) *[Eskela] geuria eztanian, pozik, gaiñera!*

Halako adibide gehiago 4.2.5.9. azpiatalean jaso ditut, baldintza-perpausen barruan.

4.2.3.2. -eNETAN

-eNEAN menderagailuak pluraleko forma ere har dezake¹¹. Ez da singularrekoa bezain erabilia, baina erabiltzen da tarteka:

(1074) *Etxe horretara jun izan naizenetan, beti ondo hartu naue.*

(1075) *Gaixorik eon naizenetan, ondo zaindu nau andriak.*

4.2.3.3. -eN BAKOITZIAN (GUZTI(ET)AN, APURRETAN...)

Era honetakoak ere arruntak dira gure hizkeran. Berez perpaus erlatiboak dira formari begiratzen badiogu, baina erlatiboaren buruak denbora kutsua duenez, denborazko perpausetan kokatu dut, perpaus adberbialetan egin duan sailkapena semantikoa baita lehenik eta behin.

(1076) *Tian etxera juten naizen bakoitzian bizkotxo zati bat emate'itt.*

¹¹ Aldiberekotasun errepikatua nozioaren barruan sailkatzen du EGLU VI gramatikak (Euskaltzaindia, 2005, 88. or.) menderagailu hau, -eN BAKOITZEAN eta -eN GUZTIETAN menderagailuekin batera.

(1077) *Eskolara jute giñan apurretan, jolasian ibiltze giñan, eta ez gendun ezer ikisten.*

(1078) *Libre dakan guztian hori [semea baserrira etortzen da, laguntzera].*

4.2.3.4. -TZERAKUAN

Aurreko menderagailuak ez bezala, -TZERAKUAN menderagailuaren bidez burutu gabeko ekintzak adierazten dira.¹²

(1079) *Eta oindio han zauden, turbinia ipintzeko gauzak-eta han zauden. Eta han pasatzerakuan beixu giñon, eta esan nion arrebari: (...)*

(1080) *Hamen zela pagatze juek? Joe! Zela pagau! Harek bazakixen, eta etzeben estraiñekua. Eta ertetzerakuan firmatze zeбен, eta aurrera!*

(1081) *Eta horri emakumiori alleatzerakuan, neu ere okerra... ba, pasatzeko ni justu txamar, neukan bezela kamiñu guztia hartze naban da! Eta, hala ere, harrapatzeko moduan ein naban, brometan neuk. Jo zaban kañabera ezkiñiak emakumia, eta ni txahala moruan lurrera!*

4.2.3.5. BEHIÑ ...-eNIAN

Hasieran sarrera-lokailua dutela ere osatzen dira mendeko perpaus mota hauek; balio-markatzailea da BEHIÑ hori, eta nahikotxo erabiltzen da denborazko perpausetan.¹³

(1082) (...) *Ez. Zeatik eze, behiñ sua han ez zauanian da, sua dauala etzaban esplotauko, lenaotik esplotau eztabanian.*

(1083) *Behin gauzak okertzen haste ianian, alperrik izaten da dana.*

4.2.3.6. -eLA denbora-balioa duena

Denbora-balioa izan dezakete -eLA menderagailua duten perpausak; betiere, ordea, iraganeke kontakizunei dagokie denbora-kutsu hau.

(1084) *Sansonguan jaixo giñan gu, ni behintzat. Eta gero, ba, handikan kalera bajatu giñan, nik sei bat urte nakazela.*

¹² Debagoienean, -ERAN menderagailua erabiltzen da denborazko perpausak osatzeko (ikus Ormaetxea 2006, 417 or.), baina Elgoibarren ez da halakorik ezagutzen mendeko perpausetan (bai, aldiz, hitz-eratorpenean: *amaieran, akaberan, illunkeran...*).

¹³ Ondokotasuna adierazteko ere erabiltzen da; ikus, kapitulu honetan, 4.2.3.18 azpiatala.

(1085) *Gero ze pasau zan? Ixa lizentziatzen nauala, berritz falta ni han, Loiolan falta. “Como desertor”, hoixe biha juau!*

(1086) *Etzan komeni han gelditzerikan; zeatik eze berriz ere beste dispare bat ero, neu hantxe nauala iual alleauko zan!*

(1087) *Eta jute giñan San Migelera, eta holantxe, geure errumeixatxuori eiñ, eta etxera gatozela juntau giñan, etxeruzkuan, mutill horrekin, eta ene! Akabo! Haretxekin segittu gero!*

(1088) *Eta ni azkenengotikan, primera eta segundaraiño alleauta nauan. Eta segundan nabillela, gogoratze (j)ata (ya segundia pixkat kategorixa zera zan...) neure alboko laguna zein tzan akordatze naiz.*

Zirkunstantzia bat adierazten dutenez, beste balio adberbial batzuk ez dira urruti ibiltzen; esaterako, modu-balioa ere izan dezakete *-eLA* menderagailua duten perpausok, goiko adibide sortan bertan ere.

A.1. Aldiberekotasun estua

Aurreko atalekoek bezala, atal honetan aztertuko ditugun formek ere aldi-berekotasuna adierazten dute, baina hauek besteek baino modu enfatikoagoan egiten dute hori, ez modu orokorrean.

4.2.3.7. *-eNERAKO*

(1089) *Ni jaiki nitzanerako, ezkutauta zan etxetikan, eta nun danik ere ez.*

(1090) *Eta halaxe hasi nitzan pagatzen hillian hamabost milla pezeta, hamabost milla pezta, hillian-hillian, eta etorri nitzanerako, kobratzen; jubilau arte pagatzen jun nitzan, hamar urte ein nittuan pagatzen.*

(1091) *Eta koziñan. Frentiak alde ein zabanerako, koziñan biharra eiñ... eta jan, eta edan handik eitxe genduan guk.*

(1092) *Ez, ordurako hasitta, telebisiorako ya hasitta zauden [euskara] batuan puskat. Guk telebisiua ekarri genduanerako, bai. Oin beste ez, e! Baiña ikastolia edo hasitta eongo zan orduko pixkat.*

4.2.3.8. *-TZERAKO*

Bi balio ditu *-TZERAKO* menderagailuak; lehenbizikoa, aldi-berekotasun estuaren balioa, adibide honen bitartez argituko duguna:

(1093) *Holakuak [esaten ditugu], eta haura igual baten batek ohetikan: "Uak!". Eta atian kanpora ertetzerako, hamarrek, edo batek igual: "Juauuu!"*.

Bigarrena, berriz, aurrekotasunezkoa dugu, jadanik gertatu dena adierazteko erabiltzen dena. 4.2.3.12 azpiatalean aztertuko dugu bigarren balio hori, aldiberekotasunezko hau baino gehiago erabiltzen dena.

4.2.3.9. -TU ORDUKO

Aurreko -TZERAKO menderagailuak bezala, bi erabilera ditu menderagailu honek ere Elgoibarren.

Lehendabiziko balioa aldiberekotasun estuarena da; alegia, mendeko perpausean adierazten dena gertatu eta berehala gertatzen da perpaus nagusikoa. Hona, erabilera hau argitzeko, adibide batzuk:

(1094) *Txahala ikusi orduko hasten dok behixa marruzaz.*

(1095) *Etxian sartu orduko hasten da ama errietan.*

(1096) *Kotxian baldin banijua, tak! Abantau orduko emango'iot nik radixuari.*

Bigarren balioa aurrekotasunezkoa da, mendeko perpausak adierazten duena gertatu orduko, gertatu baino lehen gertatzen da halakoetan perpaus nagusiko aditzak adierazitako gertakaria. 4.2.3.13 azpiatalean aztertuko dugu erabilera hau.

B. ALDI-DESBERDINTASUNA

B.1. Aurrekotasuna

4.2.3.10. -TU BAIÑO LE(HE)N(TXU)AGO

(1097) *Enterau zan nik esan baiño lenao zintxa-karreran parte hartu nabela, eta bronkia bota zian.*

(1098) (...) *holaxe ba, klaro, harek [frankistak] etorri baiño lenao alde ein bihar...*

(1099) *Eta haura ere iezko Gabonak baiño lentxuo ere sustua hartu ta Donostian eon zan ingresauta.*

(1100) *Eta gero, ba, handik etorri txa gerratia amaitxu baiño lenao hasi nitzan nere emaztiakin, oin dakaten emaztiakin.*

4.2.3.11. -TU AURRETIK(AN)

(1101) *Harek beti ohera, telebisiuan “Goenkale” hasi aurretik, e!*

(1102) *Gero, Arana y Uribe tallarrak-eta ein tzian, ba, hori eiñ aurretikan, hor tzauan etxezar haundi bat, eta hor eon tzian monjak, monja frantsesak.*

(1103) *Udazkena zan. Gero, hasi giñan lanian zerian, (...), eta hara hasi aurretikan Bekuteiñ.*

4.2.3.12. -TZERAKO

4.2.3.8. eta 4.2.3.9. azpiataletan (-TZERAKO eta -TU ORDUKO), bi baliu dituztela esan dugu -TZERAKO eta -TU ORDUKO menderagailuek; han, aldiberekotasun estuaren kontzeptua azaldu dugu, alegia, mendeko perpau-sean adierazten dena gertatu eta berehala perpau nagusikoa gertatzen dela adierazten duen balioa; balio horrez gain, une hura ‘baino lehenago’ gauzatua dela adierazteko ere erabiltzen dira -TZERAKO eta -TU ORDUKO formak. Aurrekotasuna seinalatzen dute horrelakoetan menderagailuek, ez aldiberekotasun estua. Mendeko predikatuak une jakin batean gertatzen den gertakaria adierazten du, eta perpau nagusiak, berriz, une horretan dagoen egoera.

(1104) *Eta bueno, kopia eta puru bat, plazara juterako: badakik, gizona hasi eitte jok harek, eztakik?*

(1105) *Radixua ipintze juat, eta jakitze jaittuat mundu guztiko kontuak ohetik jaikitzerako.*

4.2.3.13. -TU ORDUKO

-TU ORDUKO menderagailuaren bigarren balio hau, esan bezala, aurrekotasunezkoa da, perpau nagusiko aditzak adierazitako gertakaria mendeko perpau sak adierazten duena gertatu orduko, gertatu baino lehen, gertatzen dela adierazten duena.

Hona, balio hau argitzeko, adibide batzuk:

(1106) *Haura allau orduko, eingo juau eittekua.*

(1107) *Eguna zabaldu orduko, mendixa kazariz beteta eote’ok.*

(1108) *Gu junda gaude hara, Markiñara. Eguna zabaldu orduko junda.*

Adlatiboko sintagmekin ere erabiltzen da:

(1109) *Oiñez jun bi'izete zuan, eta nola jun? San Migelera, Usartzara ta, nola jungo hitzan, ba? Erten biha zuan bazkaldu ta segittuan; eta hurrengo goiza, etxera orduko, bestela!*

Laburbilduz, -TZERAKO eta -TU ORDUKO menderagailuen bi balioak erabiltzen dira, beraz, Elgoibarren: gure herrian berresten da, beraz, batez ere mendebaldeko hizkeretan gertatzen den balio-bikoiztasun hori: aldiberekotasun estuarena eta aurrekotasunarena.

Testuinguruak laguntza handia ematen du, halakoetan, balio-bikoiztasun hori argitzen, perpausaren balioa behar bezala ulertzen.

B.2. Ondokotasuna

4.2.3.14. -TU ONDOREN/ONDORENIAN/OSTIAN

Bi formatan erabiltzen da *ONDOREN* postposizioaren kasuan: -TU *ONDOREN* eta -TU *ONDORENIAN*.

Hirugarrenari dagokionez (-TU *OSTIAN*), aditzarekin baino gehiago erabiltzen da beste testuinguru batean: *meza ostian, afalostian, bazkalostian* eta abar; alegia, hitz elkartu baten bigarren osagai postpositibo gisa. Ez dira, beraz, mendeko perpausak, nahiz mendeko beste perpausen (-TU *ONDOREN* eta -TU *ONDORENIAN* menderagailuen) denbora-kutsu berbera duten.¹⁴

(1110) (...) *baiña handik denporalera... orduan momentuan ez, gerria amaittu ondorenian... errementarixan lana, atxurrak eta ondo zorroztu eitte zeben.*

(1111) *Aber, aber. Alberto Epelde, geuria ere, txiripaz librau zan. Hori gerria amaitxu ondoren, e! Ya amaitxuta eongo zan orduko, bai. Eta, geruaora, bai behintzat.*

(1112) *Juliuan hasi zuan gerra hori, eta geatu giñuan danok kalian. Danok kalian; eta gero, Don Felixekin hasi nitzuan ni. Eibar hartu ondorenian ere Bilbo hartu ondorenian ere uste juat Don Felix hasi zala.*

4.2.3.15. -TU ETA GERO

ETA GERO forma dela eta, esan behar adineko hiztunek ez dutela inoiz erabiltzen gazteagoek gero eta gehiago erabiltzen duten testuinguru batean;

¹⁴ Ikus *oste* sarrera hiztegian, seigarren kapituluan.

alegia, tradizioko erabilera [aditz-partizipioa + *ETA* juntagailua + *GERO* ad-berbioa] dugu; gazteagoek, esan bezala, egitura zuzen horretaz gain izenkidunak erabiltzen dituzte: *Gabonak eta gero*, *Oporrak eta gero*, *Siestia eta gero* bezalakoak. Izatekotan, *Gabonak pasatu eta gero* (edo *Gabonen ostian*) edo horrelakoren bat litzateke egokia.

Ekar ditzagun adinekoen adibide batzuk, egitura zuzena zein den argitzeko:

(1113) *Eta gero pasau zan gerra hori, eta jun tzian. (...) Gero, ezkondu ta gero, ez zian, ba, kartia eñ! Neu ezkondu ta gero, kartia; eta zeñena ete zan, eta harena!*

(1114) *Ni etortze nitzanian etxeoandriakin, zuk topau ziazun laguna, aburriduta ez eoteko: Matias, eztakizu? O sea ke, zu balnearixuan sartu ta gero zan.*

(1115) —*Bitxan izendakua haura Ameriketan.*

—*Baiña solterotan eongo zan, ezta?*

—*Ezkondu ta gero, bigarrenian.*

4.2.3.16. -TUTAKUAN

Ekintza burutuak adierazten dira menderagailu honen bitartez.

Perpauis erlatibo bat du oinarrian, perpauis mota horietan aipatu dugun bezala. Formaz erlatiboa da. Balioz, ordea, denborazkoa dela esan behar. Nagusiki sailkapen semantikoa erabili dugunez, leku berezkoago hau aitortuko diogu menderagailu honi.

Gatozen adibide batzuekin:

(1116) *Ba, pentsatzen da gaztetan zahartutakuan eztauala ilusiorik, baiña bai, zahartuta ere badaude ilusiuak.*

(1117) *Esnetarako. Gero, hazittakuan txahala hill, eta jan bat.*

(1118) *Bueno, abixauko izut hotel on bat billautakuan edo.*

(1119) *Orduan, ba, errotak, eta errotatikan, ba, errotia sartutakuan, gero turbiñak ipini zitxuen, da indarra.*

4.2.3.17. -TU ETA SEGITTUAN

(1120) *San Migelera ta, Usartzara ta, nola jungo hitzan, ba? Erten biha zuan bazkaldu ta segittuan; eta hurrengo goiza, etxera orduko, bestela.*

(1121) *Eta ze urtetan ezkondu ziñan? Handik etorri txa segitxuan.*

SEGIDUAN forman ere erabiltzen da adberbio hau:

(1122) [Kubara] allau ta segiduan saldu zebe[n] [artoa].

4.2.3.18. (BEHIÑ) ...-TU EZKERO

EZKERO postposizioa ikusirik, baldintzazkoa dela eman dezake itxura batean; hala ere, kasu honetan denbora-balioa du (ondokotasuna), eta ez baldintzazkoa (ikus -TU EZKERO, 4.2.5.3. azpiatalean).

(1123) *Hori, hor zihar abantau zaitte, eta ixa Tudela alderaiño entzun eitte'ozu earki Arrate ere. Asko sartu da lendikan. Len, en kanbio, behiñ Bitorixa aldera pasau ezkeru, etzan entzutzen.*

(1124) *Oiñ, biharbada, eukiko deu atakia sartzeko; igual larra eukiko dau. Baiña behiñ atakia pasau ezkeru, tente ere ondo juten da, eta hondua garbixa daka.*

(1125) *Aparixak ere bai, behiñ zertu ezkeru, eguastena ero, eguena ero, alleau ezkeru.*

Arrunta da oso halakoak aditzaren elipsiarekin entzutea; betiere, denborakutsua (bai eta espazio-kutsua ere) duen sintagma batekin:

(1126) *Len basarrixan behiñ urte bi-hiru ezkeru, benga. Edo atxurra edo segia, laste izete zan. Behin sei-zazpi urtera ezkeru, segia.*

(1127) *Belaunetatik eta, behiñ edade batera ezkeru, txarrao gelditze'ok.*

(1128) *Lo eitten det, baiña esna ere asko. Ni behiñ goizeko hirurak ezkeru, gau bat ezte eiñ.*

(1129) *Ez'iazu esan, hiltzia! Hiltzia? Grandia da behiñ edade batera ezkeru. Eztauana hil bihar da (nik beti esan dot), ba, sasoiian dauan pertsonia.*

(1130) *Behiñ Itziar aldera ezkeru, eta berriz ere, Azkoittiko zera [hizkera] sartzete'ok pixkat.*

C. IRAUPENA

C.1. Iraupenaren aurreko muga

4.2.3.19. -eNETIK(AN)

(1131) *Danak, dudarik pe, personia jaixotzen danetikan gastatzen hasitta dago, eta urtia juan eta urtia etorri, batian katarruak eta bestian bihotzekua eta bestian estomagokua.*

(1132) *Jaixotzez San Migelekua, baiña bizi San Pedron ezkondu nitzanetik.*

(1133) *Ni, jaixo nitzanetik, bataixatu zienetik, Imanol, eta, sin enbargo, neure denporan ya gerria etorri zanian da, nik beatzi urte, eta handik eta Franco hill eta gerora, Manuel.*

4.2.3.20. -eN EZKERO

(1134) *Eualdixa ona. Hamen sarritxan, eurixa eiñ, eta garbi, bero garbixa biha da, baiña haura bero garbixa len ezautze genduan geu gaztiak giñanian; hau gerriau pasau zan ezkeru, bero garbirik sekula ez.*

(1135) *Partidu edarrak asko ikusi'itxut, asko. Porke, nik frontoera juten daruat soldautzatik etorri nitzan ezkeru. Urte asko. Bai, partidu asko eta politxak.*

C.2. Iraupenaren azken muga

4.2.3.21. -eN ARTE/ARTIAN

Perpau nagusiko gertakariaren azken muga seinatzen du ARTE postposizioaren bidez osatutako egitura honek. Denborazko perpauetan, aditz jokatuarekin nahiz jokatugabearekin erabil daiteke. Hemen aditz jokatuarekiko erabilera jasoko dugu. Hona adibide batzuk:

(1136) *Ba, Benidorren, hotelera jute gaittuk. Eta hotelian, trankil jan, goizian lo eiñ nahi doun arte, jaiki, armuzau...*

(1137) *Eta hemen, hemen berriz euskeria ezta galduko mundua mundu dan arte.*

(1138) *Hantxe euzkixa zauan arte, eta gero, illunabarrian, illuntzixan, lan asko eitteko, eta arrapataka hauraxe eiñ ezinda.*

(1139) *Eskolara? Gaztetan, bai. Baa ... hamabost urtera arte. Aitxa hil zan arte.*

(1140) *Nahi duan arte, eta nahi baok, atsaldian etorri!*

(1141) *Ta hemen, hemen, berriz, euskeria ezta galduko mundua mundu dan arte.*

(1142) *Pentsa'izu. Hamentxe, zubi-kantioian. Hori etxata neri ahaztuko burua ondo daukaten artian.*

(1143) *Hoixe, ibilli. Gauza dan artian, ibilli. Eziña berez etorriko jatzue.*

4.2.3.22. -TU ARTE/ARTIAN

Aurreko atalean esan bezala, perpaus nagusiko gertakariaren azken muga seinalatzen du *ARTE* postposizioa duen egitura honek ere; aditz-partizipioarekin batera doa kasu honetan, ondorengo adibideek erakusten duten bezala:

(1144) *Aitxak tallarra zaukan, plantxak eitxekua... harekin geatu nitzan, eta... hill arte, hill arte. Erretirua hartu arte.*

(1145) *Gero, Kolejiora; eta han eon nitzuan, ba, hoixe, gerria etorri arte. San Juan inguruan hartu gendun oporrak, eta... uuuf! ... Juliuan hasi zuan gerra hori.*

(1146) *Eske, gu izan giñanian, dana euskeraz eitze zuan, Franco etorri arte. Guk gehixena, euskeraz.*

ARTIAN aldaeran ere erabiltzen da postposizio hau. Hona adibide batzuk.

(1146) *Konfiantzia hartuaz, ba, automobilla... Eta gero, karneta hartu artian, neurekin ibilli zan.*

(1147) *Ez. Panplonara erun giñuzen, kuartelera. Gero, handikan Bitorixarra. Bitorixatik Otxandixora, frentia zeuan da. (...) Bilbora hartu artian.*

Iraupenaren azken muga seinalatzeaz gain, beste balio bat ere badu -*TU ARTIAN* menderagailuak: perpaus nagusiko gertakariaren iraupenaren tarte osoa adieraztea. Balio hori du adibide honetako mendeko perpausak, eta balio bera du 4.2.3.5. azpiataleko azken adibide aditz jokatudunak.

(1148) *Tabernan hantxe ixkiña baten ero eote nitzan; nik ez naban ezer bihar hartzeko, baiña... Alfonso hori preparau artian...*

Era honetako perpaussek *HARIK ETA* sarrera-lokailua ere izaten dute perpausaren hasieran. Hurrengo atalean aztertuko ditugu halako egiturak.

4.2.3.23. *HARIK ETA ... ARTE/ARTIAN*

Aurreko atalean esan bezala, *HARIK ETA* sarrera-lokailua eman daiteke mendeko perpausaren hasieran. Era honetako perpausetan, perpaus nagusiko gertakariaren azken muga seinalatzen du menderagailuak. Alde bakarra da kasu honetan mendeko perpausaren hasiera-hasieratik markatzen dela denborazkotasan-balioa.

Berez, esan daiteke jatorri batean bi mugak aipatzen direla egitura hone-tan, NOIZTIK NOIZ ARTE gertatzen den aditz nagusiak adierazitako ger-takaria. Gaur egungo hiztunak, ordea, ez du abiapuntuaren kontzientzia lin-guistiko hori, eta azken muga bakarrik da harentzat pertinentea era honetako perpausak sortzen dituenen.

ARTE eta *ARTIAN*, postposizio biak erabil daitezke egitura honen amaie-ran. Bigarrenaren kasuan, ez du aurreko bi ataletan adierazitako balio-bikoiz-tasunik, baizik iraupenaren azken muga adierazten duena bakarrik.

Bokalarteko *-R-* leuna galduz ahoskatzen da normalean: *haik eta*.

(1149) *Ha(r)ik eta lana amaittu arte, eztoigu deskantsauko.*

(1150) *Haik eta jostaillua erosi nion arte, ez zaban bakerik euki umiak.*

(1151) *Etzan lasaitu umia, haik eta eguna argitu artian.*

D. BESTELAKO ESAMOLDE BAT

4.2.3.24. JUN DANEKO X URTIAN

Irizpide formalari dagokionez, perpaus erlatiboa dugu, baina balioz den-borazkoa dugulako sartu dut hemen:

(1152) *Harek kendu, eta gero errepiak garbittu ganaueri, eta oiñ azkenal-dixan, ba, urte askuan, gu jun daneko hogeï urtian eo, makiñiakin, makiñiakin jaixten dittuu.*

4.2.4. KAUSAZKO PERPAUSAK

4.2.4.1. -eLAKO

Kausa edo zergatia adierazten dute *-eLAKO* menderagailua erabiliz osa-tzen diren mendeko perpausak. Ekar ditzagun adibide batzuk:

(1153) *Eta hamen andrak, Arostegiko ama ere, ba, inñude eon tzuan, Donos-tian. Halaxe zalako bizimodua, diferentia.*

(1154) *Eta kastigauta eote nitzan, matematikarik eman be, enakixalako, (...)*

(1155) *Len, hola pelukeixara ta? Oiñ, jun eta enaiz etorriko igual illuntzira arte. Orduan etzauan hori. Ez gendualako hartzen geuk. Etzauualako erreztu-*

sunik, katibu gehixo. Norberak etzabalako hartzen. Eta gero, zaharrak etzebelako lagatzen eo.

(1156) *Eta bezperan, bizperan ere, ba, automobilla nola bazakixen askok ya manejatzen, juan nitzan bizperan, biajia ein biha nabalako, Azkoitti alderaiño ein naban ibillixa, eztakit zeinekiñ eta nola.*

4.2.4.2. ZE(RG)ATIK(AN) ... Ø

Aditzak batere menderagailurik ez duela erabiltzen da; halaxe erakusten dute honako adibide hauetako orainaldiko adibideek, eta bai egitura honen baliokidea den ZE(RG)ATIK EZE lokailua duten perpausen jokabideak ere:

(1157) —*Basarriko bizimodua gogorra zan zuretzat? —Bueno, goorra, goorra... Guk ez gendun asko ein basarrixan, zeatik hamahiru urtekin tallarrera haste zan. Ittulan da, garo ebaten da. Gaurkua baiño goorrau bai, e!*

(1158) —*Eta ze inpresio ein dizu? —Oso ondo, e! Nik segiduan ezautu naban, zeatik haren ama gure launa zan, eta, han, zera, Jasone Osoro!*

(1159) (...) *ane(k)dotia politxa, zeatik guk dotriña-ta euskeraz emate genduzen, beti. Liturgia beti eman juat euskeraz.*

(1160) *Askotan pentsatzen dot herri-kirolak eta, ez ete dian galduko. Oiñ sostentzen dia oindiokan baiña, iual... Dantzia, behintzat, gordetzen da. Dantzia segurua, zeatikan dantzia da betikua, segitze'iona da, eta gazterixiak, itxuria, erretz eitxen deu.*

Menderagailu funtzioaz gain lokailu funtzioa ere badu ZE(RG)ATIK honek; bigarren horretan, ez dute perpausaren barneko txertatzerik ahalbidetzen (menderagailuek egiten dutena), baizik testu-mailako lotura semantikoa.

4.2.4.3. ZE(RG)ATIK EZE ... Ø

Esan bezala, kasu honetan ere ez du mendeko perpausoko aditzak menderagailurik hartzen; hori adierazi nahi izan dut Ø zeinuaren bitartez, bai kasu honetan eta bai aurreko (ZE(RG)ATIK) eta ondorengo (ZE) azpiataletan.

(1161) *Lengo euskeria daok oinguakin zihero diperentia, edo behintzat asko diperentziatzen dana, zeatik eze, gaur dauden gauzak, asko enteniu etxaittu eitten.*

(1162) *Baiña gutxik eukitze jaittuek zabalikan Gabonetan, zeatik eze, baakik ze pasatzen dan Gabonetan? Eurak, pamilixakuak, juntatze'ittuk. Kanpora*

ezkondutako danak etortze`ittuk, eta nahixao izate juek eurak, itxi eta euren bakian.

(1163) *Bueno, eta aber monagillo nabi naban bertan izatia, zeatik eze Bizentek laga ein biha zabala, ezingo zabala atendidu ta. Bueno, baietz, ba.*

(1164) *Eta tabernia gau guztian irikitxa eote zan. Gau guztian. Bai, zeatik eze hamabixak aldera arte edo iual eongo zian normalian, eta ordubatak eo ordubixetarako banaka batzuek haste zian.*

(1165) (...) *hola esan tzian: “Gelditxu hari, gelditxu hari!”, eta juntau giñan bixok, eta esan tzian eze “ez`ik pauso bat gehixo eman, zeatik eze beheraiño etorritxa dauaz tankiak italianuak eta.*

(1166) *Ez zan komeni han gelditzerikan, zeatik eze berriz ere beste disparto bat ero, neu hantxe nauala iual alleauko zan!*

4.2.4.4. ZE ... Ø

ZE jatorriz galdetzailea bera bakarrik ere erabil daiteke kausa-perpauusak osatzeko; honek ere ez du menderagailurik eskatzen mendeko perpau sarean aditzean.

(1167) *Andria noiz ezautu naban? Handikan denporara, bastante denporara izango zan, ze normalizauta zauan “dentro de lo que cabe” [egoera]. Behintzat, gerria ya amaitxutzat ero hamen bueltetan.*

(1168) *Eta kastigauta eote nitzan, matematikaririk eman be, enakixalako, ze (...) maixuak zelakuak ziran orduan!*

(1169) *Ba, [nire semea] derrior ezautu bi`ok, ze Elgoibarren haura ezautze eztaban txakurrik eztaok eta.*

4.2.4.5. ETA ENKLITIKOA

Menderagailu mota hau jatorriz juntagailua omen dugu.¹⁵

¹⁵ Hona jatorriz juntagailua den *ETA* honen menderagailu-bihurtze prozesua, *EGLU VI* liburukiaren arabera, 200-203: *Mutil argia da eta berehala ikasiko du* → *Berehala ikasiko du, mutil argia da eta.*

*EGLU*ren arabera, kausa-ondorio erlazio berezia duten *ETA* juntaduretan, hurrenkera-aldatze bat gertatzen da; halakoetan, *ETA* juntagailua aurreko perpau sare atxikia dago (*Mutil argia da-eta / berehala ...*), eta mugitu ere halaxe mugitzen da, *ETA* enklitiko izateraino.

Normalena izaten da enklitikoa aditzari lotua joatea, aditzaren ondoren, baina ez da halabarrezkoa, adibideetan ikusiko dugun bezala.

Aurreko hitza nola amaitzen den, halako forma hartuko du partikula enklitikoak: *ETA*, *TA* edo *DA*.

Hegoaldeko leku eta hizkera askotan bezala, asko erabiltzen da egitura hau azalpenak emateko.

Hona adibide batzuk:

(1170) *Hortan ibiltze giñan. Pelotan, ointxe ere dauan fatxadia eleizarako, zerian, Maalan, pelotan asko ein gendun guk, han kamiñuan ez zan autorik ibiltzen eta.*

(1171) *Nun ezkonduko giñan, ba? Elgoibarren ezkondu. Bizimodu guztia Elgoibarren ein dou ta.*

(1172) *Baiña [hori] len; oiñ nun zer dauan etxakixat ixa ta.*

(1173) *Bueno, ezteixoun zer gehixegi eman, amenazu gehixegi kottauari, ehun urte jaukaz ixa ta.*

(1174) *Ba, guk ez gendun dantzan asko eitten, ez genkixen da.*

(1175) *Kaleko lanak eindakuan a(g)uro etxera etortzia nahi; bai ba, astuakiñ etorri biha izete zan da!*

(1176) —*Eualdixan berri zuek jakitzen dozuela guk paiño hobeto.* —*Bai. Hemendikan [hemen goitik] ikusi ere gehixao eitten dou ta.*

(1177) *Bai, han mina-zuluan eon giñuazen. Han gainetik jo arren, etxuek apurtuko haura, lodiera haundixa jaukak eta.*

(1178) *Orduan lokatzia eote zuan, pistarik etzuan da.*

Aditza elidituta duela ere ager daiteke *ETA* kausazko hau:

(1179) —*Zuek zakazuen baloria; nik ez neuke hori eingo.* —*Besterik ez eta...*

4.2.4.6. ZELA / NOLA ...-eN

Elgoibartarren jardunean oso arruntak eta ugariak dira era honetako perpausak. *ZELA* eta *NOLA*, biak erabiltzen dira, adibideetan ikusten den bezala, eta ez dute nahitaez mendeko parpausaren hasierako muturrean joan behar, nahiz haien kokalekurik ohikoena horixe izan.

Hona adibide batzuk:

(1180) *Ba zure ama, bueno, ama ta aitta ere, hamen zela San Lo(re)n-tzokuak dian bixak, ba, guk ibilli doun euseria, iuala dana guk.*

(1181) *Baiña hau zela dan landara haundixa, honek lur gehixo eskatze jok.*

(1182) *Donostia aldetik eta, ebakuaziuak izan tzian Altzolara. Eta hotelen batzuek rekisatze zitxuen hor Donosti aldian da; hamen Altzolan ere, nola baiñuetxia eta ohiak eta zauden, egokixa zan lekua.*

(1183) *Ostian ez genduan ordaindu ezer ere, baiña guk eruate genduan jeneruakin, nola askoz gehixao guk biha genduana baiño eruate genduan, ba, harekin, tabernia irikitxa zauan.*

(1184) *Gero berau goixan, gaiñian zela zauan, ba, baatik, dana harrapau. Depentsaik ez honek.*

(1185) *Eta beste batek eraitte jauan hola. Eta jota harekin zikin guztia ariña nola zan, eta garixa pixutsua, jute zuan garixa garbi-garbixa behera, jauste zuan.*

(1186) *Eta hemen polideportibua zela dauan, ba, gaur danak dakixe igerixan, ezta!*

4.2.4.7. ADITZ-PARTIZIPIO HUTSA (-TU)

Aditz-partizipio hutsez osatutako mendeko perpausek ere izan dezakete kausa- edo azalpen-balioa.

Hona adibide batzuk:

(1187) *Ez, danian gu ondo hartu gaittue oiñ artian [landa-etxe guztietan]. Edo geu onak izen, edo txukunak izen, edo...*

(1188) *—Etxok ezertan asmatzen gure Inaziok. —Aldrebes samarra izen...*

(1189) *Gure bentajia hori, txikixak izen gu.*

4.2.4.8. -eN ALDETIK

(1190) *Euskal Herrixan bizi gean aldetik, defendidu deigun euseria.*

(1191) *Emakumia naizen aldetik, ezin dittut tratu txarrak ikusi.*

4.2.4.9. -TZIAGATIK(AN)

Kausa eta helburua adierazteko erabiltzen da Elgoibarren menderagailu hau. Kasu honetan, kausazko balioa dute ondoko adibide hauek:

(1192) *Neskiari hola helduta jutiagatikan, hola helduta jutiagatikan, “doscientas cincuenta pesetas”, multia.*

(1193) *Espaloi gainian aparkatziagatik, kriston multia, hi!*

(1194) *Ezta mozkortuko [ardo] tragua eratiaatik!*

(1195) *Nazionalistia ero gorrixa izatiagaitxik bakarrik, bilddurrez!*

4.2.4.10. -TZIARREN

Aurrekoa bezala, menderagailu hau ere kausa eta helburua adierazteko erabil daiteke; beharbada arruntagoa da helburu-balioarekin erabiltzea, baina bietariko erabilerak jaso ditut. Ondorengo kasu hauetan, nolana ere, kausazko balioa dute:

(1196) *Horrek miña baleuka nere moukua... ezta nik esatiarren, ni erutaille haundixa naiz miñakin, e! Haundixa!*

(1197) *Gizurra esatiarren ein ditt bronkia!*

4.2.4.11. -eLA TA

Aditz edo predikatu gobernatzaile inplizitua izaten dute halako mendeko perpausek.

Hona adibide batzuk:

(1198) *Eta gero, aitzak ezetz! Ezkontzeko honekiñ, harekiñ etzala ezkonduko, txoferrak eta pelotaixak golfuak izate'iala ta. Gero, txoferra ta pelotaixa hartu!*

(1199) *Bost laguneko familixia, jornal bat, bi seme soldau, estu agertuko zan, eta zera eskatu zion, jornal gehitxuo aber eman leikien, estu zabillela ta.*

(1200) *Ba orduan ere, ointxe moruan, itxasuak, bere terrenuak diala ta, noizik behiñetan negu gogorrian iual kamiño pusketak-eta botatze zitxuan.*

(1201) *Francon kontrakuak ziala ta, gero etxakixat hoge hillabete eo zenbat ein giñuazen. Kontua dok sei urte inguru ein giñuzela soldau.*

(1202) *Ba, esan diot hemen eote ziñala ni ikusteko desiatzen, egunero hemen pasatze nitzala ta.*

(1203) *Dirua eskuan, milla peztakua, da hamarretako bokaillo bat iñok eman nahi ez, kanbixoik etzaukala ta. Jan bae egun bat pasau naban.*

4.2.4.12. **BAIT-**

Ez da menderagailu horren inongo aztarrenik gaur egungo elgoibartarren jardunean. Ezta, hurbileko leku bat aipatzeko, Azpeitia aldean ezagunak diren espide fosilduetan ere (*baldin baite* eta halakoetan).

4.2.4.13. **PORKE**

Gaur egun, gazteen artean nahiko erabilia den arren, adin batetik gorako hiztunen artean (hirurogei urtetik gorakoen artean batez ere) gutxi erabiltzen da. Mendeko perpausaren hasieran sarrera-lokailuren bat behar izatekotan, nahikoa dutela dirudi *ze(rg)atik* eze moduko bat.

Hona *porke* duten adibide bakan horietako batzuk, hiztun berarenak hirurak:¹⁶

(1204) —*Idi-probena oso gogorra da. —Neri penia emate'ie. —Baitta neri ere. Penia ematen dau, porke ezin dabala esaten badau ere, oindiok ere han eixe'ie, entenitze'ozu?*

(1205) *Bueno, han reunio baten planteau naban nik hori, porke han leku edarra zauan azentsora ipintzeko.*

(1206) *“Bueno hi, saldu'iak, hau pisuau, hiri ezetik ardura, ta erosiko'ok beste leku baten hik, eta saldu'iak hau pisuau, porke andriakin problema hau jaukat”, honek azentsora zakan.*

4.2.4.14. **ZE(R) BA menderagailu?**

Hiztun gazte-gazteek bakarrik darabilte *ZE(R) BA* hau menderagailu gisa: berri-berria da, eta ez du adinekoetan inongo lekukotasunik.

(1207) **Zugana etorri naiz, zeba liburu bat eskatu biha'izut.*

Horrelakoetan, baditu euskarak denetariko egiturak, jatorragoak. Mendeko esaldia (azalpena ematen duena) luzea bada, hiztunak behar izaten du hasiera-hasieratik perpausaren kutsua emango duen perpaus-markatzaile bat;

¹⁶ Elkarrizketatu ditudan berri-emaile guztietatik, bakar batek bakarrik darabil *PORKE* lokailu hau.

markatzaile hori *ZE(R) BA* izan beharrean, *ZERGATIK (EZE)* izan daiteke, gure artean askoz errotuagoa dena:

(1208) *Zugana etorri naiz, zergatik (eze) liburu bat eskatu biha'izut.*

Kasu honetan, sarrera-partikularik gabeko egitura ere oso egokia litzateke:

(1209) *Zugana etorri naiz, liburu bat eskatu biha'izutelako.*

(1210) *Zugana etorri naiz, liburu bat eskatu biha'izut eta.*

Galdetzaile gisa ere ez da onartzekoa, ez bada bera bakarrik, huts-hutsean:

(1211) —*Enaiz zurekin mendira juango.* —*Ze ba?* (ONDO)

(1212) **Ze ba etorri zera hain berandu?* (GAIZKI)

(1213) *Zeatik etorri zera hain berandu?* (ONDO)

Azken galdera horri ere ezin zaio erantzun *zergatik* baten bidez hasten den esaldi batekin:

(1214) —*Zeatik etorri zera hain berandu?*

—**Zeatik bai.*

(1215) —*Zeatik etorri zera hain berandu?*

—**Zeatik nahi dot.*

Lehenengoaren ordeaz, nahikoa litzateke honelako zerbait:

(1216) —*Zeatik etorri zera hain berandu?*

—*Ha(g)atik!*

Bigarrenak *-eLAKO* luke menderagailu egokia:

(1217) —*Zeatik etorri zera hain berandu?*

—*Nahi dotelako.*

4.2.5. BALDINTZA-PERPAUSAK

4.2.5.1. BA-

(1218) *Da euskeraz entzuten bahixan maistriak, erun aurrera, ta belauniko.*

(1219) *La(g)ako bagendu bixarko ere, gaizki ez.*

(1220) *Eta berriz ondo garbittuta jute ezpazan, bi bider bialdutakuak ere bai, e!*

(1221) *Eta ezetarako balixo etzabana [dotrina]. Aber dotriñiak... nora jun bi'ok gaur dotriñiak?* Haren lekuan ikesi bagendu beste zeoze...

(1222) *Orduan, eualdi ona bazan, ba, ni abarketa zurixekin lenengo.*

(1223) *Basarrixan illunduko ezpalau, ezkiñoke lagako lanari, e!*

(1224) *Neri esango balie "bakarrik zaure ta etorri zaitxe gure(g)ana", ni pozik.*

(1225) *Hor [Urbian] ohittuko nitzakela uste juat laste, jungo banitz.*

(1226) *Modako gauzia izan balitz gure sasoiari hau [gaueko ibilerak], ba, hauxe ingo genduke geuk ere.*

-TUKO BA-

Hona baldintza-egitura berezi honen adibide batzuk:

(1227) *Tabernan kontu gitxi ein biha izaten da, lana ingo baldin bada.*

(1228) *Konpesatzera jun bi'izate zuan orduan. Eta bihako gainera jun, etxian lo ingo bazuan!*

(1229) *A(r)antzia baakik zela eukitzen daban gaztaiñiak? Harekin danakin bi'ok gaztaiña konserbauko bada.*

4.2.5.2. BALDIN BA-

Baldintza-perpausetan, nahiko arrunta da Elgoibarren *BALDIN* sarrera-lokailuaren erabilera.

Hona adibide batzuk:

(1230) *Neuk ere idea pixkat baneukan, eta onen-onena apaiza ero holakotxia izango zala egokixena, habittaziua baldin bazeukan emateko.*

(1231) *Antxobia txakur haundixan baldin badao, ekarri. Eta handik gora badao, ez ekarri.*

(1232) *Haren ama Gatzagaraiño jun baldin bada, da handik bajau bada, anguliak haraiño ixotzen deu.*

(1233) *Tallarretik ertendakuan, zapatu-jaixa, ba, basarriko zeoze in bihar baldin bada, beti katiauta.*

(1234) *Nik ostian bai, ostian aixkoria edo harrijasotzia eo holakua baldin bada, ba, haura bai.*

(1235) *Eta nik Azkarate gainian, alleau giñanian, lelengo lana ein nabana zan bueltia eman automobillari, eta kale aldera ero hona herri aldera begira jarri, deskuiduan estuasun bat sortzen baldin bazan, prest eukitzeko alde eitxeko.*

Bestalde, normalak dira ahozko jardunean baldintza-perpauari hasiera ematen dioten bestelako elementu baldintza-balioaren iragarleak, adibide sail honetako azken adibideko *DESKUIDOAN* hori bezalakoak, alegia.

4.2.5.3. -TU EZKERO

Aditz jokatugabearekin osatzekotan, [partizipioa + *EZKERO*] postposizioa erabiltzea da normalena gure hizkeran. Hurrengo azpiatalean ikusiko dugu aditz-izenari ere lagundu diezaiokeela *EZKERO* postposizioak, baina partizipioa duena da bietan ugariena, alde handiz, gainera:

(1236) *Basarrixan, beittu ezkeru, beti dao lana.*

(1237) *Ostian bista haundixa dao hamen. Hamendikan horra gaiñera jun ezkeru, hortik Debako playia, itxasua ta dana ikusten da.*

(1238) *Berak konsultau, eta beste bat hara billau laikiela, hala nahi izan ezkeru.*

(1239) *Soiñua entzun ezkeru, buenooo! Dantzan geldittu be. Goizian juan ezkeru, eguardira arte, eta eguardixan juan ezkeru, gabera arte.*

(1240) *Eta hori peligosua izaten dok oiñ: txispa bat jun ezkeru horra, esplo-tau eingo leuke.*

4.2.5.4. -TZE EZKERO

Aditz-izenean oinarritutako hau ez da baldintza-perpauak osatzeko baliabide ohikoena, baina ezin da uka, tarteka bada ere, erabiltzen dela.

Hona lekukotasun batzuk:

(1241) *Permisorik izete ezkeo halako lekutik etortzeko, ba, bihe izate zuan, ba, zortzi-hamar egun ero gitxienez.*

(1242) —*Bai, esaten da, baiña edadiak-eta, edadiak kortau eitxen deu asko. Moztu, moztu. —Honbre... Bai, bai, behintzat jute ezkeru, nunbaitxera jute ezkeru lagunakin...*

(1243) *Eurok salbatze ziala baiña, dio Anjelek, bat jakitze ezkeo, ingles ike-si biha dala, e!*

(1244) *Behian baiño nahixo, jute ezkeo, zerian, airian, aidian.*

-*TZE EZKEROTAN* forman ere erabili izan da inoiz: *izate ezkerotan...*

4.2.5.5. -TU EZIK(AN)/EZIAN

Baldintza perpaus-ezezkoak osatzeko erabiltzen da. Batzuetan elidituta egon daiteke mendeko perpausoko aditza.

(1245) *Pelotaixak danak ezautze'ittut. Eta hemengotxia izan ezikan bateron bat, oin dan-danak ezautze jaittuu, pelotai danak.*

(1246) *Elgoibarren basarrikua izan ezikan, kalekuak ya normala igarixan eittia da. Normal-normal-normala.*

Aditzik gabe ere erabil daiteke:

(1247) *Ondo eon ezkeru, soldautzia ondo pasatzen dok, tiroik ezian. Gerria txarra dok.*

4.2.5.6. -T(Z)EKOTAN, -TZEKUAN¹⁷

Nabarmentzekoa da singularreko forman ere erabiltzea menderagailu hau: -TZEKUAN. Ikus ditzagun bateko eta besteko adibide batzuk:

(1248) *Da gure koiñatak Ondarruakuak esate zian ipintzeko arrandegixa. Arrandegixa, ez; arrandeixa ipintzekuan, jaixo biha zala peskaderia, esate zebeñ, da ni naiz taberneria.*

(1249) *Nere semiak ere dio [hizkuntza] bat jakitzekuan ingles ikesi biha dala.*

(1250) *Dirua palta, ta diruik ez, ta zelabaitt-halabaitt ekarri, tta hurrengo pagatzekuan da...*

(1251) *Ondo zaintzekotan lagako dixat liburua, e!*

(1252) *Esatekotan, esaixok kontuz, bilddurtu eingo dok bestela ta.*

4.2.5.7. -TZERA

Aditz-izenari adlatiboko marka erantsiz osatzen da menderagailu hau; halako forma duen aditzia helburuzko perpausetarako erabiltzen da normalean, baina osa daitezke baldintzazko balioa duten perpausak ere; hona hori erakusten duten bi adibide:

¹⁷ Moduzko balioa ere izan dezake -TZEKOTAN menderagailuak (ikus, moduzko perpausetan, 4.2.8.7. azpiatala).

(1253) *Hori egixa izatera, ni ere hasiko nok lan horretan.*

(1254) *Zure egoeria jakitera, enajuan ezer esango gaixotasun horren gainian.*

Erabilerari eta maiztasunari dagokienez, batetik, badirudi egoera-aditz batzuekin erabiltzen dela batez ere (*izan, jakin, egon...*), eta, bestetik, ez da maiztasun handiz erabiltzen Elgoibarko jardunean.

4.2.5.8. -TUANIAN

Aditz-partizipioan oinarrituz, baldintza-kutsua ematen dio mendeko perpausari menderagailu honek. Oro har, gaur egun behintzat, hedadura murritzekoa dela dirudi (Deba arroa ingurukoa, dirudienez: Legazpian, Bergaran... badira lekukotasunak), eta -*TUENEAN* idatzi izan da gehienetan, lotuta.¹⁸

Hona, erabilera argitzeko, Elgoibarko adibide pare bat:

(1255) *Hart'ik guardasola, eurixa e(g)in'anian ere.*

(1256) *Etxera inor etorrianian ere, erosi'zuz pasta batzuk!*

‘Etxera inor etortzen bada, badaezpada ere...’ adiera hartzen du halakoetan.

Ohikoa da, azkenik, *ERE* lokailuaren laguntza halako perpausetan, baldintzaren indargarri.

4.2.5.9. -eNIAN

Formaz denborazkoak dira, baina balioz baldintzazkoak direla ezin ukatu ondorengo hauek.

(1257) [*Eskela*] *geuria eztanian, pozik, gainera!*

(1258) (...)—Ez. *Zeatik eze, behin sua han ez zauanian, sua dauala etzaban esplotauko, lenengotik esplotau eztabanian.*

4.2.5.11. -eLA

Ez da ohikoa baldintza perpausak -*eLA* menderagailuarekin osatzea, baina ezin uka ondorengo adibide hauek ere baldintza-balioa dutela.

¹⁸ *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak VII* liburukirako material argitaragabea, hala esaten da, menderagailu honen erabilera eta tradizioa aztertu eta gero.

(1259) *Por ejemplo, zapatuan San Isidro eguna dator, eta orduan Arratera jungo gea, ondo geala.*

(1260) *Ez, lo ondo eitten det, bastante ondo, baiña nahi detenian haura ipintzen det nik, al dala.*

(1261) *Orduan basarrixa dana zuritxu eitxe zan, kuartuak eta dana, urtero al dala.*

4.2.6. KONTZESIO-PERPAUSAK

Kontzesio-perpauetan, oztopo bat aurkezten da perpau nagusiko aditzak adierazten duena gertatzeko; oztopo hori gaingitu, eta kontzesio-perpauetako oztopo hori gorabehera, perpau nagusiko aditzak adierazten duena gertatuko da: funtsean, horretan datza kontzesioa.

Elgoibarren, aukera nahikotxo ditugu perpau nagusiaren eta mendekoaren arteko erlazio hau adierazteko. Gatozen, bada, banan-banan aurkeztera.

4.2.6.1. NAHIZ TA/DA ...-TU

Elgoibarko erabileran, oso arrunta da egitura hau¹⁹. Aditz jokatu gabea duten adibideak bakarrik jaso ahal izan ditut; horixe zen, edozein kasutan, espero nuena, erabat nagusitzen baita egitura honetan aditz jokatu gabeko moldea.

Mendeko perpauaren hasierako muturrean kokatzen da *NAHIZ* lokailua, beti *ETA* juntagailuaren laguntzarekin.

Gatozen adibideetara:

(1262) *Eta zapata garbixak, illia ere oiñ daukaten baiño txikixaua. Hobeto arreglauta, ta, nahiz ta lepua mehia euki, illia kenduta behintzat.*

(1263) *Ba, bueno, bedarra ebaitzera nua orduan, nahiz da bittartian iual eurixak harrapau.*

(1264) *Bai, baiña orduan pasatzen da batzuk diala Elgoibarkuak eta bestiak Eibarkuak, nahiz da hamen bizi.*

¹⁹ Gotzon Garatek, *Erdarakadak* hiztegian (229 or., s.v. *NAHIZ*), dio erdaren eraginez nagusitu dela eta “euskal senak (...) konjuntzioak azkenean nahi lituzke”-ela; eta gainerako molde kontzesiozkoen adibideak ematen ditu, baina ez du ematen *NAHIZ (ETA) ...-TU* egituraren adibiderik, inongo baserritan jaso izan ez balu bezala. Harritzekoa da, inondik ere, zeren eta gure berri-emaileen artean ez baitira bakanak halakoak.

Batzuetan, aditz mendekoaren elipsia ere gerta daiteke; arrunta da hori, oro har, kontzesio-perpausetan:²⁰

(1265) *Abantau giñan hortikan, Aulestitikan Bilbora, Gernikatikan pasauaz. Zeatik eze handitxik pasau biha genduan, nahiz da ezkiñaren batetik.*

4.2.6.2. -TU ARREN

Menderagailu honetan ere, aditz jokatugabeen adibideak bakarrik jaso ditut. *ARREN* postposizioa (eta, berarekin batera, aditz-partizipioa) mendeko perpausaren azken muturrean kokatu ohi da.

Gatozen adibide batzuekin:

(1266) *Eta holaxe juate nitzan elizkizunetara, monjak frantsesak izan arren, ba, euron kantuak eta euren gauzak polittak izete zian.*

(1267) *Bai, han mina-zuluan eon giñuazen, lau bat aldiz bai. [Bonbak] han gaiñetik jo arren, etxuek apurtuko haura, lodiera haundixa jaukak eta.*

(1268) *Han batek esate zian “hik eztaukak beste urtebeteko bizirikan”, baiña astakertenak haura esan arren, neri berdin tzian.*

(1269) *Eta gero, kanpoko abade bakoitzak zaukan obligaziua monagillueri erriala pagatzekua. Hoeta bost zentimo. Eta askok “por aquí” eitxe zebeñ, abadia izan arren.*

(1270) *Aurreko karretera edarra eitxen debenian, berdia kendu arren, ba, pasiuan jendia ta, mobimentua ta, kotxiak eta abarrak eta... bistia izango da.*

(1271) *Sekula ez gendun guk eiñ erderaz, beti euskeraz, da gaiñera beti hika, txiki-txikixak izan arren.*

(1272) *Makiña bat lan eindakua, diruduna izen arren.*

4.2.6.3. BA... ERE

Kontzesio-perpausetan aditz jokatudun perpausak sortu nahi baldin badugu, *BA- ... ERE molde* honetara jo beharko dugu.²¹

²⁰ Ikus *EGLU VI*, 239 or.

²¹ Teorikoki beste egitura batzuk ere erabil daitezkeela uste dut (*NAHIZ ETA ...-eN* edo *-eN ARREN*), baina nik jokatugabeak bakarrik aurkitu ditut, lehen esan bezala.

(1273) *Ganau bat soltatzen bada, harek [txakurrak] gabian notatzen deu. Gabian soltatzen bada ere, kristaua bezelaxe, zaunka eiñ, eta abixua ematen deu horrek.*

(1274) *Haura ya, borondatez eitxen dan gauzia da a(d)arixana, baiña idixana ez; idixa ipintze debe lotuta, Kristo bezela, atzian harri galanta, ezin badau ere, zazta-zazta, eraiñ hantxe. Idixana oso goorra da.*

(1275) *[Idiak] Penia ematen dau, porke ezin dabala esaten badau ere, oin-diok ere han eitxe'íue, entenitze'ozu?*

Egitura hau bera lexikalizatuta ageri zaigu lokailu erabilera batean:

(1276) *Hemen pagau ein biha juau rondaren bat ba(d)a re, hola eta hola. Beti gorroneuan, bestela.*

(1277) *Baiña hantxe geratzia tokau, eta hau pixkat ba(d)a re librau. Librau ein biha dala pixkat.*

Nola jakin lexikalizatuta dagoela? Batetik, unitate foniko bakar gisa ahoskatzen delako; bestetik, aditzak ez duelako komunztadurarik gordetzen, pluralera aldatutako goiko adibide honek erakusten duen bezala:

(1278) *Hemen pagau ein biha jittuau rondaren batzuk ba(d)a re, hola eta hola. Beti gorroneuan, bestela.*

4.2.6.4. -TUTA ERE

Arrunta da Elgoibarko hizkeran aditz jokatugabea duen molde hau ere:

(1279) —*Ointxe amaitxuko dou. —Hori, neri hori ez einda ere, berdin zuan.*

(1280) *Abade frankista katalan bat zan... eta gu bilddurrez. Ondo esanda ere, da!, makillakaria!*

(1281) *Hoeta hamar milloe ta esate'itxue ta [etxebizitzak]. Ze? Nundik batu biha'ia horrek? Bixak lanian eonda ere, urte askotarako kargia da hori!*

4.2.6.5. BAIÑA ENKLITIKOA

ETA enklitikoaz aritu garenean esan dugunaren antzera, BAIÑA hau jatorri batean juntagailua omen zen, eta menderagailu-bihurtze prozesu baten ondorioz utzi ditu juntagailu funtzioak eta hasi da menderagailuaren fun-

tzioak hartzen²². Mendebaldeko hizkeren ezaugarrietako bat da, eta Elgoibarren egitura arrunta dela esan behar.

Ikus ditzagun adibide batzuk:

(1282) *Eta kinto mordua dittuk eon giñanak, oin bajauta gauaz baiña.*

(1283) *Hamaika urte, eztau ematen baiña.*

(1284) *Baiña barruan ibiltzeko beti billatze zaban, han tiraka ibiltzia izete zuan ona, pixkat azkenerako nekatze zuan baiña.*

(1285) *Eurok ere zauken zerian, han, eztaikit nik, astillero antzerako taller mekaniko bat, barkuak eta reparatzeko, entzuna, e!, ni enitzan alleau bertara baiña.*

(1286) *Gaur ere baten batzuk eongo'ia, eztaikit zein daozen baiña.*

Mendeko perpausaren azken muturrean doa BAIÑA, eta normalean mendeko aditzaren ostean (nahiz beti ez duen zertan horrela izan: adibide sail honetako azken adibideei erreparatu besterik ez dugu horretaz jabetzeko).

4.2.6.6. BANAKARITZAZKOAK

Orobatasunezkoak ere esan izan zaie EGLU gramatiketan.²³

(1287) *Nik usten dot honentzako etxe haren aurretik pasau, atzetik pasau, ez zala alde haundirik eongo, berdin samar izango zala, ta harentzako libertade haundixa zan atzetik pasatzia.*

(1288) *Goizian juan, atsaldian juan, lanian topauko'zu.*

(1289) *Goiz izan, berandu izan, nik lanian segittuko't.*

(1290) *Eguna juan, eguna etorri, hotza izan dou aurtengo negua.*

²² Hona BAINA-ren menderagailu-bihurtze prozesua, EGLU VI gramatikaren arabera (253-254):

Gaixo dago baina kalera irten da → Gaixo dago-baina kalera irten da → Kalera irten da, gaixo dago baina.

ETA enklitikoarekin gertatu den prozesuaren antzekoa dugu: juntagailu zena menderagailu izateko bidean da hemen ere.

²³ Ikus EGLU VI, 267 or.: "orobatasunezko deitu dezakegun balioa dugu, indiferentziazkoa, alegia: berdin zaigu bata zein bestea, aditz nagusian adierazten dena gertatuko da". EGLU VII izango den liburukian ere orobatasunaren kontzeptu hau jasotzen da perpaus mendeko jokatu gabeetan ere, goiko adibideei erreparatzen badiegu, halakoak dira Elgoibarren batu ditudan guztiak.

4.2.6.7. PARTIZIPIODUN ESAPIDE BAT

(1291) *Hori, kostia kosta ein biha juau.*

(1292) *Kalamua gaina-ta zeuken reketiak eta Franconak. Eta horra, Etxeberri aldera, ba, trintxerak eta einda mendixan, da hortxe gelditxu zan [gerako frentea], da gelditxua gelditxu.*

4.2.6.8. AUNKE

Bildu ditudan testuetan ez dut *AUNKE* lokailu erdaratikoa duen egitura-rik aurkitu, baina badakigu zenbait hiztunek, elkarrizketatuak baino gazteagoek betiere, erabiltzen dutela.

4.2.7. KONPARAZIO-PERPAUSAK

Konparaziozko perpausak biltzeko, sailkapen nagusi bat egingo dut lehenbizi: konparazioa zer eratakoa den, horren arabera egingo ditut multzoak. Izan daitezke berdintasunezkoak, desberdintasunezkoak edo korrelazioakoak. Lehenbizikoaren barruan, maila, zenbatasuna eta modua bereiziko ditut, eta bigarrenaren barruan, maila eta zenbatasuna.

Gatozen, bada, Elgoibarren erabiltzen diren konparaziozko perpaus motak banan-banan aztertzea.

A. BERDINTASUNA

A.1. Maila

4.2.7.1. *BEZIN* (*BEZAIN*)

BEZAIN baino gehiago erabiltzen da *BEZIN* aldaera.

(1293) *Ni pentsatzen eote naiz, gaurko bat edo bi [seme-alaba] dian horrek, eziala gure kuadrilla haundixa bezin feliz. Kuadrilla haundixa oso bizimodu zoragarrixa izan zan.*

(1294) *Berbetan egon naizen gizona ezta zure semia bezin altua. (EAEL)*

(1295) *Haren aitxa, buenooo, hemenguak bezain zintzua da!*

A.2. Zenbatasuna

4.2.7.6. BESTE

(1296) *Nik esaten dot eztauala deretxorik gaur dixen beste milloe estranjero-ra, bialtzeko Espaiñiatikan: hasi fubolista, hasi entrenadore, danak estranjeruak daure, ekipo guztiak estranjerok beteta daure.*

(1297) *Gure garaixan, paroik ez! Orduan hamar ordu eiñ, eo hamabost eiñ... Nahi zendun beste.*

(1298) *Baiña gure denporan ez, ene... orduan nahi zan beste.*

- Aditzaren elipsia dutenak:

(1299) *Ez, orduko hasitta, telebisiorako ya hasitta zauden batua puskat. Guk telebisiua ekarri genduanerako, bai. Oin beste ez, e!*

(1300) *Baiña han euskeraz? Han euskeraz eitxen dok hamen beste.*

(1301) *Esan najuan geuk ere subastan erten ein biha genduala, ixotze ezpal-din bazan hango balixua beste.*

(1302) *Hori dana kotxiak kendu jok. Kotxia ugaldu danian, geo len beste jenterik ezpada.*

(1303) —[Baserriko lana] gogorra dala pentsatze'ozue? —Bai. Bueno, oiñ ezta len beste, e!

(1304) *Da oiñ beste okasio gabe danak hamentxe, bata morroe ta bestia...*

(1305) *Gurian amak, eta neuk, pixkat, ententitzeko beste banakixan [gazte-laniaz], ba esniakiñ etorritxa ikasitxa, e!*

4.2.7.7. AIÑA

Aditz jokatuarekin ager daiteke (-eN AIÑA):

(1306) (...) oiñ entzuten dan aiña azidentekiñ, hainbeste gauzakiñ!

(1307) *Neuk pasau doten aiña beste iñori eztiot opa.*

Baina, konparaziozkoetan normala den bezala, aditza elidituta ere ager dakiguke. Halakoxeak dira, gainera, lekukotasun ugarienak:

(1308) *Ni orduan sekula jan be orduan aiña eskabetxe, mermelada eta hollako gauza!*

(1309) *Hamendikan bajatzia kostau eitte (j)ata, ta morala asko zertu jata, galdu ein jata, eta len aiña pena ez.*

(1310) *Gabon háretan aiña turroi sekula eztou jan.*

(1312) *Baiña oiñ morala asko zertu jata, galdu ein jata, ta len aiña pena ez.*

Aditz modalak ditugunean, normala da aditz laguntzailea eliditzea:

(1313) *Jendiak eztau nahi, baiña nahi izan ezkeru, gaur egunian montajian, edo ajustian eta... nahi aiña lan.*

4.2.7.5. -TZEKO LAIÑ

Destinatibo eta helburuzko oinarri bat behar izaten du; izan daiteke izenkiaren gainean eraikia (-TZAHO, -RAHO), izan daiteke adizkiaren gainean eraikia (-TZEKO); azken kasu hau da, egoki hitz egiteko, menderakuntzari dagokiona. Hona adibide pare bat:

(1314) *Gero, len esan dotena, berriz ere enpleau, eta akabo eskolia. Eta geo, zea, gabeko eskolan pixkat. Ikesi genduan? Defenditzeko laiñ.*

(1315) *Bageunkan gosia berdintzeko laiñ.*

Hala ere, bestelakoak ere jaso ditut, izenkietan oinarrituak, balioz adizkietan oinarrituen berdin-berdinak direlako.

(1316) *Badao jendia domeketan mendira jute'ana, e! Hori asko daok. Ba, danerako lain jende daok eta.*

(1317) *Soldautzan, pezetia ero zuan eguneko. Tabakotarako laiñ ez.*

(1318) *Ze barazki eukitze'ozue? Patatia ta, porrua ta, tomatia ta, danetik. Asko ez, baiña etxerako laiñ.*

Ez du berez etimologikoki duen -G- bokalartekoa gorde (*lagin*)²⁴, ahoskeran behintzat, eta diptongoa eginez ahoskatzen da.

A.3. Modua

4.2.7.4. BEZELA/MODUAN

MODUAN eta BEZALA, biak erabiltzen dira Elgoibarko ahozko jarduean.

²⁴ Ikus EGLU V, 331 or.

Dakigun bezala, perpaus soilduak izan ohi dira konparazio-perpauak: bi konparagai izanik, ez da beharrezkoa konparazioaren bi parteetan ematea errepikatuak diren osagaiak, aditza bereziki; horregatik, aditza eliditu eta konparagaiak bakarrik ager daitezke maiz. Hemen halakoxeak bildu ditut, aditz mendekorik ez duten egiturak. Moduzko perpausetan bildu ditut (adibideak ez errepikatzearren) aditz jokatua dutenak (ikus 4.2.9.5 eta 4.2.9.6 azpiatalak):

(1320) *Orduan etzan oin bezela, telebisiuak eta abarrak badia ta.*

(1321) *Orduan kaletarrak basarritarra ostikua jo, eta txakurra bezela bialtze juen.*

(1322) *Nik haura ahizta bezela juat.*

(1223) *Bidiak, berriz, oin bezela eongo bali(r)a, bai; baiña orduan ez zauan ibiltzerikan.*

(1324) *Brometan mouan esan nion: “Ño, ezta merkia”.*

(1325) *San Bartolomietan pixkat jute naiz herrira, normala dan mouan. Perixara ta hola.*

(1326) *Jo zaban kañabera ezkiñiak emakumia, eta ni txahala moruan lurrera!*

(1327) *Eta hor dauaz oiñ ere, lan astunak dauaz hor basarrixan; baiña basarrixan oiñ, hala ere, gu gabizen mouan ganauri(k) pe, ba, erreza dok bizitzia.*

(1328) *Bueno! Zoratzeko moduko zaatiakin!*

(1329) *Orduan eitte genduan lana astuak modura.*

(1330) *Eta Asturias aldera ihesika zixezen, bidekurutz batian, hamen Maalan izengo balitz moruan, ikuste naban banaka-banakak ihesika, Asturias aldera.*

Aipatzeko modukoa da Elgoibarren dagoen joera bat, *BEZALA* genitiboaren ondoren erabiltzekoa; fenomeno honek ez du indar berezirik, baina entzuten dira tarteka halakoak:

(1331) —*Nik neuk urtebete gehixao hik paiño, baiña nik eskabeteik eta enajuan jan, e!* —*Ez, ba, hi ez hitzan ibilli gure bezela ta.*

(1332) *Bai, hitz eiñ, dantzan eiñ, pues horrek eitxe genduzen, baiña ez zenbaitxen bezela; hola, mutil tartian ibiltze giñan artekuak ez giñan.*

4.2.7.12. *LEGEZ (LEZ, LEGE(Z)TXE)*

Azpiatal honetako postposizioa daramaten konparazio-perpauak ez dira erabiltzen Elgoibarren. Saillkapen honetan jaso dut, hala ere, pertinen-

tea iruditu zaidalako gurean ez baina oso hurbil, Eibarren, erabiltzen dutela hiztun zaharrenek.²⁵

4.2.7.13. LAKO(XE)

Aurreko azpiatalaeen esan dugunaren antzera, postposizio hau ere ez da ezaguna Elgoibarren, baina bai Eibarren.²⁶

B. DESBERDINTASUNA

B.1. Maila

4.2.7.1. BAIÑO ...-AGO

(1333) *Neretzako etzauan mundu guztian gauza edarraorik haura baiño.*

(1334) *Eta hona etortzeko ere, ba, behetik gora ixo ein biha dau. Eta goittik behera, asko hobe ez askotan. Goittik behera txarrao batzutan, behetik gora baiño.*

(1335) *Goizian haste'ittuk, zortzirak baiño len etortze'ittuk hona.*

(1336) *Oingua baiño haura txarraua [eskola].*

(1337) *Guk ez gendun asko ein basarrixan, zeatik hamahiru urtekin tallarrera haste zan. Ittulan da, garo ebaten da. Gaurkua baiño goorraua bai, e!*

4.2.7.2. -REN/-KO ALDIAN

Mendeko perpausen bidez izan gabe ere, oso modu arrunta da Elgoibarren egitura hau konparazioak bideratzeko: zerbait beste zerbaiten aldean ona (edo hobea) dela esatea, alegia.

(1338) *Eta eibartarrak graziosuau eote'ittuk hizketan Plazentziakuen al-dian.*

²⁵ Eibarren erabiltzen dira (ikus Sarasua-Agirrebeña-Zenarruzabeitia, 337 or.), nahiz gaur egun ia galduta daudela esan.

²⁶ Eibarren erabiltzen da (*Eibarko euskara*, 338 or.), nahiz gaur egun oso erabilia ez dela esan (gazteen artean ia galdua). Zuazok dio (2002) arrotza dela Debarrenean, Bergaran, Sorraluzen eta Antzuolan, eta hala berresten dugu guk Elgoibarri ez ezik, Mendaro, Mutriku eta Debari dagokionez ere.

(1339) *Gebitxuao iual eukiko naban, zeatik eze beti izan tzan Eibar “socialista” eta “republicano”, eta hamenguen aldian... oso abantzauak!*

(1340) *Basarriko lana len zuan goorra oingo aldian.*

(1341) *Holaxe ibiltze giñuazen. Horreatik zuan oingo aldian astuna.*

(1342) *Oingo aldian asko sorgiñak eta.*

(1343) *Oingo aldian gaizki bizi zian orduan, oiñ ondo bizi da jendia orduko aldian.*

(1344) *Hego-haizia edo trumoi-denporia, hego hau, eskasa izate'a. Honen aldian naturala... ipar-haize pixkat, euzki garbixa.*

(1345) *Baiña haren aldian honek gehixo balio deu, e!*

(1346) *Lengo bizimodua, oinguan aldian trankilla.*

(1347) *Bai, izatez geure moruan dia, baiña nik ikuste'ot euron kara(k)terra geurian aldian lotsagabiauua eukiko dabela hórrek.*

4.2.7.3. ALDIA EGON

Berez ez dagokio esapide hau ere menderakuntzari, ez dago halako mendekotasun-erlaziorik hemen; baina egokia iruditu zait hemen sailkatzea: bate-tik, balioz konparazioak egiteko erabiltzen delako, eta, bestetik, nahikotxo erabiltzen delako gure artean.

Ikus ditzagun adibide batzuk:

(1348) *Bai, diperente eitten dogu. Eske, aldia dao Elgoibartik Azkoittira, aldia dao. Eibartik Elgoibarrera ere bai.*

(1349) *Eta gure sasoetik honera, berriz, alde haundixa. Gure sasoetik honera, alde haundixa.*

B.2. Zenbatasuna (BAIÑO GEHIXA(G)O/GITXIA(G)O)

(1350) *[Emazteari] neri baiño gehixao entenitze jako, gaiñera [pilota-jokoa].*

(1351) *Baiña orduan hoixe, pezetia orduan... oingo euruak baiño gehixao [balio]*

(1352) *Martin? Nik ezautu bai harek, baiña Kuutzetan bat paino gehixo izengo'ia ta.*

(1353) *Da gu bakillaua txikitzen; da baten baiño gehixotan, ja, ja, ja!*

(1354) *Oin baiño gehixo eongo zan [langabezia].*

(1355) *Oin len baiño ganau gitxio daukau.*

(1356) *Hau zahartu zan, da hau gitxio [erromerian].*

(1357) *Euskeria alde dipeentera kanbixatze'a. Arrate alde ta, gitxio [Tolosa aldera baiño].*

C. KORRELAZIOAK

4.2.7.10. ZENBAT (ETA) ...-AGO, ... (ORDUAN ETA) ...-AGO

(1358) *Eta beti indiziua, beti indiziuk kalenturia ezteñ eon, eta indiziua, zenbat eta antibiotiko gehixao, gero ta a(g)urua sendau.*

(1359) *Eske, oin baiño pertsonak usten dot sanuauak giñala, e! Sanuak. Zenbat pobrio, eta pertsonia sanuaua, da nik usten dotena.*

(1360) *Gabian, apaldutakuan, nik sukaldia altzau, ta zenbat eta lenao, ta nahixao nik neuk [ohera].*

4.2.8. HELBURUZKO PERPAUSAK

Aditz jokatugabea duten perpausak dira nagusi, alde handiz, helburuzkoetan, adibideetan ikusiko dugun bezala. Izan ere, subjuntiboaren erabilera ez da oso zabaldua gure artean.

4.2.8.1. SUBJUNTIBOKO ADITZA DUTENAK

Subjuntiboko adizkiak ez dira erabiliegiak ahozko jardunean; horiek baino gehiago erabiltzen dira, adibideetan ohartuko garen bezala, aditz jokatugabea duten egiturak. Hala ere, zenbait adibide erakusteko moduan gara:

(1361) *Baraurik juten giñuazen etxetikan, eta bezperan arpeixa garbittuta, geiñera, ur tantarik sartu etzeiñ, pekatua zala ta.*

(1362) *Eta beti indiziua, beti indiziuk, kalenturia ezteñ eon (...).*

(1362) *Ibilli zan zertu nahixan automobilla baiña, nik kendu nion pieza bat, iñok erabilli ez zeixan, pieza bat. Haura gabe ezin tzeikian jua garai hare-tako automobilla.*

(1363) *Ta hamenguak Bitorixa aldera bialdu ere bai. Armuetako tiok, bere seme bat halaxe, Irene karnezorian basarrira eruan jonan, denporale bat eitxeko, erderaz ikesi zeixan.*

(1364) *Lau poste altuak, eta gero, harek belak, baakizu, telia ipini bihar, itxasuan jua tzeiñ.*

4.2.8.2. -TZE ALDERA

Badu menderagailu honek ñabardura bat, -TZEKO-k eta beste helburuzko menderagailuek ez dutena. Ikus dezagun adibide bat ñabardura horretaz jabetzeko:

(1365) *Emaztiak ere, nik baiño urte bi gitxio dakaz, baiña haura goixan, eta eziñ eñ izaten dou lanikan. Ba, pixkat denporia pasatze aldera, zeozeren arduria.*

Adibide honetan, aipatzen dugun helburuari garrantzia kendu nahian bezala, beste helburu garrantzitsuagorik ez duela esan nahi du, “eginkizun bat duela denbora pasatzeko, besterik gabe” esan nahiko balu bezala.

Hona adibide gehiago:

(1366) *Nobixua topau ere bai. Zan mutill on-ona, on-ona zan, baiña ibilli, ibiltze aldera ibiltze nitzan nobixuakin.*

(1367) *Sasoia bai, klaro! Oiñ ere jute'ia bizikletan, edo saltaka-ta hor behera zeri(k) pe, ibiltze aldera, afizioz. Mehetze aldera ero, eztakiu zetara!*

(1368) *Etxeberrin, anaixan etxian bi hillebete ein dot. Eon nitzan bi hillebetian, da garua ebai tta, hori basarriko lanak eñan da, mantentze aldera.*

(1369) *Astakertenak haura esan arren, neri berdin tzian. Gaiñera, harek ze jakingo zaban, ba? Medikua ere etzan... Ezer ez harek (...). Adarra jotze aldera.*

4.2.8.3. -TZIARREN

(1370) *Hau jungo litzake hara, harek han daurelako baiña, e! Alabana ju-tiarren baiña. Ez bestela; ez haura parajia gustauta.*

(1371) *Hi, Elgoibarko konbersaziua hartziarren dok. Oiñ, hi, gure konbersaziua hik eztakak zeatik hartu, eta korridu hori, e! Holaxe dok, eztakik?*

(1372) *Mehetziarren gehixegi ezin laike sufridu, e! Batzuek alperrik gal-tze'ia, e!*

(1373) —Gaztae pixkat hartu'izu.

—Ez, ez, estimauta dao, eskerrik asko.

—Lodittu?

—Hori ere bai, ja, ja, ja. Hori ere bai.

—Ez loditziarren.

(1374) *Eta tiruak bota jaittuen, hi. Bilddurtziarren, e!*

(1375) *Gero, gabian jango zuan diperentia ero, baiña euardixan behintzat, ezer ipintzen ez ibiltziarren, kafitesne katillukadia, eta hala [lanera]!*

(1376) Berak brigadiari eskatu ein biha ziozela zapatak. Eta “eztixaaz emango”, lagunak. Eta “bai”. Ta ze ein tzaban? Hartu zera, trankedera, ta aixkoriakin zatixak hola ebai, [zapatek] berrixak ematiarren.

(1377) Han [Benidormen] eztio hari hainbeste [on] eitten, baiña neri laguntziarren, ba... Beti etorri eitte jat. Ta bixok, bi lagun: bakarra eskasa gelditze'a.

(1378) Zemat barre basarritxarrerri! Harek etzian kontatzeko txistiak. Burla eitxiarren!

4.2.8.4. -TZIAGATIK

Kausazko perpausak osatzeko erabiltzen da gehiago, baina helburuzko baliolan ere erabili izan da.

(1379) Sei pezeta zuan biajia zeera, ..., “ida y vuelta”. Sei pezeta, jolin! “Ya lo creo”? Da ni, ba aitxa zanakin da, ikustiaatik autuak eta, hola zerian junda. Bilbora ere.

4.2.8.5. -TZEKO

(1380) Harek amari ze gerra eman ete zion dirua emateko, pastelak erosteko!

(1381) Basarrixan oiñ ondo gaoz gu. Geuk pentsatzen dounian denporia pasatzeko, ba zeoze: patata pixkat jorrau, ero bestia...

(1382) Eta Elgoibarren lekuak zaozela hori, e! Elgoibarren lekua bazaon nehikua tallarrak ipintzeko, e!

(1383) Eta gero, etorri, eta Burgozera eruan giñuazengan ere, ni enitzuan batere etorri etxera, behiñ ere. Permisorik izete ezkerro halako lekutik etortzeko, bihe izaten zuan zortzi-hamar egun ero gitxienez.

(1384) Auzuak eote'ittuk alkarri laguntzeko, eztakik? Lanetan da.

(1385) Eta San Antonio egunian, egun horretarako basarritxarrak etortze zian oiñez, tren espeziala hartzeko, goizian seirak-seitxerdietan izate zan.

4.2.8.6. -TZEKO INTENTZIUAKIN, ASMUAN..

(1386) Juan nitzan hor San Antoliñ aldera ero, peskan eitxeko intentziuakiñ ero, ta, hamen Intxaustiñekua, Gillermo, han inguruan zan.

(1387) Hamen ere etxia danian eitxeko asmuan daure.

(1388) —*Bai, bai, bai bajakixat, bai. Guk eztou balio telebistarako ikesi be. Nik ze eingo juat, pa, han? —Honbre oiñ eztozu pentsauko, ba ... oiñ telebisiara juteko asmua dakazu?*

(1389) *Neri kolejixuan lau reglak erakutsi jaen oso ondo, hiri ere bai, lau reglak oso ondo... ortografixia bastante ondo, hortxe, sei urte-beatzi urte arte. Seitxik beatzira baiña problema bat ze zan? Izenik enakixan artian. Gero, beste mailla baten hasteko asmuan, baiña gerria etorri zan, da...*

4.2.8.7. -TZEKOTAN, -TZEKUAN

Egoera-aditzekin erabiltzen da batez ere helburuzko balio hau: -TZEKOTAN EGON esapidea da erabiliena.

(1390) *Esatekotan eon nok, baiña enok atrebidu.*

(1391) *Bakaziotara jutekotan gea, baiña eztakiu nora.*

(1392) *Gehixao ez giñan juan. Hurrenguan hobeto ibiltzekuan etorri giñuazen.*

Menderagailu hau daraman aditza errepikatu ere egin daiteke, testigantza honek erakusten digun bezala:

(1393) *Urbixa-ta harek gustatze jatiatz... Beti jutekotan-jutekotan, eta pasau jatek aurten ere.*

4.2.8.8. -TU NAHIXAN

(1394) *Ibilli zan zertu nahixan automobilla baiña, nik kendu nion pieza bat iñok erabilli ez zeixan, pieza bat.. Haura gabe ezin tzeikian juan garai hare-tako automobilla.*

(1395) *Hasten nok, eta orduan hauxe irakurri nahixan, azkenian etxakixat ze irakurtzen ai naizen, o sea, irakurri ein bi'ozu, eta pentsatzen bixak batera: hoixe da, irakurtzia da buruan sartzia zetan ai zean.*

(1396) *Ni lelengo hasi nitzuan eurona ein nahixan; nahastu nitzuan, esan najuan "que le den tila a todo". Nik neuria eingo juat, eta kitto!*

4.2.8.9. -TZERA

Tradizionalki, helburuzko perpausetan kokatu izan da -TZERA menderagailua duen mendeko perpausa, eta nik ere hala egingo dut. Hala ere, zehazki

jokatuta, perpaus osagarrietan sartzekoa dela esan genezake²⁷; alegia, predikatu gobernatzaile jakin batek eskatutako perpaus mota dela. *Etorri* eta *juan* aditzek gobernatutako mendeko perpausak ere badirela esan genezake ondorengo perpaus hauek, semantikaren aldetik nolabait helburua edo xedea adierazten duten arren.

(1397) *Eta bakazio batzuetan esan tzien: “pare bat hillebete edo bakazio denporan etorri heike pixkat hamen launtzera? Eta, baakizu, mutilkoskorra, eta jun.*

(1398) *Haura paraje haura da... bueno! Haura, len esan dotena, hamabost egun pasatzeko edo hamar egun, edo eskiatzera edo udan agostuan, bueno, hamabost egun pasauko itxuu.*

(1399) *Sastre ikasi zabanian Jonek, aitta gaixotuta zauan ordurako, eta aitzari laguntzera juate zan.*

Debagoienean ezaguna den -TZEN menderagailua mugimenduzko aditzekin (*Ogixa erosten juan da) ez da erabiltzen Elgoibarren.²⁸

4.2.9. MODUZKO PERPAUSAK

4.2.9.1. -eLA

(1400) *Baiña pelotai elegantia izen dok hori, e! Elegantia pelotaixa. Horrek muñekiakin, gorputza geldi-geldi dakala, pelotia ondo ateratzen dau.*

(1401) *Bai, baiña, gerrarik-eta eztauala, sano eon ezkerro, soldautzia pasatzia eztok ezer. Hantxe eon bihar dala!*

(1402) *Gantxua eskuan dotela etorri nitzuan etxera, txirrinbolia galduta...*

(1403) *Fubolian ai nitzala bihurrittu naban orkatillia.*

Erabilera arrunt horietaz gain, badira zenbait esapide berezi -eLA dutenak:

- AHAL DALA

(1404) *Oin bestia zainttu bi`ou, ahal dala bestia ezteñ etorri.*

- ONDO GE(R)ALA

²⁷ Halaxe sailkatu du, adibidez, Gramatika batzordea ontzen ari den *Euskal Gramatika. Lehen Urratask VII* liburukian.

²⁸ Ikus, adibidez, Ormaetxea 2006 argitalpenean agertzen diren adibideetako bat:

▪ *Bakasiñuo(k) pasetan etxea etorri bier euela.*

(1405) *Por ejemplo, zapatuan San Isidro eguna dator, ta orduan Arratera jungo gera, ondo gerala.*

Baldintza-kutsua ere baduela esan behar da azken adibide honek.

4.2.9.2. -eLARIK

Arrotza da menderagailu hau Elgoibarren eta inguruetan. Horren ordez, menderagailu hauek erabiltzen dira: -eLA (moduzkoa denean) edo -eNEAN (denborazkoa denean).

4.2.9.3. -TUAZI/-TUEZ

Bi formak erabiltzen dira, -TUAZ nahiz -TUEZ. Noiz bata eta noiz bestea erabakitzerakoan, ez dut aurkitu, ditudan datuekin, arau finkorik ateratzeko modurik.

(1406) —*Beti toki diferentera jute zeate? —Beti, urtero ganbixaeuz.*

(1407) *Gure arteko konbestaziua ta. Han, jarri mahaixan bueltan, ekarri txanpana mahaira, eta bueltan edanez, danok hantxe eote gaittuk.*

(1408) *Domusantu egunian. Eta izate zan Gaztañaerre egunan moruan ero, lenengo aldiz gaztaiñak erretze zian eguna. Eta, haretzek, gero illuntzixan, gaztaiñak afalonduan jan, eta hurrengo goizerako ere, preparau, eta harek janaz, mezetara.*

(1409) *Honetan, ya komandantiak ere bere obligaziuak zitxuan, eta Bilbora juatia nahi zaban, eta holaxe, ba, illunduta, abantau giñan hortikan, Aulestitikan Bilbora, Gernikatikan pasauaz.*

(1410) *Beste batzueri segittuaz, urten genduan Durangotikan Amorebieta-rako bide batera.*

(1411) *Orduan lagatze ziun. Gero, ba, berba batzuk, disparatiak esanez kontestau-ta eitte genduzen.*

(1412) *Gero, atsaldian, horra, horra ate ondora; jarri, ta hortxe, jentia ikusiaz. Hoixe nere bizimodua. Ezin dou eze ein da...*

4.2.9.4. -TUA(HA)LA / -TUA(HA)LIAN

(1413) *Gu [baserritik] kalera etorri giñan danok, ezkondu ala.*

(1414) *Nik, akordau ala, holako istorixak kontauko'itut.*

(1415) (...) *kanbixuak hartzen bati, eta, eman ala, ekarri ala, eman eitte niuen dirua.*

Beste adiera bat duela dirudi -*TU AHALIAN* menderagailuak, kantitatearekin zerikusi gehiago duena -*TU AHALA*-k adierazten duen progresioarekin baino.

(1416) *Abade frankista katalan bat zan... Iual tablia esaten, eta hola illaran danak, jarri eskua, hola doula, eta jota eman alian, di-da, di-da! Jota bilddurrez!*

(1417) *Eurixa bota alian jiharduk (≡ erruz).*

4.2.9.5. -eN BEZELA

BEZELA eta *MODUAN* postposizioek osatzen dituzte moduzko perpaus ohikoena; biak erabiltzen dira Elgoibarren, bai kopuruz, bai testuinguruz ere.

Ikus ditzagun -*eN BEZELA* menderagailuaren adibide batzuk:

(1418) *Gaztaian ikusten dan bezela ikusten da txulo bat.*

(1419) *Errosoixo [Amabirjina] aurretik eskatzen dot intenimentuko argixa ta bistako argixakin laguntzeko. Da horrek dixezen bezela, len baiño len herioztaren batekin, txi!, eruateko.*

(1420) *Egun batian, kañaberia bizikletan, naturala dan bezela, bizikletan lotuta.*

(1421) *Pasatzeko ni justu txamar, kañaberia neukan bezela kamiñu guztia hartze naban da!*

(1422) *Nik ein naban txofer, len esan doten bezela.*

(1423) *Da orduan kontuak ziazzen bezela ta, jentia etortze zan, esate batarako, zinera iual txiste kontatzera ero, ta jende mordua jute zan.*

(1424) *Bakoitza dan bezelakua azaldu biha da. Zu gaiztua izaten bazera, ba, gaiztua, ez?*

-*eN NEURRIAN* eta -*TU AHALA* menderagailuen baliokide izan daiteke -*eN BEZELA* menderagailua ere:

(1425) *Gero, bidiak, berriz, oiñ bezela eongo bali(r)a, bai. Orduan ez zauan ibiltzerikan, orduan hankak nola-hala. Hor, basia galanta, besterikan ez... Hala, (...) motorra hartu naban. Eta gero, mejoratzten dijuan bezela, kotxia hartu, eta hola.*

(1426) *Pertsona batekin konfiantzia hartzen nixen bezela, hika haste naiz.*

4.2.9.7. -eN MODUAN

MODUAN postposizioarekin ere arrunta da moduzko perpaus jokatuak osatzea. Adibide batzuk ikusiz, konturatuko gara -eN *BEZELA* menderagailuaren baliokidea dela:

(1427) *San Bartolomiak pixkat, bai, herrira. Normala dan mouan. Perixara eta hola.*

(1428) *Jo zaban kañabera ezkiñiak emakumia, eta ni txahala moruan, lurrera!*

(1429) *Lan astunak dauaz basarrixan, baiña basarrixa oiñ, hala ere, gu gabizen moduan ganauri(k) pe, ba, erreza dok bizimodua.*

(1430) *Al tzan mouan aurrera ein bihar.*

(1431) *Gero umiak, ohi dan moduan, ogitxu giñan erderaz eixera, kanpora ertenda ere.*

(1432) *Laga jok alborno hori txa, ra! Traje-baiñua, ohi dan moduan.*

(1433) *Eta beste batzuk oiñ ere, gure semiak dabiltzan moduan, kalia bihar eitzen dabe, ta basarrixan bizi.*

Aditz-izenaren ondoren ere erabiltzen da: -TZEKO MODUKO.

(1434) *Eta jata batek tanborra, bestiak ... Bono! Zoratzeko moduko zaatia-kiñ!*

(1435) *Euzki berua iual. Jota txoixa ere akaatzeko mookua!*

(1436) *Sartu hanka bat, ta jota erropak eta dana txarri eiñ, da bua! Oiñ, oiñ eztok... [hala], zapatakiñ ibiltzeko mouan dao.*

4.2.9.8. -TZEKE

Indargalduta dago atzizki hau Elgoibarren. Oso hitzun zaharrek bakarrik ezagutzen dute, eta haiek ere ez dute hau aukera bakartzat (ikus 4.2.9.10 azpiatala):

(1437) *Lana amaitzeke laga juek langilliak.*

4.2.9.9. -TUTA

(1438) *“Milizianuak” esate zitzakuen hárreri, eta (...) han pasau, eta holaxe ikuste zittuen gero sasittikan, bilddurtuta, eurak, goittik.*

(1440) *Zapatak apurtu samartuta zaukazen.*

(1441) *Bizkaiko jentia, andra gaztiak eta oiñ, Bizkaikuak eta asko. Eta hárek eurena. Oiñ, nahastuta eongo dala iual asko? Bai.*

4.2.9.10. -TU BE/BA(G)E

(1442) *Lana amaittu be laga juek langilliak.*

Erizkizundi Irukoitzean, Sin callarse, sans taire galderari isildube erantzun zion Elgoibarko berri-emaileak, eta ez isiltzeke.

(1443) *Hemen ertetzen dou, eta geratu be, Venezuelara. Hamabost egunian edo hamasei egunian, jota geratu be juten gara.*

(1444) *Len lau ero bost ordu eruete zittuan lanak; oiñ, hórrekin makiñia-kin, ordubetian eitten dok. Eta nekatu be eitten dok.*

4.2.9.11. -TURIK

(1445) *Nik nitxuan launik haundiñak zian... bixak hillik daure, zeure osaba Evaristo eta Joxe Mari Mujika.*

Esan behar da menderagailu hau gaur egun ez dela asko erabiltzen.

4.2.9.12. -TU BIHARRIAN

(1446) *Fubolian ikuste'otena hoixe da, hainbeste milloe pagau, ta hankazur-rrak apurtu biharrian.*

(1447) *Gora eta behera dana bota biharrian ibili ostian, barko bat urten zan aber nora guazen galdezka: "Sartu Elantxobera, sartu Elantxobera", esate ziun.*

4.2.9.13. IXA ...-TUAN / -TZEKOTAN

Elgoibarren ez da -TZEAR menderagailua erabiltzen. Horren balio bertua duen egitura bat bai, ordea: IXA ...-TUAN (*ia ...-tuan*). Hona, argitzeko, adibide bat:

(1448) *Baiña pobriak! Orduan zan..., ez'iazu esan! lau txakur haundixan ere, litro esnia ezin saldu; hori berandu, e! Hau berandukua, ya gerria ixa urte-nian zauan da.*

(1449) *Ba, ixa haraxe alleauan, ba, orduan ere ointxe moruan itxasua bere terrenuak diala ta, noizi(k) pehiñetan negu gogorrian, ba, iual kamiño pusketak eta botatze zitxuan.*

(1450) *Ixa amaittuan daukat etxia, eta pozik nao.*

-TZEKOTAN ere erabil daiteke denbora-balioarekin, IXA ...-TUAN egituraren antzeko esanhiarekin.

(1451) *Amaitzekotan daukat etxia, eta pozik nao.*

4.2.10. ONDORIO-PERPAUSAK

Menderagailurik gabeko egiturak erabiltzen dira Elgoibarren ondoriozko erlazioak bideratzeko; egitura menderatuen ordeztu, alborakuntza bidez osatzen dira ondorio-erlazioak. Beraz, ezin ditugu, zehazki hitz eginda behintzat, mendeko perpausatzat hartu; leku egokiagorik ezean, ordea, hemen kokatzea erabaki dut.

Kuantifikatzaile bat izaten da perpaus mota hauen ezaugarri nagusia: *hain*, *hainbeste*...

Bi eratako egiturak erabiltzen dira Elgoibarren:²⁹

4.2.10.1. HAIÑ/HAINBESTE ..., + PERPAUS NAGUSIA

(1452) *Oiñ hainbeste entzuten diou hóneri, politikueri ere, guk len entzuten ez genduzen izenak, "Jaurlaritza" eta holako gauzak, oiñ ikixi eitte juau, eta enteniu eitten dok.*

(1453) *Baiña len pixkat zera baldin badao, ba, han hainbeste denporan, lanerako goguak alde eiñ, edo endredau.*

(1454) *Beste batzuk, han [soldadutzan] hainbeste denporan eonda, esate ze-ben golferixara jotze zauala jendiak.*

²⁹ Eta, Elgoibarren bezala, mendebaldeko Euskal Herriaren inguru zabal batean, esango nuke.

4.2.10.1. PERPAUS NAGUSIA,(;) + HAIÑ/HAINBESTE ...

(1455) *Hamen Elgoibarren dana iual eitten dou. Hamen ere, pasatze zera Urkareñ, Gipuzkua-Bizkaia mugia? Hor ere kanbixau eitten da: hain da gauza raru!*

Bigarren erako hauetan, goranzko entonazioarekin amaitzen da perpausa.

4.3. TESTU MAILAKO LOTURA: LOKAILUAK

Lokailuen sailkapena egiteko ere irizpide semantikoa erabili dut, Euskaltzaindiaren gramatikan, *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak III (Lokailuak)* liburukian, egiten den bera.³⁰

4.3.1. EMENDIOZKO LOKAILUAK

<i>ere</i>	<i>gaiñera</i>	<i>gaiñetik</i>
<i>sikiera</i>	<i>behintzat</i>	<i>bada(e)re</i>
<i>behiñepeñ</i>	<i>desde luego</i>	

(1456) —*Guardia Zibillak, farolak eztakit ze zaukala, eta multia gizajuari. Ja, ja, ja! Eta gu etxera. —“Gaiñera!”, esango zaban harek! —Bai, bai, gizajuak. Kostau zitzakon, gaiñetik. Arbolak eta dana, kamiñuan botata, batetik bestera.*

(1457) —*Emakume ona topau zendun. —Bai, ja, ja, ja! Zuk ezagutuko zu haura, gaiñera.*

(1458) *Hemen pagau ein biha juau rondaren bat ba(d)a re, hola eta hola. Beti gorroneuan, bestela.*

(1459) —*Eskolan ibilli ziñaten zuek gaztetan? —Asko ez, ni behintzat.*

(1460) —*Orduan boda eguna ondo, ezta? —Bai, neu bai behintzat.*

(1461) *Koziñeria ere zan Fuenterrabixakua, euskaldun jatorra.*

(1462) —*Ze beintzatze jatzu telebisioko euskaria? —Difeentia... telebisioko asko behiñepeñ. Hórrek eskolia dauke, eta guk eztaukau eskolaik.*

³⁰ Terminologiari dagokionez ere, *EGLU III* liburukian zehazten den bezala erabili dut atal honetan *lokailu* terminoa. Horretaz gain, ordea, oharrarazi nahi dut lokailu hitza beste funtzio bat duten gailu batzuk adierazteko ere erabiltzen dudala, beste termino hoberik ezean, batetik, eta Gramatika batzordeak ere azken urteetan horretarako ere erabiltzen duelako, bestetik; alegia, mendeko perpausen hasierako muturrean kokatzen diren markatzaileei ere lokailu esaten diet: *harik eta (... arte), zela (...-eN), zergatik, nahiz eta*, eta abar.

(1463) *En jeneral, goiz partetik behiñepein, Euskadi Irrati hori entzutze deu, bai.*

(1464) *Eske, len, sasoe baten, medikuak ere basarri askotara etzeben jun nahi izeten. Bide txarra, gabaz iual jun bihar. Eta norbera jun bihar eske. Eta oin, sikiera, kotxiakin jute zara, eta di-da ekarri.*

(1465) *Zortzi milla peza-ta partidu fubola ikustia, orduterdixan kanpo librian, haizia ta eurixa iual da, han; zer da hori! Sikiera, pelota-partido bat, ba, “dos mil kinientas” kobratze izue, “tres mil”, da sartze zara lau terdietan, da ertetzen dozu illuntziko zortzi txerdietan: epel-epel-epelian zaure.*

(1466) *Nik, desde luego, gaztetan ixa dana erderaz eitxe naban, dana erderaz.*

4.3.2. HAUTAKARIAK

bestela ostian ostantzian (ostontzian)

(1467) *Estartanian pasau genduzen ixa berrogei urte. Gero, bialdu eingo zien etxera handik, zahartu ein giñala ta. Eta eskerrak honi; bestela, nora jun biha najuan nik?*

(1468) *Gero berau goixan, gainian zela zauan, ba, baakik, dana harrapau. Depentsaik ez honek. Eztaka depentsaikan. Ostian, bista haundixa dao hamen.*

(1469) *[Azokak] Gernikakua, eta gero Elusukua bestia, Pilarika egunian, datorren... Holaxe. Eta, ostian, azokara ta, gu gitxittan.*

(1470) *Eta holakotxe gauzak asko ein dou. Ostian, ba, hortxe, arraiñetan da... arraiñetan asko ikuste genduan, eee... Gero, angulia.*

(1471) *Hau hanketatik eta ni bistatik nao bajauta, juxtu-juxtu nabil bistia-kin. Ostantzian baiña, bixkor.*

(1472) *Eta ama gallegia; ostantzian, pamelixa dana euskaldunak, e!*

(1473) *Zaku baten sartzeko gaonaz bixok, zakuan sartu hantxe! Hau, ostantzian, honek hamen pasatze ian danak, eltxuak ere uste ot ikuste itxuala honek!*

(1474) *Eta haraxe, ardixak zainttu, da mendixan. Ta, ostontzian, etxeko lane-tan, basarrixan, aitxakin da amakin, souan laixetan ein, eta ostontzeko biharretan.*

4.3.3. AURKARITZAKOAK

<i>berriz</i>	<i>baiña</i>	<i>barren</i>
<i>en kanbio</i>	<i>hala ere</i>	<i>hala ta guzti(z) ere</i>
<i>dana dala</i>	<i>horraitik</i>	<i>oiñ</i>
<i>edozein modutan ere</i>	<i>ostera</i>	<i>sin enbargo</i>

(1475) *Eta Azkoittixan, berriz, hemengo aldian, hemen behe aldeko euskertia gebixo nahaste juek, baiña oso zakar eitte juek.*

(1476) —*Hau lotsatu ein dala, baiña bestela... —Lotsarik eztok baiña bihar!*

(1477) *Ba, han bigarren urtian. Iez, berriz, hemen, Bidanian.*

(1478) *Ba, haura ogixa nik eztakit ze zan. Harekin akordatze naiz. Oiñ, zeren gustua zakan, ez.*

(1479) *Debara ere jute zea, ta diperente eitxen dabe han ere. Eta Azkoitti aldera ere bai. Mundrago aldera juten baldin bazea, han ere bai. Han ere, diperente. Oiñ, herri bakoitzian enteniu alkarrekin iual eitxen dogu, e!*

(1480) *Len, segia ta, itaixa ta, dana hauxe. Eta oiñ, berriz, bedarra ta holakua; bedarra ezta hainbesterako oiñ.*

(1481) *Oiñ, danian etxiak eitten. Eta erosi eitte`ittue, hala ere.*

(1482) *Eta oiñ hamar orduan hortxe-hortxe juten da autobusa. Baiña, hala ere, ordu mordua dao.*

(1483) *Tanto bat etzaban erregalatzen harek, e! En kanbio, Gallastegi, manimano ta, bete eitxe zan, gizon haundixa ta...*

(1484) *Len jentia goixan eote zan, goiko plaza aldian dana. Oiñ, en kanbio, Maala aldian, gazte jentia ta, dana.*

(1485) *Ni fubol partidu bat hamen badao, gustora eote naiz; pelota partidua badao, gustora eote naiz; en kanbio, Goenkale... Hau zorutzen eoten da, ta nik erdikalderako ohera hanka itxe`iot.*

(1486) *Bai, baiña gero bai, hor represiuia eon tzuan, baiña, sin embargo, gure gurasuak, ba, euskeraz eitxe juen.*

(1487) *Kaleko etxian txakurra eneuke eukiko. Oiñ, txabola baten eo, aparte, bai.*

▪ **BARREN** lokailua, inguruetako lokailu berezia.

Aurkaritzako lokailu hauen guztien artean nortasun berezia duena **BARREN** lokailua da; izan ere, inguruko hizkeren berezko ezaugarrietakoa da. Ez da hurbileko ingurutik kanpo ezagutzen: Elgoibarren, Mendaron, Eibarren, Soraluzen, Ermuan, Mallabian eta Azkoitian ezagutzen da (Zuazo 2006; 126).

BA(DA) ARREN esapidearen laburdura izan litekeela esaten da **EGLU** gramatikan³¹. Era berean, esaten da, balioz, perpausaren azken muturrean joan ohi den **BAINA** juntagailearen ordezkua dirudiela³². Nik erantsiko nuke

³¹ Ikus **EGLU III**, 131 or. Plazido Mujikak ere *ba arren* ematen du ordaintzat edo etimologiatzat (= ba arren), *Diccionario Vasco-Castellano I*, 367 or., s.v. Barren.

³² Pasarte hau ematen du, gero **BAINA** juntagailluarekin ordezkatzeko:

—*Isil zaitetz, mesedez!* —*Isilik nago, **barren!***

—*Isil zaitetz, mesedez!* —*Isilik nago, **baina!***

zenbaitetan *ETA* juntagailuak ere ordezkia dezakeela, azalpenezko kutsua ere baduenez.³³

Hona *BARREN* lokailuaren adibide batzuk:

(1488) —(...) —*Zeiñ, Patxi? Adarrik eztek jo bihar. Patxi ni lanian nauanian hil tzuan, barren!*

(1489) *Bideuan grabauta daukuu, baiña hemen ere noiznahi botatze jue(k), parren!*

(1490) *Gero, oiñ esaten dabe eze “Jolin, umiak eta...”. Umiak eztauke, barren, inun jolasian eitzeko lekurikan!*

(1491) *Eta gero, plazara jute`ianian, “jode” esate dabe, “karua” [barazkia]. Ez, jauna! Harek eztaixe, barren, ze dan [baserriko lana]!*

(1492) *Etxuat ikusi, barren, ezta inor ere!*

Adibideei erreparatuta, konturatuko gara testuinguru adierazgarrietan erabiltzen dela lokailu hau, esan zaigunari modu adierazgarrian erantzuteko; horregatik dira perpaus hauek harridura-ikurren bidez idaztekoak, nire ustez; eta horregatik datoz *EGLU*ko adibideak ere harridura-ikurrekin, bat izan ezik.

4.3.4. ONDORIOZKOAK

orduan ba oseake

(1493) —*Bai, badakitt nik horren berri.*

—*Basarrikua al tzea?*

—*Bai.*

—*Orduan, ezta kazu esplikazio biharrik.*

(1494) —*Zubizarreta haura, bigarrena, Juliana. Julianan ama eta nere ama ahiztak, Arakistain. —Familixakuak, orduan.*

(1495) *Batzuek estimau ez. Bertakuak izen dienak badakixe, basarrikua dienak askok. Baiña kalian jaxotakuak ze daki, ba? Kanpua ibiltzia dala, euzkixa hartzia, eta kitto.*

(1496) —*Letzen eta eskribitzen ondo ikexi bagendu... Zenbat ikesiko gendun, ba? Atzera ahiztuta ere gebixena.*

—*Normala.*

—*Hirurogeta hamar urtekin, ze nahi do(k), pa?*

³³ —*Isil zaitetz, mesedez! —Isilik nago eta!*

(1497) *Ba, nahi baldin ba'ozue, nere terreneua ere hartu, ta erdixa neria. Da, oseake, hik pagau dana, zentralak eta dana pagau, da erdixa neria.*

(1498) *Ni hamen jaixua, bertan, sakristau etxian; oseake, bizi guztia sakristautzan nik. Oñ ere sakristau segitzen dot.*³⁴

(1499) *Beraniatzea, oseake, urak hartzea etorri [Altzolara], da mezia ematea.*

(1500) *Len Kamiñerokuan zan frontoia. Da gu danok han frontoian beti, anai bat pelotaixa euki naban, beste bat korredoria; oseake, gu danok pelotako mutillak izan gara, deporte hortarakuak.*

4.3.5. KAUSAZKOAK

<i>izan ere</i>	<i>eske</i>	<i>zeatik eze</i>
<i>ba</i>	<i>porke</i>	<i>...</i>

(1501) *Eta eskerrak horreri, oin kotxiak basarrixetara. Eske, len, sasoe baten, medikuak basarri askotara etzeben jun nahi izeten.*

(1502) *Eta aurrera. Eta batzuk laroetaka urte, eta aurrera. Len asko zuan, izen ere.*

(1503) *Etzan komeni han gelditzerikan; zeatik eze berriz ere beste dispare bat ero, neu hantxe nauala iual alleauko zan!*

(1504) —*Ta kalekuak eta basarrikuak ere?* —*Baitxa, baitxa! Orduan bai, dana. Eske, gu izan giñanian, dana euskeraz eitxe zuan, Franco etorri arte.*

(1505) *Partidu edarrak asko ikusi'itxut, asko. Porke, nik frontoera juten da-ruat soldautzatik etorri nitzan ezkeru. Urte asko. Bai, partidu asko eta politxak.*³⁵

³⁴ Ahozko erabilera arduragabeen erabiltzen da batez ere erdaratikako lokailu hau.

³⁵ *Porke* lokailu hau, *porke* menderagailua bezala, gutxi darabil adineko jendeak.

5. AHOZKO HIZKERAREN EZAUGARRI BATZUK

5.0. SARRERA¹

Ikerlan honen helburua adineko hiztunen lagunarteko jarduna biltzea eta aztertzea denez, nahitaezkoa iruditu zait ahozkotasanaren ezaugarriei kapitulu bat eskaintzea, eta halaxe egin dut atal honetan; honako egitura hauek bildu ditut: eguneroko jarduneko elkarrizketetan, ahozko jardunean, erabiltzen diren esaerak, esapide eginak, interjekzio eta hitz adierazgarriak, harridurazkoak; guztiak hizkuntzaren ahozko erabileraren bereizgarri, hizkuntzaren bizigarri, freskagarri eta, zergatik ez esan, edergarri, metafora eta baliabide literarioz josiak egoten baitira.

Izan ere, garai bateko euskaldunen bizimodua, pentsakera, sentikera eta hitz egiteko era badoakigula ikusten dut, eta horien guztien ispilu diren hizkuntza-baliabideak bildu nahi izan ditut, ahalik eta era sistematikoenean, ordenatuenean eta nabarmenenean, zeren eta hiztegiaren “zaku” handi horretan, iruditzen baitzitzaidan “galdu”-edo egiten zirela hemen hiztegitik “berreskuratu” nahi izan ditudan altxor batzuk, adierazgarritasuna darien egiturak, ahozko hizkeraren ezaugarri nagusiak, gaur egungo gazteek erabiltzen ez dituzten modismo bereziak...

Nonbait sartu behar nituen; beste kapituluetan, ez zuten hemengo egitura askok ez lekurik, ez justifikaziorik, eta horiek guztiak biltzeko “zaku” handi

¹ Hona Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegitik* ontzat eman ditudan zenbait terminoren definizioak:

Esaera: asko erabiltzen den esaldia; bereziki herriak ontzat ematen duen iritzi edo uste bat adierazten duena.

Esapidea: esaldia; bereziki zerbait berezi adierazten duen hitza edo, batez ere, hitz multzoa.

Interjekzioa: hiztunak bihotz egoerak bizitasunez adierazteko erabiltzen duen oihu hitza, perpausetik at ematen dena.

bat izan nahi du kapitulu honek, ahozko hizkuntzaren ezaugarri direlako justifikazioarekin.

Bihar-etziko euskaldun gazteei, haien euskarari ekarpen oparoa egin die-zaioketela uste dut ahozko jardunaren baliabide hauek, hemen aztertuko ditugun hauek: ulerterrazagoak, sinpleagoak, naturalagoak eta, behar dugunean, adierazgarriagoak izango dira haien testuak, idatzizkoak nahiz ahozkoak, baliabide hauen laguntzarekin.

Lagunarteko erregistroan, batez ere gazteen ahozko jardunean, hutsune handiak nabaritzen ditut gaur egun gure herrian. Hizkera mota horrek behar-beharrezko duen adierazgarritasuna eta indarra bilatzeko, gehiegitxotan doaz gure herriko gazteak erdaren iturrietara, euskaraz aurkitzen ez duten ur freskoaren bila. Izan ere, ahozko euskararen transmisioan, huts handiak izan dira azken urteotan, eta gatzetxoek ez dute, oro har, Elgoibar bezalako herri askotan behintzat, horren berri zehatzegirik izan, gero beren eguneroko lagunarteko giroan euskara natural erabiltzeko. Erdaren kasuan guztiz bestelakoa da egoera; oro har, askoz osasuntsuagoa, bistan denez; gure herriko euskararen kasuan, herriko gazteen arteko elkarrizketei naturaltasuna, adierazgarritasuna falta zaie, alde batera utzi izan baitugu (irakaskuntzan, hedabideetan, telesailetan...) ahozko jardunaren baliabideak lantzearen eginkizun dirudienez deserosoa.

Gaur egun, Euskaltzaindiaren arauen araberako euskara nahiko ondo idazten eta erabiltzen dute gazteek, oro har. Euskararen gramatika ere ondo ezagutzen dute; baina euskara egokiaren eta eraginkorraren kontuan oraindik herren dabilta, nik uste, nahi baino gehiagotan. Kalean adin batetik behar-rakoek darabilten euskara ere askotan epelegia da, neutroegia; ez du indarririk, ez eraginkortasunik, mintzakidearengan bilatu nahi den erreakzioa sortzeko. Argi dago azken urteetako irakaskuntzak zerbaitetan huts egin duela: auzi honi dagokionez behintzat, nabarmena da ahozkotasuna ez dela behar bezala landu². Hori garatzeak asko lagunduko liguke hizkuntza naturalago eta era adierazgarriagoan erabiltzen.

Hor ikusten dut nik (eta beste askok ere bai, zorionez) gaur egungo euskararen hutsune larrienetako bat. Kezka hori izanik, gure herriko (eta inguruetako) adineko jendeak darabilen euskararen sakondu nahi izan dut, euskara horretatik atera daitekeen etekinik handiena atera ahal izateko: gazteen jardu-

² Kaleko gazteez ari naiz bereziki hemen, eta ez baserri-girokoiez.

na naturaltasunez eta adierazgarritasunez hornitu, idatzizko testuak ere eraginkorrago egiteko hobebide batzuk aztertu, eta abar.³

Hor kokatzen dut kapitulu honekin egin nahi dudan ekarpena. Elgoibarko ahozko jarduneko adibide batzuk ekarri nahi izan ditut hona, ahozko jardunak dituen baliabide estilistiko edo poetiko zenbaiten erakusgarri gisa⁴. Egunero-egunero darabilgun euskararen adierazgarritasunaren eta eraginkortasunaren mesedetan, betiere.

Gure ahozko tradiziotik ekarri ditut, beraz, hona hainbat adibide. Ikusten baitut euskararen hobebideetako bat tradizio hori lantzea dela; ez hobebide bakarra, sortu ere egin behar baitute hizkuntza erabilgarri, osasuntsu bateko hiztunek. Sormena eta berrikuntzak tradizioa ezagututa egitea litzateke egokiena: tradizioan dugunetik hartu gaur egun erabil dezakeguna, eta sortu, ez duguna edo zaharkitua geratu dena ordezkatzeko.⁵

Gatozen, bada, adierazgarritasunaren bila, ahozko hizkerak eskaintzen dizkigun baliabide horien erakusgarri batzuk aztertzeraz, alde horretatik ikusten baitiot nik interesa kapitulu honi, ahozko hizkeraren baliabide garrantzitsu batzuen bilduma den aldetik; eta ez hainbeste dialektologiaren aldetik.

Nik eman ditzakedan argibideei baino garrantzi handiagoa eman nahi izan diet adibideei berei; adibide sorta luzea eskaini dut, eta haietan somatu uste ditudan joerak azaldu ditut. Pozik nengoke helburu horretan behintzat asmatu badut.

³ Horretan dabil hainbat ikertzaile azken urteotan: besteak beste, Andoni Egaña, Joxerra Garzia eta Jon Sarasua (batez ere, irakaskuntzari begira, bertsolaritzaren baliabideak ikertuz), Kike Amonarriz eta Asisko Urmeneta, Euskaltzaindiko batzordeak (Herri-Literatura, Literatura Ikerketa, Dialektologia eta Gramatika), Badihardugu, Mendebalde eta beste hainbat euskara elkarte (ahozko corpusa gordez eta ikertuz), herrietako euskara ikertzen ari diren hainbat ikertzaile, eta abar. Aipatu berri dudan zerrenda luze hau ditugun gabeziez ohartu garen seinale da.

⁴ *Poetiko* hitzaren zentzurik zabalenean, Joxerra Garziak (1998) dioen bezala, “gauzak modu itxuraz berri eta berezian” adieraztearen zentzuan; hain bereak dituen hitzak hona ekarri, “esana era bakan-betean” esatea da harentzat poesia, bere zentzurik zabalenean. Esanaren bete-bakantasan irudipen hori gudan (mintzakidearengan, mezu-hartzailearengan) sortzeko amarruak dira, haren esanetan, literatura-baliabideak, baliabide poetikoak.

⁵ Oreka horretan ari da lanean azken urteetan zenbait ikertzaile; hor ditugu, besteak beste, Alberto Telleria (eta Badihardugu Euskera Alkartea) eta Asisko Urmeneta (eta Zazpiak Batman kolektiboa) gazteen erregistro lagunartekoan proposamen berriak egiten, tradizioak eskaintzen duenari uko egin gabe betiere. Ikus Telleria (2003) eta Urmeneta (2000, 2001 eta 2002); ezin ahaztu, jakina, herrietako gazte-jendea, beren beharrak asetzeko egunear-egunear espapide berriak sortzen ari dena.

Hala ere, arloko adituek hizkera kolokialaren edo lagunartekoaren definizio eta ezaugarritzat aipatzen dituzten batzuk bildu gabe ez dut utzi nahi kapituluaren sarrera hau.

Arlo honetan aitzindarietako bat dugun W. Beinhauer-ek (1929 [1991], 9) gaztelania kolokialari buruzko definizio hau ematen du:

“El habla tal como brota, natural y espontáneamente en la conversación diaria, a diferencia de las manifestaciones lingüísticas conscientemente formuladas, y por tanto más cerebrales, de oradores, predicadores, abogados, conferenciantes, etc., o las artísticamente moldeadas y engalanadas de escritores, periodistas o poetas.”

Berezkotasuna, naturaltasuna eta planifikazio falta dira definizio honetatik atera daitezkeen hizkera kolokialaren ezaugarriak.

Hona beste aditu batek (M.C. Lasaletak, 1974, 14) dioena:

“El lenguaje coloquial es una fracción o nivel de lenguaje total que se destaca por su carácter pintoresco reflejado en multitud de expresiones y vocablos intraducibles a otros idiomas, fundados muchas veces en alusiones metafóricas y que posee una gracia, viveza, gran espontaneidad, concreción y expresividad que lo distinguen de otros niveles.”

Hor aipatu direnetako asko aurkituko ditugu kapitulu honetako ezaugarrietan: esapide berezi itzulezinak eta esapide metaforikoak; esaeren eta esapideen atalean ditugu horiek, eguneroko bizitzako metafora eta konparazio bidez osatuak.

Lagunarteko hizketa deskribatzen duten adituek honako ezaugarri hauek aipatzen dituzte (ikus Briz, 1998, 27-33): orainaldian gertatua, ahozkoa, interaktiboa, berehalakoa, informala, berezkoa, gai ez berezituak tratatzen ditue-na, gutxienez bi hiztunen artean gertatua, prestatu gabea, berdinen artean gertatua, eta abar.

Jardun lagunartekoaren konstanteak ere aipatzen ditu Brizek (1998, 34-45):

- Sintaxi-egitura parataktikoak.
- Egitura parafrastikoak, ingurumarietan ibiltzea.
- Geldialdien ugaritasuna.
- Erredundantzien erabilera joria (errepikapenak, diskurtsuaren kohesioa lortzeko baliabide eraginkorrak, ugariak dira).
- Enfasiaren leku nabarmena.

- Elipsia nagusi.
- Anakoluto ugari agertzea.
- Estilo zuzenaren erabilera (oso arruntak dira hizketaldiaren barruko kontakizunak).
- Hitz-hurrenkera pragmatikaren araberakoa (komeni den osagaia bereziki nabarmentzea, bai galdegai, bai mintzagai hanpatu gisa).
- Mintzakideak osatu behar dituen enuntziatu bertan behera utziak.
- Entonazio goranzkoak, adierazgarriak.
- Egitura indargarriak (hiperbolea).
- Aukera lexiko urria (proformak, *verba omnibus* izenekoak erabiltzea).
- Parahizkuntzak duen garrantzia (keinuek hitzezko komunikazioa osatu edo are ordezkatu ere egin dezakete).
- ...

Aztergai izan ditudan testuetan, ezaugarri eta osagai hauek guztiak atxiki ditut, eta ondoren gozpuztuko ditut ezaugarri horiek Elgoibarko jarduneko adibideekin.

5.1. ESAERAK eta ESAPIDEAK

Idea bat garatu ondoren, kontakizun bat burutu ondoren, amaieran laburpenak egitea, kontatu dena irudi batekin deskribatzea modu egokia da entzulearekiko komunikazioa bermatzeko, esan nahi duguna entzuleari hobeto ulerrarazteko eta gogorarazteko, esan nahi dena gogoangarri egiteko: ondorioak ateratzea, esaldi edo esapide egin batekin nahiz esaera batekin amaitzea. Gauza bera gertatzen da gertakizun bat kontatu edo zerbait deskribatu nahi denean ere: orduan ere oso ondo etor dakiokete hiztunari esaera edo esapide egoki-egoki bat, mintzakideari begi aurrean argazki bat jartzeak sortzen dion eragina izan dezakeena. Eguneroko bizitzako elementuei egiten zaie erreferentzia, eta oso ugariak dira baliabide metaforikoak eta konparazio bidezkoak.

Ahozkoan askotan erabiltzen den estrategia da.⁶

⁶ “Las fórmulas ayudan a aplicar el discurso rítmico y también sirven de recurso mnemotécnico, por derecho propio, con expresiones fijas que circulan de boca en boca y de oído en oído: *Divide y vencerás*, *Fuerte como un roble*. Las expresiones fijas (...) en las culturas orales no son ocasionales. Son incesantes. El pensamiento, en cualquier manifestación extensa, es imposible sin ellas, pues en ellas consiste.” (Ong, 1987).

(1506) *Urte batzuetan ibili nitzuan lanian nere kontura; gero, anaixan bittartez hasi nitzuan haren tallarrian: kanpuan hotz eitte juan.*

(1507) *Badakitt ezatala idia onegixa, baiña halaxe ein bihar izan dot: naguxiak esandako lekuan lotu bihar izaten dok astua, nahiz eta gero bertan ittoko dala jakiñ.*

(1508) *Batian eta bestian ibili zuan nobixa billa, baiña eziñ egokixa topau; eziñ iñokin konformau. Azkenian, on billa, on billa, bonbilla!*

(1509) —Mendaroko gazte batek bota juan bertso “berde” hori. —Bai, ba, sasoian keixak!

Zerrenda luze samar bat osatu dut Elgoibarren ahozko jardunean hainbeste erabiltzen diren esaerekin eta esapide eginekin.⁷

5.1.1. ESAEREN ETA ESAPIDEEN BILDUMA BAT

Abenduko eguna, argittu orduko illuna: Urteko egun laburrenak direla adierazten du.

Aberatsa, inpernuko laratza; pobria, zeruko gloria.

Adarra jo: Tomar el pelo. Hori adierazteko, ez da jatorra ***Illia hartu** esapidea. Antzeko hau ere erabiltzen da: **Adarra jotzeko makiñia asmatu:** Adarra jotzeko makiñia asmau dok, ala?

Afana ibili: Andar afanoso. *Hori da afana dabizuna!*

Aho itxixan ezta eulirik sartzen: Isilik egoteak dakartzan onurak adierazten ditu.

Ahoko zulora begira eon: Bertatik bertara eta nabarmenki egon zerbaiti begira.

Ahopian berba eiñ: Isilka berba egin.

Ahua bete hagiñekin geratu: Norbait zerbaiten aurrean harrituta edo txundituta geratzen denean esaten da. **Aho zabalik geratu** ere erabiltzen da.

⁷ Esaera eta esapide egin hauek iturri hauetatik bildu ditut: berri-emaileen jardun libretik, arlo honetan gaitasun berezia erakutsi duten berri-emaile zenbaitu egindako galderetatik, nire ezagutzatik eta, azkenik, Gotzon Garateren bilduma amaiezinetik (Garate, 2003). Azken honetatik, Elgoibarri zegokion *EL* marka dutenak eta inguruko herrien erreferentzia dutenak bildu ditut, Elgoibarko eta inguru hurbileko esaerak bildu nahian.

Ahuntzak baiño bizar gehiago euki: Pertsona oso bizartsua izan (bereziki, gizonaekoei dagokienez).

Ahuntzak, beti mendira: Bakoitzak gustoko duen gauzetara jotzen duela adierazten du. *Hori ere badok, ba, e! Ahuntzak beti mendira eitte jok.*

Ahuntzaren gaberdiko eztula ez izan: Garrantzi gutxiko gauza ez izan.

Aide hamendiki!: Norbait kanpora (edo beste leku batera) bidaltzeko erabiltzen da.

Aidian irabazi: Jokoren bat edo partidaren bat oso erraz irabazi. *Aidian irabazi jauat pelota-partidua aittari.*

Aittan semia izan: Semeak aitaren antza izan. Berdin gainerako ahaideekin ere: **Aman/aittan alaba/semia izan.**

Aittaren batian: Azkar, berehala. *Aittaren batian amaittuko dou lan hau.*

Akerra(re)n adarrak baiño okerraua izan: Pertsona okerregatik, gaiztoengatik esan ohi da. Ikus **Are-makillia baiño okerraua izan.**

Aldapari(k) peko laurik egon ez: Gauza guztiek dutela zerbait txarra adierazteko; ez dagoela ezer perfektua. Ikus **Arantzari(k) peko larrosarik egon ez** eta **Gustoko mendixan, aldaparik ez.**

Alimo, Jerolimo!: Animoak emateko erabiltzen da. Ikus **Eutsi goixari!**

[alfer] **Gaitzik txarrena, alperkerixia:** Alferkeria gaitzesten duen esapidea.

[alfer] **Galbania baiño alperraua izan:** Pertsona oso alferra izan.

[alfer] **Zorrixa baiño alperraua izan:** Pertsona oso alferra izan.

Alperra, beti lanpetuta: Alferrak beti esan ohi du lanpetuta dabilela, inork lan gehiago ez agintzeko edo.

Alperra(re)n etxian, behixa antzu eta andria ernari: Alfer batzuen jokabidea deskribatzeko erabiltzen da.

Alperrantzat jana eta langilliantzat lana sekula ezti(r)a faltako: Alferren eta langileen jokabideak konparatzeko erabiltzen da.

Alperrik galdu: Hondatu, galdu, okerrera egin. Ezezko forman, normalean. *Ez arduratu Mikelengaittik, eztok alperrik galduko eta.*

Altzola-Mendarotan, jentia ona dok arrazoitan!: Elgoibarko auzo bat da Altzola, eta Mendarotik 2 kilometrora dago; hango herritarren kalitateak adierazten ditu.

Amama ipiñi: Jokaldi bat edo pilota oso erraz ipini. *Dana amama ipiñi dizue gaurko partiduan.*

Ama(re)n semerik eon ez (zeozer eingo dabanik): *Etxaok aman semerik neri musian irabaziko dianik!* Irabaziko dion inor ez dagoela adierazten du.

Amorraua izan: Zerbaiten oso zalea izan. *Bai, bai, juan bertara eta arraiña, peskan. Eta amorrauak giñan gu, hau Kondia difuntua? Haura ta.*

Andramari martiko egunian pasatze jok kukuak Erromako zubixa hona etortzeko⁸: Garaitsu horietan hasten da kukua kantatzen.

Andramari martixan kuku, eta San Pedruetan mutu⁹: Kukua martiko Andremari egunaren inguruan hasten da kantatzen, eta ekain bukaera aldean isiltzen da.

[andre] **Urrezko andria baiño zer da hobe? Buztiñezko gizona!:** Gizonetzkoek emakumezkoek baino gehiago balio dutela adierazteko esamolde zakarra.

Andriak izan bihar dau kalian airosa, sukaldian kuriosa eta ohian kariño-sa: Emazteak zenbait gizonentzat izan behar lituzkeen ezaugarriak biltzen dituen esamolde zakarra.

Apirilleko loria, urria baiño hobia: Negua joan eta gero, udaberria pozik hartzen dela adierazten du.

Arantzari(k) peko arrosarik ez eon: Gauza guztiak dutela zerbait txarra adierazteko; ez dagoela ezer perfektua. Ikus **Aldapari(k) peko laurik ez egon.**

Ardi galdua bezela ibili: Beti bakarrik, lagun-koadrilarik gabe dabilenari esaten zaio. Ikus **Uztarri bakarreko laguna izan.**

[ardo] **Biharra eta ardaia, neurrixan:** Gauza guztiak bere neurria dutela adierazten du.

Are-makillia baiño okerraua izan: Sororako areak duen makila okerra da. Ikus **Akerran adarrak baiño okerraua izan.**

⁸ Andramari martiko eguna: martxoaren 25a.

⁹ San Pedro eguna: ekainaren 29a.

Argi ibili: Kontuz ibili. *Argi ibili, gero, e! Horrekin eztao-ta bromarik!*

Arraiñ haundixak txikixa jaten dau: Bizitzaren legea adierazten du.

Arrantzaliak, dirua aguro eiñ, eta aguro gastau: Fama hori omen dute arrantzaleek.

Arrastua hartu: Zerbaiti edo norbaiti antzeman; zerbait edo norbait nondik nora doan asmatu. *Arrastorik ere etxauat hartzen hire problemiarri!* Baita hau ere: **Ezeren aztarrenik ez izan.**

Arrastuan sartu: Bide onean sartu. *Andres beti izan dok oker samarra: ezin izan juau inoiz arrastuan sartu.*

Arrazoa daukazu, baiña kartzelara zuaz: Nahiz arrazoa izan alferrik izango zaigula adierazteko erabiltzen da.

Arreglorik ez euki: Zerbait ez dela aldatuko esan nahi du. *Guk etxakonau arreglorik!*

Artaburua baiño buru haundixaua euki: Ohikoa baino buru handiagoa duen pertsonagatik esan ohi da.

Asko jakiñ ez: Harridurazko interjekzioa. **Eztakik asko!** —*Bixar urtiak. Zorionak!* —*Bai, bixar. Eztakik asko! Berroeta hamaika urte. Ja, ja, ja.*

Astarrak umia eitterako (zeozer eiñ): Gauza bat asko luzatuko dela edo gertatuko ez dela adierazteko. *Bai, astarrak umia eitterako amaittuko juek etxe berri hori.* Ikus **Txitiak txixa eitterako.**

Astegun buruzuri: Asteguna aste bukaerarekin kontrajartzeko erabiltzen da. *Hik dakak baloria, hik: jatetxe karuenera hua afaltzera astegun buruzurixan!*

[asto] **Sarrittan juanda, astuak errotako bidia ikasi:** Adierazten du ibiliaren ibiliaz ikasten direla gauzak.

Asto zurixa allegau: Logurea iritsi. *Allegau al da asto zurixa, umia?* Ikus **Txomin(txo) etorri.**

Asto-lanak eiñ: Lan gogorrenak eta eskergaiztokoena egin.

Astua atzeruzka baiño torpiaua (aldrebesaua) izan: Pertsona oso dorpea edo aldrebesa izan.

Astua baiño temosua(g)ua (terkua(g)ua) izan: Pertsona oso egoskorra izan.

Astuak aza artian baiño gehixao gozau: Norbaitek zerbaitekin asko gozatzen duenean erabiltzen da.

Astuak baiño lan gehixao eiñ: Lan asko (edo astuna) egiten duten pertsonengatik esan ohi da. Ikus **Astuan moduan lan eiñ**.

Astuan moduan lan eiñ: Lan asko (edo astuna) egiten duten pertsonengatik esan ohi da. *Bai, ta hantxe bizi, hantxe lana eiñ, astuan moruan hantxe lana eiñ.* Ikus **Astuak baiño lan gehixao eiñ**.

Astuen klasera (ibili), aldrebes: *Gu, astuen klasera beti, aldrebes. Ja, ja!*

Ata(r)ialde exkaxa euki: Panorama txarra eduki, ikuspegi txarra eduki. *Ataialde exkaxa daukau, hainbeste langabeziarekin.*

Ate batetik erten, eta beste atetik sartu: Zerbait berehala egiten denean esaten da. *Ta gero, handikan, ba ni sartu nitzan, ate batetik erten, da beste atian sartu, Alkortarian.* Dirua erraz gastatzen edo joaten denean ere antzeko esamolde bat erabiltzen da: ikus **Esku batekin hartu, eta bestiak eman**.

Ate giltzatuari, lapurrak higuñ: Lapurrak ez ditu maite ate itxiak.

Aterik aiña/beste maratilla euki: Gauza guztientzat erantzuna edo irtenbidea daukanari esaten zaio.

Atxurra harrapau: Mozkortu.

Atzekoz aurrera (jantzi...): Alderantziz. *Atzekoz aurrera jantzi dozu jertsia.*

Atzera be(g)ira ez eon: Ausarta izan, aurrera egin. *Gustatze bajak, ez eon atzera begira [eta hartu gaztaia]!*

Atzera eta aurrera (ibili): Batera eta bestera ibili. *Eta hortxe ibili giñuazen, atzera ta aurrera.*

Atzetik hartzera bialdu: Norbait antzarrak ferratzera bidali. Ikus, halaber, **Kakatarra bialdu, Pikutara bialdu eta Popatik hartzera bialdu**.

Atzian geratzekua ez izan: Pertsona ausarta izan.

Atzo goizekua ez izan: Zaharra izan (norbait edo zerbait).

Aurrerapenik ez eman: Ezezko forman erabiltzen da batez ere: zerbait egitera ez animatu. *“Beste guztixak erromerixan, eta hi lanian beti, soiñujolia beti lanian”, esate zaban aitxak. Guri ez zigun ematen aurrerapenik sekula [soinua jotzen ikasteko].*

Aurretik berba labaiñak, atzetik ganibetia: Bizkarra eman orduko hitz leunak aldatu egin daitezkeela adierazten du.

Aurrian hartuta ibili: Pertsona bat ondo ez tratatu. *Umia aurrian hartuta dabil.*

Azal lodixa euki: Lotsagabea izan, kopeta edo larru sendoa izan.

Azken putz!: Azkena geratzen denari esaten zaio, lasterketaren batean edo bestelako zerbaitetan.

Azkoitixa, gatzatu herrixa.

[aztarren] **Ezeren aztarrenik ez izan:** Ezeren arrastorik ez izan. Ikus **Arrastua hartu**.

Baietzian eon: Baietz uste izan. —*Reala ezta aurten primerara ixoko.* —*Ni baietzian nao, ba! ikus **Ezetzian eon**.*

Baitta zera ere, gatzaiña erriak eta txanponak!: Entzundako zerbait ukatzeko erabiltzen da.

Bakerik ez izan ... arte: Zerbait lortu arte lasai ez egon. *Jostaillua erosi nion arte ez zaban bakerik izan umiak.*

Bakoitzak bere txapela: Nork bere usteak eta jokabideak dituela esan nahi du.

Bakoitzak beria, Jangoikua(re)n legia: Bakoitzak bereari kasu egin behar diola adierazteko, besteren gauzetan sartu gabe. Bakoitzari berea aitortu behar zaiola adierazteko ere erabiltzen da.

Baleuka eta balitz, alkarren onduan dabiz: Behin zerbait pasatu eta gero hipotesiak egiten ibiltzea alferrikakoa dela adierazten du. Ikus **Banego, banitz, baneu... horrek anai asko dittuk**.

Banego, banitz, baneu... horrek anai asko dittuk: Behin zerbait pasatu eta gero hipotesiak egiten ibiltzea alferrikakoa dela adierazten du. Ikus **Baleuka eta balitz, alkarren onduan dabiz**.

Banenguan, ba!: Esan den edo gertatu den zerbait berresteko erabiltzen da. *Banenguan, ba, ez ete naban ikusiko!*

[baria] **A ze paria, karakola ta baria:** Bi pertsona oso antzekoak direla adierazteko esaten da.

Baria baiño motelaua izan (motelao ibili): Oso motela izan (oso motel ibili).

Barixakua, kaskajuen eguna: Hala esaten zitzaion lehen Elgoibarren eta beste herri batzuetan.

Bastante eñ: Nahikoa egin. *Bastante ein dau* barkamena eskatzera etortziakin! / *Bai, bai. Astia bastante ein dau, astia. Eta eskerrak horri. Oiñ ein daban eurixa ere, ba, mesederakua da patatiantzako ta.*

Bat izan: Gauza bera izan. —*Eta Elgoibarren bertan barruan, auzuen artian diferente eitxen dozue?* —*Keba. Ez, ez, ez. Hau dana bat da. Hau bat da.*

Batek jakiñ: Auskalo! *Batek jakik noiz etorriko dan elurra aurten!*

Baztarrak nahasten ibili: Gauzak endredatzen ibili. *Oiñ ere etorri haiz baztarrak nahastera?*

Begittan hartu: Norbaiti amorrua hartu.

Begixak gustu: Bakoitzak bere gustua duela adierazteko erabiltzen da.

Begixak zabal-zabal einda eon: Harrituta egon. *Naparruan eon bi'ozu begixak zabal-zabal einda [hango euskara ez delako ulertzen].*

Behia jo (behia jota eon): Erori; hauts egin. Baita, zabalkuntzaz, desmoralizatu ere. *Hor basarrixa oin behia jota dao. / Jo jok behia gure Patxik!*

Beltza izan: Handia izan. *Beltza dok, ba! Oinguan ere dana gaizki erten jakuk!*

Beltzak ikusi: Gorriak ikusi, senperrenak ikusi. *Kintzena horrekin, beltzak ikusiko`ittuk hill osua pasatzeko.*

Bene-benetan, txakurra berbetan: Norbait “bene-benetan” esaka hasten denean erabiltzen da.

Berakatza baiño fiñaua izan: Oso pertsona fina izan. Baita **Berakatz atala baiño fiñaua izan** eta **Urria baiño fiñagua izan**.

Berakatza, zazpi gaitzen kontrakua: Baratxuriaren onurak adierazten ditu.

Berba politxak, danori gustatzen: Hitz ederren onurak adierazten ditu.

Bere batian ibili (jun...): Formal ibiltzeko esan nahi denean erabili ohi da. *Bere batian ibiliko`ittuk, eztok?*

Beria eñ: Berak nahi zuena egin. *Atzenian, ibilli-ibilli ein, eta beria ein juan Joxek.* Ikus **Beriakin erten**.

Beriak beranak izan, eta bestianak erdibana euki: Berea partekatu ez, baina besteena partekatu nahi izaten dutenei esaten zaie. Pertsona berekoiengatik esan ohi da. Antzeko hau ere erabiltzen da: **Beriak beretzako, eta bestienak erdibana.**

Beriak eta bost esan: Handiak esan.

Beriakin erten: Berea egin. Ikus **Beria eín.**

Berotua eman: Jipoia eman.

Berriketarik ez eon: Norbaitekin edo egoeraren batekin txantxa gutxi egin behar dela adierazten du.

Berriketia ez izan (eon): Gauza txikia ez izan. *Orduan ez zauan berriketarik. Orduan ez zan berriketia Donostiaraiño juatia! / Ezta berriketia illia moztia, e! [garestia, alegia].*

Bertako eín: Toki batera guztiz egokitu. *Bi aste bakarrik ein dittu herrixan, eta bertako egin jaku.*

Bertan Bilbo!: Espero ez den norbait aurkitzean edota ahotan daukagun pertsona agertzen denean esan ohi da.

Bertsuak etara: Xelebrekeriaren bat gertatzen denean erabiltzen da. *Eztot kontauko gertaetakua, bertsuak etarako digue eta.*

Beruana kendu: Norbaiti kontakizunen bat gehiegi ez puzteko esan nahi diogunean erabili ohi da. *–Gaur bota jittuau berrogei bat uso! –Bai, zera! Beruana kendu ixok!*

Bestemodutara bizi: Erosoago, hobeto bizi. *Bestemodutara bizi zara kalian!*

Bete ezindako zakua euki: Asebetetzen zaila denari esan ohi zaio, bai janariaren aldetik, bai konformidadearen aldetik.

Bete-bete einda eon: Mozkortuta egon. Gehiegi janda egon ere bai.

Bete-betia ez izan: Buruz betea ez izan.

Beti presaka, eta beti allegau ezinda: Beti korrika eta presaka dabiltzanei esaten zaie.

Bi eskeintzia errezaio bat ematia baiño: Eskaintzea ematea baino errezaioa dela adierazteko erabiltzen da.

Bi nagusiren txakurra, gosiak hill: Biren edo askoren artean zerbait izateak atarramentu onik ez dakarrela adierazten du.

Bide motxa euki (zeozek): Zerbaitekin urruti ezin dela iritsi adierazteko erabiltzen da. *Ta hor pixkat burua dakanak, erretz hartze'ittu horrek [ingelera eta]. Baiña pixkat despistaua danak, ezin dittu hartu. Baiña euskeriak bire motxa daka.*

Bihar eztianak gogortu jakuz: Alegia, adinean aurrera joan gara, eta belauna, bizkarra, gerria eta halakoak gogortu zaizkigula adierazteko.

Biharra: Aditz-partizipioari jarraituz erabiltzen da, esapide adierazgarrietan: *Hori da jan biharra daukazuna!*

Biharra eta ardaua, neurrixan: Gauza guztiek bere neurria dutela adierazten du.

Bilddur edarra, obispuak abadiari!: Gehiago agintzen duenak gutxiago agintzen duenari beldurrik ez diola adierazteko erabiltzen da, ironikoki. *–Berandu najabik, eta oiñ ere andriak errieta edarra eingo jak! –Bai, zera! Bildur edarra obispuak abadiari! [etxe horretan, nonbait, senarrak agintzen du emazteak baino gehiago].*

Bilddurak akabatzen eon: Oso beldurtuta egon.

Billa dabillenak, topau eitten dau: Saiatzen denak nahi duena lortzen duela adierazteko erabiltzen da.

Bixar edo etzi: Etorkizun hurbila adierazteko erabiltzen da. Ikus **bixar-etzi**. *Danobatian [Elgoibarko lantegi baten izena da] zabillen anaixa, da “hi, hobe daukak hara etortzia, han tallarra ondo jiek, eta bixar ero etzi han be- nefiziuak eta, pixkat eman eitxe juek”.*

Bixar-etzi: Etorkizun hurbila adierazteko erabiltzen da. Ikus **Bixar edo etzi**.

Bizkarreko hautsak kendu: Egurtu. *Geldirik eote eztian behixeri bizkarreko hautsak kendu!*

Blai eiñ: Busti-busti egin.

Bost xentimoko pupua eta hamar xentimoko trapua: Ezbehar txiki bat dela eta, kexaka eta kexaka aritzen denaz esaten da.

Bota ahala jardun (eurixa): Euria gelditu gabe, ugari ari duenean esan ohi da. *Eurixa bota ahala jharduk! Ikus **Goixan-behian jardun (eurixa).***

Burdi zaharrak, aberixa asko: Adinaren ajeak datozkigunean erabili ohi da. Ikus **Kotxe zaharrak, aberixa asko.**

Burua eztabillenak, hankak ibili bihar: Burua ez erabiltzeak dakartzan ondorioak adierazteko erabiltzen da.

Burua galdu: Zoratu. **Juizua galdu** ere bai.

Burua lengo lepotik euki: Zerbait edo norbait aldatu ez dela adierazteko erabiltzen da, orain arte bezala jarraitzen duela.

Buruan azka eitteko baiño ere alperraua izan: Pertsona oso alferra izan.

Burutik jota eon: Zoratuta egon. *Burutik jota dao hori: negu gorrixan sandaliekkin!*

Burutik sano ez eon: Zoratuta egon. Ikus **Ganbaratik sano ez eon.**

Buztarrri bakarreko laguna izan: Bakarrik ibiltzen direnez esan ohi da. Ikus, esanahi berdintsuarekin, **Ardi galdua bezela ibili.**

Buztarrixan juateko modukuak izan (bi lagun): Antzekoak diren lagunengatik esan ohi da. Baita hau ere: **Buztartzeko modukuak izan.**

Dauanian bon-bon, eztauanian eon: Dagoenean aprobeztatu behar dela adierazteko erabiltzen da.

Dakixenik ezta jaixotzen: Gauzak ikasi egiten direla adierazten du, inor ez dela dena jakinda jaiotzen.

Dana biharrian: Norbaitek, ondo egoteko, laguntza guztiak behar dituela adierazteko erabiltzen da. *Osasuna? Dana biharrian, e! Zeatik eze, ya ibiltzeko falluak... Personia jaixotzen danetikan gastatzen hasitxa dago.*

Danen gustua eingo dabanik ezta jaixo: Ezinezkoa da denen gustua egitea.

Daukanak eta eztaukanak (esan, etara...): Denetarik (esan, atera,...). *Baiña euren borondatez eitxen debe; idixa ez, idixa obligau eitxen debe, han lotuta ipiñi, eta "Aida!", daukanak eta eztaukanak etara; baiña bestia borondatekua da.*

Debrazete helduta (juan): Bikote bat besotik helduta (joan).

Deittu'iak txakurra, baiña ema'iak ogixa: Alegia, berdin zait zer itsusikeria esaten dituzun nigatik (zerbait okerra egin dut eta), baina nirearekin irten naiz.

Dianak eta eztianak esan: Sekulakoak esan.

[diru] **Eztula eta dirua ezin dia ezkutau:** Nahi izanda ere, ezkutatu ezinekoak dira bi horiek: beti geratzen dira agerian, lehenago edo geroago.

Dirua eiñ: Aberastu.

Dirua dirua dauan lekura juaten da: Pertsona dirudunak elkarrekin elkar-tzen (eta ezkontzen) direla adierazten du.

Dirurik eztozu izango eskuan dozuzen kalluak arpe(g)ixan eztaukazuzen arte: Adierazten du adin batera ezkerro bakarrik izaten dela nahikoa diru.

Don don kikilimon, sarrakuke sarramon, pike pike, tortolike, banbu, sirre ketake, bu: Zozketak egiteko erabiltzen den formula bat.

Drogan ibili: Liskarretan ibili, saltsan ibili. *Da eskolan ere bai. Baña eskolan baiño afizio gehixo, han, pelotan. Pelotan da, Dios! Han ibiltze giñan, drogan! Mendarokua beste bat, Manuel.*

[edan] **San Juan, jan-edanak juan**¹⁰: Hitz-jokoa, jaiak amaitzen direnean jan-edanak amaitzen direla adierazteko.

Edan txarrekoa izan: Edandakoan gaizto jartzen denaz esaten da. *Hori edan txarrekoa dok, eta argi!*

Edarra eiñ: Handia egin. *Edarra ein juau ointxe! Etxera jun nahi, eta giltzik ez!*

Edozeiñ ez izan: Berezia dela, besteak baino gehiago dela uste izan. *Bizikletia zaukan gizona, orduan, ez gero pentsau edozein zanikan, e!*

Eingo nuke...: Apostu egingo nuke... Ikus **Lepua eiñ**.

Eiña eiñ, Kaskurriorena: Egin baduzu, bihotza edukazu. Gazt. “a lo hecho, pecho”.

Egixa berdaderua: Zerbait egia dela adierazteko esapide adierazgarria. *Horretzek bai egixak diala... berdaderuak!*

Egixa biribilla: Zerbait egia dela adierazteko esapide adierazgarria.

Eon hari lo, eta jango dok mehe: Lanak egiten azkar ez dabilenak gaizki behar duela adierazteko.

¹⁰ San Juan eguna: ekainaren 24a.

Egundokua hartu (gertau, esan...): Handia hartu (gertatu, esan...). Baita hauek ere: **demasekua / makalekua / sekulakua / kristona / jesukristona hartu.**

Egunik luzena, San Juanena: Urteko egunik luzeena dela adierazten du.

Egurra eman: Jipoia eman. *Egurra emate juen. Guri etziun hainbeste efeko eitten, baiña neskeri ta, kriston bilddurra sartze jauen.*

Euzkixa nora, zapixak hara: Komeni denaren arabera jokatu.

Euzkixan azpixon eztao holakorik: Parekorik ez duenagatik esan ohi da.

Eibarko txitia, Bergarako oillua: Eibartarrak harroak eta exageratuak direla adierazteko esan ohi da.

Eibarko txitia, beti oillo: Eibartarrak harroak eta exageratuak direla adierazteko esan ohi da.

Eibartarra, jan belarra, bota puzkarra.

Eibartarrak, “komeni bada“; elgoibartarrak, “biou“: Jaungoikoari horrela eskatzen zioten eguraldi ona egin zezan herriko jaietan, San Juanetan eta San Bartolomeetan, hurrenez hurren.

Elur urte, gari urte: Elurra egiten duen urtean garia ugari izaten dela adierazten du.

Ematen dan berbia, bete ein bihar da: Hitza bete egin behar dela adierazten du.

Ematen eztabanak, hartzen lanik ez: Alegia, bakoitzak ematen duenaren neurrian hartzen dituela mesedeak eta opariak. Ikus **Hartzeko, ereiñ ein bihar da.**

En pin, Jaungoikuak ein zeban Martin, lurra ta buztiñakin.

Ene ta ene, Tomasa, benetan zera demasa!

Ermia izan: Ohikoa izan. *Ordu horretan, ermia dok, ba, hego-haizia!*

Erosittako prezian saldu: Norbaitek zerbeit entzun duen bezala kontatzen dizula adierazten du. *Erosittako prezian saldu dizut berri hori.* Ikus **Ez gitxiao ez gehixao.**

Errementarixan etxian, zotza burrunzi: Ikus **Zapateruak, oiñetako zaharrak.**

Erretolikia euki: Abarketa eduki. Gazt. “Tener rollo”.

Esana(g)o eta okerra(g)o: Umeekin batez ere; adierazten du zerbait zenbat eta gehiago esan orduan eta okerrago jokatzen dutela.

Eskaliari ematia, Jangoikuari ematia: Baita, ohitura honen onuraz, beste hauek ere: **Eskaliari ematen dionak Jaungoikuari ematen dio** eta **Eskaliari etxeko gaztienak eman bihar dio limosnia.**

Eskasa geldittu: Motz geratu. *Beti etorri eitte jat. Eta bixok jute gara, bi lagun: bakarra eskasa gelditzen da.*

[**eskas**] **Neure eskasian:** Nik neuk ere, zerbaitetan aditua eta aritua ez izan arren, egingo nukeen gauza bat adierazteko. *Neure eskasian, amaitsu juat ikastarua.*

Eskerrak ... eskumiari: Hitz-jokoa, norbait eskerrak ematen hasten denean erabiltzeko, berdin ahoskatzen dira-eta bi hitzak (*esker* eta *ezker*) Elgoibarren. —*Eskerrak ... —Bai, ezkerrak ... eskumiari!*

—**Eskerrik asko. —Ekarri asko!:** Hitz-jokoa, zerbaitegatik eskerrak ematen dizkigunari txantxetan erantzuteko erabili ohi da.

Esku batekiñ hartu, eta bestiaikiñ eman (bestetik juan): Irabazi bezala, erraz gastatzen duenari esaten zaio. *Esku batekiñ asko hartzen dau, baiña beste eskutik asko juate jako.*

Eskuetan eon: Laster etortzeko zorian egon. *Berakatz, kipula, idar, baba berri, ba horrek danok daude oiñ etorten, etorten daude, baba berrixa ta idarra ya eskuetan daude.*

Eskumia eta ezkerria nun dauden jakiñ ez: Norbaiti ergela dela esateko erabiltzen da. *Horrek etxakik, barren, eskumia ta ezkerria nun dauden!*

Esperuan eon: Haurdun egon. *Ba al dakizu Miren esperuan dauala?*

Etorri haundikua izan: Bertsotan puntuari legez heltzen diona izaten da etorri handikoa. Hortik kanpo, izan daiteke txantxei azkar eta egoki erantzuten diena ere.

Etortzen dana hartu bihar: Bizitzan datozkigun gauza txarrak ere hartu behar ditugula adierazten duen etsipenezko formula.

Etxerako modukua izan (baten bat): Etxera eramateko modukoa izan; normalean, berarekin ezkontzeko modukoa dela adierazten du, gauza guztietarako egokia dela. *Neska hau etxe(r)ako modukua dok! Politta, jatorra ta langillia!*

- Etxia, beti eskian:** Etxeko gastuak inoiz ez direla amaitzen adierazten du.
- Eurixa eta e(g)uzkixa, martiko e(g)ualdixa:** Martxoan egiten duen eguraldiaz esan ohi da.
- Euskaldun, fededun:** Euskalduna sinestuna izan ohi dela adierazteko erabiltzen da.
- Euskalduna, hitz gitxikua:** Euskaldunak oso berritsuak ez direla adierazten du.
- Euskalduna, jan da gero hoztu.**
- Euskeraz ahaztu eta erderaz ikasi ez:** Zenbaiti gertatu izan zaiena, euskara erabiltzeari utzi, eta gaztelaniaz ganoraz ikasi ez.
- Euskeraz eitterik ez, eta erderaz jakiñ ez:** Garai batean Euskal Herrian genuen egoera soziolinguistikoa deskribatzen du.
- Euskeria bihotzian, erderia mingaiñian:** Euskara ustez maite baina erdaraz hitz egiten duenagatik esaten da.
- Eutsi goixari!:** Animoak emateko erabiltzen da. *Eutsi goixari, motell! Pasauko jak-eta ratxa txar hau!* Ikus **Alimo, Jerolimo!**
- Exkax:** Neurrietan, adierazten du ia-ia iritsi garela emandako neurrira, pixka bat gutxixeago dugula. Kopuru baten ondoren erabiltzen da. *Bi kilo exkax dauaz hamen.*
- Eztauan lekuan, eztao:** Ez daukanari ezin eskatu. Gauza bat egiteko gai ez denari ezin zaiola hori eskatu ere adierazten du.
- Eztakik asko!:** Ikus **Asko jakiñ ez.**
- Ez gitxiao, ez gehixao:** Gauzak diren bezala kontatu, esan... Ikus antzeko esapide hau: **Erosittako prezian saldu.**
- Ez gatzik, ez berakatzik:** Pertsona motelengatik esan ohi da.
- Ez narrugorririk, ez erropa gehixegirik:** Nola janztea komeni den adierazten du.
- Ez pentsau dana larrosiari usaiñ eittia danik:** Bizitzan atsekabeak ere badi-rela adierazteko erabili ohi da.
- Ezetarako ez izan:** Ezer egiteko gai ez izan. *Aurki ezetarako enok.*

Ezetzian eon: Ezetz uste izan. *–Eduardo etorriko dok gurekin oporretara. –Ni ezetzian nao, ba!* Ikus **Baietzian eon.**

Ezker-eskubi bizi: Etxepe batean, elkarren ondoan bizi. *Ezker-eskubi bizi gaittuk, eta tratu haundixa jaukau.*

Ezkerreko begittik hartuta euki (baten bat): Gutxietsita eduki (norbait). Baita hau ere: **Ezkerreko begikua izan (baten bat).**

Ezkondutako urtia eta txarrixa hildako astia, onenak: Garai eztiak eta oparoak adierazteko erabiltzen da.

Ezkontza eta buzkantza, berotan: Bi gauza horiek berotan egin eta hartu behar direla esan nahi du.

Ezkur urte, elur urte: Ezkur ugari den urtean elurra egin ohi duela adierazten du.

Ezpala baiño argala(g)ua izan: Pertsona oso argala izan. Baita hau ere: **Zotza baiño argala(g)ua izan.**

Ezta izangol! Ez ezazu esan! *–Aittagiñarreba hil jata. –Ezta izengo!*

Eztittan eon: (Elkarrekin) gozo-gozo daudela adierazten du. *Andra-gizon horrek, ezkondu berrittan, ezttitan daude.*

Eztula eta dirua ezin dia ezkutau: Nahi izanda ere, ezkutatu ezinekoak dira bi horiek: beti geratzen dira agerian, lehenago edo geroago.

Firin-faran ibili: Batera eta bestera ibiliz probetxuzko ezer onik egiten ez duenari esan ohi zaio. Ibili asko, eta gutxi egin. *Ezer eztok ein gaur, firin-faran ibili haiz egun guztian. / –Banixe kalera. –Bai, ibili oiñ ere firin-faran!*

Francon denporakua izan: Aspaldikoak diren gauzez esan ohi da. *Ez'ik kontu hori aittatu, Francon denporakua dok eta.* Ikus, are gauza zaharragoetarako, **Jesusen denporakua izan.**

Gabaz sukalde garbixan aingeruak dantzan eitten debe: Garbitasunaren onurak adierazten ditu.

Gabetik goizera: Azkar, bat-batean. *Gero, eztaikit ze enfermedade harrapau ziuen, eta jota gabetik goizera, jota.*

Gabonetan keixak!: Gabonetan ez da gerezirik egoten, eta mesederen bat modu adierazgarrian eskertzeko erabiltzen da.

Gaitzik txarrena, alperkerixia: Alferkeria gaitzesten duen esapidea.

Gaizki esanak barkatu eta ondo esanak goguan hartu: Hizketaldi edo idazlanen baten amaieran erabili ohi da formula apal hau.

Galbania baiño alperraua izan: Pertsona oso alferra izan.

Galduan eman: Negozioren batean, galtzen irten. *Zenbat da kontua? Eta hainbeste. Bueno, etxuek galduan emango eurak ere, e!*

Ganau ona (edarra) izan: A ze aparejoa! *Ganau ona dok gure umia!*

Ganbaratik sano ez eon: Burutik nahastuta egon. Ikus **Burutik sano ez eon.**

Garbi esanda: Egia esanda. *Ni leku baten, garbi esanda, gaizki: nerbixuak.*

Garbixa garbittu: Behar ez den gauza bat egitea. *Oiñ kaliau lana dauala, bai, badakizu zetan dauan lana kaliau? Garbixa garbitzen, hantxe, garbixak garbitzen.*

Garizumia baiño luziaua izan: Oso luzea (altua) den pertsonari esan ohi zaio.

Gatz gutxiko pertsonia: Txepela. *Horrek etxakak gatzik txistiak kontatzeko.*

Gaur goizeko kontua izan: Zerbait (albiste bat edo) berria denean esan ohi da.

Gauza gitxi bihar izan (zerbaitetarako): *Gauza gitxi biha det laguna bihar izateko: ixa daneako.*

Gaztia gaztia danik ezta konturatzen: Bizitzaren legea adierazten du.

Gaztiak baleki..., zaharrak ahal baleu...: Bizitzaren legea adierazten du.

Gaztiak, eskarmentu gitxi: Gazteari esperientzia falta zaiola adierazteko.

Gaztiak gora eta zaharrak behera: Bizitzaren legea adierazten du.

Gehixen jarduten dabanak, gehixen zor: Adierazten du huts gehiago egingo duela gehiago mintzatzen denak mintzatzen ez denak baino.

Geldirik dauana, etsaixak tentatzen: Deabruak langilea baino gehiago tentatzen du alferra, geldirik dagoena.

Geldirik eotekua ez izan: Ipurtarina izan. *–Oiñ ere miñ hartu deu umiak! –Bai, ezta geldiik eotekua!*

Gero izango'ittuk kontuak: Geroari begira ere egon behar dugula adierazten duen esapidea. *Oiñ, lanik ein be, gustora bizi haiz, eta hola ohittu haiz,*

baiña gero izango'ittuk kontuak! Hau ere erabiltzen da: **Gero izango'ia komerixak.**

Gerra gitxi eman: Eragozpen gutxi sortu, lan askorik eman ez. *Aitxari txa amari gerra gitxi emandakua da, e!*

Gibel haundixak euki: Pertsona lasaiegia izan. Baita **Gibelak euki** ere. Ikus **Gibelaundixa izan.**

Gibelaundixa izan: Ikus **Gibel haundixak euki.**

Giro ez izan: Gauzak gaizki, oker edo gogor datozenean erabiltzen da batez ere. *Hori jartzen bada alkate, ez tok giro izango baztarretan!*

[gizon] **Urrezko andria baiño ze da hobe? Buztiñezko gizona:** Gizonezkoak gehiago balio duela adierazteko esamolde zakarra.

Gizon illetsua, gizon indartsua.

Gizon tabernazale, etxe galtzaille: Tabernako bizimodu horrek ekartzen dituen kalteak adierazten ditu.

Gizona gizon, otarrapian ere: Gizonari azkar antzematen zaiola esan nahi du.

Gizur-poltsas izan: Gezurti handia izan.

Gizurra esan naban Getarixan; ni baiño len zan ataixan: Gezurra berehala bistaratzen dela adierazten du. Ikus ondorengo biak ere.

Gizurrak hanka motzak daukaz: Gezurrarekin ezin dela urrutira iritsi adierazteko erabiltzen da; gezurtia bizkor harrapatzen dela. Hau ere erabiltzen da: **Gizurretan dabillena, hankamotz gelditzen da.** Ikus **Gizurrak, bide motxa.**

Gizurrak, bide motxa: Gezurrarekin ezin dela urrutira iritsi adierazteko erabiltzen da; gezurtia bizkor harrapatzen dela. Ikus **Gizurrak hanka motzak daukaz.**

Goixan zerua eta behian lurra dauala geratu: Dena galdu duenari buruz esan ohi da, ezer gabe geratu denari buruz. *Gero, gerratian soldau erun zebeñ [senarra], han gaixotu zan, hil jaten, eta goixan zerua ta behian lurra [nuela] geratu nitzan.*

Goixan-behian jardun (eurixa): Euria gogotik jardun. Ikus **Bota ahala jardun.**

Goizian goiz (jaiki): Oso goiz jaiki. *Beti goizian goiz jaikitta ibiltzen dok gure ama.*

Gogotik eín (zeozer): Gogoz egin zerbait. *Biharra gogotik, eta dirurik ez.*

Goguan euki: Gogoratu. *Gero, Eibartikan, ondo goguan dakat zela etortze zan bat.*

Gorabeheria eon: Aldea egon.

Gorraizia euki: 1. Gortuta egon. 2. Ironikoki: Ez entzunarena egin.

Gorri eon: Dirurik gabe egon.

Gorrixak ikusi: Beltzak ikusi, senperrenak ikusi. *Gorrixak ikusitta gaure gu gerra-denporan.*

Gosia berdindu: Asetuta geratu. *Hamaiketakuakin, berdindu juau gosia!*

Gosiak amorratzen eon: Oso gosetuta egon. Ikus **Gosiak hil biharrian eon.**

Gosiak hil biharrian eon: Oso gosetuta egon. Ikus **Gosiak amorratzen eon.**

Gosiantzako ogi sikurik ez eon: Gose denak edozer jango lukeela adierazteko erabiltzen da. *Gosiantzako etxaok ogi sikurik.* Adiera berdintsua du honek: **Ogi gogorrari, hagiña zorrotz.**

Gozatua hartu: Zerbaitekin oso gustura geratu, asko gozatu. *Hori gozatua hartu dotena tenis-partidua ikusten.*

Gozua eon: Ironikoki esaten da oso haserre dagoenarengatik. *Gozua eongo dok gure aitta: kotxia apurtu dotela enterau da eta!*

Gu baiño hobeto dauana, eztao gaizki!: Oso ondo daudenek esan ohi dute.

Gure Marixa goruetan, bihar eztan orduetan: Lana behar ez den garaian egitea.

Gustoko mendixan, aldaparik ez: Gustura gaudenean eragozpenak berdín zaizkigula adierazten du. Ikus **Aldapari(k) peko laurik eon ez** eta **Aranztari(k) peko larrosarik eon ez.**

Gitxi, goxo: Janariekin eta beste gauza askorekin erabiltzen da, gauzak bere neurrian hartu behar direla adierazteko.

Hainbestian ibili/geratu: Onartzeko moduan, gaizki ez. *–Zer moduz zabizte, ba? –Bueno, hainbestian! / Hainbestian geratu danian konforme eon leikek, etxok eta dana galdu!* Ikus **Nolabaiten ibili.**

[haize] **Hego-haizia, andran haizia:** Emakumeen jokaera adierazten duen esapide zakarra.

[haize] **Ibili haizekua izan:** Ibili zalea izan. *Atera erten, eta ya pasiarria erozein lekutara: ibili haizekua izan naiz ni, e!*

Haizetuta ibili: Harrotuta ibili, umeekin erabiltzen da batez ere.

Haizia buruan, eta ibili munduan: Arinkerietan, fundamenturik gabe, erantzukizunik gabe, batera eta bestera dabilenari esan ohi zaio.

Haizia eman: Norbait zerbait egitera animatu. *Guk inok ere ez, hartu ere ez afiziua ta aitzak sekula ezta eman ere zertzeko, haizerik eman ere ez [soinua jotzen ikasteko].*

Haizia euki... zeozer eitteko: Zerbait egiteko gogoz egon. *Eta Julianen partetik ointxe ere, elitzake etorriko, baiña nik uste'ot guriak dakala haize haundixa hona etortzeko.*

Haizia euki: Harrotuta dabilenagatik esan ohi da. *Horrek haize pixkat daka oindio, ai da pixkat batzen baiña.*

Hamabost urtekiñ, neska zatarrrik ez: Sasoi horretan neska guztiak ederrak direla adierazteko erabiltzen da.

Hamaika holako ikusteko jaixuak gara!: Gauza benetan arraroak, harri-garriak ikusten direnean erabiltzen da. Ikus **Ikusteko bizi.**

Hanka-jokua etara: Korrika batean ihesika joan. *Keixak harrapatzen ai zala, basarritarra etorri dok; harek etara jok hanka-jokua!*

Hankak luzatu: Euf. Hil. *Oin aprobetxau, hankak luzatu eta gero alperrik datta.* Baita hauek ere: **Heguak ipiñi** eta **Arnasia gastau.**

Hankamotz geratu: Zerbait osatu gabe, amaitu gabe geratu.

Hanketako hotzak kendu: Berotu. *Gelaxok, bere trikitixakin, askori kentzen jauen hanketako hotzak.*

Hari batekuak izan: Oso antzekoak izan. *Mikel eta Patxi hari batekuak dittuk bixak.*

Harrixa bota, eta eskua ezkutau: Okerren bat egin eta aitortu nahi ez duenagatik esaten da.

Harrokeixa gitxi: Egoera delikatueta erabili ohi da. *Orduan bankete asko etzan eitxen; zeatik? Dirurik etzauan baztarretan da. Hamarretako batzuk*

*eta holako batzuk bai, baiña ostian, harrokeixa gitxi! Ikus **Harrokeixa haundiri(k) pe ibili.***

Harrokeixa haundiri(k) pe ibili: *Zer moduz zabiz? Harrokeixa haundiri(k) pe, motell! Beti badaukat miñen bat.* Ikus **Harrokeixa gitxi.**

Harrokeixiak sekula gauza onik ez: Harrokeriak ondorio txarrak ekartzen dituela adierazteko erabiltzen da.

Hartzeko, erein ein bihar da: Ezer ez bada ematen, hartzea ere zaila dela adierazteko erabiltzen da. Ikus **Ematen eztauanak, hartzen lanik ez!**

Hartzekuekin etorri: Kontuak eskatzen etorri. *Kulpa danak berak, eta, gainera, bera etorri jata hartzekuekin!*

Hasarratzen danak bi lan daukaz: hasarratzia eta aixkiratzia: Haserretzen denari esan ohi zaio, haren haserrea gehiegi inporta ez zaigula adierazteko.

Haundixa izan: *Haundixa dok, ba, gauzak beti gaizki ertetzia!*

Hautsa aberatsa da: Gauza txarra erraz sartzen da bazter guztietan; ugaria da.

Hautsak kendu (baten bati): Norbait astindu.

Heguak ipiñi: Euf. Hil. *Oin bakandu dittuk asko, e! Pentsa'ik, oin larogei urte eukitzeko, bittarte horretan zenbatek heguak ipiñiko zittuan.*

Hill arte bizi: Nola edo hala aurrera jarraitu behar dugula adierazteko erabiltzen da. —*Bizi haiz? —Bai, hill arte behintzat bai!*

Hil eta gero, salda bero: Gauzak garaiz egin behar direla adierazten du.

Hillik motzena eta luziena, febrerua: Egun gutxien duena da, baina aldi berean, gogorrena eta luzeena egiten dena ere bai.

Hiru gauza alperrik galtzen dianak: urrutiko egurra, zoruaren indarra eta pobriaren arrazoia: Bizitzaren legea adierazten du.

Hitzak merkiak dia: Berbetan jardutea oso erraza da; egitea, zailagoa, ordea.

Hitzian eta hitzian: Etengabe. *Lazkao Txikik hitzian da hitzian jautan txiste-kolpia.* Ikus **Hitzian eta hortzian.**

Hitzian eta hortzian: Etengabe, hitzean eta hortzean. *Hitzian da hortzian esate jok harek maldiziua!* Ikus **Hitzian eta hitzian.**

Hobe arriskurik haundixena, okerrik txikixena baiño.

Hobe biharrez: Intentzio edo asmo onez egin zer bait. *Hobe biharrez esan dixat hori, e! Ez'idak gaizki hartu!* Ikus **On biharrez.**

Hobe jaten gastau botiketean baiño: Ondo jaten duena osasuntsu biziko dela adierazten du.

Ho(g)eta hamaika eskutik euki: Norbaitek abantailaren bat daukanean erabiltzen da.

Hor konpon, Mari Anton!: Zerbaitek axola ez digula adierazteko erabiltzen da formula hau. **Hor konpon!** bakarrik ere bai.

Hori hala bazan, sartu deilla kalabazan, eta ernten deixela Bitorixako plazan: Ipuinen amaieretan erabiltzen da formula hau.

Hori mundu honetarako dok: Norbait ezerean aurrean kokiltzen ez den horietakoa dela adierazteko erabiltzen da.

Hotzak kendu: Egurtu, astindu. *Bizkarraldeko hotzak kendu* dioz astuari, *ma-killiakin jota.*

Hurrik eman ere ez: Ezta gutxiago ere. *Hala ere, galdu ein tzaban aurrian. Gero sakia hartu zaban pelota batekin, eta akabo. Ezin hurrik eman.*

Hutsa(re)n hurrengua izan: Oso gutxi balio. *Gaur irabazi down dirua hutsan hurrengua dok.*

Ibili-ibili egin: Zerbaitetan asko ahalegindu. *Ibili-ibili egin, eta etxuau lortu kotxia arrankatzia.*

Ikusteko bizi: Gauza benetan arraroak, harrigarriak ikusten direnean erabiltzen da. Ikus **Hamaika holako ikusteko jaixuak gara!**

Ikutua eman: Zerbait berezia egin. *Egunari bere ikutua eman biha jako, pozik oheratzeko.*

Illietatik gora ibili: Oso lanpetuta ibili. *Illietatik gora nabil lanakin!*

Illuntze gorritsu, goiz euritsu.

Inpernuko diabrua baiño okerraua (gaiztuaua) izan: Oso gaiztoa izan. Baita hau ere: **Inpernuak ere etxok hartuko!**

Intxaurrak bost, hotsak hamabost: Zenbait gauza diruditena baino gutxiago direla adierazten du.

Intxaurren azpizan lo eittia, txarra: Pagopea eta harizpea, adibidez, beti omen dira hobeak.

Iñon begixan zakarrak haundixauak ikuste'ia: Norbere akatsak ikusi ez, eta besterenak ikusten dituenari esaten zaio.

Iñon morraletik ogixa jateko asko dao: Batek lan egin eta irabaziak bestek lortzen dituztela adierazten du.

Iñon ondoren ibili: Gustukoa duen norbaiten atzetik ibili. *Da ikusi niñuen mutil batekiñ, eibartarra; ibiltze zan nere ondoren ba, eta...*

Iñuzente potente, txakurran buztana tente: Norbait engainatu dugunean erabili ohi da formula hau.

[ipurdi] –Zela daukazu izena? –Ipurdi gizona: Norbere izena eman nahi ez denean erabiltzen da erantzun hau.

Ipurdi batekin bi silla ezin bete: Aldi berean bi lekutan ezin dela egon adierazteko erabiltzen da. Baita hau ere: **Txapel batekin ezin bi buru tapau.**

Ipurdixa berotu: Ipurdikoak eman, umeekin batez ere.

Ipurdixa eman: Bizkarra eman.

Ipurdixa galdu ...-tzeko/-tzia(g)atik: Edozer egiteko gai izan, zerbait lor-tzeagatik.

Ipurdixa garbittu: Lausenguetan ibili.

Ipurdixari buelta eman orduko: Berehala. *Ipurdixari bueltia eman orduko ahazte jataz gauzak.*

Iritzira jardun: Zerbait zehazki hala dela jakin gabe jardutea. *Ez'ixok kasorik eiñ, iritzira dihardu eta.*

Itxuen herrixan, tuertua nagusi: Zerbaitetan maila onik ez dagoenean, nagusi izaten erraza dela adierazten du.

–Itxura ona daukazu. –Bai, haura (itxuria) hobeto eongo dok ni baiño!: Alegia, itxura bera gu baino hobeto egongo dela.

Ixkua izan: Mutil sendoengatik (edo gizenengatik) esan ohi da batez ere. *Hori dok ixkua, hori!*

Izardi eta patz: Izerditan blai.

Izardixa daixola: Izerditan blai. *Etorri etxera eskolatik, bazkaldu eta antxixika frontoira, izardixa daixola eskolara. Aitxa eta ama beti errietan, beti holaxe.*

Jaboa eman: Norbaiti koipea eman.

Jai euki (eon): Norbaitekin zer eginik ez izan. *Horrekin jai daok, eta guazen hamendik.*

Jaixotzak, heriotza zor: Bata bestearekin batera doala adierazteko erabiltzen da.

Jaixo giñan, eta bizi ein bihar: Etsipenezko egoeretan erabiltzen da asko. *Hori, gizajo hori, jaixo zan eta bizi ein bihar... [... ahal duen bezala].*

Jakiñian eon: Zerbaiten jakitun egon. *Ordurako jakiñian eote zian. Baita **Jakiñian gaiñian eon** ere.*

Jakitziak eztau ogirik eskatzen: Jakitearen onurak adierazten ditu.

[jan] **San Juan, jan-edanak juañ:** Hitz-jokoa, jaiak amaitzen direnean jan-edanak amaitzen direla adierazteko erabiltzen dena.

[jan] **Eon hari lo, eta jango dok mehe:** Gauzak egiten argi ez dabilenak gaizki behar duela adierazteko.

Jangoikua lagun izan: Okerrik gertatu ez. *Jangoikua lagun doula, ikusiko dou hori ere.*

Jangoikuan legia: Ikus **Bakoitzak beria, Jangoikuan legia.** Bakoitzak bereari kaso egin behar diola adierazteko, besteren gauzetan sartu gabe. Bakoitzari berea dagokiola ere bai.

Jangoikuak dakixan lekukua izan: Urrutikoa denagatik esan ohi da. Beste era honetara ere bai: **Jangoikuak jakingo jok nungua dan hori!**

Jangoikuaren izenian!: Urtean lehenbiziko aldiz gauza berri bat jaterakoan erabiltzen da. Harridurazko interjekzio moduan ere bai.

Jan-txakur asko munduan: Alferra denari esan ohi zaio jan-txakurra; jatera bai, baina lan egitera hurbiltzen ez denari. *Basarri haretan ere, jan-txakurra ugari: lau seme, eta danak kaliañ, festan.*

Jardunian jardun (ibili): Berriketari aritu. *Hamen gabixaz, jardunian.*

Jesukristonak esan: Demasak esan. *Jun dok neskia, eta Jesukristonak esan jaittuk. **Kristonak esan** ere bai.*

[Jesus] Izena(re)n jabe haiz, Jesus: Pertsona ona dela adierazi nahi du.

Jesus? Izena daukak bakarrik ona: Pertsona ona ez izanik izen hori merezi ez duenari esan ohi zaio.

Jesusen denporakua izan: Antzinakoa, aspaldikoa. *Bai, neuk ere len euskera gehixago eitte najuan, garbixago, baiña oinguan mouan ez, e! Jesusen denporakua eitxen genduan.* Ikus **Francon denporakua izan.**

Jo ta fuego: Zerbaitetan gogor jardun. Ikus **Jo ta sua.** *Jo ta fuego ai gaittuk oiñ ere lanian, al dan azkarren amaitziarren.* Baita **Jo ta ke** ere. Ikus **Jo ta sua.**

Jo ta sua: Zerbaitetan gogor jardun. *Ta hor kriston erronerixia, frontoia betebete jente eote zan han, dantzan jo ta sua.*

Jokotik eztok praka berririk ingo: Adierazten du jokoak ez duela balio bizimodua aurrera ateratzeko. Ikus **Jokua ezta errenta, hobe da oillaxkua erreta.**

Jokua ezta errenta, hobe da oillaxkua erreta: Adierazten du jokoak ez duela balio bizimodua aurrera ateratzeko. Ikus **Jokotik eztok praka berririk ingo.**

Jota eon (geldittu): 1. Ikus **Burutik jota. 2.** Lur jota, hauts eginda: *Jota geldittu nok entzun doten berrixakin.*

Juandako urak, indarrik ez: Behin gauzak paseak direnean ezer egitea alferrik dela esan nahi du.

Juiziua galdu: Zoratu. Ikus **Burua galdu.**

Kajatik ekarri: Ume bat umezurztegitik ekarri. *Kajatik ekarritako umia dok hori.*

Kaka burutik behera eiñ: Norbaiti nahi duen gutzia egiten utzi. *Ez, gero, laga umieri kaka burutik behera eitxen!*

Kakatarra bialdu: Norbait antzarrak ferratzera bidali. Ikus **Atzetik hartzera bialdu.**

Kale eiñ: Huts egin.

Kale gorrixan geratu: Langabezian geratu, enfatikoa. *Tallarra itxi juek, eta kale gorrixan geatu nok.*

Kandelarixo bero, negua gero¹¹: Kandelariotan bero egiten badu, negua oraindik amaitu ez den seinale.

Kandelarixoz eurixa, laster udaberrixa: Kandelariotan euria egiten badu, negua laster amaituko den seinale.

Kanpolarrosa, etxekardo: Etxekoei baino gehiago kanpokoei ondo egin ezinik dabiltzanei esan ohi zaie. Ikus **Kanpolarrosia izan** eta **Kanpuan uso, etxean otso**.

Kanpolarrosia izan: Etxekoei baino gehiago kanpokoei ondo egin ezinik dabiltzanei esan ohi zaie. *Hori kanpolarrosia dok, gero, e!* Baita hau ere: **Kanpo eder, etxe(ra) kalte**.

Kanpuan uso, etxian otso: Kanpokoan aurrean ezteki eta etxekoan aurrean zital portatzen denagatik esaten da. Berdintsua da hau: **Kanpolarrosia izan**.

Kara-i-kruz bota: Txanpon bat airera bota, zozketa egiteko. **Leon-kastillo bota** ere erabiltzen da.

[karakola] **A ze paria, karakola ta baria**: Bi pertsona oso antzekoak direla adierazten du.

Kargu hartu: 1. Bere buruari: Bere burua zaindu. Baita **Kargu eñ** ere. **2. Besteren bateri**: Azalpenak eskatu.

Karteria arindu: Diru asko gastatu. *Alabia ezkondu jakok, eta uste juat karteria ondo arindu jakola*.

Kate motzian lotu: Askatasun gutxi utzi norbaiti. *Kate motzian lotu jok andriak Patxi*.

Kazuak zartainiari, ipurbeltz: Berdintsuak diren bi lagunek hala erantzuten diote elkarri besteak zerbait leporatzen dionean. Baita hau ere: **Zozuak beliari, ipurbeltz**.

Kedarrria baiño xurraua izan: Dirua gastatzea maite ez dutenei esaten zaie.

Keia dabillen lekuan, sua gertu: Zurrumurruren bat baldin badabil, zerbait gertatu delako seinale dela adierazten du.

Keiana eñ: Kearena egin: joan eta ez itzuli. *Hi, Patxik oiñ ere keiana eñ jok!*

¹¹ Kandelarixo eguna: otsailaren 2a.

Kinta bat izan: Urte berekoak izan. **Kinta batekuak izan** ere bai. *Kinta bat zitzuan zaharrao harek.*

Kitto: ... eta kitto!: Gauza bati amaiera behin betikoa emateko esaten da. *Ai dittuk pixkat ihartzen, eta ihartze'ianian, danak jaurtiko jaittuat, eta kitto!*

Kokoteraño eon: Norbaitekin edo zerbaitekin gogaituta egon.

Kolorerik ez eon: Diferentzia handia egon bi gauzaren edo bi lagunen artean. **Etxaok kolorerikan!** *Etxaok kolorerikan: lengo Gallastegi tta, askoz hobiak zittuazen.*

Kolpe zorririk ez jo: Batere lanik ez egin. *Etzoek egun guztian kolpe zorririk jo, alper horrek! Kolperik ez jo* ere bai.

Konparazio baterako: Adibidez, esate baterako.

Kontu jo: Kontu egin. *Zuk kontu jo bi'ozu Elgoibarren euskeria basarritxik datorrela.*

Kontra(n) eon: Ondo-ondoan egon. **Kontra-kontran eon** ere bai. *Orratzari pixkat eraitte'iot. Kontra-kontran daure alkarrekin Radio Popularra eta Radio Euskadi.*

Koplarik ez: Txorakeriekin eta aitzakiekin ez etortzeko adierazten du. Baita hau ere: **Koplekin ez etorri!**

Kotxe zaharrak, aberixa asko: Adinaren ajeak etortzen zaizkigunean erabiltzen da.

Kukua kantuan. Poltxikuan dirurik?: Esaerak dioenez, kukuaren kantua urtean estrainekoz entzuten denean poltsikoan dirurik badugu, ez dugu urte guztian faltako.

Kukuak jo (baten bateri): Zorte ona izan.

Kukuak oker jo (baten bateri): Gauzak gaizki atera zaizkio (norbaiti), zorte txarra izan du.

Kukua(re)n markia tapau: Kukuaren marka ondu: kukuak aldi bakoitzeko kume bat hazten duenez, ume bakarra daukatenei esan ohi zaie horrela. *Pozik habill euki duan umiakin, baiña oindiok eztok kukuana markia tapau, e!* Ume bat daukanak ere honela esan ohi du: *Nik, kukuana (egin juat).*

Kukuari begira eon: Probetxuzko ezer egin gabe, gora begira egon. Ikus **Potrojorran eon** eta **Tripajorran eon.**

Lagun onakin, desgraziak hobeto eruate'ittuk: Adiskidetasunaren onurak adierazten ditu.

Lanak eman: Normalean ezezkoan, bakean uzteko eskatzen denean esan ohi da: **Lanik ez eman!** *Ez'idak lanik eman! Laga bakian! Dakatenakin len jakat nahikua ta!*

Lan-trukez (afaldu, bazkaldu): Lana egitearen truke jan. Baita **Tripa-truke** ere.

Lapur bilddurri(k) pe eon: Norbaitek diru guztia gastatu duenean (jokoan edo juergan), etxera "lapur beldurrik gabe" doala esan ohi zaio, poltsikoak hustuak ditu eta.

Lapurrak lapurrari bilddur: Lapurrak uste du besteak bera bezalakoak direla.

Larre motzian ohittu: Gutzirekin moldatzera ohituak direnengatik esaten da. *Hori gaztetan larre motzian ohittuta dagok, eta langille fiña dok!*

Larri ibili: "Egingo nuke baietz". –*Ba(d)ator ekaitza. –Bai, larri ibilli!*

Leher einda eon: Oso nekatuta egon.

Leku edarrian laga: Norbaitek beste norbait lotsagarri uzten duenean esaten da. **Lotsagarri laga** eta **nabarmen laga** ere bai.

Lekuan-lekuan malua (maloa) eta gurian zakarramelua (are handiagoa): Toki guztietan daude hutsak eta akatsak.

Lekutan eon: Urruti egon, denboran nahiz distantzian. *Eske, pentsau, Melillara-raiño jun in biha da, e! Lekutan dao haura!*

Lepo(raiño) bete: 1. Lekuren bat gainezka egon. *Lepo bete zuan gure tabernia Gabonzar eunian.* **2.** Baita, jaterakoan, asko bete ere.

Lepua eiñ: Edozer jokatu. *Lepua eingo neuke baietz Realak irabazi.* Baita *lepoa* hitza erabili gabe ere: **Eingo neuke...**

Libre harrapau: Libre egokitu. *Libre harrapatzen bagendun (...) gero jolasian eitxeko hemen, gauza bat edarra gendukan: errekia.*

Lotsagabientzat da mundua: Adierazten du aurrera egiten dutenentzat dela mundua.

Lumatu beko txorikumia izan: Zerbaitetarako gazteegiak direnengatik esan ohi da.

[luze] Garizumia baiño luziaua izan: Oso luzea (altua) den pertsonari esan ohi zaio.

Makilla-saldia eman: Egurtua eman. *Makilla-saldia eman dio aittak semiari.*

Makillia baiño iharraua izan: Pertsona oso argala izan.

Mandua akabatzeko moduko usaiña izan: Usain oso txarra izan.

Markarik onena, edurrian: Kirol kontuetan-eta norbere merituei garrantzia kentzeko esan ohi da. –*Oinguan ere haundixa egin dok Karakateko ixoeria irabazitta!* –*Bai, zera! Nik ere markarik onena, edurrian!*

Markia izan: Handia izan. Enfatikoa. *Hau dok markia, hau! Gaur ere, dana alde eukitta, galdu ein bihar!* **Haundixa izan** ere berdintsu erabiltzen da.

Mela-mela eiñ: Blai egin, guztiz busti.

Mendaro, motxailen herrixa: Hala esan ohi da herri honetaz garai batean ijito-erkidego bat han finkatu zenetik.

Mendarotarrak, motxailak: Hala esan ohi da herri honetaz garai batean ijito-erkidego bat han finkatu zenetik.

Mesedez eta faborez!: *Mesedez*-en aldaera enfatikoa.

Minia izan: Mauka izan. *Ikusi dok zelako edarki eitte'ittuan gauzak? Joe, hau minia dok!*

Miñ gorrixak pasau: Min handiak pasatu. *Baiña nik pasau ditxut hamendik zihar bueno... Gorrixak miñak! Miñ haundixak!*

Modu onian (erosi, saldu): Merke eta egoera onean. *Eta holakotxe kotxe bat konsegidu zaban honek Freirek, kotxe berrixa. Eta modu onian.*

Mozolua bahitz, egunez kantauko heuke: Norbait aldrebesa dela adierazteko erabiltzen da. *Aldrebesa haiz benetan: mozolua bahitz, egunez kantauko heuke!*

Mundua eiñ: Zerbait handia egin. *Len bai horrek, faran, faran, faran. Len. Urkiolara juaten bagiñan, mundua ein gendualakuan. San Antoniora juan, da... uff!*

Mutilletan eiñ: Mutilletan, mutilekin ibiltzera joan. Ikus **Neskatan eiñ**.

Nabarmen geratu: Lotsagarri gelditu. *Nabarmen geratu zan hankasartze horrekin.*

[nagusi] Bi nagusiren txakurra, gosiak hill: Biren edo askoren artean zerbait izateak atarramentu onik ez dakarrela adierazten du. **Nagusi askoren astua, gosiak hill.**

Nahaste-borraste: Nahaspila.

Nahikua euki: Nahikoa lan izan. *Nahikua jakak horrek beriak in, eta laga'ik bakian!*

Nahiko lan izan/euki: Zaila izan, lanak eman. *Libratzen bahaiz nahiko lan izango'ok. Bestela, tiroen bat ero hartuko dok eta". / Zela ferixa haundixak dian horrek, eta zela karabanak dauren, zaturako alleatzen nahikua lan daukat. Holaxe dia kontuak. Ikus Nahikua euki.*

Narruak tapau: Jantzi. *Len hamabi ume, ta eztakitt zela narruak tapatzen zittuen!*

Narrutik ordaindu: Garesti ordaindu. *Narrutik ordaindu bihako dok atrebentzixa hori!*

Narrutu (baten bat): Norbaitez bereak eta bi esan. *Mikel narrutu biha juau oiñ, jun dok etxera eta.*

Natibitate, ase ta bete; San Estebantxo, len bezela lantxo (/len eratxo):
Abenduaren 25a da Natibitate eguna, ondo bidean janariz eta edariz lepo betetzekoa; hurrengo eguna, ordea, San Esteban eguna, normaltasunera (eta lanera) itzultzekoa zen, eta esaera hau erabiltzen da egun horretan.

Neskatan eiñ: Neskatan, neskekin ibiltzera joan. Ikus **Mutilletan eiñ.**

Neuk al dakitt?: Auskalo! –Barren *aldizkarixa ere hartuko dozue, ez? Noiz alleatze jatzue? Berandu, ezta? –Bai, neuk ere al dakitx?*

Nolabaitten ibili: Onartzeko moduan, gaizki ez. *Oin behintzat nolabaitten gabiz, lengo aldian. Ikus Hainbestian ibili.*

Nolako egurra, halako ezpala: Seme-alabak gurasoen antzekoak direnean esan ohi da.

Nolako Maritxo, halako Perutxo: Elkarrekin dabiltzanak, elkarren antzekoak izan ohi direla adierazten du.

Odolostiak ordaiñetan: Zerbait ematen digunari esan ohi zaio, oparia estimatzeko, guk ere garaia iristen denean, gauza bera egingo dugula aginduz bezala.

Ogi gogorrari, hagiña zorrotz: Dagoenarekin konformatu behar dela adierazteko erabiltzen da.

Oillua bezela erretirau, oillarra bezela jaikitze: Goiz erretiratu, goizean goiz esnatzeko. **Gabian goiz erretirau, eta goizian txorixekin batera jaiki.**

Oiñezkorik nahi ez, eta zaldizkorik etorri ez: Andregai edo senargai onenaren bila aritu eta gero, inor aurkitzen ez duenari esan ohi zaio. Ikus **On billa, on billa, bonbilla!**

Ojo (euki)!: Kontuz ibili.

[oker] **Akerran adarrak baiño okerraua izan:** Pertsona okerrengatik, gaiztoengatik esan ohi da. Ikus **Are-makillia baiño okerraua izan.**

[oker] **Are-makillia baiño okerraua izan:** Sororako areak duen makila okerra da. Ikus **Akerran adarrak baiño okerraua izan.**

[oker] **Ezta altare batian ipintzeko modukua:** Zintzoak ez diren pertsonengatik esan ohi da.

[oker] **Ezeren okerrik ezpada...:** Zerbait eragotziko duenik gertatzen ez bada... *Han izango gaittuk, ezeren okerrik ezpada.*

[oker] **Inpernuko diabrua baiño okerragua (gaiztuagua) izan:** Oso gaiztoa izan. Baita **Inpernuak ere etxok hartuko!**

On biharrez: Ikus **Hobe biharrez.**

On billa, on billa, (azkenian) bonbilla: Andregai edo senargai onenaren bila aritu eta gero, inor aurkitzen ez duenari esan ohi zaio. Ikus **Oiñezkorik nahi ez, eta zaldizkorik etorri ez.**

On hutsa, on hutsa, kaka hutsa: On hutsa denak ez du txarra izateko gonorarik.

Ondo e(g)iñ (baten bateri): Pertsona bat ondo tratatu.

Ondo e(g)iñan pagua, ate ostian palua!: Ondo egiten duenak ordain edo estimazio egokia jasotzen ez duenean erabiltzen da.

Ondo eitteko ezta sekula berandu.

Ondo eta azkar, usuak hegan: Gauzak, ondo egitekotan, patxadaz egin behar direla adierazteko erabiltzen da. *–Etxuat ikusi gizonik –esate jua guriak, Vallejogatik– haiñ ondo ta haiñ azkar eitten daban gizonik... Ondo ta azkar. Haretzek eitte jua hori. –Usuak hegan bezela, orduan!*

Ondo etorri: Ondo konpondu. *Andra-gizonak igual ondo etortzen ez tiranak ero, pixkat gizona tosko samarra dana ta euren arteko kasuak daukazenak.*

Ondo goguan euki: Ondo gogoratu. *Traje beltza eruan naban, ondo goguan daukat traje beltza.*

Ondo lo, ondo jan, ondo kaka eiñ, ehun urte biziko haiz, Martin: Luza-roan bizi izateko modua adierazten duen formula.

Onenak emanda eon: Zerbaiten edo norbaiten garai onenak paseak direnean esan ohi da.

Onetik erten (etara): Aldarte onetik irten/irtenarazi. **Norberan onetik erten.** *Nere onetik erten eraiñ ditt.*

Osasuna, munduko ondasuna: Gauzarik preziatuena osasuna dela adierazten du.

Osasunakin hautsi!: Zerbait berria estreinatzerakoan erabiltzen den formula. **Urratu** aditzarekin ere bai.

Oso-osua ez izan: Buruz betea ez izan. Ikus **Bete-betia ez izan.**

Otsua aittatu, eta otsua agertu: Norbaiti buruz (gaizki esaka-edo) ari garela hura bat-batean agertzen zaigunean erabiltzen da.

Otsuak eztau negua jaten: Negua, lehenago edo geroago, etorriko dela adierazteko.

Otsuari ere ez opa (gauza bat): Etsaiei ere opa ez diogun ezbehar handiengatik esaten da.

[otxokuarto] –Bai. –**Ze bai ta ze otxokuarto!:** Besteen arrazoiak gogorki ukatzeko erabiltzen da.

Pagotxa izan: Mauka izan. *Hori dok pagotxa, hori, daukaguna alabiakin! Beti prest daok laguntzeko!*

Papeladia eiñ: Imintzioak egin. Ikus **Plantak eiñ.**

Parran geratu gaittuk: Joko edo negozioren batean, ez galtzen ez irabazten atera.

Parrokuari etxako hori gertauko!: Parrokoak egiten ez duen eginkizunen bat aipatzean (adibidez, platerak garbitzean haietako bat puskatzen denean) erabili ohi da, aditzera emateko ari denari bakarrik gertatzen zaizkiola ezbeharrak.

Parte batera: Alde batetik. [*Retegi II*] *Elegantia zan eta zittala zan, e! Ez zitzaten gustatzen parte batera, baiña ona bai.*

[**pasau**] **Hoixe ezta pasauko!:** Ez du hutsik egingo. –*Ferixara ze jute zera, hillero-hillero? –Bai. Hoixe ezta pasauko [hara joan gabe]!*

Pattal eon: Ondoezik egon.

Perra-hotsa atara: Korrika batean ihesi joan. *Keixak harrapatzen ai zala basarritarra etorri dok; harek atara jok perra-hotsa!*

Pezetia(g)atik durorik ez: Inork ez du ematen ezer balio duena baino gutxiagotatik.

Pikutara bialdu: Antzarak ferratzera bidali. Ikus **Atzetik hartzera bialdu**.

Pipar eiñ: Huts egin, eskolan normalean.

Piparra baiño gorrixao (jarri): Aurpegia gorritu, lotsatuta.

Piparrik ez jakin (entendidu): Ezer ez jakin (ulertu).

Pitzatua euki (buruan): Burutik sano ez egon. **Zartadia euki** ere bai.

Plaentxin zapuak zikin; Maltzaan katuak dantzan; Elgoibarren astuak goen eta barren; txakur zarrak Eibarren, itxurak egin arren; Bergaran xaguak ganbaran; Deban oilluak txixa egin zeban; Mendaron azarixak giro on.

Plantak eiñ: Itxurak egin. Ikus **Papeladia eiñ**.

Plaza-gizona izan: Jende aurrerako balio dutenengatik esan ohi da, jendaur-rean hazi egiten direnengatik (bertsolari, aurkezle...).

[**pobre**] **Hiru gauza alperrik galtze'ianak: urrutiko egurra, zorua(re)n indarra eta pobria(re)n arrazoa:** Hiru gauza horiek ez dira aprobeztatzen edo aintzat hartzen.

Pobriak beti orpuan arantzia: Gazt. “Pobreza nunca alza cabeza”.

Pobriari, burutik behera kaka: Gazt. “Al rico oro, al pobre cobre”.

Popatik hartzera bialdu: Antzarak ferratzera bidali. *Jun hari popatik hartzera! Trabia besterik eztok eitten eta!* Ikus **Atzetik hartzera bialdu** eta **Pikutara bialdu**.

Porrua sartu: Zirria sartu.

Potia pote, nahiz pipar da nahiz tomate: Opari ematen digutenari ez diogula akatsik atera behar adierazten du.

Potrojorran eon: Probetxuzko ezer egin gabe, gora begira egon. Ikus **Kukuarri be(g)ira eon.**

Potrozorrixa izan: Ziria sartzen ibiltzen denagatik esan ohi da. *Hau dok pertsonia potrozorrixa!*

Pott eñ: Erabat nekatu.

Prailian dozenia, hamahiru: Fraileak eskean ibiltzen direlako esan ohi da.

Praketan sartu eziñik ibili (eon): Harro-harro ibili (egon).

Presia eittia alperrik dok, behiñ ura juan da gero: Bere garaian egin behar ziren gauzak beranduegi egitea alferrik dela adierazten du.

Putsak etara: Neke handia hartu, lanen bat egiten edo.

[rogatiba] **Ni enixe roгатibak eittera, zuentzako eurixa eitten badau nereztzako ere eingo dau ta:** San Migel bailarako baserritar batek hala erantzun omen zion beste bati elizara, euria egin dezan roгатibak egitera, laguntzeko eskatu zionean.

Sagar ustelak ondoko danak usteldu: Pertsona gaiztoek ere ingurukoengan eragina izaten dutela adierazteko erabiltzen da.

Sake ona euki: Oso jatuna izan. **Sakia euki** ere bai. Pilota jokoarekin egiten da konparazioa sarritan: *Retegik daukala sakia? Bai, zera! Hori eztok ezer nere gizonak daukan sakian aldian!*

Saltsa guztietan ibili: Kontu askotan sartuta ibiltzen denagatik esan ohi da. *Saltsa guztietan sartuta ibiltzen dok gure semia! Eztok, ez, geldik eotekua!* Antzeko hau ere erabiltzen da: **Saltsa guztietako perejilla dok hori.**

Saltzeko ez euki: Norbait estimazio oso onean eduki. *Gure alabak eztauka anai txikixa saltzeko!*

San Bartolomiak ezkeru, eulixak ipurdiz gora¹²: San Bartolome jaietatik aurrera giroa freskatzen hasten dela adierazten du. Antzeko hau ere bai: **San Bartolomiak ezkeru, eulixak burua behera eta ipurdixa gora.** Ikus **San Bartolomiak ezkeru, muiño txikixak itzal haundixa.**

¹² San Bartolome eguna: abuztuaren 24a.

San Bartolomeak ezker, muño txikixak itzal haundixa: San Bartolomeetatik aurrera eguzkia jaisten hasten dela adierazten du.

San Bartolomeak ezker, muñondua beltz: San Bartolomeetatik aurrera hozta eta euria hasten dela adierazteko erabiltzen da.

San Bizente hotza, neguaren bihotza¹³: Neguaren erdian dago San Bizente eguna, eta egun horretan hotz egiten badu oraindik negua izango dugula adierazten du.

San Blas bero, negua gero¹⁴: San Blas egunean bero egiten badu, negua oraindik amaitu ez den seinale.

[San Juan] Egunik luzena, San Juanena: Ekainaren 24a urteko egunik luzena dela adierazten du.

[San Juan] Gaur da San Juan, bixar «juan zan»: Hitz-jokoa: berdin ahoskatzten dira Elgoibarren “San” eta “zan”, eta alderantziz ematen dira bi hitz horiek.

San Juan, jan-edanak juan: Hitz-jokoa, jaiak amaitzen direnean jan-edanak amaitzen direla adierazteko.

San Juan, San Juan, nekez etorri ta azkar juan: Jai-egunak lan-egunak baino azkarrago joaten direla adierazten du.

San Rokiak ezker, lurra beltz¹⁵: Abuztuaren erditik aurrera, euria eta intza direla eta, lurra busti eta gaua luzatu egiten da.

Santa Luzia, eguna motxa eta gaba luzia¹⁶: Santa Luzia egun laburra dela adierazten duen hitz-jokoa.

Santo Tomas eguna, argittu orduko illuna: Urteko egunik laburrena dela adierazten du (abenduaren 21ean ospatzen da Santo Tomas eguna).

Santu ez eon: Ondo ez egon; ondoezik egon. Sarritan, errepikatuta ere bai: *Ez nago santu-santu*. **Katoliko ez eon** ere bai, antzeko esanahia duela.

Santua ez izan: Fidatzeko pertsona ez izan. Errepikatuta ere bai askotan: *Ez tok santu-santua*.

¹³ San Bizente eguna: urtarrilaren 22a.

¹⁴ San Blas eguna: otsailaren 3a.

¹⁵ San Roke eguna: abuztuaren 16a.

¹⁶ Santa Luzia eguna: abenduaren 13a.

Sasixak belarrixak daukaz: Kontuz ibili behar dugula adierazten du, gutxien espero den tokian norbait zelatan egon daitekeela, esaten ari garena entzuten.

Sasoian keixak!: Gauza bakoitzak bere sasoia, garaia duela esateko erabiltzen da. —*Zeinek bota juan bertso berde hori?—Mendaroko gazte batek. —Sasoian keixak!* (Angiozarko itsuak galdetu zuen behin bertsolariatz eta horrelaxe erantzun zuen amaieran, larogei urteko gizon batek ezin zuela horrelako bertsoa bota adierazi nahian).

Sobra haundirik ez euki: Juxtu samar iritsi zerbait jakitera. —*Bai, hori eztaixen kaletar asko dao, e!*—*Honek ere sobra haundirik eztaika.*

Soroko zokorra baiño sikuaua izan: Dirua gastatzea batere maite ez dutenengatik esan ohi da.

Sorrari olixua eixok: Hitz-jokoa: Sor edo sorgor dagoen gurpilari olioia egiten zaio, eta hitz hori bezalaxe ahoskatzen da norbaitekiko dirutan edo bete-beharretan dugun zorra ere. Zorrak lasai eta umorez hartu behar direla esan nahi du. Norbaitek *zor* hitza aipatzen digunean, honela erantzun dakiok: **Sorra? Olixua eixok!**

Sua ta ura, belaunetik behera: Sua eta ura belaunetatik gora izatea arrisku-tua dela adierazteko erabiltzen da.

Suarekin ez ibili, bestela ohian txixa eingo dozu: Umeei esan ohi zaie.

Suarekin jolasa, arrisku demasa: Umeei esan ohi zaie, arrisku horretatik babesteko.

Sututa ibili: Bere onetik irtenda, oso berotuta. *Sututa jabik Patxi: etxakok ezer ondo ataratzen.*

Takian-potian: Sarritan, noiznahi. *Estartaneko tallarra ere, berak militarizau zaban, eta gero, Bilbora ta, Donostiara ta, takian-potian juan biharra izate zaban. Mutill fiña bera.*

Tapari(k) peko lapikua sarrittan gaizki: Erdipurdiko gauzekin ez da ondo ibiltzen.

Telari(k) peko guardasolak baiño okela gitxiao euki: Oso argalak direnengatik esaten da.

[tokau] **Bai tokau ere!:** Ez zuen gutxi uste! Kasualitate baten aurrean egokitzen garenean esan ohi da.

Toki edarrera etorri: *Harek pentsau zaban ni haren danen artian bilddurtu ingo nitzala, baiña toki edarrera etorri zan!*

Toma eiñ: Uko egin. “*Ni honekin enajiek*”. *Toma [egin zuen] Jesus Agarrek!*

Tontua izeteko eztao estudixau biharrik: Lanik ez duela eskatzen adierazten du.

Trabarik ez eiñ: Nonbaitera joan ez. *Pelotia asko gustatze jata, baiña frontoietan eztiot iñori traba askorik eitten.*

Tripajorran eon: Ikus **Kukuari begira eon.**

Tripak jaten eon: Asko sufritzen egon, urduri egon, gauza bat burutik kendu gabe darabilgula.

Tripazorrixa eiñ: Gosetu egin garella adierazten du. **Tripazorrixak euki, Tripazorrixak dantzan hasi** ere bai.

Tripetatik ibili: Tripak nahastuta edo beherakoarekin ibili.

Tutik ere ez (entendidu): Ezer ez ulertu. *Eurek euskeraz entenditzen dabe, eta aittak eta amak tutik ere ez.*

Txahala eiñ: Igart. Oka egin. *Gehixegi edan najuan bart, eta atzenian txahala ein najuan etxian.*

Txahalan moduan jausi: Kolpetik erori. *Jo zaban kañabera ezkiñiak emakumia, eta ni txahala moruan lurrera!*

[txakur] Bi nagusiren txakurra, gosiak hill: Askoren artean zerbait eduki-
tzeak atarramentu onik ez dakarrela adierazteko erabiltzen da.

[txakur] Deittu'iak txakurra, baiña ema'iak ogixa: Alegia, berdin zaidala zer gaiztakeria esaten duten nigatik (zerbait okerra egin dut-eta), baina nirearekin irten naizela ni.

[txakur] –Etxe bakoitzetik txakur bat nahikua dok, e! –Lenengotik zaharra akabau bihako da, ba!: Putetxe batean topo egin zutenean, aita batek semeari esan eta semeak erantzun omen ziona.

Txakur gaixuari arkakoso danak pegau: Gizagaixoari kalte guztiak etortzen zaizkiola adierazten du.

Txakur gosiak, ogixa amets: Zer falta, huraxe nahi.

Txakur haundi baten pupua eta hamar pezetako trapua: Ezbehar txiki bat dela eta, kexaka eta kexaka aritzen denaz esaten da.

Txakur txikixa eman, gero txakur haundixa hartzekotan: Zerbait ematen dizunak zerbait (handiagoa) eskatuko dizula adierazten du.

Txakur txikixa aurreratzen dabanak al dabanian, eukiko dau txakur haundixa bihar dabanian: Aurrezteak dakartzan onurak ditu hizpide.

Txakur txikixa billatzeko, txakur haundiko kandelia gastau: Gauza txiki bat irabazi nahiagatik asko gastatu duenari esaten zaio; zikoiztasunak onik ez dakarrela.

Txakurra eta katua bezela ibili: Ondo ez konpondu, beti liskarretan ibili.

Txakurrak ere ezautu (baten bat): Oso ezaguna izan. *Eztao Elgoibarren haurra ezautzen eztaban txakurrik!*

Txakurrak hankautsik han ere: Gauza txarrak edo okerrak leku guztietan gertatzen direla adierazten du.

Txakurran bioliña (flautia, putza...): Zerbait entzun ondoren hura zakarki ukatuz erantzun ohi dena. —*Gaur hiri tokatzen jak fregaua eittia. —Txakurran bioliña!*

Txakurranak esan: Sekulakoak esan.

Txakurrari ere ez opa (gauza bat): Etsaiei ere opa ez diogun ezbehar bat adierazteko erabiltzen da.

Txapel batekin ezin bi buru tapau: Bi lekutan aldi berean ezin dela egon adierazten du. Bata hau ere: **Ipurdi batekin bi silla ezin bete.**

Txapel haundixa eta bururik ez: Txapel handienak ere ezin omen du buru hutsa estali.

[txarri] **Ezkondutako urtia eta txarrixa hildako astia, onenak:** Garai eztiak eta oparoak adierazteko erabiltzen da.

Txarri eiñ: Erabat zikindu. *Holako lokatzia. Sartu hanka bat, eta jota erropak eta dana txarri einda. Bua!*

Txarri-kortia bezela euki (lekuren bat): Leku edo gauzaren bat zikin eta nahasi daukagunean ere erabiltzen da. *Autua txarri-kortia bat bezela daukat: laster garbittu biharko dot.*

Txatxaria (izan, euki, ibili...): Ganora. *Hori dok, hori, txatxaria! Euerdixa da, ta oindik ohetik jaiki be!*

Txikixak, oiñetako takoi luziak: Handi itxura egin nahi duenagatik esaten da.

Tximistia baiño azkarrao: Oso azkar.

Txinparta txikixak su haundixa ixutzen: Okerra izateko ez dela gauza asko behar adierazten du.

Txinpartak ataritzen ibili (eon): Oso berotuta ibili (egon). *Txinpartak ataritzen jabik Miren, eta ez hari urreratu.*

Txitiak beste jan: Oso gutxi jan, oso mizkina izan.

Txitiak txixa eitterako (zeoze gertau): Zerbait egitea ezinezkoa dela adierazten du. *Txitiak txixa eitterako amaituko juek obra hori* (adierazi nahiz ez dutela sekula amaituko). Baita **Oilluak txixa eitterako** ere.

Txomin(txo) etorri: Logurea etorri, haurren hizkeran. Ikus **Asto zurixa allegau**.

Txorixa baiño ariñaua izan: Pertsona oso arina izan.

Txorixak akabatzeko moduko berua eiñ: Izugarritzko beroa egin.

Txorixak baiño buru gitxiao euki: Buru arinengatik esan ohi da.

Txorro, morro, piku, kallu, ke: Txorromorroka (astoka) jolasean jauzilariak esaten dituen hitzak.

Txorrozkillerua agertu, eurixa seguru: Garai batean, Galiziatik (euria bezala) etortzen ziren labanak eta guraizeak zorroztera. Baita **Zorrotzaillia datorrenian, eurixa**.

Txortan eiñ: Larrutan egin, larrua jo, lagunarteko hizkeran.

Txotxoluak, txotxolokerixak: Txotxoloengandik bestelakorik ez dela espero adierazten du.

Uda bero, negua gero: Uda beroa izaten badugu, behar bezalako negua izango dugula adierazten du.

Udaberriko loria, urria baiño hobia: Udaberriaren etorrera biziki estimatzen dela adierazten du.

Udia, bera jakia ta gonía: Eguraldi beroa bera dela jantzia adierazten du, ez dela beste jantzirik behar, alegia.

Ufalak darua gizona, mingaiñ gaiztuak izen ona: Mihi gaiztoek egin lezaketen kalteez ari da.

Ufaletan, eskalluak: Zenbaitek nahasmenduetan negozio onak egiten dituztela adierazten du.

Ume batek baiño pena haundixaua hartu: Pena handia hartu. *Hamendikan bajatzia kostau eitte jata ta... baiña oin morala asko zertu jata, galdu ein jata, eta len aiña pena ez. Len hara jun bihar ero hona etorri bihar ero ta, ume batek baiño pena haundixaua hartzen naban nik. Ze pena!*

Umiak hazi ta nekiak bizi: Haurrak dituztenek izaten duten bizimodu neko-soa adierazten du.

Umia enkargau: Haurdun egon (geratu). *Ba al dakizu Mirenek umia enkargau dabala?*

Umiak umiari, begi argi: Umeak umeengana inguratzen dira, elkarrekin jolastera.

Umiak, beti ume: Umeak leku guztietan direla ume adierazten du, gauza berstuak egiten dituztela. Baita hauek ere: **Umiak, ume (Kontxintxinan / Inglaterran / Madriden... ere).**

Umiak, umekerixak: Umeek eurei dagokiena egiten dutela adierazten du.

Ura ta sua, belaunetik behera: Behin bi horiek belaunetik gora hasiz gero, arrisku handia dagoela ematen du aditzera.

Ura geldirik, errota geldirik: Ur-mugimendurik gabe errotarik ez dela mugitzen adierazten du.

Ura, zapaburuentzako ona: Ardozaleek esan ohi dute, norbaitek ura edateko esaten dienean.

Urak eduki (baten batenak): Antza izan. *Aittan urak daukaz semiak.*

Urria baiño fiñaua izan: Pertsona oso fina izan. Ikus **Berakatzia baiño fiñaua izan.**

Urrutiko intxaurrak betiak, gertura juandakuan hutsak: Alegia, kanpokoia ez daukagula beti arrazoirik gabe miresten ibili beharrik. Ikus **Urrutiko intxaurrak hamalau, gertura juandakuan lau.**

Urrutiko intxaurreak hamalau, gertura juandakuan lau: Ikus **Urrutiko intxaurreak betiak, gertura juandakuan hutsak.**

Urte berri eguna, eztala egun txarra, kortara jausi dala gure sapaia zarra; daukanak eztaukanari, nik eztaukat eta neri, kantaretan bat, kantaretan bi, ekazu agiñaldo Jangoikuagatik; agiñaldo agiñaldo, bota gaziñak eta ixilduko: Gabonetan kantatzen zen Elgoibarren.

Urte euritsu, urte garitsu: Euri ugari egindako urtea oparoa izaten dela ematen du aditzera.

Urriak eztatuz bueltan: Denbora aurrera doala, ezin gabela iraganera itzuli adierazten du. *Beste zer bat izengo litzake [gaur egun 18 urte izanez gero]. Buenooo! Akordauta ere! Harek [urteak] bueltan eztatuz ta. Harek badixez aurrera.*

Urriak eztia alperrik pasatzen: Denboraren joanak bere ondorioak ekartzen dituela ematen du aditzera. *Harek [medikuak] esan jaan: “Urriak eztittuk, ba, alperrik pasatzen. Hori beti euki goguan”.* Ikus **Urriak eztebe barkatzen.**

Urriak eztebe barkatzen: Denboraren joanak bere ondorioak ekartzen dituela ematen du aditzera. *Urriak eztebe barkatzen: beti zeoze.* Ikus **Urriak eztia alperrik pasatzen.**

Usaiña hartu (zeozerena): Zerbaiten errezeloa izan.

[uste izan] **Ez izan eta bai uste, “mierda para usté(d)”!**: Itxurakerietan ibiltzen denari esan izan zaion zakarkeria.

[uste izan] **Ez uste arren, katua xaguak itto Eibarren:** Etsai txikirik ez dagoela adierazten du.

Zahar: Aditz-partizipioa aurretik duela, eta ezezko forman, zerbait berriki egin dela adierazteko: **Jan zaharra, etorri zaharra...** *Jan zaharra enok, eta ez'iak eman ezer merixendatzeko.*

[zahar] **Gaztiak gora eta zaharrak behera:** Bizitzaren legea azaltzen du: gazteak haziz doaz, eta zaharrak, berriz, makurtuz.

Zaharrao, txarrao: Zaharrak, gaixoago eta maltzurrago.

Zaharrak berri: Erantzun moduan erabiltzen da batez ere, berririk edo berritasunik ez dela izan adierazteko: —*Zer berri?* —*Zaharrak berri.* Aldaera luzeago hau ere erabiltzen da: **Zaharrak berri, gaztien amorragarri.**

Zahartzarua, bigarren umealdixa: Bizitzaren zirkulua itxiz, umeek eta zaharrek dituzten antzekotasunak ekartzen ditu gogora.

Zaku batian sartzeko moduan egon (bi lagun): Bi lagun edo gehiago berdintsuak direla edo berdintsu dabiltzala adierazteko erabiltzen da. *Bai, ba, bixoi esate'izuet: "Zaku baten sartzeko gaonaz bixok!"*

Zaku berian sartu, eta danak makillatu: Errugabeek ere ordaintzen dituztela errudunen kulpak eta okerrak.

Zapateruak, oiñetako zaharrak: Ikus **Errementarixan etxian zotza burrunzi.**

Zartadia euki (buruan): Burutik sano ez egon. **Pitzatua euki** ere bai.

–Zela daukazu izena? –Ipurdi gizena: Norbere izena eman nahi ez denean erabiltzen den formula.

Zela hasi, halaxe amaitsu: Ondo hasten dena ondo amaitu ohi dela adierazten du.

Zelako egurra, halako ezpala: Gurasoak nolakoak, halakoak izan ohi dira seme-alabak.

Zelako hankia, halako oiñetakua.

Zenbat erralde izan: Burla moduan esaten zaie pisu handia ez duten pertsoneri: *Zenbat erralde izango do(k) pa, txatxar haura? / Badatok hamen gure "erraldes".*

–Zer ba? –A ba!: Beste arrazoirik eman nahi ez denean erabiltzen da.

–Zer da? –“La mujer del zerdo”!: Zer den esan nahi ez dugunean erabiltzen den hitz-jokoa.

–Ze ein bi'ozue? –Txistua jo ta dantzan: Zer egin behar dugun esan nahi ez dugunean erabiltzen den formula.

Ze entzun, hauraxe eiñ: Umeekin erabiltzen da batez ere, entzuten dutena egiten dutela adierazteko. *Umiena holaxe da, ze entzun, hauraxe eiñ.*

Ze ikusi, hauraxe ikasi: Umeekin erabiltzen da batez ere, ikusten dutena ikasten dutela adierazteko. *Ume honek zer ikusi hauraxe ikasten dabe.*

Ze nahi, hauraxe daukazu: Nahi duten guztia dutenengatik esaten da.

–Zeatik? –Haatik: Beste arrazoirik eman nahi ez denean erabiltzen den erantzuna.

Zerua irabazitta euki: On hutsa, pazientzia handikoa edo oso langilea denagatik esan ohi da. *Zerua irabazitta jakak horrek!*

Ziherokua ez izan: Pertsona erabat normala ez izan.

Zintzua, beti pozik: Kontzientzia txarrik ez dutela adierazten du.

Zirixa sartu: Adarra jo, engainatu. *Patxi beti jabik daneri zirixa sartu nahixan.*
Ikus **Porrua sartu.**

Zirixa moduan geratu: Oso argal geratu. *Gaixorik eon nok hillabetian, eta zirixa mouan geatu nok.*

Zopiak, kafiak eta andriak, beruak bihar dabe: Lagunartean erabiltzen den esamolde zakarra.

[zor] **Sorrari eixok olixua:** Hitz-jokoa: Sor edo sorgor dagoen gurpilari olio a egiten zaio, eta hitz hori bezalaxe ahoskatzen da norbaitekiko dirutan edo betebeharreran dugun zorra ere. Zorrak lasai eta umorez hartu behar direla esan nahi du. Baita honela ere: **Sorra? Eixok olixua!**

Zor zaharra, zor txarra: Aspalditik daukagun zorrak atarramentu onik ez dakarrela adierazten du.

Zorra pagatzen dabanak deskantsau eitten dau, baiña kobratzen dabanak gehixao.

Zorrixa baiño alperraua izan: Oso alferra izan.

Zorrixak jaten zebela bizi izan: Alferraren bizimoduagatik eta etxeagatik esan ohi da.

[zorri] **Kolpe zorririk ez jo:** Batere lanik ez egin. *Etxok egun guztian kolpe zorririk jo alper horrek!*

Zorrotzaillia datorrenian, eurixa: Garai batean, Galiziatik (euria bezala) etortzen ziren labanak eta guraizeak zorroztera. Baita hau ere: **Txorrozki-llerua agertu, eurixa seguru.**

Zotza baiño iharraua izan: Oso argala denagatik esan ohi da.

Zozuak beliari, ipurbeltz: Berdintsuak diren bi lagunek hala erantzuten diote elkarri besteak zerbait leporatzen dionean. Baita hau ere: **Kazuak zartaiñiari, ipurbeltz.**

5.1.2. KONPARAZIO BIDEZKO ESAPIDE BATZUK

Goiko zerrenda irakurri ondoren, konturatzen gara solaseko norbaiten ezaugarri bat edo egoera bat era markatuan adierazteko konparazioak erabiltzen direla sarritan. Besterik gabe, era neutroan, izenondo arrunt baten bidez, pertsona horren ezaugarri hori eman beharrean, konparazio enfatiko bat egiten da, eta hala, berebiziko indarra eta, askotan, grazia hartzen du deskribapenak: *Patxi zorria baino alferragoa da* esanez, indar handiagoa lortuko dugu *Patxi oso alferra da* esanez lortzen duguna baino.¹⁷

Hona Elgoibarren ohikoak diren zenbait konparazio:

[aldrebes] **Astuen klasera ibili, aldrebes:** Ohikoaz kanpora dabiltzanei buruz esan ohi da.

[alferra] **Buruan azka eitteko baiño ere alperraua izan:** Pertsona oso alferra izan.

[alferra] **Galbania baiño alperraua izan:** Pertsona oso alferra izan.

[alferra] **Zorrixa baiño alperraua izan:** Pertsona oso alferra izan.

[argala] **Ezpala (zotza) baiño argalaua izan:** Pertsona oso argala izan.

[argala] **Makillia baiño iharraua izan:** Pertsona oso argala izan.

[argala] **Zotza baiño iharraua izan:** Pertsona oso argala izan.

[argala] **Zirixa moduan geratu:** Pertsona oso argal geratu.

[arina] **Txorixa baiño ariñaua izan:** Pertsona oso ariña izan.

[azkar] **Tximistia baiño azkarrao (etorri):** Oso azkar (etorri).

[bakarrik] **Ardi galdua bezela ibili:** Bakarrik, lagun-koadrilarik gabe, ibili.

[beroa] **Txorixak akabatzeko moduko berua eñ:** Izugarrizko beroa egin.

[bizartsua] **Ahuntzak baiño bizar gehixao euki:** Pertsona oso bizartsua izan.

[buruarina] **Txorixak baiño buru gitxiao euki:** Pertsona buruarina izan.

¹⁷ Joxerra Garziari ez zaio arrazoirik falta (Garzia, 1998) esaten duenean esarek eta esapide eginek, hiztunen artean ondo errotuak diren heinean, “irudia lexikalizatu” den heinean, ustekabe- eta harridura-ahalmen gutxiago dutela, eta adierazgarritasunean galdu egin dutela; hala ere, eta kasu honi gagozkiola, iruditzen zait adierazgarriagoa dela horiek erabiltzea, deskribapen huts neutroa egitea baino.

- [buruhandia] Artaburua baiño buru haundixaua euki: Buruhandia izan.
- [dorpea, aldrebesa] Astua atzeruzka baiño torpiaua (aldrebesaua) izan: Pertsona oso dorpea edo aldrebesa izan.
- [egoskorra, tematia] Astua baiño temosuaua (terkuaua) izan: Pertsona oso egoskorra izan.
- [errietan ibili] Txakurra ta katua bezela ibili: Errietan ibili.
- [fina] Berakatz (berakatz atala) baiño fiñaua izan: Oso pertsona fina izan.
- [fina] Urria baiño fiñaua izan: Pertsona oso fina izan.
- [gaiztoa] Inpernuko diabrua baiño gaiztuaua izan: Oso gaiztoa izan.
- [goiz] Oillua bezela erretirau, oillarra bezela jaikitzeo: Goiz erretiratu, goizean goiz esnatzeo.
- [gorritu] Piparra baiño gorrixao (jarri): Gorritu, asko lotsatu.
- [gozatu] Astuak aza artian baiño gehixao gozau: Asko gozatu.
- [gutxi] Txitiak beste jan: Oso gutxi jan.
- [lan egin] Astuak baiño lan gehixao eñ: Lan asko (edo astuna) egin.
- [lan egin] Astuan moduan lan eñ: Lan asko (edo astuna) egin.
- [luzea] Garizumia baiño luziaua izan: Oso pertsona luzea (altua) izan.
- [motela] Baria baiño motelaua izan: Oso motela izan.
- [okerra] Akerraren adarrak baiño okerraua izan: Pertsona okerra izan.
- [okerra] Are-makillia baiño okerraua izan: Pertsona okerra izan.
- [ona] Apirilleko loria, urria baiño hobia: Negua joan eta gero, udaberria pozik hartzen dela adierazten du.
- [pena] Ume batek baiño pena haundixaua hartu: Pena handia hartu.
- [usain txarra] Mandua akabatzeko moduko usaiña: Usain oso txarra.
- [zekena] Kedarria baiño xurraua izan: Pertsona zekena izan.
- [zekena] Soroko zokorra baiño sikuaua izan: Pertsona zekena izan.
- [ziplo erori] Txahala moruan jausi: Bat-batean erori.

Arlo honetan, hiztunaren sormenak badu nahikoa leku eta aukera nahi dituen egiturak asmatzeko; era honetako konparazioak noiznahi eta nolannahi sor ditzake edozein hiztunek. Honako hauek, adibidez, gure inguruan beste inon ez ditut entzun, hango hiztun sortzaile batek asmatuak direlako eta he-datuegiak ez daudelako:

[argala] **Telarik gabeko guardasolak baiño okela gitxiago euki:** Oso argala izan. *Telarik peko guardasolak baiño okela gitxiago dauka agure horrek.*

[tontoa] **Zokor-mazua baiño tontuaua izan:** Oso tontoa izan. *Zokor-mazua baiño tontuaua dok mutill hori.*

[tontoa] **Andubio baiño tontuaua izan:** Oso tontoa izan.

[ura] **Fregaderan bakarrik ura:** *Urak bilddurra ematen ditt. Pregaderan bakarrik ura.*

5.1.3. ANIMALIAK ESAERA ETA ESAPIDEETAN

Era honetako esaera eta esapide eginetan, nabarmentzekoa iruditzen zait etxeko abereen eta bestelako animalien erabilera joria: horregatik sartu dut azpiatal berezi honetan animalien aipamenen adibide batzuk, esaerak askotan osatzen direlako animaliekin. Era metaforikoan egiten dira, batez ere, animaliekiko konparazioak. Adierazgarritasunean irabazten du gure jardunak, nik uste, halako baliabideekin.

Hona adibide batzuk:

(1510) *Azkar eta ondo, usuak hegan.*

(1511) *Txakurrari ere eztiot opa holako desgrazia bat.*

(1513) *Nere semia oso ezaguna dok: herrixan etxaok txakurrik haura ezautuko eztabanik!*

(1514) *Txakurra ta katua bezela ibiltze'ia nere seme-alabak.*

(1516) *Txarri einda amaittu dau gure mutilkoxkorrak, lokatzetan.*

(1517) *Demasekua dok hire semia, gero, e! Hori dok ixkua, hori!*

(1518) *Kontuz neska horrekin! Ganau edarra dok, ba!*

(1519) *Astapetro bat dok gizon hori.*

(1520) *A ze paria, karakola ta baria.*

(1521) *Jan-txakur asko dao basarri horretan: jende asko jateko prest, baiña basarrixan laguntzeko, gitxi.*

(1522) *Txakurra bezela bialtze juen kaletarrak basarritarra, perixa-egunetan.*

- (1523) *Kalian uso, etxian otso.*
 (1524) *Gabian uso, goizian bela.*
 (1525) *Haura don zaratia lenguan jatetxian: oillategixa emate jonan.*
 (1526) *Neska-mutil gaztiak hor jartze'ia Maalako petrillian, "uso-pasia" ikustera.*

5.1.4. ZENBAKIAK ESAERA ETA ESAPIDEETAN

Zenbakiak ere nahiko erabilera oparoa dutenez esapideetan, ataltxo bat bereizi nahi izan dut. Hona adibide batzuk:

- (1527) *Beriak eta bost esan ziozen.*
 (1528) *Bost ajola neri horrek!*
 (1529) *Lau katu juañ giñan hitzaldira.*
 (1530) *Hamaika holako ikusteko jaixuak gara!*
 (1531) *Bost xentimoko pupua eta hamar xentimoko trapua.*

5.1.5. KOLOREAK ESAERA ETA ESAPIDEETAN

Gorri eta *beltz* dira koloreetatik gehien erabiltzen direnak. Hona adibide batzuk:

- (1532) *Kale gorrixan geratu nok!*
 (1533) *Gorrixak ikusi.*
 (1534) *Baiña nik pasau ditzut... Gorrixak miñak! Miñ haundixak!*
 (1535) *Illuntze gorritsu, goiz euritsu.*
 (1536) *Piparra baiño gorrixao jarri.*
 (1537) *Beltza dok, ba! Oinguan ere, dana gaizki erten jakuk!*
 (1538) *Beltzak ikusi jittuan aittak gaztetan, gerra-denporan.*
 (1539) *San Bartolomiak ezkerro, muñondua beltz.*

5.2. INTERJEKZIOAK, ESKLAMAZIOAK, ERANTZUNAK...

Elkarrizketetan, ugariak dira atal honetan bilduko ditudan egiturak bezalakoak; elkarrizketaren harian, bat-batean sortzen diren interjekzioak eta erantzun adierazgarriak dira, enfatikoak, gure jarduna biziagotzen dutenak. Ha-

laxe definitzen ditu, izan ere, Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegiak* eta *EGLU* gramatikak:

“Hiztunok bihotz-aldiak bizi adierazteko erabiltzen ditugun oihu hitzak edo interjekzioak.”

Azpimarra nirea da, hitz hori nabarmendu nahi bainuen¹⁸. Horixe da halakoek gure jardunari dakarkiotena, bizitasuna.

Aurreraxeago, antzeko ideia bat ematen da:

“Interjekzioek, ikusi dugun bezala, ez dute hizkuntzaren alderdirik behinen artean aparteko lekurik, haren egituratzean alboko zeregina betetzen baitute. Halere, hizkera espresiboari dagokionean badute garrantzirik, eta, hori dela eta, gogoratzekoak dira beharbada zenbait gramatkariren oharrak.”

Hemen ere —nirea da berriz ere azpimarra— esaten da hizkera adierazgarria zuzenean dagoela lotuta interjekzioekin.

Nabarmentzekoa iruditzen zait *EGLU I*-eko azken pasarteko lehenbiziko esaldian adierazten dena; halaxe da, perpausaren analisitik kanpoko zerbait dira interjekzioak, eta, hori dela eta, ez dute lekurik hizkuntza edo hizkera jakin baten analisi ohikoetan: ez dagokio fonologiari, ez dagokio izenaren eta aditzaren morfologiari, ez sintaxiari, ez eta lexikoari ere¹⁹. Besteak beste, horregatik esango nuke falta dela arlo hau nire hau bezalako lan monografiko askotan, leku berezirik ez duelako arlo honek hizkuntza-maila ohikoetan oinarritzen diren analisisetan.

EGLU I liburukian bertan esaten da nekeza dela interjekzioen sailkapena egitea, arlo irristakorra delako edo. Eta egia biribila da: ez da batere erraza gailu edo dena delako hauen sailkapen erabatekoa egitea.

Nik, hala ere, eutsi egin nahi diot erronkari, eta sailkapen moduko bat egin nahi izan dut, irakaskuntzari begira lagungarria izan daitekeelakoan.

EGLU I liburukian, bi irizpide aipatzen dira sailkapena egiteko: interjekzioen erabilera kontuan hartuta egitea (pragmatikoa, baina sintaktikoarekin

¹⁸ Ikus Euskaltzaindia (1987, 347).

¹⁹ Berez, esan dut ez dagokiola fonologiari, baina baleukake arlo honek zeresana fonologiaren arloan ere; besterik ez bada ere, “interjekzio zenbaitek hizkuntzaren ohizko joera fonetiko-fonologikoak gainditu egiten dituela” (*EGLU I*, 349 or.), ez baita izaten ohikoa, adibidez, *-f* edo *-p* hotsez amaitutako hitz arruntak aurkitzea euskaraz, baina bai interjekzioetan (*uf. euf*).

nahasirik, nik uste) eta semantikoa. Nik egin dudan sailkapenean, hirurak erabili ditut, pragmatika, syntaxia eta semantika, hirurak behar baintuen taldeak egituratzeko:

- Zer eratako testuinguruetan erabiltzen diren (pragmatika).
- Zer eratako osagai komunak dituzten (kategoria gramatikala → syntaxia).
- Zer esanahi adierazteko erabiltzen diren (semantika).

Hiru hauek erabiliz, beraz, osatu ditut interjekzio eta esapideen azpiatalak.

5.2.1. ESAPIDEAK ETA INTERJEKZIOAK ZERBAITI ERANTZUNEZ

- Batzuetan, aurretik **esan dena berresteko** balio dute esapideok:

- (1540) —*Txakur haundixa pagau bihar dantzan eitzeko?* —*Erregular!*
- (1541) —*Entenditzen al dozu telebisioko euskaria?* —*Entendiuko eztot, ba!*
- (1542) —*ibiltzen da ferixara ta, San Bartolomietara?* —*Horixe, ibilliko ezta, ba?*
- (1553) —*Triste congo haiz, ba, lana galdu eta gero?* —*Eztakik asko!*
- (1544) —*Aurten ere jua haiz Mugerza krosera?* —*Hoixe (jua naizela)!*
- (1545) —*Indurain izan don euskal kirolaririk onena.* —*Hoixe baietz!*
- (1546) —*Aurten ere Kanarietara juango haiz oporretara?* —*Bienke!*
- (1547) —*San Bartolomietan kalia bai, ezta?* —*Bai, jakina.*
- (1548) —*Ondo bizi zina zu, e!* —*Bai, hoixe!*
- (1549) —*Lagunduko al diak etxia garbitzen?* —*Akabo ba!*
- (1550) —*Irabaziko dau partidua?* —*Fijo!*
- (1551) —*Hemen ere bilddurra pasauko zenuen.* —*Honbre!*
- (1552) —*Zintzuak izango zinen.* —*Honbre! Dudia?*
- (1553) —*Lagunduko diak?* —*Aber ba!*
- (1554) —*Aurten ere negua hotza dator.* —*Larri ibili!*
- (1555) —*Jubilau nok, eta gustora bizi nok.* —*Klaro!*
- (1556) —*Berrixa da batua. Baiña...* —*Bai ba, berrixa!*
- (1557) —*Ez tok sekula serixua izan.* —*Ez, ba!*
- (1558) —*Aurten Reala primerara ixoko dala uste jonat.* —*Bai, ni ere baiezian nagon!*
- (1559) —*Egun on!* —*Bai, hainbestekua badao ta!*
- (1560) —*Gustatzen jatzu basarriko lana?* —*Bihako! Nora jango no(k), pa?*
- (1561) —*Orduan hor abarkakin da, botiñekin da jute giñuazen, neskalaguntzera ta juteko.* —*Biheko!*

- (1562) —*Lan da lan zabizela entzun juat. —Bihako eiñ, besterik eztaok eta.*
- (1563) —*Galleguak ointxe hasi dia, jaixak diala, galleguen eguna eo. Atzo zian txapliuak botatzen. —Bai, bai. Hor ba, hor ba!*
- (1564) —*Bai, eonda nao [Amezketan]. —Eonda zaure, e! Hor ba, hor ba!*
- (1565) —*Askotan ibiltze giñan gu pelotan. —“Abi esta!”*
- (1566) —*Da, gaixorik eon banitz ere ez. Jota jun, ya lo kreo!*
- (1567) —*Sei pezeta zuan biajia zeera, “ida y vuelta”. —Ta orduan sei pezeta asko izango zan... —Sei pezeta! Jolin! Ya lo kreo!*
- (1568) —*Ertortze bajatzu, ein bihar, baiña hori ezta, geo, bizi izetia, e! Esistiu! —Ointxe esan dozu, bai: esistiu!*
- (1569) —*Baiña oiñ hemen eitxen dan baiño garbixao bastante hitz eitxen da uste’ot nik hor, ezta, telebisiuan? —Segun zeñek. —Ointxe esan dozu egixa: segun zeñek.*
- (1570) —*Horretzek bai egixak diala... berdaderuak!*
- (1571) —*Zeñek daki haren burutik ze pasau dan. —Bai. Hori da arrazoia. —Hor dao(k) pa, hor dao(k) pa!*
- Beste batzuetan, berriz, aurretik **esan dena ukatzeko** erabiltzen dira:
- (1572) —*Reala primerara ixoko da aurten. —Baitta zera ere!*
- (1573) —*Ama, gaur afaixa daukat eta hamabixetan etorriko naiz. —Ezta pentsau ere!*
- (1574) —*Zahartu eiñ haiz. —Ezta gitxiagorik ere! Ni txabalito bat sentitzen nok.*
- (1575) —*Gaurko egunian basarriko bizimodua len bezelakua da. —Ezta hurrik eman ere!*
- (1576) —*Gorospe izan dok euskal txirrundularirik onena. —Adarrik ez! (Adarrik ez’iak jo!)*
- (1577) —*Txinako hizkuntzia ikasi nahi dot. —Bueno, bueno, ez hari koplekin etorri!*
- (1578) —*Aurten ondo ibiliko nok Behobia-Donostia lasterketan. —Etxakixa(t), pa!*
- (1579) —*Zuk baiño “pigura” hobia dakat. —Ni ezetzian nao, ba.*
- (1580) —*Ni nok onena pelotan. —Txakurran putza (bioliña, flautia)!*
- (1581) —*Gaur ere lan pixkat ein bihako juau. —“Por los kojones!” Gaur domekia dok, hi!*
- (1582) —*Gaur ere lan pixkat ein bihako juau. —“Por los!” Gaur domekia dok, hi!*
- (1583) —*Oporretara kanpora jute zeate? —Keba!*
- (1584) —*Laste ezkonduko haiz, eztok? —Bai, zera!*

(1585) —*Patxik [urte] gehixo daukaz, ni artian lanian nauan da. —Zein Patxi? Ze lanian, gero? Adarrik etzek jo bihar!*

• Norbait agurtzerakoan, **norberaren egoeraren berri emateko** balio dute beste batzuek:

(1586) —*Ze moduz zera? —Oso ondo: ni baiño hobeto dauana eztao gaizki!*

(1587) —*Ze moduz zera? —Oso ondo: hobeto, nahi ere ez!*

(1588) —*Ze moduz bizi haiz? —Espezial!*

(1589) —*Ondo zabiz? —Ondo: majo bizi naiz, eta enao keitzeko moduan!*

(1590) —*Ze moduz zaude? —Ondo edo, ondo ustian.*

(1591) —*Ze, ondo? —Ondo edo, ondo nahixan.*

(1592) —*Aspaldiko! Ze moduz zabiz? —Hainbestian!*

(1593) —*Ze moduz zabiz? —Ez haiñ ondo, dana(n) biharrian.*

(1594) —*Ze moduz zera? —Nahi ta eziñian, emakumia!*

(1595) —*Ze moduz habill? —Gaizki, motell! Behia jota nabik aspaldixan!*

5.2.2. LOKAILU BIDEZKO EGITURA ADIERAZGARRIAK

Presuposizio-kontuetan, berezi-berezia da *ERE* lokailua, eta indar berezia eman diezaioke gure jardunari: berehalako erantzunen, interjekzioen arlo honetan, beraz, aukera egokia ematen du gure erantzunei eta esamoldeei adierazgarritasuna emateko.²⁰

Hona adibide batzuk:

(1506) —*Laste ezkonduko haiz, eztok? —Baitta zera ere!*

(1507) —*Ni nok onena pelotan. —Baitta zera ere!*

(1598) *Zenbat ogi zuri jun tzian ibaixan zihar! Akordatzia ere zenbat ogi zuri jun tzian...*

(1599) *Hartu gendun erabakixa; bai azkar hartu ere!*

(1600) —*Egun on! —Bai zuri ere!*

(1601) —*Egun on! —Baitta zuri ere!*

(1602) —*Ez zerate alperrik galduko! —Ezta komeni ere!*

Hona beste gailu gramatikal batzuk erabiliz lortzen diren perpaus adierazgarri batzuk ere:

²⁰ *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak III* liburukian (35-51 or.) aztertzen du sakonkiago Gramatika batzordeak *ERE* lokailua eta presuposizioekin duen erlazioa.

(1603) *Goixa zauan behera etorritta zati haundi bat, jausitta. Baiña haundixa zulu! Bueno, ikeragarrixa baiña zulu, e!*

(1604) *Kaleko lanak eindakuan, aguro etxera etortzia nahi; bai, ba, astua-kiñ etorri biha izete zan da!*

(1605) —*Eta Patxi?* —*Zeiñ Patxi? Zer lanian, gero! Adarrik eztek jo bihar. Patxi ni lanian nauanian hil zuan, barren!*²¹

(1606) —*Umiak eztauke, barren, inun jolasian eitteko lekurikan!*

(1607) *Eta gero, plazara jute'ianian, "jode" esate dabe, "karua" [barazkia]. Ez, jauna! Harek eztauxe, barren, ze dan [baserriko lana]!*

5.2.3. GALDERA ERRETORIKOAK

Gure diskurtsoan erabiltzen dugun beste baliabide bat da. Galdera erretorikoetan, dakigun bezala, ez dugu mintzakidearen erantzunik espero; beharbada berrespen txiki bat bai, baina, jaso ditudan kasuetan, batez ere diskurtsoa antolatzeke baliabide bat da, diskurtsoaren erritmoa antolatzeke, diskurtsoaren harian, dena asertzio bidez eman beharrean, bariazio estilistikoa egiteko ere bai.

Gatozen adibide batzuekin:

(1608) *Eta, bazuan, ba, aldeko mutilla? Gero jun zan Santaeske eunian gerrara.*

(1609) *Zapatak apurtu samartuta zaukazen. Eta ze ein zaban? Brigadiari eskatu berrixak.*

(1610) *Eskolan, basarritarrak eta ere ze? Etorri, eta neguan sei bat hillabete eo eiñ, eta gero fuera.*

(1611) *Ba al dao hau aguantauko dabanik?*

(1612) *Zer da, ta azkenian kastigua maixuak!*

(1613) *Zeiñ etorriko, ta etsairik txarrena!*

(1614) *Pilarika eguna, "doze de oktubre" eztok, ba, izaten? Ba...*

(1615) *Trukian eiñ eta... gaiñera, hoeta bost zentimo horrekin bakarrik. Eta zela lutzau! Ja, ja... Arratsalde guztia kartetan.*

²¹ *Barren* lokailua Elgoibarren eta inguruko herri gutxi batzuetan bakarrik erabiltzen da; *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak III (Lokailuak)* liburukian (ikus 131 or.), Gramatika batzordeak aurkaritzakoen artean sailkatu zuen. Berez markatuak diren perpausetan erabiltzen da batez ere, harridura-edo adierazteko. Haren esanahia ulertzeko, *baina* edo *eta* erabil daitezke haren orde, kasuan-kasuan.

(1616) *Nik gaur ein bihar baneu, orduan jakin baneu gaur beste eo...; gaur ere asko ez baiña, izaten do(k), pa?*

(1617) *Bedarra ebai biha dounian-da, ia ze esate deben egualdixaatikan; eztakik?*

(1618) *Nik al dakitt?*

5.2.4. ERANTZUNA EMAN NAHI EZ DENEAN ERABILTZEN DIRENAK

(1619) *—Zenbat urte daukazuz? —Erdixak eta beste hainbeste.*

(1620) *—Nun dao? —Jun da jun, da bertan.*

(1621) *—Zeiñ etorri da? —Zereko zeran zera.*

(1622) *—Ze ein bi'ozu? —Txistua jo ta dantzán.*

(1623) *—Nola dozu izena? —Ipurdi gizena!*

(1624) *—Zer da? —La mujer del “zerdo”!*

5.2.5. ERLIJO-KUTSUKO INTERJEKZIOAK

(1625) *Istorixak asko jaukaz nik, Jesus, Maria ta Jose!*

(1626) *Aittiaren da semiaren! Holakorik ikusi be nenguan gaur arte!*

(1627) *Ehun da berroeta hamar bat metro ero eongo zian, ondiokan zera zauan, ondiokan aldatz goría, gora alleau be, eta hónetan, kañonazo bat kamiño erdixan sartu zan. Josus!*

(1628) *Ba, Jangoikuari eskerrak, daukauzen edadietara alleau gara, eta oindiokan hamentxe nahi bizi.*

(1629) *Hórrek bixok alkarrekin dabizenian, eztao kristaurik entenitzekorik. Ez, ez.*

(1630) *Bitorixako karakol-jatiak eta kristo guztiak eta hango gabeko kontuak eta. Gauza asko ikusten dok hamen ere. Eta, lehen esan douna: beti ikixten dok zeoze, eta beti geratze jak zeoze buru zahar honetan.*

(1631) *Ene Jangoikua!*

(1632) *Jangoiko maittia!*

(1633) *Gure Jangoikua!*

(1634) *Jainkuari eskerrak!*

(1635) *Jesus!*

(1636) *Jaseus!*

(1637) *Gu zubixan gaiñian. Pasau giñanian beste aldera: “Aiba Dios!”. Beitxu dot, eta arku bat bakar-bakarrikan. Aiba Dios! Demaseko alturia! Esate naban: “Haura zubixa zela ein tzeben?”.*

(1638) *Ene! Hamabost egunekua [etxera joateko baimena]. Aiba Dios!*

(1639) *Anda Dios!*

5.2.6. ERAKUSLEAK ETA ADBERBIOAK DITUZTEN INTERJEKZIOAK

Ugariak dira erakusleak eta erakusleetatik eratorritako adberbioak interjekzioetan eta esaldi adierazgarrietan. Erakusgarri batzuk ekarri nahi ditut hona:

(1640) *Askok adarra joten esate juek: zahartu eiñ haiz, txarri hori, hi!*

(1641) *Euskeraz eziñ eiñ, eta erderaz jakiñ ez! Horrek zittuazen komerixak!*

(1642) *Santu guztien egunian izate zuan gaztaiña erria jaten hasteko eguna. Haura jan!*

(1643) —*Aste guztian jai jaukat. —Hori dok pagotxa, hori!*

(1644) —*Horre`ittuk komerixak, horrek!*

(1645) —*Hori dok txatxaria, hori!*

(1646) —*Bai, eonda nao Amezketan. —Eonda zaure, e! Hor ba, hor ba!*

(1647) *Bronkia? Haura zuan bronkia! Joe! Peligrosua gaiñera, e!*

(1648) *Da, holaxe, ein genduan ere bueltia. Atzera, Gernikatikan zihar, zela edo hala, pasau, ta hango, hango desastria! Eta, pasau genduan Gernika hori, eta alleau giñan Aulestira.*

(1649) *Eta bueno, esate`izut, pa, e! Eta hango... Jesus, Maria ta Jose, dendia hor eta dendia hamen eta, dana dendia! Eta jun giñanian esate dou, hau denporiau ezin leike pasau hamen! Hango berua! Hango egarrixa! Hango gaixua! Hango klima txarrixia, gaixua! Desastria!*

(1650) *Zaudezen danak kargoko militarrek, erdi desabrotxauta; hango keia! Danak erretzen; batzuek... ez zauken eskaperikan da, harek fusilau eingo zitxuen seguru, zeatik eze salbauko zian hoeta bost bat ero holako grupo bat.*

(1651) *Hori dok markia, hori!*

(1652) *Baiña orduan zer da, ta nobixia ta laga plazan, eta etxera hamaike-tan [lanera joateko]. Eta holakotxe gauzak! Haura ez zan bizi izatia!*

(1653) *Haura zan ona, haura! Haura zan egur-hotsa atara zabana!*

(1654) *Hara! Etorri dok-eta gure laguna!*

(1655) *Bajaok hementxe eulixa!*

(1656) *Haura andria gehixegixa da. Haren zabaleria!*

5.2.7. BIRAO GISAKOAK

Harridura edo desadostasuna adierazteko erabiltzen dira biraoak, batez ere lagunarteko jardunean. Ez dira gutxi biraoen eufemismoak ere, biraoa gogorxa iruditu eta hura nolabait leuntzeko ahaleginak; halakoak 5.8. azpiatalean jaso ditut.

(1657) *Honek, Belaustegiñ alaba horrek. Izena zela jaukan harek? Eee... Mekaben la India! Bueno, iual dio.*

(1658) *Ze demonio dabik hor?*

(1659) *Ene! Goiko-Errotak eta Urbanek eta eztakit zeinnek, harrapau juek arraiña. Mekauen la letxe!*

(1660) *Askok, adarra joten, esate juek: "Zabartu ein haiz, txarri hori!"*

(1661) *Honek danak hartu jaittuk? Eneee, makiña bat txorimalo-usein hartu jok orduan!*

(1662) —*Gaur hiri tokatzen jak fregaua egittia. —Txakurran bioliña! (Txakurran putza / flautia).*

(1663) *Joño! Martiñen semia. Haura laguna daukau.*

(1664) *Sospetxa bat bai txarra. Joño, zer da, ba?*

(1665) *Brometan mouan esan nion: "Ño, ezta merkia!"*

(1666) *Kontxo! Enajakixan umia euki zendunik!*

(1667) *Zetan ai haiz, arraixuori?*

(1668) *Kauen zotz!*

(1669) *Kauen la letxe!*

(1670) *Ostra!*

(1671) *La Rusia!*

(1672) *La India!*

(1673) *Mekauen La Rusia!*

5.2.8. ANIMOAK EMATEKO ERABILTZEN DIRENAK

(1674) *Aupa, mutillak/neskak!*

(1675) *Eutsi, motell!*

(1676) *Eutsi goixari!*

(1677) *Eutsi goixari, sasoe hobiak etorriko ittuk eta!*

(1678) *Hori dok eta!*

(1679) *Hori don eta!*

(1680) *Segi hola!*

- (1681) *Eman, eman!*
 (1682) *Benga!*
 (1683) *Alimo, Jerolimo!*

5.2.9. BESTELAKO INTERJEKZIO ADIERAZGARRI BATZUK

- (1684) *Bai politta!*
 (1685) *Bai galanta etxia!*
 (1686) *Zelako etxe edarra erosi dozuen!*
 (1687) *Ein biharra bai kazan. Basurdia ta txarrikeixia badao hamen!*
 (1688) *Majo bizi haiz, e!*
 (1689) *Ai dittuk pixkat ihartzen, eta ihartze'ianian danak jaurtiko jaittuat, eta kitto!*
 (1690) *Illia zeruan moztia. Jota, geatze zan, hau papel hau baiño zurixao geatuko zan [burua].*
 (1691) *Hantxe errekan birek esplotau zebeñ han [bi bonbak]. Jota esplotau zebeñian, jota ura goora baiña! Zelako txorrúa! Buenooo!*
 (1692) *Hi bizi haiz, hi!*
 (1693) *Hi haiz, hi, izatekua!*
 (1694) *Da illuna, pixkat illuntzen haste zanian, maixua tilin-tilin, tilin-tilin, kanpaia. Eta aide, danak etxera.*
 (1695) —Prontoe ganorazko bat ere ez. —Eztao. Ikastolan dao bat, baiña... —Hor enpresiak pelota motelak atera biha'ittu, eta eztao! Len plazan eote zanian ere, tira, zeoze. Jentia, sillak eta zeoze hartu, eta juate zan.
 (1696) *Makaleko mutilla etorri jaku!*
 (1697) *Makaleko juergia!*
 (1698) *Jaixan eta tokatze zanian, bien! Baiña astegunian eta hola, ba eziñ izeten zan juañ noiznahi, lana iual eitteko etxian da.*
 (1699) *Bueno!*
 (1700) *Bono!*
 (1701) —Zenbat ikesiko gendun, ba? Atzera ahiztuta ere gehixena. —Normala. —Tira! Hiruroeta hamar urtekiñ, ze nahi dok, pa?
 (1702) *Haura, etxeko gozatasuna. Hori asko dok, e!*
 (1703) *Etxian moduan eote gaittuk, gero, e!*
 (1704) *Hoixe bakarrik biha gendun!*
 (1705) —Bixar urtiak, zorionak! —Bai, bixar. Eztakik asko! Hiruroeta ha-maika urte!

(1706) *Ene! Goiko-Errotak eta Urbanek eta eztakit zeinnek, harrapau juek arraiña. Mekauen la letxe!*

(1707) —Zortzi txerdiak arte hementxe latia ematen honi, egunero, zortzi txerdiak arte. —*Latia ematen? Ene! Laguntzen!*

(1708) *Eneee! Akordatzia ere...*

(1709) *Ene, ba!*

(1710) *Eske, oillua ere, ointxe esaten dot nik, aberatsa da, e! Zeatxikan arrautzakin gauza asko adornatze'ozu ointxe ere, honbre!*

(1711) *Hor diru mordua ahorrauko'zue, horratxiokan!*

(1712) *Hara!*

(1713) *Hara zein etorri dan!*

(1714) *Hara bestia!*

(1715) *Ha hor ba!*

5.3. ONOMATOPEIAK

Gure inguruan entzuten ditugun hotsak imitatzeko erabiltzen diren berbak dira, eta hitzean eta hortzean erabiltzen dira ahozko jardunean, bai adinekoen hizkuntzan, bai umeenean ere. Ekintza komunikatiboan, esaten duguna era zuzenagoan, argigarriagoan, ilustratiboagoan adierazteko balio dute berba hauek. Batzuetan, soinua bakar-bakarrik islatu nahi izaten da, besterik gabe; beste batzuetan, ordea, soinu horren imitazioaren ondorioz, hiztegiko beste edozein berba bezain beregainak diren izenak sortzen dira: *eupadia* (agurra), *dangatekua* (kolpea), *krakatekua* (haustura), *zartadia* (piztatua) eta abar.

Ondoren bildu ditut Elgoibarko herritarren ahozko jardunetik jasotako onomatopeia batzuk, jakinik betiere arlo irristakorra dela hau, eta zenbait hiztunek soinu jakin bat era batean adierazten duten bezala beste zenbaitek beste era batera adierazten dutela; beraz, ez da hartu behar azpiko zerrenda hau normalizazio-helburuekin egindako onomatopeia-hiztegi bezala, baizik Elgoibarren erabiltzen diren batzuen erakusgarri soil bezala.²²

Hona, bada, Elgoibarren entzun ditudan onomatopeia batzuk:

²² Onomatopeiak era sistematikoagoan bildu ditu, adibidez, Iraide Ibarretzek (*Hizkuntzaren bihotzean: Euskal onomatopeien biztegia*, Gaiak, 2006).

Barra-barra: Asko, ugari, sarri (berba egin, esan...).

Blastateko: Matrailekoaren onomatopeia.

Blisti-blasta: 1. Matrailekoa eman 2. Uretan ibili. **Plisti-plasta** ere bai.

Bolo-bolo (ibilli): Konturen bat denen ahotan ibili. *Bolo-bolo jabik herrixan txutxumutxu hori.*

Bor-bor-bor: Motorraren zarata. *Eta zuan “motorizadia”, lenengo etorri zuan motorrian, bor-bor-bor!* Baita likidoren batek irakitearen hotsa ere.

Burrundaria: Motorrek egiten duten zaraten onomatopeia.

Da: Kolpea. *Atzaparrak hola ipiñi, eta regliakin: da! Eta haura hola izkiñan zauanian, da!*

Daka-daka: *Ez hemendik bakarrik, baitta hortikan ere, Maarixa aldetik eta Urruzuno baillia, San Lorentzo bailletik eta, oiñez danak hamen goizaldian, daka-daka-daka... Eta etorri ere bai.*

Dak-dak: *Armia desmontau, eta izenak eman. Zein zetarako zan esplikau bihar. Piezak danak zihero dak-dak soltau, drik-drak soltau.*

Dan-dan: Kanpaiaren hotsa. **Tan-tan** ere bai.

Danba, danbatekua: Zerbait indartsu jotzerakoan ateratzen den zarataren onomatopeia (**danba-danba**).

Danga, dangatekua: Kolpea. *Okerra eitten zabanari, danga harek!*

Dar-dar: Hotzak edo beldurrak eragindako ikararen onomatopeia. *Gorputza dar-dar batian nakan.*

Daunbi, daunba: Kolpea. *Mina-zulo haundi bat daok. Han eote giñuazen. Eta daunbi ta daunba ta daunba! Goizian jun, da sartu han egun guztia. Han eote zuan umiekín, ama eote zuan gurekin.*

Di-da: 1. Zerbait gogor jotzearen onomatopeia. *Di-da jo juan burutik behera.*
2. ‘Azkar, berehala’. *Oiñ ez, oiñ kotxia hartu, eta di-da juaten da jentia, baiña diperentia, oso diperentia gelditzen da, bai.*

Dilin-dalan: Kanpai-hotsen onomatopeia. **Tilin-talan** ere bai.

Dinbi-(ta)-danba: Kolpe edo eztanda bortitz baten hots errepikakorra. *Kalamuan geratu zittuan, eta sei hillabetian hortxe, dinbi ta danba, baztar guztiak garbitzen.*

Dzanga-dzanga: Edanaren, zurrutada luze baten onomatopeia.

Dzi: Zerbait bizkor egitearen onomatopeia.

Dzunba: Zerbaitek edo norbaitek uretan murgiltzean egiten duen hotsaren onomatopeia.

Et, et, et: Ezeztapena, ukoa. —*Hurrenguan ardo-botillia ekarriko izut. —Et, et, et... Alperrao jarriko nok orduan da.*

Eup, eupadia: Agurtzeko era, eta agurra adierazteko era onomatopeikoa.
Ieup ere bai.

Glu-glu: Zerbait edaterakoan egiten den zarataren onomatopeia.

Ieup: Ikus **Eup**.

Irrist egin, irristadia: Labainkadaren onomatopeia.

Klik-klik: Ilea mozterakoan egiten den hotsaren onomatopeia.

Korrosk, korroskadia: Barruko haizeek sortutako zarataren onomatopeia.

Kox-kox: Atea jotzean egiten den zarataren onomatopeia. *Atia kox-kox jo, eta zai geratu nitzan.*

Krak, krakadia: Zerbait haustean ateratzen den hotsaren onomatopeia.

Kri-kri: Kilkerraren kantua.

Kris-kras: Sarrailearen bat ixtean egiten den hotsaren onomatopeia.

Kukurruku: Oilarraren kantuaren onomatopeia.

Kurrin-kurrin: Txerriak egiten duen zarataren onomatopeia.

Mara-mara: *Edurra mara-mara ai jok!*

Parrast, parrastadia: Likidoek isurtzean egiten duten zarataren onomatopeia.
Ur parrastadia. / Txixa parrastadia bota jok.

Plaust, plaost: Zerbait lehertzean edo erortzean egiten duen hotsaren onomatopeia. *Eta pistoliakin zuluua eñ, eta tirua, plaost! Ta holako bat, eta harri mordua aborrau.*

Plisti-plasta: Zerbaitek edo norbaitek uretan ibiltzean egiten duen hotsaren onomatopeia.

Puf: Asperguraren edo nekearen zarata. Baita **Buf** ere.

Purra-purra: Oiloei deitzeko erabiltzen den hitza.

Purrustadia: Haserre antzean botatako errietaren onomatopeia. **Furrustadia** ere bai.

Purru: Puzkar-hotsaren onomatopeia.

Ra-ra-ra: Zer bait ebaki, igurtzi, arrastaka eramatearen onomatopeia; berehala nonbaitera iristearena... *Kotxian, ra! Etortze'ia. / Ra-ra: Baiña askotan soldauan kastigua, illia zeruan moztu. Sartu hamen aurrian makiñia, eta kokotian behera, ra-ra-ra! / Eta gero, berriz, garixa ebai, garixa jo. Jotia baatik ze dan? Makiñiak ra-ra-ra, eta garixa kendu lastuari. / Arenaketia, bai, bota arenia ta espartzua, da ra-ra, ta gero haura altzau ein bi'ozu, da gaiñera asko bustitxa ez, bere tamaña baten bustitxa, e!*

Ras-ras-ras: Igurtziaren onomatopeia. *Kunetan bedar haundixa eote zuan, eta Urkittik erundako bota kaxkarrak edo zeozekin, baatik zela jungo giñan gu horra. Eta amak hartze giñuazen da, hartu hola, eta han, bedarretan, ras-ras-ras garbitzen jauazen hankak.*

Ri-ra: Zer bait azkar eta kementsu egitea. *Ri-ra ein juau dana, hasi tta amaittu egun batian. **Di-da** ere bai. Igurtziaren onomatopeia ere izan daiteke **ri-ra** hau.*

Tak: Kolpe baten onomatopeia.

Taka, takatekoa, takadia: Kolpe baten hotsaren onomatopeia. (...) *bestela, bialtzen zixen zapata zikiñekin pormauta igual, eta garbitzera atzera kuar telera bialtze zixen. Eta iual takatekoren bat, gaiñera; matraillekoren bat iuel. / Takada batian ein dittu 15 tanto Olaizolak.*

Taka-taka: 1. Jarraitutasuna adierazten du. *Eta haura hasten dok ba, bere gauzak esaten segi, eta segi, eta segi... Gauza asko enteniu, baiña tartian taka-taka hitz batzuk, iñor eon ezker. / Bai, saloian, goizalde arte taka-taka dirua. Baiña jokau...! / Mendittikan, taka-taka, botatze zi(g)uen [tiroak].*
Tapa-tapa ere bai. **2.** Ibiltzearen onomatopeia, haur-hizkeran asko erabiltzen dena.

Tarra-tarra: Pausu txikika ibiltzearen onomatopeia. *Baiña gu mendialdian eta hementxe, tarra-tarra-tarra... Goizetik etxeko lanak ein, eta atsaldian "a paseo".*

Tiki-taka: Haur. Oinez ibili. **Taka-taka** eta **Tipi-tapa** ere bai.

Tilin-tilin: Kanpai-hotsa. *Eta pixkat illuntzen hasten zanian, maixua tilin-tilin, tilin-tilin, kanpaia. Eta aide danak etxera.*

Totx-totx: Ganaduari (behorrei, adibidez) deitzeko erabiltzen den hitza.

Ttirri-ttarra: Pausu txikika ibiltzearen onomatopeia. *Laroeta hamar urtekiñ, hor dabil gure Inazio, ttirri-ttarra.*

Triki-trakan: Jardunaren onomatopeia. —*Ta nola konpontze ziñan hainbeste lanekin?* —*Eiñ, eiñ, ohitxuta, triki-trakan, triki-trakan, ohitxuta.*

Tan-tan: Kanpai hotsaren onomatopeia. **Dan-dan** ere bai.

Triki-triki-triki: Jardunaren onomatopeia. *Errezena jorria zan. Atxurrakin triki-triki-triki.*

Ttak: Tanta batek edo batzuk egiten duten zarataren onomatopeia. *Ur apurtxo bat botatze jauat bakar-bakarrikan. Hola eiñ, eta ttak!*

Ttiki-ttaka: *Amakin juten giñuazen bost lagun ero. Koxkorrak danak ttiki-ttaka, ttiki-ttaka, txarrikumak aman onduan bezelaxe jute giñuazen.*

Tto-tto-tto: Hizketaren onomatopeia. *Euren artian beti erderaz. Euskeria ahiztu! Eskoletan laga ez, eta gero kalera jun, eta tto-tto-tto! Dana erderaz. Etxian ere erderaz.*

Txasta: Zerbait zuloren batean sartzearen onomatopeia.

Txin-txin: Metalezko edo beirazko bi gauzak bata besteari jotzean egiten duten hotsaren onomatopeia: diruaren hotsa, zerbait ospatzerakoan basoak elkar joz ateratzen dena.

Txipli-txapla: Uretan jolastean ateratzen den zarataren onomatopeia.

Txirrin: Tinbrearen soinua.

Txirrist: Labainkada batek egiten duen hotsaren onomatopeia.

Txis: Pixa egitearen onomatopeia. Pixa eragiteko, haurrei egiten zaien soinua.

Txist: Norbaiti deitzeko erabiltzen den zarataren onomatopeia. Norbaiti isiltzeko agintzeko ere erabiltzen da.

Txorrost, txorrostadia: Ur edo edari apurtxo bat edalontzi batean edo botatzen denean ateratzen den zarataren onomatopeia. *Hi, bota'ixok kafiar patxar-txorrostada bat.*

Txost: Zerbait nonbait (zuloren batean) sartzean ateratzen den zarataren onomatopeia; adibidez, kanika bat txolotean, edo pelota ezker-pareta eta lurra elkartzen diren lerroan. *Txost eñez amaitsu jua pelota-partidua.*

Txurrut (edo **txurrust**): Edanaren onomatopeia. *Txurrustian gastatze jaittuen diruak, eta akabo. Txurrutian* ere bai.

Xurrut: Edanaren onomatopeia. **Txurrut**-en aldaera.

Zapla, zapladia, zaplatekua: Kolpe edo matraileko batek egiten duen hotsaren onomatopeia.

Zart: Zerbait hautsi, pitzatu edo eteten denean egiten duen zarata.

Zartadia: **Zart** edo **zarta** onomatopeietatik datorren izena. *Paretak zartadia daka (zartauta dago).* Norbaitek burua bere batean ez duenean ere erabiltzen da: *Horrek jakak zartadia, horrek, buruan!*

Zazta-zazta: Zaztada baten onomatopeia. *Idixa ipintze debe lotuta, Kristo bezela, atzian harri galanta; ezin badau ere zazta-zazta-zazta, eraiñ hantxe, akuluakin; idixana da oso goorra.*

Zipli-zapla: Matraileko baten onomatopeia.

Zirt(edo)-zart: Zerbait bizkor eta erabakitasunez egitearen onomatopeia. *Zirt edo zart ein bi'juau.*

Zorro-zorro: Lo sakonaren onomatopeia.

Zurumurrua: Ahopekako hizketaren onomatopeia.

Zurrut: Edanaren onomatopeia, **Txurrut**-en aldaera palatalizatu gabea.

5.4. ELIPSIA

Elipsiarena da ahozko jardunaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat; komunikazio dinamikoagoa, biziagoa eta naturalagoa lortzen da, zalantzarik gabe, jakintzat ematen den zenbait informazio isilduz; batzuetan, adierazgarriagoa ere bai. Kontua da, kontakizunak egitean, elipsiaren bidez asko irabazten duela gure jardunak erritmoan.

Zergatik isiltzen diren perpauseko osagai batzuk? Esan bezala, testuinguruagatik ezaguna zaigulako. Kontua da berreskuratzen errazak diren osagaiak

erraz isildu ditzakegula. Aditzaren elipsia izaten da ohikoena: izan daiteke aditz osoarena, edo aditz laguntzailearena bakarrik (azken hau da ohikoena).

Nik erakusgarri batzuk besterik ez ditut ekarriko hona, uste baitut fenomeno honek berak bakarrik ikerketa-lan sakon bat baino gehiago egiteko adina ikergai sortzen duela.²³

Hona hemen aditzaren elipsiaren adibide batzuk:

- (1516) *Hoeta hamabostian ezkondu, eta hoeta hamaseixan gerria.*
 (1717) *Haura jute zan baldakariakiñ, eta ekarri.*
 (1718) *Armuzau guk kalian, eta jun.*
 (1719) *Eta burrukan dabillega, hauraxe galdu azkoittiar horri [hogei duroko txanpona].*
 (1720) *Lana falta ez.*
 (1721) *Amak errezoia. Jakiña, liburu asko bihar.*
 (1722) —Zintzuak izango zīnaten. —Honbre! *Dudia?*
 (1723) *Gero jakin gendun zeiñek ein tzaban eta etzaban.*
 (1724) —Bueno, martxan daok hau ala ez? —Bai, aspaldixan. —*Adarrik ez!*
 (1725) *Da gero, txarren-txarrena zuan, zera, biderik ez basarrixetara.*
 (1726) *Zai eote zan jendia, gu ate ondora noiz alleauko.*
 (1727) *Gu artian hona etorri zianian, etxian; etxian artian gu. Etxian artian gu, gero.*
 (1728) *Euren artian beti erderaz. Ahiztu! Euskeria ahiztu. Eskoletan laga ez, eta gero kalera jun, eta tto, tto, tto! Dana erderaz. Etxian ere, erderaz.*
 (1729) *Euskeraz eziñ eiñ, eta erderaz jakiñ ez: horrek zittuazen komerixak!*
 (1730) *Umiak laga gurasuekin, eta pixkat eurak deskantsau ein biha zebela, eta etorri.*
 (1731) *Eta, esan dotena: aitxak bialdu zian Unzetanera, baiña... nik entzunda naukan hori, "carrera de cintas" nola izate zan, eta hantxe gelditzia pen-tsau nik, neuk ere parte hartzeko!*
 (1732) *Eta, holaxe, ba, hamentxe, Barrutianian, geldittu zan ostatuan. Eta gero, ba, automobilla biha zaban, eta automobillikan ez orduan!*
 (1733) —Zuek zakazuen baloria! —Baloria? —Nik ez neuke hori ingo... —*Besterik, besterik ez-eta!*
 (1734) *Baiña neri akordau ez, azeleradora lagako zabanikan.*

²³ Besteak beste, AUSPOA herri-literatura saileko edozein liburutan aurkitu daiteke, ahozkotasanaren beste ezaugarri batzuk bezala, elipsiaren adibide ugari. Maila teorikoan, besteak beste, Pello Esnalén lanak (1987-89) eta Iñaki Amundarainen doktore-tesia (1997) aipatuko nituzke.

(1735) *Da presatikan zela etzan jausten... ez laga presatikan jausten urari.*

(1736) *Laga ez harek neskak eruaten; bestela, bajiezak.*²⁴

Nabarmena da aditz modalak ditugunean zer erraztasun dagoen elipsia egiteko:

(1737) *Aulestiko plazia eta han ingurukuak, danak gudariz beteta zaurezen. Eta zian Kalamuan gabaz laga trintxerak, eta euron posiziuak, eta hara etorri zianak eta handik ihesika ein bihar.*

(1738) *Dirurik ez, eta zauanakin konformau bihar...*

(1739) *Ni etxian baldin banao, eziñ radixori(k) pe eon.*

(1740) *Nik haura ezautu, derrior ein bihar. Derrior ezautu bihar haura.*

(1741) *“Ernegau eitten najonen neri honek jaixok” esate zaban; baakizu, pagia eman bihar...*

(1742) *Afalduta nahi izate zebeñ mutillak [zinemara joateko], ta esklaba geratzen zan ama: atsalde erdixan afaixa eman bihar...*

Iraganeko kontakizunak egiteko ere, erritmo biziagoa, arinagoa ematen dio elipsiak jardunari, eta arrunta da elipsia aurkitzea.

Hona horren argibide diren pare bat pasarte, berri-emaielen testu libreeta-tik jasoak:²⁵

(1743) *Han fundiziuñ lanian jardunda. Jun hara Goiko Errotako presara. Bat Errekartekua, da bestia zeekua... enaiz akordatzen oiñ. Da han, bixak sartu dia hara, da jun dia izarditxan. Udia, bai, baiña zerian da itxuria zeoze janda ero, ta sartu zian barrura, ta kortau [digestioa]. Ta itxo han. Eta gero beste batzuek, mutill haundixak han. Ta hor sartu itxuk. Eta ezta pentsau ere zerikan, juterikan. Elgoibarren pasatze zianak, bua!*

(1744) *(...) eta Donostiara jun, amak eman sei pezetako pagia (jaiko pagia sei pezeta eman), eta harekin Donostiara jun bihar, eta nobixia Donostian... Nobixia Donostian; Donostiara jun trenian, eta korridia ikusi nobixiakin junda, eta atzera etorri trenian, eta Butronguan afaldu etxerakuan, eta errial birekin etxera. Sei pezetak zenbat balixo zebeñ orduan!*

²⁴ Harridura edo esklamazio kutsua dute elipsia izan duten perpaus hauetako askok; hala iruditzen zait niri; alegia, nahiko lotura dagoela harridurazko edo esklamazio moduko perpausen eta elipsiaren artean; badirudi errazago aurkitzen direla elipsi-kasuak halako esaldietan adierazpen-perpauetan baino.

²⁵ Azpimarratuta eman ditut aditz-laguntzailea edo aditza bera elidituta dauden kasuak.

Azken pasartearen kasuan, aditz laguntzailea errepikatzeak (erabiltzekotan, -TZEN erakoak erabili beharko lirateke hor) nabarmen astunduko luke kontakizuna. Saia gaitezen era horretara osatzen testu bera:

(1745) (...) *eta Donostiara juate nitzan, amak emate zian sei pezetako pagia (jaiko pagia sei pezeta emate zian), eta harekin Donostiara jun bihar izate naban, eta nobixia Donostian naukan... Nobixia Donostian naukan; Donostiara juate nitzan trenian, eta korridia ikuste naban nobixiak in junda, eta atzera etortze nitzan trenian, eta Butronguan afaltze naban etxerakuan eta errial birekin alleatze nitzan etxera. Sei pezetak zenbat balixo zeben orduan!*

Aldea nabarmena dela esango nuke: lehendabizikoan, erritmo biziagoa du kontakizunak; bigarrenak, berriz, entzulearentzat astunxea gertatzeko arriskua du.

Era berean, saia gaitezen goiko pasarte horrekin berarekin beste proba bat egiten. Esan dugu iraganeko kontakizunetan aurkitzen dugula askotan elipsiaren baliabidea. Hala gertatzen al da, berriz, orainari buruzko pasarte batean edo etorkizunera begira dagoen batean? Eman dezagun pasarte hori bera gaur gertatu den txango batez ari dela. Orain datorren bezala emango genuke?

(1746) (...) *eta Donostiara jun, amak eman sei pezetako pagia (jaiko pagia sei pezeta eman), eta harekin Donostiara jun bihar, eta nobixia Donostian... Nobixia Donostian; Donostiara jun trenian, eta korridia ikus nobixiak in junda, eta atzera etorri trenian, eta Butronguan afaldu etxerakuan, eta errial birekin etxera. Sei pezetak zenbat balixo zeben orduan!*

Adizki guztietan ez bada ere, tarteka behintzat aditz-laguntzailearen baten beharrea aurkitzen da nire hizkuntza-sena (letra larriz eman ditut aditz laguntzaile txertatu berriak):

(1747) (...) *eta Donostiara jun NAIZ, amak eman DITT sei pezetako pagia (jaiko pagia sei pezeta eman (DITT)), eta harekin Donostiara jun bihar, eta nobixia Donostian... Nobixia Donostian; Donostiara jun trenian, eta korridia ikus nobixiak in junda, eta atzera etorri trenian, eta Butronguan afaldu (DOT) etxerakuan, eta errial birekin etxera. Sei pezetak zenbat balixo deben!*

Etorkizunari begira dagoen pasarte bat dela jotzen badugu, antzera gertatzen da, nire ustez:

(1748) (...) *eta JUNGO NAIZ Donostiara, amak emanGO DITT sei pezetako pagia (jaiko pagia sei pezeta eman), eta harekin Donostiara jun bihar, eta nobixia Donostian... Nobixia Donostian; Donostiara jun trenian, eta korridia*

ikusi nobixiakín junda, eta atzera etorri trenian, eta Butronguan afaldu etxerakuan, eta errial birekin etxera. Sei pezetak zenbat balixo zebeñ orduan!

Bestalde, ez nuke aipatu gabe utzi nahi perpauseko osagaien arteko hurrenkerari dagokion kontu bat; elipsiaren ondorioz, haren eraginez, perpauseko osagaien ordena-aldaketa adierazgarri batzuk gertatzen dia.²⁶

(1749) *Euskeraz eziñ eiñ, eta erderaz jakiñ ez [ez jakiñ (genkixen)]. Horrek zittuazen komerixak!*

(1750) *Laga ez [ez (niuen) laga] harek neskak eruatzen; bestela, bajiezak!*

(1751) *Baiña neri akordau ez [ez (jatan) akordatu], azeleradora lagako zabanikan.*

(1752) *Lana? Biharko egin [ein biharko] bizimodua aurrera etarako badou!*

5.5. ERREPIKAPENAK

Ahozko jardunean erruz erabiltzen dira errepikapenak ere, zerbaiti enfasi edo indar berezia eman nahian edo: errepikapen indargarriak dira, osagai baten gainean enfasi berezia egin nahi dugun kasuetan erabiltzen direnak. Errepikatzen den osagaia edozer kategoria gramatikaletakoa izan daiteke: batzuetan, erakusleren bat izan daiteke; beste batzuetan, izenondoa, aditza edo perpausa bera ere bai. Betiere, esaten duguna indartzeko, gure jardunari indar berezia emateko.

Hona Elgoibarko jardunetik bildu ditugun adibide batzuk:

(1753) *Hori dok markia, hori!*

(1754) *Haura zan ona, haura! Haura zan egur-hotsa harek atara zabana!*

(1755) *Hi bizi haiz, bi!*

(1756) *Gizon txiki-txiki bat zuan.*

(1757) *Ba(d)akitt astuak haruzkuan neka-neka einda jute ziala.*

(1758) *Eta gero txarren-txarrena zuan, zera, biderik ez basarrixetara.*

(1759) *Oin, dan-danak ezautzen jaittuu, pelotari danak.*

(1760) *Bi buelta emate jaittuk horrek. Ordu-orduan gaiñera. Hor hamaikak aldian ero, goizekua...*

(1761) *Andres ume txiki-txikixa zan.*

²⁶ Parentesi artean eman dut elipsirik ez izatera perpauseko zenbait osagaik izango luketen hurrenkerak kanonikoa.

(1762) *Aitta ta ama euskaldun itxi-itxixak dittuenak hobeto eitte juek gu(k) paiño.*

(1763) *Hiru zati. Baatik ze ein naban? Lodi-lodixak aurretikan ebai pixkat erdiraiño.*

(1764) —*Eta etortze'ia? Domeketan etortze'ia? —Bai, askotan. Ba, beti-beti eztittuk etortzen, baiña...*

(1765) *Ur apurtxo bat botatze jauat bakar-bakarrikan: hola eiñ, eta ttak! Ur pixkat-pixkat. Hauxe eskatze jok bakar-bakarrikan.*

(1766) *Eta linterniakñ, eta ix'ixa baztarrera allegauan ezkerretara dauka potzu bat.*

(1767) *Baitta iñoiz-iñoiz tokatze zuan kozinara jutia ere.*

(1768) *Lotsagabiau zan, lotsagabiau...*

(1769) *Mozoluaua haiz, mozoluaua...*

(1770) *Hamarna urte, harek seme-alabak. Bikixak dia, bikixak.*

• Errepikapen hirukoitzak

Errepikapen hirukoitzak ere ugariak dira. Izenondoak dira askotan hiru aldiz errepikatzen diren hauek, adibideetan konturatuko garen bezala:

(1771) *Eta linterniakñ, eta ix'ixa baztarrera allegauan ezkerretara dauka potzu bat. Ur zuri-zuri-zurixa ikusten da gainera, garbi-garbi-garbixa barruan. Tan, tan, tan! Haitzak ematen daban koloria. Baiña garbi-garbi-garbixa, e!*

(1772) *Txalet berri-berri-berrixa, geñera, hau nekazari-turismokua.*

(1773) *Pasiara edarra [Benidormen]. Hori lau-lau-laua.*

(1774) *Zortzi milla pezta-ta partidu fubola ikustia, orduterdixan kanpo librian, haizia ta eurixa uial da, han; zer da hori! Sikiera, pelota-partido bat, ba, “dos mil kinientas” kobratze'izue, “tres mil”, da sartze zara lau terdietan, da ertetzen dozu illuntziko zortzi txerdietan: epel-epel-epelian zaure.*

(1775) *Hala, “retiraros a vuestros caseríos”. Ixi-ixill-ixilikan etxera orduan-txe. Da dana, honek, Franconok, hartu zaben San Pedro.*

(1776) *Pentsa'izu noiz izango zan: ni txiki-txiki-txikixa, akordatze naiz.*

• Errepikapena eta hurrenkera-aldaketa

Batzuetan, perpausa bera da errepikatzen dena, beharbada perpausoko osagaien bat elidituta, halabeharrez edo estiloak hala eskatuta. Kasu honetan, esaldiko osagaien hitz-ordena aldatzen da. Estiloan bariazioa bilatu nahian edo egiten dira halako errepikapenak.

Hona hemen adibide batzuk:

(1777) *Han eztao jausteko bilddurrik: haura eztok zabala, zabala eztok.*

- (1778) *Piñua ezpalitz basarrixan, gaur ere asko bizi eziñ eiñ. Ezin bizi hor.*
 (1779) *Eta eskerrak horritxi, horritxi eskerrak, hantxe salbau nitzan.*
 (1780) *Oiñ, abrillian eta horretan, Aste Santuan da, gaztia dana, dana gaztia.*
 (1781) —*Basarrixan paroik eztao. —Eztao paroikan.*
 (1782) *Gu artian, hona etorri zianian, etxian; etxian artian gu.*
 (1783) *Zuk botatzen ba'ozu perrejilla hil berrixan, zatixa lenao goratu itxe jatzu, ta hilberan botatzen ba'ozu, ezta goratzen hala: alde haundixa dao, haundixa aldia.*
 (1784) *Basarrixan derrior euki bi'ozu txakurra. (...) Txakurra derrior bi'ozu basarrixan.*
 (1785) *Gerria da azkena! Azkena da gerria, e!*

Bariazioa egiten da, halaber, formazko barik zentzuzko errepikapen haue-
tan ere:

- (1786) *Mesedez eta faborez eskatze izut: ekarri behingoz nere liburuak!*
 (1787) *Ni aldrebesa izango nok, baiña heu ere... antzerako parezido!*

• **Hitzen forma (eta ahoskera) ere alda daiteke** zenbaitetan, errepikapene-
na dela eta:

- (1788) *Sarjentua ez, primerian aurrekua, alfereza. Bel-beltza!*
 (1789) *“Tupi” esate ziuen eurak, bel-beltza etortze zan da, eske.*
 (1790) *Ixi-ixilik geatu nitzan.*

• **Maiztasuna** adierazten duten errepikapenak

Maiztasuna adierazteko ere egiten dira errepikapenak; denbora adierazten
duten hitzen errepikapenak izaten dira:

- (1791) —*Karruakin ibiltze zan hori? —Bai, herririk herri ibiltze zan, as-
tian-astian eitxe zaban rekorridua... (= astero)*
 (1792) *Mordua, pilla haundixa eitte genduan kanpuan estalpian, aterpian.*
Eta egunian-egunian biha zana. (= egunero)
 (1793) *Lau urtetik lau urtera izate ittuk Olinpiadak.*

• **Aditzaren errepikapenak**

Egitura sintaktiko batzuk ere aditzaren errepikapena dute ezinbesteko ba-
liabide:

- (1794) *Esan banaban, esan naban! Enaue bakian lagatzen harrezkero!*
 (1795) *Ein zaban lana, ein zabanez!*
 (1796) *Ibili zan, ibili zanez!*

• **Soinuen errepikapenak**

Horago esan dut edozer errepika dezakegula gure jardunean, dena delako horri enfasi berezia emateko. Soinuak ere errepikatu (edo luzatu) ohi dira, indar berezi hori lortzeko:

(1797) *Polittaaaaa!*

(1798) *Txorruaaaaa!*

(1799) *Oooooo lan edarra ein dau.*²⁷

(1800) —*Ikasi, zeoze ikaste zenduen bestela?* —*Baaai!* *Ikasiko ez genduan, ba? Ikasi? Baaai!*

(1801) *Hantxe errekan birek esplotau zebeñ han [bi bonbak]. Jota esplotau zebeñian, jota ura goora baiña! Zelako txorrua! Buenooo!*

(1802) *Dedioooo!*

• **Oihartzun-egiturak**

Orain arte aipatu ditugunak errepikapen monologikoak dira, alegia, hiztun bakar batek egiten dituenak; baina badira errepikapen dialogikoak ere, hau da, errepikapenean mintzakideek parte hartzen duten kasuak. *Oihartzun-egiturak* esan izan zaie azken hauei, eta ondorengo hau bezalako adibide asko aurkitu daitezke grabatutako testuetan.

(1803) —*Gerra ondorena gogorra izan zuan...*

—*Gogorra izan zuan, bai.*

5.6. KONTAKIZUNAK BIDERATZEKO MOLDEAK

- *ETA* juntagailua (*TA* eta *DA* aldaerak):

(1804) *Bueltak ematen da, bueltak ematen da. Ondo ete dao? Oindio ere ta.*

(1805) *Hantxe euzkixa zauan arte, eta gero, illuntzixan lan asko eitteko, eta arrapataka, hauraxe eñ ezinda.*

(1806) *Domusantu egunetan, egun horretan hiru meza emate zitxuan apaiz bakoitzak; hiru. Eta, lenengua goizian lauretan edo lau t'erdietan edo. Eta, holaxe juate giñan. Ni gogoratzen naiz, gure aitxa zanak, etxian (gu bizi giñan planta bajaran, eta gero lelengo pisuan)... lelengo pisuan zaukaun, hango sala baten, su bajua, eta gaztaiñak erretze zitxuan gure aitxak, batez ere Domusantu egunian. Eta izate zan gaztaiña-erre eunan moduan eo, lenengo aldiz gaztaiñak*

²⁷ Graduatzailerekin askotan egiten da errepikapena edo soinu-luzatzea.

erretze zian euna. *Eta, haretzek, gero illuntzixan, gaztaiñak afalonduan jan, eta hurrengo goizerako ere, preparau, eta, hárek janaz, mezetara.*

▪ ZER DA, TA ... (ZE, TA...):

(1807) *Sospetxa bat bai txarra. Joño, zer da, ta ...*

(1808) (...) *Zer da, ta nere aurretik bera hill!*

(1809) (...) *Ze, ta eibartarrak jun dia Markiñara, eta (...).*

▪ HOLA TA HOLA, HAU TA HAU...

(1810) *Tallarretik natorrela, hola ta hola, "lagundu ein biha'iak, lagundu ein biha'iak".*

(1811) *"Benga, Zumarra(ga)ra jun bi'ou hola ta hola, ta autuakin da". (...) Zumarra(ga)ra. Ta orduan hori eitxia... Ba jolin, zera zuan, haundixa!*

(1812) *Hau ta hau esan zian.*

(1813) *Eta gero, etorri hola, eta nik ikusi, eta eztakit ze ta badakit ze, eta hamen zauana enkargau Gorriti zanak. Eta bestiak eztakit zelako, badakit zelako ta (...).*

▪ KONTAKIZUNETAKO BETEGARRIAK eta MAKULUAK

- ZER (ZERA, ZEREKO ZERA, ZERTU...)

Ahozko jardunean arruntak dira isiluneak: hitz bat ez zaigunean burura etortzen, esaterako. Isilune horiek betetzeko, makuluak edo betegarriak ditu eskura ahoz ari den hiztunak. Jakina, hizkuntzaren zer erregistrotan ari garen, balioko digute edo ez digute balioko (ez baitirudite egokiak idatzirako, edota ahozko jardun formal baterako), baina hor ditugu batzuk, zenbait testuingurutan komunikaziorako lagungarri gerta dakizkigukeenak. Aipamen berezia merezi du ZERA betegarriak. Momentuan hitz bat esan nahi ez (ulertutzat ematen dugulako), edo burura (ahora) etorri ez, eta ZERA hori erabiltzen dugu haren ordeztu, ordezkatzan duen hitzak eramango lituzkeen ezaugarri gramatikal eta guzti (horiek bai baititugu buruan): izena baldin bada, hondarkiarekin (zera, zerean, zereko...), eta aditza baldin bada, aditzaren morfemekin (zertzen, zertzera...)²⁸. Esaldia egituratzen lagunduko digute, harik eta ordezkatzan duten hitza burura etortzen zaigun arte.²⁹

²⁸ Beste kontu bat litzateke komunikazioarekin zerikusi handiegirik ez duen "gaixotasun" moduko bat; alegia, zenbait hiztunek, nagikeriak jota edo, behin eta berriz hiztegiara jotzeari utzi, eta ZER-ez beteriko esaldiak osatzen dituzte. Gauzak mutur-muturrera eramanda, hone-lako esaldi irriarriez ari naiz:

• *Zereko zerak zertu dio liburua zerari, zerian.*

²⁹ Ahozko jardun arduragabean, gazteleratiko *Esto* ere erabiltzen da, antzeko helburuarekin.

Hona adibide batzuk:

(1814) *Ba, arboliaik gero kerizia. Eta horixe, bueltan etxia pixkat zertu eitten dau...*

(1815) *San Migel, hamen inguruetan dagon zeerik edarreña dao oiñ [auzorik edarreña].*

(1816) *Jai-egunetan? Ezer ez guk. Juntatze gea hamentxe lau laguntxo zapa-tu atsaldian, eta zeian... jokuan eiñ.*

(1817) *Rejimentua zera zan, "Sexta región veterinaria".*

(1818) *Ordukotxia goguan, baiña kaleko umiak zea jakingo juek beste gau-zarikan!*

(1819) *Zera-ta barrez. Harek pixkat serixuao eon balira, iual hobe.*

(1820) *Jute giñuazen eskolara, eta han eote giñuazen, bestiak aurrian da gu beti atzeko zerian, filan.*

(1821) *Ezin ba jun zeera... bakaziotara.*

(1822) *Andra bat dao hamen, Zestuakua da izatez, baiña hor zerian bizi da, Markiñan.*

- JOTA...

(1823) *Jota ura nundikan dixen, jota handik juten da aguro aingiria!*

(1824) *Hantxe errekan birek esplotau zebeñ han [bi bonbak]. Jota esplotau zebeñian, jota ura goora baiña!*

- HALAXE KONTUAK

(1825) *Ba, hemen, halaxe gauzak.*

(1826) *Halaxe kontuak!*

(1827) *(...) Bai, bizitza gehixo. Bai, holaxe kontuak.*

- OIÑ ESANGO DIZUT

(1828) *Da Elgoibarren, oiñ esango izut, beti lelana ez zan izan erderia. Baa-kizu zetan dakitxen? Nere biarren lehengusiña Eibarren bizi dot oindiok, da harek esate zaban, ba, Elgoibarko jentia harrua zala. "Zeatzik?", esate nion. "Zeatzik don, ba?", "Erderaz eitxe jone dana".*

5.7. KONTRAKO ADIERA DUTEN UKAPENAK

Aipatzekoa iruditzen zait ezeztapenaren erabilera joria ahozko jardunean. Gertaera eta deskribapen asko eta asko adierazten dira ezezko forman, era

markatuan adierazi ere; horretarako, esan nahi denaren kontrakoa ezezkako forman jarri besterik ez:

- (1829) *Eztok belakuan etorri!*
 (1830) *Gerriaren berri baldin baakik, ez haiz gaur goizekoa (oingotxekua).*
 (1831) *Eskapadia ein juau oiñ ere kotxiakin: errekara juan ez geranian!*
 (1832) *Asko maitte dau anaixa. Eztauka, ez, saltzeko.*
 (1833) *Kontuak esan eta esan ibiltzen dok hori. Eztaok, ez, isiltzeko.*
 (1834) —*Triste eongo da, ba, lana galduta? —Eztakizu asko!*

Ezeztapenen barruan, ordea, bada beste mota bat, ugaria hau ere; eta bi-txia, inondik ere, zeren eta horrelakoetan gauza bat adierazteko haren kontrakoa esaten baitugu: ukapenak dira (ezezko formak), baina baiezko adiera dute; ez dira, hortaz, literalki hartu behar, zentzu ironikoan baizik, hitzez hitz esaten denaren kontrakoa zentzuan.

Hona hemen horren adibide batzuk:

- (1835) *Ez ibili, gero, zintzo, e!* (gurasoek seme-alabei, kalera doazenean)
 (1836) *Ez etorri goiz etxera, gero, e!* (gurasoek seme-alabei)
 (1837) —*Esan diot lata gehixao ez emateko. —Ez alperrik!*
 (1838) *Txarrikerixia eta ustelkerixia nagusi dok gaur egunian. Eztok giro baztarretan!*

• Esaten zaigunaren aurrean **harridura adierazteko** erabiltzen da ba-tzuetan:

- (1839) —*Telebisioko berbetia ta entenditzen dozue? —Entendiuko ezto, ba!*
 (1840) —*Ikasi, zeoze ikaste zenduen bestela? —Baaai! Ikesiko ez genduan, ba? Ikesi? Baaai!*
 (1841) —*Esaten dot ferixetan da, jendia ezautuko dozula. —Ezautuko ezto, ba! Ezautu? Bai.*
 (1842) —*Haura San Bartolomietan kalian bai, ezta? —Bai, jakiña. Ibilli, ibilliko da. —Ferixara ta. —Hoixe, ibilliko ezta, ba?*
 (1843) —*Ibilli ziñan eskolan? —Ibiliko enitzuan, ba!*

• Esaten dugun zerbait **enfatizatze**ko ere bai:

- (1844) *Beste baten, okela-hazurra etxata, ba, katiau [eztarrian]!*
 (1845) *Eta nungua nitzan ezttit, ba, preguntau artaburu honek!*
 (1846) *Eta gero pasau zan gerra hori, eta jun tzian. Eta amaittu zan gero. Gero, ezkondu ta gero, ez zian, ba, kartia eiñ!*

(1847) *Hartu zauan, eta dunba! Eztau, ba, bota kalian zihar Patxin eska-paratera! Automobill bat tokau balitz, akabo! Akabo!*

(1848) *Da bono, etxaan, ba, esan geo beorrek, “Aspertuta nao ni, mutill”!*

• Esan dugun zerbait **berretsi** nahi dugunean ere, ezezko forman egin ohi da galdera:

(1849) *Donostiako Semana... ee... Haundixa etxako esaten Aste Nagusixari?*

(1850) *Pilarika eguna, “doze de oktubre” eztok, pa, izaten?*

Oso ohikoak dira, halakoetan, *ezta/eztok/ez/eztakik* gisako markatzaileak, berrespen-eskatzaileak, mintzakideari arreta eskatzeko eta hiztunak esandakoa berresteko edo indartzeko erabiltzen direnak:

(1851) *Etorriko haiz gurekin mendira, eztok?*

(1852) *Etorriko zea gurekin mendira, ezta?*

(1853) *Entenditzen dozu, ez?*

(1854) *“Errezau hiru Agur Maria”, penitentzia, eztakik?*

(1859) *Da bueno, kopia ta puru bat Plazara juteako. Baakik, gizona hazi eitte jok harek, eztakik?*

Zentzu ironikoaren kontuak dira baiezko balioa duten ukapen horiek. Zentzu ironikoan esaten dena ez da literalki interpretatu behar. Orain arte deskribatu ditudan horien kontrakoa ere gerta daiteke, baina, zentzu ironikoz hitz egiten dugunean: alegia, zerbait baiezko forman esatea, baina benetan kontrakoa adierazi nahi izatea. Adibidez, ondorengo perpausan gurasoek nahi dutena da esaten dutenaren kontrakoa egitea semeak edo alabak:

(1860) —*Banixe kalera!* —*Bai, ibili hari oiñ ere frin-faran!*

Esan beharrik ez dago zentzu ironikoren erabilera honetan mezuari ematen diogun tonuak zeresan handia duela mezu horren intrepertazio egokian.

Hona era horretan interpretatu behar liratekeen beste adibide batzuk:

(1861) *Eguna argittuta allau nitzan etxera: gozua zauan gure aitta!*

(1862) *Goiz bat eztok aguantatzen lanian. Arreglauta hao zortzi ordu eitteko!*

(1863) —*Patxi Mariakin ezkondu biha dala entzun jonat. —Alaja edarra don, ba, hori!*

5.8. EUFEMISMOAK

Hitz bat edo ideia bat bere horretan esatea komeni ez denean erabiltzen ditugun “ihesi-berbak” dira eufemismoak. Itzulinguruz edo, saihestu egiten ditugu tabutzat ditugun edo momentuan esatea komeni ez den berba batzuk (mingarriak edo itsusiak gerta daitezkeelako...): horien orde, bada, eufemismoak erabiltzen dia.

Hona Elgoibarren jaso ditudan batzuk:

(1864) *Oin bakandu dittuk asko, e! Pentsa'ik, oiñ larogei urte eukitzeko, bittarte horretan zenbatek beguak ipiñiko zittuan. (= Hil).*

(1865) *Oiñ aprobetxau, hankak luzatu eta gero alperrik da-ta! (= Hil).*

(1866) *Arnasia gastau jako. (= Hil).*

(1867) *Hanka bat kanposantuan euki. (= Hilzorian egon).*

(1868) *Gaixo txarrakin hil da. (= Minbiziarekin).*

(1869) *Neska txikixetara juatia gustatze (j)ako. (= Prostitutetara).*

(1870) *Lanak aurretik ein dittualako ezkondu biha da Joxe. (= Haurdun geratu).*

(1871) *Beteta laga jok nobixia. (= Haurdun utzi)*

(1872) *Kristonak ein jittuk, eta barrura sartu juek ixa-ixa. (= Kartzelara sartu)*

(1873) *Zintzo portau hari, hor goiko hori akordauko dok bestela eta! (= Jainkoa)*

(1874) *Ez, ez, kalian eztago lekurikan. Eta, geñera, kalian kotxia nun lagarik eztao. Errekauletara junda ere, segittuan daukazu txartela eitten. .. (= Isuna jartzen).*

(1875) *Gizonen etxian bonbia jarri zeбен. (= Guardia Zibila).*

(1876) *Kajatik ekarrittako umia dok hori. (= Umezurztegitik ekarritako umea).*

(1877) *Emakumiori esnekixa hartzia komeni jaku, hona omen da erretirora alleatzen geanerako. (= Menopausia).*

• **Biraoak nolabait disimulatzea, leuntzea** ere eufemismotzat har liteke. Hona hemen adibide batzuk (parentesi artean eman dut leundu nahi izan dena):

(1878) *Brometan mouan esan nion: “Ño, ezta merkia!”. (= Koño!)*

(1879) *Joño! Ez zea bela azaldu! (= Koño!)*

(1880) *Dedio! Eztok giro aspaldixan elur honekin! (= Redios!)*

(1881) *Euskaldunak jate juen... Mekauen diez! (= Mekauen Dios!)*

(1882) *Da zapata garbixak, illia ere oin daukaten baiño txikixaua. Hobeto arrelauta, eta jolin, nahiz ta lepua mehia euki, illia kenduta behintzat. (= Joder!)*

5.9. ERDARAKADAK

Betidanik esan izan da gure hizkeran eta ingurukoetan erdarakadak nahikotxo erabiltzeko joera dugula. Egia da hori, neurri batean: ahozko jardunean behintzat, bereziki erabilera lagunartekoan (eta are gehiago, lagunarteko erregistroaren barruan, jardun arduragabea), arrunta da zenbaitetan, euskarazko ordain garbia duten kasuetan ere, erdal forma erabiltzea³⁰. Jakina da, era berean, normalean jardun zainduagoan (ahozkoan nahiz idatzizkoan) erabiltzeko ez genituzkeen hitzak erabiltzen direla ahozko jardun lasaian eta lagunartekoan. Hori argi uztea komeni da lehenik eta behin.

Horretaz gain, aitortu beharra dago “erdal” forma horietako batzuk badutela beren tradiziozkoa, egin dituztela gure hizkuntzan beren sustraitxoak; nekez ausartuko nintzateke, ni behintzat, halakoak ez jasotzera, baztergarriztat jotzera: batez ere, eta iritziak iritzi, gure hizkeraren parte direla iruditzen zaidalako; gure hizkeraren ezaugarrietako bat den bezala ustezko erdarakadetarako joera hori.

Beste hitz batzuk, hori bai, oso azken ordukoak dira. Horiek beste maila batean jarriko nituzke nik, zeren eta, batetik, ez baitute tradiziozkoak, eta, bestetik, zenbait kasutan arrisku handiagoa ikusten baitiet, hizkuntzaren maila guztietakoak direlarik; hizkuntzaren beraren muineraino iristen da gaitza: orain arteko erdarakadak (sustraituagoak direnak) hiztegiaren mailan geratzen ziren normalean, hizkuntzaren “gorputzaren” azalean, nolabait esateko. Gaur egungo beste batzuk, ordea, gramatikaren maila sakonagoetara iristen dira, hizkuntzaren egitura sintaktikoetara; eta hor bai ikusten dut arriskua eta kalko horien kontra gogorrago egin beharra.³¹

Ondoren batu ditudanak adinekoen jardunekoak dira. Nire ustez, lagunarteko jardun arduragabea lukete lekua, izatekotan, eta ez jardun zainduan.

³⁰ Erdarakaden joera hori bera aitortu zuten aspaldi samar Basauri-San Martinek (1972) eibartarren euskararen kasuan, baina garrantzia kentzen diote fenomeno honi, honela erantzunez eibartarren erdarakadetarako joera horri garrantzi handiegia ematen diotenei: “bizitzako beharretan har-emanak aberats adierazteko ahalmen berezi bat ematen duten hitz eta aditz jokoan akaburik gabeko ugaritasunaz oharitu gabe”.

³¹ Gaur egungo gaztetxoek hizkeran badira, izan, kalko lexikalak baino “arriskutsuagoak” diruditen erdarakadak:

- **A ke jotzen dizut!*
- **Atxagaren liburua erosi dizut, zeba badakitt gustatzen jatzula.*
- **Ezagutzen dot gizon bat bi metro daukazela.*
- **—Baloia kenduko dizut, Asier! —Si ni ez naiz izan.*

▪ **Lokailuak** izan daitezke erdarakada mota bat, hau da, zenbait mendera-gailu edo lokailu:

(1883) *Txixarruan entzueria eukiko'zu? Txixarruan tallarra, Txixarruana. Osea, Azkoittiko karreteran tren-zubixan, oiñ Alkortak bota dau, ba?*

(1884) *Len oiñez jun bihar mediku eske. Eta oiñ, sikiera, kotxiakin jute zara, eta di-da ekarri.*

(1885) *Len jentia goixan eote zan, goiko plaza aldian dana. Oiñ, en kanbio, Maala aldian, gazte jentia ta, dana.*

(1886) —*Aitxak ere ortua daka, eta hor ibiltzen da eualdixa gora-behera. —Bai, bai, eske, hamen humedadia dao asko, e!*

(1887) *Baiña, ikusi genduzen... esan diot majiña bat bidar honi: aldrebes etorri balira, batekin gerauko giñan, porke guri kostau zitzakun hori, txikixa, neskia... mutillan moduko hiru hobe zan hori ba(t) paiño!*

▪ **Zenbakiak** aipatzerakoan ere (urtea eta adina batez ere), euskaraz alfabetatu gabeko hiztunek sarritan jotzen dute erdal formetara:³²

(1888) *“Mil novecientos veinte”. Osea, “setenta y ocho años” einda naok, jun dan urtian otubrian.*

(1889) *“Trenta y ochua” salbau ein tzan jun be, baiña guk jun bihar izan gendun.*

(1890) *Ezkondu, ba, “el año cuarenta y ocho” ein giñan.*

(1891) *Gure aitxa ziharduan lanian “de siete de la mañana a siete de la tarde”.*

(1892) *Eta handik aurrerakua, berrogeta sei urte total tallarrian, ein nitxuan. Mordo bat, e! “Cuarentaiseis años”, tallarrian ein nitxuan.*

▪ **Hiztegian, hitz arruntetan** gertatzen dira erdarakada gehienak:

(1893) *Gero, eskolatikan, ba, direto jun giñan.*

(1894) *Eta, efetivamente, haraxe juan tzian, eta al tzabanak al tzaban leku-
ra juan bihar.*

(1895) *Bai, Bilbon sartu giñanian, lanian sartu giñan tallar baten. “Univer-
sidad de Deusto”, Salesianos. Eta oiñ ganbixauta dao, total.*

³² Seguru asko gaztelaniaz alfabetatu zirelako zenbaki kontuetan. Gauza bertsua esan daiteke urteko hilen izenekin gertatzen den fenomenoaz ere: gero eta baztertuago daude hilen izen zaharrak (*ilbeltza, otsailla, martixa, loraila, zemendixa...*) eta erabateko presentzia dute gaur egungo adineko hiztunetan erdaratikako hilen izenek (*enerua, febrerua, martzua, maietza, nobienbria...*).

(1896) *Ni autobusian gustora juate naiz, e! Baztarretara beitzu, eta aber modifikaziorik eon dan, ero bestia ero...*

(1897) *Batzuek eitten dabe hamendikan ezkondu kanpora. Hemengua kanpora ezkondu, horra Azpeitti, Azkoitti edo Andoaiñ. Eta horrek ya, entzegida hartzen dabe hangua.*

(1898) *Geuri berbetan eurak baldin badihardue, ba, soltatze jakuz geuri ere, euren berba batzuk, euren tipora berba eittia. Baiña kontinuamente, ez.*

(1899) *Jarri giñan de akuerdo harek esate zabanera bixok.*

▪ **Interjekzioak** ere izaten dira mailegu-iturri:

(1900) *Jaixan-da tokatzen zanian, bien. Baiña astegunian da hola, ba, eziñ izete zan juañ noiznabi. Lana iual eitteko etxian da.*

(1901) —*Oporretara kanpora jute zeate? —Keba!*

5.10. HITZ-ORDENA BEREZIA

Atal honetan hizpide dudak gaiak ere azterketa sakonak ekarri ditu eta ekarriko ditu oraindik ere. Ur sakonegietan sartu gabe, hitz-ordena markatuaren adierazgarritasun-ahalmena aipatu besterik ez dut nahi. Hanpatu edo markatu nahi den osagaia era jakin batean markatu nahi izaten da ahozko mintzamolde adierazgarrietan. Horretarako, aditzaren aurreko kokalekua edota, mintzagai hanpatuaren kasuan, perpaus hasiera izaten dira indar berezi hori markatzeko guneak.

Kasu hauetan, lehenbizi garrantzitsuagoa den informazioa ematen da, eta gero bigarren mailakoa. Adibideen eskuin aldean, kakotx artean, ordena neutroa zein litzatekeen adierazi dut.

(1902) —*Oin badaukazue ganaurik? —Ardixak oiñ. [Oiñ ardirak (dittugu)]*

(1903) *Eta gero beste gauza bat zuan: garua mendixan. [Mendixan garua (eoten zan)]*

(1904) —*Zer ganau daukazu? —Ahuntzak, biru. Astua, bat. Bihorrek, bi. [Hiru ahuntz; Asto bat. Bi bihor/bihor bi].³³*

³³ Adibide hau bezalakoak ere ugariak dira; izen mugatua eta haren ostean zenbatzailea dutenak:

- *Istorixak asko jaukaz nik, Jesus, Maria ta Jose!*
- *Holakua mordua.*
- *Hurrengo, Elusukua dago. Hara ere igual eingo dogu. Oiñ, astixa gehixago.*

(1905) (...) *baitta hau, menua astekua ematen debe eta*. [Asteko menua].

(1906) —*Jungo al gaittuk kalera? —Ez oindik!* [Oindik ez (gaittuk juango)]

Entonazioa entonazio (horrek ere bai baitu bere garrantzia), kontua da markatuagoa, zuzenagoa eta indartsuagoa dela azken egitura hau (*EZ oraindik*) ordena neutroa daraman beste hau baino:³⁴

(1907) —*Oindik ez (gaittuk juango kalera)*.

Norbaitek mesederen bat egin ondorengo erantzuna ere (*Ez horregatik*), ordena adierazgarri horren erakusgarria da, erabiliaren erabiliaz fosildu eta indarra galdu badu ere. Gauza bera honako hauen kasuan ere:

(1908) *Gauzak asko aldrebestu dia*. (neutroagoa)

(1909) *ASKO aldrebestu dia gauzak*. (markatuagoa)

Ahozko jarduneko kontakizunetan, oso arrunta da garrantzitsuagotzat jotzen dena aurretik ematea eta bigarren mailakotzat jotzen dena atzera eramatea; adibidez, ondorengo pasarte honetan, berri-emaileak lehendabizi adierazi nahi izan duena da TREN bat etorri zela, mintzakidea lehendabizi horretaz jabetzea nahi du; gero esango du tren hori ESPEZIALA (berezia) zela, behin lehenbiziko informazioa segurtatuta duenean:

(1910) *Hamen geldittuta gau batian, gabeko beatzirak-hamarrek inguruan akordatze naiz nola tren bat etorri zan espeziala, neu ere alleau nitzan Altzolaraiño, eta heriduak eta aldatu eta hoteletara, zeera, balnearixora*.

Oro har, esan daiteke hitz-ordena malgu samarra aurkitzen dugula ahozko jardunean; mezua jasotzeko moduak (ahoz eman eta belarriz jaso) baldintzatuta, neurri handi batean. Kontua da oso ugaria dela esaldiaren pisua aurrera ekartzea, adibidez, aditza (esaldiaren antolatzailea) aurrera ekartzea. Nahi adina adibide aurkituko ditugu edozein testu ahozkotan.

Hona hemen batzuk:

(1911) *Nik karneta jaukat, ba...*, “*natural de Bilbao*”.

(1912) *Eta ein jauen haruntzian papelakin itxi haura*.

(1913) *Eta gero, eruan nahi zittuen hemengo Joxepa zana ta, Nikolasa ta horrek, eruan nahi zittuen aurrera. Eta aittak ezetz*.

(1914) *Ondo geunden. Bageundezen... hiru lagun zian eurak, eta beste bost kriaue edo bagenguazen*.

³⁴ Ordena markatua/neutroa oposizio hau erabiltzeko, Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I (Eraskina)* liburuan esaten dena hartu dut oinarritzat.

- (1915) *Kozineria ere zan Fuentarrabixakua, euskaldun jatorra.*
 (1916) *Beste bat gustatze zitzatan geografixia. Hartze naban dana buruz.*
 (1917) *Ni ibili naiz, ba, Deba aldian da... Gero ibili naiz batian eta bes-tian, geldittu be.*
 (1918) *Orduan hori zan sagraua.*
 (1919) *Han cote zan eskola bat, eta barrixokuak hara jute giñan.*
 (1920) *Oin batzuek-batzuek eitten dabe hamendikan ezkondu kanpora.*

• Galdegaia aurreratzeko estrategien artean, egitura kataforikoena dugu, ahozko jardunean nahikotxo erabiltzen dena:

(1921) *Baiña, fubolari gauza bat ikuste'iot nik txarra: kanpoko jentia ekar-tze juek. Hainbeste milla milloie pagauta. Eta hamen bertako gaztiak?*

(1922) *Da hor ere problema txarra dao: familixia apurtuta geatzen da. Gi-zona jute jatzu, e(g)un guztian han.*

(1923) *Eta gero beste gauza bat zuan: garua mendixan.*

(1924) *Da beste baten pasau zan politxa: eztakiu, ba, zela izen zan. Luis beti ibiltze zan hari manejatzen, da Luisek... Beno, harek tirantiak zeukazen, ezta? Ta tirantiak...*

(1925) *Eta, akordatze naiz detallia: zaudezen danak militararak, militar kar-gua, kargoko militararak, erdi desabrotxauta; hango keia! Danak erretzen! Batzuek... ez zauken eskaperikan, da harek fusilau eingo zitxuen seguru, zeatik eze (...).*

• Azkenik, deiktikoen erabilera bat aipatu nahi nuke: lehendabizi deiktikoa erabiltzea elkarriketakideak kokatzeko, eta horren ostean kokapen hori mugatzea, zehaztea:

(1926) *Bai, Santa Luzietan eitten dia horrek. Eta gero, hamen Markiñan ere bai, eta hor Elorrixon ere bai, eta... Hórretara jutun gera.*

(1927) *Hamen radixuan, ba, Arrate ipintzen dou.*

(1928) *Gure aurreko hau, lenguetakua, hamen Mintxeta basarrixa?*

(1929) (...) *iu al bidia ebaiko juek hor Urkareñ, eta ezin pasauko nok Mar-kiñara; hor iual Altzola aldetikan ixo eta alleau leikezak hona Urkareira.*

5.11. HASIERA-MARKATZAILEA DUTEN MENDEKO PERPAUSAK

Ahozko jardunaren estiloa parataxiaren aldekoagoa da hipotaxiaren alde-koa baino, baina horrek ez du esan nahi ahozko jardunean mendeko perpau-sak erabiltzen ez direnik. Hori bai, agertzen diren mendeko perpausen artean

deskodetzen errazenak dira nagusi. Arreta berezia merezi dute mendekoaren aurreko buruan markatzaile sintaktikoren bat dutenek (Euskaltzaindiaren gramatika lokailu ere esan izan zaienak³⁵): perpaus mendekoaren hasiera-hasieratik hura zer eratakoa den iragartzen digutenak dira, eta askotan hizkuntza erromantzeen bitartez iritsi zaizkigu euskarara.

Jaso ditzagun hemen adibide batzuk:³⁶

(1930) *Eta esaten jardun zien eze haura eitteko berroeta bi milloi arbola kendu zittuela.*

(1931) *Eta lehen esan douna, bedarra ebai biha dounian-da ia ze esate deben egualdixaatikan; ezta kik?*

(1932) *Harik eta etxeko lan danak amaittu arte, ez giñan oheratzen.*

(1933) *Lo eitte det, baiña esna ere asko. Nik, behin goizeko hirurak ezkero, gau oso bat ez tet eiñ.*

(1934) *Ez zan komeni han gelditzerikan, zeatik eze berriz ere beste dispare bat ero, neu hantxe nauala iual alleauko zan.*

(1935) *Ba, zure ama, bueno, ama ta aitta ere, hamen zela San Lo(re)ntzokuak dian bixak, ba, guk ibilli doun euseria iuala da.*

(1936) *Antxobia txakurraundixan baldin badao, ekarri. Eta handik gora badao, ez ekarri.*

(1937) *Maaltzan ere eitte zuan erromerixia. Eta beste erromerixa bat gu izete giñana, oiñez jun bi izete zuan, eta urruti, Usartzan.*

5.12. BESTELAKO EZAUGARRI AIPAGARRI BATZUK

Beste atal edo azpiataletan kokatu ezin diren egiturak sartu ditut hemen; beraz, askotariko egiturak agertuko dira; kontua da interesgarriak eta aipatzeko modukoak iruditu zaizkidala ahozko jarduna deskribatzeko, eta nonbait sartu behar. Hementxe doaz, bada, egitura horiek, nahas-mahasean.

• Estilo zuzena:

Etengabea da estilo zuzenaren presentzia ahozko testu lagunartekoetan, hauetan gertaerak eta elkarrizketak kontatzea oso arrunta baita. Bai beste per-

³⁵ *Lotura-hitz iragarleak* esaten diete, adibidez, Zubimendik eta Esnalek (Zubimendi-Esna, 1993). Gramatika batzordeak horiei *lokailu* esaten die (testu-antolatzaile funtzioa duten gailuez gain), eta halaxe darabilt nik ere lan honetan.

³⁶ Sintaxiari dagokion kapituluan, laugarrean, adibide gehiago aurkituko ditu halakoen bila dabilenak.

tsona baten hitzak jasotzeko, bai kontatzailerenek berarenak (bere buruari esaten dizkionak) jasotzeko ere, erabiltzen da estilo zuzena.

Hona adibide batzuk:

(1938) *Nik aittari galderia: “Aitta, han hola ta hola badao, ba?”*

(1939) *Hala esan nion nere buruari: “Ez hari negozio horretan sartu!”.*

(1940) *Eta nere artian: “Hau dok pagotxa, hau!”.*

(1941) *Esan naban: “Hau zela pagatze juek?”.*

• **Mailegutza berezia:**

Hitz mailegatu batzuk erabilera adierazgarrian bakarrik entzuten dira; erabilera neutroan ez dute lekurik, Elgoibarko euskararen bederen (adibideen eskuin aldean, barra etzanaren eskuin aldean, adierazi nahi izan dut ezinezkoa dela erabilera neutro hori):

(1942) *Lehen grandia zuan motorra eukitzia, gero, e! / *Etxe grandia erosi dot.*

(1943) *Hik dakak, hik, sanidadia, Patxi! Ordu bixetan Bilbon eon bihar, eta ordu bat t’erdixetan Elgoibarren hao! / *Sanidade [osasan] ona dauka Inaziok.*

(1944) *Han espezial ibili giñuazen! / ?Gizon espeziala da hori.*

(1945) *Terriblia dok gure Inazio! / *Etxe terriblia (etxe bildurgarrixa, bai).*

(1946) *Hori da printzipalena. / ?Kamiño printzipala hartu bi’ozu.*

(1947) *Kantidadia etortzen zittuan Eibartik [futbolera]! / ?Jende kantidade egokixa etorri da.*

• **Graduatzaile, atzizki, zenbatzaile eta izenlagun indargarriak** egitura adierazgarrietan:

(1948) *Goixa zauan behera etorritta zati haundi bat, jausitta. Baiña haundixa zulua! Bueno, ikeragarrixa baiña zulua, e!*

(1949) *Eta, holaxe juan giñan Debara, eualdi ikaragarrizko edarra ta, atsaldeko lauretatik bostetara bittartian ero, hor ikusi genduan nola itxasuan sartze zan astillerotikan.*

(1950) *Egun horretan, guk ezer ez zakigula, jantzi zian danak mezatik er-tenda, ta arkuia ein ziun ertetzeko. Dantza eta... bueno... sekulako mezia ere preparau zeben!*

(1951) *Makaleko juergia ein genduan San Mateuetan!*

(1952) *Egundoko egun edarra pasau gendun domekan!*

(1953) *Demaseko jipoia eman jaen lehenguan semiari, pelotan.*

(1954) *Honek danak hartu jaittuk? Eneee, makiña bat txorimalo-useiñ hartu jok!*

(1955) *Makiñatxo bat urte pasau dittuk zinera batere juan gabe.⁸⁷*

(1956) *Politt askua dok ume hori!*

(1957) *Kriston neska politta da!*

(1958) *Hau dok, hau, etxezarra!*

(1959) *Gure aitta zana zuan gizonkotia!*

• **Indargarri fonikoak:**

Doinu edo ahoskera markatua ere erabil daiteke indargarri gisa:

(1960) *GELDUA zuan, ba!*

Hitz bat silabaka ahoskatzeak ere indar berezia eman diezaioke esanari:

(1961) *NAZ-KAU-TA naukazu.*

(1962) *TXO-TXO-LU-A!*

(1963) *Lagatzeko BA-KI-AN!*

Gorago aipatu dudan luzapen bokalikoa ere indargarria da:

(1964) *Edarraaaa!*

(1965) *Edarra bertsuaaaa!*

• **Bokatibo adierazgarriak:**

(1966) *Motellak! Hori dok, hori, ganoria daukazuena!*

(1967) *Emakumia! Hori ezton hola eitten!*

• **Egitura antitetikoak:**

(1968) *Dianak eta eztianak esan niozen.*

(1869) *Daukanak eta eztaukanak atera dioz Patxik anaixari.*

• **Hiperbolea:**

(1970) *Etxaok aman semerik neri musian irabaziko dianik!*

(1971) *Elgoibarren eztao haura ezautzen eztaban txakurrik!*

(1972) *Baria baiño motelaua zuan, motell!*

(1973) *Bai, neuk ere len euskera gehixao eitte najuan, garbixao, baiña oin-guan moruan ez, e! Jesukriston denporakua eitte genduan.*

• **Entonazioa:**

³⁷ -txo atzizkia ere oso sarri erabiltzen da erabilera adierazgarrian.

Funtzio komunikatiboak (asertzioa, galdera, agindua...) bereizteko ahalmenaz gain, lagunarteko jardunean funtzio adierazgarria ere izan lezake; kasuan kasuko entonazioak adieraz dezake hitzunak esaten duenarekiko duen sentimendua edo jarrera: haserrea, harridura, tristura, poza... Hauek guztiak adieraz daitezke baliabide suprasegmental honen bitartez.

Goranzko edo beheranzko entonazioak, konnotazio desberdina dakarkio esanari; honako bi adibide hauetan, bigarrenak kortesiazko kutsu handiagoa du, adibidez:

(1974) *Orduan, ni juatia nahi dozu*↑?

(1975) *Orduan, ni juatia nahi dozu*↓?

• **Mintzakideak osatu behar dituen enuntziatu bertan behera utziak:**

(1976) *Zan pertsona bat ... (zoragarrixa)*

(1977) *Jakin izan banau... (ez neuke ingo)*

(1978) *Ahalegindu, ahalegintzen nok; oiñ, lortu... (etxuat lortzen)*

• **Orainaldia iraganeko pasarteak kontatzean:**

(1979) *Han fundiziuan lanian jardunda. Jun hara Goiko Errotako presara. Bat Errekartekua, da bestia zeekua... enaiz akordatzen oiñ. Da han, bixak sartu dia hara, da jun dia izarditxan. Udia, bai, baiña zerian da itxuria zeoze janda ero, ta sartu zian barrura, ta kortau [digestioa]. Ta itxo han. Eta gero beste batzuek, mutill haundixak han. Ta hor sartu itxuk. Eta ezta pentsau ere zerikan, juterikan. Elgoibarren pasatze zianak, bua!*

• **Neurriak** adierazteko egitura batzuk:

(1980) *Pixu haundixa zakan, ehun da hogei kilo zan, hil tzanian.*

(1981) *Presiak daukaz ehun da hoeta hiru metro alturan... Eta luzian, ba, luzian da, ba, harek eukiko deu luzian, Elgoibarko estaziotikan horraiño bai, mendiraiño bai luzian.*

(1982) *Eta luzian hartzen deu, ehun da laroeta... eztakitx hamahiru ala hamabi kilometro. Eta zabalian berroeta bi. Osea, itxasua da, konpletamente itxasua.*

(1983) *Osea ke, hemendikan horra baiño altuaua. Eta beste metro t'ardi bat bai altua, gora. Eta holakotxe galdarak.*

(1984) *Gasa eitzen dok eta jun, eta harekiñ egunian milla ta bostehun kilo egur erretze nitxuan.*

(1985) (...) *eta hor kriston erromerixia, frontoia bete-bete jente eote zan han dantzian, jo ta sua.*

(1986) *Hamendik eon biha da zakukada bat azukria; hamendik eon biha da patatia beste ehun kilo; hamendik eon biha da bakillaua.*

• **Gutxi gorabeherako kantitateak** adierazteko egitura bat: *bi-hiru, lau-bost...*

Ohikoa da *EDO* juntagailua erabili gabe zenbakiak elkarri lotzea, inongo juntagailurik gabe. Gutxigoraberatasuna adierazten da egitura honen bidez, eta berdin erabiltzen da kopuruekin eta orduekin. Hona adibide batzuk:

(1987) *Santa eske egunian ertetze zian tallarrian zortzi-hamar lagun.*

(1988) —*Badaukazu lorarik?* —*Bai, beatzi-hamar bai.*

(1989) *Lau-bost klaseko lorak: gorrixak, zurixak eta edarrak.*

(1990) *Larraitz; han ere hiru-lau taberna daure.*

(1991) *Gerran, han bi-hiru urtian haura, eta gu hemen.*

(1992) *Egunero eote zittuan han gaztiak, neska eta mutill. Iual hamalau-hamabost urtekuak, eta harekin pelotan eñ, eta hantxe.*

(1993) *Hamen gelditxuta gau batian, gabeko beatzirak-hamarrak inguruan akordatze naiz nola tren bat etorri zan espeziala.*

(1994) *Azkoitxi aldetik eta basarritxarrak etortze zian oiñez, hor bueltako basarritxar asko, tren espeziala hartzeko, goizian seirak-seitxerdietan izate zan da, horrako... Urkiolarako.*

• **Adina** adierazteko egitura batzuk:

Elipsia askotan erabiltzen da adinaren berri ematerakoan. Ondo ulertzen da isildu den aditza zein den.

(1995) —*Nik hiruroeta bost ein bihar ointxe. Ba, lau daukaz, baiña febreru-an bost ein bihar. Eta horrek dakaz... Hik zenbat?* —*Nik hiruroeta hamabi ein bihar.*

(1996) *Haura eztok gaztia. Hiruroeitik gora.*

• **Data** adierazteko egitura batzuk:

HILLA(RE)N hitza asko erabiltzen da, delako eguna zenbaki bidez eman nahi dugunean.

(1997) *Pilarika eguna, “doze de oktubre” eztok, ba, izaten? Bai, hillan hamabixan da.*

• **Adibideak** emateko egitura batzuk:

(1998) *Burgosen orduan zazpi rejimiento zauden. Zauden sanidadia, kaba-llerixia, artillerixia, infanterixia...*

(1999) *Hor gauzia, gauza asko esate (j)ako, baiña beste izen bat esate (j)ako gauza askori, bai. Hori bai. Konparazio, abarketak guk esate douna, aparketak han.*

(2000) *Nola gabaz ibiltze giñan eta berandu... Pentsa'izu: ju,n konparazio baterako, Maarixara erromerixara, gero hartu neskia, eta berritz etorri hona. Eta gero, atzera berritz ere hara jun bihar. Ja, ja, ja!*

(2001) *Hola gaztiak eta, neskak edo, konpaaziorako, neska-kuadrillia kale-tik, edo erromerixatik etxera, eta gerrixan ero lotu katia, eta hara atzian, tarr!*

(2002) *Umieri ezin diou lagundu. Eta, en kanbio, baldin badao bat, gazte bat... Oin, konparazio baterako, gure illoba, hoguei urte dakazena, hor euskera batu hori ikesten, horrek lagundu leike asko.*

(2003) *Esate batera.*

• **Deskribapenak** egiteko egitura batzuk:

(2004) *Haren aitta San Lo(re)ntzoko semia zuan, plako altu bat.*

(2005) *Asko harena jute giñuazen, Don Justona. Alto zabal haundi bat zuan.*

• **Aho-korapilo** batzuk:

(2006) *Zein zan Sanson? Sanson zein zan? Sanson Sanson zan.
[Sein san Sanson? Sanson sein san? Sanson Sanson san]³⁸*

(2007) *Zein zan Sanson? Sansonek esan zaban Sanson Sanson zala.
[Sein san Sanson? Sansonek esan saban Sanson Sanson sala]*

(2008) —*Ze, bazuaz?* —*Bai, txirri-txarra, txarara, txitxittara.*

(2009) *Akerrak adarrak okerrak daukaz.*

• **Hitz- eta soinu-jokoak:**

Hona Elgoibarren erabiltzen diren hitz- eta soinu-joko batzuk:

(2010) —*Eskerrik asko.* —*Ekarri asko!*

(2011) *San Juan, jan-edanak juan.*

(2012) *Gaur da San Juan; bixar, “juan zan”.*

(2013) —*Eskerrak etorri zeran!* —*Bai, bai, ezkerrak ... eskumiari*³⁹

³⁸ Gure hizkeran, esan dugun bezala, ez dira /s/ eta /z/ bereizten ahoskeran. Berez, hemen transkribatu bezala ahoskatzen da *Zein zan Sanson?* galdera, eta soinu txistukari apiko-albeolarrez josia geratzen da galdera-erantzun hori, jende askori barregura eragiteraino.

³⁹ Elgoibarren ez dira bereizten ahoskeran, esan bezala, *esker* eta *ezker* hitzak, eta hortik dator hemen ere hitz-jokoa.

(2014) *Zorra? Olixua eixok!*⁴⁰

(2015) *On billa, on billa, bonbilla!*

(2016) —*Ze berri? —Zaharra(k) berri.*

(2017) —*Ze moduz, ondo, eztok? —Bai, ondo ... izurrauta!*

• **“Euskarakadak”**: elgoibartar askok, euskaraz ari direnean, erdarakada batzuk erabiltzen dituzten bezala, gaztelaniaz ari direnean ere egiten dituzte kalko batzuk, kasu honetan euskararen kalko batzuk; hori adierazteko erabili dut “euskarakada” hitza: gaztelaniaz ari direnean, euskararen eragina nabaritzen zaie hitzun askori.⁴¹

Hona erakusgarri batzuk (parentesi artean jarri dut, paralelismoa ikus dadin, euskal forma):

(2018) *Haber dicho tenías! (Esatia zendukan)*

(2019) *Ándate con luz! (Argi ibili!)*⁴²

(2020) *No tenía, pero! (baina lokailu-menderagailuaren kalkoa)*

(2021) *¿Qué pasa, pués? (ba(da) lokailua)*

(2022) *Tengo hecho eso. (Eginda daukat hori)*

(2023) *Este tiempo también... (ere lokailuaren kalkoa)*

(2024) (...) *y eso, pues, en la segunda fila era.* (hitz-ordena)

(2025) *Con esos, claro... ¿Qué queréis, pués? (bada lokailua)*

• **Code-switching-a**: ahozko jardun arduragabea, eta batez ere kaleko adineko jendearen artean, ez dira gutxi kode-nahasketak egiten dituzten hiztunak; eskarazko jardunean gaztelaniazko esaldiak, esaerak edo esapideak tartekatzea, esaldi baten barruan ere. Esango nuke gehiago gertatzen dela emakumezkoen jardunean gizonzkoen jardunean baino, hori erakusteko ikerketa berezirik egin ez badut ere. Ikus ditzagun adibide batzuk:

(2026) *Haura ere bill, “porque era nacionalista”. Jooo!*

(2027) *Bihar danian atara karneta. Nik etxuat askotan bihar izan. “Eso te digo yo”.*

⁴⁰ Sor edo sorgor dagoen gurpilari olioia egiten zaio, eta *sor* eta *zor* (norbaitekin dugun zorra) berdin ahoskatzen dira. Zorrak dituelako penatuta dagoenari esaten zaio: *Zorra daukake-la? Egixok olixua!*

⁴¹ Horrek erakusten du ez zaiela falta arrazoirik baserritar zenbaiti, salatzen dutenean kaletarrek ez dutela euskaraz egiten eta ez dakitela gaztelaniaz egiten: askotan gaztelaniaz hitz egin nahi izaten dute, baina ez naturaltasunez, euskararen eragin nabarmenarekin baizik.

⁴² Batzuetan, egia da, txantxa modura ere erabiltzen dira.

(2028) —*Kontuak esaten, iñon kontuak esaten. —Da geuriak ere bai. Batak hango miña daukala, Asunek... “de las rodillas que anda mal... no sé qué no sé cuántos...”*.

(2029) *Hoixe’ok, ba, “sacar trapos viejos a lucir”*.

(2030) *“Ya está grabando?” Bai? Grabatzen dao?*

(2031) *“Hi, badaukan sobrekama zurixa? Prestauko dian?”; merikua etortzeko, ba, ez zauala ondo ero famelixan baten bat, eta, “Bai”, “Ba, prestau, orduan”; halaxe, sobrekamia prestau batak bestiai. “Fíjate si eran pobres o no eran!”*.

Arrunta da esapide adierazgarriak ere erdal jatorrikoak izatea, batez ere lagunarteko jardun arduragabeen:

(2032) *Bixamonetik bizi bagaitxuk, bihakok, guk esate genduan, da bizi ez bagaitxuk, “alla kuidaos”*.

(2033) *Ta bixak sozio ibilli zitxuazen, ... ba, nik ze esango’ixat pa, nik beatzte urte nakazen da; sozio itxen bazeben ez pazeben, “alla kuidaos!”*.

(2034) —*Askotan ibiltze giñan gu pelotan. —“Ahi está!”*

(2035) *Da, gaixorik eon banitz ere ez. Jota jun, ya lo kreo!*

6. HIZTEGIA

Elgoibarko lexikoari ere lekutxo bat eskaini nahi izan diot lan honetan, nola ez. Hemen, Elgoibarko lexikoaren zati bat baino ez da jasotzen. Lan honetan bildu ditudan hitzak baino gehiago dira elgoibartar adinekoek darabilten hiztegia. Aukera bat egin behar, baina, ezinbestean; eta horretarako, zenbait irizpide erabili behar.

Hona, hiztegiko hitzak jasotzeko, lehen maila batean erabili ditudan irizpideak:

- Elgoibarko edo inguru hurbileko hitz edo lexema bereizgarriak.
- Elgoibarko edo inguru hurbileko aldaera bereziak.
- Hitz ezezagunak eta hil zorian daudenak, nahiz Elgoibarkoak eta inguru hurbilekoak bakarrik ez izan (ogibide zaharretako terminoak, kaletarrek hain ongi ezagutzen ez dituzten baserri-giroko hitzak, hiztun gazteek ezagutzen ez dituzten hitzak...).
- Alboko herrietan erabiltzen diren hitzen aldean bereizgarriak direnak; mendebaldeko / erdialdeko euskalkien banaketan esanguratsuak diren hitzak eta erabilerak: batetik, Debaerdiko, Debagoieneko edo Mendebaleko euskararen berezitasunak erakusten dituztenak; bestetik, Erdialdeko euskararen berezitasunak erakusten dituztenak.
- Hitz edo lexema arruntak eta hedatuak izan arren adiera edo erabileraren berezia dutenak.
- Mailegu interesgarrienak eta errotuenak.
- Aditz-lokuzioak eta bestelako esapide eginak.

Hitzak biltzen hasi, eta hiztegia poliki-poliki sendotuz joan zaidala esan behar. Jakina den bezala, mugarik ez duen arloa dugu hiztegiarena, eta aitortu behar dut azkenean noizbait amaitu behar nuelako utzi diodala hitzak sartzeari; etsi-etsian utzi ere, beti agertzen baitzen handik eta hemendik hiztegian sartzea merezi duen hitzen bat. Muga bat ezarri dut, beraz, hiztegian, hemen

ematen dudan hiztegiaren muga. Beste arlo batzuetan bezala, bihar edo etzi jarraituko dut beharbada hiztegiaren gehiago sakontzeko langintza honetan, baina oraingoz, bego horretan.¹

Hiztegiaren formari eta antolamenduari dagokionez, honako atal hauek berezi ditut sarrera-hitz bakoitzean:

1) **Sarrera-hitza**: izena edo izenondoa denean, lehenbizi mugagabeko forman, letra lodiz eta larriz, eta ondoren forma mugatuan, letra lodiz eta xehetz. Aditza denean, haren partizipio-formarekin, letra lodiz eta larriz.

2) **Hitzaren kategoria**: iz., izond., adlag., izlag. eta abar. Zoologia eta Botanikako terminoetan, ez dut kategoria gramatikalik eman, horiek guztiak izenak direlako, animalia eta landare-izenak.

3) Sarrera-hitza **aditza** denean, **zer paradigmatakoa** den adierazi dut: DA, ZAI, DU edo DIO aditza (Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuko* jokamoldeari jarraituz); aditz-lokuzioak eta -esapideak direnean ere markatu dut zer paradigmatakoa den.

4) **Esanahia**: letra arruntez eman dut, eta euskaraz ematen ahalegindu naiz (euskara batuan); beti ez zen, ordea, posible, eta gaztelaniaz ere eman ditut adiera batzuk, batez ere landare-, lore- edo animalia-izenetan, bai eta euskarazko ordain garbirik ez nuenean ere.

5) Egoki ikusi dudanean, **erabilera-adibideak** eman ditut, letra etzanez. Adibide bat baino gehiago direnean, bi barra etzanez bereizten ditut. Ahalegindu naiz grabazioetako testuetatik ateratzen adibideak, baina egokirik ez zenean, berri-emaileraren bati eskatu diot edo nik neuk asmatu dut.

6) Zenbait sarreratan, **jokamolde sintaktikoari buruzko azalpena** eman nahi izan dut, hitzaren edo egituraren erabilera argitzeko, erabilera horren deskribapen gramatikala egin nahian (hitz elkartuetan erabiltzen den, hitz jakin batekin erabili ohi den, zer eratako aditza eskatzen duen, zer eratako erregimena duen halako aditzak, eta abar).

¹ Inguruko herri batzuetan halaxe gartatu da, eta gaur egun, urte luzeetako jardunaren poderioz, harro sentitzeko moduko hiztegiak lortu dituzte, adibidez, Eibarren (Etxebarria, 1965-66; Basauri-Sarasua 2003) eta Bergaran (Elexpuru 2005). Nire lan honek, esan bezala, bere mugak ditu, eta ez da nire asmoa izan haienak bezain hiztegi exhaustiboa osatzea (orotarikoa Elexpurrena eta ideologikoa Basauri-Sarasuarena). Lexikoaren aldetik Elgoibarko euskara gutxi-asko deskribatzeko asmoa izan dut, batez ere lan dialektologikoetarako datuak eman nahian: pozik nengoke helburu hori gutxieneko neurri batean behintzat lortu dudala esango balidate.

7) Sarrera-hitz batek **adiera bat baino gehiago** dituenean, **zenbaki bidez** bereizi ditut adiera horiek.

8) Sarrera-hitzaren **sinonimoak** ere ahalegindu naiz ematen. Bai eta hitzaren **aldaerak** ere. Aldaeren artean, gehien erabiltzen dena eman dut sarrera nagusitzat. Gutxiago erabiltzen direnak ere jaso ditut, baina sarrera nagusira bidaltzen dut irakurlea hari buruzko informazioa jasotzeko. Maiztasun-kontuak erabakitzeke, bildu ditudan testuen corpusa erabili dut: WORD bilatzailearen bidez, automatikoki zenbatu ahal izan ditut aldaera bakoitzaren agerraldiak edo maiztasunak. Horren arabera antolatu ditut aldaeren arteko hierarkiak. Adibidez, *erten* formak 124 agerraldi ditu, eta *urten* formak, 50; beraz, *erten* sarrera erabili dut azalpenak emateko sarrera nagusitzat (azalpen horien artean, *urten* forma ere erabiltzen dela esanez), eta *urten* sarreraren, *erten* sarrerarako bidea markatzen dut (“Ikus Erten” idatziz).

9) Azkenik, sarrera-hitza **esaera edo esapide bereziren** batean erabiltzen bada, halakoak sartzen ere ahalegindu naiz kasuan kasuko sarrera-hitzean.

Hiztegian erabili ditudan laburdurak

Nire hiztegian erabiltzen ditudan laburdurak Euskaltzaindiaren hiztegi-koak dira (*Hiztegi Batua*), oro har. Jakina, hiztegi bien helburuak hain desberdinak izanik, ez ditut *Hiztegi Batuko* laburdura guztiak erabili². Hona nire hiztegi honetakoak:

ad.	Aditza
DA ad.	NOR Aditza
DIO ad.	NOR-NORI-NORK Aditza
DU ad.	NOR-NORK Aditza
ZAIO ad.	NOR-NORI Aditza
adlag.	Adizlaguna ³
arrunk.	Arrunkeria
bot.	Botanika
euf.	Eufemismoa

² *Hiztegi Batua*, Euskaltzaindia, 2008.

³ Adberbioak eta adizlagunak, biak batera ematen ditu *Hiztegi Batuak*: adlag. Bereizketarik egin gabe. Jokabide horri jarraitu diot nik ere. Bestalde, *adierazgarri* hitza hobesten dut hizkuntza-forma zenbaiten erabilera berezia adierazteko, eta horregatik erabili dut Adrazg. laburdura, eta ez Euskaltzaindiarena (Adkor.).

fig.	Figuratua
grad.	Graduatzailea
haur.	Haur hizkera
ik.	Ikus
interj.	Interjekzioa
IS	Izen-sintagma
iz.	Izena
izlag.	Izenlaguna
izond.	Izenondoa
izord.	Izenordaina
junt.	Juntagailua
lgart.	Lagunartekoa
lok.	Lokailua
onomat.	Onomatopeia
pei.	Peioratiboa
postpos.	Postposizioa
zah.	Zaharkitua
zenbtz.	Zenbatzailea
zool.	Zoologia

Hiztegi Batuan erabiltzen ez diren laburdura batzuk ere erabili ditut.

Hauek dira:

adrazg.	Erabilera adierazgarria
erak.	Erakuslea
esaer.	Esaera, atsotitza
esap.	Esapidea
enfat.	Enfatikoa

a

ABADE, abadia: iz. Apaiza. Ia erabat erabiltzen dute adinekoek hitz hau; askoz gutxiago, **Apaiza**. *Bai, nik, hona etortze ginuaz, eta abaderen bat eongo zuan. Orduko abaderik eztaok oiñ, aspaldixan. **Abaria** aldaeran ere bai.*

ABANTAU: DA aditza. Abiatu. *Illunduta abantau giñan hortikan, Aulestitikan Bilbora, Gernikatikan pasauaz. / Kottxian baldin banijua, tak! Abantau orduko emango diot nik radixuari.*

ABANTZAU, abantzaua: izond. Aurre-ratua. *Eibar beti izan tzan “socialista” eta “republicano”; hamenguen aldirian abantzauak oso!*

ABAR, abarra: 1. iz. Arbolaren adar txikia. 2. iz. Enparauak. ... **eta abarra!** interj. *Jolin! Oiñ, takua eta abarra ipintzen dabe pelotarixak. / Bajaok hamen txarrikerixia ta abarra!*

ABARKETA, abarketia: iz. Espartina, abarka. Pluralean normalean. *Orduan, egualdi ona bazan, ni abarketa zurixekin erromerixara. / San Isidrorra-ta oiñez jute giñan. Ein fregau galanta, abarketa zurixak ipini, eta San Isidrorra.*

ABARKETERO, abarketerua: iz. Abar-keta-egilea.

ABER: lok. Ea. Zehargalderetan erabiltzen da, sarrera-lokailu gisa. *Ze(r)a eskatu zion, jornal gehitxuo aber eman leikien, estu zabilleta ta. / Aber monagillo nahi naban bertan izatia galdeu zian. Ia ere erabiltzen da, maiztasun berdintsuarekin; zenbaitetan, **Aber**-ekin batera ere bai: **ia aber ...eN**. *Eta**

honek: “ia aber iñok antzik emate iozuen hori montatzeko ze ein bihar izan zan hemen”.

ABIXADA, abixadia: 1. iz. Abiadura. *Hori dok abixadia eruan debena karre-ristak!* 2. iz. Abiada.

ABONAU: DU aditza. Goraipatu, famatu. *Hamen beti Retegi abonau da, ezta? Baiña “por parejas” Gallastegi askoz hobia zan.*

ABRILL, abrilla: iz. Apirila. Bietara erabiltzen da, **Abrilla** (gehiagotan) eta **Apirilla**.

ABURRIDU: DA aditza. Aspertu. *Enaiz sartzen politika kontuan. Hamen aburridu eitxe naiz, dana ikusten dot saltsa asko, a(g)inddu nahiko asko. **Aspertu** ere bai.*

ABURRIMENDU, aburrimendua: iz. *Aburrimendu itzala, pelikula haura!*

ABUTARDA, abutardia: zool. Basoilo handia.

ADAR, adarra: iz. Adarra. **Adarra jo:** “Tomar el pelo”. *Ez’iak adarrik jo!; Illia hartu bezalakoak oso berriak dira, eta ez dira gomendatzekoak. **Adarra jotzeko makiñia asmau:** Adarra jotzeko makiñia asmau dok, ala?*

ADARI-JOKO, adari-jokua: iz. Herrikirola, zeinetan bi adarik, topeka, elkar jotzen baitute.

ADORAZIOKO MEZA, Adorazioko mezia: iz. Goizeko lauretan ematen zena, gaubela egiten zenean.

ADORE, adoria: iz. Kemena, animoa. *Gizona hil zanetik oso triste dao. Ez-tauka adore haundirik.*

- AFAN**, **afana**: iz. Grina. Zerbait egiteko zaletasuna edo grina. *Hori da afana da-bizuna!*
- AFANOSO**, **afanosua**: izond. Pertsona gogotsua, grinatsua. *Afanoso hutsa dok hori.*
- AFARI**, **afarixa**: iz. Afaria. **Afari-legia eñ**: afariaren ohiturarekin bete. Bartzuetan, afari arina egin. **Afari pasaria eñ**. Afari arin samarra egin. **Apari** ere erabiltzen da.
- AFARI-MERIXENDA**, **afari-merixendia**: iz. Afari-merienda. *Gaur soziedaduan eingo juau afari-merixendia, fubola ikusiez.*
- AFIZIO**, **afiziuu**: iz. Zaletasuna. *Eskolan baiño afizio gehixo han, pelotan. Apezuiu* ere bai.
- AGINDU**: DU aditza. Agindu, hitz eman. **Aginddu** ere bai, nahiz gutxiago.
- AGIRI**: DA aditza. Ageri. *Aspaldixan ezta agiri Patxi.*
- AGOSTO**, **agostua**: iz. Abuztua.
- A(G)UAZILL**, **a(g)uazilla**: iz. Udaltzaina. *Ez'ik aparkau kotxia espaloi gainian, aguazilla etorriko jak eta.*
- AGUR-AGUR EIÑ**: haur. DIO aditza. Agur egin.
- AGURE**, **aguria**: iz. Agurea. **Agura** ere entzuten da. **Agurezar**.
- AGURO**: adlag. Azkar, bizkor. **Azkar** eta **Bizkor** (**Bixkor**) ere bai. *Fubola ere gustatze (j)ata. Baiña ni aspertu eitten naiz aguro. Arrunta da bokalarteko leherkaria ez ahoskatzea: **auro**.*
- A(HA)L DALA**: Ahal dela. Moduzko edo baldintzazko moldea. *Orduan basarrixa dana zuritxu eitxe zan, kuartuak eta dana, urtero, al dala.*
- A(HA)LA**: postpos. Aurretik aditz-partizipioa duela. *Eurixa bota a(ha)la ari du. / Dirua, irabazi a(ha)la gastatze jok Andresek.*
- A(HA)LEGIÑA(K) EIÑ**: DU aditza. Saiatu. **Alegindu** ere bai. *—Ondo pasau, e! —Eingo dittudaz alegiñak.*
- A(HA)LEGINDU**: DA aditza. Saiatu. *Saiatu* hitza ez da erabiltzen.
- AHATA**, **ahatia**: zool. Ahatea. Lehen, bereizketa egiten zen errekaoen (**ahatia**) eta etzekoen (**paittaa**) artean. Gaur egun, era bereizgabean erabiltzen dira askotan. Ikus **Paitta**.
- AHIZTA**, **ahiztia**: iz. Ahizpa. **Ahizpa** ere bai, baina askoz gutxiago. *Bi ahizta zian hórrek. / Ahiztak zaukan beatzi ume. Eta hárek zaintzera jun nitzan.*
- AHIZTU**: ZAIIO aditza. Ahaztu. *Ahiztu! Euskeria ahiztu, azkenian! Eskoletan laga ez, eta gero, kalera jun eta tto, tto, tto! Dana erderaz. / Nerekin ahiztuta zaudete, ala?*
- AHOPIAN**: adlag. **Ahopian berba eñ**: Isilka berba egin.
- AIBA DIOS!**: interj. Harridura adierazten du. *Gu zubixan gainian, zerian eongo gaitxuk eta. Pasau gainian beste aldera: Aiba Dios! Beitxu dot, eta arku bat bakar-bakarrikan. Aiba Dios! Demaseko alturia! Esate naban: “haura zubixa zela ein tzeben?”.*
- AIDA!**: Ganaduari aurrera joateko esaten zaiona.

AIDA-AIDA: haur. Behia.

AIDE!: interj. Aire!, Ospa! **Aide eñ:** DU aditza. Alde egin. *Da illuna, pixkat illuntzen haste zanian, maixua tilin-tilin, tilin-tilin kanpaia. Ta aide danak etxe(r)a. / Da soldauak etorri, tta hamen saldia eo hartu, ta aide.*

AIDIAN: adlag. Oso azkar, erraz. *San Isidro egunian, aidian jute giñan erromerixara. Oso erraz. Aidian irabazi dixat pelota-partidua.*

AINGIRA, aingiria: zool. “Anguila”.

AINTZAT hartu: DU aditza. Aintzakotzat hartu. *Gaztiak ez gaittue zaharrak aintzat hartzen.*

AIÑA: Konparazio-perpauusak egiteko partikula. *Gizonak aiña irabazte jonat. / Gabon háretan aiña turroi sekula ez-tou jan! / Neuk pasau doten aiña eztiot inñori opa.*

AIÑUBE, aiñubia: izond. Paraje laiotza, ospela. **Kontrasola** eta **ospela** ere bai.

AITTA BESUETAKO, aitta besuetakua: iz. “Padrino”.

AITTAGIÑARREBA, aittagiñarrebía: iz. “Suegro”. **Suegrua** ere bai.

AITTAN SEMIA IZAN: Aitaren antza izan semeak. Berdin gainerako ahaide-tasunekin ere: **Aman/aittan alaba/se-mia izan**. Baita **Aittan/aman kastakua izan** eta **Aittan/aman urak euki** ere.

AITTAREN!: interj. Harridura adierazten duen interjekzioa. **Aittaren eta semiaren!:** *Aittiaren da semiaren! Holakorik ikusi be nenguan gaur arte.*

Aittaren batian: azkar, berehala. *Aittaren batian amaittuko dou lan hau.*

AITTATU: DU aditza. Aipatu. *Pelotia aittatu diazunez, lenguan ikusi naban partidua!*

AITTATZAKO, aittatzakua: iz. Uga-zaita.

AITTAZULO, aittazulua: izond. Beti aitarekin egon nahi duen umea. Ikus **Amazulua**.

AITTITTA, aittitita: iz. Aitona. *Hau karnezzeria Patxi bado(k) pa? Horretxen aittitta zuan.*

AITTU: DU aditza. Ulertu. **Entendidu** arruntagoa da gaur egun. **Uler**tu ere erabiltzen da, nahiko arrunt erabili ere. *Gaur horixe dakazue zuek. Nik gauza asko ezto aitzen. Zeuek ere diferente eitzen dozu elako. / Nik pai, nik normal-normal berba batekin, bestia-kin. Da hónek askok, eibartarrak eta, geo Zarauzkuakin aitxu ezinda.*

AITZEN EMAN: DIO aditza. Jakinarazi, aditzera eman.

AITZIKI, aitzikixa: iz. Aitzakia.

AIXEN, aixena: bot. Landare igokari batzuei ematen zaien izena.

AIXKIRAU: DA aditza. Adiskidetu.

AIZERI, aizerixa: iz. Azeria. **Aizari** aldaeran ere bai.

AIZERI-BUZZAN, aizeri-buztana: bot. “Equiseto”, “cola de caballo”.

AJE, ajia: iz. Biharamuna, festondoia. Ikus **Bixa(ra)mona**. *Bart gustora ibilli nitzuan, baiña gaur demaseko ajja jaukat!*

AKA(BA)U: DU aditza. Lgart. Hil. Normalean, bokalarteko leherkaria galduta ahoskatzen da. *Hantxe bertan akauko najuan, jenderik eon ezpalitz.*

AKABERA, akaberia: iz. Amaiera. *Amaiera* gehiagotan erabiltzen da.

AKABO!: interj. Zerbaiten ziurtasuna egiaztatzeke edo zerbaiteke bueltarik ez duela adierazteke. –*Aurten ere etorriko zerate herriko jaixetara, ezta? –Akabo ba! / Hasi zan berriz erretzen, eta akabo!*

AKASO: adlag. Beharbada. *Karreteratik gora eñ biha'itxue etxiak, eta akaso ez-tiue kalterik eingo udan euzki pixkat kentziak. Biharbada eta igual* ere bai.

AKOLITTO, akolittoa: iz. Meza-laguntzailea, meزامutila. **Monagillua** ere erabiltzen da.

AKORDAU: DA/ZAIO aditza. Gogoratu. *Ez zebeñ billatzen inor itxuria, eta nerekin akordau zian. / Tripakixak eta holakuak jate genduzen han. Bar Puri, ontxe akordatze jat, makiña bat soldau jute zana. / Etxatiak bestela akordatzen Erandio ta; "Aupa Erandio", hortikan etorri jatek.*

AKORDU, akordua: iz. Oroimena. *Eta Elgoibarren, nere akorduan, hiru ero itxo zian bakarrikan errekan. Akorduan euki:* oroitu. *Akorduan daukat nola juan giñan Debara barko haura ikustera.*

AKULU, akulua: iz. Ganadua gobernatzeko makila luze puntaduna.

AL: Bai-ez erako galderetan erabiltzen den partikula. *Etorri al da Inazio? / Bai, neuk ere al dakitx? / Makiñat bider*

biajia ta, eote'ittuk hor, Kutxatik eta, esate juek: "Ez al dozue jun bihar?"

ALAJA, alajia: iz. Pluralean normalean. Bitxia. Erabilera ironikoan ere bai, pertsoneri dagokiela: *Alaja edarra don hori, ba!*

ALAJAUNGOIKUA!: interj. Jainkoarren! Aldaera hauek ere bai: **Alajainkia!, Alazainkia!**

ALBERGA, albergia: iz. Aska, "pilón, abrevadero". **Aska** ere bai.

ALBO, albu: iz. Aldea, alderdia. *Beste batzutan, trikitixan ez giñuazen abillak, eta pasodoblia ero bazan, bai... Horrek beste horrek, albotik begira e(g)ote giñuazen. Hegala* ere erabiltzen da.

ALDAMEN, aldamera: iz. Aldamera, albo. *Brometan mouan esan nion: "Ño, ezta merkia", esan nion. Da hola aldamenetik pasau nitzan. Aldemen* ere erabiltzen da.

ALDAPA, aldapia: 1. iz. Aldatza. **Aldatza** ere erabiltzen da. **Aldapadia** aldaeran ere bai (**Aldaparia**). **2.** iz. Arazoa, eragozpena. –*Zuen etxian hamabost baziñaten, pentsau. Zuek bakarrik beteko zenduen haura. –Ba, hori, aldapaxua zan hori. Han mordoxkia sartze zan eskolan.*

ALDAPA, aldapia: izond. Leku aldapatsua, izenondo erabileran. [*Paraje*] *Haura aldapiaua ondio.*

ALDATU: DU aditza. Landatu. *Piñu-aldatzen eman gendun egun osua.*

ALDATZ, aldatza: iz. Aldapa. *Ehun da berrogeta hamar bat metro ero eongo zian, oindiokan zera zauan, oindiokan aldatz gorria. Ikus Aldapa sarrera.*

ALDE, aldia: 1. iz. Desberdintasuna.

Aldia egon (nondik nora / zertatik zertara): Konparazioak egiteko, gauza batetik bestera desberdintasun handia dagoela adierazteko erabiltzen da.

Alde edarra e(g)on: Konparagaietako bat askoz hobea denean erabiltzen da.

Alde edarra hau izan edo bestia izan! Bai, diperente eitten dou. Eske, aldia dago Elgoibartik Azkoittira. 2. Konparazio perpausetan sarritan: **-ren aldian** eta **-ko aldian:** *Baiña haren aldian honek gehixo balio deu, e! / Basarriko lana lehen zuan gogorra oingo aldian.*

ALDE, aldia: Hitz elkartuen bigarren osagai gisa askotan: *etxe-alde, basarri-alde, koarto-alde, atai-alde. Ze koarto-alde daukak? Hasi hari txukuntzen.*

ALDE EIÑ: DU aditza. Alde egin.

Ospa eiñ ere bai, lagunartean. *Holaxe, ba, hárez etorri baiño lehenao alde ein bihar.*

ALDEKO, aldekoa: iz. Alboko base-
rria, alboko baserrikoa. *Han jaixotze'ia konparazioko, aldekuak ere, ba han jaixo zuan, da hamen bizi dok. Baiña hangua jaukak Lorek, Bilboko karneta, han jaixo zalako. / Gero, aitta ta zera, aittittta, eta aldeko Joxe eta Satur zerekua, Aldazabalgo gizona, hona etorritta.*

ALDENIK ALDEN: Mutur batetik bestera. *Gure lursailak aldenik alden ziharkatu dittut.*

ALDERA: postpos. **-tze aldera:** Helburuzko perpaus mota batzuk osatzeko menderagailua. *Ez gendun ezer erosi bihar, baiña denporia pasatze alde-ra juan gara Netto-ra gaur arratsaldian.*

ALDI, aldixa: iz. Aldia. Hitz elkartuetan erabiltzen da asko: *-aldi. Salontzon denpora luzian eon tzan. Len-len, da gero laga-aldixa, da gero berritz. / Hamendik Elgoibarrea ta, (...) ekitxaldixa eitxen dala! / Orduantxe musaldi bat derrior ein bihar. / Nik kalia eitte nituan egonaldixak, junda. / Oiñ, bigarren junaldixan, ba, gu Burgosen eon giñan.*

ALDIAN (hartu/eruan/euki...): DU aditza. Soinean hartu, eraman, eduki zerbait. *Hor datoz ijittuak, umiak aldian hartuta.*

ALDIKO: adlag. Aldi bakoitzeko. *Al-diko fardo bat erua'ik, bestela bizkarreko miña eingo jak eta.*

ALDIZ: adlag. Alditan. **Bidar (Bider)** ere erabiltzen da. *Eta egunero juate giñuazen Plazentziara, bi-hiru aldiz bai.*

ALDREBES, aldrebesa: izond. Traketsa, dorpea, baldarra. *Etxuat ikusi aspaldixan pertsona aldrebesagorik; Adberbio moduan ere bai: Gabonetan, en jeneral, jute gaittuk gu hor zihar. Udan ez gaittuk juten. Gu aldrebes ibiltze gaittuk. Gu, astuen klasera, aldrebes.*

ALDREBESKERIXA, aldrebeskerixia: iz. Ez bururik ez hankarik ez duen zera. *Zenbat aldrebeskerixa esate ete debe mozkortuta daudenian!*

ALE, alia: iz. Fruitu, garau. Erabilera enfatikoetan ere bai: *A ze sagar aliak ekarri dittuan Berdungo andriak! / Tomatiak ere, aliak izete'ia batzuk kilokuak, e! **Aliak:** emakumeen bularrak ere bai, lagunartean (arrunk.): *Neska horrek dakaz aliak, horrek!**

ALE, alia: izond. Oso handia. *Hori dok etxe alia!*

ALKAHUETE, alkaluetia: izond. Pertsona autu-batzailea, kontakatila. Emakumezkoen kasuan, **Alkahueta**.

ALKAR: Elkar. *Asko maitxe debe alkar, e!* *Ene, mutillak beti pre(g)untia: “noiz dator?” / Edadetua gehixena izaten da. Alkar ikusi eta alkar eza(g)utu, eta edarki pasatzen degu; Alkar hartu: Danok alkar hartuta ein biha juau aurrera. Bestela, eziñ izango juau.*

ALLA KUIDAOS!: interj. **Hor konpon!** esapidearen adiera duen interjekzioa. **Alla pelikulas!** ere zentzu bertsuarekin erabiltzen da.

ALLA PELIKULAS!: interj. Ikus **Alla kuidaos!** sarrera.

ALLEAU: DA aditza. Iritsi, heldu. *Ezta-
kit bodarako alleauko naizen. Allau* ere bai. *Ehun da berrogeta hamar bat metro ero eongo zian, ondiokan aldatz goría zauan, gora allau gabe, eta kañonazo bat kamiño erdixan sartu zan.*

ALMITZ, almitza: bot. Lur pobreetan hazten den belarra, ganaduek ere jaten ez dutena.

ALPAPA, alpapia: bot. Aрги belarra, frantses-belarra.

ALPER, alperra: 1. izond. Pertsona nagia *Gizon hori baiño alperragorik eztok inguruetan topauko! Alper zorrixa: Hori dok, hori, alper zorrixa: etxok egun guztixan kolpe zorririk jotzen!* 2. Sororan, zokorrak edo erpillak txikitzeke erabiltzen zen harri zilindrikoa.

ALPERRIK: adlag. Alferrik. *Alperrik habill Joxekin! Eztok sekula zintzotuko*

ta! Alperrik galdu: DA aditza. Normalean ezezkakoetan. *Lasai laga (eg)izu semia, eztok alperrik galduko ta!*; Ezezkako perpausetan ere sarritan, baiezko esanahia duela: **Ez alperrik!** *—Esan diot holako latarik ez emateko. —Ez alperrik!*

ALPERRONTZI, alperrontzixa: izond. pei. Alferra, nagia.

ALTA, altia: izond. Emakume altua. Ikus, gizonetzkoen erabilerarako eta erabilera neutrorako, **Altu**.

ALTAN EGON: DA aditza. Araldian egon, susara jarri. *Txakurra altan daok, eta lotu ik.*

ALTU, altua: izond. Gizonezko edo gauza altua, garaia. *Mendi altua. / Gizon altua.* Neurriak adierazteko arruntagoa da **alturan x metro izan**, *neurtu* aditza baino; *Presiak daukaz ehun da hogeta hiru metro alturan.* Ikus **Alta**.

ALTZO, altzua: iz. “Regazo”. *Altzuan hartu umetxua, eta siaska kantuak kantatzen hasi jakon.*

AMA BESUETAKO, ama besuetakua: iz. “Madrina”.

AMABIRJIÑA GAROTA(R)AKO: iz. Pilarreko amabirjina. *—Pilarika eguna, “doce de octubre” ezto(k), pa, izeten? —Bai. —Hillan hamabixan da. Eta harén zaiñ eote zittuan basarritarrak mendirako launak izeteko. Tallarretan jai, eta garota(r)ako launak. Han zabi-zenen zai eote zittuan, gure zaiñ eote zittuan. Eta gero, asmau jauen horreri “Amabirjiña Garotarako”. Amabirjiña Pilarrekoa esan biharrian, “Amabirjiña Garotarako” esate jakuan horri.*

- AMAGIÑARREBA, amagiñarrebía:** iz. Amaginarrebía. **Suegría** ere erabiltzen da.
- AMAIERA, amaiería:** iz. Bukaera. **Akabería** eta **Bukaeria** baino erabiliagoa da.
- AMAITTU:** DA eta DU aditza. Bukatu. **Bukatu** ere bai, nahiz gutxiago.
- AMAMA IPINI:** Erraz ipini. *Amama ipini diot pelotia tantua eitteko.*
- AMAMA:** iz. Amona.
- AMARAUN, amarauna:** iz. Armiamasarea. *Maasmak eitzen debena. Horrek eitze juek, ba, telia. Erderaz da hori ere, "tela". –Bai. Horregaitxikan. Batzuek esate'ieue amarauna. Armiamasaria eta Maasma-saria ere erabiltzen dira, baina hiztun gazteagoek.*
- AMATAU:** DU aditza: Itzali. *Amatau (eg)izu hori argixori, nahikua argi badago eta. Ikus Emendau sarrera.*
- AMATZAKO, amatzakua:** iz. Ugazama.
- AMAZULO, amazulua:** izond. Haur amakoia. *Amazulua da, benetan, gure umia!* Ikus **Aittazulua**.
- AMENAZO, amenazua:** iz. Mehatxua.
- AMESETA, amesetia:** iz. Ametsa. *Trankillao hola. Bestela, amesetia ta demoniokeixia neri. Amesetan eñ: Asko eitte jok amesetan gure umiak aspaldixan.*
- AMETI(D)U:** DU aditza. Onartu. *Es-kolan orduan sei urte arte ez zeber ametitzen.*
- AMETZ, ametza:** bot. "Melojo", haritz mota bat.
- AMISTADE, amistadia:** iz. Adiskidantza. *Baiña kalera jute gara asko. Kalera jun ezkerero..., amistadia eitten da. | Gizon sinpatikua dok (...) Kriston amista(d)ia jaukagu harekiñ.*
- AMORRAIÑ, amorraíña:** zool. Amuarraína.
- AMORRAU ERAIÑ:** DIO aditza. Amorrarazi. Aditzaren partizipioa eta *eragin* erabiltzen da aditzaren forma faktitiboak osatzeko.
- AMORRAU, amorraua:** izond. Oso zaletua. **Amorraua izan:** Oso zaletua izan. *Bai, bai, jua bertara, eta arraiña, peskan. Eta amorrauak giñan gu, hau Kondia difuntua? Haura ta. Izenondo baten ondoren sarritan: Mendizale amorraua dok Miren.*
- AMORRAU:** DA aditza. Amorratu. *Azkenerako, amorrauta jua nitzuan etxera. Gosiak amorrutzen egon: Gosiak amorrutzen najauan, eta eskura naukan lelengo gauzia jan naban.*
- AMORRO, amorrúa:** iz. "Rabia". *Amorro edarra hartu dau Terek loteria tokau jatala enterau danian.*
- ANABASA, anabasia:** iz. Nahastea, kaos. *Hango anabasia! Dana hankaz gora!*
- ANAI, anaixa:** iz. Anaia. **Neba** hitza ez da erabiltzen. Mugatuko formetan, soinu epentetikorik gabe ere erabiltzen da (*Anaiak* alkarren kontra gerran), baina arruntagoa da bestela (*anaixa*).
- ANAI-ARREBAK:** iz. Anai-arrebak, neba-arrebak. **Anaixa-arrebak** ere bai. *Hamar anai-arreba giñan gu: koadrilla haundixa!*

ANDRA, andria: 1. iz. Emaztea. *Ba nere andriak ikusi zittula esaten dau. Bost eo ziala hor. Bost. Da dihar batzuk ein zittula.* 2. iz. Emakumea.

ANDRAGAI, andragaixa: iz. Neska-laguna. **Nobixia** ere bai.

ANDRA-GIZON, andra-gizonak: iz. Andre-gizonak, senar-emazteak. *Oiñ, gu eote geran sasoian, "tercera edad" eoten dok asko. Andra zaharra, andra-gizonak, zaharrak gehixenak.*

ANDRAMARI MARTIKO: iz. Martxoaren 25eko amabirjina.

ANDRAMA(R)IXAK: iz. Azkoitiko festak (abuztuaren 15a).

ANDRAZKO, andrazkoa: iz. Emakumea. *Horrek, andrazkuen azokia nola izaten dan... / Oin kaletarrak, ba, gizonzko dana han eoten da.*

ANEGA, anegia: iz. "Fanega". Laboreak eta neurtzeko erabiltzen zen neurria. *Anega asko baba hartze gendun len.*

ANGULA, angulia: zool. "Angula".

ANIAN: postpos. Aditz-partizipioarekin batera, baldintza-kutsuko perpausetan erabiltzen da. *Hart'ik guardasola, eurixa ein anian ere.*

ANIMA, animia: iz. Zentzu figuratuan, pertsona. *Animarik ere etxauan plazan domeka arratsalde haretan.*

ANIMEN EGUNA: iz. Azaroaren 2a.

ANTIGUALEKO, antigualekoa: izond. Antzinakoa, edo antzinako erakoa. *Anti(g)ualeko andria dok hori.*

ANTIOJO, antiojuak: iz. Betaurrekoak. *Ateratze nau ohetik, baiñua*

emate'itx, jantzi, periodikua ta antiojuak ipintze'iaz ma(ha)i gainian, da jun hara, ta bantxe. Antiajuak aldaera ere erabiltzen da. Jabier ezautzen dozu, antiajodun bat?

ANTOSIÑ, antosiña: iz. Metalezko edalontzia. **Antusiñ** ere bai.

ANTXITXIKA: adlag. Korrika. **Saltaka** ere arrunta da. *Eta antxitxika jute gainan zortzi txerdietako mezetara. Antxitxika aldaeran ere erabiltzen da, nahiz gutxiago.*

ANTXOBA, antxobia: iz. Antxoa. *Antxobia txakur haundixan baldin badao, ekarri. Da handik gora badao, ez ekarri.*

ANTZ EMAN: DIO aditza. Igarri. *Ia aber inok antzik emate'iozuen hori montatzeko ze ein bihar izan zan hemen?*

ANTZ, antza: 1. iz. Usain txarra (hitz elkartuetan askotan): *Haura zuan kaka-antza, haura!* 2. iz. Trazatza: *Eztakak, ba, hire aittan antzik.*

ANTZEMAN: ZAIO aditza. Igarri. *Lau zulo, baiña oin desapareziuta daure bestiak, behia jota edo... Ya nun dauren etxako antzematen.*

ANTZERA: adlag. Berdintsu.

ANTZERAKO, antzerakua: izlag. Berdintsua. **Antzerako parezido:** Bi gauza berdintsuak direnean erabiltzen den esamolde adierazgarria. *Ni alpe-rra nok, baiña heu ere... antzerako parezido!*

ANTZIAN: postpos. Antzean. Izenen eta adjektiboen ondoren erabiltzen da, nekez aditzen ondoren. *Txoro antzian ibili da arratsalde guztian.*

- APAIZ, apaiza:** iz. **Abade** ere bai; askoz gehiagotan, gainera. *Neuk ere idea pixkat baneukan, eta onen-onena apai-za ero holakotxia izango zala egokixena, habitxaziua baldin bazeukan emateko.*
- APAPA (juan/irten):** haur. DA aditza. Pasiara joan.
- APAR, aparra:** iz. Bitsa.
- APARIKETAN (ibili):** DA aditza. Haurren jolasa, nagusien jarduerak imitatu ez giten dena; latorriak, harritxoak eta landareak erabiliz, etxea edo denda irudikatzen da, eta jaki-prestaketa edo salerosketak irudikatzen dira. **Afariket**an aldaeran ere bai.
- APARTAU:** DA aditza. Banandu, bereizi. *Ezkondu ein zan, da seme bat euki zaban, baiña apartau zian, da akabo.*
- APARTE:** postpos. Gain, izan ezik. *Hortik aparte, ez gendun ezer espezialik eitten.*
- APATX EIÑ:** DU aditza. Haur. Eseri. **Apatxi** ere bai.
- APATXI!:** haur. Eseri. Ikus **Apatx eñ**.
- APELLIDO, apellidua:** iz. Deitura. *Etsezurikuak zian, esate ziuena Etsezurikuak, Lizundia apellidua. **Apelidua** aldaeran ere bai. *Maria Luisa, zela da haura? Luisa... zer apelidua?**
- APENAS:** Ia, “Apenas”. Aditzak ez du normalean *-eN* menderagailua hartzen. *Españolak zi(r)an. Zaragozakua bata; bestia, eztakitt nungua zan. Españolak. Eta apenas eitte zaben frantsesez.*
- APIRIL, apirilla:** iz. Apirila. Ikus **Abri-lla** sarrera.
- APOPILLO, apopillua:** iz. Apopiloa. *Apopilluak ere izate genduzen! Bazkai-txan, apopilluak.*
- APOSTU, apostua:** iz. Apustua. **Postu-ria** ere erabiltzen da.
- APROBA, aprobia:** iz. Proba, saioa. *Bueno, ez zaitxezte estutu, hola ta hola aprobia eingo dou ta.*
- APROPOS:** 1. adlag. Berariaz, nahita. *Apropos ibiltzen da aldrebeskeixak esaten, jendia amorratzeko.* 2. adlag. Egoki. *Bai, han Errezildikan honutz. Euzkitza txaleta, holaxe apropos einda, terrenua itxitta.*
- APUR, apurra:** 1. iz. “Migaja”. **Ogi-apurra.** 2. iz. Hondarrak, gutxia. *Geratze jakuzen diru-apurrak gastauko dittugu.* Zenbait esapide jakinetan erabiltzen da: **-en apurra (dakitten apurra, daukadan apurra...)**. *Esan naban: “Ointxe don heuria, umiekiñ ikesiko don da. Dakitxen apurra soltauta nao ni umiakín”. / Eta eskolan ere zeozer ikixi genduan. Ikixi genduan apurra, ahiztu.* Zenbatzaile eta gradua-tzaile moduan, ez da **Apur bat** erabiltzen, baizik **Pixka bat (pixkat)** eta, gutxiexago, **Pittin bat**.
- ARABAZOZO, arabazozua:** zool. “Tordo de campanario”.
- ARANTZA BELTZ, arantza beltza:** bot. Ikus **Elor-arantza**.
- ARANTZA ZURI, arantza zurixa:** bot. Ikus **Elor-arantza**.
- ARBI, arbixa:** iz. Arbia. **Nabua** erabiltzen da gehiago.
- ARBOLA, arbolia:** iz. Zuhaitza.

ARDAU, ardaua: iz. Ardoa. *Han ondo. Ardaua ta sardaua ta... Ondo, ondo jaten da han, e! / Ardaua kendu jak medikuak.*

ARDI GALDUA BEZELA IBILI: DA aditza. Beti bakarrik, lagun-koadrilarik gabe, dabilenari esaten zaio. Ikus **Uztarri bakarreko laguna izan.**

ARDI-TXAKUR, ardi-txakurra: zool. “Perro pastor”.

ARDI-ZAIÑ(IAN): adlag. Ardiak zain-tzen. *Ardi-zaiñian mendixan ibili nitzan gaztetan.*

ARDIKI, ardikixa: iz. Ardi-okela edo arditik eratorritako edozein elikagai.

ARDURA IZAN: DIO aditza. Axola izan. *Neri eztitt ardura.*

ARDURA, arduria: iz. Ardura, kezka, erantzukizuna. *Maalan, eleizako faxadan, pelotan asko ein gendun guk. Ez zan autorik ibiltzen eta... Arratsalde guztian igual automobill bat ero, ez zauan horren ardurarikan. / Eta ezin ein izate dou lanikan. Ba, pixkat denporia pasatze aldera, zeozeren arduria euki.*

ARDURAGABE, arduragabia: izond. Axolagabea. *Arduragabia dok, benetan, Mikel. Etxok gauza bat ganoraz eitten. **Ganorabekua** ere bai.*

ARE, aria: iz. “Trapa”, horzdun ohola, lurra berdintzeko eta zokorrak apurtzeko erabiltzen zen tresna. **Aria pasau** eta **Aretu.**

ARENAKETA, arenaketia: iz. Lurzoruko egurrari egiten zitzaion tratamendua, garbitzeko. *Arenaketia, bai, bota arenia ta espartzua, da ra-ra, ta gero*

haura altzau ein bi'ozu, da, gaiñera, asko bustitxa ez, bere tamaña baten bustitxa, e!

ARGI, argixa: 1. izond. Adimen zorrotzekoa. 2. izond. Atseгина, sinpatikoa. *Argixa dok benetan zuen semia! Ikusitako guztietan eitten jak kaso!*

ARGI IBILI: DA aditza: Kontuz ibili. *Argi ibilli hari, hartzia nahi ezpadok!*

ARGI-OILLAR, argi-oillarra: zool. “Abubilla”.

ARGIXA IXUTU: DU aditza. Piztu. **Argixa bota, argixa piztu** ere bai.

A(R)I IZAN: DA aditza. Ari izan. *Bueno, urten ei biha juau, zeatik eze, ya alleatzen ai ditxuk Upeitza aldera. / Lanian ai dittuk, eta laga bakian. **Jardun** aditza ere erabiltzen da ekintzak adierazteko.*

ARKAKUSU, arkakusua: zool. “Pulga”. **Arkakuso** aldaeran ere bai.

ARKAZI, arkazixa: bot. “Acacia”.

ARKUME, arkumia: iz. Arkumea. Muggagabea, **arkuma** aldaeran ere entzuten da. **Bildots** hitza erabiltzen da gehiago.

ARKUPE, arkupia: iz. Udaletzeko, elizako eta Plazako etxeko azpialdea, arkuak dituen. Pluralean erabiltzen da.

ARLOTE, arlotia: izond. Ganora gutxiko pertsona, narrasa, zarpaila.

ARMIARMA, armiarmia: zool. Armiarma. **Maasmia** ere bai.

ARMUZU, armuzua: iz. Gosaria. **Armozu** aldaeran ere bai.

- ARMUZAU:** DU aditza. Gosaldu. **Go-saldu** ere bai. Bai eta **Armozau** aldaeran ere, nahiz gutxiago. *Eta hotelian trankill jan, goizian lo ein nahi doun arte, jaiki, armuzau, gero pasiaara bat ein... / Bazkaldu, ez, armuzau guk kalian, da jun. Da gero bueltan, bazkaixa.*
- ARNAS-HOTS, arnas-hotsa:** iz. Arnasaren zarata. *Hori dok arnas-hotsa zakarrena mendizale harek.*
- ARPEGI, arpegixa:** iz. Aurpegia.
- ARRAINDUN, arrainduna:** iz. Arrain-saltzailea.
- ARRANBELTZ, arranbeltza:** zool. Ikus **Zapelaitz**.
- ARRANDEGI, arrandegixa:** iz. Arraindenda. *Eta gero beste arreba, han aurre-rago peskaderixia, badago, ba, arrandegixa?*
- ARRANTZA, arrantzia:** iz. Astoen orroa. **Arrantzaka ibili (jardun):** *Arrantzaka ibili dok gabian zuen astua.*
- ARRANTZA, arrantzia:** iz. Arrantzua. **Peskia** erabiltzen da gehiago (**peskan ein**).
- ARRANTZAN EIÑ:** DU aditza. Arrantza egin. **Peskan ein** ere bai.
- ARRAPATAKA:** adlag. Presaka, arineketan. *Hantxe e(g)uzkixa zauan arte, eta gero, illunabarrian, illuntzixan, lan asko eitteko, eta arrapataka hauraxe ein ezinda. / Arrapataka baten etorri da.*
- ARRASTARA, arrastaria:** iz. Urratua.
- ARRASTO, arrastua:** iz. “Huella, traza”. *Arrastorik ere etxauat hartzen lagun berri horri!*
- ARRATOI-TXAKUR, arratoi-txakurra:** zool. “Perro ratonero”.
- ARREBA, arrebia:** iz. Arreba.
- ARRE!:** Astoari aurrera joateko esaten zaiona.
- ARRE, ARRE, MANDAKO:** Haur-jolasa, “Arre borriquito”, zozketak egiteko erabiltzen da. **Arre, arre, mandako, bixar Tolosarako, etzi Panplonarako. Handik zer ekarriko? Zapata ta gerriko!**
- ARREGLAU:** DU aditza. Konpondu. *Eta, gainera, jatekua ere diperentia geratzen da pixkat, eta etxian hobeto arreglatzen naiz.*
- ARREGLAUTA EGON:** DA aditza. “Estar bueno para...”. *Arreglauta hao hi egunian zortzi ordu lan eitteko!*
- ARREN:** postpos. Kontzesio-perpausetako postposizioa; normalean aditz-partizipioari lagunduz erabiltzen da (-TU ARREN); gutxiagotan, -eN menderagailua duen aditz jokatuari. *Monjak frantsesak izan arren, euron kantuak eta euren gauzak eta entzutia gustatze (j)atan... / Han gainetik jo arren bonbiak, etxuek apurtuko haura, lodiera haundixa jaukak eta.*
- ARRIMAU:** DA aditza. Hurbildu, iritsi. *Beti arrimatze jata mozkorren bat tabernetan! / Txakurra bai gogorra! Hari arrimatzerik eztao!*
- ARRIO, arriua:** iz. Andre ezkonberriak ezkondu den etxera daraman ekipajea, arreo, ezkonsaria.
- ARRISKAU:** DU aditza. Arriskatu.

ARRUA, arrua: iz. “Arroba”. Hamabi kilo eta erdi dituen pisua neurtzeko unitatea.

ARTABERDE, artaberdia: bot. Berdetan moztan den artoa, ganaduari jaten emateko.

ARTABURU, artaburua: izond. Pertsona leloa, ergela. *Eta nungua nitzan eztitt, ba, preguntau, artaburu honek! Artaburua baiño buru haundixaua euki.*

ARTAZI, artaziak: iz. Guraizeak. **Guraizak** ere bai; gazteen artean gehiago erabilia, azken hau. *Eta guk hemen esaten doun moduan, artaziak edo guraizak.*

ARTAZOPA, artazopia: iz. Artopila, artirinez egindako opila.

ARTE: postpos. Arte. Denboraren iraupen-muga neurtzeko postposizioa. Denborazko perpausetan, aditz jokatuekin nahiz jokatugabearekin erabil daiteke. *Eta hemen, berriz, euserkia ezta galduko mundua mundu dan arte. / Gero, Kolejiora; eta han eon nitzuan, ba horixe, gerria etorri arte. Artian* ere erabiltzen da.

ARTE, artia: bot. “Encina”.

ARTIAN: 1. adlag. Iraganeko kontaktunak egiteko adberbioa, orainaldiko oraindik adberbioari dagokion iraganerako forma. *Gero badakik, gu ibili giñanian ez artian, baiña gerra onduan eskoletan eon tzuan diziplina bat, euserkeraz hitz eittiakin... / –Eta, begiz jota bateonbat eukiko zendun, ala? –Ez, orduan gaztia nitzan artian. Artietan* forma ere bai, batzuetan, pluralean: *–Eta zeu kotxia manejatzen? –Ez, ezta-*

kitt nakixan, eztakitt artietan karneta eukiko naban. 2. postpos. Arte. Denborazko perpausetan ere erabiltzen da. *Zu etorri artian, ni enaiz inora juango.*

ARTIAN: Ikus **Neure artian** sarrera.

ARTO, artua: iz. bot. Artoa. **Artabizar.** *Artabizarra* erretze gendun gaztetan.

ASIKE: lok. Erdal lokailu ondoriozkoa. *Gar bat emate zaban handikan Gernika guztiak! Eta handitxik pasau bihar genduan. Asike, sea lo ke sea, Gernika.*

ASKA, askia: iz. “Pilón, abrevadero”. **Alberga** ere bai.

ASKI-BEDAR, aski-bedarra: bot. Sorroetan hazten den belar txarra. **Askixa** ere bai.

ASKO IZAN: DA aditza. Gauza handia izan, garrantzitsua izan. *Etxian guk jenero asko hartzen dou. Kuruntzuna, baldin melokotoia baldin bada, len esan dotena: keixia, patatia, porrua... Da hori etxerako asko da.*

ASKO: zenbtz. Ugaritasuna adierazteko. *Guk geuk ezin dou eñ ezer asko, hainbeste urtekiñ. Izenondoen ondoren ere bai: Dotore asko juan zian erromerixara. / Politt askua dok ume hori!*

ASPALDI: adlag. Antzina, behinola. *Aspaldi amaittu zuan gerria, baiña oindik azaltzen dok lurpian sartutako jendia. Aspaldixan: Aspaldixan* etxuau alkar ikusi, eta afaritxo bat ein biha juau. **Aspaldiko:** *Aspaldiko!* Bizi al gera?

ASTAKERTEN, astakertena: izond. Ergela, tentela.

ASTALARROSA, astalarrosia: bot. Sasi artean, basoan hazten den arrosa.

- ASTANAPARRI, astanaparrixa:** iz. Baztanga eroa, “varicela”.
- ASTAPERREJILL, astaperrejilla:** bot. Perrexil itxurako belarra, lore zuria duena.
- ASTEARTE, asteartia:** iz. “Martes”. Adinekoek **Martitzena** erabiltzen dute.
- ASTEGUN, asteguna:** iz. Lan-eguna. **Astegun buruzuri:** Aste erdia aste bukaerarekin kontrajartzeko erabiltzen da. *Hik dakak baloria, hik: Gabiñera [jartetxe baten izena da] hua afaltzera astegun buruzurixan!*
- ASTELEN, astelena:** iz. “Lunes”. *Astel^{en} buruzurixa eta ardo espezialak edaten? Majo bizi zerate, gero!*
- ASTIAN-ASTIAN:** adlag. Astero. Berdin, **hillian-hillian, urtian-urtian,** eta abar.
- ASTIRO:** adlag. Poliki, soseguz. Ikus **SOSIUZ** eta **POLIKI**.
- ASTO, astua:** iz. Astoa. **Asto zurixa allegau:** Logurea etorri, haurren hizkeran. *Zer? Abo zabalka? Allegau al da asto zurixa, umia?* Ikus **Txomin(txo) etorri** sarreran.
- ASTO-PROBA, asto-probia:** iz. Herrikirola, “Arrastre de piedra, tirada por burros o mulos”.
- ASTOKA (jolas eiñ):** Haur-jolasa, “a dólar”. Bat makurtuta jarri, eta gaineraoak gainetik salto eginez pasatzen dira. “**A burritxiko**” ere izaten zen astoka hau: bikoteka jokatzan zen, bata tente eta bestea lehenaren bizkar gainera igotzen zen: bultzaka eginez, gehien irauten zuen bikoteak irabazten zuen.
- ASTOLAN, astolana:** iz. Lan gogorra.
- ASTO-OKA(R)AN, asto-oka(r)ana:** bot. Okaran mota bat, heldutakoan kolore urdina hartzen duena.
- ASTOPEKOTZ, astopekotza:** iz. Astoaren gogotza.
- ASTOPOTRO, astopotrua:** izond. Bruto, bestia. **Astapotrua** ere bai.
- ASTUN, astuna:** izond. Pisutsua. *Pertsona astuna esate juek oiñ, baiña pertsona astuna eztok pertsona gogaikarrixa; ehun kilotik gorakua, bai, hori dok astuna.*
- ASUN, asuna:** bot. “Ortiga”.
- ASUNTO, asuntua:** iz. Gaia, kontua, egoera. Hitz elkartuetan sarritan (x + asuntua). *Eta ni, ba, ibili nahi, ba, danera, danera ibili nok ni, danera: eletrizidade asuntuau, hemen herrixan kabliak ipintzen Iberduero moduan. / Asuntua gaizki dao, krisi honekin.*
- ATAJU, atajua:** iz. Bidezidorra. Ikus **Bi(d)etxur** sarrera.
- ATAKA, atakia:** iz. Ate edo sarrera txikia. *Oiñ, biharbada eukiko deu atakia sartzeko, zera, igual larra eukiko deu.*
- ATAL, atala:** iz. “Gajo”. **Laranja-atala, berakatz-atala.**
- ATARA:** DU aditza. Atera. Ikus **Etara** sarrera.
- ATA(R)I, ata(r)ixa:** iz. Ataria. Baserriaren edo bestelako etxe baten sarbidea. *Eta danak sasoeratu dianian, neska eta*

mutill, ba, danak kotxia. Pentsa'ik ata(r)i aldian zelako tokixa biberko dan. Ata(r)ialdia euki: panorama, ikuspegia eduki. *Ze ataialde daok, ba?*

ATA(R)IALDE, ata(r)ialdia: iz. "Panorama", ikuspegia. **Ataialde exkaxa euki:** Panorama txarra eduki. *Ataialde exkaxa daukagu, hainbeste langabezi-rekin.*

ATARRAMENTU, atarramentua: iz. Normalean onura edo ondorio ona izango ez duen zerbait. *Gurasuak hil jakoz, eta ze atarramentu etarako jok gazte horrek oiñ?*

ATENTZIO, atentzia: iz. Arreta. **Atentzia eman:** Arreta erakarri, begia jo. *Bai, neri atentzia emate itx horrek detalliorrek.*

ATERRI EGON: DA aditza. Ateri egon.

ATERTU: DU aditza. Atertu, ateri.

ATSALDE, atsaldia: iz. Arratsaldea.

ATSO, atsua: iz. Andre zaharra. **Atxua** ere entzuten da. **Atsozar** (pei.) ere bai.

ATXIMURKA EIÑ: DIO aditza. Zimiko egin, atximur egin. **Atximurka** ere bai.

ATXUR, atxurra: 1. iz. Aitzurra, "azada". Hona aitzur mota batzuk: **arrazurra, jorrazurra, kortaturra. 2.** iz. Bizarra mozteko makina. **3.** iz. Igart. Mozkorra. **Atxurra harrapau:** fig. mozkortu. Ikus **Atxurru**, esanahi berarekin.

ATXURTU: 1. DU aditza. Lursailen bat atxurrez landu. **Atxurrian eiñ** ere bai. **2.** DA aditza. fig. Mozkorra harrapatu.

ATXUTXIAMAIIKA: Haur-jolasa, Elgoibarren bakarrik ezagutzen dena, eta leku jakin batean bakarrik jokatzen zena, parrokiaren arkupeetan eta parean dagoen botika-etxearen artean, hain zuzen. Geratzen zenak beste guztiak harrapatu behar zituen, baina besteek pasa zezaketen petritetik ezin zen pasatu.

ATZAMAR, atzamarra: iz. Eskuetako atza. *Horrek zittuan atzamarrak, horrek! Pelotaixa emate jua. Atzapar* aldaeran ere bai. *Pelotan eittia gustatze (j)ata, baiña atzaparrak haundittuta askotan.* Adineko hiztunek bereizten dituzte **atzamar / atzapar** hitzak bate-tik eta **bihetz** bestetik (eskukoetakoak eta hanketakoak, hurrenez hurren).

ATZAPAR, atzaparra: Ikus **Atzamar** sarrera.

ATZAZKAL, atzazkala: iz. Atzazala.

ATZE, atzia: iz. Atzea, atzeko aldea. **Atziak:** Ipurdiari esan izan zaio, lagunarteko hizkera arruntean. *Horrek dakaz atze polittak!*

ATZEKOZ AURRERA (ipini, jantzi...): adlag. Aldrebes. *Atzekoz aurrera jantzi dozu jertsia.*

ATZEN, atzena: zenbzt. Azkena. **Azken** erabiltzen da gehiago.

ATZERA: adlag. Berriz, atzera. **Berriz (Berritz)** ere bai. *Galduta eon dok, baiña atzera hasitta daok. Atzera berriz,* biak batera, ere bai.

ATZERA-AURRERA, atzera-aurreria: iz. Joan-etorria. *Gero Durangotikan ba, oiñez, bai jua da bai etorri, Urkiolarako atzera-aurreria.*

ATZO GOIZEKUA EZ IZAN: DA aditza. Adinean nahiko aurreratua izan. Ezezko forman erabiltzen da. *Eztok*, *ez*, *atzo goizekua*, *gure Patxi*.

AUKERA, aukeria: iz. Aukera. *Aukera haundirik etzauan gerra-denporan: zauana jan bihar. Aukeran: –Eguraldi ona, eztok? –Bai, ona! Bero, aukeran! / Politta dok alkondara hori, baiña karua, aukeran.*

AUNKE: lok. Kontzesio-perpauetako sarrera-lokailua, adin handiko hiztunen artean oso gutxi erabiltzen dena.

AUPAI: Haur. Jaiki, besoetan hartu.

AURKI: adlag. Laster. *Aurki, berriz, diru berri hori etorriko jaku, eta horrekin moldau bihako gera. Laste(r)* ere bai (normalean, azken kontsonantea gabe).

AURRERAPENA EMAN: DIO aditza. Aurrera egiteko bidea. Normalean ezezkoan. *“Beste guztiak erromerixan, eta hi lanian beti, soiñujollia beti lanian”, esate zaban. Gure aitzak ez zigun ematen aurrerapenik sekula [soinua jotzen ikasteko]. Aurrerapidia eman* ere bai.

AURRERAPIDIA EMAN: DIO aditza. Aurrerabidea eman. Zerbait egitera bultzatu, animatu. Ikus **Aurrerapena eman**.

AUSKALO!: interj. Nork jakin! *Auskalo zetara etorri jakun Inazita!*

AUTO, autua: iz. Automobila, beribila. *–Zeuk zaabizun autua? –Neuk nabillen autua, bai.* Ikus **Automobilla**.

AUTOMOBILL, automobilla: iz. Autoa, beribila. *Ibili zan arrankau nahixan automobilla, baiña nik kendu nion pie-*

za bat inok erabilli ez zeixan, pieza bat... haura gabe ezin tzeinkien juan garai haretako automobillak eta. Autua eta Kotxia ere erabiltzen dira.

AUTZII: Tori; dirua edo beste zerbait ematean erabiltzen da. *Autzi dirua, umia, eta erosi'zu nahi dozuna.*

AUZO, auzua: iz. Inguruko etxeren bat edo han bizi dena. *Etxian lenengo hamabost egun-hillabetian, auzora, titixa ematera. Hoixe dok, ba, lehengo zaharren jiria.*

AUZO-ALKATE, auzo-alkatia: iz. Auzo bakoitzak du, herri osoko alkatetz gain, bertako alkate bat, Udalarekiko bitartekotza egiteko-eta.

AUZOLAN, auzolana: iz. Auzoko herritarren artean egindako lana. *Lurretan ere bai. Danian len auzolana. / Auzolanian ein zeben San Migeleko frontoia.*

AZAL LODIXA EUKI: DU aditza. Kopeta izan.

AZAO, azaua: iz. Sorta, “manajo”. **Gari-azaua.** *Gari-azauekin gari-metak eitte zian. / Antortxa moduan ere erabiltze gendun gari-azaua. Sorta eta Txorta* ere bai.

AZARRE, azarria: izond. Handia, galanta. *Ño! Hauxe dok behi azarria!*

AZELGA, azelgia: bot. Zerba. **Azalga** aldaeran ere bai. *Ekarriko dozu letxua batzuk ero, porrua neguan, azia, koniflora, azalgia, eskarolia, danetik hartzen dot nik.*

AZERTAU: DU aditza. Asmatu. *Bai, horrek gauza asko esate jok eta (...)* *azertau eitte jok horrek ere.*

AZKAR, azkarra: bot. Astigarra, “arce”.

AZKENA, IPURDI GIZENA!: Haur-jolasa. Norbaitek lelo hau hori esanez gero, denak hasiko dira korrika, azken ez iristeko.

AZKENIK EZ IZAN: DU aditza. Zerbaitek amaierarik ez izan.

AZKOITTIAR, azkoittiarra: izond. Azkoitiko herritarra. **Azkuttiar** aldaeran ere entzun daiteke.

AZKONAR, azkonarra: zool. “Tejón”.

AZOKA, azokia: iz. Merkatua.

AZPI, azpixak: iz. Kortan, behiak etzaten diren lekua. Ikus **Azpixak eiñ**.

AZPIGARRIXA: iz. Behiei azpiak egiteko erabiltzen den edozer: garoa, orbela, txirbila... *Garua, orbela... azpigarrixa*.

AZPIXAK EIÑ: DU aditza. Azpiak egin, ganadua etzaten den lekua garbitu. *Orbela ere ibiltze gendun len, azpixak eitteko*.

AZTORAU: DA aditza. Bere onetik atera, urduri jarri.

AZUNBRE, azunbria: iz. “Azumbre”, likidoentzako neurria, bi litro.

b

BA: lok. Esaldi adierazgarrietan askotan erabiltzen den ondoriozko lokailua. *–Entenditzen al dozu telebisioko euskeria? –Entendiuko ezot, ba! / –Ibiltzen da ferixara ta, San Bartolomietan? –Horixe, ibiliko ezta, ba?*

BABA, babilia: 1. iz. Babarruna. *Lurrian orduan garixa ta artua ta babilia zian. Da patata pixkat, etxerako lainñ ero.* 2. iz. “Ampolla”.

BABA BELTZ, baba beltza: bot. “Haba”.

BABA GORRI, baba gorrixa: bot. Babarrun gorria.

BABA ZURI, baba zurixa: bot. Babarrun zuria.

BA(DA)EZPADA: adlg. Zer gerta ere, badaezpada. Arrunta da **Ere** lokailuak indartua aurkitzea: **baezpada're**. *Gu, baezpada, mina zuluuan sartze giñan [gerra-garaian]. / Ba(da)ezpada, bokadillua janda etorri naiz, eztoz uste afarixa congo danik eta.*

BADAEZPADAKO, badaezpadakua: izlag. Fidarria ez dena, susmagarria; erdipurdikoa. *Badaezpadako jende asko dao politikan.*

BA(G)E: postpos. Gabe. Adineko zenbait hiztunen artean entzuten da forma hau (bokalarteko leherkaria ahoskatzea gorabehera), **BE** gaur egun erabiliagoarekin batera. *Da barko haundixa zan haura. Sekula ikusi bagekua, Deban. / Hamazortzi hillebete, ez, hamasei etorri bae [soldadutzatik].*

BAI ZURI ERE!: interj. Adibidez, egun onak opa digunari erantzuteko erabiltzen da. *–Egun on! –Bai zuri ere! Edo, bestela, ondorengo hau: **Baitta zuri ere!** Edota **Igualmente!***

BAIETZIAN EGON: DA aditza. Baietz uste izan. *–Aurten etxok Barriolak irabaziko pelota txapelketia. –Ba, ni baietzian naja(g)ok, ba!*

BAIÑA: 1. Juntagailua. *Etxakat dirurik, baiña juango nok nora-nora oporretan.*

2. Kontzesioa adierazteko menderagailua, aditzaren ondoren joan ohi dena (ARREN, NAHIZ ETA eta horrelakoen baliokidea): *Eta kinto mordua dittuk e(g)on giñanak, oin bajauta gauaz baiña.*

BAIÑA, baiña: bot. Leka. Pluralean normalean.

BAIZIK ETA: Aurkaritzako juntagailua, aurretik doan perpausari ezezko forma eskatzen diona.

BAJA(T)U: DA aditza. 1. Jaitxi ere erabiltzen da. Oin bajauta daure beheara, kalera. / *San Bartolome egunian ere bai, ferixa-egunian ere bai eta, ostontzian ere ba, klaro, bajatu bai, eitxe gera [kalera].* 2. Bakandu. *Eta kinto mordua dittuk eon giñanak, oin bajauta gauaz baiña.* 3. Eskastu. *Hau hanketatik eta ni bistatik nao bajauta, juxtu-juxtu nabibil bistakin.* / *Goñi III, bai. Oiñ, bajauta hori ere oiñ asko.*

BAKE, bakia: iz. Bakea. **Bakerik ez euki ... arte/artian.** Ez zaukan bakerik beria eiñ artian. **Bakiak eiñ:** Bakeak egin, adiskidetu.

BAKANDU: DA aditza. Gutxitu, urritu. Oin bakandu dittuk asko [lagunak], *e! Pentsa'ik, oin larogei urte eukitzeko, bittarte horretan zenbatek heguak ipiñiko zittuan.*

BAKAZIO, bakaziuak: iz. Oporrak. *Ni lanian hasi nitzan bueno, ze esango (d)izut, bakazio batzuetan, hor basarri baten, tiua hangua zan da.* **Barkazio** aldaeran ere bai.

BAKILLAU, bakillaua: zool. Bakailoa. *Patatia zuritzea, da bakillaua txikitzerata, jute giñuazen.*

BALDIN: lok. Baldintza-perpausetan erabiltzen den lokailua. *Herri aldera begira jarri naban autua, deskuiduan estuasun bat sortzen baldin bazan, prest eukitzeko alde eitzeko.*

BALE IZAN: DA aditza. Baliokoa izan. *Len tallarrian ere, ba makiñiak buelta bat ematen baldin bazaban bale izate zan, baiña gaur egunian eztao hori.* **Balekua izan** ere bai.

BALEIKE: Baliteke. **Balitteke** ere bai. *–Harek dake diferentia neretzat entonaziua. –Baleike, bai.*

BALLARA, ballaria: iz. Auzunea, harrana. *San Pedro ballararik polittena dala esaten dabe.* Gehiago erabiltzen da **balle**.

BALLE, ballia: iz. Auzunea, eskualdea, arroa. **Baillara** baino gehiago erabiltzen da: **San Pedro ballia, San Droko ballia...** [Erromeriak] *Geo, San Mielen zela ipini zan, ba, horra jute giñan. Hamengo ballekuak horra jute zian. / Apai, meixenda-apaixa eman zi(g)uen jubillauei, ballekuei. / Baita hortikan ere, Madarixa aldetik eta Urruzuno ballia, Salontzo balletik eta, oiñez danak hamen goizaldian daka, daka, daka...*

BALORE, baloria: 1. iz. Ausardia. *Sei urte ein zitxun harek Manchester eta Liverpool-en, sei urte. Baloria! / Balorerik badakak, etorri hari hona!* 2. iz. Balioa, salneurria.

BANDERILLA, banderillia: iz. Pintxoa, ziri-mokadua. *Geo etorri hona,*

hartu banderilla bat, txikito bat, eta Mendarora jute gea, buelta bat.

BAPO!: haur. Amaitu.

BARATO!: Pilota alokatzeagatik edo pilotalekua alokatzeagatik ordaintzen zen diru-kopurua. “Barato” esanez *bialtze zittuen len mutilkoskorrak frontoetik, edadetuauak.*

BARE, baria: 1. zool. “Babosa”. 2. iz. “Flato”. **Bariak heldu.**

BARIXAKO, barixakua: iz. Ostirala. *Barixakua dok asteko egunik onena neretzat.* Ostirala ere erabiltzen da, baina gazteagoek: adinekoek **barixakua** darabilte erabat.

BARRE, barria: iz. Barrea. **Parre** ere bai, baina **barre** da erabilera orokorra duena. **Barrez.** *Itziar barrez!* **Barre eiñ.** *Barre eitxen dok? Makaleko juergia!*

BARREGURA, barreguria: iz. Barre egiteko gogo. Paraguasa, *han guardasola, paraguasa.* *Barre? Barreguria emate jaan, baiña.*

BARREN, barrena: iz. Lurralde baten beheko aldea. Hitz elkartuen bigarren osagaia askotan. *Juaristiko soro-barrena?* / *Hiru hil zittuen hamen beheko zelai-barrenian.* **Debabarrena, Praka-barrenak.** Anton. **Goena.** *Soro-guena.*

BARREN!: lok. Aurkaritzako lokailua; Debabarrenean bakarrik erabiltzen da, harridurazko testuinguruetan batez ere. *Bidixuan grabauta daukuu, baiña hemen ere noiz-nahi botatze juek parren!* / *Sasoez abixau nion... “hamarrak eta hamar ditxuk, barren, ondiokan!”* / *–Jaiki hari obetik, zortzirak dittuk eta:*

–Bakaziotan nao, barren! Jolin, umiak eztake, barren, iñun jolasian eitxeko lekurikan!

BARRIKA, barrikia: iz. Sagardoa gordetzeko egurrezko kupel txikia.

BARRU!: interj. Pilota-jokoan, nahi adina jendek parte har dezakeen joko; huts egiten dutenak kaleratuz doaz, eta azkenak irabazten du; hala esaten da joko hasten denean: *Barru!* **Barruzka** ere esaten zaio. **Fuerazka** ere bai.

BARRUA(K) EUKI: DU aditza. Urdail sendoko pertsonengatik esaten da. **Hori da barrua daukana!** *–Da kopia hartuaz, igual marmitxakua jan, ero haragixa, eo. Aj!* *–Hori da barrua!*

BARRUKO ELASTIKO, barruko elastikua: iz. Kamiseta. *Da len ere, oiñ geuk ere len barruko elastikua ta, elastikua jertsiari esate giñon.* *Barruko elastikua eta, guk sekula. Oiñ, interiorra esaten dou.*

BARRURA SARTU: euf. Kartzelara sartu. *Kristonak ein jittuk, eta barrura sartu juek ixa-ixa.*

BARRUZKA: Ikus **Fuerazka** sarrera.

BART: adlag. Atzo gauean. *Eztulka ibili da umia bart.*

BASA, basia: iz. Lokatza. **Lokatzia** ere erabiltzen da. *Bidiak, berriz, oin bezela eongo balira, ondo.* *Hor basia galanta, besterikan ez...*

BASAKATU, basakatua: zool. “Gato montés”. Izen generikoa da, katamixarrak, ipurtatxak edo paparzurixak, kataparduak... izendatzeko erabiltzen da, ugariak ez izaki oso ezagunak ez

direlako seguruenik. **Basakatu papar-zurixa:** “Turón”. Baita **Ipurtatxa** ere.

BASARRI, basarrixa: iz. Baserria. **Basarri-etxe. Kale-basarri.**

BASARRITTAR, basarrittarra: iz. Baserrian bizi den jendea. *Nabikua jatekua basarritxarrak zela dauken, ugerixa etxian zela dan... gitxiao igarri giñon [gerraosteari].*

BASURDE, basurdia: iz. Basurdea. **Basaurdia** aldaeran ere bai.

BASTANTE!: 1. Grad. *Horrek ere, ba, pelotan ondo eitten dabe, bastante ondo. / Lo ondo eitten det, bastante ondo. 2. interj. Nahikoa, nahiko ondo. **Bastante eñ:** Nahikoa/nahiko ona egin. *Bai, bai. Astia bastante ein dau. Oiñ ein daban eurixa ere, ba mesederakua da patatiantzako ta.**

BAT IZAN: DA aditza. Gauza bera izan, berdina izan. *—Eta Elgoibarren bertan barruan, auzuen artian diferente eitzen dozue? —Keba! Ez, ez, ez! Hau dana bat dok.*

BATA BESTIA: Elkar. *Elizpian jartze zitxuan lau ero bost abade, batak bestia kritikatzan, bata bestiari kulpia botatzan.*

BATAZ BESTE: adlag. Batez bestekoak, promedioak ateratzeko erabiltzen da. *Bataz beste, hirurehun bat lagun jungo dittuk futbolera.*

BATEK JAKIN!: interj. Auskalo! **Batek daki!.** *Batek jakik noiz etorriko dan elurra aurten!*

BATEKOZ BESTERA: adlag. Alderantziz. *Batekoz bestera erten jakuz gauzak, eta ointxe larri!*

BATEN: adlag. Behin. *Donostiara baten eo bitxan jun baginán, artian... / Da gu bakillaua txikitzen, baten baino gehixotan, ja, ja, ja!* **Behiñ** ere bai, maizago, gainera.

BATEN: Batean, *bat*-en inesiboko forma. *Etxe baten bizi dia horrek danak: etara kontuak nola ibiliko dian. **Batian** ere erabiltzen da: berez, jatorri batean, mugagabeko formetarako **baten** eta mugatuatarako **batian**, baina gaur egun era nahasian erabiltzen direla esan behar. *Playa baten daoz hiru kilometro... daoz batian.**

BATEN BAT: izord. Norbait, bat edo bat. **Bate(r)on bat** ere bai. *Eta hola batenbat ezezaguna ero bazauan, bateonbat beti gelditxuko zan harek alde eñ arte, ni zaintzen.*

BATEN BATZUK: izord. Baten batzuk. Baita **bate(r)on batzuk** ere.

BATU: DU aditza. Bildu. *Oindiok bazkaldu ta garua batu gainea in bi'ou. / Orduan gaztaiñia asko batze zuan. / Hogetamar milloee ta, esate'itxue. Nundik batu, nundik batu biha'ia horrek?*

BAZTAR, baztarra: iz. Bazterra. **Baztar guztixetan:** leku/inguru guztietan. *Danak ganauak libre eote'ia baztarretan. Danian dabixaz oiñ. / Dirurik etzauan baztarretan. **Baztarrak nahastu/endredau.***

BE: postpos. Gabe. *Etorri zanian ezkondu be nenguan artian. Gero ein tzi(d)an kartia. **Ba(g)e** ere erabiltzen dute adineko hiztunek.*

BEDAR, bedarra: bot. Belarra. Hona belar mota batzuen izenak: **Arkakusubedarra, Mielua, Uxarra, Lekeittio-**

bedarra, Litxamua, Kalabaza-bedarra, Kutxillo-bedarra, Aizari-buztana, Agillamua...

BEDARRONDO, bedarrondua: iz. Belarrondoa, “heno”. *Bedarra ondu, bai. Bedarrondua esate jakok.*

BEDEINKAZIO, bedeinkaziua: iz. Bedeinkapena.

BEGIOKER, begiokerra: izond. Begi okerrak dituen pertsona.

BEGIRASUN, begirasuna: iz. Begirada, begiratzeko era. *Kontuz horrekin, begirasun zorrotza ein dizu ta! **Be(g)ittunia** ere bai.*

BE(G)ITTAN HARTU (baten bat): DU aditza. Norbaiti gogo txarra izan.

BE(G)ITTANDU: ZAIO aditza. Iru-ditu. *Ia nun zian, harek; itxuria, enterau zan, handik ero, hamendikan ero, luze beittantze zitzakon da: “Zetan baiña hainbeste denporan?”.*

BE(G)ITTANZIO, be(g)ittanziua: iz. Irudipena.

BE(G)ITTUNE, begittunia: Ikus **Begirasun** sarrera.

BEGIXEN BISTAN: adlag. Begien bistan.

BEHE, behia: iz. Lurra, lurzorua. **Behia jo; behia jota (eon):** *Hor basarrixa oin behia jota dao. Beortzai Goixa? / Jo jok azkenian behia! Ikus **Jo** sarrera.*

BEHE-LAIÑO, behe-laiñua: iz. “Niebla”.

BEHI, behixa: zool. Behia.

BEHI-BETUN, behi-betuna: iz. Behiaren gorotza. **Behi-kaka** ere bai.

BEHIÑ: 1. adlag. Behin. **Baten** ere bai, nahiz gutxiago. **2.** lok. Denborazko perpausetan batez ere, sarrera-lokailu gisa ere erabiltzen da. *Behin gauzak okertzen haste ianian, alperrik izaten da dana.*

BEHIÑ EDO BEHIÑ: adlag. Noizean behin. *Debara behiñ ero behiñ jun izan naiz kañaberiakin. Baita **noiz edo noiz** eta **takian-takian** ere.*

BEHIÑEPEIÑ: lok. Behintzat, bederen. Emendiozko lokailua. *–Ez, en jeneral, goiz partetik behiñepein, Euskadi Irrati hori entzutze deu, bai. / Eta, dio Anjelek, karteria ona badaukazu behiñepein, ezin zera galdu.*

BEHINGUAGATIK: adlag. Behingoa-gatik. *Behinguagatik barkatu ingo jauat, baiña gehixago eztaixala holakorik ein, e!*

BEHINTZAT: lok. Bederen, behinik behin; emendiozko lokailua. *Jatekua nahi, eta ezin entendi! (...). Baiña entendi, eta jan jonen behintzat! / Eta asko ibilli bihar deu, itxuria, e! Merikuak hala esan tzian neri, behintzat. **Behintzet** aldaeran ere bai.*

BEINKE: Ikus **BIENKE**.

BEITU: DU aditza. Begiratu. *Basarrixan, beitu ezkeo, beti dao lana. / Beitu iozu horri, ze piura daukan!*

BEKOKI, bakokixa: iz. Kopeta. *Bekokixan hartu dau kolpia umiak, jausitta.*

BEKOZKO, bekozkoa: Ikus **Betozko** sarrera.

BELA(XE): adlag. Berehala. Testuinguru adierazgarrietan sarritan. *Hori ezta bela apurtuko. / Hain gaizki tratatzen badok, bela etorriko jatzu berriz! Handik Urkare(g)i belaxe dao. **Belakuan:** Berehalakoan. Ezezko perpausetan maiz, testuinguru adierazgarrietan. *Ezta belakuan etorri!**

BELA, belia: zool. Belea, erroia.

BELARRIMOTX, belarrimotxa: izond. pei. Euskal Herrira kanpotik etorritakoei, euskaraz ez zekitenei, esan izan zaie, mespretxuz; baita, euskaldunak izanik ere, beti gaztelaniaz ari direnei. *Horrek, "belarrimotxak" esate giñon guk hórreri [euskaraz egiten ez zutenei]. **Hazurbeltz** eta **maketo** ere bai.*

BELATXINGA, belatxingia: zool. Bele mota bat, bele arrunta baino txikiagoa.

BELTZA IZAN!: interj. Zerbait maku-rra gertatzen denean erabili ohi da. *Beltza dok, ba! Oinguan ere dana gaizki erten jakuk!*

BELTZUNE, beltzunia: iz. Ubeldua, beltzunea.

BENDA-BEDAR, benda-bedarra: bot. "Menta", usain gozoko belarra, erretzak egiteko ere erabiltzen zena.

BENETAN: adlg. Egjatan. *Bai, igarri zion erdi-erditxikan! Erditxikan! Hauraxe zan listua benetan!*

BENGA!: interj. Animoak emateko, aginduren bat emateko edo norbait estu hartzeko erabiltzen da.

BENGAIZO, bengaizua: iz. Mendekua. **Bengaizoz:** Mendekuz. *Bengaizoz portau zuan hain gaizki.*

BENTAJA, bentajia: iz. Abantaila. *Bentaja haundixa etara zion bigarrenari. / Gure bentajia hori: txikixak izen gu!*

BENTANA, bentania: iz. Leihoa. *Hor, Kamiñeroko frontoian bizi izan giñalagu, bentanatik beti beitsxu ta frontoia geunkan, hamendik kalia bezela. / Eta bentania holako pixkat zabalik baldin badaukak, dana entzuten dok. **Leixua** ere bai, nahiz **bentania** den arruntagoa. Ikus **Bentantxilla**.*

BENTANTXILLA, bentantxillia: iz. Leiho txikia.

BE(R)A: erak. Hirugarren graduko erakusle indartua.

BE(R)AU: erak. Lehen graduko erakusle indartua. Bokalarteko dardarkari biguna ahoskatu gabe gauzatzen da norma-lean: [beonek]. *Beonek esan dau.*

BERAKATZ, berakatz: bot. Bara-txuria. *Ointxe dator berrixa: letxua, aza, berakatz, kipula, idar, baba berri, ba, horrek danok daude oiñ, etortzen daude. **Berakatz-atala. Berakatz-burua. Berakatz** baiño fiñagua **izan:** Oso pertsona finengatik esan ohi da.*

BERANDU: adlag. Berandu.

BERANDUAN: adlag. Berandu. *Baña hori... beranduan izan zan hori. Zenbat urte dia, ba, oindiokan! **Berandu** da, nolanahi ere, arruntagoa.*

BERATZEN JARRI: DU aditza. Uretan jarri, biguntzen jarri. *Jarri babak beratzen, bixarko bazkairako.*

BERBA, berbia: iz. Hitza. **Hitz** ere erabiltzen da, baina **berba** gehiago adinekoen artean. *Berba suelto asko. / Ha-*

men Elgoibarko, bertan jaixotakua baldin bada, Elgoibarko berbia eingo dau, baiña asko dao kanpoko jentia ere Elgoibarren ezkontuta, sartuta.

BERBA EIÑ: DU aditza. Hitz egin. *Jendiakin berba eittia gustatze (j)ata. Hitz eiñ* ere erabiltzen da, nahiz adinekoen artean gutxiago.

BERBENA-BEDAR, berbena-bedarra: bot. “Verbena”, sendabelar mota bat, besteak beste bronkioak garbitzeko erabiltzen dena.

BERDE, berdía: izond. Pertsona lizuna.

BERDEKERIXA, berdekerixia: iz. Lizunkeria.

BERDIÑ IZAN: Ikus **I(g)ual izan** sarrera.

BERDINDU: DU aditza. **1.** Gose-egariak kendu. *Gosia berdindu dou, ta guazen berriz lanera!* **2.** Lursail bat zelaitsu, lautu. **Zelaixa berdindu, lursaila berdindu.**

BERDULERO, berdulerua: izond. Lizunkerietarako joera duen pertsona. Pertsona lotsagabea. **Berduleria,** emakumezkoetan.

BERDURA-PLAZA, berdura-plazia: Merkatu plaza. *Len oillua oso karua zan, nik basarritxikan ekartzete nitxuan oilluak asko edarrak hona, berdura-plazara.*

BERE, beria: izord. Berea. **Bere batian (ibilli, jua...):** Formal ibili. *–Bere batian ibili, e!* **Beria eiñ:** Bere borondatea egin. *Atzenian, ibili-ibili eiñ, eta beria ein jua Joxek. Beriak eta bost (esan):* Sekulakoak esan. **Beriakin er-ten:** Nahi duena lortu.

BERNA, bernia: iz. Berna-hezurra. *A ze bernakua eman dian umiak, konturatu be!*

BERO, berua: iz. Beroa. **Beruana kendu:** Kontakizuna gehiegi ez puzteko adierazi nahi duen esapidea. *–Gaur bota jittuagu berrogei bat uso! –Bai, zera! Beruana kendu ixok!*

BE(R)ORI: erak. Bigarren graduako erakusle indartua. Bokalarteko dardarkari biguna ahoskatu gabe gauzatzten da normalean; [beori].

BERORIKA: adlag. Berori tratamendua erabiliz jardun. Garai batean erabiltzen zen, abadeei, medikuari eta agintariei zuzentzeko. Ikus **Zuka** eta **Hika**.

BEROTU, berotua: iz. Egurtua. **Berotua eman:** Jipoia eman.

BERRI IZAN (jakiñ): DU aditza. Norbaiti edo zerbaiti buruz jakin. Osagarri hauek har ditzake: *Nongolzeren/noren berri izan. Hango berri izan/jakiñ. Eta banakixan nik Donostiako berri pixkat ordurako... / Zuk badakizu hamengo berri eta bakarrik lagako zaittut. / Banakixan nik haren berri.*

BERRIKETA, berriketia: iz. Berriketa. *Zenbat kontu esate ete juek horrek! Berriketia?! Berriketan jardun/eiñ:* Hitz egin. **Berriketia ez izan:** Txantxa ez izan. *Bai [hamabi seme-alaba etxean]. Ezta berriketia! / Ezta berriketia illia moztia, e! [garestia, alegia]. **Berriketarik ez egon baten batekin:** pertsona serioengatik edo kontuz ibiltzekoengatik esan ohi da. *Horrekin etxaok berriketarik, e!**

BERRITXU, berritxua: izond. Asko hitz egiten duen pertsona, hitz egitea asko gustatzen zaiona.

BERRIZ: 1. Adlg. Berriz, berriro. *Berriz eingo juau kale-bueltia. Berritz eta Berriro* (gutxiago) ere erabiltzen dira. 2. Aurkaritza-lokailua: ostera. *Gero, berriz, soldau zazpi urte inguru, esate jok berak ein dittuala gerratian.*

BESADA, besadia: iz. “Brazada”.

BESAMOTX, besamotxa: izond. Besoa falta duen pertsona. **Manttua** eta **Es-ku-manttua** ere bai.

BESTE: Berdintasunezko konparazio-perpauak osatzeko partikula: –*Gogorra dala pentsatzen dozue? –Bai. Bueno, oiñ ezta lehen beste, e! -tzeko beste, -tzako beste* (zuentzako beste).

BESTEKO: Kantitatezko konparazioak osatzeko izenlaguna. Bezainbesteko.

BESTEMODUTARA BIZI: DA aditza. Alde ederreko bizi, askoz hobeto bizi. –*Zuek zerate hamen eutsi diozuenak. –Bestemodutara bizi zara zuek! Bestemodutan bizi* ere bai.

BESTERIK: Besterik, baino, baizik. *Barkamena eskatu besterik etzaukan.*

BESUETAKO, besuetakua: iz. Pontekoa. *Nere besuetakua dok ume hori. Aitta besuetakua:* Aitabitxia, aita pontekoa. *Ama besuetakua:* Amabitxia, ama pontekoa.

BETE: DA aditza. Nekatu. *En kanbio, Gallastegi, manimano ta, bete eitxe zan, petxutik, gizon haundixa ta.*

BETE-BETE EIÑ: DA aditza. Asko edan, mozkortu.

BETOZKO, betozkua: iz. Bekokiaren zimurdura, haserrea edo nahigabea adierazten duena, beltzuria. **Betozkua jarri, betozkuakin ibili.** Bekozko iluna jarri. **Bekozkua** aldaera ere erabiltzen da.

BEZAIÑ: postpos. Berdintasunezko konparazioak osatzeko postposizioa. *Haren aitxa, buenooo, hemengauk bezaiñ zintzua da! Beziñ* aldaeran ere bai. *Ni pentsatzen eoten naiz, gaurko bat edo bi [seme-alaba] dian horrek, ez-tiala gure kuadrilla haundixa bezin feliz. Kuadrilla haundixa oso bizimodu zoragarrixa izan zan.*

BEZELA: Konparazioak bideratzeko postposizioa. **Moduan** ere erabiltzen da, beharbada gehixeago. *Eta kalietan zihar fusil bana hartuta, orden publikokuak bali(r)a bezela ibilli zian.*

BEZERO, bezerua: iz. Bezeroa. *Bezero asko geunkan guk orduan: orduak eitte gendun esne-partitzen.*

BEZIÑ: Ikus **Beziñ** sarrera.

BIAE, biaia: zool. Susara jartzen hasten den bigantxa, sei bat hilabetetik gorakoa.

BIALDU: DU aditza. Bidali. *Ostikua jo, eta txakurra bezela bialtze juen basarritarra.*

BIDAR: Ikus **Bider** sarrera.

BIDEKURUTZE, bidekurutzia: iz. Bidegurutzea. *Kriston mozkorra hartu, ta bidekurutzea juan, eta hantxe botata, kitxo!*

BIDER: Aldiz. **Aldiz** ere erabiltzen da. *Matrailekoren bat iual. Hola emate juen en jeneral. Eta berriz ondo garbit-*

tuta juten ezpazan, bi bider bialdu-takuak ere bai. Bidar aldaeran ere entzuten da. *Geu ere eon gara bi bidar ere, jun, da zortzi eunian; da edarki, mendira ta hau ta beste.*

BI(D)ETXUR, bidetxurra: iz. Bidezi-dorra. **Biitxurra** aldaeran ere entzuten da. **Atajua** ere bai, nahiz adinekoen artean gutxiago; gazteen artean, ez da gehiegia erabiltzen **bi(d)etxur** hitza.

BIDIGARRO, bidigarrua: zool. Birigarroa, "Malviz".

BIEN!: interj. Ondo. *Jaixan tokatze zanian da, bien! Baiña astegunian da hola ezin izete zan juan noiznabi, lana igual eitxeko etxian da.*

BIENKE: interj. Gaur egun, ez da ia erabiltzen. **Jakina, erregular** eta halakoen baliokidea dirudi, eta bestek esandako zerbaiti berrespena emateko edo hura ontzat emateko erabiltzen da normalean. **Beinke, binke** aldaeretan ere bai.

BIGANTXA, bigantxia: iz. Txahal txikia, 5-6 hilabete artekoa. **Biaia** esaten zaio handiagoari.

BIHAKO!: interj. Zer erremedio! Gauzaren bat etsi-etsian egin behar dela adierazten du, interjekzio modura erabiltzen da asko, aditz-partizipioaren laguntzarekin (haren aurretik nahiz atzetik) edo bakarrik. **Biheko** aldaera ere erabiltzen da, bai eta **Biharko** ere, nahiz azken hau askoz gutxiago. *Gustatze jatzu basarrixar? Biheko! Nora jungo nok, ba? / Zelako lokatzia! Orduan hor, abarkakin da, botiñekin da, jute giñuazan, neska laguntzera-ta juteko. Biheko! Bi-*

hako + aditza! (bihako eiñ!): *–Bixar lan pixka bat eittia tokatzen jaku. –Bi-hako eiñ, nagusixa hasarrauko ezpada.*

BIHAR, biharra: iz. Lana. **Lana** erabiltzen da gehiagotan. *Umiak badaukez bost edo, baiña hazitxa. Baiña danak enpleauta daukaz, biharrian. / Bueno, lanik gogorrena neretzako izate zan, kalian biharrian ibiltzen nitzanian, udakua. / Eta han eitte genduan, hiru errelebotan biharra. Biharrian eiñ: lan egin.*

BIHAR, biharra: iz. Beharra. **Zeozeren biharrian izan; Dana(n) biharrian egon:** ondo ez egon. *–Eta oindiokan hamentxe nahi bizi. –Eta osasunakin. –Osasuna... danan biharrian, e!*

BIHAR IZAN: DU aditza. Behar izan. **Bi** aldaera ere erabiltzen da, bilakabide fonetikoaren eraginez: **Etorri bi'ot** (*bihar dot*), **etorri bi'da** (*bihar da*). *Goiz jaiki bi'da lanak garaiz amaitzeko.*

BIHARBADA: adlag. Beharbada. *Ni zuekin hasiko nitzuan, biharbada ba... hamalau urtekin ero. / Ezautzen naban hau, e! Ordurako biharbada bai, ezautuko naban. / Oiñ, biharbada eukiko deu atakia, sartzeko; igual larra eukiko deu. I(g)ual eta Akaso ere erabiltzen dira.*

BIHARKO!: Ikus **Bihako** sarrera.

BIHARRIAN: postpos. Moduzko per-pausetan erabiltzen da, partizipioaren ondoren, **-TZEAR** menderagailuaren sinonimotzat: **-tu biharrian.. Galanki edan jok Patxik: jausi biharrian** dabik, barren! **Ixa ...-tuan** egitura ere erabiltzen da: *Ixa billian eon da pare bat egunian.*

BIHETZ, bihetza: iz. Behatza, hanke-tako atza. Adineko hiztunek ondo be-reizten dituzte hanketakoak (**bihetza, bihatza**) eta eskuetakoak (**atzamarra-k, atzaparrak**). Ikus **Atzamar** sarrera.

BI-HIRU (LAU-BOST...): zenbtz. Biz-pahiru, laupabost; asko erabiltzen da juntagailurik gabeko egitura hau, zehatzak ez diren kopuruak adierazi nahi direnean. *Gerran, han bi-hiru ur-tian haura, eta gu hemen. / –Badaukak lorarik? –Eta nik: Bai, be(de)ratzi-hamar bai, lau-bost klaseko lorak: go-rrixak, zurixak... eta edarrak.*

BIHOR, bihorra: zool. Behorra.

BIHOTZERRE, bihotzerria: iz. “Ardor de estomago”.

BIHOTZEKO, bihotzekua: iz. Bihotzeko infartua.

BIKAIÑ, bikaiña: izond. Ederra, handia. *Ño! Bikaiña do(k) pa, ixko hori!*

BILDUR, bildurra: iz. Beldurra. **Bilddur** ere bai. **Bilddurrak akabatzen egon:** Oso beldurtuta egon.

BILDOTX, bildotxa: iz. Arkumea. **Arkumia** ere bai, baina **bildotxa** da nagusi.

BILLAU: 1. DU aditza. Aurkitu. **Topau** ere bai. Gaztelaniazko *buscar/encontrar* bereizkuntza ez da egiten Elgoibarko euskarari: *Billau* eta *topau* gaztelaniazko *encontrar*-en ordainak dira. *Buscar*-ena, berriz, (**zeozeren / baten baten**) **billa** **ibilli**. **2.** DU aditza. Iruditu, iritzi. *Hamaika jugadoretikan beatzi kanpokuak, estranjerua dana ekarritxa. Hori, hori, nik eztot ondo billatzen hori.*

BIRIKIXETAKO, birikixetakua: iz. Tuberkulosia. *Birikixetako gaitzakin hil tzuan haura.*

BIRITTAN: adlag. Birritan, bi aldiz.

BISTAKO, bistakua: iz. Agerikoa, begi-bistakoa. **Bistakua izan:** Nabarmena izan. *Bistakua zuan Pedrok irabaziko zabala.*

BITTARTIAN: lok. Bitartean. –*Bilbora ta, Donostiara ta, takian-potian jua biharra izate zaban. Mutil fiña bera. –Eta zuk, bitxartian, erakutsi eitxe ziñon konduzitzen, automobilla ibiltzen? –Bai, lelenguetan ez, baiña poliki-poliki bai.* Ikus **Bixen bittartian**.

BITXO, bitxua: fig. Granuja. *Hi haiz bitxua, hi! Daneri adarra jotzen ibiltze haiz.*

BIXAR: adlag. Biharko eguna. *Bixarko laga (eg)ik gaur ein ezin dokena!*

BIXAR-ETZI: adlag. Etorkizun dagoenaren berri emateko erabiltzen da. **Bixar edo etzi** ere bai. *Danobat-en [lantegi baten izena da] zabillen anaixa, eta: “hi, hobe daukak hara etortzia, han tallara ondo jiek, eta bixar ero etzi han benefiziua eta, pixkat zeoze eman eitxe juek”. / Trenbidiari metro bat lagata hasi dia lanian. Baiña ez. Bixar-etzi doble bia bat o e(d)ozer gauza pentsau leike trenbidiak. Eta hari beste hainbeste laga in biha jako.*

BIXA(R)AMON, bixa(r)amona: 1. iz. Hurrengo eguna. *Hemen eote giñan, eta gero, bota ein biha zebela esan zebenan, bixa(ra)monian guk erten ein genduan. / Gau guztia Santa Eskian ibili. Etxetik etxera, eta, gero, bixa(ra)-mon goizian, lanera zuzenian, lorik*

batere ein be. **2.** iz. Festondoa, ajea. **Ajia** ere bai.

BIXEN BITTARTIAN: lok. Bien bitartean. *Gu, bixen bittartian, belarretara juate giñan.* Ikus **Bittartian**.

BIXOK: izord. Biok. **Halako eta bixok (hirurok...):** *Miren eta bixok juan giñan hondartzara.* Hori dioena ere sarzten da, noski, zenbaki horretan: *Miren eta bixok; Miren, Pako eta hirurok...*

BIZIKLETA, bizikletia: iz. Txirrindua. *Epokia izan najuan bizikleta bat erosteko, bigarren eskuko bat.* **Biziletia** forma soildua ere entzuten da.

BIZIPOZ, bizipoza: iz. Bizi izateko ilusioa. *Kotxe berrixa erostera najiek; horretxekin izengo juat bizipoz pixkat.*

BIZITZA, bizitza: iz. Baserri-etxe batean, familia bat baino gehiago bizi direnean, baserriaren parte bakoitzari esaten zaio. *Basarri honetan ere, lehen hemen zian, itxuria, bi bizitza zian.* / *Hori etxe haundixa, hortikaldeko hori? Bi bizitza zian hor.*

BIZIO, biziua: iz. Hesteetako zizarea.

BIZKAR, bizkarra: iz. **1.** Bizkarra. **Es-paldia** ere erabiltzen da, gutxiago. **2.** "Loma".

BLAI EIÑ: DA aditza. Erabat busti.

BLASTATEKO, blastatekua: iz. Matrailekoa, kolpea.

BLASTIUA: iz. Jipoia.

BOKADILLO, bokadillua: iz. Otartekoa. Ikus **Ogibittartekua**.

BODA, bodia: iz. Ezteia. **Ezteixak** hitza erabiltzen dute adinekoek gehiago. *Guk, bixok, eman giñon semiari etxia. Eta bodia pagau, eta erregalua danari eureri eman giñon.* / *Eta gero bueltan bazkarixa. Lehen hala izate zan, zapatu-domekan. Gero jentiari zerian, bueltan. Ezteixak esate zitzakon, ezteixak, bodia.* Ondo, *soiñua nehikua behintzat eta.*

BOLA, bolia: iz. Bola-jokoan erabiltzen den bola, egurrezkoa.

BOLARA, bolaria: iz. Bolada. *Azken bolara honetan politika-asuntua belzten aiodok.* **Bolada** aldaera ere bai, nahiz gutxiago.

BOLATOKI, bolatokixa: iz. Bolatokia, boloetan jokatzeko tokia. Elgoibarko ia auzo guztietan dago bat.

BOLETAN (EIÑ): DU aditza. Bola-jokoan egin. *Hiru txirlokin jokutzen da boletan hamen.*

BOLO, bolua: iz. Bataioen bukaeran, elizpeko arkupeetan zain dauden umeen artean banatzen diren opariak: txanponak eta gozokiak.

BOLO-BOLO (ibili): DA aditza. Esames edo berriren bat denen ahotan ibili. *Bolo-bolo jabik herrixan kontu hori.*

BONBATXO, bonbatxuak: iz. Praken gainetik lanerako jazten diren praktikak, mahoizkoak normalean.

BORONDATE, borondatia: iz. Nahia, borondatea. **Borondatez:** "Por propia voluntad". *Baiña adarixak euren borondatez eitxen dabe (alkar jo)... idixa ez, idixa obligau eitxen debe.*

BOTA: DU aditza. **Jaurti** ere erabiltzen da. *Dana puntu-puntuau dauanian botatze'izu txingor-zaparrada bat, eta danak hondauta lagatze'itxu.*

BOTA A(HA)LA: adlag. Erruz. **Eurixa bota a(ha)la jardun:** *Ez gaitek erten-go, eurixa bota a(ha)la ari jok eta!* Ikus **Goixan-behian** sarrera. Aditz-partizipioekin erabiltzen da **Ahala.** *Gu [baserritik] kalera etorri giñan danok, ezkondu a(ha)la. Ahalian* ere bai. *Abade frankista katalan bat zan... Igual tablia esaten, eta hola illaran danak, jarri eskua, hola dogula, eta jota eman a(ha)lian, di-da, di-da! Jota bilddurrez!*

BOTAKA EIÑ: DU aditza. Okatu, gonbitoka egin. **Txahala eiñ** esapidea ere erabiltzen da, lagunartean.

BOTIKARIXO, botikarixua: iz. Farmazilaria, botikaria.

BOZ, boza: iz. Hizkera, ahoskera. *Urka-regitik aurrea [Bizkaiarekiko mugatik aurrera] hasittakuan oso difeente [euskara]. Difeente bai, boza ta... Bai, bai. Boza kanbixau. / Eta boza txarra eman, gainera. Ez gure moduko, hau euskera boz hau.*

BRISTADA, bristadia: iz. Distira. **Eguzki-bristadia.**

BUELTA, bueltia: iz. Ingurua. **Buel-tako:** *Hara juate giñan [erromeria hartara] bueltako mutil batzuk.*

BUITRE, buitria: zool. Putrea.

BUKATU: DA/DU aditza. Bukatu. Ikus gehiago erabiltzen den **Amaittu.**

BURDI, burdixa: iz. Gurdia. **Gurdixa** ere bai, baina gutxiago adinekoen artean. Hona gurdiaeren parte batzuek

Elgoibarren duten izena: **burkaiñekua, burtragia, burtetxia, burpertia, burtardatza, burtezpata.**

BURLOSO, burlosua: izond. Pertsona burlatia. *Burlosua da ziherekua gure Iñigo: beti besteren kontura barrez jarduten deu.*

BURRUKA, burrukia: iz. Borroka.

BURRUKETAN EIÑ: DU aditza. Haur-jolasa, txantxetako borroka-jokoa.

BURRUNDARA, burrundaria: 1. iz. "Zumbido", intsektuek egiten duten hotsa, burrunba. 2. iz. Motorrek eta autoek egiten duten zarata (handia). *A ze burrundaria ateratzen daban Jonek motorrak!*

BURTRAGA, burtragia: iz. Gurdiaren galga. **Burdi** eta **draga** dira hitz elkartuaren osagaiak. Ikus **Burdi** sarreran gurdiaeren beste parte batzuen izenak.

BURUBELTZ, burubeltza: zool. "Carbonero", txori txiki mota bat.

BURUA LENGU LEPOTIK EUKI: esap. Berdintsu jarraitu, ez aldatu.

BURUTIK BEHERAKO, burutik beherakua: iz. Meningitisa. *Burutik beherakuakin hil zuan haura.*

BURUTIK JOTA EGON: esap. Burutik sano ez egon. *Burutik jota dao hori: negu gorrixan sandaliek!* **Burutik (ganbaratik) sano ez egon. Burua galdu:** zoratu.

BURUTIK JUAN: ZAIO aditza. Ahaztu. *Erabat juan jata burutik laguntzera etortzia, eta barkatu'iak.*

BURU-KANTSAZIO, buru-kantsaziua: iz. Burua erabiltzeak ematen duen nekea. *Maixuen lana buru-kantsazio haundikua dok, nabiz da opor luzietakua izan.*

BURUMOTZ, burumotza: izond. **1.** Buruan ilerik ez duena. **2.** Buruargia ez dena. **3.** Lepo motza eta lodia duena.

BURURATU: ZAIO aditza. Burura etorri. *Ño! Bururatuko ete jatak tresna horren izena!*

BUZTANIKARA, buztanikaria: zool. “Lavandera”, buztana dardarka izaten duen txoria, erreka inguruetan ibiltzen dena.

BUZTARRI, buztarrixa: iz. Uztarrria. Uztarrria aldaeran ere bai. **Buztarrri bakarreko laguna izan:** bakarrik, lagunik gabe, ibiltzen diren pertsonen esan ohi da. Ikus **Ardi galdua bezela ibili.**

d

DA!: onomat. Kolpe baten zarataren onomatopeia. *Atzaparrak hola ipiñi, eta regliakin da!, maixuak.*

DAIXOLA: adlag. Dariola. Lexikalizatutako forma da: odola daixola jua da / zan. **Babia / eldarra / dindirrixa... daixola:** Gernikako al tzan lekutikan pasau giñan, ez kamiño normaletikan, zeatik eze zaudezen *sua daixola etxiak.* / Etorri etxera eskolatik, bazkaldu, eta antxixtika frontoira: izerdixa *daixola* eskolara. *Aitxa eta ama beti errietan.*

DALAKO, dalakua: iz. Arestian aipatua. –“*Bollo de leche*” ero esate jakok, ba? –Bai. –Ba, *dalako* hori.

DAMUTU: ZAIO aditza. Damu hartu, garbaitu. *Hamen dakazue oiñ oportunitadiaz nahi badozue pixkat kotizatzeko, oin bota ein biha da, baiña gero etxatzue *damutuko*, esan zigun jefe (de) pertsonalak.*

DANA DALA: Aurkaritza lokailua. Dena dela.

DANA DALAKUA: Dena delakoa. *Badakazuz behixak edo *dana dalakua*, eta derrepente danak kendu bihar.*

DAN, dana: zenbtz. Guztia. Bakarrik normalean, baina izenaren laguntzarekin ere ager daiteke: *Dana nahi dau / *Tarta dana* nahi dau. Dan-dana* ere bai, enfatikoki errepikatua. **Dana(n) biharrian egon.** –Ze moduz *Maria?* –Bueno! *Dana biharrian haura ere!* Ikus **Guzti** sarrera.

DANBATEKO, danbatekua: iz. Zerbit indartsu jotzerakoan ateratzen den zarataren onomatopeiari (**danbari**) dagokion izena.

DANBOLIÑ, danboliña: **1.** iz. “Tanboril”. **Txistu ta danboliñ.** **2.** Ikus **Tanboliñ.**

DANERAKO, danerakua: izlag. Dene-tarikoa, askotarikoa. *Urrutiko jendia gehixena; *daneakua* zauan, *daneakua*, baiña urrutikua gehixena./ *Danerakua* zauan Gabonzar perixan, jenerua.*

DANGA!: onomat. Kolpea. *Okerra eitte zabanari, *danga* harek.* Hortik, izen hau: **dangatekua.**

DANIAN: adlag. Leku guztietan. *Ez, *danian* gu ondo hartu gaittue oiñ artian.*

DAR-DAR: onomat. Hotzak edo bel-durrak eragindako ikararen onomatopeia. *Gorputza dar-dar batian nakan.*

DARDARA, dardaria: iz. Astinaldi labur eta arinen saila. **Dardarizua** ere bai.

DARDARIZO, dardarizua: Ikus **Dardara**.

DAUKANAK ETA EZTAUKANAK: esap. Dena. *Idixa obligau eixen debe: han lotuta ipiñi, eta aida, daukanak eta eztaukanak etara.*

DEBALDE: adlag. Dohainik. Baita **Duan** ere.

DEBAR, debarra: izond. Debako herri-tarra.

DEBRAZETE (helduta ibili): adlag. Besotik helduta. Garai batean herrian horrela ibiltzea erraza ez zenez, kanpora joan behar izaten zuten bikoteek **Debrazete (helduta)** ibiltzera. **Debrezete** aldaeran ere bai. *Hi, debrazete jiezak Joxe eta Mari!*

DEFENTSA, defentsia: iz. Babesa. *Dana harrapau. Depentsaik ez [inguru] honek [gerra kontuez ari da, nazionalek hartutako lurrez].*

DEMANDA, demandia: iz. Sesioa, eztabaida. **Demandan ibili.** *Horrek demandan dabixaz oiñ ere.*

DEMASA: izond. Oso handia. *Demasa zan gizona, da altua. / Demasa dao gure semia, e! Ehun kilotik gora izengo dok. **Demasekua** ere bai. **Demasekua(k) hartu / gertatu / esan...** (ikus **egundokua / sekulakua / makalekua / kristona**): Handiak hartu, gertatu, esan...*

DENPORA, denporia: iz. Garaia. Hitz elkartuaren bigarren osagai gisa askotan: Izena + *denpora*. *Nik gerra-denporan bi urte nakazen, ei nakazen. / Len, Burgoetik bastante biagia, ta... gazte-denpoan etsitta, ya ezkiñala etorriko gehixao pentsauta. / Bai, holaxe ibiltte giñuazen gure txiki-denporan. **Gazte-denporan, zahar-denporan, gerra-denporan...***

DENPORALE, denporalia: iz. Denbora luzea. *Mobilizau giñuazen beste denporale baterako. / Elgoibarren harek denporalia ein zaban. **Denporalian:** Luzaroan. *Ni eskolan denporalian ibili nitzan, baiña gero eskolatikan erten in bihar izan genduan.**

DERREPENTE: adlag. Berehala, bizkor. *Baguazen geure konbertzatzian. Da euskeraz. Da erten diu (...), harek derrepente garbitxuko giñuazen, e! / Berrogei bat milloi tokau ezkerro, ba, neuk pentsauko (do)t, baiña derrepente gas-tauko neuke.*

DERRI(G)OR: adlag. Nahitaez, halabeharrez. *Basarrixan derrior euki bi'ozu txakurra. / -Ezagutu, ezagutuko (d)ot nik zure semia. -Derrior ezagutu bihar. / Orduan zintzua izan bi'zuan, derrior. Baita **Derri(g)orrez** ere.*

DERRI(G)ORRIAN: adlag. Behartuta. *Derriorrian eruaten badeu, beste automobill bat ekarri bihako jok remolkian eruateko.*

DESAFIXO, desafixua: iz. Desafio.

DESAPAREZI(D)U: DA aditza. *Desagertu. Lau zulo, baiña oin dezapareziuta daure bestiak. Ya behia jota ero... Ya nun dauren etxako antzematen.*

DESASTRE, desastria: iz. “Desastre”.
Eta holaxe ein genduan bueltia. Atzera, Gernikatikan zihar, zela ero hala, pa-sau, eta hango desastria!

DESDE LUEGO: lok. Erdaratikako lokailua, ahozko jardun arduragabeen erabiltzen dena. *Nik, desde luego, gazzetan ixa dana erderaz itxen naban, dana erderaz.*

DESIATU: DU aditza. Desio izan. *Ba, esan diot hemen eote ziñala ni ikusteko desiatzen.*

DESKANTSU, deskantsua: iz. Atsedena. *Egunian zihar? Ze ingo dot, ba, ezetarako enaiz ta; ezer ez oiñ, etzanda eoteko gogua, besterik ezer ez: deskantsuan ondo, ohian.*

DESKUIDAU: 1. DA aditza. Saiatu, mehatxu moduan erabiltzen da: *Ez deskuidau ...-tzen. Holako zulo txiki bat eta justu-justu-justuan sartu nitzuan. Da aittak, “Hi, ez hari berriz deskuirau han sartzen, e!”* 2. Da aditza. Oharkabetu, deskuidatu. *Deskuidatzen bahaiz, laste(r) haiz langabezixan.*

DESKUIDO, deskuidua: iz. Baldintza-perpausetan asko erabiltzen den sarrera-hitza: **Deskuiduan ... ba-**: normalean baldintza-perpauz batekin: *Azkarate gaiñian, bueltia eman automobillari, eta hona herri aldera begira jarri, deskuiduan estuasun bat sortzen baldin bazan, prest eukitzeko alde eitzeke.*

DESTINO, destinoa: iz. Destino.

DEZENTE: 1. zenbtz. zehaztugabea. **Dexente** ere bai. *Jende dezente batu da plazan.* 2. **adlag.** Askotxo. *Saltsa-gauza zalia nok, eta dezente jate juat.* 3.

izond. Handi samarra. *Gose dezentia daukat. / Dezenteko kolpia hartu jok.*

DIABRU, diabrua: iz. Deabrua, demonioa; batez ere umeekin erabiltzen da. Ikus **Etsai** sarrera.

DIAR, diarra: iz. Oihua. *Ba nere andriak ikusi zittula esaten dau. Bost eo ziala hor. Bost. Da diar batzuk ein zittula, ta goittik behera.*

DIAR EIÑ: DIO aditza. Deitu. **Hots eiñ** ere bai. *Marinarako ere diar ein tzien.*

DI-DA: onomat. 1. Azkar, berehala. *Oiñ ez, oin kotxia hartu, eta di-da jauten da jentia. Eta oiñ, sikiera, kotxiakin jute zara, eta di-da ekarri medikua.* 2. Zerbait gogor jotzean ateratzen den hotsa. *Di-da, jo juan burutik behera.*

DIFERENTE, diferente: izond. Desberdina. F/P alternantzia askotan gertatzen da hitz honetan adinekoen artean: **diferente/diperente.** *Kamionak eskuz kargatzen zian danak, hartu, eta bun eta bun. Gaur eztao holakorikan. Gaur diferentia da.*

DIFUNTO, difuntua: iz. Hildakoa, zendua. Ikus **Zana** sarrera ere: Pertsona-izen baten ondoren normalean. *Bai, bai, juan bertara, eta arraiña peskan. Eta amorrauak giñan gu, hau Kondia difuntua? Haura ta.*

DINBI-(TA)-DANBA: onomat. Kolpea. *Kalamuan geratu zittuan, eta sei hillabetian hortxe dinbi ta danba, baztar guztiak garbitzen.*

DINDIRRI, dindirrixa: iz. Sudurretik erortzen den tanta. *Sudurretik dindirrixa daixola dabil.*

- DIRANAK ETA EZTIRANAK (esan):** esap. Egundokoak (galantak) esan.
- DIRU, dirua:** iz. Dirua. **Dirua eiñ:** aberastu. *Oiñ ere lanian Joxe, dirua eiñ eta eiñ!*
- DISGUSTO, disgustua:** iz. Ezustea. *Laga'ik nobixia. Oin, disgusto haundi hori ez'ixok eman nobixiari, bestela...*
- DISKUTI(D)U:** DU aditza. Eztabai-datu.
- DISPARATE, dispartia:** iz. Zentzugabekeria, aldrebeskeria. *Basarrizan ordukua dispartia zan. Segia, i(g)i-taixakin garixa ebatia ta, buruz be(he)-ra aldapa galantian. Okertu itxe zian garixak be(he)ra ta. / Gero, ba, berba batzuk, dispartiak esanez kontestau eta eitte genduan.*
- DIZIENBRE, dizienbria:** iz. Abendua. **Gabonilla** gaur egun galduta dagoela esan daiteke.
- DOBLE:** izond. Bikoitza. Izenaren aurretik normalean. [*Tabernan*] doble lan izete gendun domeketan.
- DOMEKA, domekia:** iz. Igandea. **Jaixa** ere erabiltzen da. *Domeketan ixa periodiko danak eroste (d)ittut.*
- DOMINISTIKU, doministikua:** iz. Usina, "estornudo".
- DOMUSANTU EGUNA:** iz. Santu guztien eguna, azaroak 1a. **Santu Guztixen Eguna** ere erabiltzen da. *Domu-santu eguna, "Domini todos los santos"? Santu Guztixen egunian izate zuan gazi-taiña erria jaten hasteko eguna.*
- DON IZAN:** esap. Edozein ez izan, ondo egon. *Don zuan orduan motorra zaukana. Don egon* ere bai.
- DON-DON EIÑ:** DU aditza. Zozketa-tu. Hona formula pare bat: **1. Don-don, Beledon, Beledongo herrixan, zazpi gizon dantzan, ni mozkorra, zu mozkorra, nahi dabanak kan-po-ra. 2. Don-don, Kikilimon, Zarraskuke Zarramon, pike, pike, tontolike, banbu, sile ketake bu; nahi dabanak, nahi dabanak, kan-po-ra.**
- DRAGA, dragia:** iz. Gurdiaren galga. **Burtragia** ere erabiltzen zen. Ikus gurdiaren parteen termino gehiago **Burdi** sarreran.
- DROGA, droga:** iz. Sesioa, liskarra. **Drogan ibili, Droga baten ibili. Mu-till hori beti drogan dabik.**
- DROGOSO, drogosua:** izond. Pertsona istiluzalea, ume okerra.
- DUAN:** adlg. Debalde, dohainik. **Debalde** ere bai.
- DUDA, dudia:** iz. Zalantza.
- DUDIA EIÑ:** DU aditza: Zalantza egin. **Dudia** bakarrik ere bai: **Dudia?** Elkarritzaketan, interjekzio modura, askotan erabiltzen da: *Nik irabaziko izut. Dudia? / -Zintzuak izango ziñaten, ezta? -Honbre! Dudia?*
- DULTZE-MENEO, dultze-meneua:** iz. Elkarri helduta egiten den dantza. **Heldua** eta **Heldu-lana** ere bai. *Azkarate gaiñian, Elgoibarko partetik dantza lotua eitte zuan. "Dultze meneo" esate jakuan Azkoitixan horri. / Azkoitixan, berriz, etzuan eoten libre heldurikan, heldu-lana. Heldu-lana esate jauen, ta*

geo ipini jauen “El dulce menea” izena heldu-lanai. Ba, Azkoittiko neskak as-mautakua zuan hori. Elgoibarrera etortze zittuan Trinidadietan da San Bartolomietan. Ta hemen libre ta, “el dulce menea”. Helduta dantzan eittera.

e

EBA(G)I: DU aditza. Moztu. *Belar-ebaten ai da Pedro.*

EBA(G)I-BEDAR, eba(g)i-bedarra: bot. Sendabelar mota bat, besteak beste ebakiak sendatzeko erabiltzen dena. Baita **Iodo-bedar** ere.

EDADE, edadia: iz. Adina. *Hik ezதாக, barren, tabernan sartzeko edadia oin-diokan!*

EDADE HAUNDIXA: iz. Zahartzaroa. *Penia emate’iu, baiña, e! Baiña edade haundixakin zahartuta ezetan eztanian ere... Hori gaizki.*

EDADE MAIOR, edade maiorra: iz. Adin-nagusitasuna. *Ez haiz oingotxia! Allegau jak, barren, semia edade maiorra!*

EDADETU: DA aditza. Adin-nagusitasunera iritsi.

EDAN TXARREKUA IZAN: esap. Edandakoan gaizto jartzen denez esaten da. *Hi, hori edan txarreku dok, eta argi!*

EDAR, edarra: izond. Ederra. **Edarra eia:** *Edarra ein juau ointxe! Etxera jun nahi, eta giltzik ez!*

E(D)ARKI: adlag. Ederki. *Edarki asko eitte jok horrek euskeraz.*

EDOZENBAT: zenbtz. zah. Ugari, asko. *Soiñujoliak len edozenbat zian, soiñujole onak, e! Onak baiña!*

EDUR, edurra: iz. Elurra. *Edurretan ibiliko gaittuk aste-bukaeran Pirineuetan. L/D alternantzia gertatzen da kasu honetan: elur/edur. Edurra jar-dun, Edurrak jo.*

EDURBUSTI, edurbustixa: iz. “Agua-nieve”.

EDURSIKU, edursikua: iz. Bustitzen ez duen elur mota.

EGOKITTASUN, egokittasuna: iz. Erosotasuna. *Orduan medikua ta hola eitzeke, Valladolid aldera ta, urrutira ta, juan bi’izate zan. Oingo egokitxasunik ez zauan.*

E(G)OSKOR, e(g)oskorra: izond. Nekez amore ematen duena, tematia. **Temosua** ere erabiltzen da.

E(G)UALDI, e(g)ualdixa: iz. Eguraldia. Normalean, ez da ahoskatzen bokalarteko kontsonante leherkaria: **Eualdixa.**

E(G)UARDI, eguardixa: iz. Eguerdia. *Erreiñak ere etxequak, lan asko daka umiekin. Oin ikastolara eruan biha’ittu, eta goizian eruan, eguardixan berriz jun, eta gero, illuntzixan.* Normalean, ez da ahoskatzen bokalarteko kontsonante leherkadia: **Euardixa.**

E(G)UARTE, eguartia: iz. Goizaren erdi aldetik bazkaldu arteko denbora tartea.

E(G)UASTEN, e(g)uastena: iz. Asteazkena. *Euastenetan azokia izeten dok Eibarren.*

E(G)UEN, e(g)uena: iz. Osteguna. *Eue-
netan azokia izeten dok Elgoibarren.*

E(G)UEN ZURI EGUNA: iz. Inaute-
rietan, Ostegun gizen eguna.
Sasikoipetsu eguna ere bai.

EGUNA ARGITTU: DU aditza. Eguna
zabaldu, egundu.

E(G)UNDO: adlag. Inoiz ez, orain arte
ez; ezezko perpausetan erabiltzen da.
*Eta hortantxe ibili giñan gu. Bueno, ni
enitzan juan egundo. / Hori oso akon-
tezimentu haundixa izan tzan hori
barkuori, egundo holakorikan ez zan ein
Deban, haiñ haundixa.*

E(G)UNDOKO, e(g)undokua: grad.
Oso handia, sekulakoa. *Egundoko ji-
poia hartu jok. / Urkittik eundoko bota
kaxkarrak eo zeozekin, badakik zela
jungo giñan gu horra. Ikus Demasekua
/ sekulakua / makalekua / kristona /
Jesukristona(-k) hartu (esan...).*

E(G)UNIAN-E(G)UNIAN: adlag. Egu-
nero. Berdin, maiztasun bat adierazte-
ko, **astian-astian, hillian-hillian**, eta
abar.

EGUNSENTI, egunsentixa: iz. Goizti-
ria, goizabarra.

EGUR, egurra: iz. fig. Jipoia. **Egurra
eman:** Gero, ejerziziuaq eta cote zi-
ttuan. Orduan, *egurra emate juen.* Ikus
Egurtu sarrera.

EGURTU: DU aditza. Jipoia eman.
Ikus **Egur** sarrera.

E(G)UZKI, e(g)uzkixa: iz. Eguzkia.
Ahoskera gehienetan, bokalarteko le-
herkaria erori eta bi bokalak diptongo
eginez ahoskatzen dira.

E(G)UZKI-GALDA, e(g)uzki-galdia:
iz. Eguzkiak gogorren jotzen duen
unea; inesiboan, normalean. *Eguzki-
galdatan juan giñan Karakatera.*

E(G)UZKIBEGI, e(g)uzkibegixa: iz.
Paraje eguzkitsua. *Honek azensora
zakan, da gainea hiru(g)arren pisua da,
euzkibegira, leku politxa, neure gustoko
lekua. Eguzkibegixan egon:* Paraje
eguzkitsuan egon. *Eguzkibegixan dao
Upaitza, gure basarrixa.*

EI: Omen. *Tanke txiki batzuek ei zian
italianuenak. / Oiñ Eibarko residen-
tzian ei dao. I* aldaera ere erabiltzen
da. Elgoibarren, ez da **Omen (emen)**
erabiltzen, ez bada Azkoitia aldera
egiten duten Azkarate inguruko base-
rietan.

EIBARTAR, eibartarra: izond. Eibarko
herritarra.

EIÑ: DA/DU aditza. Karguetarako
erabiltzen da: zerbaiten kargua izan;
mugagabeko predikatu osagarriarekin.
Maiorazko eiñ, buru eiñ... *Eta, han
tzauan, familixan, mutill bat, mutill
nagusixena, etxeke maiorazko ein
tzabana, Bizente izena zaban. / Entre-
bistaren bat buru eitxen zaban batekin
ero hola, hori ere tokau zitzatan eitxia. /
Luixan gizon haura, artian nobixua
zan, baiña direttore eitxe zaban. Nora
eiñ: (Bigoin basarrixak) len Alitzolara
eitte zaban. / Nungo eiñ: Injenierua
bera, Lafitte. Itxuria, hori apelliduori
frantsesa da, haren gurasuak bere epokan
etorri zian Donostiara, eta hamengotxe
einda.*

EIÑ: DU aditza. (Apustu) egin. **Eingo
neuke (apostu) ...-eLA.** Apustu egin-
go nuke... *Eingo neuke datorren astian*

- ezkontzen *dala*. Baita hau ere: **Lepua eingu neuke**.
- EJERZIZIO, ejerzizua:** iz. Ariketa. *Gero, ejerziziuak eta eote zittuan.*
- EKARRI:** DU aditza. Eguraldiaz hitz egitean erabiltzen da. *Trumoia dakar.*
- EKIÑ:** DA eta DIO aditza. Hasi. *Baiña pasieran gehixo kantsatze giñan edoze-tan baiño, egonaldixa eiñ, eta jun. Ta laguna ekin zan gaixotzen, eta akabo. / Bueno, hor ekin dia kanpotik etortzen, soiñeko erropak, beste maleta zahar bat, eta erropak jartze zitxuen hamen kole-jixo barrenian.*
- EKIÑALDI, ekiñaldixa:** iz. Zerbaiti ekiten zaion aldi bakoitza.
- EKONOMIKA, ekonomikia:** iz. Egu-rra edo ikatza erretzeko sukaldea.
- ELDAR, eldarra:** iz. Adurra, lerdea. *El-darra daixola dabil umia.* Baita **Babia daixola** ere.
- ELEGANTE, elegantia:** izond. Doto-rea. *Baiña pelotari elegantia izen dok hori, e! Elegantia pelotarixa. Horrek muñekiakiñ, gorputza geldi-geldi daka-la, pelotia ondo ateratzen dau.*
- ELEMENTO, elementua:** iz. Pertsona berezia, bihurria, granuja. *Mutill hau ere elementu edarra daukazue.*
- ELGOIBAR:** leku-izena. Herriaren ize-nak lehenbiziko silaban du azentua; gaur egun, bigarrenean azentuatuta entzuten da, gazteen ahotan batez ere.
- ELGOIBARTAR, elgoibartarra:** izond. Elgoibarko herritarra. Asko erabiltzen da **Elgoibarkua** ere.
- ELGOIBARTAR EIÑ:** DU aditza. El-goibarko hizkeran hitz egin. *Elgoiba-rren eitxen bo'zu, ba, "nobenta por zien-to" dakazu posibilitadidia elgoibartar eitxia [Elgoibarko hizkera].*
- ELIZA, elizia:** iz. Eliza. **Eleiza** aldaeran ere bai, nahiz gutxiago. Ez da inoiz palatalizatzen (**elex*).
- ELIZAKUAK EMAN:** DIO aditza. Oliadura eman.
- ELIZPE, elizpia:** iz. Elizpea. *Eurixa ei-txe zabanian, danak elizpera.* **Arkupe** ere erabiltzen da, nahiz elizakoetarako bakarrik ez duten balio.
- ELOR-ARANTZA, elor-arantzia:** bot. Elorria, generikoa. **Elor-arantza bel-tza:** "Endrino". Patxarana egiteko oka-ranak ematen dituen. **Elor-arantza zurixa:** Elorri zuria.
- ELTXO, eltxua:** zool. "Mosquito". In-tsektu hegalaria, pertsoneri zitzadak egiten dizkiona.
- EMAN:** DU aditza. Dirua eman. *Horrek eman eitte jok, piñuak eman eitte jok.* Ez da **Emon** aldaera erabiltzen.
- EMAZTE, emazia:** iz. Emaztea, "espo-sa". **Andria** erabiltzen da gehiago. *Gero hementxe, ba, hemen ama eta ama-semiak eta nere andria, emazia bizi zian. Eta beste abizpa ere bai.*
- EMENDAU:** DU aditza. Itzali. *Politikia ta, telebisiuan ikuste'otengan, emendau, eta alde eitxen dot.* **Amatau** ere bai, nahiz gutxixeago.
- EN KANBIO:** lok. Gaztelaniatikako lokailu aurkaritzakoa, lagunarteko ahozko jardunean erabiltzen dena. *Etxian umiak kalera, ba, egunian erro-*

pa klase bat eruan biha dabe. En kanbio, basarrixan bazabiltza, ba, ez. / Lehen jentia goixan eote zan, goiko plaza aldian dana. Oiñ, en kanbio, Maala al-dian, gazte-jentia.

ENBUSTERO, enbustera: izond. Pertsona losintxaria, lausenguetan ibiltzen dena.

ENDEMAS: Areago. *Gaixorik dauana ondo erruki dot, endemas ohian dauana.*

ENDREDAU: 1. DU aditza. Norbait okertu, nahastu. *Zetara etorri haiz hona, baztarrak endredatzera?* 2. ZAIO aditza. Ileak nahastu. *Illiak endredau jatatz.* 3. DA aditza. Burutik egin: *Baiña burua endredauta daban pertsona batekin, puf! Ze espero dezue, ba?*

ENDREDO, endredua: iz. Nahaspila, nahastea. *Eztixat endredorik sortu nahi, ta banajiek.*

ENE!: interj. Etsipenezko interjekzioa. *Ene! Goiko-Errotak eta Urbanek eta ez-takit zeñek eta, harrapau juek arraiña. Mekauen la letxe! / Ene! Tristia zan orduko bizimorua!*

ENEMIGO, enemigua: iz. Etsaia, are-
ria. **Etsaia** erabiltzen da gehiago. *Eta urruti ez zaukezen harek enemi-guak.*

ENERO, enera: iz. Urtarrila. *Eneruan boeta bixan, nik urtiak. Hiztun oso zaharrek **Ilbeltza** ere ezagutzen dute.*

ENOR, enorra: iz. Garatxoa. **Garitxua** ere erabiltzen da.

ENPLEAU: DA aditza. Lanean hasi. *Hamasei urtekiñ enpleau nitzuan, for-jan.*

ENTEN(D)I(D)U: 1. DU aditza. Uler-tu. *Eziñ entenu ze nahi deben [Marki-nakoek]. Gauza asko entendiu, baiña tartian taka-taka hitz batzuk, ez. **Aittu** ere erabiltzen da, baina gutxiago gaur egun. **Ulertu** ere bai. 2. ZAIO aditza. Zerbait buruz jakin. *Neri baiño gehiago entenitze jako, gaiñera, andriari pelotia. / Euskera batua, nik beti ente-niu juat.**

ENTIERRO, entierria: iz. Hileta. *Entierruetako kotxe danak plazara sartze'ittue, eta umiak jolaserako lekuri-k ez. / Oiñ, hamen eitte zan, ba, entierrua ta holakua zanian, ba, Altzolan. Baiña oiñ, Elgoibarren bizi gara. **Entierrua, enterraxua** ere bai.*

ENTIERROKO BAZKARI, entier-roko bazkarixa: iz. Funeraletan egi-ten zen banketea. Ikus **Onra-bazkari**.

ENTRAMA, entramia: iz. Jateko gogo-a, apetitua. **Sakia euki** esapidea ere erabiltzen da. *Horrek edozer jango leu-ke. Kriston entramia daka.*

ENTSEGIDA: adlag. Laster. **Entsegira** aldaeran ere bai. *Batzuek eitxen dabe hamendikan ezkondu kanpora, horra Azpeitxi, Azkoitxi edo Andoaiñ. Eta horrek ya, entzegira hartzen dabe hangua.*

ENTZUERIA EUKI: DU Aditza. Entzutea, zerbait entzuna izan. *Gerria ja-tuan, ba, gerria zatorren, eta taillarrera sartu nitzan... Txixarruan entzueria eukiko dozu? / Eta, gaiñera, orduan, ka-lian basarrixa zuan: Pepeiñ. Entzueria eukiko dok?*

ENTZUT(Z)IA EUKI: DU aditza. Entzutea, zerbait entzuna izan. *Romano-losen entzutia eukiko zendun, ezta?*

EPER, eperra: zool. “Perdiz”.

EPOKA, epokia: 1. iz. Garaia. *Kalamuan frentia gelditxu zan, eta, alde batetik eta bestetik, berba ta eitxen zebela eon tzan epoka bat.* 2. iz. Aukera. *Epokia izan najuan bizikleta bat erosteko, bigarren eskuko bat. / Pastore jun tzan haura, orduan epokia zauan, ba, Ameriketara juteko, ta Ameriketara jun zan.*

ERABAGI: DU aditza. Erabaki. **Erabaki** ere bai, nahiz gutxiago.

ERAGIÑ: 1. DIO aditza. Eragin. *Idixa ipintzen debe lotuta, atzian harri galanta, ezin badau ere zazta-zazta, eraiñ hantxe: idixana da oso gogorra.* 2. Arazi. Aditz arazlea: Aditz-partizipioa + eragiñ. *Akordau eraiñ. / Lagunen bat erun eragiñ. / Danak laga dio(g)u esnia eruariari ere. Behi pinxtak, ba, kendu erain diue askori.*

ERASAN, erasana: iz. Muskulu-distentsioa, zaintiratu.

E(R)ATXI: 1. DU aditza. Eraitsi, lurrera bota. *Hantxe bertan e(r)atxi juat.* 2. DU aditza. “Ordeñar”. Ikus **Jatxi**.

EREIÑ: DU aditza. Erein, “Sembrar”. Baita **Sartu** ere.

ERLABIXO, erlabixua: zool. “Avispa”.

ERLAMIÑO, erlamiñua: zool. “Abejorro”.

ERLATOKI, erlatokixa: iz. Erlauntza, eultzea. Baita **Erlauntza** ere.

ERLAUNTZ, erlauntza: iz. Erlatokia, eultzea. Ikus **Erlatokixa**.

ERLE, erlia: zool. “Abeja”.

ERMIA IZAN: DA aditza. Ohikoa izan, amorratu izan. *Sasoe horretan, ermia dok, ba, hego-haizia!*

ERMUAR, ermuarra: izond. Ermuko herritarra.

ERNARA, ernaria: zool. “Vencejo”.

ERNE: DA/DU aditza. “Brotar, gerrinar”.

ERNEGATU: DA/DU aditza. Ernegatu, amorratu. *Betik ernegauta eote zuan gure aitta [erromerian soinua jo behar zuelako, dantzan egin beharrean].* **Ernegatzen egon, ernegauta egon, ernegau eraiñ.**

EROSITTAKO PREZIUAN SALDU: esap. Norbaitek zerbait entzun duen bezala kontatzean erabiltzen da. *Erositxako prezian saltze izut.*

ERPILL, erpilla: iz. Soroko lur koskorra. **Zokor** ere bai. **Erpill-mazua:** lur koskorrak xehetzeko mazoa. Baita **Zokor-mazo** ere.

ERRALDE, erraldia: iz. Pisu unitatea, ganadua pisatzeko erabiltzen den neurria, bost kiloren baliokidea. **Zenbat erralde izan!** Irain moduan esaten zaie pisu handia ez dutenei: *Zenbat erralde izango dok, ba, haura!*

ERRAPE, errapia: iz. “Ubre”.

ERREFRESKO, errefreskua: iz. Emakumeek egiten zuten ospakizuna, ezkontzearen laguna omentzeko.

ERREGENAK: iz. Errege eguna, urtarilaren 6a.

ERREGULAR!: interj. Elkarriketetan, erantzuteko: *horixe baietz-en* baliokide

edo. *–Txakur haundixa pagau bihar. –Dantza eitzeko? –Erregular!*

ERREIÑ, erreña: iz. “Nuera”. *Haura dau berorrek, haura, haren laguna da gure erreña.*

ERREKA, erreka: iz. Erreka. Zenbait hitzunik **ibai** hitzaren ordeaz ere erabiltzen dute **erreka** hitza, baina berez urak Deba ibaira isurtzen dituztenak dira *errekak*, eta nagusia (Deba) da **ibaixa**. *Ba, hantxe onduan zauan, holako tunel txiki bat ero, kamiñua normala zan baiña, aspizan errekia pasatze zan. Da hauraxe, baten batzuek, geuriak ero, geure artekuak, zulauta ipiñi zeben, esplosibuekin, haura errebentatzeko.*

ERREKATXO, errekatxua: iz. Ibaixka.

ERREKAU, erreka: 1. iz. Erosketa. Pluralean normalean. *Gure etxeko errekauak beti gizonak eitte'ittu.* 2. iz. Mandatua.

ERREKAZULO, errekazulua: iz. Erreka-ertz mallartsua.

ERREMENTARI, errementarixa: iz. Burdina lantzea ogibide duena. **Errementarixan etxian, zotza burrunzti;** hona antzeko esanahia duen beste esaera bat: **Zapateruak, oiñetako zaharrak.**

ERREMINTTA, erreminttia: iz. Erreminta. *Basarrikua da haura; bixak igualtsuak orduan. Hamen erreminttia, ariñena ere, hamabost-hogei kilokua.*

ERREMOLATXA, erremolatxia: bot. Erremolatxa.

ERREMU, erremua: bot. Ereinetza, “Laurel”.

ERREMU EGUN, Erremu eguna: iz. “Domingo de Ramos”.

ERRENDIU: DU aditza. Errenditu, dominatu. *Eziñ al dok umia errendiu, ala zer? / Hori Goñi hori eztok errenditzen erreza, gero, e! / Estuasun gogorra! Ohian ere eziñ eon, da jaiki, da jaikitxa ere, eziñ arnasaik hartu. Eziñ inun ere errendiu. Errendiu bai, eon eziñ. **Errendiuta egon:** oso nekatuta egon.*

ERRETERO, erreterua: iz. Errentaria. *Orduan danak erreteruak zian, da beak erosi zaban.*

ERREPARAU: 1. DIO aditza. Zerbaite kasu egin, zaindu, behatu. *Erreparau umiari.* 2. DIO aditza. Erreparatu, ohartu. *Da eskerrak erreparau niola, bestela...*

ERRESA(R)IXO, erresa(r)ixua: iz. Arrosarioa.

ERRETILLIA EIÑ: DU aditza. Teiltua konpondu.

ERRETIRO, erretirua: 1. iz. Jubilazioa. **Erretirua hartu:** erretiratu, jubilatua. *Aitxak tallarra zaukan, plantxak eitzekua, ta harekin geatu nitzan, ta... hill arte, hill arte. Erretirua hartu arte.* 2. iz. Menopausia: *Emakumiori esnekixa hartzia komeni jaku, ona ei da erretirora allegatze geranerako.*

ERRETOLIKIA EUKI: lgart. esap. Abarketa eduki, neurririk gabe hitz egin.

ERRETRATU, erretratua: iz. Argazkia. *Horretan banenguan, baiña erretratuak ere atara nitxuan umianak eta. **Fotua** ere bai, nahiz askoz gutxiagotan.*

- ERRETURA, erreturia:** iz. Sasiak eta belarrak erretzea.
- ERRETZ, erretza:** izond. Erraza. **Errez** aldaeran ere bai. *Erretzera daude ohi-ttuta horrek, eta zailtasunen bat dauanian, eztabe jakitten zer eñ.*
- ERRETZ, erretza:** iz. Erratza, isuskia. **Eskoba** ere bai.
- ERREZELO, errezelua:** iz. Susmoa, beldurra. **Errezelua euki:** DU aditza. Perpau osagarriak goberna ditzake: *Errezelua daukat datorren urtian ezkonduko zerala. / Errezelo txarra hartu najauan hari.*
- ERREZIL SAGAR, errezil sagarra:** bot. "Reineta".
- ERREZOI, errezoia:** iz. Arrazoia. *Amak errezoia: dana liburua, dana liburua, eta erun nahi ez.* **Errazoi** eta **arrazoi** ere erabiltzen dira.
- ERREZTU:** DU aditza. Erraztu. *Eta oiñ haura ere erreztuta dao asko, segadorak daudelako.*
- ERREZU, errezua:** iz. Otoitza.
- ERRIAL, erriala:** iz. Garai bateko txanpona, pezetaren hogeita bost zentimo.
- ERRIALBIKO, errialbikua:** iz. Garai bateko txanpona, pezetaren berrogeita hamar zentimo.
- ERRIETA, errieta:** iz. Agiraka, errieta. *Etorri txera eskolatik, bazkaldu, eta antxixika frontoira, izerdixa daixola eskolara. Aitxa eta ama beti errietan.* **Errietan eñ:** DIO aditza. Haserre egin, agiraka egin.
- ERRIXO, errixua:** iz. Erreka. **Errekia** gehiago erabiltzen da. *Euri asko ein deu, eta errixua hazitta dator.*
- ERRUBERA, erruberia:** iz. Gurpila.
- ERRUBERAN EIÑ:** Igart. esap. Kanpaia jo, masturbatu (gizonezkoak).
- ERRUKARRI, errukarrixa:** izond. Errukia eragiten duen pertsona. **Koittau** ere erabiltzen da.
- ERRUKI, errukixa:** iz. Gupida. **Errukixa eman:** Gupida izan. *Errukixa emate itt gizajo horrek.*
- ERTEN:** DU aditza. Irten. Erabilera iragankorra du Elgoibarren: *erten dot.* **Urten** aldaera ere erabiltzen da, nahiz gutxixeago. *Oso goiz ertetzen deu etxetik.*
- ERUAN:** DU aditza. **1.** DU aditza. Eraman. *Eruan, eta han jate genduan mahai haundi baten.* **Erun** aldaera ere ez da gutxitan erabiltzen. *Bigarren egunian erun zeben, eta gero, ba, len esan dodana: kuadrilla haundixa hamen.* **2.** DU aditza. Jasan.
- ERUAN:** iz. Pazientzia. *Eruan haundiko pertsonia zan.*
- ERUN:** Ikus **Eruan** sarrera.
- ERUTAILLE, eruataillia:** izond. Eraman handikoa. *Horrek miña baleuka nere modukua! Ezta nik esatiarren, e! Ni erutaille haundixa naiz miñakin, e! haundixa! Hau (andria) batere ezta miñakin eruatallia, e!*
- ESAERA, esaeria:** **1.** iz. Esaera, atsotitza. *Esaera polittak daukaz gure Jabierrek.* **2.** iz. Esapidea, esateko modua.

Esaeria izan: gaitzizena izan. *Txi-txarrua dauka esaeria gizon harek.*

ESAN: DIO aditza. Izendatu, deitu. *Txiron esate zien neri. / Korreo esate giñon.*

ESATE BATERAKO: Esate baterako, adibidez. *Ba, len nora-nora jute giñuaz-en, esate bateako, kalera, ero San Bartolomiak zialako, ero hau ero hori, boda bat dalako. Esate batera ere erabiltzen da. Baita konpa(r)azio batera(ko) ere.*

ESKAPADA, eskapadia: iz. Arrisku bati ozta-ozta ihes egitea. *Gu eskapa(d)a e(d)arra einda gaure falanjiakin da. / Eskapadia ein juagu oiñ ere: errekarra jausi ez geranian! / Demaseko eskaparia ein naban kotxiakin, San Pedrotik natorrela.*

ESKAS, eskasa: izond. Behar adina on, egoki ez dena. **Exkax** ere bai. *Eta han, beste batzuk balkoian. Eskasauak dittuk danak! Beti etorri eitte jat. Eta bixok, bi lagun, bakarra eskasa gelditzen da. / Datorren astian egun exkaxak daukaguz. Bi kilo exkax: neurrietan, adierazten du ia-ia iritsi gabela emandako neurrira, pixka bat gutxixeago dugula. Neure eskasian: Nik neuk ere, zerbaitetan aditua eta aritua ez izan arren, egingo nukeen gauza bat adierazteko. Neure eskasian, amaittu jua ikastarua.*

ESKAS: Zifrekin eta unitateekin, ia-ia. *100 euro eskas balixo jok: 100 euro baino gutxixeago.*

ESKASTU: DA aditza. Eskas bihurtu. *Andria daka pixkat eskastuta, ezta? Bai: batian desgastia dala, bestian eztaikit ze, eta bestian badakit ze.*

ESKA(T)U: DA aditza. Askatu. *Eskauta daukazu lokarrixa. Askatu aldaera ere bai.*

ESKE: lok. Izan ere. Gazteleratiko lokailu kausazkoa, **Izan ere**-ren baliokidea. *–Aitxak ere ortua daka, eta hor ibiltzen da eualdixa gorabehera. –Bai, eske, hamen humedadia dao asko, e!*

ESKE: 1. postpos. Bila. Genitiboarekin. **Norbaiten eske (etorri):** norbaiten bila (etorri). *Taxixa etorri zan gure eske, Markiñara. / Bide txarra, gabaz iual jun bihar. Ta norbera jun bihar [medikuaren] eske. 2. postpos. Eskean. Absolutiboarekin: *Diru eske ibiltze giñan, etxerik etxe.**

ESKEIÑI: DU aditza. Eskaini. **Eskiñi** ere bai.

ESKEKO, eskekua: iz. Eskalea.

ESKIASO, eskiasua: zool. Eskilasoa, “Arrendajo”.

ESKILLARA, eskillaria: iz. Eskailera. *Gu aparte, eskillara banatatik. Maillak* ere bai, asko ez direnean.

ESKOBA, eskobia: iz. Erratza, isuskia. **Erretza** ere bai.

ESKOBARA, eskobaria: iz. Eskuarea, “rastrillo”. **Eskubera** aldaeran ere bai.

ESKRIBI(D)U: DU aditza. Idatzi. *Es-kolan, ba, ikasi. Leitzia ta, bata ta bestia, eta eskribitzia ta... Hola. Idatzi* aditza alfabetatuek darabilte batez ere.

ESKUBI, eskubixa: iz. Eskuina. **Eskumia** ere erabiltzen da. **Ezker-eskubi bizi:** etxepe batean, elkarren ondoan bizi. Ikus **Ezker** sarrera.

- ESKUMA, eskumia:** iz. Eskuina. **Eskubixa** ere erabiltzen da. *ziora juan, eta lasai hartzeko tren, Durangora.*
- ESKUTADA, eskutadia:** iz. Eskutada. Hartu *eskutada* bat pezetia, zidarra (...) orduko dirua, da harek erun juan poza etxera!
- ESKUTRAPO, eskutrapua:** iz. Sukaldeko trapua. Bai, eskua sikatzekua, *eskutrapua* esate jako.
- ESKUTUR, eskuturra:** iz. Eskumuturra.
- ESNEDUN, esneduna:** iz. Esne-banatzaila. Bajau hari portalera, bajatok eta *esneduna!*
- ESNE-PARTITZE, esne-partitzia:** iz. Esne-banaketa.
- ESPALDA, espaldia:** iz. Bizkarra. **Bizkarra** gehiagotan erabiltzen da. *Jun da Kalamuara, Olaore dao beheratxuo, da han [mendiaren] espaldan gora, illeria jun dia.*
- ESPALOI, espaloia:** iz. Oinbidea, "acera".
- ESPARTZO, espartzua:** iz. Espartzua.
- ESPERO, esperua:** iz. Itxarotea. **Esperuan egon:** Haurdun egon: *Ba al dakizu Miren esperuan dauala?*
- ESPEZIAL:** interj. Oso ondo, primeran. Interjekzioetan asko erabiltzen den adberbioa: *Benidorren hillabete bat eitten dou. Eta han espezial!*
- ESTAZIO, estaziua:** iz. Tren-geltokia. *Estaziora* bultuak eruatera ere bai; eta hola ibiltze zan; (...) da han janaldixa ero eitxe zezen, Butronguan, gero *estaziara* jana, eta lasai hartzeko tren, Durangora.
- ESTILO BAT IZAN:** esap. Antzekoak izan. *Estilo bat dia* [Mendaroko eta Elgoibarko bizkerak]. Baita **Estilo batekuak izan** ere.
- ESTIMAU:** DIO aditza. Eskertu. *Asko estimatze'ixat laguntzera etortzia.*
- ESTIMAZIO, estimaziua:** iz. Estimua. *Bai, baiña bedarrak eztaka estimaziorik. Hemen inok eztau nahi bedarrikan. I Eibartarrak lobiñia ta aingiria! Ze estimazio harek!*
- ESTOMAGO, estomagua:** iz. Urdaila. **Estamagua** ere bai.
- ESTRAIÑEKOZ:** adlag. Lehenbiziko aldiz. *20 urtekiñ ikusi najuan itxasua estraiñekoz.*
- ESTRANJERIXA, estranjerixia:** iz. Atzerria, erbestea. *Euskal Telebistatik ere toki askotako berrixak jakite itxuzu. Egunero ematen debe Gaur egun, eta kanpokua ta, estranjerixakua. Estranjerua* ere bai.
- ESTRANJERO, estranjerua:** iz. Atzerria, erbestea. *Haura estranjerora junda dao aspaldixan. Estranjerixia* ere bai.
- ESTRAPERLO, estraperlua:** iz. Kontrabandoa. *Estraperluan iriña eon zan hamar pezta killua. Orduan asko zan, e!*
- ESTRAPOZU EIÑ:** DU aditza. Behaztopa egin.
- ESTU HARTU:** DU aditza. Norbait gogor hartu, norbaiti gogor egin. Ikus **Gogor hartu.**

ESTUASUN, estuasuna: iz. Estualdia, larrialdia. **Estusuna** ere bai. *Labaiñ eiñ harri gaiñian, da uretara! Hori estuasuna! Estusuna? Hoixe!*

ESTUTU: DA aditza. Larritu. *Bueno, hola ta hola eman ingo dou, ta ez zaitxezte estutu, eta hola ta hola aprobia ingo dou ta.*

ET, ET, ET: interj. Ezezkoa. *-Ja, ja, ja. Hurrenguan ardo-botillia ekarriko izut. -Et, et, et, et! Alperrao jarriko nok orduan da.*

ETA: 1. Emendiozko juntagailua. 2. Kausazko perpausak egiteko menderagailu enklitiko oso erabilia: *Bueno, ezteixogun amenazu gehixegi eman kottauari, ehun urte jaukaz ixa ta. / Ba, guk ez gendun (dantzan) asko eitten, ez genkixen da.*

ETARA: 1. DU aditza. Atera. **Atara** aldaera ere erabiltzen da. *Etara izu txakurra kalera.* 2. DU aditza. Irabazi, lortu. *Patxik etara dau karrera.*

ETE: Ote. Galdera zuzenetan eta zehargalderetan erabiltzen den partikula. *Etorri ete da Miren oporretatik? / Harek amari ze gerra eman ete zion dirua emateko, pastelak erosteko!*

ETEN, etena: iz. "Hernia".

ETORRI: DA aditza. Landareak hazi. *Badator letxugia.*

ETORRI HAUNDIKUA IZAN: Bertsotan puntuari legez heltzen diona izaten da etorri handikoa. Hortik kanpo, izan daiteke txantxei azkar eta egoiki erantzuten diena ere.

ETSAI, etsaixa: iz. Etsaia, arerioa. **Enemigua** ere bai, nahiz gutxiago. *Holako*

lagunekin etxuat nik etsairik bihar. **Inpernuko etsaixa baiño txarraua izan:** Pertsona oso gaiztoa izan. Baita **Inpernuko diabrua baiño txarraua izan** ere.

ETSI: DU aditza. Esperantza galdu. *Biajia ta... Gazte-denporan etsitta ya ezkiñala etorriko gehixao pentsauta. Hainbeste urtian! **Etsi-etsixan:** etsi onean, etsi onez. Etsi-etsixan, ein daigun behingoz.*

ETSIPENA EMAN: Gaixo bat sendaezintzat jo.

ETXANDO BIRUTAS!: interj. enfat. Azkar, bizkor. *Etgando birutas alde ein jok Mikelek!*

ETXANDO LETXES!: interj. enfat. Azkar, bizkor.

ETXANDO PUÑETAS!: interj. enfat. Azkar, bizkor. *Arrankau zanian, jota dana, jota etgando puñetas kalera atzera danak.*

ETXABURU, etxaburua: iz. Etxearen gaineko aldeko partea, terrenoa.

ETXAPLIO, etxapligua: iz. Suziria. **Txaplio** aldaeran ere bai. *Hasi dittuk etxapliuak botatzen, eta hasiko zittuan galleguen festak Urasandin.* **Suzko erroberak** ere erabiltzen da, oro har era guztietako su artifizialak adierazteko.

ETXAURRE, etxaurria: iz. Etxearen aurreko aldeko partea, terrenoa.

ETXAZPI, etxazpixa: iz. Etxearen azpiko aldeko partea, terrenoa.

ETXE-AURRE, etxe-aurria: Ikus **Etxaurre**.

ETXE-AZPI, etxe-azpiza: Ikus **Etxazpi**.

ETXE-ORDE, etxe-ordia: iz. Baserri-etxetik aparte egindako eraikina, garia, artoa, babarruna eta abar biltzeko eta lehortzeko.

ETXE-OSTE, etxe-ostia: Ikus **Etxoste**.

ETXE(R)AKO MODUKUA IZAN: esp. Pertsona on, fin eta langileengatik esan ohi da, haien ezaugarriak goresteko. *Mutill hau etxerako modukua don! Edarra, jatorra eta langillia!*

ETXOSTE, etxostia: iz. Etxearen atzealdeko partea, terrenoa. **Etxosteko atia.**

ETZAN: DA aditza. Etzan. Ez da **Etzin** aldaera erabiltzen (ez eta **Etzun** ere).

ETZIDAMU: adlag. Etzikoaren hurrengo eguna.

EUKALITO, eukalitua: bot. “Euca-lipto”.

EULI, eulixa: zool. Intsektu hegalaria, uda partean baserrietan eta pertsonak eta ganadua dauden tokietan ugaria.

EUPADA, eupadia: iz. Agurra. **Eup**-i, agurra adierazteko era onomato-peikoari, dagokion izena. **Ieup** eta **ieupadia** ere bai.

EUREN: izord. Bere(n).

EURI-LANBRO, curi-lanbrua: iz. “Llovizna”.

EUTSI GOIXARI!: interj. Animoak emateko erabiltzen da.

EUTSI: DIO aditza. Eutsi. *Geldi jar-tzeakuan, behera, eziñ eutsi gorputzai!*

EXKAX, exkaxa: 1. izond. Txarra, kas-karra. **Eskasa** ere bai. *Datorren astian egun exkaxak daukaguz.* 2. Ia-ia. *Libra erdi exkax intxaur dao hamen.*

EXKAXTU: DA aditza. Maskaldu, osasuna galdu. *Exkaxtuta dabillela, ta ohian dao.*

EZ: Ezezko partikula. Nabarmentzekoak dira baiezko balioa duten ezezko per-pausak: *Ez ibili zintzo! / Ez etorri goiz etxera, gero, e! / Ez zan giro! Eta nungua nitzan eztitt ba, preguntau, artaburu honek! / –Zeze ikaste zenduen bestela? –*Baaai! Ikesiko ez genduan, ba!**

EZ, eza: iz. Gabezia. Aurretik partitiboa duela normalean. *Nik eztot ikusi oin-diok basarrixan mejorarik; biderik eza bai, eza(g)utu dot.*

EZ EZIK: Emendiozko perpausak egiteko juntagailua. *Pako ez ezik, Karmen ere etorri dok.*

EZ GITXIAGO EZ GEHIXAGO: esp. Gauzak diren bezala kontatu, esan... Ikus antzeko esapide hau: **Erosittako preziuan saldu.**

EZAGUERA, ezagueria: iz. Ezagutza. *Baiña sasoe baten, bueno, erromerixetan da... Bai, esan dozuna, ezagueria beti eoten da.*

EZAGUN IZAN: DU aditza. Bistakoa izan, nabari izan. *Kutxillo honek eza-gun deu bizkotxua mozten ibilitakua dala.*

EZAGUPIDE, ezagupidia: iz. Ezaupi-dea, harremana. *Soldautzan ein gendun ezaupidia.*

EZAGUTU: DU aditza. Ezagutu, bizi izan. *Nik sorginkerixarik enajuan eza-gutu iñoiz.*

EZE: 1. Perpaus osagarrirei hasiera ematen dien lokailua: **Esan naban eze ... -e**LA. *Eta esaten jardun zeben eze, haura eitxeko ein biher izen zebela, ba, erdixa nebigua ziala, baiña berrogeta bi milloi arbola kendu zitxuela.* **2. Ze(r) gatik eze** egituran ere erabiltzen da, kausazko perpausetan, sarrera-lokailu gisa. Ikus **Ze(r)gatik eze** sarreran.

EZETZIAN EGON: Ezetz uste izan. Ikus **Baietzian egon** sarrera.

EZIAN: postpos. Ezean, baldintza-perpaus ezezkaokoetako partikula. *Ondo eon ezkeru, soldautzia ondo pasatzen dok, tirorik ezian. Gerria txarra dok.*

EZIK: postpos. Ezik, baldintza-perpaus ezezkaokoetako partikula. *Pelotarixak danak ezautzen ditut. Eta hemengotxia izan ezikan bateron bat, oin dan-danak ezautzen jaittugu, pelotari danak. / Elgoibarren basarrikua izan ezikan, kalekuak ya normala igarixan eittia da. Normal, normal, normala.*

EZIÑ, eziña: iz. Ezintasuna, eragozpena. *Gustau eitte jakun len. Baiña oiñ ez, oiñ ya eziña ere badou. / Nik etxaukat eziñik laguntzera juteko.*

EZIZEN, ezizena: iz. “Mote”. **Gaitzizena** da nagusi. *Etara'ik kontua zenbateraiño zauden sartuta ezizenak.*

EZKAILLU, ezkaillua: zool. Errekako arrain txikia, “bermejuela”.

EZKER, ezkerre: iz. Esku ezkerre. **Es-kerrak ... eskumiari:** Hitz-jokoa, nor-

bait eskerrak ematen hasten denean erabiltzeko, Elgoibarren berdin ahoskatzen dira-eta bi hitzak (*esker* eta *ezker*). –*Eskerrak... –Bai, ezkerrak [eskerrak] eskumiari! Ezkerreko begittik hartuta euki (baten bat):* Gutxietsita eduki (norbait). Baita hau ere: **Ezkerreko begikua izan (baten bat).**

EZKERO: 1. Baldintza-perpausetako postposizioa: -z *gero, ezkeru* (partizipioa + *ezkeru*; aditz-izena + *ezkeru*): *Ondo eon ezkeru, soldautzia ondo pasatzen dok, tirorik ezian. Gerria dok txarra. / Permisorik izete ezkeru halako lekutik etortzeko, ba, biher izate zuan zortzi-hamar egun ero, gitxienez.* **2.** Denborazko perpausak egiteko menderagailua: (*behin*) ...-tu *ezkeru* (askotan aditza elidituta): *Behin sei-zazpi urtera ezkeru, segia ta.*

EZKONDU: DA aditza. Ezkondu. **Nora ezkondu:** *Eta, en fin, familia ona. Manolo, haura bigarrena. Haura Markiñara ezkondu zan.*

EZKUTZATZEN: Haur-jolasa, ezkutaketan.

EZKUTAU: DA aditza. **1.** DA aditza. Ezkutatu, gorde. **Ixkutu** aldaeran ere bai. **2.** DA aditza. Desagertu, joan. –*Etxuat aspaldixan ikusi Periko. –Bai, ezkutu zuan.*

EZKUTAU TA BILLATZEN: Haur-jolasa, ezkutaketan jolastu, kukuka ibili.

EZPARA, ezparia: zool. “Tábano”.

EZTA(G)O!: Elkarrizketetako interjekzio bat. *Prontoe ganorazko bat ere ez. Ikastolan dao bat, baiña... Hor enpre-*

siak pelota motelak atera biha'itxu, eta eztao! / *–Oin ere berri txarrak etxe al-dian. –Bai, eztao hemen...*

EZTAKIK ASKO!: interj. Ezustea adierazteko erabiltzen da. *–Bixar urtiak, zorionak! –Bai, bixar. Eztakik asko! Berrogeta hamaika urte, ja, ja, ja!*

EZTEI, ezteixa(k): iz. Ezkontza. **Bodia** ere bai. *Gero bueltan bazkarixa. Ez-teixak esate zitzakon, bodia. Ondo, soiñua nehikua behintzat eta.*

EZTENKADA, eztenkadia: iz. Esaldi mingarria, zirrikada.

EZTI, eztixa: iz. Eztia. **Eztittan egon**: *Andra-gizon horrek, ezkondu berrittan, eztittan daude. (Elkarrekin) gozo-gozo daudela adierazteko.*

EZTOK?: Berrespenak eskatzeko interjekzioa, **Ezta?**-ren forma alokutiboa. Elkarrizketetan-eta asko erabiltzen da. *Beste bat kontauko'ixat. Etxak inporta, eztok?*

f

FABOREZ: Mesedez. **Mesedez** ere bai. **Mesedez eta faborez!**: interj. enfatikoa.

FAISAN, faisana: zool. “Faisán”.

FAMAU, famaia: izond. Ospetsua, famatua. *Hemen, nere ustez, garbi bas-tante hitz eitxe zabana Basarri bat eta zian. Basarri? Hor Basarri bat famaia bazan. / Famaia zuan len Gallastegi pelotaixa.*

FAMELIXA, famelixia: iz. Familia. *–Gai ezтана, ta hantxe bizimodua hari*

*luzatzen, da beste iñori padezimentua emanaz. Jaten eman biha jako. –Famelixia apurtzen dala! **Famelixa** ere bai.*

FAMELIXIA EUKI: DU aditza. Haurra izan. **Famelixia euki** ere bai.

FIJO: interj. Esaldi adierazgarrietan erabiltzen da, batez ere. *–Irabaziko dau partidua? –Fijo! Pijo* aldaeran ere bai.

FIRIN-FARAN IBILI: esap. Batera eta bestera ibiliz probetxuzko ezer onik egiten ez duenari esan ohi zaio. Ibili asko eta gutxi egin. *Ezer eztoz ein gaur, firin-faran ibili haiz egun guztian. / –Banixe kalera. –Bai, ibili oin ere firin-faran!*

FIXAU: DA aditza. Fidatu. *Ez fixau horrekin.*

FOTO, fotua: iz. Argazkia. **Erretratua** gehiagotan. *–Bai, bai (...) Ni mehebhia, iher-iherra, berde-berdia nitzan ni! Hor daukat fotua, erakutsiko izut gero.*

FRANKO, frankua: izond. Pertsona zintzoa, benetakoa, zinezkoa.

FRANKO: zenbtz. Asko, ugari. *Jenero franko hartu jok.*

FRANKOLIÑ, frankoliña: zool. “Chorlito real”.

FRONTOI, frontoia: iz. Pilotalekua. **Frontoe** aldaeran ere bai. **Pelotaleku** ere bai, baina gutxiago. *Kamiñeroko frontoian eitte zan erromerixia. / Kamiñerokuan, hor kurban oin karrozerixia dao, len frontoia zan hor. Plazakua bezelakua, iuala, iuala, kubiartua izatia, oso frontoe politixa.*

FUI: haur. Sua, beroa.

FU EIÑ: haur. Putz egin.

FUBOL, fubola: iz. Futbola.

FUERAZKA: Pilotan, huts egiten dutenak kaletaruz doazen jokoa. **Barruzka** ere bai.

FUERTE, fuertia: izond. Pertsona sendoa. *Santa Ana kalekoa, puerte bat. Hori dabil, Geminisen.*

FULANO: iz. Urlia, “fulano”. *Ba, Fulanok Albitxuritikan bota jok, bestiak han bota jok, bestiak eta... / Baiña oiñ, gure edade batera ezkerro, esaten dot: “fulano hil da”, nik etxian esaten dot hori baten baiño gehixotan. / –“Zein tzaurete azkenengo?”, eta, –“Holako, holako, fulano”.*

g

GABONILL, gabonilla: iz. Abendua. Oso hitzun zaharrek bakarrik darabilte. **Dizienbria** erabiltzen da gaur egun ia erabat adinekoen artean.

GABONZAR EGUNA: iz. Urtearen azken eguna, abenduaren 31.

GABONZAR FERIXIA: iz. Elgoibarren, urteko azken feria eta garrantzitsuena, normalean urteko azken larunbatean egokitzen dena.

GAIÑ: postpos. Gain. **-ren gaiñian:** Gaia adierazten du (zertaz jardun, zertaz hitz egin...). Postposizioa: **-ren gaiñian jardun, berba eiñ...** *Aspergarrixa dok, benetan: beti fubolan gaiñian a(r)i dok.*

GAIÑERA: lok. Emendiozko lokailua. *Eta hemen España zuan, eta kitto os-*

tian. Españian geratu giñan gero. Jolin! Grabia, gaiñera! Gaiñetik aldaera ere entzun daiteke, nahiz gutxiago.

GAIÑETIK: Ikus **Gaiñera**.

GAITZ, gaitza: 1. iz. Gaixotasuna. *Behi horrek gaitza jakak.* 2. izond. Zaila. Gutxi erabilia. *Gaitza dok hori eittia.*

GAITZIZEN, gaitzizena: iz. Ezizena, “mote”, “sobrenombre”. **Ezizena** ere bai, nahiz gutxiago.

GAIXO TXARRA: euf. Minbizia. *Gaixo txarrarekin hil da.*

GAIXO, gaixua: izond. **Koitta(d)ua-**ren kidea. *Gaixuak makiña bat sufrirtu bihar izen du bizitza honetan.*

GAIXOTU: DA aditza. Gaixotu. **Geixotu** ere erabiltzen da.

GAIZKI: adlag. Gaizki. **Geizki** aldaeran ere bai. **Gaizki bi(har) dau:** Bide onetik ez ibili.

GAIZTO, gaiztua: izond. Zaila. *Neguan ur asko e(d)atia pixkat gaiztuaua da.* **Geiztua** aldaeran ere bai. **Zailla** eta **nekosua** ere erabiltzen dira.

GALANKI: adlag. Asko, erruz. *Tabernia geunkan orduan ere, ta lana galanki ein bihar.*

GALANT, galanta: izond. Handia. *Bai, kalabazak ere bai. Iez ere mordo galanta eon zan kamiñotik bistan-bistan.* Baita izenondoen graduatzaile moduan ere: *Gure aitta granuja galanta zuan, mendi-saill horrek pasauta neskatara Elosura juteko.*

- GALDATU:** DU aditza. Galdetu. **Pre-guntau** erabiltzen da gehiago. *Ezer nahi badozu besterik, galdatu!*
- GALDERA, galderia:** iz. “Pregunta”. **Pregunta** erabiltzen da gehiago. *Nik aitzari galderia: “Nun ibiltze ziñaten?”.*
- GALDUAN EMAN:** DU aditza. Sale-rosketa batean, galtzen atera. *Zenbat da kontua? Eta hainbeste. Bueno, etxuek galduan emango eurak ere.*
- GALEPER, galeperra:** zool. “Codorniz”.
- GALERAZI:** DIO aditza. Debekatu. *Oiñ, gaztetan, eskolan ibili giñan sasoi haretan, galerazi ein tzi(g)uen euskeria praktikatzia.*
- GALTZARBE, galtzarbia:** iz. Besapea. *Hartu galtzarbian (goitti-beheria), da Kurutzetara ixo oiñez, zerian, Upaitzan gora, Kurutzetara oiñez. **Galtzarpia** ere bai.*
- GANAJATEKO, ganajatekuak:** iz. Ganaduarentzako eguneroko belar freskoa, baserriko ukuilura ekartzen dena. Pluralean normalean. *Oin nik beti eitxen dot, jaixetan da libre gustau. Zapatuan ein ganajatekuak, eta jaixa libre.*
- GANAU, ganaua:** 1. iz. Ganado. *Ganaua larrian jakib onduen.* 2. izond. Granuja, elementua. **Ganau ona (edarra) izan:** *Gana(d)u ona zan haura! / Ganau edarra zan!*
- GANBARA, ganbaria:** 1. iz. Baserrian, haren goialdeko partea, teiltupekoa, patata, artoa... gordetzeko erabiltzen dena; etxeetan, goieneko solairuan da-goen gela, gordelekutzat erabiltzen dena. 2. Igart. Ironikoki, burua. *Ganbaratik ez hago ondo, eztok?*
- GANGARDA, gangardia:** iz. Lepoaren aurreko partea; nuez de la garganta. **Intxaurre** ere bai.
- GANORA, ganoria:** iz. Fundamentua. *Etxakak ganora haundirik hire lagun horrek! **Ganoraz:** Arduragabia dok benetan Mikel. Etxok gauza bat ganoraz eitten.*
- GANORABEKO, ganorabekua:** izond. Ganorarik ez duen pertsona. **Arduragabia** ere bai.
- GANORAZ:** adlag. Fundamentuz.
- GANORAZKO, ganorazkoa:** izond. Behar bezalakoa. *Elgoibarren ere hortxe fallo haundixa dao: prontoe ganorazko bat ez.*
- GARA:** bot. Ortuko edo soroko landareetan, erdian ateratzen den zurtoina, lorea eta haziak dauden tokia. Ikus **Garatu**.
- GARAGAR, garagara:** bot. “Cebada”.
- GARATU:** DA aditza. Landareei gara sortu. *Nabua garatu da.*
- GARAU, garaua:** izond. Handia, alea. *Han jun giñuazen, eta haura komedore garaua [hotelean]! / Hori dok etxe garaua, hori!*
- GARBITTASUN, garbittasuna:** iz. Garbiketa. *Da bestela, ohiak ein, da hola ere bai. Oiñ, garbitxasun haundixa eitteko, haura biha(r) dot.*
- GARBITTU:** DU aditza. Hil. *Ixkutauein zian; bestela, bertan garbittuko zittuen.*

- GARDANTXILLO, gardantxillua:** zool. “Jilguero”.
- GARDATZ, gardatza:** iz. Garoarekin egindako zuhatza. Bereizi egiten dira, beraz, **gardatza** eta beste hauek: **zuhe-tza** belarrarekin egindakoari eta **metia** garoarekin egindakoari esaten zaio.
- GARDUBERA, garduberia:** bot. Kar-duen artean arruntena den belar mota.
- GARDULATZ, gardulatza:** bot. Kar-dua, **Gardulatza** baino leunagoa.
- GARI, garixa:** bot. Garia.
- GARIZUMIA BAIÑO LUZIAUA IZAN:** esap. Pertsona oso luzeari esan ohi zaio.
- GARO, garua:** bot. Iratzea, ira, garoa. *Oindiok bazkaldu eta garua batu gaiñe-ra ein biha dou. Ikus **Amabirjiña Garota(r)ako** sarrera.*
- GARZA, garzia:** zool. “Garza”, ibai inguruetan ibiltzen den hegazti hankaluzea.
- GASTAU:** DA aditza. Pasatu. Bukatu. *Behin hogeta bost urte ezkerro, zeoze eoten da beti, pentsamentua ero, nobixia ero, bestia ero. Baiña haura zoro-, gaztedenpora haura gastautu. Haura pasautu. / Bueno, oin erromerixak gastau zian baiña. Gu zahartu ein gera, eta gero gastau ere ein dia.*
- GATZA EUKI:** esap. Zerbait egiteko adorea eta indarra izan. *Gure ama zanak bazaban gatza, bai! **Gatz gutxiko pertsonia:** Geza, motela. *Horrek etxakak gatzik txistiak kontatzeko.**
- GATZAGI, gatzagixa:** iz. Gatzagia, mamia egiteko erabiltzen dena, esnea gatzatzen duena.
- GATZATU, gatzatua:** iz. Mamia.
- GAU, gaba:** iz. Gau. *Gau guztian eon naiz lo hartu eziñik. / Gabian ezta bakerik izaten Maala alde horretan.*
- GAUBELA, gaubelia:** iz. Norbait hiltzen denean, gorpua zaintzen egiten zen gaua. **Gauilla** ere bai.
- GAUILL, gauilla:** iz. Gaubeila. Hildako bat beilatzen ematen den gaua. **Gaubela** ere bai.
- GAUR GOIZEKO KONTUA IZAN:** esap. Zerbait (albiste bat, kontu bat...) berria denean esan ohi da.
- GAUTXORI, gautxorixa:** 1. zool. Gaez ibiltzen den txoria, “chotacabras”. 2. Gaez ibili zalea, juergazalea.
- GAUZA IZAN:** DA aditza. Gai izan. *Horri lana zeinek era(g)ingo jaok, ba? Gauza ezitxuk baiña! / Gauza dan artian, ibili. Eziña berez etorriko jatzue. **Kapaz izan** ere bai.*
- GAUZA, gauzia:** iz. Gauza. Ez du galtzen -a organikoa: *zenbat gauza ikusi doten!* Hitz elkartuen bigarren osagai gisa ere sarritan erabiltzen da: *Kaletikan ekartzen baldin badezu jorna, seguru-seguru dakazu basarrixan bizi-modua: ataratzen dozu ortu-gauzia, haragixa etxian ateratzen da, zera ere bai, arrautzia...*
- GAZTA, gaitaia:** 1. iz. Gazta. 2. lgart. fig. iz. Burua.
- GAZTAIÑA, gaitaiña:** bot. “Castaño”, fruitua eta arbola.

- GAZTAIÑERRE EGUNA:** iz. Animen egunaren osteko bigarren astelehena. Gaztaina erreak jaten ziren afaritan.
- GAZTETE(R)IXA, gaztete(r)ixia:** iz. Gazte-jendea, gazte multzoa. *Urtien buruan, ba, gazteterixia nola datorren Ikastolatik eta, oiñ hobeto.*
- GEHIXEGIXA IZAN:** esap. Gehiegi-zkoa izan. *Gure semiana gehixegixa da: beti lanakin pentsatzen eoten da.*
- GELDITU:** DA aditza. Gelditu. **Gera-tu** ere bai. *Eta, holaxe, ba, hamentxe Barrutianian gelditxu zan ostatuan.*
- GERATU:** DA aditza. *Etzaban amak nahi bera bakarrik geratzerikan, eta alaba etxian gelditzia nahi zaban, eta bertara ezkondu giñan, bai. **Gelditu** ere bai.*
- GERO!:** interj. Kargu hartzeak adieraz-teko interjekzioa: *Argi ibilli, gero, e! / Ez pentzau, gero, dana libre danik!*
- GERRI, gerrixa:** iz. Arbolaren enborra. **Arbola-gerrixa.**
- GIBELAUNDIXA IZAN:** esap. Per-tsona arduragabea eta lasaiegia izan. Esapide hau ere erabiltzen da: **Gibel haundixak euki.**
- GIBELEKO, gibelekua:** iz. Hepatitis-a.
- GIRO, girua:** iz. Eguraldia. *Giro txarra ein juan, eta ez giñuazen juan mendira.*
- GIRO EIÑ:** iz. Eguraldi ona egin. **Giro izan:** Giro ona, egokia izan. **Giro ez izan:** interj. Egoera txar bat sortu. Ezezko forman erabiltzen da. *Ezta giro izango baztarretan!*
- GITXI GORABERA:** adlag. Gutxi go-rabehera.
- GITXI:** zenbtz. Gutxi. **Gutxi** ere entzuten da, baina **gitxi** da, zalantzarik gabe, nagusi adinekoen artean. *Ibili naban nik haura automobilla, denpora gitxixan, baiña ibili naban. **Ezta gi-txiagorik ere!** Nik eztoz pentsatzen zahartu naizenik. Ezta gitxiorik ere! Ni txabalito bat sentitzen nok.*
- GIXOI, gixoia:** zool. “Guión”, galeper mota bat, ohikoa baino handixeagoa, eta gidari-lana betetzen duena.
- GIZAGAIXO, gizagaixua:** izond. Giza-gaixoa, gizajoa. Ikus **Gizajua** sarrera.
- GIZAJO, gizajua:** izond. Gizagaixoa. **Gizagaixua** eta **Gizajua** ere bai. *Eta gero, taxista bat topau genduan bidian, eta guardia zibillak, farolak eztakit ze zaukala, ta multia gizajuari. / Len geure zeak, laun baten amak ero kostunbre haundixa zaban hori. Mutikoxkorreritxa, “A, gizajo hori, etorri hari!”.*
- GIZON PORTAU:** esap. Jator portatu, gizalegeari jarraituz.
- GIZON-PROBA, gizon-probia:** iz. Herri-kirola, idi-proba bezalakoa, bai-na idien ordeztasonek egiten dute tira.
- GIZONEZKO, gizonezkua:** iz. Gizase-mea. *Andrazkuen azokia izaten da. Oiñ, kaletarrak ba, gizonezko dana han eoten da. Eske, gizonezko asko dao ka-lian, e!*
- GIZONKOTE, gizonkotia:** iz. Gizon handia.
- GIZUR, gizurra:** iz. Gezur. **Gezur** ere entzuten da, baina **gizur** da nagusi.

Gizurra galanta, oiñ esan dokena! **Gizurrak hanka motzak daukaz:** Gezurrarekin ezin dela urrutira iritsi adierazteko.

GIZUR-POLTSAS IZAN: esap. Gezur-ti handia izan.

GIZURTERO, gizurterua: izond. Gezur asko kontatzen dituen pertsona. **Gizur-ti** ere bai.

GOEN, goena: Ikus **Guena**.

GOBERNAU: DU aditza. Ganaduari jaten eman, garbitu eta azpiak egin. *Ardixak gobernatzia oiñ gehixen gustatze jatena.*

GOGAIKARRI, gogaikarrixa: izond. Pertsona aspergarria. Pertsona astuna *esate juek oiñ, baiña* pertsona astuna *eztok pertsona gogaikarrixa; ehun kilotik gorakua, bai, hori dok* astuna.

GOGOR HARTU: DU aditza. Norbaiti gogor egin. Ikus **Estu hartu**.

GOGOR: adlag. Asko, erruz. *Erre gogor eitxen dozu, e!*

GOGORATU: DA eta ZAIIO aditza. Oroitu. *Eta segundan nabillela, gogoratze jata, maixua... neure alboko laguna zein tzan akordatze naiz.*

GOGOTIK JUAN: ZAIIO aditza. Ahaztu.

GOGUAN EUKI (hartu): DU aditza. Gogoratu, gogoan eduki. *Ondo goguan daukadaz orduko jirak.*

GOIBEL: adlag. Lainotuta.

GOIXARI EUTSI!: interj. Animoak emateko interjekzioa. *Eutsi goixari, motell! Pasauko jak eta ratxa txar hau!*

GOIKO, goikua: euf. Goikoa. **Goiko hori:** Jangoikoaren hitza ez aipatzearren erabiltzen den forma eufemistikoa. *Hor goiko hori akordauko dok.*

GOITTI-BEHERA, goitti-beheria: iz. Haur-jolasa, aldatz behera jaisten diren umeen eta gazteen ibilgailuak. *Guk baakizu ze itxe gendun, goitxi-beheria? Hortik dator "goitti-behera" hitza.*

GOIXAN-BEHIAN: adlag. Erruz. **Eurixa goixan-behian ari du:** euri asko ari izan. *Nora zuaz, eurixa goixan-behian ari dau ta!* Ikus **Bota ahala** sarrera.

GOIZ, goiza: iz. Goiza. *Oin Ikastolara eruan biha'ittu, eta goizian eruan, eguardixan berriz jun, eta gero, illuntzixan.*

GOIZO: adlag. Goiz. *Ez zaben ametitzen hara jun, da dantza eitterikan, eta San Mielera, ta San Miel urruti, ta goizo etorri bihar, gaiñera, ez gaurko moduan!*

GOLDA, goldia: iz. Goldea, "arado".

GOLDATU: DU aditza. "Arar".

GOLFERIXA, golferixia: iz. Alprojakeria. *Golferixan besterik etxakik gure aittak.*

GOLFO, golfua: izond. Pertsona alproja, kale txakurra.

GONBITTOKA EIÑ: DU aditza. Oka egin. **Botaka eiñ** eta **Txahala eiñ** (lgart.) ere bai.

GORABEHERIA EGON: Aldea egon, desberdintasuna egon.

GORANTZI, gorantziak: iz. Eskumina. Normalean pluralean eta konsonante epentetikorik gabe (**gorantzizak*). **Eskumiñak** hitza ez da erabiltzen.

GOROLDI, goroldixa: bot. Goroldioa. Ikus **Odoldi** sarrera.

GORRAIZE, gorraizia: iz. Gorreria. **Gorraizia euki.** **1.** Gor egon. **2.** Ironikoki: ez entzunarena egin.

GORRI EGON: esap. Dirurik gabe egon.

GORRIÑ, gorriña: iz. Gorrina, landareen eta barazkien gaixotasuna, “roña”. *Gero, hautsak eta botako ei diozuz gorriñan kontrako zeak eta, medikuak esate ei debe garbitxu arren uretan da ondo, hau ez tala kentzen ondo.*

GORRIRIK: adlag. Biluzik. *Baiña da! Etorri dia playara, Getarixan, ra! Kendu dana, gorririk, e!* **Narrugoririk** ere bai.

GORRIXAK IKUSI: esap. Oso estu ibili. *Gorrixak ikusitta gaure gu gerra-denporan.*

GOSALDU: DU aditza. Gosaldu. Gehiagotan erabiltzen da **Armuzau**.

GOSE, gosia: **1.** iz. Gosea. **Gosiak amorratzen egon:** oso goseti egon. **2.** iz. Falta. **Lo-gosian egon:** Lo faltan. *Panaderuak beti lo gosian eon dia. Lo gosian beti, luan faltia beti; neu ere bai. Horregatik laga nion panaderixiari.*

GOZATU: DA aditza. Gozatu. *Edarki gozatu giñan umiekin.* **Gozatua hartu** ere bai. *Gozatu edarra hartu gendun pelikula horrekin. / Guk hartu juau gozatu mendi bueltia einda!*

GOZO, gozua: izond. Gozoa. **Gozua egon:** **1.** Haserre egon. Zentzu ironikoan erabiltzen da: alegia, jenio txarreko dagoenari esaten zaio gozoa dagoela. **2.** Lantzeko erraza den lurrari esaten zaio, lur bigunari.

GRANDIA IZAN: izond. enfat. Ona, handia, ohiz kanpokoia izan. Era mugatuan beti: *grandia. Lehen grandia zuan motorra eukitzia, gero, e!*

GRANUJA, granuja: izond. Pikaroa. *Gure aitta granuja galanta zuan, mendi-saill horrek pasauta neskatara Elosura juteko.*

GRANUJAKERIXA, granujakerixia: iz. Zapokeria, jokaldi makurrak. *Horrek granujakeixak eitxe zitxuan. Zeozeren billa bialdu iual nere gizonak, zigarro-paketian billa, eta, diruakin, da, hor dator bueltan, pastel haundi bat jaten.*

GRAZIA EIÑ: DIO aditza. Gustatu, gustukoa suertatu. *–Hangua famaua zan, ezta, Santa Eufemiakua? –Nerietzian graziarik eitxen harek.*

GRULLA, grullia: zool. “Grulla”. Ikus **Kurrillo**.

GUARDASOL, guardasola: iz. Aterkia. *Guk “guardasola” ibili dou beti, oiñ “aterkixa” badabi(g)u, ba, umiekin da esaten dou, baiña bizi guztian, “guardasola”. / Gure herrixan guardasoli(k) pe etxaok neguan etxetik urtetzerikan.* **Guarsol** ahoskeran ere bai.

GUEN, guena: iz. Lurralde baten goiko aldea. Hitz elkartuen bigarren osagaia askotan. **Goena** aldaera ere badu. *Gure soro-guenetik ikusten dok ondo Elgoibar.*

Debaguena. Anton. **Barrena.** *Sorobarrena.*

GURA: Atzizkia. **Gura izan** aditza ez da erabiltzen Elgoibarren (**nahi izan**). Atzizki moduan, ordea, erabiltzen da: **negargura, barregura, txixagura, logura...**

GURAIZA, guraizak: iz. Guraizeak. **Gurizak** ere bai. Baita **Artazixak** ere. *Eta guk hemen esaten doun moduan, artazixak edo guraizak, hau pinza ero esate'ue.*

GURI, gurixa: izond. Samurra. *Pagotxa bedar gurixa izeten dok.*

GUSTAU: ZAIO aditza. Gustatu. **Gustautau egon.** *Andra horretxekin gustautu daok Inazio.*

GUTXI: Ikus **Gitxi** sarrera.

GUZTI, guztia: zenbtz. Guztia. Ez du soinu palatal epentetikorik hartzen (*etxe guztiak/*etxe guztixak*). **Dana** ere erabiltzen da.

h

HABI, habixa: iz. "Nido".

HA(G)INKA EIÑ: DU/DIO aditza. Hozka egin. *Basarri horretako txakurrak hainka ein dio Mikeli.*

HA(G)INKADA, ha(g)inkadia: iz. Hozkada. *Laga'iak ha(g)inkada bat ematen, itxura ona jakak-eta hire bokadillo horrek.*

HA(R)AKO... HAURA: Hango... hura. *Ha(r)ako etxe haura erosi juat.*

HAATIK: adlag. Hargatik, horregatik. Batzuetan, hiztunak zerbait arbitrarioki edo gogoak eman diolako egin duela adierazten du. *-Zeatik ein dok hori? -Haatik!* Era horretako galderi erantzuteko modu hau askoz tradizio sendoagokoa da, *Zergaittik bai!* askoz berriagoaren aldean. (...) *eztakit zer dauan, baiña gauza ona ez behintzat. Horrek miñaldixak! Puf! Eske, haatik esate dou ba, zu.*

HABITTAZIO, habittaziua: iz. Logela. *Neuk ere pixkat idea neukan, eta onenonena apaiza ero holakotxia izango zala egokixena, habitxaziua baldin bazeukan emateko, neure pentsamentua. Kuartua* ere bai.

HAGIÑ, hagiña: iz. Hortza, hagina. *Hortz / hagiñ* bereizketa *hagiñ*-en alde neutralizatuta geratzen da gehienetan: *hagiñ* erabiltzen da guztietarako: *hagiñak garbittu, haginadia, hagiñak erakutsi...* *Hortz* hitza aurrekoak adierazteko bakarrik erabiltzen da, baina ez askotan.

HAIN ZUZEN: lok. Justu, preseski. *Ezta hori, hain zuzen, nik esandako mutilla. / Hori da, hain zuzen, guk nahi genduana.*

HAINBESTIAN!: interj. adlag. Onartzeko moduan, gaizki ez. Elkarrizketetan, galdera bati erantzuna emateko. *-Ze moduz zabizte, ba? -Bueno, hainbestian!* **Hainbestian ibili:** gaizki ez ibili, onartzeko moduan ibili. Antzera erabiltzen da **Nolabaiten ibili.**

HAIZE, haizia: 1. iz. Haizea. Haize motak: **Hego-haizea, ipar-haizia, mendebala, nahastua. 2.** iz. Gurariak, tentaldiak, laineza. *Ume moko hauek*

badabille haizia! / *Buruan haizia daka horrek.* / *Ibilli haizekua izan naiz ni, e!* / *Bai, beti gabiz gu kanpora, kanporako haiziak.* **Haizia euki zeoze eitteko:** *Eta Julianen partetik ointxe ere elitzake etorriko, baiña nik usten dot guriak dakala haize haundixa hona etortzeko.* **Haizia eman:** Animatu. *Ez zakagun afziorik: aitzak sekula ez zigun eman haizerik ehizian ikasteko.*

HAIZETE, haizetia: iz. Haize-bolada.

HAIZETU: DA aditza. Harrotu. *Umia, lagunak hamen daudela ta, ez haizetu, gero, e!*

HALA ERE: lok. Aurkaritzako lokailua. *Eta gu lenengo hasi giñanian, hamabihamahiru ordu eitxe zian. Oiñ, en kanbio, hamar orduan hortxe-hortxe juten da autobusa. Baiña, hala ere, ordu mordua dao.* Ikus **Hala ta guztiz ere.**

HALA TA GUZTIZ ERE: lok. Aurkari-tzako lokailua, **Hala ere** lokailuaren baliokidea.

HALAKO BATEN: adlag. Halako batean. *Eta halako baten etxera bialdu giñuazen noizpaitten.*

HALAKO ETA HOLAKO: esap. Urليا eta sandia. *-Ba, ju'ari halakona bai.* / *Pelota-partiduak! Holako ordutan halako partidua dao, eta koño! Edarra partidua! Hori ikusi ein bi'ou.*

HALAKO, halakua: izlag. Izenondo peioratibo baten ondoren, interjekzioetan erabilia: *Kaikua halakua!*

HALAMODUZKO: izlag. pei. Er-dipurdiko. *Halamoduzko erropiakin ibiltzen dok hori, beti barregarri.*

HALTZ, haltza: bot. "Aliso".

HAMAIIKA: zenbtz. Asko, ugari. *-txo atzizki txikigarriarekin ere sarritan:* **Hamaikatxo:** *Hamaikatxo holako ikusteko jaixotakuak gera!*

HAMAIIKETAKO, hamaiketakua: iz. Goizaren erdi parteko jatordua.

HAMARRETAKO, hamarretakua: iz. Goizaren erdi parteko jatordua.

HAMAZORTZI: zenbtz. Hemezortzi.

HANGO...!: interj. Harridura adierazteko erabiltzen da. *Atzera, Gernikatikan zihar, zela ero hala, pasau, eta bango desastria! Horko...!* ere bai, erabilera berean: *Horko zaratia!*

HANKA BAKARRIAN: adlag. Txingoka.

HANKA EIÑ: DU aditza. Lgart. Ihes egin, ospa egin. *Bai, bixok; beste lagun bi laga, geure lagunak, eta etxera hanka ein genduan febreruan.*

HANKA, hankia: iz. Hanka. **Hanka jokua etara:** Azkar ihes egin. *Keixak harrapatzen ari zala, basarritarra etorri dok; harek atara jok hanka jokua!* **Hankak luzatu:** Euf. Hil. *Oin aprobe-txau, hankak luzatu eta gero alperrik da-eta!*

HANKAUTSIK: adlag. Ortozik. Bedarretan *hankautsik* ibiltzia gustatze (j)ata. / *Nik aitxa Bizkaikua naban, eta amama ere bai. Eta "ortozik" harek; "hankautsik" guk.* **Oiñutsik** ere erabiltzen da.

HANKAOKER, hankaokerra: izond. Hankak okerrak dituen.

HANKAZABAL, hankazabala: izond. Hankak zabal botatzen dituen.

HAR, harra: zool. “Gusano”.

HARA! interj. Ezustekoa adierazten duen interjekzioa. *Hara! Etorri dok, barren, gure Patxi! (Hara) hor ba!* ere bai: *–Galleguak ointxe hasi dia, jaixekin. Atzo zian txapliuak botatzen. –Bai, bai. Ha(ra) hor ba!*

HARAGI, haragixa: iz. Haragia. Ikus **Okela** sarrera. Xerraz ari baldin bagara, **Tajadia**. (**tajaria**) erabiltzen da.

HARAGI-ETEN, haragi-etena: iz. Muskulu urratzea, “rotura de fibras”.

HARIK ETA: lok. Denborazko perpau-sak osatzeko sarrera-lokailua. Hau da egitura osoa: **Harik eta ... arte (artian)**. Bokalarterko kontsonantea galduta ahoskatzen da askotan. *Haik eta jostaillua erosi nion arte, ez zaban bake-rik euki umiak.*

HARITZ, haritza: bot. “Roble”.

HARITZ AMERIKANO, haritz amerikana: bot. “Roble americano”.

HARKO, harkua: zool. Frutaren harra. **Sagarraren harkua.**

HARRAPAKETAN: Haur-jolasa, elkar harrapatzen; geratzen denak bat harrapatzen duenean, beste hori hasten da gainerakoak harrapatzen.

HARRAPAU: DU aditza. **1.** DU aditza. Egokitu. *Da Brasillek eta bixen artian da. Panamak etzaban soltau dirurikan, zela haren terrenuan harrapatze zaban, da bestiak, da Brasillek derrior nahi zaban haura. / Libre harrapatzen bagen-dun, bai [jolas egiten genuen].* **2.** DU aditza. Lapurtu. Ikus **Ostu** eta **Lapurretan eñ.** **3.** DU aditza. Haur-jolase-tan, elkar harrapatu, ikutuz edo.

HARRAZKERO: adlag. Harrezkero. *–Eta zu ezkonduta zaudezen? –Ez. Harrazkero ezkonduta / Behintzat aprobau ein tzien. Da harrazkero, ba, karo, harekiñ.*

HARRI, harrixa: iz. Txingorra, kazka-barra. **Txingorra** ere bai.

HARRI-JASOTZAILLE, harri-jasotzaillia: iz. Herri-kirolaria, harriak jasotzen dituen.

HARRI-JASOTZE, harri-jasotzia: iz. Herri-kirola. **Karga-jasotze** ere bai.

HARRIKA: adlag. Haur-jolasa, harri bat ea nork urrutien jaurti.

HARRITTU: DA aditza. Harritu. *–Baiña nik orduan dana erderaz itxe najuan, nik dana erderaz. –Harritze nok! Txokau* ere erabiltzen da.

HARRO, harrua: izond. Pertsona harroa, handiustea.

HARROSKUA, harroskua: izond. Pertsona harro samarra.

HARROPUTZ, harroputza: izond. pei. Pertsona harroa era iraingarrian adierazteko.

HARROTU: DA aditza. Zerbait harro bihurtu. **Hautsa harrotu.** *Bota ur pixkat, hautsa harrotuko da bestela eta. Zentzu figuratuan ere uler daiteke: Hautsak harrotuko dittu berri harrigarri horrek.* Umea harrotu, haizetu.

HARTARA: Lok. Era horretara. *–Hor, nere tonterixak jakinda berdin dala, e! –Baiña ondo dago jakitzia. Ikasi eingo dou hartara, ezta?! Da karnizeixia segitzen badio, andriantzako ere lan asko. Han lotuta eon bi’ozu, ta hartara*

pixkat, esku artian badauka, ba, libertadia.

HARTU: 1. DU aditza. Onartu. *Ez, darian gu ondo hartu gaittue oiñ artian.*
2. Uzta jaso. *Artua etxeko lurretan har-tze gendun.*

HARTU-EMAN, hartu-emana: 1. iz. Harremana. Pluralean normalean. **2.** iz. Txerria hiltzen zenean familiarte-koei eta auzokoei odolosteak eta beste-lako txerrikiak opari emateko ohitura-ri esaten zitzaion hala.

HARTZEKO, hartzekua: iz. Pluralean normalean: **Hartzekuak euki, hartzekuekiñ etorri:** esap. Arrazoirik gabe kexatu. *Berak e(g)in neri faenia, eta gainera bera dator hartzekuekiñ!*

HASARRATU: DA aditza. Haserretu.

HAUNDIXA IZAN: interj. Harridura edo ezustea azaltzeko erabiltzen da. **Haundixa dok, ba!:** interj. *Haundixa do(k) pa! Oiñ ere zeoze gaizki eiñ al dot?*

HAUNDIKI, haundikixa: izond. Herriko dirudun eta jauntxoei esan ohi zaie, eta haien antzeko izaten saiatzen direnei ere bai.

HAURA: erak. Hirugarren gradu-ko erakuslea: *hura. Haura da nere etxia; Ha(r)ako etxe haura erosi dot.* Interjekzioetan ere asko erabiltzen da: **Haura...!:** interj. *Haura zuan bronkia, haura! / Haura jan!*

HAUSI: DU aditza. Hautsi. *Hankia hausi zaban, bizikletatik jausitta.*

HAUTS, hautsa: fig. Hautsa. **Bizkarreko hautsak kendu:** egurtua eman (as-toari, mandoari...).

HAUTS EGUNA: iz. Hausterre eguna.

HAUTSAK KENDU (IÑORI): esap. Astindu.

HAZI, hazixa: bot. “Semilla”.

HEGABERA, hegaberia: zool. “Avefria”.

HEGAL, hegala: iz. Alboa, ertza. *Baiña sartzen dok, hor hegalian sartzen dok Azkoittikua. Eta San Migelen Bizkaikua sartzen dok pixkat, bai.*

HEGAZTI, hegatzixa: zool. “Ave”.

HEGO-HAIZE, hego-haizia: iz. Hegoaldetik datorren haizea. **Zoro-haizia** ere esaten zaio.

HEGUAK IPINI: euf. Hil. *Oin bakan-du dittuk asko, e! Pentsa'ik, oin larogei urte eukitzeko, bittarte horretan zenbait heguak ipiñiko zittuan.*

HELDU: DIO aditza. 1. Atzeman, oratu. **Oratu** ere bai. *Neskiari hola helduta jutiaatikan, hola helduta jutiaatikan, “doscientas cincuenta pesetas” multia.* **2.** Ondu, umotu. *Bertan, arbolan. Arbolan heldu biha deu gauziak.*

HELDU, heldua: iz. Elkarri helduta egiten den dantza. **Heldu-lana** eta “**Dultze-meneo**” ere bai.

HELDU-LAN, heldu-lana: iz. Elkarri helduta egiten den dantza. **Heldua** eta “**Dultze-meneo**” ere bai. *Azkoittixan, berriz, etzuan eoten libre heldurikan, heldu-lana. Heldu-lana esate jauen, ta geo ipini jauen “El dulce meneo” izena heldu-lanai.*

HERAÑE(G)UN: adlag. Herenegun. *Gero, San Lorentzora ere jute gaittuk batzuetan. Herañegun San Migelera,*

eta hurrengo San Pedro aldera igual da, holaxe. / Herañuan ere bai. Eta miñal-dixak! Herañuan gau guztian ixa lorik enaban eiñ.

HERDOI, herdoixa: iz. Herdoila. **Uarra** erabiltzen da gehiago.

HESI, hesixa: iz. Lurra leuntzeko erabiltzen zen baserriko tresna, hesizkoa.

HESITU: 1. DU aditza. Lursail batean hesia pasatu. **2.** DU aditza. Lursail bat hesiz inguratu, itxi. **Itxituria eiñ** ere bai.

HESOLA, hesolia: iz. Itxiturak egiteko erabiltzen den makila lodia.

HESTE-SOBRE, heste-sobria: iz. Apendizea.

HIGUIÑ, higuña: iz. Nazka. **Higoña** aldaera ere bai. *Higoña diot playiari, higuña diot nik.*

HIGUINDU: DA aditza. Nazkatu. *Ointxe nao higuinduta zure tonto-usaiñekin.*

HIKA EIÑ: esap. Hikako tratamendua erabili. *Bueno, hika ala zuka eingo juau?*

HIL-KANPAI, hil-kanpaiak: iz. Norbait hiltzen denean jotzen den kanpai mota.

HILL, hilla: iz. Hila, hilabetea. *Hillan azkenian jasotzen da soldatia.* Mugagabea, **hille** forma ere erabiltzen da: *Bi hille eon zan han, neskame.*

HILLEBETE, hillebetia: iz. Hilabetea, iraupena adierazteko. *Hillebete eote gaittuk Benidorren, en jeneal.* **Hillabete** ere bai. *Zazpi hillabetian eon nitzan kanpuan.*

HILLIAN-HILLIAN: adlag. Hilero.

HIRU-LAU: zenbtz. Hiruzpalau.

HIRUGIXARRE, hirugixarria: iz. Hirugiharra.

HIRUKUTX, hirukutxa: bot. Berez sortzen den sekula-belarra.

HITZ EIÑ: DU aditza. Berba egin. **Berba eiñ** ere erabiltzen da, bai eta **Hizketan eiñ** eta **Berbetan eiñ** ere: adinekoen artean, **Berba** gehiago erabiltzen da. *Ezta alkarrekiñ hizketan ere, zerbitzen neuk mahaixa, eta orduantxe pixka bat hitz ein bihar... / Umiak gurekin berbetan, primeran. Eta pixkat estraiñau eitxe zara geiñera, e!*

HITZ, hitza: Ikus **Berba** sarrera.

HITZIAN DA HORTZIAN: esap. Hitzean eta hortzean, etengabe. *Hitzian da hortzian esate jok harek maldiziua!*

HOBE BIHARREZ: adlag. Ondo nahiz. Ikus **On biharrez** sinonimoa. *Hobe biharrez esandakua da (berba) hori, gizajua. Penia emateñulako. / Hobe biharrez esan dixat hori, e! Ez'ik gaizki hartu!*

HOGETAKA: zenbtz. Hogeitaka, hogeitik gora. *Hogetaka lagun juan giñuazen mendi-bueltia eittera. / Hau gora etorri zan, tabernia itxi zabenian baiña aurretik hoetaka urtietan hantxe alabakin lanian, tabernan.*

HOJALATERO, hojalaterua: iz. Iturgina. **Linternerua** ere bai, nahiz gutxiago.

HONBRE!: Interjekzioa, aurretik esan dena baieztatzeko, eta baita norbait agurtzeko ere: *–Hemen ere bildurra*

*pasauko zenduen? –Honbre! / Honbre!
Aspaldiko!*

HONEZKERO: Ikus **Honozkero**
sarrera.

HONOZKERO: adlag. Honezkero. Su-
posizioetan erabiltzeko adberbioa, ge-
roaldiko adizkiekin, ondo ez dakigun
zerbaiten gainean jarduteko. *Fameli-
xaik eztauke, ta honozkeo eztebe eukiko.
/ Honozkeo hilko zan igual haura ere.
Honezkero* ere bai. *Honezkero alle-
gauko zan, ba, abioia, Londresera!*

HONTZ ZURI, hontz zurixa: zool.
“Lechuza”.

HOR KONPON!: interj. Mintzakideari
axolagabetasuna adierazteko erabiltzen
da. *Hik sartu nahi izen dok lantegi ho-
rretan, eta hor konpon!* **Hor konpon,
Mari Anton!** Ikus **Alla kuidaos!** eta
Alla pelikulas! sarrerak.

HORI: erak. Bigarren graduko erakus-
lea. Elgoibarren, mendebaleko hizke-
retan bezala, izenaren aurretik eta
atzetik erabil daiteke: *Hori etxiori.*

HORIXE!: Interjekzio moduan asko
erabilia. Jakina! Bokalarteko kon-
tsonante leuna galduta askotan:
Hoixe! *Eske, guk entzute itxugunak
izate ia makilliakin da jotze zebela.
–Baaai! Horixe! Atzaparrak hola ipiñi,
eta regliakin, da!* Perpau osagarriak ere
goberna ditzake: *Hoixe etorriko dana!*
Jakiñekua ere bai.

HORRAITTIO(KAN): Aurkaritza
lokailua. Horratik. *Hor diru mordua
aurrerauko (d)ozue, horrattiokan!*

HORTARIKO, hortarikua: izlag. Ho-
rretariko. Era horretakoa. *Bueno, len*

*esnia ere eruan eitxe zan eta zabarra eta
hortarikua* ere, *ba, asko baldin ba-
zauan, ba, eruan eitxe zan. / Oin dala
urte asko urria ero, zeoze hortarikua
billatzen ibilli zian.*

HORTXE: Gutxigora behera. [*Kilome-
troak*] asko. *Eunian, osea, hillian, ba...
Milla kilometro-eo hortxe eitxe itxut, ero
pasa. Hortxe-hortxe* ere bai, errepika-
tua. *Da gu lenengo basi giñanian gaine-
ra, hamabi-hamahiru ordu eitxe zian.
Oin, en kanbio, bariantiak da, asko
atajuak daoz. Ta oin hamar orduan
hortxe-hortxe juten da autobusa. Baiña,
hala ere, ordu mordua dao.*

HORTZETAKUA HARTU (eman):
esap. Hortzetan (ahoa) kolpea hartu
(eman).

HOTS, hotsa: iz. Zarata. Hitz elkartuen
bigarren osagai gisa sarritan: X + hotsa.
*Haura zan banka-hotsa! / Aguazilla
ikusi zabenian, haura zuan perra-hotsa
atara zabena! / Haura zan egur-hotsa
atara zabana!*

HOTS EIÑ: DIO aditza. Deitu. **Diar
eñ** ere bai. *Ba, laste hots ein bi diot,
Markiñara, ba(d)aukat telefonua ta.*

HUNTZ, huntza: iz. “Hiedra”. Ikus
Lur-huntz.

HUR, hurra: adlag. Gertu. **Hurrian, hu-
rreko...** *Guk ibilli douna, bertako euske-
ria, hurrekua. / Bueno, urruti ibilli giñan,
baiña gero hurrekua jausi zan. / Eta guri
Debara tokau jakun. –Bueno, behintzat.
–Bai, bai hurrian, hurrian. / Seme-ala-
bak hurrian bizi dittugu, ta lasai gaude.*

HURRENGO, hurrengua: izlag. Hu-
rrengoa. *Hurrengo baten ingo juau
afaixa.*

HURRENGO: adlag. Hurrengo aldiz.
Hurrengo natorrenian hitz eingo dou.

HURRERATU: Da aditza. Hurbildu.

HURRIK EMAN ERE EZI: interj. Ezta gutxiagorik ere! *Lengo aldian erreza, ointxe eztaka lengo konturik basarrixak, oiñ eztaka, basarrixan eztao hurrik ere. / Baiña ostian ere bai lana. Hurrikan ez zaban itxuria hartzen! / Hala ere, galdu ein tzaban aurrian. Gero sakia hartu zaban pelota batekin, eta akabo. Ezin hurrik eman. Ezta hurrik eman ere!*

HUTS, hutsa: iz. Ezer ez. *Da atzea bialdu zittuen. Baiña kartzelan euki. Orduan hutsa biha zuan, e! / Hutsa denporan amaittu juau. Izenondoaren ondoren ere erabiltzen da, haren graduatzaile moduan: Tonto hutsa dok hori! On hutsa dok Patxi, eta eskatu ixok nahi dokena. / Ganorabeko hutsa da!*

HUTSAREN HURRENGUA IZAN: esap. Baliarik ez izan. *Gaur irabazi dogun dirua hutsa(re)n hurrengua dok.*

i

I: Ei, omen. **Ei** partikularen aldaera. *Le-lengo biajia, behintzat, eiñ i zaban Kubara, azukretara.*

IBAI, ibaixa: iz. Ibaia. *Zenbat ogi zuri jun tzian ibaixan zihar! / Gure kallejoia baakizu zela dauan, hamen bertan gurian; ta handik behera, hantxe ibaixa. Ibixa* ere bai. Hiztun batzuek **Erreka** hitza erabiltzen dute, erreka txikiagoez gain, Deba ibaia adierazteko ere, baina adinekoek ez dituzte normalean nahasten.

IBAR, ibarra: iz. Arroa, bailara, harana.

IBETONDO, ibetondua: iz. Ibai bazterra. *Ibetonduan eote giñuazen. Eta, hi! Lenengo prantsesa banderia eote zuan handiko zubixan, eta hemendikaldian española eote zuan.*

IBILGONA, ibilgonia: iz. Kalerako gona; zentzu figuratuan ere erabiltzen da. **Ibilgonia jantzi:** *Bai, bai, jantzi ibilgonia, eta segizu kanpora!*

IBILI: 1. DA aditza. Ibili. Aldaera palatalizatua ere erabiltzen da, batez ere hiztun gazteagoek: **ibilli. Ibili hurrenguan ere!** Arriskuren batez ohartarazteko erabiltzen da. **Ibilli-ibilli eiñ:** *Ibilli-ibilli eiñ, eta azkenian lortu jok. 2.* DU aditza. Erabili. *Aurki, berriz diru berri hori etorriko jaku, eta horrekin izengo dogu lana, ee! –Bai, horrekin ere izengo da lapitza edo boligrafua ibilli biharra. / Nik esaten dot eze erozeiñek hau-ra ezin tzeikiela ibili, hauna katxarro zaharra. / Guk ibilli doguna, bertako euskeria, hurrekua. Era trinkoan ere jokatzen da: Hauxe dabilgu guk.*

IDAR, idarra: bot. Ilarra. *Ointxe dator berrixa: letxuga, aza, berakatz, kipula, idar, baba berri, ba horrek danok daude oiñ, etortzen daude.*

IDI-PROBA, idi-probia: iz. Herri-kirola.

IDIA, idia: iz. Ideia. *Da hori idia ezta txarra, e? Asmoa, intentzioa adierazteko, Asmo hitza erabili izan da askoz gehiago. Aste Santuan oportetara juateko asmua dauka.*

IGARRI: DU aditza. Asmatu. *Eta ezetz esate jok askok. Bai, igartzze jauek ala? Bai asko igartzze jauek egualdixari.*

I(G)UAL: adlag. Beharbada. Bokalarterko kontsonantea galduta ahoskatzen da askotan: **ial**. **Akaso** eta **Biharbada** ere erabiltzen dira. *Eta Manolo, hango-xtxia, ezta kint orduan ein tzaban nobixia ero ez, igual orduantxe eindakua zan nobixia.*

I(G)UAL IZAN: DA eta DIO aditza Berdin izan. *Iual da. / Da hurrengo, argialdixak ere bai! Behian, ezta!, da gu, bi(g)arren alturan bizi giñan orduan, oiñ hirugarrenian, baiña ial dio.* Baita **Berdin izan** ere.

I(G)UALMENTE!: interj. Berdin! **On eiñ!** edo horrelako esaldi bati erantzuteko erabili ohi da. *–On egin! –Igualmente!* Gehiago erabiltzen dira, erabilera horretarako, **Berdin!** eta **Bai(tta) zuri ere!**

IHERTU: DA aditza. Ihartu, sikatu. **Ihartu** ere bai.

IHIXA, ihixia: bot. “Junco”, ur asko dagoen lekuan sortzen den landare ostogabea.

IJITTO, ijittua: iz. Ijitoa. **Motxaillia** ere bai, gehiago erabili ere.

IKARAGARRI, ikaragarrixa: izond. Ikaragarria, itzela. *Ike(r)agarrixa baiña zuluu, e!* **Ikeragarri** ere bai. Adberbio erabileran ere bai: asko. *Horrek umiorrek bi urte dakaz eta ikeragarri eitten dau hizketan.*

IKUILLU, ikuillua: Ukuilua. Ikus **Korta** sarrera.

IKUSI-MAKUSI: Haur-jolasa. Lagunetako batek pentsatu duen gauza bat zein den asmatu behar dute gainerakoek. **Ikusi-makusi!** **Zer ikusi?**

Gauza bat, gauza bat, hasten dana ... “x”-kin.

IKUSIEZIN, ikusieziña: iz. Ezinikusia, gaizkinahia. *Oiñ dana dao inbirixia ta dana ikusieziña.* Orduan ez. Orduan bizi guztian etxeko; goikuak ere atiak zabalikan, da batetik bestera.

IKUSMIRA, ikusmiria: iz. Ikuspegi, bista. *Kalamuatik [Elgoibarko mendi batetik] dao ikusmiria! Zoragarri ikuste’ia Anboto eta Alluitz!* **Ikusmiran ibili:** kuxkuxean ibili.

IKUSTEKUA IZAN: interj. Nabarmena, ikusgarria izan. *Da han topau genduan munduan danik zentralik haundixena, elektrikua. Ikustekua zan, ikustekua!*

IKUTU, ikutua: iz. Ukitua. **Ikutua eman zezeri:** Zerbait berezia egin behar dela esateko erabiltzen da. *Egunari bere ikutua eman biha jako.*

ILBELTZ, ilbeltza: iz. Urtarrila. Oso hiztun zaharrek bakarrik darabilte; gaur egun, ia **Enerua** bakarrik erabiltzen da.

ILLE, illia: iz. Ilea. **Illietatik gora ibili:** esap. Gainezka ibili. *Illietatik gora nabil lanakin.* Adinekoek ez darabilte ***illia hartu** esamoldea, **Adarra jo** eta **Zirixa sartu** bezalakoak baizik.

ILLERA, illeria: iz. Ilara, zerrenda. *Harrek bazkaltzen, eta ni “La vida de los Santos...”, illeria! Bueno!* **Illaria** ere bai. *Bi jai illaran tokatze’ianian, kanpora!*

ILLETARGI, illetargixa: iz. Ilargia.

ILLOBA, illobia: iz. Iloba, biloba: bi esanahiak adierazteko erabiltzen da **il-**

loba hitza. *Ikusi eitxe'itxut oiñ illobak eta. / –Bai. Aittitta einda nao ni. –Bai? –Bai, illobak eukiko'ittu... urte t'erdira jungo da.*

ILLUNABAR, illunabarra: iz. Ilunabarra. **Illuntabarra** aldaera ere erabiltzen da.

ILLUNKERA, illunkeria: iz. Ilunabarra. Inesiboan erabiltzen da asko: **Illunkeran.**

ILLUNTABAR, illuntabarra: iz. Ilunabarra. *Hau gabeko ibillera hau ta? Keba! Illuntabarrian etxera, ta pozik, gainera! Ilunabarra* ere bai.

ILLUNTZE, illuntzia: iz. Iluntzea. Muga-tuan, **illuntzixan** forman ere agertzen da. *Erreiñak ere etxequak, ba, lan asko daka umiekin. Oin ikastolara eruan biha'ittu, eta goizian eruan, eguardixan berriz jun, eta gero illuntzixan.*

INBUSTERIXAN IBILI: Lausengue-tan ibili. *Hango andra haundixa: “hamen dittuk honek, mutil zintzuak...”, eta eztakit ze, da badakit ze da. Inbusteixan umiei, eztakik? Eta gu, pozian.*

INDIA!: interj. Zenbait adinekok erabiltzen duten biraoa. **La India!, Mekauen La India!**

INDIGAZTAIÑA, indigaztaiña: bot. “Castaño de Indias”.

INGIRAU: Ikus **Ingurau** sarrera.

INGURAU: DU aditza. Inguratu, lortu. *Diru pixka bat ingurau biha juat, kotxe berrixa erosteko. Ingirau* ere bai.

INGURU: Gutxi gorabehera. *1.500 lagun inguru* juntau zitudan.

IÑOIZ: adlag. Oso noizean behin. *Iñoiz jun izan gara Santa Eufemiaraino ere, erromeixara. / Ni goizago jauten nitzan esniekin da ferixara. Iñoiz bai, oillaxkua zanian da, handik-bemendik saltzera ta.*

INPERNU, inpernua: iz. Infernua. **Inpernuko diabrua baiño txarragua (gaiztuagua) izan:** Oso gaiztoa izan. Baita **Inpernuak ere etxok hartuko** gizon hori!

INTENTZIO, intentzua: iz. Asmoa. *Juan nitzan hor San Antoliñ aldera ero, peskan eitxeko intentziukiñ ero.*

INTXOR, intxorra: bot. Intxaurra, fruitua eta arbola. **Intxaurra** aldaeran ere bai.

INTXUSA, intxusia: bot. “Sauco”.

IÑAUSI: DU aditza. “Podar”.

IÑUDE, iñudia: iz. Unidea, hazama, beste emakume baten haurrari bularra ematen dion emakumea. *Gure ama ere, ba iñude eon tzuan Donostian. Halaxe zalako bizimodua, diferentia.*

IÑUZENTE, iñuzentia: iz. Inuzentea, koitadua.

IÑUZENTE EGUNA: iz. Abenduaren 28a. **Iñuzente, potente, txakurran buztana tente:** norbait engainatu dugunean erabili ohi da formula hau. **Iñuzente eragiñ:** Norbaiti ziria sartu Inuzente egunean.

IODO-BEDAR, iodo-bedarra: bot. Ikus **Eba(g)i-bedar** sarrera.

IPAR, iparra: iz. Ipar-haizea. **Ipar-haizia** ere bai.

IPINI: DU aditza. Ezarri, ipini. **Ipiñi** aldaera sabaikaria ere erabiltzen da. Ikus **Amama ipini** eta **Heguak ipini** sarrerak.

IPUIÑ, ipuiña: iz. Kontuak. *Gerra denporako ipuiñak ere demasak ditxuk, e! / –Hilko zan, ganau-premixuetan ibiltze zana. –Sasoetako ipuiña! Ze akordauko da, ba, hau! Hau horrentzako gaztia da. / –Tabernan kontu gitxi ein bi'izaten da, lana eingo baldin bada. –Ez i zan eoten ipuiñik! –Han ipuiñ gitxi eoten da, e!*

IPURDI, ipurdixa: iz. Ipurdia. **Ipurdixari bueltia eman orduko:** esap. Bizkor. *Ipurdixari bueltia eman orduko abazte jakoz gauzak:* gauzak berehala ahazten zaizkiola adierazten du. **Ipurdixa berotu:** Jo, jipoia eman. **Ipurdixa eman:** esap. Bizkarra eman.

IPURTARGI, ipurtargixa: zool. “Luciérnaga”.

IPURTATX, ipurtatxa: zool. “Turón”. Baita **Basakatu papazurixa** ere.

IPURTAUNDI, ipurtaindixa: izond. Ipurdi handia duenari esan ohi zaio.

IPURTERRE, ipurterria: izond. Pertsona zazpikia, jenio txarrekoa.

IPURTXONTXOR, ipurtxontxorra: iz. Ipurtxuntxurra, sakroa. **Ipurtxontxorrekua hartu.**

IRABAZI: DU aditza. Landareak hazi.

IRENDU: DU aditza. Animalia bat zikiratu.

IRIKI: DU aditza. Ireki.

IRIÑ, iriña: iz. Irina. –*Orduan gazte mordua hil tzan Elgoibarren, e! –Iriñik etzauan.*

IRISAGAR, irisagarra: bot. “Membri-llero”.

IRITZI: DIO aditza. Iritzi, uste izan. Datiboko erregimena du. –*Batzuk, hor izete zian konplikaua zala esate zebenak eta ulerteziña, ta... –Neetzako... eztiot irizten hainbesterañokorik.*

IRITZI: iz. Iritzia. **Ustia** eta **Parazerra** ere bai, nahiz azken hau askoz gutxiago.

IRITZIRA (JARDUN): Gauza bat zehazki hala dela jakin gabe jardutea. “Al tuntún”, “a ojo”, “a voleo”. *Ez'ixok kasorik eñ, iritzira dihardu ta.*

IRRINTZI, irrintzixa: iz. Zaldiaren oihua, irrintzia.

IRRIST EIÑ: DU aditza. Labaindu, labainkadaren onomatopeia (hortik, **irristadia**). **Txirrist eñ** aldaeran ere bai. *Irrist einda hor mordua juste'ia.* **Labaindu** ere bai.

ISLA, islia: iz. Ortzemuga, mendien profila. **Isla(d)ara ikusi (zeoze):** Ilunabarrean, ortzemugaren muga, argiaren kontra zerbait ikusi. *Oin debekauta dao oillagorrak islara ehizatzia.*

ISO!: Astoari gelditzeko esaten zaiona.

ISPI, ispixa: iz. Espioia, zelataria. *Elgoibarrera etortze zittuan Trinidadietan da San Bartolomietan, hemen libre ta, “el dulce meneo” helduta dantzan eittera. Da, baiña, ispixak eote zittuan.*

ITTULAN EIÑ: DU aditza. Idien aurrean (itaurrean) lan egin.

ITTURRI, itturrixa: iz. Iturria.

ITXAIN: DIO aditza. Itxaron. *Itxoin* ere bai. *Baiña gero nola bigarrenian ni juan nitzan, emaztiak itxain ein zi(d)an.*

ITXASO, itxasua: iz. Itsasoa. **Itxesua** aldaeran ere bai.

ITXAS-ANTZAR, itxas-antzarra: zool. “Ganso”.

ITXITURA, itxituria: iz. Lursail, eremu edo barruti itxia.

ITXURAK HARTU: Errezeloa izan. Perpaus osagarriak goberna ditzake. *Itxurak hartzen ai naiz sasoi txarrak da-tozela.*

ITXURIA (izan): adlag. Antza denez, dirudienez. **Itxuria:** *Eta errietia gogorra ein tzian aitzak; itxuria, enterau zan, handik ero hamendikan ero. Itxuria daukanez / itxuria dabanez / itxuria danez* ere bai: *Etorri zan, esan tzien zala injenierua bera, Lafitte. Itxuria, hori apelliduari frantsesa da, itxuria dabanez.*

ITXURAZKO, itxurazkoa: izlag. Onartzeko modukoa. *Egun itxurazkoa. / Eta, ikusi ninduen mutil batekin, eibartarra; ibiltze zan nere ondoren, eta: “Itxurazkoa zunan, itxurazkoa zunan”.*

ITZAIN, itzaiña: zool. “Sangüjuela”, izaina.

ITZAL, itzala: izond. Oso handia. *Aburrimendu itzala. Itzela* ere bai.

IXIGI: DU aditza. Eskegi.

IXILIK: adlag. **Ixilik egon zaitte!** Berritar bat entzun ondoren esan ohi da.

–Ba al dakizu Maria hil dala? –Ixilik eon zaitte! Ezta izengo!

IXIL-POLTSA, ixil-poltsia: iz. Diru beltza. Senarrari edo emazteari ezer esan gabe, ezkutuan gordetzen den diru-poltsa.

IXIPILA, ixipilia: iz. Ezpainetan atera ohi den azaleko gaitza, sua.

IXKO, ixkua: iz. “Semental”. **Ixkua bota:** Behia estali. **Hori dok ixkua, hori!** Mutil handiengatik esan ohi da, ironikoki.

IXO: DU aditza. Eio, “moler”. *Hemen bajauan, baiña garixa ixotzekorik ez.*

IXO: DU aditza. Igo. *Horrek [etxeen salneurriek], ixo beti, eta okelianak, ze?*

IXTURA, ixturia: iz. Hesiz itxitako esparrua. *Oin, herri bakoitzian entenu alkarrekin iual eitxen dou, e! Hori dau ipinita, ixtura bat bueltan ipintzia bezela, berba iuala eittia. Itxituria* ere bai.

IXUTU: DU aditza. Piztu. *Igual poxpolo bat ixutu, zigarrua ixutu bati, eta handikan larogei zigarro igual ixutu. Piztu* ere erabiltzen da. Baita **Argixa bota** esapidea ere.

IZAN ERE: Kausazko lokailua: *Pentsa'ik, oin larogei urte eukitzeko, bittarte horretan zenbatek heguak ipiñiko zittuan. Eta aurrera. Eta batzuk larogei urte ta (...). Lehen asko zuan, izan ere.*

IZAN EZIK: Izan ezik. *-AN* espleti-boarekin ere bai: **izan ezikan.** *Baiña orduan da, Elgoibarren basarrikua izan ezikan, kalekuak, ya normala zan igarixan eitxia. Normal, normal, normala.*

IZAR GALDU, **izar galdua**: iz. “Estrella fugaz”, izar iheskorra.

IZARDI, **izardixa**: Izerdia. Hona esapide adierazgarri batzuk: **Izardi eta pats**, **Izardixa daixola**. *Etorri etxera eskolatik, bazkaldu eta antxitxika frontoira, izardixa daixola eskolara. Aitxa eta ama beti errietan.*

IZARTU, **izartua**: iz. Izerditua. **Izardittua** ere bai.

IZATEZ: adlag. Jaiotzez nongoa den adierazten du. **Izetez** ere bai. *Zesnuakua zan izatez, baiña hor zerian bizi da, Markiñan.*

IZEKO, **izeko**: iz. Izeba. **Tia** ere bai.

IZERA, **izeria**: iz. Maindirea, izara. **Izara** ere bai.

IZOTZA, **izotza**: iz. Izotza.

IZUGARRI, **izugarria**: izond. Izugarria, oso handia, harrigarria.

IZURRAU: lgart. arrunk. DA aditza. Hondatu. *Gizajua, izurrau da. Gizon ona izen da, baiña... erreumiak izurrauko zaban asko hori, e! Izur'ai* (“izorra hadi”) interjekzioa asko erabiltzen da (arrunk.).

j

JABE, **jabia**: iz. Jabea, nagusia.

JABOIA EMAN: DIO aditza. Norbaiti koipea eman.

JAI EUKI (egon): esap. Zer eginik ez izan. *Horrekin jai daok, eta laga'ik bakian.*

JAI, **jaixa**: iz. Igandea. **Domeka** erabiltzen da gehiago, baina **Jaixa** ere sartzen hasita dago adinekoen artean. *Oiñ fulanokiñ eon gara, ta datorren jaixan zeeraiño biha jonau, Lekeitxio, bai Lekeitxioraiño.*

JAITXI: **1.** DA aditza. Jaitxi. Baita **bajatu** ere. **2.** DU aditza. Behiak jetzi. *Jaiki goizian, kortara jun, da ganaua jaitxi, da ipini marmitxak hamen, da esniak ipini zeretan, astua lotu, norbera prepara... Eratxi* ere bai.

JAKIN: DU aditza. Eguraldiaz eta, oro har, ohiturez hitz egitean erabiltzen da. *Eualdixak badaki, ba, batzuetan laguntzen, e! / Udazkenian badaki hegohaizia eitten. / Badakixe Sanbartolome-tan etortzen.*

JAKIÑA!: interj. –*Zu San Bartolomietan kalia bai, ezta?* –*Bai, jakiña!* Ferixarata. Ikus **Jakiñekua!**

JAKIÑEKUA!: interj. Jakina! **Jakiña!** ere bai.

JAKIÑIAN EGON: Jakinaren gainean egon. Baita **Jakiñan gainian egon** ere. *Eta ordurako jakiñian eote zian.*

JALGI: DA aditza. Landare batek hazia berez zabaldu, barreiatu. *Garixa jalgi.*

JAN, **jana**: iz. Hitz elkartuen bigarren osagai gisa sarri. **Karakol-jana**: *Ka(r)a-kol-jan bat in biha juau Salontzon noizbaitten. Baba-jana, bildots-jana...*

JAN: **1.** DU aditza. Jan. **2.** DIO aditza. Irabazi; kiroletan batez ere. *Parejetan Gallastegi onena. Hiru, berak hartu segundako lagun polit bat, hiru onenak*

ipini aurrian, eta hiruri jate ziuen hárek parejetan.

JANGOIKO, Jangoikua: iz. Jainkoa. *Ba, Jangoikuari eskerrak, daukauden edadietara allegau gara, eta oindiokan hamentxe nahi bizi.*

JAN-TXAKURRA IZAN: esap. Gauza askotarako balio ez duenari esan ohi zaio, alferra denari; jateko bai, baina lan egiteko hurbiltzen ez denari. *Basarrri haretan ere, jan-txakurra ugari: lau seme, eta danak kalian, festan.*

JANTZI: 1. fig. Edertu, dotoretu. *Herrixa, etxe berrixekin, asko jantzi da.* 2. Prestatu, landu. *Buruz, ondo jantzixa da Joxepa.*

JA(R)AMON EIÑ: DIO aditza. Kasu egin. *Arduragabia dok: etxaok jaamonik eitten umiari!*

JARDUN, jarduna: iz. Hizketa-saioa. iz. **Jardunian jardun (ibili):** Berriketan aritu. *Hamen gabixaz, jardunian.* **Jardunian jardun:** hitz egiteagatik hitz egin. Bestelako saioren bat ere izan daiteke.

JARDUN: 1. DU aditza. Jardun. Zer-bait egiten edo esaten ari izan. Aditz sintetiko bezala ere asko erabiltzen da: *badihardut zeozetan!* 2. DU aditza. Hitz egin. *Oiñ ere jardunian?*

JARRI: 1. DA aditza. Ohitu, egokitu. *Eta Kataluña izan, edo Valentzia izan, dipe-rente eitten dabe. Katalana dipe-rente itxen dabe. Baiña denporiakín, jarri eitxe zara. / Azkar jarri gara etxe berrira. Edozertara jarri.* 2. DA aditza. Eseri.

JASO: DA aditza. Bildu, joan. **Nora jaso.** *Danobat-en* [lantegi baten izena

da] *zabillen anaixa, eta: “hi, hobe daukak hara etortzia, han tallarra ondo jiek, eta bixar ero etzi han benefiziuak eta, zeoze eman eitxe juek. Eta halaxe, hara jaso nitzan, Danobat-era jaso nitzan.*

JATOR, jatorra: izond. Egiazkoa, zintzoa, tolesgabea. *Honek frantses-euskaldunak, ostian frantsesa (...); baiña zera, kozineria ere zan Fuenterrabixakua, euskaldun jatorra.*

JAURTI: DU aditza. Bota. **Bota** ere bai. *Eta landarak ihartze'ianian, danak jaurtiko jaittuat, eta kitto.*

JAUSI: DA aditza. Erori.

JAZBAN, jazbana: iz. Bateria, musika-instrumentua.

JENDE HAUNDI, jende haundixa: iz. Jende inportantea, agintariak eta. *Zubi berrixa inauguratze juek, eta jende haundixa etorriko dok gaur herrira.*

JENDE, jendia: iz. Jendea. Hitz elkar-tuen bigarren osagai gisa askotan: izena + *jendia*. *Elgoibar zibero kanbixauta dao. Lehen, jendia goixan eote zan, goiko plaza aldian dana. Oiñ, en kanbio, Maala aldian, gazte-jendia. **Jentia** aldaera ere bai, nahiz gutxixeago.*

JENERAL(IAN): adlag. Normalean. **En jeneral:** *Gabonetan, en jeneral jute gaittuk gu hor zihar. / Nik beti Arrate [irratia] eukitze juat, en jeneal.* **Jeneralian:** *Gu otubrian jute gara jeneralian.*

JENERO, jenerua: iz. Jangaia, salgaia. *Baiña, bestela, saldu ein biha zan diru pixkat hartzeko, jenerua etxera eruateko, entenitzen dozu*

JERANIXO, jeranixua: bot. Geranioa, zaingorria.

JESUKRISTON, jesukristona: Igart. izlag. Jesukristorena, oso handia. Ikus **Kriston** sarrera. Interjekzioetan askotan. *Jesukriston euri zaparraria bota jontan!* **Jesukristonak esan:** *Jun dok neskia, eta Jesukristonak esan.*

JESUS!: interj. Harridurazko interjekzioa. **Josus** eta **Jaseus!** aldaerak ere bai. **Jesus, Maria ta Jose!** *Istorixak asko jaukadaz nik, Jesus, Maria ta Jose!* / “Ezaizu hainbeste ipini”. Norberak esan bihar askotan, mutill. Bestela... *Jesus, Maria ta Jose, ze jateko!* / *Gora allegau be, eta hónetan, kañonazo bat kamiño erdixan sartu zan. Josus!*

JIRA, jiria: 1. iz. Egoera, ardura. –*Eta, zure bizimodua zein da? Zein da basarriko jiria?* –*Basarriko jiran gauza asko dao, gauza askori begiratu biha jako.* / *Lehen umiari titixa ematera, inora. Etxian lenengo hamabost egun-billabetian, auzora titixa ematera. Horixe do(k) pa lebengo zaharren jiria.* 2. iz. Fundamentua, ganora. *Hori da jiria, hori, dabizuna!*

JIRAU: DU aditza. Lortu. *Nunbaitetik jirau biha juat automobilla, oporretara juateko.*

JO TA FUEGO: Interjekzioa, zerbait egiteko kemen handia adierazten duena. *Jo ta fuego a(r)i gaittuk oiñ ere lanian, lenbailen amaittu nahixan. Jo ta keia eta Jo ta sua* ere erabiltzen dira. *Eta hor kriston erromerixia, frontoia bete-bete jente eote zan han dantzan, jo ta sua.*

JO: 1. DU aditza. Jo. **Behia jo:** Adorea galdu, erori. *Behia jota dabik aspaldixan Pako.* *Etxakok ezer ondo ertetzen.*

2. DU aditza. Edan. **Txikito bat, botillia... jo.** *Eta Salontzon jo txikito bat eta ala, etxera!* / *Eta ordubixetarako txikito bat edo bi jo, eta bazkaittara.*

JOKERA, jokeria: iz. Joera. *San Migele-
ra jokera ez gendun, albora zauan da. Baiña San Droquera eta Salontzora, bai. Joeria* ere bai.

JOLAS EIÑ: DU aditza. Jolastu. Adinekoek **Jolas eiñ, Jolasian eiñ** erabiltzen dute: berriagoa da **jolastu** aditza.

JOLASIAN EIÑ: DU aditza. Jolastu. Adinekoek **Jolas eiñ, Jolasian eiñ** erabiltzen dute: berriagoa da **jolastu** aditza.

JOÑO!: interj. Harridura adierazten duen interjekzio eufemistikoa. **Ño** ere bai. *Joño! Martiñen semia. Haura laguna daukagu.* / *Brometan moduan esan nion: “Ño, ezta merkia”.*

JORNAL, jornala: iz. Soldata. *Hillan bukaeran jasotze juagu jornala jeneralian.* / *Kaletikan ekartzan baldin badezu jornala, seguru-seguru dakazu basarrixan bizimodua: ataratzan dozu ortugauzia, haragixa etxian ateratzan da, zera ere bai, arrautzia...*

JORRA, jorria: iz. Landareren baten jorra. *Bai, hola gustatze jatana neri, jorria; errezena, jorria. Jorran eta Jorraketan.* Hitz elkartu baten bigarren osagai gisa ere bai: **artajorria.**

JORRAKETAN (jardun): adlag. Landareren bat jorratzen jardun. Baita **Jorran** ere.

JORRATU: DU aditza. Ortuan edo so-roan, landareei aitzurra pasatu. *Geuk pentsatze dounian denporia pasatzeko, ba,*

zeoze, *patata pixkat jorratu*, *ero bestia*. **Jorran** eta **Jorrocketan**, biak erabiltzen dira ekintza edo jarduera hau adierazteko.

JOSI: DU aditza. fig. Hil, akabatu. *Han pasau, ta holaxe ikuste zittuen gero sasi-txikan bilddurtuta eurak eta goittik eta: "Aquí no hay paso" esan ei zaban batek eta hiru ero lau jirau, eta atzera. Beste-la, joste jaittuek bertan!*

JOSTUN, jostuna: iz. Ogibidez josten duena. **Sastria** ere erabiltzen da.

JOTA EGON: 1. esap. fig. Zoratuta. **Burutik (ganbaratik) jota egon**: *Ez'ixok kaso eñ horri, burutik jota daok eta.* Ikus **Burutik jota**. 2. **Behia jota egon**: *Ama Mendarokua naban. Hor basarrixa oin behia jota dao.* 3. **Jota gelditu**. *Jota gelditu nok entzun doten berrixakin.*

JOTA!: interj. Kontakizunak egitean, esaldi adierazgarrietan erabiltzen den makulu-hitza. *Kanpaiak haste zianian, jota danak refujixora. / Jun da haura depositxuakin, da hasi dok soldiatzen, da jota esplotau. / Illia zeruan moztia. Jota, geatze zan, hau papelau baiño zurixao geatuko zan. **Jata** aldaera ere bai.*

JUARI...!: interj. Joan hadi...!

JUIZIO, juiziua: iz. Burua. **Juiziua galdu**: Burua galdu.

JULIO, julia: iz. Uztaila. Adinekoek ez darabilte **Uztailla**.

JUNIO, junia: iz. Ekaina. Adinekoek ez darabilte **Ekaina**.

JUNTAU: DA aditza. Elkartu. *Jai eunetan? Ezer ez guk. Juntatze gera hamentxe lau laguntxo zapatu arratsaldian, eta zerian, jokuan eñ.*

k

KABAL, kabala: izond. Burutik sanoa, zentzuzkoa. **Eztok kabala**: Burutik sano ez egon.

KABALLO, kaballua: iz. Zaldia. *Kaballo gainian ibiltze nitzan, kaballo zuri baten gainian da, ta jute nitzan... Soldautzia pasau naban "de maravilla". / Beltzak eta dana, sukaldereiño kaballuan orduntxe, orduntxe bai bilddurtu gainera, puñeta! **Zaldixa** ere bai, nahiz gutxiago adinekoen artean.*

KADERA, kaderia: iz. Aldaka. **Mokorra** ere bai.

KAFITESNE, kafitesnia: iz. Kafesnea. *Gero, gabian jango zauan diperentia ero, baiña eguardixan behinizat, ezer ipintzen ez ibiltziarren, kafitesne kati-llukaria, eta ala! Eta lana eñ! Zera, gizonak baiño gogorrago!*

KAIKU, kaikua: 1. iz. Ardiak jaizteko ontzia. 2. izond. Ergela, tentela. *Ze ai haiz, kaikuori!* 3. iz. Lehen erabiltzen zen jaka mota bat, mendirako-eta erabiltzen zena, koloretakoa.

KAIXO, kaixua: zool. "Gaviota". **Kaixo haundixa** eta **Kaixo txikixa**.

KAIXO!: interj. Agurra. **Kaixio!** ere bai.

KAJA, kajia: fig. iz. Umezurztegia. **Kajatik ekarritako umia**: Umezurztegitik ekarritako umea.

KAKA!: 1. Interjekzio gisa erabiltzen da, ezusteko makur baten aurrean, adibidez: **Kaka!** Baita **Kaka zaharra!** ere. 2. Haur. Gauza zikina, ukitu behar ez dena adierazteko.

- KAKA BURUTIK BEHERA EIÑ:** esap. Edozer egin norbaitekin, barre-garri gertatzeraino. *Ez, gero, laga kaka burutik behera eitxen, e!*
- KAKALARRI, kakalarrixa:** iz. Kakagura. **Kakaguria** ere erabiltzen da, nahiz gutxiago.
- KAKANAHASTE, kakanahastia:** iz. Is-tilua, endredo handia
- KAKAÑERO, kakañerua:** haur. pei. izond. Beldurtia.
- KAKARAKA, kakarakia:** iz. Oiloen karaka, hotsa.
- KAKATI, kakatixa:** Haur. pei. izond. Beldurtia.
- KAKATZA, kakatzia:** iz. “Barrizal”.
- KAKOTU:** DA aditza. Kako itxura hartu. *–Holakuak eta noizian behiñ eiñ ein biha dia, bestela... Beti hamen eonda... –Hoixe! Kakotu azkenian [pertsonea].*
- KALBOSO, kalbosua:** izond. Burusoila.
- KALANDRES, kalandresa:** zool. “Alondra”, “calandria”.
- KALAMO, kalamua:** bot. “Cáñamo”.
- KALE EIÑ:** DU aditza. Huts egin.
- KALE GORRIXAN GERATU:** esap. Kalean, langabezian geratu, testuinguru adierazgarrian. *Tallarra itxi, eta kale gorrixan geratu nok.*
- KALE-BASARRI, kale-basarrixa:** Kaletik oso hurbil egonik, denborarekin kaleak, hartutako baserria. *Elgoibarren bazittuan kale-basarri batzuk: Etxezuri, Toletxe...*
- KALENTURA, kalenturia:** iz. Sukarra.
- KALETAR, kaletarra:** iz. Kalean bizi den jendea. *Orduan kaletarrak basarritxarra ostikua jo ta txakurra bezela bialtze juen.*
- KALEUME, kaleumia:** iz. eta izond. Kaletarrei esaten diete, zentzu peioratiboan, baserritarrek.
- KAMIÑERO, kamiñerua:** iz. Bidezaina, bidegina. **Kamiñerokua:** Elgoibarko auzo baten izena da, garai batean frontoi ederra zuena.
- KAMIÑO, kamiñua:** iz. Errepidea. *Bai, kalabazak ere bai. Iez ere mordo galanta eon zan kamiñotik bistan-bistan.*
- KANA, kania:** iz. Metroa baino gutxiago duen neurria (83,59 cm).
- KANARIXO, kanarixua:** zool. “Canario”.
- KANBIXAU:** DA aditza. Aldatu. *Oiñ elitzake garirik batere helduko. Nola helduko litzake, ba? Ezta pentsau ere. Holaxe kanbixau da gauzia.*
- KANGREJO, kangrejua:** zool. Ibai-karramarroa.
- KANIKETAN:** Haur-jolasa. Kanika zulo batean (**txolot**-ean) sartzean dartzan jolasa. Elizako arkupeetan egiten zuten haur askok, harik eta **txolot** guztiak berdindu zituzten arte.
- KANKAILLU, kankailua:** izond. Pertsonea handia eta baldarra.
- KANPOLARROSA, kanpolarrosia:** izond. Kanpoan etxean baino atsegina denari esaten zaio (etxean

otso, kalean uso). *Hori kanpolarrosia dok, gero, e!*

KANPOSANTU, kanposantua: Hile-
rria. *Kanposantua etxe honek Altzolan dauka.*

KANTIDA(D)IA: zenbtz. Asko. *Hamen eote zan garixa, eta artua ta hartze zan... kantidadia!*

KANTSAU: DA aditza. Nekat. *Allau orduko kantsaut zaure. / Baiña, hala ere, ordu mordua dao: hamar ordu. Bai, kantsau, azkenian. Nekat* ere bai, nahiz gutxixeago.

KAPAZ IZAN: DA aditza. Gai izan. Ikus **Gauza izan**.

KAPAZIDADE, kapazidadia: iz. Ahal-
mena, gaitasuna. *Zer asko ikusten dot, a(g)indu nahiko asko bueltan, baiña kapazidadia ezakitx, e! Hori ezakitx. / Hori da kapazidadia dakana juergan ibiltzeko!*

KAPOIA, kapoia: zool. Irendutako oi-
laskoa.

KARA-I-KRUZ BOTA: Txanpon bat
airera bota, zozketa egiteko. **Leon-
kastillo bota** ere erabiltzen da, nahiz
gaur egun gutxiago.

KARABI, karabixa: iz. Karobia, karea
egiteko labea.

KARAKOL, karakola: zool. Barakui-
lua, barraskiloa. **Marraskillo** ere bai,
nahiz gaur egungo adinekoen artean
karakol izan nagusi.

KARATER, karaterra: iz. Pertsonen
izaera. *Bai, izatez, geure moruan dia
baiña, nik ikusten dot euron karaterra*

*geurian aldian lotsagabiaua eukiko da-
bela horrek.*

KARGA-JASOTZE, karga-jasotzia: iz.
Harri-jasotzea. *Ba, izete juau, ba, pelo-
tia, fubola ere bai batzuk. Beste batzuk
karga-jasotzia ere bai, aixkora-jokua
ero, eztaikik? Ikus **Harri-jasotze**.*

KARGAU: DU aditza. Igart. arrunk.
Emakume bat haurdun geratu edo
norbaitek hala utzi. *Kargaut laga jok
nobixia.*

KARGU EIÑ: DIO aditza. Zaindu. *Ho-
laxe ta. Orduan in biha da lan asko,
landariari ein biha jako batetik ura, eta
gero, kargu eiñ. / Oiñ tensiuari-txa kar-
gu ein bihar, e! Ba(d)akizu.*

KARGU HARTU: 1. DIO aditza. **Bere
buruari:** Bere burua zaindu. 2. DIO
aditza. **Beste norbaiti:** Kontuak, eran-
tzukizunak eskatu. *Eta nagusixari, zei-
ñek hartuko dio kargu gaizki agintzen
dabanian?*

KARKABA, karkabia: iz. Kalean, bi
etxeren arteko kalekka. *Zenbat katu
ibiltze ete dia San Bartolome eta Errosa-
rixo kalien arteko karkaban!*

KARKAX, karkaxa: iz. "Flema".

KARMENAK: iz. Markinako festak (uz-
tailaren 17a).

KARNABALAK: iz. Inauteriak. *Karna-
balak! Orduan arpeixak tapatze zitxuen
eta, bageunden dantzan eta, etorri jakuz
bi. Heldu ditx altuak, eta hankak apur-
tu bihar! Eta hanka ein nion jakin be
zeiñekin dantza ein naban, ezta ber-
baikan ere. Hurrengo egunian, berak,
"Josepa!", ta, "Zer?", da, "Hankak
saniau janaz?" ja, ja, ja.*

KARNAZERO, karnazerua: izond. Harakina. *Hau karnazerua Patxi bado(k) pa hor San Bartolome kalia?* Ba, haura! **Karnizerua** ere bai.

KARO!: interj. Horixe, jakina. **Klaro** ere bai.

KARRAZTARRO, karraztarrua: zool. "Zorzal".

KARRETERA, karreteria: iz. Errepidea. *Txixarruan taillarra. Osea, Azkoitxiko karreteran tren-zubixan, oiñ Alkortak bota dau, ba? Han zauan. Bidia* ere bai.

KARRETERIXA, karreterixia: iz. Garraio-enpresa. *Eta horrek karreterixia zeuken, orduan, Azkoitxira transportia, ez zauan kamioirik eta.*

KARRIAU: DU aditza. Garraiatu, kargatu. *Gari-karriuan ibiltzen ginuzen gaztetan. / Armaixua karriau ezinda gabiz, eta etorri laguntzera.*

KARTA, kartia: iz. Gutuna. **Kartia eiñ:** Gutuna idatzi eta bidali. *Eta gero pasau zan gerra hori, eta gero, ezkondu ta gero, ez zi(d)an, ba, kartia eiñ! / Bi urte pasauan etxea etorri be. Ba, orduan kar-taik eta inok etxuan eitten.*

KARTERO, karterua: iz. Postaria.

KARU, karua: izond. Garestia. *Alperrik ipiñiko dozu karua, harekin negozio txikixa eingo dozu. / Karua ikuste'ot nik fubola, oso karua, eta diru asko estranjerrora, gainera. Garestixa* ere bai.

KARUTU: DA aditza. Garestitu.

KASA: postpos. Kabuz. **Nere kasa (egin...):** Nire kabuz. Baita **Nere kasetan** ere.

KASIK(AN): Ia. *Epoka haretan kasikan promesia moruan ere bai... / Alkarrekin ere ez giñan kasik ikusi ere eitzen / Lanik gehixen kasik udaguenian gelditzen da. / Arratekua? Ondo. Arratekua kasik hobeto [ulertu Euskadi Irratiko euskara baino].*

KASKAJUEN EGUNA: Igart. iz. Ostirala izaten zen kaskajuen eguna. *Barraxakua, kaskajuen eguna.*

KASKAR, kaskarra: iz. Buruhezurra, kaskezurra, burua. *Isildu hari behingoz, kaskarreko miña jartze'iak eta. Kaskarreku:* buruko kolpea.

KASKARA-BATZE, kaskara-batzia: iz. Herri-kirola; arto-kaskara batzuk bildu behar izaten dira otarre batera.

KASKARIÑ, kaskariña: izond. Pertsona txoriburua.

KASKETALDI, kasketaldixa: iz. Guraria, apeta. *Eman dio berriz umiari kasketaldixak.*

KASO EIÑ: 1. DIO aditza. Agur egin. **2.** DIO aditza. Deitu. *Aurten noanoako hasi bihako juau kaso eitten.*

KASTAKUA IZAN (baten baten): DA aditza. Ahaide baten antzekoa izan, nortasunez nahiz fisikoz. *Aittan kastakua dok semia, gero! Ikus Urak euki eta Aittan semia izan* sarrerak.

KASTAU: DA aditza. Amaitu, gastatu, baina ez bakarrik dirua amaitzearen zentzuan. *-Gaur hoixe, esnia Gurelesakiñ eongo da pixkat. -Gurelesa kastau zan. / Erromeixa harek aspaldi kastau zian. Gastau eta amaittu* ere bai.

KASTELLANO-JENDE, kastellano-jendia: iz. Gaztelaniaz mintzatzen den

jendea. **Kastillano** aldaeran ere bai. *Baiña asko dao kanpoko jentia ere Elgoibarren ezkontuta, sartuta. Kastellano-jentia ere bai.*

KATAGORRI, katagorrixa: zool. Ur-txintxa gorrixka. Ikus **Katamixar**.

KATAKI, katakixa: zool. “Golondrina”.

KATAMIXAR, katamixarra: zool. Ur-txintxa hauts-kolorekoa, nabarra. Gorrixka denari **Katagorri** esaten zaio.

KATANAR, katanarra: zool. Txori txikia, “Trepador azul”.

KATAPARDO, katapardua: zool. “Jineta”.

KATE, katia: iz. Katea. **Kate motzian lotu:** Norbait hurbiletik kontrolatu, kontrolpean izan. *Kate motzian lotu jok andriak Patxi, eta erten ere etxok eitten.*

KATEGORIXAKO, kategorixakua: izond. Maila handikoa. *Da onduen ataratze zabanak, gehixen, bueno, aurren ataratze zabanak jertse edarra, espertak, alkondaria ta erregalua kategorixakua.*

KATIAU: DA aditza. Lotu, kateatu. *Tallarretik ertendakuan, zapatu-jaixa, ba, basarriko zeeze ein bihar baldin bada, beti katiauta. / Elgoibarrera Amaia ta zailla da etortzia, Donostian ero nahiko debe katiau nun-nun.*

KATONA: iz. Garai bateko eskoletan, lehenbiziko erabiltzen zen liburua. *Katona esate jakuan lenengo liburuari, emate ziuena umieri. Katona emate jauen letra haundixekin... Lenengo,*

haura ikasi bihar izate zuan. / Eskolan, ba, katona ikixte gendun gehixena.

KAZA, kazia: iz. Ehiza. *Nik ez. Hónetxek illobak. Ointxe karneta atara daban horrek, horre(k) pai. Horrek bi txakur hortxe dakaz, kazakuak. Ehizia ere bai.*

KAZARI, kazarixa: iz. Ehiztaria.

KAZA-TXAKUR, kaza-txakurra: zool. Txakur ehiztaria.

KAZO, kazua: iz. Eltze kirtenduna. **Kazuak zartaiñiari, ipurbeltz:** Baita hau ere: **Zozuak beliari, ipurbeltz.**

KAZUELA, kazuelia: iz. Kazola, eltzea. *Harek ekarri jaittuan, karakolak kazuelakada demasa ekarri juan.*

KE APROBETXE! interj. **On eín** eta **On ein dizu(e)la** bezala erabiltzen da.

KEBA! interj. Aurretik esan dena ukatzeko erabiltzen den interjekzioa. *Ez horixe-ren kidekoa. –Neskiari lagundu, eta buelta atzera. –Oíñ holakorik eztaueitxen mutil batek! –Keba, keba! / –Oporretara kanpora jute zerate? –Keba!*

KEDAR, kedarra: iz. Tximiniari barrutik egiten zaion kostra. **Kedarria baiño xurragua izan:** dirua gastatzea maite ez dutenei esateko erabiltzen da.

KEE, keia: iz. “Humo”. **Keiana eín:** Joan eta ez itzuli. *Hi, Patxik oíñ ere keiana ein jok!*

KEIXA, keixia: bot. Gerezia, fruitua eta arbola. **Keixa-kordia:** gerezi-mordoa. Gerezi klaseak ziren **kindak (kinda garratxa), anpolaixak... Sasoian keixak:** Gauza bakoitza egi-

teko garai jakin bat dagoela adierazten duen esatera.

KEJA, keja: iz. Kexua. **Keja sartu:** *Eta joe, danak aurreko etxekuetatik danak lo eín ezinda. Eta beti keja sartze jauen.*

KEJAU: DA aditza. Kexatu, egoera mingarria adierazi, larritu. *Belaunetik kejatzen da. / Goizaldeko hirurak, eta semia azaldu be; kejauta ni.*

KEJURA, kejuria: iz. Nonbaiteko minagatik-edo sortzen zaigun kexua edo arrangura.

KERA, keria: iz. Iluntzeko kanpai-hotsa.

KERIZA, kerizia: iz. Gerizpea, itzala. *–Eguardixan onena... –Bai, keizara, keizara. **Kerizpia** eta **itzala** ere bai.*

KERIZPE, kerizpia: iz. Gerizpea. *Erañun bero haunditxua, ta abantatze nitzan, da atzera keizpera-ta. **Kerizia** eta **itzala** ere bai.*

KERTEN, kertena: izond. Zakarra. *Persona kertena zuan Inazio.*

KERTEN, kertena: bot. Landare baten zurtoina.

KIEBRA EIÑ: DU aditza. Porrot egin (negozioren batek).

KILKER, killkerra: zool. “Grillo”.

KILO, kilua: iz. Kiloa. **Hainbeste kilo izan:** Norbaiten pisua adierazteko; *pisatu* aditza baino arruntagoa: *Pixu haundixa zakan, ehun da hoge kilo zan, bil tzanian. **Killo** aldaera palatalizatua ere bai, nahiz gutxiago.*

KINKILLERO, kinkillerua: iz. Gozosaltazailea.

KINTO, kintua(k): iz. Urte berean jaiotakoak. **Kintua (kinta batekua) izan:** kinta berekoak izan. *Inazio ta ni kintuak gaittuk. / Bai, bai, bai, neru kintua da haura, bai. / Kinta bat zitzuan zarra(g)o harek. / Kinto-bazkaixa jakau domekan, Gabiñian.*

KINTZENA, kintzenia: iz. Jatorriz hamabostean behineko soldata. Geroago, asterokoa izatera pasatu zen, **kintzena** izenarekin orduan ere. Azkenik, hilabete osokoa. Gaur egun galtzear dago, **sueldua** edo **soldata** dira erabiltzen direnak.

KIÑARRA, kiñarrria: iz. Txilarra, ginarra, “brezo”.

KIPULA, kipulia: bot. Tipula. *Ointxe dator berrixa: letxuga, aza, berakatz, kipula, idar, baba berri, ba, horrek danok daude oiñ, etortzen daude. **Kipulaburua.***

KIRIKIXO, kirikixua: zool. Trikuia. Hiztun zaharrenek darabilte batez ere. Gazteagoek **trikua** darabilte. *En jeneral, guk, lehen aitxa zanak-eta kirikixua esate ziuen, baiña bixak, kirikixua eta trikua. Nik, bixetara.*

KIRU, kirua: bot. Lore horia duen landarea, otearen antzekoa.

KITTO!: interj. Gauza bati amaiera emateko erabiltzen den interjekzioa: ... **eta kitto!:** *Eta a(r)i dittuk pixkat ihartzten, eta ihartze'ianian, danak jaurtiko jaittuat, eta kitto!*

KLARO!: interj. Noski. *–Hola ikasi dozue zuek eta... –Bai, ba, klaro, guk hola ikusi dou ta, ikasi dou ta, ba holaxe. / –Guri tokau jaku ikastia, aukeria eukitzia. –Klaro, hori diperente da. Oingo*

*gaztien bizimodua eta lehenguen a dibe-
rentia da. Karo aldaera ere bai. Per-
pau osagarria ere goberna dezake:
Klaro ibiltze gerala.*

KLASE, klasia: iz. Mota. *Eztakitt ze je-
nero klase saltze zaben.*

KOIÑATA, koiñatia: iz. Ezkonarreba,
koinata. *Eta neukan kostunbria zapa-
tuan, eguerdi artian, ordubixak arte
zela eztan bazkaltzen, pixkatian behera,
koiñatana. / Gaur eztakitt etorriko dan
koiñata. Semiak, batak edo bestiak, al-
tztatzen dabe gora.*

KOIÑAU, koiñaua: iz. Ezkonanaia,
koinatua. *Koiñatua* ere bai, nahiz gu-
txiago.

KOITTAU, koittaua: izond. Gaixoa,
errukarria. Gehienbat emakumei eta
umeei esaten zaie. *Andra koittaua dok,
ba, auzoko Mari! Kuttaua* ere bai.

KOJO, kojua: izond. Herrena. *Don
Jose, zera, haura Kojua esate ziuena?
Herrena* ere bai.

KOKO JANTZI: DA aditza. Mozorro-
tu. DA aditza. *Aurten ere koko jantzi
biha gaittuk Karnabaletan.*

KOKO TXIKI EGUNA: iz. Inauterie-
tako ostirala.

KOKOTE, kokotia: iz. Lepoaren atzeko
aldea. *Baiña askotan soldauan kastigua,
illia zeruan moztu. Sartu hamen au-
rrian makiñia, ta kokotian behera, ra,
ra, ra! Kokota* ere bai batzuetan.
Kokoteraiño egon: nazkatuta egon.

KOLORERIK EZ EGON: esap. Alde
handia egon (bataren eta bestearen ar-
tean). *Gorrixak irabazi juan partidua:
etxauan kolorerikan!*

KOLPE EIÑ: DIO aditza. Heldu. **Ora-
tu** eta **heldu** ere bai. *Eta oiñ holaxe
bajatzze naiz, porsiakaso, holaxe, kolpe
eitxen, kolpe eitxen barandilliari. Bai,
eskillarako hautsok ointxe kentze'itxut
ondo.*

KOMAI DIOS!: interj. Erabakimena
adierazten du. *Komaidios oinguan nik
irabaziko dizutela partidua!*

KOMERIXA, komerixia: fig. iz. Endre-
doa, zailtasuna. *Harek zittuan kome-
rixak, gerra-denporakuak!*

KOMESTASIO, komestasiua: iz. Elka-
rriketa. **Konbestazio** ere bai.

KOMUNIO, komuniua: iz. Jaunartzea.
*Komuniua eitzeko, derrior ikesi bibe(r)
zan haura [kristau-ikasbidea]. / Gero,
elizara jun, eta komuniua hartze zaban.
Kumuniua* ere bai.

KONBESTAZIO, konbestaziua: iz.
Elkarrizketa. **Konbersazio** ere bai.
*Eta euren arteko konbestasiua ta, gure
arteko konbestasiua ta. Han jarri ma-
haixan bueltan, ekarri txanpana ma-
haira, eta, bueltan edanez, danok han-
txe eote gaittuk.*

KONBIDAUTZA, konbidautzia: iz.
Herriko (edo auzoko) jaietan senitar-
tekoei egiten zaien gonbidapena,
bazkaltzera. **Konbidautzia eiñ:** *Da
behian, han eitten dou konbidautzia,
ta holaxe eitte'ittugu ta. Konbidautzia
eo, geure ze hori, behian. Gonbirautza*
ere bai.

KONEJO, konejua: zool. Untxia.

KONFIANTZA, konfiantzia: iz.
Konfiantza. *Nik etxaukat konfiantzaik
lagun horrekin.*

KONFORMIDADE, konformidadia:

iz. Etsi ona. *Trankil bizi giñan, ederki: konformidadia zauan, zeatzik danok giñalako igualtsu, konformidadia geunkan. **Konformidadian:** konparazioan. Konformidadian, hik nik baiño hobeto irabazten dok.*

KONIFLOR, koniflora: bot. Azalorea.

Ekarriko dozu letxuga batzuk ero, porrua neguan, azia, koniflora, azalgia, eskarolia, danetik hartzen dot nik.

KONPARAZIO BATERAKO: adlag.

Adibidez. (...) Ez, konparazio baterako, ni han jaixo, baiña hazi hemen.

KONTAKATILLU, kontakatillua:

izond. Nonzerberri, zer entzun, hura kontatzen duena.

KONTESTAU: DU eta DIO aditza.

Erantzun.

KONTRA (EGON): adlag. Ondo-ondoan egon, ia elkar ikutzen. Errepikatura ere bai: **Kontra-kontra(n) egon.**

*Kontra-kontran daure alkarrekin Radio Popularra da Radio Euskadi. / Kamiñuan kontra dao gure etxia. Ikus **Pe-gante** sarrera.*

KONTRAKO EZTARRI, kontrako

eztarrixa: iz. Jaki bat eztarrian kateatzen denean esaten da kontrako ezterrira joan dela. Kontrako eztarrira jua jako ogixa, eta eztulka hasi da.

KONTRAPASE, kontrapasia: iz. Hegaztiak, negu-amaieran, iparraldera doazeneko sasoiak.

KONTRASOL, kontrasola: izond. Paraje laiotza, ospela. *Neguan leku txarra da hori: kontrasola. Hor ezta eguzkirik*

*sartzen, e! San Josiak arte, akabo! **Aiñubia** ere bai.*

KONTU, kontua: iz. Kontua. **Kontu hartu:** Kontuak eskatu. Baita **Kargu hartu** ere. **Kontu eiñ:** Adi egon, kasu egin. **Kontu jo:** Kontuan izan, kontuak atera. *Zuk kontu jo bi'ozu Elgoibarren euskeria basarritxik datorrela.*

Kontuak etara: *Gu ezkondu giñala? Etarako (d)izut kontua: jun dan astian semiak ein ditxu hogeta hamasei urte, eta...* **Kontuan hartu:** "Tener en cuenta". **-ren kontu:** "A mi cuenta, cargo". *Nere kontu gaur edarixak.*

Kontuak kontu: Esanak esan. **Kontuak etara:** Kontuak egin. **Kontuan jausi:** Konturatu. *Ni enitzan jausi kontuan, errekia bai behian, baiña gu zubixan gainian.* **Iñon kontura:** Inoren bizkar. **Iñon kontura barre eiñ:** Inoren bizkar barre egin (baita **iñoren lepotik barre eiñ** ere). **Halaxe kontuak!:** kontakizunetan erabiltzen den esapide betegarria.

KOPIN, kopiña: iz. Haur-jolastailua, panpina.

KOPLARIK EZI: interj. Ipuinik ez. **Koplekin ez etorri!:** Gezurrekin, ahobero-keriekin ez etorri!

KORDA, kordia: iz. Mordoa, mulkoa, "racimo". *Mahats-korda oso-osua jan juat. / Korda bat mahatsa erosi juat.*

KORKOBA, korkobia: iz. Konkorra.

KOROSTI, korostixa: bot. "Acebo".

KOROTZ, korotza: iz. Gorotza. **Ardi-korotza, Txakur-korotza.**

KORRIENTE, korrientia: izond. Arrunta, berezia ez dena. *Hamen gehi-*

xao korrientia izango zan entierrua, gehixao korrientia, normala. / Etara'iak txikito bat, korrientia.

KORRIKA: adlag. Lasterka. **Antxitxika** ere bai.

KORROKOI, korrokoia: zool. Itsasadarretan ibiltzen den arraina, jateko ia batere estimatzen ez dena. *Altzolaraiño sartze'ittuk oiñ korrokoiak.*

KORROSKADA, korroskadia: iz. Barruko haizeek sortutako zarataren onomatopeia. **Korrosk**-i dagokion izena. *Kriston korroskadia bota jua Coca-cola tragua edan eta gero.*

KORTA, kortia: iz. Ukuilua. **Ikuillua** ere erabiltzen da, baina askoz gutxiago. *–Eta zela bajatze ziñan? –Astuakin beti. Antxitxika zortzi txerdietako mezetara. Astua kortan laga, Majestadeko kortan astua eta... / Goizian jaikitta ere, ba, basarrixan lenengo lana kortara jutia dok. Ikus **Txarri-korta**.*

KOSTIA KOSTA: esap. Kosta ahala kosta. *Kostia kosta, lan hau amaitsu biha juau!*

KOSTUNBRE, kostunbria: iz. Ohitura. *–Azkar bai eitxe'ozu. –Beti konstunbria hoixe, azkarrerakua. Ohitturia eta ohittueria* ere bai.

KOTXE, kotxia: iz. Autoa, beribila. Ikus **Automobilla** sarrera.

KOXKORTU: DA aditza. Umeak hazi edo handitu.

KOZINA, kozinia: iz. Sukaldea. *Baita almagazetan kozinara, azukria, baki-llaua ta.*

KRABELIÑ, krabeliña: bot. Krabelina, “clavel”.

KRIADA, kriadia: iz. Neskamea. *Honek erten tzian hamazazpi urtekiñ, erten zaban kriada, e! Neskame* ere bai.

KRIATERIXA, kriaterixia: iz. Etxeko zerbitzariak. *Harek ekarri zitxuen euren kriedak, txoferra ta dana. Ta gu eote gintuan beatzu la(g)un inguru-ero kriate(r)ixia, harek jun arte.*

KRIAU, kriaau: iz. Morroia. *Ni eon nitzuan hor, Eibarren, Agiñagan eon nitzuan, kriau eon nitzuan basarri baten. Morroi/morro* ere erabiltzen da.

KRISTAU, kristaua: iz. fig. Pertsona. *Gabian soltatzen bada ere, kristaua bezelaxe, zaunka ein da abixua ematen deu horrek [txakurrak]. **Kristaurik ez egon (zerbait ingo duenik):** Baiña horrek bixok alkarri berbetan dabizenian, *eztao kristaurik entenitzekorik.**

KRISTO(RE)N: izlag. Igart. Handia, demasa. **Jesukristo(re)n** ere bai. *Eta etxera jundakuan kriston haizia eta eurixa igual. / Kristona hartu, kristonak esan... (ikus Jesukristona(k) / egundokua / demasekua / sekulakua / makalekua(-k) ... hartu, gertatu, esan...).*

KRISTO, kristua: iz. Igart. Dena delakoa. Era adierazgarrian, eta zentzu peioratiboarekin erabiltzen da; pluralen askotan. *Lenao garixa, artua, bedarra... Hainbeste lan. Gaur makiñak eitten debe bedar-lana ere. Berakiñ eitten debe parduak eo kristuak. Eta garoik eztau iñok ekartzen mendittik. / Bitorixako karakol-jatiak eta kristo guztiak eta hango gabeko kontuak eta: gauza asko ikusten dok hamen, telebisuan. /*

Gabian etorri, eta goizeko hamarrak eta erdietan gu mezetarako, eta hortxe, ipini honek diskuak ero kristuok kotxe bakoitzari, eta... bono, zoratzeko moduko zaratia.

KUADRILLA, kuadrillia: iz. Laguntaldea. *Ta, ostatua zan Barrutianekua. Da, tabernia ere bai, Estartak eta kuadrilliak egunero euron txikiteuak eta... hori zan puntorik inportantiena!*
Koadrilla ere bai.

KUARTILLO, kuartillua: iz. Litro erdia. *Kuartillo bat arda u ema'iazu.*
Kuartillo eta erdiko botillia: Hiru litro laurdeneko botila.

KUARTO, kuartua: iz. Logela.

KUI, kuixa: zool. "Conejo de indias".

KUKARATXA, kukaratzia: zool. "Cucaracha".

KUKU, kukua: zool. "Cuco". **Kukuana eiñ:** Kukuak aldi bakoitzeko kume bat hazten duenez, ume bakarra daukate nei esan ohi zaie horrelako zerbit. Ume bat daukanak esan ohi du: *Nik kukuana ein jonat.* **Kukuan markia tapau:** Kukuaren marka ondu. *Pozik habill euki duan umiakin, baiña oin-diok eztok kukuan markia tapau, e!*
Kukuak jo (norbaiti): Zorte ona izan.
Kukuak oker jo (norbaiti): Zorte txarra izan.
Kukuari begira egon: Ezer egiten ez egon.

KUKU-PRAKA, kuku-prakia: bot. Lore gorriak zintzilik dituen landarea, "digital"; sendabelar gisa ere erabiltzen da, bihotzeko gaitzetarako.

KUKURRUKU, kukurrukua: iz. Oilarraren kantua.

KUKURRUKU-EZTUL, kukurrukeztula: iz. "Tosferina".

KULIXKA, kulixkia: zool. "Chorlito".
Kulixka haundixa eta **Kulixka txikixa.**

KULUNPIXO, kulunpixua: iz. Zabua.
Ikus **Zinbili-zanbulua.**

KUMA, kumia: iz. Animalia jaiio berria. Atzizki gisa gehienetan, animalien umeak: **txakurkumia, txarrikumia, katakumak...**

KUMA, kumia: iz. Sehaska. *Pulmonixiakin zauala, ipintze zaben kumia balkoi ondora atarata. / Haura zan umia tranquilla: iluntzixan ipini ku-man, eta, emate zion andriak biberoikaria ero, eta zenbat bider lo!*

KUMUN, kumuna: iz. Komuna.

KUPEL, kupela: iz. Sagardoa gordezteko barrika handia.

KURIOSO: adlag. Poliki, astiro, kontu handiz; onargarri, ondo samar. *Kurioso eitte jok lana nere koinatuak. / Oin kurioso gaude, sasoe baten eon ginan aldian.*

KURRILLO, kurrillua: zool. "Grulla".
Baita **Grulla** ere.

KURRIN: onomat. Txerriaren hotsaren onomatopeia.

KURRIXKA, kurrixkia: iz. Txilioa. *A ze kurrixkak eitte dittuan gure ume honek!*

KURUNTZUN, kuruntzuna: bot. "Albaricoque pérsico".

KUXIDADE, kuxidadia: iz. Anabasa, nahaspila. *Hau da, kuxidadia, umia! Jaso izu behingoz zure kuartua!*

1

LABAIÑ, labaiña: izond. Irristakorra.

LABAINDU: DA aditza. Irristatu. **Irrist eiañ** ere bai.

LAGA: DU eta DIO aditza. Utzi. *Nik andriakiñ, hóknek bakarrik lagata nora jun biha juat? / Dana puntu-puntuau dauanian, botatze 'izu txingor-zaparrada bat, eta danak hondautu lagatze 'itxu. / Sarritan erabiltzen da datiboarekin: zerbaiti laga dio. Pujan, da guria pasau zanian, gure lumerrua, ba, laga ein giñon... / Harek oiañ, usten dot ofiziñari laga ein diola.*

LAGUN, laguna: 1. iz. Laguna. 2. iz. Pertsona. **Pertsona** baino jatorragoa da; pluralean normalean. *Bost laguneko famelixia, jornal bat, bi seme soldau, estu ibilliko zan. / Santa Eske egunian ertetze zian tallarrian zortzi-hamar la(g)un.*

LAGUNTASUN, laguntasuna: iz. Laguntza. *Zenbat taller jun da Elgoibartik kanpora? Hori ere penia izen da. Zeatik da hori? Fazilidaderik ez, laguntasunik ez, entenitzen dozu? / Piñuixekin gaur laguntasun haundixa jaukek basarrixan. / Bihar dabanari laguntasuna ematia haundixa da.*

LAHAR, laharra: iz. “Zarzal”, “zarzamora”. **Lar** aldaeran ere bai. *Oin biharbada eukiko deu atakia sartzeko, zea, iual larra eukiko dau. Sasi* ere erabiltzen da; zenbaitek berdintsu erabiltzen dituzte **laharra** eta **sasixa**; beste batzuek, berriz, zentzu orokorra goan darabilte **sasi** hitza: beste belar mota batzuen saila ere izan daiteke **sasixa**, **lahar-saila** izateaz gain.

LAHARDI, lahardixa: iz. Laharrez jositako tokia.

LAIÑ: Konparazio perpausak egiteko partikula; aurretik, destinatiboko edo helburuzko sintagma bat behar du: **-rako laiñ, -tzeko laiñ, -tzako laiñ**. *Eztakat negu honetarako laiñ egur. / Defenditzeko laiñ badakitt inglez. / Kotxian badakat lekua zuentzako laiñ.*

LAIÑO, laiñua: 1. iz. Hodeia. 2. iz. “Niebla”. *Laiñua sartzen hasi dok, eta argi. Behe-laiño* ere bai.

LAIXA, laixia: iz. Lurra harrotzeko erabiltzen zen baserriko tresna burdinazkoa, bi hortz zituena.

LAKA, lakia: Errota erabiltzeagatik utzi behar izaten zen zerga gisakoa, salgaie-tan ordaindua. *Haura [garia] ixo ta atzea eramate(r)ako, ba, han dirutan etxuen kobratzen, lakia esaten jakuan hari. Kendu eitten juen hainbeste pixu.*

LAKATZ, lakatza: 1. iz. Botatako zuhaitz baten adarra. 2. iz. Gaztainaren oskola.

LAN, lana: iz. Lana, enplegua. **Biharra** ere erabiltzen da, baina ez **lana** bezainbeste eta ez hau erabiltzen den tsetuinguru guztietan, soldatapeko lanetarako bakarrik erabiltzen baita **biharra** hitza. *Goizetik etxeko lanak eiañ, eta arratsaldian, “a paseo”. / Basarriko lana len zuan gogorra oingo al-dian. -LANA:* Hitz elkartu baten bigarren osagai moduan sarritan: Izena (aditza) + lana. *Gaur makiñak eitten debe bedar-lana ere. / Heldu-lana esaten jauen, eta gero ipiñi jauen “El dulce mēneo” izena heldu-lanari. / Ostian, segalana len gustatze jakun. Nahiko lan*

- izan:** *Nabiko lan izengo dok haren atzaparretatik libratzen.*
- LANAK EMAN:** esap. Estu hartu. *Lanak emate'ioz* arratoi haundi samarrak katuari. **Lan txarrak eman** ere bai. *Ez'idak lanik eman! Len jakat nahikua dakatenakin eta!*
- LANAK IZAN (zeozerk):** esap. Zerbait egitea kostatzen dela adierazteko erabili ohi da. *Lanak dittu hori sinistiak ere.*
- LANBRO,** **lanbrua:** iz. Lanbroa.
- LANDARA,** **landaria:** iz. Landarea. *Gaur igual landarak ekarriko zittuan Lorek azokara.*
- LANGIA JARRI:** esap. Muga bat ezarri, denbora-muga edo beste eraren batekoa. —*Etxera najiek.* —*Ze ba? Langia jarri dik andriak, ala?*
- LANPERNA,** **lanpernia:** bot. “Galamperna”, txapel handia duen perretxiko zuria.
- LANTZIAN:** adlag. Bakoitzean. *Ba, pizarra bat eote zan. Eta emate ziuzen, ba, lantzian bateri, ba matematikak ipini han da, aber zela ataratze genduzen. Da bestiak iuel atzian behira zao-nak esate zaban:...*
- LANTZIAN BEHIÑ:** adlag. Noizean behin. *Osasunian, txarra daukatenik ezin leike esan, jateko gogo ona ta. Lantzian behiñ eukitze'itxut neure keja-xuak, ezta, e!*
- LAPIKO,** **lapikua:** iz. Lapikoa, eltzea.
- LAPRAST EIÑ:** DU aditza. Irrist egin.
- LAPURRETAN EIÑ:** DU aditza. Lapurtu. Baita **Ostu** eta **Harrapau** ere.
- LARANJA,** **laranja:** bot. Laranja, fruitua eta arbola.
- LARRABEHI,** **larrabehixa:** iz. Mendian ibiltzen den behi izua, betizua.
- LARRAIÑ,** **larraiña:** iz. Baserriaren kontra zegoen laugunea, garia jotzeko erabiltzen zena, “era”.
- LARRE,** **larria:** Larrea. **Larrian ibili.** *Larrian dabiz gaur behixak. Larre motzian ohitu:* Gutxiarekin bizi izaten ohitu. *Hori gaztetan larre motzian ohituta daok, eta langille fiña dok!*
- LARREGI:** zenbtz. Gehiegi. Askoz ere gehiagotan erabiltzen da **gehixegi**.
- LARRI EGON:** adlag. Kezkatsu. *Etxian larri, ze pasatzen ete jakun. Larri ibili:* aurretik esan dena berresteko erabiltzen da. —*Badator ekaitza! —Bai, larri ibili!*
- LARRI IBILI (egon):** Osasunez ondo ez ibili, ondoezik edo gaixo egon.
- LARROSA,** **larrosia:** bot. Arroza.
- LASTER:** adlag. Laster. **Aurki** ere bai.
- LATIA EMAN:** Kalaka eman. *Zortzi-txerdiak arte hementxe latia ematen honi egunero.*
- LATOSA,** **latosia:** izond. Gogaikarria (emak.).
- LATOSO,** **latosua:** izond. Gogaikarria (gizon.).
- LATZ,** **latza:** izond. Oso gogorra. *Latza, latza, gerra-denporia!*
- LAU,** **laua:** 1. iz. Laugunea. **Lau(g)una** ere bai. *Lau(g)une politta zauan Albitxurin, eta tallarrak jarri dittue. Zabal-*

dua ere erabiltzen da. **2.** izond. Laua, berdina, “llano”.

LAZTAN, laztana: **1.** iz. Musua, laztana. *Txakur txiki bat zaukan, Maria Perlita: “Maria Perlita, etorri hari hona”, eta ipintze zaban mantalian eta, “emaiak laztana”, eta eman. “Kotxino!”*, esate giñon danak. **Laztan eman:** musu eman. **2.** iz. Maitea, laztana, bokati-boetan normalean. *Etorri, laztana, nerekin, erregiña baiño hobeto eukiko zaïttut eta.*

LE(HE)N BAIÑO LE(HE)N: adlag. Lehenbailehen. *Holaxe da ta, Jaungoikuak... gainera gaixua ta zeoze etortze danian, len baiño len eruan deigula. / Errosaixo aurretik eskatze’iot [Amabirjinari] intenimenduko argixa ta bistako argixakin laguntzeko. Da horra dixezen bezela, len baiño len heriotzaren batekiñ eruateko.*

LENGUSU TXIKI, lengusu txikixa: iz.. “Primo/-a segundo/-a”. Berdin **lengusiñ**-ekin ere.

LEGE, legia: iz. Hitz elkartuen bigarren osagaia; jatorduekin batez ere erabiltzen dena. **Afari legia eñ.** *Afari legia ein juau soziedadian.* Bestelako osagaiekin ere bai: *Bai, da... saniau legia einda bialdu juek etxera, ta... eun da erdi barruan han tzan estu.*

LEGEN, legena: iz. Azalean ateratzen den orbana, “sarpullido”.

LEIKENA IZAN: DA aditza. Posible izan. **Littekeena izan** ere bai. *Leikena da aurtan oportetara Greziara juatia.*

LEKUTAN EGON!: interj. Urruti egon, espazioan eta denboran. Enfatikoa. *Lekutan jaok agostua! Ahiztu juat*

ya! / Eske, pentsau, Melillaraiño jun ein biha da, e! Lekutan dao haura!

LEON-KASTILLO BOTA: Txanpon bat bota, zozketa egiteko. **Kara-i-kruz bota** erabiltzen da gehiago, gaur egun behintzat.

LEPAMOTZ, lepamotza: izond. Lepo motza eta lodia duen pertsona.

LEPAOKER, lepaokerra: izond. pei. Lepoa okerra duenari esan ohi zaio.

LEPO, lepua: iz. Lepoa. **Lehengo lepotik burua (izan):** aldatu ez denari esaten zaio, berdin segitzen duenari. **Lepo(raiño) bete:** erabat bete lekuren bat. *Lepo bete zuan gure tabernia Urtezar egunian.* **Lepua eñ:** Apostu egin. *Lepua eingo neuke baietz Realak irabazi.* Lepoa hitza erabili gabe ere bai: **Eingo neuke...**

LETU: DU aditza. Irakurri. *Eta gero, ba, letu, kopixau zeratikan, liburutikan.* Maixuak esate ziun, eta kopiau guk. **Irakurri** aditza ikasiek bakarrik darabilte.

LETXUBA, letxubia: bot. Uhaza.

LIBERDI, liberdixa: iz. Kilo laurdena, gutxi gorabehera.

LIBERTADE, libertadia: iz. Askatasuna, libertatea. *Jolasak pixkat eñ ein bihar gaztiak. Gaztiak derrior ein bihar, baiña libertade asko ez, e! / Etzauan besterik, eta pozik. Libertadia harrapatzen bagendun juteko, ba, pozik.*

LIBRA, libria: iz. “Libra”, kilo erdi, gutxi gorabehera.

LIBRE HARRAPAU: Libre egokitu. *Libre harrapatzen bagendun (...) gero jo-*

lasian eitzeke hemen, gauza bat edarra geunkan: errekia.

LIBURU, liburua: iz. Liburu. **Librua** ere bai. *Libro bat, eta harekin eskribidu hola: "Amado, bonito, canto, chopín..." ipintze juan.*

LIKIÑ, likiña: izond. Likatsua. *Ze liki-ñā dauan mahaixa! Bai ba, arrautzia apurtu jata eta!*

LISTA(R)I, lista(r)ixa: iz. Soka baino meheagoa den lokarria.

LITXARRERA, litxarrerria: izond. Gozozalea (emak.).

LITXARRERIXA, litxarrerixia: iz. Premiarik gabe jaten diren gauza gozoak.

LITXARRERO, litxarrerua: izond. Gozozalea (giz.).

LIXIBIA EIÑ: DU aditza. Arropagarbitzea egin.

LIZAR, lizarra: bot. "Fresno".

LO HARTU: DIO aditza. Gorputz-atalez ari garenean ere erabiltzen da. *Lo hartu ditt hankiak, eta eziñ ibilixan nao.* **Lokartu** ere bai.

LOKARTU: DA aditza. Loak hartu.

LOKATZA, lokatzia: iz. Lokatza. **Basia** ere bai.

LOKUMUXU, lokumuxua: iz. Lokuluxka, loaldi labur eta arina. *Bazkalosteko lokumuxua einda, atsaldia primeran pasatze juat.*

LO-LO EIÑ: haur. Lo egin.

LORA, loria: iz. Lorea. **Apirilleko loria, urria baiño hobia.**

LORAILL, loraila: iz. Maiatza. Lehen erabiltzen zen hitz hau; gaur egun, **Maietza** da adinekoek darabiltena.

LORAN EGON: DA aditza. Landare batek loreak atera. **Loratu** ere bai.

LORATU: DA aditza. Landare batek loreak bota.

LORITO, loritua: zool. "Loro". *Hil dok Ego-toki soziedadeko loritua, Anbolo izenekua.*

LUAZI, luazixa: iz. Luizia, lurjauzia. **Lubizixa** ere bai.

LUMA, lumia: iz. "Pluma".

LUMATU: DU aditza. Hegazti bati lumak kendu.

LUMERO, lumerua: iz. Zenbakia. *Pujan, da guria pasau zanian, gure lumerua, ba, laga ein giñon... / Oiñ [urteak betetzean], lumero dipeentia lasteta, ja, ja, ja!* Zenbakiak, urteei eta adinari dagozkionak batez ere, gaztelaniazko forman emateko joera handia dute adineko hiltunek.

LUPU, lupua: iz. Igart. Birao gisa erabiltzen den hitza. *Lupua baiño txarrau dok.*

LUR-HUNTZ, lur-huntza: bot. Lurrean hazten den huntz mota.

LUTXAU: DU aditza. Borroka egin. *Trukian eiñ, eta, gainera, hogeta bost zentimo hórrekiñ, e! Eta zela lutzau! Ja, ja... Arratsalde guztia.*

LUZE, luzia: izond. Neurriak adierazteko arruntagoa da **luzean x metro izan**, *neurtu* aditza baino. *Bai. Presiak daukaz ehun da hogeta hiru metro altu-*

ran. Eta luzian, harek eukiko deu luzian
Elgoibarko estaziotikan horraiño bai,
mendiraiño bai, luzian.

LUZEETSITTA EGON: Luzea edo lu-
zeegia iruditu zerbait (egonaldi bat,
itxaronaldi bat...).

m

MAALA: leku-izena. Elgoibarko auzo
bat, herriaren behealdean dagoena.
Madala ere idatzi izan da, baina ahos-
kera beti izan da bokalarteko horzkarik-
rik gabea.

MAALATAR, maalatarrak: Maala al-
dean bizi den jendea. *Gazteterixia,*
dana han, zera, estankua badao, ba? Ba,
orduan geunkan luzia lekua. Eta bi ma-
hai haundi-haundixak zauren, eta han
eote zian mutil gaztiak, maalatarrak. /
Eta maalatarrak eta plazatarrak beti
burrukan, eta beti maalatarrak irabazi.

MAASMA, maasmia: zool. Armiarma.
Armiarria ere bai. **Maasma-saria** ere
erabiltzen da **armiarria-saria** eta
amarauna-rekin batera.

MADALENAK: Maala auzoko eta Mu-
trikuko festak (uztailaren 22a).

MADARI, madarixa: bot. Udarea. **Ma-**
raixa aldaera ere bai.

MADUIÑ, maduña: iz. Goizeko
kanpai-hotsa.

MAGAL, magala: iz. Mendiaren hegala,
mazela.

MAHASPASA, mahaspasia: bot. “Uva
pasa”.

MAHATS, mahatsa: bot. “Uva”. **Mahats-**
kordia: Mahats-mordoa. **Mahats-**
alia: “Grano de uva”.

MAIETZ, maietza: iz. Maiatza. *Maie-*
tzian, beruak aguantau ezinda.

MAILLA, maillia: iz. Eskailerak, eskai-
lera-mailak. **Eskillara** ere bai. *Ointxe*
hainbestian: konforme nao ni. Oiñ, hori
bai, operaziua naukan egun haretan;
jausi nitzan portalian... mailla bat, az-
kenengo zera, palta, eta eztot, ba, haura
huts eiñ! Jun nitzan portalian baztarre-
raiño, eta bum!

MAILLATU: DA aditza. Maspildu.
Lurrera jausi, eta sagar guztiak maillatu
jataz.

MAILLUKI, maillukixa: iz. Marrubia.

MAIÑAK EIÑ: haur. Negar egin; batez
ere gezurretako negarra denean.

MAIÑOSO, maiñosua: haur. (Umea)
negar egiteko joera handia duena.

MAIORAZKO, maiorazkua: Baserrie-
tan, oinordekoa. *Gu anai-arrebak han*
jaixo giñan, basarrixan. Eta gero, maio-
razkua ezkondu zanian, gu kalera baja-
tu giñan, Kamiñerokora.

MAISTRA, maistria: iz. Andereñoa.
Euskeraz ezin eiñ, eta erderaz jakiñ ez:
harek komerixak! Eta euskeraz entzuten
bahixan maistriak, erun aurrera, eta be-
launiko. Adinekoek ez darabilte ande-
reño hitz berriagoa.

MAITTE-MAITTE EIÑ: haur. Fereka-
tu. **Maittia-maittia eiñ** ere bai.

MAIXU, maixua: iz. Maisua. *Arra-*
tsaldian, Madarixan hasiko zuan bostak
inguruan. Eta pixkat illuntzen haste za-

nian, *maixua* tilin-tilin, tilin-tilin kanpaia jotzen. *Eta aide danak etxera!* Adinekoek ez darabilte berriagoa dugun **irakasle** hitza.

MAJADERO, majaderua: izond. Kirte-na. *Rantxerua zan, da ezer ez [jakin bark], medikua ere etzan da: majadero bat!* Adarra jotze aldera esan tzi(d)an laster hilko nitzala.

MAJO!: interj. Ondo, ondotox. Interjekzio moduan askotan: *Majo bizi haiz, gero, e!* / *Majo dabil gizona, andrian kontura!*

MAKAKORRO, makakorrua: iz. Ganaduaren orro izutia, larria.

MAKAL, makala: izond. Pertsona ahula, motela.

MAKAL, makala: bot. “Chopo”. **Txopua** ere bai.

MAKALA EZ IZAN (meritua)!: esap. Meritua duen zerbaiti buruz esan ohi da, era enfatikoan. *Eztaukan meritua makala hire edadiakin [gidatzeko] karneta etarata!* **Ez haiz makala!**

MAKALEKO, makalekua: izond. Igart. Handia, demasa. *Hortxe aska-aurrian eon giñan. Eon zan Gelatxo soiñuakiñ. Makaleko juergia!* **Makalekua hartu, gertau, esan...** (ikus egundokua / demasekua / sekulakua / kristona/-k).

MAKAR, makarra: iz. “Legaña”.

MAKATZ, makatza: bot. Sustraitik berez irtendako landarea, normalean fruitak ematen dituena. “Silvestre”. **Madari makatza, Sagar makatza.**

MAKETO, maketua: izond. pei. Euskaraz mintzatzen ez denari esan izan

zaio, zentzu gaitzesgarrian. *Haren aitta traperua ei zuan, ta hari esaten jauen Makario. Maketua izan biha(r) juan harek. Belarrimotxa* ere bai.

MAKILLA-SALDA, makilla-saldia: iz. Jipoia. **Makilla-saldia eman:** Egurtua eman. *Makilla-saldia eman jauen mutillari.*

MAKIÑA BAT: zenbtx. Era adierazgarrian erabiltzen da askotan. **Majiña bat, Majiñat** ere ahoskatzen da. “Bar Puri”, *ointxe akordatze jat, majiña bat soldau jute zana. / Ene! Makiña bat txorimalo-useiñ hartu jok makiñiak!* **-txo** atzizki txikigarriarekin ere bai: *makiñatxo bat urte pasau dittuk!*

MAKULU, makulua: iz. Makulua, euskarria.

MALAPARTAU, malapartaua: Suerte txarreko pertsona, gauzak aldrebes irteten zaizkiona.

MALBA, malbia: bot. “Malva”. Sendabelar gisa erabiltzen da. **Malba-bedar** ere erabiltzen da.

MALDIZIO, maldizua: iz. Madarika-zioa, biraoa. *Geiztua edo, maldizua ero. Han ikisitta, gizonetzkuak, halaxe jan, eta halaxe ikisi harek.*

MALLAU: DA aditza. Kolpatu. *Kontuz sagarrekin, mallau eingo jatzuz eta.*

MAMIÑ, mamiña: iz. Mamia. *Ogixan mamiña gustatze'ako asko gure umiari.*

MAMORRO, mamorrua: zool. Zomorroa, “insecto, bicho, gusano”. **Mamorrua** aldaera ere bai. **Patata-mamorrua.**

MANDO, mandua: iz. “Mulo, mula”.

- MANEJAU:** 1. DU aditza. Lapurtu. 2. DA aditza. Konpondu. **Konpondu** eta **moldau** ere bai. 3. DU aditza. Gidatu. Ez, manejau neikian ero, eztaikitx artietan karneta eukiko naban.
- MANTAL, mantala:** iz. Altzoa, magala. Umia mantalian eukitzia gustatze jakok.
- MANTSO, mantsua:** izond. Ganadu otzana. Ikus **Otzan** sarrera.
- MANTTO, manttua:** izond. Pertsona beso-motza. Eskumanttua zuan bera, dok bera. Hola, esku bat erretakua ero, gaztetan ero, manttua, ta ezkerakin jaukan reglia. **Eskumanttua** eta **Besamotxa** ere bai.
- MARDUL, mardula:** Pertsona sendoa. –Hor jun dana, andrian ama... terriblia! –Bai, lodixa eote zan. Mardula zan.
- MARI-:** Nesken izenondo gaitzesgarrien aurrizkia: **Marimandona**, **Marimuttill**, **Marimatraka** eta abar.
- MARIGORRI, marigorrixa:** zool. Amona mantangorria.
- MARIMATRAKA, marimatrakia:** izond. Emakume edo neska sorgina, bihurria.
- MARIO, mariaua:** iz. Zorabioa. Mariuak itxe zitzakozen [pisuz] bajatze zanian. **Nobedadia eiñ** ere bai.
- MARKIA EIÑ:** DU aditza. Lehia edo jokoren batean, errekorra egin. *Eta geo Urrategik jokatu biha(r) juan gure markia eittera. Da etxuan erten harek.*
- MARKIA IZAN!:** interj. Ezustekoa edo harridura adierazteko erabiltzen da.
- Hau dok markia, hau:** Hau bai ona! Hau duk ona! *Hau dok, hau, markia! Dirua euki eta gatastzeko astirik ez!*
- MARKIÑAR, markiñarra:** izond. Marikina-Xemeingo herritarra.
- MARMARRIAN JARDUN:** DU aditza. Marmar eginez jardun. *Ezta jendiak marmarrian jarduteko motiborik eman bihar.*
- MARRASKILLO, marraskillua:** zool. “Caracol”. Ikus **Karakol**.
- MARRUSA, marrusia:** iz. Ganaduaren orroa, “mugido”. **Marruska** ere bai. *Behixak marruska daude, eta goberna*’izuz.
- MARTI, martixa:** iz. Martxoa. Adin handiko hitzunek bakarrik darabilte. Besteek, **Martzua**.
- MARTINGALA, martingalia:** iz. zah. Trikimailua. *Ze martingala asmatzen a(r)i haiz soldautzatik libratzeko?*
- MARTIÑ ARRANTZALE, martiñ arrantzalia:** zool. “Martín pescador”.
- MARTITZEN, martitzena:** iz. Asteartea. *Martitzenak astelenak baiño tris-tiauk begittantze jataz, ba.*
- MARTXA EIÑ:** DU aditza. Alde egin. *Alemanak eo ezta kitt zian. Baiña harek iual, gau baten etorri, apaldu, lo eiñ, da hurrengo eunian, martxa.*
- MARTZO, martzua:** iz. Martxoa. *Ni akordatze naiz ni txikixa ta, ze bero martzuan... uuu! / Berrogeta hamasei, martzuan. **Martzua** ere entzuten da, nahiz gutxixeago adinekoen jardunean. Ikus **Martixa** sarrera.*

- MASKAL**, **maskala**: izond. Makala, ahula. *Zahartu ein gera, eta maskalauak gaure, maskalauak!*
- MASKALDU**: DA aditza. Indarra edo adorea galdu (pertsonak), ihartu, lehortu, ahuldu (landareak).
- MASPILDU**: DA aditza. “Magullarse, aplastarse”. Frutak, tomateak... maspiltzen dira.
- MASUSTA**, **masustia**: bot. “Mora”.
- MATRAILL**, **matrailla**: iz. Masaila.
- MATRAILLEKO**, **matraillekoa**: iz. Masailekoa, belarrondokoa. *Eta, bestela, zapata zikiñekin pormauta iual da, garbitzera atzera kuartelera bialtze zixen. Eta igual takatekoren bat, gaiñera, matraillekoren bat igual.*
- MATRAKA**, **matrakia**: izond. Neska bihurria. *Hau da neska matrakia daukazuena!*
- MATXISALTO**, **matxisaltua**: zool. “Saltamontes”.
- MAIORIXA**, **maiorixia**: iz. Gehiengoa. *Baiña mayoixia San Mielen izan gendun [erromeriak].*
- MEHE**, **mehia**: izond. Mehea, pertsona argala. **Iharra (iherra)** eta **Flakua** ere bai.
- MEKATXIS!**: interj. Birao eufemistikoa. **Mekatxis la mar!** Umeekin-eta erabiltzen da.
- MEKAUEN!**: interj. arrunk. Biraoa. **Mekaben** aldaera ere bai. **Mekatxis** baino maldizio gogorragoa. **Mekauen la letxe!** **Mekauen zotz!** **Mekauen diez!**
- MELA-MELA EIÑ**: DA aditza. Busti. *Mela-mela einda alleau nok etxera. Ikus **Blai eiñ** sarrera.*
- MENDAROAR**, **mendaroarra**: izond. Mendaroko herritarra. Hango auzotarrek ere hartzen dute -(T)AR atzizkia: *azpillutar (azpilgoetar), plazatar, garagartzar.*
- MENDEBAL**, **mendebala**: iz. Mendebaletik jotzen duen haizea, oso hezea. *Mendebala sartzen danian, Plaza guztia bustitta eoten da.*
- MENDIAN HARTU**: DU aditza. Mendean hartu, norbait beste bati nagusitu.
- MENDI-BUELTA**, **mendi-bueltia**: iz. Mendi-itzulua.
- MENDI-OILLO**, **mendi-oillua**: zool. Basoiloa, “Sisón”.
- MENDI-PUNTA**, **mendi-puntia**: iz. Mendiaren gailurra. **Mendi-tontorra** ere bai.
- MENDI-SAILL**, **mendi-sailla**: iz. Mendiko lursaila. *Gure aitta granuja galanta zuan, mendi-saill horrek pasauta neskatara Elosura juteko.*
- MENDI-TONTOR**, **mendi-tontorra**: iz. Mendiaren gailurra. **Mendi-puntia** ere bai.
- MERIXENDAU**: DU aditza. Askaldu, meriendatu.
- MESANOTXE**, **mesanotxia**: iz. Gau-mahaia. *Ekarri'zu erretratua, zeuek eta neu nauana, hantxe dao, mesanotxe gaiñian dao, haura erretratu txikixa.*
- MESEDE EIÑ**: DIO aditza. On egin. *Ez eman gehixao, eztitt mesede eitxen da.*

- META, metia:** iz. Gariarekin egiten den zuhatza. Ikus **Gardatza** eta **Zuhatza** sarrerak. Era nahasian ere erabili izan dira, beharbada kalean, belarrarekin egiten denari ere **meta** esanez: *Tiruak batetikan da bestetikan, da gu jarri han, zea, hau bedarran metia, bedarran meta ostian jarritxa...* Gari-azaoekin egiten den meta txikiari **Mutturra** esaten zaio.
- MIELO, mielua:** bot. “Hinojo”.
- MIEZTU:** DU aditza. Miazkatu, mi-likatu, mihiarekin igurtzi.
- MIKA, mikia:** zool. “Urraca”.
- MIMOSA, mimosia:** bot. “Mimosa”, akazia mota bat, lore horiak ematen dituena.
- MINBERAUTA EUKI:** DU aditza. Mínduta eduki gorputzaren parte bat.
- MINBERIA IZAN:** DA aditza. Mingarria izan. *Minberia izaten dok belarriko miña.*
- MINGAIÑ, mingaiña:** iz. Mihia.
- MINGOR, mingorra:** zool. Istingorra, “becacín”.
- MIRU, mirua:** zool. “Milano”, hegazti harraparia.
- MITXILIKOTE, mitxilikotia:** zool. Tximeleta.
- MIXI:** haur. Katua.
- MIZKIÑ, mizkiña:** Gutxi eta ondo aukeratutakoa jaten duena. **Mixkiñ** ere bai.
- MIZPIRA, mizpiria:** bot. “Níspero”.
- MODIFIKAZIO, modifikaziua:** iz. Al-daketa. Gutxi erabilia. *Ni autobusian gustora joaten naiz, e! Bazterrerri beitzu, eta aber modifikaziorik eon dan, edo bestia edo...*
- MODU ONIAN:** adlag. Prezio onean. *Modu onian konsegidu zaban autua.*
- MODUAN:** Konparazioak bideratzeko postposizioa. **Bezela** ere erabiltzen da, beharbada gutxixeago. *Oiñ, gertatze jat, eta nere moduan beste gehixori entzutzetue. / Holako lokatzia eote zuan. Oiñ eztok ezer... zapatakiñ ibiltzeko moduan daude bidiak.* Gutxieslea ere izan daiteke honen erabilera bat: *kotxe moduko bat ekarri jok.*
- MOKAU, mokaua:** iz. Mokadua. *Laga lanari, eta etorri hona mokau bat jatera.*
- MOKOR, mokorra:** Aldaka. **Kaderia** ere bai.
- MOLDAU:** Da aditza. Konpondu. *Pixkat bixkorraua [bizketa], dipe(r)entia. Baiña moldatze zara asko, e!*
- MOLTZO, moltzua:** 1. iz. Multzoa. **Moltzokada.** 2. iz. Sukaldeko harraskan erabiltzen den trapu bustia.
- MONAGILLO, monagillua:** iz. “Monaguillo”. **Akolittua** ere erabiltzen da.
- MORDO, mordua:** zenbtz. Asko. *Hola basarriko jente mordo bat, edadetua gehixena, izaten da [Arraten, San Isidro egunean]. / Eta oiñ hamar orduan hortxe-hortxe juten da autobusa. Baiña, hala ere, ordu mordua dao.*
- MORDOZKA, mordozkia:** zenbtz. Asko samar. –*Guk ere tabernako erropa danak horraxe eitxe genduzen. –Mordoz-*

- ka bat erropa izango zian, ba. –Asko.*
Mordoxka ere bai.
- MOROKILL, morokilla:** iz. Artairinez eta esnez egiten zen jakia, ahi modukoa.
- MORROI, morroia:** iz. Baserriko zerbitzaria. **Morroe** ere bai. *Bata morroe eta bestia soldau jun zian etxetik.*
- MOZOLO, mozolua:** 1. zool. “Mochuelo común”. **Mozolo haundixa** eta **Mozolo txikixa**. 2. izond. **Mozolo/-a, mozolua/-ia.** Gizon edo emakume zozoa, ergela, adimen gutxikoa, “lelo, -a”.
- MOTELL(AK)!:** interj. Mutill, balio bokatiboa duena. *Motellak! Hori dok ganoria, hori!* Ikus **Mutillak!** sarrera.
- MOTXAILLA, motxaillia:** iz. Ijitoa. **Ijittua** ere erabiltzen da.
- MOTZ, motza:** 1. izond. Laburra. 2. izond. Adimen urri samarreko pertsona. *Oso motza dok hori neskiari. Etxok ezer entenitzen.*
- MOXAL, moxala:** zool. Behorkumea, zaldikumea.
- MUGARRI, mugarrixa:** iz. “Mojón”.
- MU(G)ITTA, mu(g)ittia:** bot. Belar mota bat, zelaian hazten den arruntena.
- MUSIKERO, musikerua:** iz. Musikaria.
- MUSKAR, muskarra:** zool. “Lagarto”.
- MUSLARI, muslarixa:** iz. Mus jokalaria.
- MUSU, musua:** iz. Sudurra.
- MUTIKO, mutikua:** iz. Gutxi gorabehera, hamahiru urte inguruko mutila.
- MUTILKOSKOR, mutilkoskorra:** iz. Gutxi gorabehera, zortzi-hamahiru urte bitarteko mutikoa. *Eta hónek ere, ba, artian mutilkoskorrak zian. / Bueno, mutilkoskorretan, sartuta han. Jute giñan mina-zulora; linterniakin jun, eta hauraxe ikustera. Mutilkoskor* ere bai.
- MUTILLETAN EIÑ:** Igart. Mutiletan atera, joan.
- MUTILLAK!:** interj. Harridura adierazteko erabiltzen da. *Mutillak! Hori da patxadia daukazuena! / Mutillak! Zetan zabizie? / Mutillak! Esan eta esan, eta ezin asmau zuekiñ! Motellak!* ere bai.
- MUTILZA(HA)R, mutilza(ha)rra:** iz. Gizon ezkongabea. Mesperezuzko zentzua izan ohi dute bai *mutilzahar*-ek eta bai *neskazahar*-ek. **Solterua** ere erabiltzen dira, erabilera neutroagoan.
- MUTILZA(HA)RTU:** DA aditza. Mutilzahar bihurtu. *Ezkondue? Nik hogeta hamar urte eta horrek hogeta lautik bostera ero hola. Ni, mutilzartuta.*
- MUTRIKUAR, mutrikuarra:** izond. Mutrikuko herritarra.
- MUTUR, muturra:** 1. iz. pei. Aurpegia. *Mutur txarrakin dator gaur maistria. Muturrez aurrera (jausi):* Ahuspez erori. 2. iz. Punta. *Txorizo-mutur bat jan biba juau, gosetu nok eta. / Zubimuturrian azaldu zuan, lasai asko.*
- MUTTUR, mutturra:** iz. Gari-azaoekin egindako meta txikia. Ikus **Meta** sarrera.
- MUTXIKIÑ, mutxikiña:** iz. Frutaren erdiko gunea, jan eta gero geratzen den hondakina. Frutena batez ere (**sagar-mutxikiña**), baina bestelakoak ere izan daitezke: **zigarro-mutxikiña**.

n

- NABARMEN, nabarmena:** izond. Agerikoa, begi-bistakoa. *Nabarmena dok hire maittasuna. Nabarmen geratu:* Agerian geratu, lotsagarri geratu. *Nabarmen geratuko* haiz gehixegi edaten badok.
- NABO, nabua:** iz. Arbia. *Da ze lantze zenduen zuek basarrixan, babia ta hartuaz aparte? -Nabua ere bai. Arbixa* ere erabiltzen da, nahiz gutxiago.
- NAHASTE-BORRASTE, nahaste-borristia:** iz. Nahaspila. Elgoibarren jokatzeko den triatloi-lehiaketa herrikoi baten izena ere bada.
- NAHASTU, nahastua:** iz. Haize mota bat, oraintxe batetik eta gero bestetik jotzen duena.
- NAHI IZAN:** DU aditza. Nahi izan. **Nahi izan:** Elgoibarren ez da **Gura (izan)** erabiltzen, eratorpen-atzizki moduan ez bada (*logura, negargura...*).
- NAHIGABE, nahigabia:** iz. Atsekabea. **Nahigabia eman:** Doluminak eman.
- NAHIKO LAN (euki/izan):** “*Ez’ik pauso bat gehixo eman, zeatik eze behe-raino etorritxa dauaz tankiak italianuak eta. Libratzen bahaiz, nahiko lan izango (d)ok.*”
- NAHIKUA (izan/euki):** DU aditza. Gehiago behar ez. Soziatiboko sintagma batekin erabiltzen da. *Nahikua jaukak horrek beriakin, eta laga’ik bakan!*
- NAHIKUA:** zenbtz. Nahikoa. *Nahikua gizur esan dok gaur, eta eon hari ixilik!*
- NAHITTANAHIEZ:** adlag. Nahitaez, derrigorrez. **Derrior** ere erabiltzen da. *Bixarko amaittu bi’ot lan hau, nahitta-nahiez.*
- NAHIZ:** junt. Emendiozko juntagailua: banakaritza adierazteko korrelazioa: **nahiz... nahiz...**
- NAHIZ:** lok. Kontzesio-perpauetako lokailua. **Nahiz ta, nahiz eta, nahiz da** ere bai. Aditz-partizipioarekin osatzen da mendeko perpausa normalean: *nahiz (eta) ...-tu. Zeatik eze handitxik pasau biha genduan, nahiz da ezkiñaren batetik edo bonbak botatzen jardun.*
- NAPARRERIXA, naparrerixia:** iz. “Viruela”.
- NARRAS, narrasa:** 1. izond. Jantzkeran, behar lukeen txukuntasuna ez duena. 2. izond. Eguraldiari dagokionez, itsusia, txarra.
- NARRASTU:** DA aditza. Narras bihurtu. *Zihero narrastuta dao aspaldixan Inazio.*
- NARRU, narrua:** iz. Larrua. **Narrutik ordaindu:** Oso garesti ordaindu. *Narrutik ordainduko dok atrebentzixa hori! Narrua jo:* Maitasuna egin. Ikus **Txortan eñ** sarrera.
- NARRUAK TAPAU:** fig. Jantzi. *Len, hamabi ume-ta. Eztakitt zela narruak tapatze zitxuen!*
- NARRUTU:** 1. DU aditza. Hildako animalia bati larrua kendu, larrutu. 2. fig. “poner verde a alguien”. *Mikel narrutu biha juau oiñ, jun dok etxera eta.*
- NASAI:** 1. adlag. Zabal. *Nasaitxo daukadaz praka honek. | Torlojua nasai dao.* 2. adlag. Lasai. *Bai, nasai nao, baiña*

eztozue jaten, da esan ein bihar... **Trankill** erabiltzen da gaur egun gehiago. Eratorriak ere bai: **Nasaittu, Nasaittasuna...** Horrek ere nasaittasuna emate jok pixkat. **Lasai** ere erabiltzen da, bi erabileretan.

NASAITTASUN, nasaittasuna: iz. Lasaitasuna. Horrek ere nasaittasuna emate jok pixkat.

NATIBITTATE EGUNA: iz. Abenduaren 25a, Natibitxate eguna, eta "Prime-ro de mayo" bakarrik eitze zian jai. **Natibittate ase ta bete; San Estebantxo, lehen bezela lantxo (lehen eratxo):** Natibittate eguna, janariz eta edariz lepo betetzekoa, ondo bidean; hurrengo eguna, ordea, San Esteban eguna, normaltasunera (eta lanera) itzultzekoa zen.

NATURAL, naturala: izond. Berezkoa, osoa. **Naturala ez izan (nor-bait):** Hori eztok pertsona naturala, eta hobe bakian lagatzia! **Osua, ziherokua** ere bai.

NAZKAGARRI, nazkagarria: izond. Nazka edo higuina ematen duen gauza edo pertsona. **Nazkante** eta **Higuingarri** ere bai.

NAZKANTE, nazkantia: izond. Nazka ematen duen pertsona, pertsona arbuigarria. **Nazkagarri** eta **Higuingarri** ere bai.

NEGARGARRI, negargarria: izond. Negargarria, penagarria.

NEKATU: DA aditza. Nekatu. *Da len lau ero bost ordu eitte zittuan lanak, oiñ horrekin makiñiak, ordubetian eitten dok. Da nekatu be eitten dok.* **Kantsau** ere erabiltzen da.

NEKA-NEKA EIÑ: DA aditza. Asko nekatu, akitu. *Neka-neka e(g)inda allegau zuan etxera, egun guztia autuan pasau eta gero.*

NEKEZ, nekeza: izond. Zaila. *Nekeza izan dok hik bialdutako lana.*

NEKEZ: adlag. Kostata. *Nekez topauko dozue hori bezelako neskarik.*

NEKOSO, nekosua: izond. Neketsua. *–Pentsa ik zenbat lan! –Bai, asko. –Eta horregatik zuan nekosua. I Soñujolia beti bera lanian: lan nekosua da soñua, e!*

NESKA, neskia: iz. Neska. **Neska txikixak:** prostitutak. *Neska txikixetara juatia gustatze jako Joxeri.*

NESKATAN EIÑ: Igart. Neskatan atera, joan.

NESKAKOSKOR, neskakoskorra: iz. Gutxi gorabehera, zortzi-hamahiru urte bitarteko neskatala. *Eta han neskakoskor eta mutilkoskor kuadrillia eote zuan, eta hárekin pelotan.*

NESKAME, neskamia: iz. Emakumezko zerbitzaria, batez ere etxeko lanak egiten dituen. *Zertu [ezkondu] baiño lenao ezautzen naban, neskame zauan hau, baiñuetxian, zeatik eze eguenetan etortze zan baiñuetxeko etxeoandriakin.* **Kriada** ere bai.

NESKAMOTZ, neskamotza: iz. Gorputz ederreko neska. *Hau dok neskamotza, hau!*

NESKAZA(HA)R, neskaza(ha)rra: iz. Emakume ezkongabea. Mesperezuko zentzua izan ohi du. **Solteria** ere erabiltzen dira, erabilera neutrogoan.

NESKAZA(HA)RTU: DA aditza. Nes-
kazahar bihurtu.

NEURE ARTIAN (jardun/esan...):
adlag. Neurekiko, neure baitan. *Ni(k)
pai hori esan, eta esan najuan gero neure
artian: “Mekauen! Bi bider esan dixat,
bainā gehixao eztixat esango”.*

NEURE EXKAXIAN: Ikus **Exkax**
sarrera.

NEURE EZJAKIÑIAN: adlag. Nire ez-
jakintasunean.

NEURTU: ikus **Altu, Luze** eta **Zabal**
sarrerak.

NEZESIDADE, nezesidadia: iz. Beha-
rra, beharizana. *Ze nezesidade dakazu
beti eskian eta negarrez ibiltzeko?*

NINGUNO, ningunua: iz. Eragozpena.
Nik eztaukat ningunoik zuekin juateko.
Ez da gehiegi erabiltzen; **Eziñik** gehia-
go, adibidez.

NOBEDADIA EIÑ (eman): ZAIO adi-
tza. Zorabiatu, konortea galdu.

NOBERA: izord. Norbera. **Norbera** ize-
nordainaren aldaera soildua.

NOBIENBRE, nobienbria: iz. Azaroa.
Zemendixa ia galduta dago.

NOBIXA, nobixia: iz. Andregaia,
neska-laguna. *Laga`ik nobixia. Beste
bost bat urtian laga`ik. Berakin hasteko
gero, e!*

NOBIXO, nobixua: iz. Senargaia, mu-
til-laguna. *Sei hillebetian eon tzian ha-
men, eta nobixua topau ere bai.*

NOBLE, noblia: izond. Pertsona osoa,
engainatuko ez zaituena.

NOIZ EDO NOIZ: adlag. Noizean be-
hin. Ikus **Behiñ edo behiñ**.

NOIZIAN BEHIÑ: adlag. Noizean be-
hin. **Lantzian behiñ** ere bai. Baita **be-
hiñ edo behiñ** ere. *Nik noizian behiñ
ur pixkat botatze jauat [landareari].*

NOLA: Kausazko perpausak osatzeko
lokailua: **Nola ...-eN**. *Baiña gero, nola
giñan gaztenak, etxera etortzeko azke-
nak. Zela-rekin ere osatzen dira kau-
sazko perpaus mota hauek. Ikus **Zela**
sarreran.*

NOLA-HALA: adlag. Nola edo hala. *Da
geo, ba biziketia hamazazpi urtekiñ o,
biziketa zar bat hartu naban. Da geo,
berriz, motorra nola-hala.*

NOLABAITTEN IBILI: esap. Gaizki ez
ibili, onartzeko moduan ibili.
Hainbestian ibili esapiderean an-
tzekoa. *Oiñ, hala ere, nolabaitten ga-
biz, lehengo aldian.*

NORA-NORA: adlag. Nora edo nora,
norabait. [*Landare bati buruz ari da*]
*Ura gastatze jak bakarrikan. Eta neu
noa-noa juten banaiz, kargua. / “Ba,
jun bi`kozu noa-noa”, esan jaan. / Ma-
riñek esan tziun, “honekiñ erten ein
bi`ozue nora-nora.”*

ñ

ÑAN-ÑAN EIÑ: haur. Jan.

ÑO!: interj. Harridura adierazteko
erabiltzen da. *-Ño! Eztok merkia!*
Joño! ere bai.

O

O: junt. Edo. Ahozko jardun arduraga-bean ahoskatzen da honela. Bestela, **Edo** eta **Ero**.

OBATU: Ikus **Oratu** sarrera.

ODOLDI, odoldixa: bot. Goroldioa. *Bai, zeria bai, hemen errekan, ba hemen aurreraka juten da [angula], baiña gero ixotzen gora, hau, odoldixa esate giñon guk. Hau eee, "musgo" esate jako erderaz. Da horren bitxartian sartu buztana, ta, dzi, dzi, dzi! Baiña bixkor gora, e!, juten da. Goroldixa ere erabiltzen da.*

ODOLOSTE, odolostia: iz. Odolkia.

OIGIBITTARTEKO, ogibittartekua: iz. Otartekkoa. Baita **Bokadillua** ere.

OHITTURA, ohitturia: iz. Aztura, usadioa. *Bueno, gehixotan ere jungo ittuk kalera, baiña billian behiñ, ferixara. Eta ohitturia, ba, kafia harzia koadrillan.*

OILLAGOR, oillagorra: zool. "Becada". *Oillagorretara juate nitzuan len, domekero. Oillogor* aldaera ere bai.

OILLAGOR-TXAKUR, oillagortxakurra: zool. "Setter".

OILLANDA, oillandia: zool. "Polla".

OILLAR, oillarra: zool. "Gallo".

OILLAR-JOKO, oillar-jokua: iz. Oillar-borroka.

OILLASKO, oillaskua: zool. "Pollo".

OILLO, oillua: zool. Oiloa, "Gallina".

OILLOTOKI, oillotokixa: iz. Oilategia. **Oillatoki** ere bai.

OIN DALA...: denbora-esapidea. Orain dela, duela.

OIÑ HURRENGO: izlag. Orain hurrengo. Azkenengo aldiz. *Da oiñ hurrengo jai eguerdi baten bota najauen bronka bat! Oiñ hurrenguan.*

OIÑ: 1. adlag. "Ahora". *Eon hari lasai, oiñ etorriko dok eta.* 2. Aurkaritza lokailua. "Ahora bien". *Ba, haura ogixa nik eztakitt ze zan. Harekin akordatzen naiz. Oiñ, zeren gustua zakan, ez.*

OIÑAZTARRI, oiñaztarrixa: iz. Tximista. **Oiñeztarrixa** aldaeran ere bai. **Tximista** ere erabiltzen da.

OINDIK OIÑ: adlag. Oraindik orain, orain dela gutxi.

OINGOZ: adlag. Oraingoz. Adinekoen jardunean, ez dut aurkitu gaur egun gazteagoen artean entzuten den **Momentuz**.

OIÑUTSIK: adlag. Oinutsik, ortozik. Ikus **Hankautsik**.

OJO! interj. Zerbaitekin edo norbaitekin kontuz ibiltzeko jakinarazpena; mehatxu modura ere erabil daiteke. **Ojo euki! Ojo ibili! Ojo!** *Ojo gero, e! Ez hari kontuz ibili!*

OKARAN, okarana: bot. Arana. Bokalarteko -R- kontsonantea askotan ez da ahoskatzen: *okaana*.

OKASIO, okasiua: 1. iz. Aukera. *Eta jefe de pertsonalak esan tziun, "hamen dakazue oiñ, nabi badozue okasiua, autonomo eitteko". | Da oiñ beste okasio gabe danak hamentxe, bata morroe eta*

bestia... **2.** iz. Eztabaida gogorra. *Hori beti okasio billa jabik: aspertu eitten dok bestela.*

OKELA, okelia: iz. Okela, haragia. *Okeletarako* bakarrik daukagu oiñ ganaua. **Haragixa** ere bai, baina ez 'jateko den haragia' adierazteko, baizik 'pertsonea eta animalia bizien haragia' adierazteko.

OKILL, okilla: zool. "Pájaro carpintero", "Pito real". **Okill txikixa.**

OKUPAU: DA aditza. Lanean hasi. *Ba, gero, danak okupau giñan. Bata Sigman, eta bestia beste aldian.*

OKURRI(D)U: ZAIO aditza. Bururatu.

OLO, olua: bot. Oloa, "avena".

ON BIHARREZ: adlag. Ondo nahian. Ikus **Hobe biharrez.**

ON BILLA, ON BILLA, BONBILLAI: esaer. Duena baino andregai edo senargai hobearen bila (edo, ez daukanaren kasuan, onenaren bila) aritu eta gero, ez hain onarekin edo inorekin geratzen ez denari esan ohi zaio. Zentzu bertsua du honako esaera honek ere: **Oiñezkorik nahi ez, eta zaldizkorik etorri ez.**

ON EIÑ: DIO aditza. Zerbaitek onura eman, ekarri. *Daneri eztio on eitten. Neuri on eitte'itt. En kanbio, emaztiari hainbeste eztio itten. Jaten ari den jendeari esan ohi zaio: **On eiñ! On egin d(e)izuela!***

ONDDO, onddua: Ikus **Ongua.**

ONDO ETORRI: DA aditza. Ondo konpondu. *Andra-gizonak igual ondo*

etortze eztianak ero, pixkat gizona tosko samarra dana eta euren arteko kasuak daukazenak.

ONDO: adlag. Ongi. **Ederto** ez da erabiltzen. **Ondo eta azkar, usuak hegan:** Gauzak, ondo egitekotan, patxadaz egin behar direla adierazteko erabiltzen da esaera hau.

ONDOEZ, ondoeza: iz. Osasunaren erorialdi arina, zorabioa. *Baitxa geuk ere, txa ondoezak-eta famelixan da. Da berakiñ Amaiak ere kristonak pasau genduzen guk gaztetan. / Andria gero ondoeza emanda eon tzan. / Gero, hurrengo kartia zan ondoez bat eman tziola.*

ONDOREN IBILLI (baten baten): DA aditza. Emaztegai edo senargai bila ibili. *Eta, ikusi nindduen mutil batekiñ, eibartarra, ibiltze zan nere ondoren, eta (...).*

ONDOREN, ondorena: **1.** iz. Ondorioa. *Don Antoniok esate zaban, "ikusiko dozue zelako ondorena ekarriko daban honek [gerrak]".* **2.** iz. Ostea. *Gerra ondorena ere badakizu: lan askokua izen tzan. Ondorenian: Fubolan ondorenian musikia, eta gero zinia. Eta horixe zan gure zer guztia. Aditzarekin ere erabiltzen da, denborazko perpausak osatzeko: Gerria amaitsu ondorenian.*

ONDOZKO, ondozkua: bot. Zuhaitzbanakoa. *Zenbat ondozko landau dituk gaur?*

ONDU: **1.** DA aditza. Heldu, umotu, ondu. *Bedarra, siketzia. Bedarra ondu esate jakok hemen.* **2.** DU aditza. Kiro-

letan, beste norbaiten marka ondu edo hari irabazi. **Tapau** ere bai.

ONENAK EMANDA EGON: Norbaiten sasoi onena pasatuta egon.

ONERAKO, onerakua: iz. Onerako joera izan.

ONETIK ERTEN (etara): DIO aditza. Pazientzia galdu (eragin). *Nere onetik etarutzen nok haura ikusten doten bakoitzian! Nere onetik erten eragin ditt. Bere onetik erten: Bere onetik er-tenda dao, eta ez'ixozu kasorik eñ.*

ONGARRI, ongarrixa: iz. Simaurra.

ONGO, ongua: bot. Onddoa. **Onddua** ere bai.

ONIAN: adlag. "A buenas". *Aitta onian, ona dok, baiña txarrian... ez hari ingurau haregana.*

ONRA-BAZKARI, onra-bazkarixa: iz. Norbait hil eta bederatzigarrenean egiten zen banketea. **Ondra-bazkari** aldaeran ere bai. **Onra-jan** ere bai. Ikus **Entierroko bazkari**.

ONTZA, ontzia: iz. Antzinako neurria, pisua ematekoa: libraren hamaseirena.

OPORTUNIDADE, oportunidadia: iz. Aukera, okasioa. Gutxi erabilia. *Eta jefe de personalak esan tzi(g)un, jubilatzeke hamar bat urte falta genduzela, "hamen dakazue oiñ oportunidadia, nahi badozue pixkat kotizatzeke".*

ORATU: DIO aditza. Atzeman, heldu. **Heldu** ere bai. *Oratu'ixok horri, ihes eñ aurretik. Obatu* ere ahoskatzen da.

ORBEL, orbela: bot. "Hojarasca".

ORDUAN: Ondoriozko lokailua, *beraz* eta *hortaz*-en kidekoa.: *–Aitxa Markiña Etxeberrikua. Gero, Mendaron-da morroe ibili zan lanian. Gero hamentxe denpora askuan. Gero, Ameriketean ere izen tzan. –Asko ibillitxakua, orduan? –Bai, asko.*

ORDUKO: postpos. Denborazko perpausetan erabiltzen dena.

OREGANO, oreganua: bot. "Orégano".

ORIAU: DU aditza. Aireztatu. *Erropia oriau.*

ORKATILLA, orkatillia: iz. Orkatila.

ORKI, orkixa: iz. Hitz elkartu baten bigarren osagai gisa erabiltzen da. **Haundi-orkixa:** parterik handiena, gauza handien multzoa; **txiki-orkixa:** gauza txikien multzoa. *Dana ez bada ere, haundi-orkixak ja'izuz behintzat.*

ORRO, orrua: iz. Ganaduaren marrusa, "mugido",

ORTU, ortua: iz. Baratzea. *Eta harek zakan han hola animalixa mordo bat, beste pare bat behi, eurentzat esnia, ortua, berduria eurentzako izeteko.*

ORTUKO, ortukuak: iz. Barazkiak.

OSABA, osabia: iz. Osaba. Gaur egun **tio** gehiago erabiltzen da adineko hiztunen artean (haien arbasoek **osaba** erabiltzen zuten gehiago). Antzera gertatzen da **izeko** eta **tia** hitzekin.

OSATU: DU aditza. Bildu, lortu. *Datorren astian etorriko nok ikustera, berriz ere, eta hirurogei duro osatu nittuanian, jun eta hartu najuan bizikletia.*

OSEA (KE): lok. Igart. Ondoriozko erdal lokailua, lagunarteko jardun arduragabeen erabilia. *Txixxarruan entzueria eukiko dozu? Txixxarruan tallarra. Osea, Azkoitxiko karreteran tren-zubixan, oiñ Alkortak bota dau, ba? Han zauan.*

OSKARBI: adlag. Hodeirik gabeko zerua. *Oskarbi* dao zerua.

OSO, osua: izond. Osoa. **Osua ez izan:** Pertsona normala ez izan.

OSO: grad. Oso. Perpausaren amaieran ere ager daiteke, aditzaren ostean: *Gure basarrixia majua zan oso.*

OSPA EIÑ: Igart. Alde egin. Bigarren osagaia galduta ere erabiltzen da. *Gero, bazkaldu, eta laurak aldiaren berriz ere, taka, ospa, beste paraje batera. **Alde eiñ** ere bai.*

OSPEL, ospela: 1. iz. Hotzak eskuetan (normalean) eragindako handitua. 2. izond. Paraje laiotza. **Aiñubia** eta **Kontrasola** ere erabiltzen dira bigarren balio honetarako.

OSTANTZIAN: Hautakaritzako lokailua, *bestela*-ren kidekoa. **Ostontzian** ere bai. Ez da oso erabilia. **Ostian**, askoz gehiago.

OSTARKU, ostarkua: iz. Ostadarra, Erromako zubia.

OSTE, ostia: postpos. eta atzizkia. 1. Denborari dagokiola, ondoko edo geroko aldia; ondoren: **Partiduan ostian, meza ostian, afalostian...** *Eta telebisua, berriz, eguardixan eukitze juat pixkat, eta gabian, apalostian. / San Bartolome ostian, eulixak hankaz gora. / Musian eitxen gendun len. Baiña*

oiñ... Oiñ eztao, oiñ lagun gitxi gaude. Lehen meza ostian da igual, juntau ezkerre jendia. 2. Espazioari dagokiola, atzeko alde; atzean. Emakumiak asko dauaz, gizonezkuak ere eongo ittuk, etorri Salontzora plazatikan etorri, eta gero, elizian ostetikan, bueltia eiñ, eta behera jute'ianak. / Etxeostian geunkan txabola hori.

OSTERA: 1. adlag. Ostera, berriro. 2. lok. Berriz, aldiz.

OSTERIA EIÑ: DU aditza. Buelta bat eman. *Beonek kalea osteria eiñ, etxea etorritxa kapitetsnia bazauan jan hauraxe, ta aide, ortura ero.*

OSTIAN: Hautakaritzako lokailua, *bestela*-ren kidekoa. Horrek ere eiñ ein biha'ia. *Zeiñek eingo jaittuk hamen, ostian? / Eta gero, gonbirauak, eta prepa-rau ein bi'ozu, egun guztian lana. Ostian, ondo. Ikus, izenlagun bilakatuta, **Ostiangua** sarrera.*

OSTIANGO, ostiangua: izlag. Beste-lakoa, gainerakoa(k). *Natibitxate ta, bai, Trinidadiak bakarrik. Ostiango danetan, beti lana eitxe zan. / Eskola Armeixarako beti lelengo etaratze zeben. Onak ondo prestatze zitxuen. Ostian-gueri, ba, kasorik ere ez.*

OSTIKO, ostikua: iz. Ostikada. *Orduan kaletarrak basarritarra, ostikua jo, eta txakurra bezela bialtze juen.*

OSTIRAL, ostirala: iz. "Viernes". Adinekoek **Barixakua** darabilte askoz gehiago.

OSTRO, ostrua: bot. Ostoa. **Aza-ostua.**

OSTU: DU aditza. Lapurtu. **Harrapau** eta **Lapurretan eñ** ere bai.

OTA, otia: bot. Otea, “Argoma”. *Otia ta abarra bada mendixetan!*

OTADI, otadixa: iz. Otadia, ota ugari dagoen tokia.

OTATXORI, otatxorixa: zool. “Tara-billa”.

OTUBRE, otubria: iz. Urria. **Urrixa** ere erabiltzen da.

OTSAILL, otsailla: iz. Otsaila. Gaur egun ez da ia erabiltzen; zaharrenek bakarrik erabiltzen (edo, beharbada hobeto esanda, oroitzen) dute. Gaur egungo adinekoek, normalean **Febrerua**.

OTXAN, otxana: izond. Ganadu mantsoa. **Otxan**-en aldaera adierazgarria.

OTXOKUARTO!: interj. arrunk. Aurretik esan dena ukatzeko erabiltzen den interjekzioa. *–Ama, eman dirua. –Ze diru eta ze otxokuarto! Guazten etxera!*

OTZAN, otxana: izond. Mantsoa. Ganaduari esan ohi zaio normalean. **Otxana** aldaeran ere bai. **Mantsua** ere erabiltzen da.

P

PA EMAN: haur. Musu eman.

PADEZIU: DU aditza. Sufritu. *Dana iñok ein bihar, da bestiak sufritzen. Norbera sufritzen, da bestiak padeziu era(g)itten.*

PAGAU: DU eta DIO aditza. Ordaindu. *Eta batek urtiak kunplitze’itxunian,*

afaldu eitxe dou. Afaixa bakoitzak beria pagau, eta kafiak, urtiak betetze’itxunak.

PAGA, pagia: iz. Gurasoek seme-alabei ematen dieten dirua, asteburuko aisialdirako. *Da amak sei pezeta eman pagia, jaiko pagia, sei pezeta eman, da harekin Donostira jun bihar; da nobixia Donostian...*

PAGO, pagua: bot. “Haya”.

PAGOUSO HAUNDI, pagouso haundixa: zool. “Paloma torcaz”.

PAGOUSO TXIKI, pagouso txikixa: zool. “Paloma zurita”.

PAGOTXA, pagotxia: bot. Hirusta lore-gorria, sekularren antzekoa. **Pagotxa izan:** esap. Mauka izan. *Hori dok pagotxa, hori!*

PAITTA, paittia: zool. Ahatea, etxean hazten dena. Ikus **Ahata** sarrera.

PALANKA-JAURTITZE, palankajaurtitzia: iz. Herri-kirola, gaur egun galdua: burdinazko palanka bat ahalik eta urrutien jaurti behar izaten zen.

PANADERO, panaderua: iz. Okina. *Panaderuak sartze ziazten ogixak kabaluan sarietan.*

PANADERIXA, panaderixia: iz. Okindegia.

PANDERO-JOLE, pandero-jolia: iz. Panderoa jotzen duen musikaria.

PANPARRERIXA, panparrerixia: iz. Harrokeria.

PAÑUELO-KARRERA, pañuelo-karrera: iz. Haur-jolasa. Bi talderen artean, zapi bat zintzilik zuela jartzen

zen lagun bat, eta alde banatako jokalariek zapia hartu eta korrika itzuli behar ziren beren tokira, aurkariei ihes eginik.

PAPAR, paparra: iz. Bularraren goialdea.

PAPELADA, papeladia: iz. Imintzioa.

Papeladia eñ: espantuka aritu, imintzioa egin. *Papeladia eitten dao, danen aurrian hobeto gelditzeko. / Etxuat horretan sinisten, baiña, papeladia ein biharra jakat.*

PARAJE, parajia: iz. Ingurua. *Eztia honek parajiak onenak, baiña nik eztakitt zeatik, gusto hobia daukala. / San Pedrokua baiño paraje ederragorik topatza eztok gero erretza, e!*

PARANDA, parandia: zool. “Pinzón”.

PARANDA GORRI, paranda gorrixa: zool. “Chonta real”.

PARDILLO, pardillua: zool. “Pardillo”.

PARE: postpos. Konparazioak egiteko erabiltzen da. *Zoruan pare ibili zan gure laguna.*

PARETA, paretia: iz. Pareta, horma. *Da basarrixan ere, nun dau etxiak paetaik lodixena? Haren parian.*

PAREZER, parezerra: iz. Iritzia. Ez da gehiegi erabiltzen. **Iritzixa** gehiago erabiltzen da.

PARRASTADA, parrastadia: onomat. Likidoek erortzean ateratzen duten zarataren onomatopeia. *Ur-parrastadia: txixa-parrastadia bota jok.*

PARTE ONEKUA EZ IZAN: esap. Seinale txarra izan. *–Aspaldixan me-*

dikutan jabik hori: astian-astian juten dok medikuana. –Egixa dok. Ez tok, ez, parte onekua horrek dakana.

Parte txarrekoa: *Parte txarreko jendia dok hori: ez ingurau badaezpada harengana.*

PARTE, partia: iz. Irratiko edo telebistako berri-emanaldia. *Diretoria zan Radio Popularren, Karmele, bai, tta, harek emate zaban ordubatian partia. / Illuntzeko partia entzun biha juat, eta ixildu, mesedez.*

PARTEZ: postpos. Ordez. *Ni zure partez juango naiz. / Gorantziak eman nere partetik.*

PARTIU: DU aditza. Banatu. *Kaskarreko edarrak partitze zittun. / Da esnia partitzera, kalera. / Oin ogi partitzen ibiltzen dok, ba? Hauraxe!*

PASADIA EMAN: DIO aditza. Egurra eman. Zentzu figuratuan ere bai; adibidez, kiroletan. *Pasadia eman jaek pelotan!*

PASADIZO, pasadizua: 1. iz. Gertaera; pasadizo. *Arratek gauza asko gogortzen dau, pasaizuak eta erozer. 2.*

Pasa(d)izian: adlag. ondotik pasatzerakoan. “De paso”. *Ba, hemen, pasa(d)izian, jende mordua ikusten dot.*

PASARIA HARTU: DU aditza. Leher eginda amaitu, edo lehiaren batean egurra jaso.

PASAU: ... eta pixka bat, ... eta koska. **Pasatxo** ere bai. *Bost ordu pasau ein dittugu mendi-ibillaldixan. / Ze ordu da? Seirak pasau.*

PASE, pasia: iz. “Migración de aves”. **Uso-pasia:** “pase de paloma”.

- PASEKO, pasekua:** zool. “Ave migradora”.
- PASIADA, pasiadia:** iz. “Paseo”. **Pasaria** ere bai.
- PASMO, pasmua:** iz. Zornea. Ikus **Zorna** sarrera.
- PASMO-BEDAR, pasmo-bedarra:** bot. Sendabelar mota bat, besteak beste pasmoa ateratzeko erabiltzen dena.
- PASTORE, pastoria:** iz. Artzaina. **Artzaixa** ere erabiltzen da. *Eta gero, handikan jun nitzuan, Musillo pastoria? Entzueria eukiko (d)ok?*
- PATRIKA, patrika:** iz. Sakela. **Poltxiko** ere bai.
- PATS:** Egitura adierazgarrietan erabiltzen da. **Izardi patsetan:** Izerditan blai. **Izardi eta pats.**
- PATTAL EGON:** Ondoezik egon.
- PATXARA, patxaria:** iz. Sosegua, patxada. **Patxada** ere bai. *Patxadaz ein biharreko lana dok hau.*
- PATXAROSO, patxarosua:** izond. Patxada oneko pertsona, pertsona lasaia.
- PEGANTE:** adlag. Kontra, ondo-ondoan. *Behian, kriaueña ta aparte, pegante baiña. Gu aparte, eskillara banatatik. Guk etxia pegante, baiña guk geure bizimodua aparte. **Kontra-kontra(n)** ere bai.*
- PEKATU, pekatua:** iz. Bekatua.
- PELAJE, pelajia:** iz. Itxura txarrekoa. Itxura txarra. *Ze pelajekin dabill zure alabia? / Hori dok pelajia dakana Mikelek aspaldi honetan!*
- PELOTA, pelotia:** iz. Pilota. **Pelotajokua. Pelota-partidua.**
- PELOTALEKU, pelotalekua:** iz. Frontoia. **Frontoi** hitza gehiago erabiltzen da.
- PELUKERA, pelukeria:** iz. Emakume ile-apaintzailea.
- PELUKERIXA, pelukerixia:** iz. Ile-apaindegia.
- PELUKERO, pelukerua:** iz. Gizonezko ile-apaintzailea.
- PENDIZ, pendiza:** iz. Aldapa. **Penditza** ere bai.
- PENTS AU:** DU aditza. Uste izan. *Da basarrixekin ezto pentsatzen azkenengo eongo danik Elgoibar, Gipuzkuan. **Ezta pentsau ere!** –Ama, gaur gabian Gaztetxeko jaialdira nua. –Ezta pentsau ere! Zu oindiok gazte gixxa zara. –**tik pentsau:** –Hogeta bi hillabete? –Bigarren junaldixan ere. Pentsau hortik zenbat denpora eingo genduan!*
- PEREZA, perezia:** iz. Nagitasuna.
- PERIODIKO, periodikua:** iz. Egunkaria. *Nik periodikua irakurtze nion egunero. / Lengan periodikuan jartze zaban... tallarreko lanak eitzeke eztiara bihar bakarrikan injenieruak.*
- PERKATX, perkatxa:** izond. Adeitsua, arretatsua, ernea.
- PERPEZIO, perpezia:** iz. Dotorezia. **Perpezioz** (metatesiarekin ere bai: **prepezioz**): Txukun, dotore. *Zure moduko neska batek perpezioz ibili biha deu.*
- PERRA-HOTSA ETARA:** esap. adrazg. Ihesika joan. *Keixak harrapatzen ai*

*zala, basarritarra etorri dok; harek ata-
ra jok perra-hotsa!*

PERREJILL, perrejilla: bot. Perrexila.

PERRETXIKO, perretxikua: bot. “Seta”.

PESKA, peskia: iz. Arrantza. *Peska-
rako ontzixak-eta eitxe zitxuen. / Gero, peskan da, ba, bai. Hartu pes-
kia, eta beste batzuen zestuak errejis-
tau, zaindu... Arrantzua, Arrantzia* ere bai. **Peskan eiñ.**

PESKAN EIÑ: DU aditza. Arrantza egin. **Arrantzan eiñ** ere bai. *Juan nitzan hor, San Antoliñ aldera ero, pes-
kan eitxeko intentziuakin, eta jende mordua han.*

PETRAL, petrala: izond. Pertsona go- gaikarria, ganora gabekoa. Batzuetan ez zaio esanahi zehatzik sumatzen. *Hau dok haize petrala!*

PETRILL, petrilla: iz. “Pretil”. *Maalako petrillian jarritta pasatze gendun atsaldia.*

PEZETA, pezetia: iz. Garai bateko txanpona, 2002 urtean erabiltzeari utzi zitzaiona.

PEZETERO, pezeterua: izond. Zikoi- tza, zekena. **Xurra** ere bai.

PIKAU: DU aditza. Zorroztu. *Segia pikatzen a(r)i da gure aitta.*

PIKU: Koska. *...**eta piku.** 100 euro eta piku tokau jakoz loterixan.* Ikus **Pasau** sarrera.

PIKU, pikua: bot. “Higuera”, “higo”. **Piku-arbolia** ere bai.

PIKUPASA, pikupasia: iz. “Pasa de higo”.

PIKUTARA BIALDU (juan): esap. Antzarak ferratzera bidali (joan).

PILLA, pillia: iz., zenbtz. Mordoa, asko. *Elgoibarren ere suertia izan dau Etxeberrriak ere. Zelako diru pillia ko- brau zaban?! Pillua* ere bai.

PILLO, pillua: iz., zenbtz. Mordoa, asko. *Jende pillua juntatze zan len erro- merixetan.* Ikus **Pillia** sarrera ere.

PIÑU, piñua: bot. “Pino”.

PIÑU ABETO, piñu abetua: bot. “Abeto”, pinu mota bat.

PIÑU ALERTZE, piñu alertzia: bot. “Alerce”, pinu mota bat.

PIÑUBURU, piñuburua: bot. “Piña”.

PIÑUDI, piñudixa: iz. Pinudia. *Pi- ñuixekin gaur laguntasun haundixa jaukek basarrixan.*

PIÑU-HAR, piñu-harra: zool. “Proce- sionaria”, pinuetan sortzen den harra.

PIPER, piperra: iz. Piperra. **Pipar** ere erabiltzen da. **Pipperik ez jakin:** Ezer ez jakin. **Piper eiñ:** DU aditza. Gura- soen baimenik gabe, eskolara joateari utzi.

PISA(T)U: DA aditza. Pisatu. Ikus **Kilo** sarrera.

PITORIK EZ JAKIÑ (entendidu): lgart. esap. arrunk. Ezer ere ez jakin, ulertu... *Gerora konturatu nitzuan etzakixela pitorikan ere!*

PITTILIÑ, pittiliña: iz. Zakila.

- PITXAR, pitxarra:** iz. Txarroa, sagar-
doa mahaian zerbitzatzeko erabiltzen
den ontzia, metalezkoa edo beirazkoa.
- PITXILORA, pitxiloria:** bot. Margarita
txikia.
- PITZ, pitza:** iz. Bitsa, aparra. **Esne-pi-
tzetan bizi:** ondo bizi.
- PITZATUA EUKI:** esap. Burua ondo ez
dutenengatik esan ohi da. *Horrek
jakak pitzatua buruan!* Ikus **Zartadia
euki** sarrera.
- PIXKA BAT:** zenbtz. Gutxi bat, xorta
bat. *Baiña ikastolia ero hasitta eongo zan
orduko pixkat. / Naparrua ikusi in bi'ozu
pixkat, eta guazen.* **Pittin bat** ere erabil-
tzen da. Ez da erabiltzen, orde, zenba-
tzaile edo graduatzaile moduan **Apur
bat**. Graduatzaille gisa ere erabiltzen da.
Harek pixkat serixa eon balia, iual hobe.
- PLAENTXIAR, plaentxiarra:** izond.
Soraluzeko herritarra. **Plazentziar** ere
erabiltzen da, gutxiago. Adinekoek
ez darabilte ez **Soraluze** ez **soraluzear**.
- PLAIA, plaia:** iz. Hondartza. *Ostian bis-
ta haundixa dao hamen. Hamendikan
horra gainera jun ezker, hortik Debako
plaia, zera itxasua ta dana ikuste'a. /
Herrixa politta, Biarritz: dotoria. Eon-
da zaure? Plaia luzia, e!* **Hondartza** hi-
tza berria da adineko hiztunentzat.
- PLANTA, plantia:** iz. Imintzioa. **Plan-
tak eiñ.** Hitz elkartuetan sarritan: *Ne-
gar-plantak ein jittuk umiak! / Tonto
plantak ein dittut, diximulatze.*
- PLANTAU:** DU aditza. Prestatu, aton-
du. *Eta Caracasesa juteko, plantau ere
ein nitzan. / Afaixa plantautu dao, eta
etorri mahaira!*
- PLASTATEKO, plastatekoa:** onomat.
iz. Belarrondokoa. *Blastateko* ere bai.
Ikus **Belarrondoko** eta **Matraileko**
sarrerak.
- PLATANO, platanua:** 1. Banana. 2.
bot. "Plátano", orri zabalak dituen ar-
bola, herriguneetan asko ikusten dena.
- PLAZA HAUNDIXA:** Elgoibarko plaza
nagusia. **Plazia** ere esaten zaio.
- PLAZA TXIKIXA:** Elgoibarko plaza
bat, Aita Agirre ikastetxea zenaren pa-
rean dagoena. *Ganau ferixak Plaza
Txikixan eitte'ia.*
- PLAZA-GIZONA IZAN:** esap. Jende
aurrerako balio dutenen pertso-
nengatik esan ohi da, jendeaurrean
hazi egiten direnengatik.
- PLAZATAR, plazarra:** izond. Elgoi-
barren, plaza nagusi aldeko jendea. *Eta
maalatarrak eta plazatarrak beti bu-
rrukan, eta beti maalatarrak irabazi.*
- POLIKI:** 1. adlag. Astiro, soseguz. **So-
siuz** ere erabiltzen da. 2. adlag. Ondo.
–*Bai, bai. Oso poliki dao frontoi be-
rrixa. –Bai, arreglauta oiñ. Holako bat
biha zan San Migelen. / Pagau ere ondo
eingo da, baiña jan... Bai, bai, oso poli-
ki dao [jatetxea].*
- POLTXIKO, poltxikua:** iz. Sakela. **Pa-
trika** ere bai.
- PONDERAU:** DU aditza. Famatu.
Abonau eta **Famau** gehiagotan gaur
egun.
- POPATIK HARTZERA BIALDU
(juan):** esap. Antzarak ferratzera bidali
(joan). *Jun hari popatik hartzera! Tra-
bia besterik eztoz eitten da!*

POPO: haur. Autoa.

POR AKI!: interj. Zerbaiti edo norbaiti zakarki uko egiten zaionean erabiltzen da. *Oiñ illia hartu, bai ederki, seuru neskak eta han autobusian zixezenian da. Fuu! Illia hartu, baiña jun hari por aki!*

POR EJENPLO: adlag. Adibidez. *Por ejemplo, zapatuan San Isidro eguna dator, ta orduan Arratera jungo gera, ondo generala. Konparaziotarako eta Esate batera(ko) eta ere bai.*

PORKE: lok. Gaztelaniatiko lokailu kausazkoa, adinekoen artean gutxi erabilia. *Esan diot majiña't bidar honi: aldrebes etorri balira, batekin geratuko giñan, porke guri kostau zitzakun hori, txikixa, neskia...: hiru hobe zan mutilla modukua hori bat baiño.*

PORRU, porrua: bot. "Puerro". **Porru-pataatak. Porrua sartu:** Zirixa sarturen zentzu berarekin erabiltzen da. **Porru einda egon.** Neka-neka eginda egon.

PORSIAKASO: adlag. Badaezpada (ere). **Badaezpada** ere erabiltzen da.

PORTAU: DA aditza. (Ondo) portatu. *Portau haiz, Xabier! Hire laguntzarik gabe ezin izengo najuan amaittu. Gizon portau:* zintzo, zuzen jokatu.

POSTURA, posturia: iz. Apustua, trabesa. **Apostua** ere bai. *Posturia eingo juau ointxe bertan: ia Karakatera zein lehenao allegau.*

POTEKA: Haur-jolasa, "a bote-bote". Pote bati ostikoa eman, eta geratzen denak bere lekura ekartzen duen bitartean besteek ihes egiten duten jokoa.

POTRO, potruak: lgart. iz. Barrabilak. Pluralean erabiltzen da normalean. *Potruetaraiño jarri dok Patxi hire erretolikiakin!*

POTRO-HAUNDI, potro-haundixa: lgart. arrunk. Pertsona gibel-handiei esaten zaiena.

POTROJORRAN EGON: lgart. arrunk. Probetxuzko ezer egin gabe egon. *Hori beti daok potrojorran. Etxok kolpe zorririk jotzen egun guztian.*

POTROSO, potrosua: izond. Nagikeriarako joera handia duen pertsona, gibel handiak dituena.

POTROZORRI, potrozorrixa: izond. lgart. arrunk. Ziria sartzen duena. Zentzu figuratuan erabiltzen da batez ere. *Hau dok pertsonia potrozorrixa!*

POTXOR, potxorra: iz. Bulba, alua.

POZ, poza: iz. Bozkarioa. **Pozian:** Pozik. *"Hamen dittuk honek mutil zintzuak", eta eztakit ze, eta badakit ze. Inbusterixan umieri, eztakik? Eta gu pozian: ekartze jua kafitesnia hara, "bollo de leche" ero esate jakok, ba?*

PRAKA, prakia: iz. Frakak. **Prakak** gehiago erabiltzen da **galtzak** baino. **Praketan sartu eziñik ibilli:** oso harro eta pozik egon.

PREGUNTA, preguntia: iz. Galdera. **Galderia** ere bai. *Orduko abaderik eztagok oiñ, eta aspaldixan ere ez. Baiña abaderen batek hartuko jua dotriñia. Harek ere eitten jaituan preguntak!*

PREGUNTAU: DIO aditza. Galdetu. *Eta etorri, eta ein bueltia, eta aber ixilik dauren preguntauko dizu.*

PREJI(D)U: DU aditza. Frijitu.

PREMIXA, premixia: iz. Beharrizana.

PRIMERAN!: interj. Oso ondo, tes-
tuinguru adierazgarrietan.

PRINTZIPAL, printzipala: izond.
Garrantzitsu(en)a. *–Bueno, burua
ondo daban bitxartian. –Jakiña, ba,
hauraxe printzipalena! / Horixe da
printzipala: bakia ta lan pixkat.*

PRIXA, prixia: iz. Prisa. *Beti prixaka
ibiltzia dok gaur eguneko jiria.* Ikus
ARRAPATAKA sarrera.

PROBALEKU, probalekua: iz. Idi-
probak eta gainerako proba motak
jokatzen diren lekua.

PUBLIKAK: iz. Eskola publikoa. *Publi-
ketan esate zitzakon orduan. Publiketan
ibili giñan lelengo, da gero pasau giñan,
bixok gainera, zerera, Pilarrera.*

PUF!: interj. Baita **buf** ere. Aspergurak
edota nekeak eragindako interjekzioa.

PUJA, pujia: iz. Eskaintza. **Pujan hasi:**
*Santanderreko bat eta Bartzelonako bat
hasi zittuan pujan.*

PUNBA EIÑ: haur. Erori. **Punbala** ere
bai.

PUNBALA: haur. Erori. **Punba eiñ** ere
bai.

PUNTAKO, puntakua: izond. Arloren
batean, onenetakoa dena. **Punta-pun-
tako** ere bai. *Puntako pelotaixak etortze
zittuan San Bartolomietan, e!*

PUPU, pupua: haur. Mina

PURRA: haur. Oiloa.

PURRUSTADA, purrustadia: iz. Ha-
erre antzean egindako errietaren onomatopoeia.

PUSKETA, pusketia: iz. Zatia. *Ba, or-
duan ere ointxe moruan itxasuak bere
terrenuak diala ta, noizi(k) behiñetan
negu gogorrian, ba, igual kamiño puske-
tak eta botatze zitzuan.*

PUTASEME, putasemia: izond.
arrunk. Putakumea.

PUTETXE, putetxia: iz. Prostituten
etxea. *Bilbo aldera juten ei dok hori
putetxera.*

PUTETXEKO MADRIA!: interj.
arrunk. Ezadostasuna adierazteko esa-
pide zakarra. *–Oporretan hago, eta tei-
llatua konpontzen lagundu biha'iak.
–Bai, putetxeko madria!*

PUTSAK ETARA: esap. Lanen bat egi-
ten neke handia hartu.

R

RADIXO, radixua: iz. Irratia.

RAKETISTA, raketistia: iz. Pilotale-
kuetan raketarekin jokatzen zuen
emakume pilotaria; Elgoibar aldetik
Bartzelonara, Madrilerara, Cubara,
Mexikora eta Estatu Batuetara joan zi-
ren gerra osteko garaian.

RARO, raru: izond. Arraroa.

REKADISTA, rekadistia: iz. Garai ba-
tean, garraioa nekezagoa zenez, hiri-
buruetako mandatuak eta bidalketak
egiten zizutzenak.

RETEL, retela: iz. Karramarroak harrapatzeko tresna sareduna. Pilotak ibaitik hartzeko ere erabiltzen zen lehen herriko plazan, pilotalekua ibaieren kontra baitzegoen.

REUNIO, reunia: iz. Bilera. *Gero, harutzatxuago dakazu asadora, eta gero goixan reunioen bat ein bihar baldin bada, beste pabelloe bat.*

RI-RA: onomat. adlag. Azkar. **Di-da** ere bai. *Ri-ra ein juau dana, hasi eta amaittu egun batian.*

ROBELLOI, robilloia: bot. “Níscalo”. **Robelloe** ere bai.

RONDA, rondia: iz. Txikiteoan, taberna bakoitzean hartzen dena. *Ronda hau neri tokatze jatek.*

RUSIA!: interj. Zenbait adinekok erabiltzen zuten biraoa: **La Rusia!, Me-kauen La Rusia!**

S

SAGAR, sagarra: bot. Sagarra, fruitua eta arbola.

SA(G)ARDAUA: iz. Sagardoa. *Han ondo. Ardaua ta sa(g)ardaua ta... Ondo, ondo jaten da han, e!*

SA(G)ARDANDEGI, sa(g)ardandegixa: iz. Sagardotegia.

SAHATS, sahatsa: bot. “Sauce”.

SAILL, sailla: 1. iz. Alorra. Lantzen den lur zatia, lursaila. **Lur-sailla, mendi-sailla.** *Oiñ eitxen douna, ba, patatia urte guztirako eitxen dou. Oiñ ere saill haundixa daok einda hor. Askotan hitz*

elkartu baten bigarren osagai moduan. Gure aitta granuja galanta zuan, mendi-sail horrek pasauta neskatarra Elosura juteko. / Honek dittuk gure lur-saillak.
2. iz. Multzoa. *Urte-saill edarra ein juan Ameriketan.*

SAILLIAN: adlag. Bereizketarik gabe. “Uno tras otro, en tropel”. *Hasarratu zuan, hasi zuan joka, eta saillian e(r) atxi jaittuan danak.*

SAKAPON, sakapona: iz. Tortoloxa. **Sakaponetan/aponetan ibili:** Haur-jolasa, tortoloxekin egiten zena. *Sakaponakin eo, jolasian; sakapona esate giñon guk.*

SAKE, sakia: iz. fig. Jateko gogoa, apetitua. **Sake ona euki:** 1. *Apetitu ona izan. Eztok harritzekua 130 kilo pixartzia! Daukan sakiakin...* 2. *Pilota-jokoan, pilota atera.*

SALADA, saladia: izond. Grazia duen emakumea. *Oso saladia zan gure tia.*

SALAU, salaua: izond. Grazia duen gizonetzkoa.

SALONTZUAK: iz. Sallobente-Ermuaran (San Lorentzo) auzoko festak (abuztuak 10).

SALTAKA: adlag. Korrika. **Antxitxika** ere bai. *Haura amaitze zuan, eta gero aber ze eitte genduan? Kurutzetan beranduago haste zuan, zortziretan ero igual. Eta haura amaittu, eta Kurutzetara etortze giñuazen, saltaka.*

SALTSAN IBILI (bere): Bere giroan ibili. *Saltsa guztietan sartuta ibiltzen dok gure semia! Saltserua/saltseria izan.*

- SAL TSA-PERRE TXIKO, sal tsa-perre-txikua:** bot. “Rebozuelo, cabrilla”.
Txaltxa ere bai.
- SALTZEKO (egon):** adlag. Salgai. *Bi-zikletia erosi nahi nion Gelatxorrotako ugazabari. Eta galdetu nion zenbat diru biha zaban, saltzeko zauan da.*
- SALTZEKO EZ EUKI (egon):** esap. Norbait estimazio onean eduki. *Gure alabak asko maitte jok anai txikixa. Etxakak, ez, saltzeko!*
- SAMA-HAZURRA:** iz. Lepo-hezurra. *Sama-hazurra hausi, ta akabau ein zan kaballua.*
- SAMAR:** grad. Nahikoa. **Xamar** ere erabiltzen da. *Gaiñera, hor garo denporia batera samar izete zittuan. / Hemen dana igual samar eitten dok (euskeraz).* Ikus **Samartu** sarrera.
- SAMARTU:** grad. Aditzekin ere erabiltzen da **Samar**, aditzaren partizipio-atzizkia hartzeraino: *Gastau samarra dao / Gastau samartu dia karameluak. Eta Manolo ezkondu ein tzan, gerria amaitsu samartu zanian. / Zapatak apurtu samartuta zaukazen.*
- SANANTOLIÑAK:** iz. Arriaga (San Antolin) auzoko festak (irailaren 2a).
- SANANTONAK:** iz. Elgoibarko festak (urtarrilaren 16a).
- SAN BARTOLOME EGUNA:** iz. Abuztuaren 24a, San Bartolome deunaren omenez egiten diren jaietako egun nagusia.
- SAN BARTOLOME TXIKI EGUNA:** iz. Abuztuaren 25a. San Bartolome jaietan izaten den egun berezietako bat.
- SANBARTOLOMIAK:** iz. Elgoibarko festa nagusiak (abuztuaren 24a).
- SAN BIZENTE EGUNA:** iz. Urtarrilaren 22a. **San Bizente hotza, negua(re)n bihotza.** Meza ematen da egun horretan San Rokeko basilizan.
- SANDROKIAK:** iz. Azkue (San Roke) auzoko eta Debako festak (abuztuaren 16a).
- SAN ISIDRO EGUNA:** iz. Maiatzaren 15a. Azkoitiko Madariaga auzoan jaiak egiten ziren egun horretan.
- SAN JOSE LORA, San Jose loria:** bot. San Jose egun inguruan ateratzen den lorea, “primavera”.
- SAN JUAN EGUNA:** iz. Ekainaren 24a. Altzolako eta Eibarko festak egiten dira egun horren inguruan.
- SAN JUAN LORA, San Juan loria:** bot. “Zanahoria silvestre”.
- SAN JUAN SU, San Juan suak:** iz. San Juan bezperan, ekainaren 23an, egiten den sua. Altzola auzoan ospatzen dira San Juan festak.
- SAN JUAN TXIKI EGUNA:** iz. Altzolako festetan, San Juan bigarrengo eguna, ekainaren 25a.
- SANJUANAK:** iz. Altzola auzoko eta Eibarko jaiak (ekainaren 24a).
- SANIAU:** DA aditza. Sendatu. *Hiru uda pasau genduzen guk harekiñ, Haron, gaur arte. Saniauta geratu umia! / –Goñi saniau be eongo da oindio, ezta? –Bai, miñ hartuta dabill.*
- SANIDADE, sanidadia:** iz. Gehiegizko patxada. *Hik dakak, hik, sanidadia.*

Patxi! Ordu bixetan Bilbon eon bi'ok, eta ordu bat t'erdiak dittuk eta Elgoi-barren hao!

SANMIGELAK: iz. Aiastia (San Migel) auzoko festak (irailaren 29a).

SANO, sanua: **1.** izond. Osasuntsua. **2.** izond. Naturala. *Eske, lengo bizimodua zan, bueno, sanua, e!* **3.** Pertsona sanoa, irekia, xaloa, egatia. *–Eske oin baiño pertsonak usten dot sanuauak giñala, e!* *–Bai, sanuak. Zenbat eta pobriago, eta pertsonia sanuagua da, nik usten dot.* **4.** **Sano egon (burutik):** Buruz ondo egon. *Nolatan ein dok astakerixa hori? Burutik sano al hao?*

SANOPOTRO, sanopotrua: izond. lgart. “Majadero”.

SANPEDRUAK: iz. Idotorbe (San Pedro) auzoko festak (ekainaren 29a).

SANTANAK: iz. Mendaroko eta Soraluzeko jaiak (uztailaren 26a).

SANTIXAUAK: iz. Mendaroko eta Ermuko jaiak (uztailaren 25a).

SANTU EZ EGON: esap. Ondozik egon. **Santua ez izan:** Fidatzeko moduko pertsona ez izan. Errepikatuta ere bai: *eztok santu-santua.*

SAPAI, sapaixa: iz. Sabaia, ukuiluko goialdeko lastategia, belartegia, belarrondoa gordetzeko lekua. *Eta Salontzon [soldadu] batzuek eta bestiak hamen, gure sapaixan lo eitten.*

SARAKETAN EIÑ (jardun): Lursail bat saratzen aritu.

SARATU: DU aditza. Lursail batean, belarrak aitzurrez ebaki, zerbait landatzeko. **Saraketan eiñ (jardun).**

SARBO, sarbua: zool. Erreketan oso ugaria zen arrain txikia, ezkailuaren antzekoa.

SARDA, sardia: iz. Belarra biltzeko erabiltzen den tresna, “horca”.

SARDIN-BURDUNTZI, sardin-burduntzixa: zool. “Libélula”.

SARRI: adlag. Maiz. *Hona, Elgoibarrera sarri etortzen dok Mendaroko andra hori, azokara ta. / Koiñaua da afizio haundikua, honen anaixa basarrikua, eta ni harekiñ Azkoitxira ta sarri jun izan naiz idi-probak ikustera.*

SARRITTAN: **1.** adlag. Maiz. Ikus **Sarri** sarrera. **2.** adlag. Batzuetan. *Sarritan hobe izeten dok etxian geratzia kalera ertetzia baiño.*

SARTU: DU aditza. Erein. Ikus **Ereñ**.

SARTUERA, sartueria: Sarrera. *Eta gero, ba, Francon sartueran, “habla por España”! Eta hemen España zuan, eta kitto ostian.*

SARTU-ERTEN, sartu-ertena: iz. Bisita laburra. *Sartu-ertena bakarrik eingo juat hire etxian, etxakat astirik eta.*

SASI, sasixa: iz. “Zarzal”, “maleza”. *Mendixan da lan txarrak badauaz oiñ ere. Piñu hartzia ta, sasixa ebaitzia ta, harek garbi eukitzia ta, eztaiki? Ikus **Lahar** sarreran bien arteko desberdintasunak.*

SASI-: Zenbait hitzetan erabiltzen den aurrizkia. Ikus **Sasiletrau, Sasimediku, Sasikoipetsu eguna.**

SASIKOIPETSU EGUNA: iz. Inauterietan, Ostegun gizen eguna. **Eguren zuri eguna** ere bai.

SASILETRAU, **sasiletraua**: izond. Jakintsu ustekoa.

SASIMEDIKU, **sasimedikua**: iz. Petri-kiloa.

SASOERATU: DA aditza. Adinean sasoi batera iritsi. *Aitta oiñ hil dan horren semiak be(de)ratzi ume jaukaz. Eta danak sasoeratu dianian, neska ta mutill, ba, danak kotxia.*

SASOI, **sasoia**: **1.** iz. Garaia, sasoia. **Sasoe** ere bai. **Sasoian kerixak**: Gauza bakoitzak bere sasoia, garaia duela esateko erabiltzen da. *—Zeiñek bota juan bertso berde hori? —Mendaroko gazte batek. —Sasoian kerixak! / Sasoi baten asko jute giñuazen Santa Eufemiara. **2.** iz. Osasun ona, indarra. *Hori dok, hori, sasoia! Nik hire sasoia banenu... **Sasoian egon, Sasoiko egon.****

SASOIKO, **sasoikua**: **1.** iz. Adinekoa. *Kaleko gizonak, hi, gizon sasoekuak, e!* *—Hi, basarritarrak geizki bizi diela. Beittu'ik horra, hi, puruakin danak!* **2.** izond. Pertsona sasoikoa, indartsua. **3.** izlag. Garaikoa. *Sasoian bakoitzian sasoeko berdurak jan biha'ia.*

SASTRAKA, **sastrakia**: iz. Sasitza.

SASTRE, **sastria**: iz. Jostuna, ogibidez josten duena. **Jostuna** ere erabiltzen da.

SATANDERA, **satanderia**: zool. Erbinudea, “comadreja”.

SATISFETXO, **satisfetxua**: izond. Pertsona harroa, handiustea. *Satisfetxo bat zuan gizon haura.*

SEGA, **segia**: iz. “Guadaña”.

SEGA-JOKO, **sega-jokua**: iz. Herri-kirrola: segarekin ahalik eta belar gehien moztu behar izaten da.

SEGITTUAN: adlag. Berehala. *Kastellana baldin bazan eo... geiztuaua, baiña euskalduna bazan, segittuan dominatzen najittuan.* **Segiduan** aldaeran ere erabiltzen da. *Ni enixela. Bera etortzeko segiduan. Da halaxe etorri zan. / Hori Freiren industria hori ere hortarako dedikau zeben segiduan. **Belaxe** ere erabiltzen da, nahiz gutxiexago. Denborazko perpausak osatzeko ere erabiltzen da adberbio hau: **-tu eta segittuan.** *Erten biha(r) zuan bazkaldu ta segittuan.**

SEGUN: Zehargalderetan erabiltzen den sarrera-lokailua. Adinekoen artean gutxi erabilia: horren orde zehargalderak erabiltzen dituzte, zenbaitetan korrelazio-egitura gisa: *—Zuk pentsetzen dozu, gogorra dala basarriko lana? —Basarriko lana? Bueno, zela hartzen dan da. / Ze nahi zaban, hauraxe ekartze zion / Ze konformidade daukaun, hortxe dao gorabeheria. / Mapa bat ipiñi han, lau fletxa ipiñi, ta segun nundik zatorren abioia, “Ese es de los nuestros”.*

SEGURANTZIA EUKI: esap. Segurtasuna izan. *Asko igertze jauek. Bai. Eta nik badaukat segurantzia.*

SEKO: adlag. **1.** Sakonki lo egon, gelditu. *Seko geldittu dok lotan. **2.** Hil. *Hormia jo, eta seko geratu dok.**

SEKULA: Inoiz. *Oiñ, sekula baino hobeto bizi gera, ointxe, bixok bakarrik, kapritxo guztiak eiñ... **Sekula halakorik!** Harridurako esklamazioa. **Sekula santan**: Inoiz ez. *Sekula*-ren forma in-*

dartua, adierazgarria. *Sekula santan enok etxe horretara sartuko!*

SEKULA-BEDAR, sekula-bedarra: bot. Ikus **Sekular** sarrera.

SEKULAKO, sekulakua: izond. Sekulakoa, oso handia. *Sekulako kolpia hartu juan bizikletatik jausitta. Sekulakuak hartu, gertatu, esan...* Handia(k), demasa(k) hartu, gertatu, esan... Ikus *egundokua / demasekua / makalekua / kristona (-k)...* sarrerak.

SEKULAR, sekularra: bot. Hirusta, sekula-belarra. **Sekular buruzurixa.**

SEME, semia: iz. "Hijo". **Nungo semia izan:** *Freire hori etorri zan Vigotikan, Vigoko semia zan, Galiziakua.*

SEÑA, señak: iz. Helbidea; pluralean, normalean: **señak.** *Eman Joxen señak, kartia bialtzeko.*

SENDAU: DA aditza. Sendatu, osatu. **Saniau** aditza gehiagotan.

SETIENBRE, setiembria: iz. Iraila. Adinekoek ez darabilte **Iraila.**

SIKATU: DA aditza. Leortu. **Lehortu** ere bai.

SIKIERA: lok. Behintzat, bederen eta gisakoen kideko lokailu erdaratikoa, nahikotxo erabiltzen dena. *Zortzi mila peza ta partidu fubola ikustia, orduderdixan kanpo librian haizia ta eurixa iual da, han, zer da hori? Sikiera, pelota-partido bat, ba, "dos mil kinientas" kobratze izue, "tres mil", da sartze zara lau t'erdietan, da ertetzen dozu illuntziko zortzi txerdietan: epel-epel-epelian zaure. / Eta oiñ, sikiera, koxiak in jute zara, eta di-da ekarri! / Hotza, ziberokua! Ballegoixi-tta, Bi-*

goin-da baiño hotzaua. Han, sikiera, eguzkixak jotzen deu.

SIKU, sikua: 1. izond. fig. Argala. *Ganaua, bai. Lau eo bost behi, baiña sikuak orduan [gerra denboran].* 2. izond. Lehorra.

SIKUTE, sikutia: iz. Lehortea.

SIMAUR, simaurra: iz. Satsa, simaurra. **Simorra** ere bai. **Simaurketan jardun, simaurretan jardun.**

SIMAURKETAN (JARDUN): adlag. Zelai edo soro batean, simaurra zabal-tzen aritu. **Simaurretan** ere bai.

SIMOR, simorra: Ikus **Simaur.**

SINISTUTA EGON: Konbentzituta egon. Perpaus osagarria goberna dezake. *Sinistuta nao egoera honek bueltia ekarriko dabala.*

SITS, sitsa: zool. "Polilla", gau-tximeleta txikia, oihalak jaten dituen. *Sitsak janda dao soiñeko hori.*

SOIÑUJOLE, soiñujolia: iz. Trikitilaria. *Hau zan gure erromerixako soiñujolia.*

SOKAMUTUR, sokamuturra: iz. Herriko jaietako jolasa; zezenari lepoan soka lotzen zaio, eta kalerik kale ibilazten dute.

SOKASALTUAN: adlag. Haurren jolasa, batzuek sokari eragin eta beste batzuek jauziak egiten dituzte. *Sokasaltuan-da ibiltze giñan.*

SOKATIRA, sokatiria: iz. Haur-jolasa eta herri-kirola. Bi taldek soka baten alde banatik tira egiten dute, eta indar handiena duen taldeak irabazten du.

- SOLDAUTZA, soldautzia:** iz. Zerbitzu militarra.
- SOLTE, soltia:** iz. Solte egiten den dantza.
- SOMAU:** DU aditza. Sumatu, sentitu. *Eta Urkaregittikan aurrera, Markiñara sartzen zaudezenian ere, tak, somauko (d)ozu diferente. Diferente zera... hizkeria.*
- SORO, sorua:** iz. Lantzen den lur saila. **So(r)o-barrena. So(r)o-guena. Solo** aldaeran ere entzun daiteke, nahiz gutxiago.
- SORTA, sortia:** iz. Landare- edo lore-sorta. *Lora-sortia, gari-sortia. Txorta* aldaeran ere bai. **Azao** ere erabiltzen da: **gari-azaua.**
- SOSIUZ:** adlag. Poliki, astiro. *Nik gerrako kantuak jakixaz mordua. Ni sosiu-z-sosiu-z haste naizenian, da! jota illaria jaukat!* **Poliki** eta **astiro** ere bai.
- SOZIEDADE, soziedadia:** iz. Kirol-, kultura- nahiz gastronomia-elkartea. Elgoibarren, adineko jendeak ez darabil **elkarte** hitza; beti **soziedadia**. *Hi, gero eongo gaittuk, soziedadian daukau afarixa ta.*
- SOZIO, soziua:** iz. Kidea, bazkidea. *Haura plazatarra zan, Plazan bizi zan, baiña malatarrekin sozio. / Anaixakin jarri zan sozio tallarian, eta gustora.*
- SU-KANPAI, su-kanpaiak:** iz. Sua izaten denean jotzen diren kanpaiak.
- SUBE, subia:** zool. Sugea.
- SUBE-BEDAR, sube-bedarra:** bot. Su-geen janaritzat hartzen den lorea duen landarea, “aro”.
- SUBELINDARA, subelindaria:** zool. “Lagartija”.
- SUEGRA, suegria:** iz. Amaginarreba. *Oiñ eztao etxera ezkontzerik, ui! Suegrian ondora, ez! Amagiñarreba* ere bai.
- SUERTAU:** DA aditza. Gertatu, egokitu. *Eta ni komandantiakin, eta suertau giñan momento txar batian.*
- SUIÑ, suiña:** iz. Suhia.
- SUTAN JARRI:** DA aditza. fig. Oso haserre jarri.
- SUTU (argixa):** DU aditza. Piztu. **Argixa bota** ere bai.
- SUTU:** DA aditza. fig. Piztu. Asko berotu. **Sututa ibilli:** Norbait oso berotuta, haserretuta ibili. *Etxakok ezer ondo ataratzen, eta sututa dabik Pedro.*
- SUZKO ERROBERA, suzko erroberak:** fig. Su artifizialak, oro har, era guztietakoak. Ikus **Etxaplio** sarrera.

t

TAJADA, tajadia: iz. Haragi-xerra. *Lau tajada erosi dittut gaur afaltzeko. Tajaria* aldaeran ere bai.

TAJUJ: adlag. Taxuz, itxuraz, egoki. *Tajuz berba ein bi'ok jende aurrian, e!*

TAKAR, takarra: izond. Pertsona hezi-gabea, gauza landugabea, lakarra, desatsegina. *Gauza takarra, baiña sanua da. / Lan takarra dao asko basarrixan.*

TAKATEKO, takatekua: onomat. iz. kolpea. **Taka** onomatopoiari dagokion

izena. *Eta bestela bialtze zixen zapata zikiñekin formauta igual, eta garbitzera, atzera kuartelera bialtze zixen. Eta igual takatekoren bat, gainera, ma-traillekoren bat igual. **Takadia.** Haus-ten ez den segida bat. Takada batian ein dittu hamabost tanto Olaizolak.*

TAKIAN-POTIAN: adlag. Sarritan, noiznahi. *Bilbora ta, Donostiara ta, ta-kian-potian juan biharra izate zaban. Mutill fiña bera.*

TAKIAN-TAKIAN: adlag. Tarteka-tarteka, denboran nahiz espazioan. *Nere denporan beti hortantxe ibili gea, ta oiñ eskuakiñ e, zerik, pañuri(k) pe, holaxe oiñ. Ta behetik goruzkuan ere kolpe eitxen, kolpe eitxen, takian-takian, kolpe eitxen. / Takian-takian, kolpe eitxen jauan keixa ontzixari. / Hik segi aurrera, eta takian-takian esola bat sartu bi'ok.*

TALENTO, talentua: iz. Bizimodua, jira. *Etorri txa, ba, neguan, basarriko mutillak eta ere, ba, neguan sei bat hilla-bete ero ein da, gero fuera. Udan zea, bedarra ebai, ero ardixak zaintxu ero zeoze, ta beti... –Bai, lana beti da... –Orduan holakotxe talentua zauan be-men da.*

TAMAIÑA, tamaiña: iz. Neurria, tamaina. **Tamaiñan:** Neurri egokian. *Lana, tamaiñan eittia gustatze jata neri. / E, baiña pentsau ein bi'ozu, Joxe, oingo tamaiñan aguantatzia, e!*

TANBOLIÑ, tanboliña: iz. Gaztainak erretzeko danborra. **Danboliñ** aldaeran ere bai.

TAPAU: DU aditza. Kiroletan, beste norbaiten marka ondu edo hari irabazi. **Ondu** ere bai.

TARDAU: DU aditza. Denbora behar izan, iraun, luzatu. *Denporia tardatze zan asko basarrittik kalera bajatzen.*

TARIÑ, tariña: zool. “Tarin”, txori txiki mota bat. Debarrei esaten zaie **tariñak**, dirudienez haien hizkeraren entonazio bereziagatik.

TAS-TAS EIÑ: haur. Jo.

TEATRO, teatrua: iz. Antzerkia.

TEMA, temia: iz. Eztabaida, egoskorke-ria. **Teman ibilli:** istilutan, eztabaidan ibili.

TEMOSO, temosua: izond. Pertsona tematia. *Temosua da, ba, benetan, gure semia! Berak nahi dabana ein arte etxok deskantsatzen. **E(g)oskorra** ere bai*

TENTEL, tentela: izond. Ergela, inozoa, leloa.

TENTETU: DA aditza. Zutitu.

TERRAL, terrala: iz. Haize oso hotz eta lehorra, izotza ekartzen duena.

TERRIBLE, terriblia: Izugarria. Asko erabiltzen da esaldi adierazgarrietan. *–Terriblia dok gure Jabier, e! –Bai, bai, alper hutsa dok! / Eibar keixan, terriblia! Herri haundixa ere bai, txa hartarakuak, hartarakuak [gerezizaleak].*

TETE: haur. Txupetea.

TIA, tia: iz. Izeba. Gaur egun askoz gehiago erabiltzen da **Izeko** baino.

TIO, tio: iz. Osaba. Gaur egun gehiago erabiltzen da **Osaba** baino.

TIRA!: interj. Zerbait ukatzeko erabiltzen den interjekzioa. *–Zenbat ikexikogendun, ba? Atzera ahiztuta ere gehixe-*

na. –Normala. –*Tira!* Hiruroeta hamar urtekiñ, ze nahi dok pa?

TIRADA, tiradia: iz. Ibilbidea. *Ni neu, egixa esan, kaletik hona ta hemendik kalea bankaz ibiltzeko enaiz gauza, tirada haundixa dao.*

TOKAU: DA eta ZAIIO aditza. Egokitu. *Ixa Elgoibarko torrian alturara ixo zan erreka ura. Demasa! Eta horrek danak ikustia tokau jaku, gerran.*

TOLARE, tolaría: iz. Sagardoa egiteko, sagarretatik zukua ateratzeko tresna; duela gutxi arte, Elgoibarko baserri gehienetan omen zegoen. **Dolaría** aldaeran ere bai.

TOLOSTAU: DU aditza. Tolestu. *To-lostau al dittuzu izarak?*

TOMA EIÑ!: interj. Uko egin. *Horrek anaixok gaztetan etxaudezak larre moztzian ohittuta, eta toma eitte jauek lanari! / Toma bera bakarrik ere bai: “Ni honekin enajiek”. Toma Jesusek!*

TOMATE, tomatía: bot. Tomatea.

TONTAMENTIAN: adlag. Asko uste izan gabe. *Tontamentian, amaittu juau lana.*

TONTE(R)IXA, tonte(r)ixía: iz. Tontousaina. *Txorousaiñ eta tontousaiñ* ere bai, gehiagotan gainera. *Ze kontauko (d)ot, ba, nik? Tontexaren batzuk.*

TONTO/-A, tontua/tontía: izond. “Tonto”, “tonta”.

TONTOLAPIKO, tontolapikua: izond. Pertsona ergela, tentela.

TONTOLISTO, tontolistua: izond. Espabilatua, berearekin irteteko tonto-

tzat edo despistatutzat pasatu nahi duena. *Etxok, ez, rondarik pagauko: tontolisto ederra dok hori.*

TONTOUSAIÑ, tontousaiña: iz. Ergelkeria, tentelkeria. Ikus **Usaiñ** sarrera.

TOPAU: DU aditza. **1.** DU aditza. Topatu, aurkitu. **Billau** ere bai. *Caracasen, jentia dana dirututa, baiña lelengo jun tzianak ez zebeñ topau, harek ez zebeñ ezer ere topau.* **2.** DU aditza. Topatu, bilatu. **3.** DU aditza. Iritzi, iruditu. *Nik beti topau dot ondo hori [ETBren euskara], eztaikitx honek ze esango daban baiña Euskal Telebista garbixa topau dot nik beti, e!*

TOPOLINO, topolinua: iz. Botila txikiko garagardoari esaten zitzaion lehen. Gaur egun, ez da erabiltzen gazteen artean.

TORTOLA, tortolia: zool. “Tórtola”.

TOTAL: grad. Erabat, zeharo. *Hor total diperentiak dia [ETBn, euskarari dagokionez]. / Bilbon sartu giñanian gu, lanian sartu giñan tallar baten. “Universidad de Deusto”, Salesianos. Da oiñ ganbixauta dao total.*

TOTXI: Ganaduari (behorrei eta ardiei, adibidez) deitzeko erabiltzen den soinua.

TOZI: Ganaduari deitzeko soinua.

TRABARIK EZ EIÑ: esap. Nonbaitera ez garelá joaten adierazteko erabiltzen da. *Pelotia asko gustatze jata, baiña frontoietan eztiot inori traba askorik eitten.*

TRABES, trabesa: iz. Pilotan, bola-jokoan, ahari-jokoan... egiten den

- apustua beste batzuen jokoari dagokionez.
- TRABES:** adlag. Oker, zeharka. **Trabeska** ere bai.
- TRANKA, trankia:** iz. Baserriko atea ixteko burdina.
- TRANKILL, trankilla:** izond. Pertsona lasaia. **Lasaixa** eta **Nasaixa** ere bai.
- TRATANTE, tratantia:** iz. Ganadu saleroslea.
- TRAZA, trazia:** iz. Antza. *Neska txikixa, neska txikixa bai. Mutillan trazia euki, illian da... / Zueri esnia eramanda nauala [uste dut]. Trazia bezela hartu diot. Antza* ere bai.
- TRIBULI, tribulixa:** zool. Txori txiki mota bat.
- TRIKITI, trikitixa:** iz. Soinuarekin eta panderoarekin jotzen den musika.
- TRIKU, trikua:** zool. Kirikinoa, sagarroia. Ikus **Kirikixo** sarrera.
- TRINIDADIAK:** iz. Elgoibarren egiten diren Trinitate jaiak, Mendekoste ondorengo igandean egiten dira, maiatzaren amaieran edo ekainaren hasieran.
- TRIPA TRUKE:** postposizio-sintagma. Lanen bat janaren truke egin.
- TRIPAK JATEN EGON:** esap. Norbait asko sufritzen egon. Urduri egon, gai bat burutik kendu gabe darabilela.
- TRIPAZORRI, tripazorrixak:** iz. fig. Tripek egiten duten zarata, gosea; pluralean normalean. **Tripazorrixa eñ, Tripazorrixak euki, Tripazorrixak dantzan hasi.**
- TRIPETATIK IBILI:** esap. Beherakoa izan.
- TRIPOTX, tripotxak:** iz. “Menudillos”, “tripas de cordero”.
- TRISTURA, tristuria:** iz. Tristura. **Barruko tristuria:** Tripetako tristura.
- TRONPA, tronpia:** iz. Haur-jolasa, “trompa, peonza”.
- TRONTZA, trontzia:** iz. Herri-kirola, zeinetan zerra handi batekin (**trontzia**-rekin) enborrak moztu behar izaten baitira.
- TRUKAU:** DU aditza. Bihurritu. *Orkattillia trukau jok fubolian.*
- TRUKE (zeozeren):** postpos. Ordainetan. **X-ren truke.** Gauza bat beste gauza baten truke eman, beste gauza baten ordainetan.
- TRUNBOI, trunboia:** iz. “Trueno”. **Trumoi** aldaeran ere bai.
- TRUMOI, trumoia:** Ikus **Trunboi.**
- TTAK:** onomat. *Ur apurtxo bat botatze jauat bakar-bakarrikan (landariari). Hola eñ, eta ttak!*
- TTIRRI-TTARRA:** onomat. *Larogeta hamar urtekin, hor dabil gure Inazio, ttirri-ttarra.*
- TUTIK ERE EZ (jakin, entendidu):** esap. Ezer ere ez jakin. *Horrek tutik ere etxakik euskeraz, bizi guztia hemen eñ arren. / Umiak euskeraz entenditzen dabe, eta aittak eta amak tutik ere ez.*
- TXABALITO, txabalitua:** iz. Mutil koskorra. *Nik eztot pentsatzen zahartu naizenik. Ezta gitxiarik ere! Ni txabalito bat sentitzen nok. / Ba, juate giñuan gu*

txabalitotan, *beatzi-hamar urte orduan-txe*, *da kanpantorrera*.

TXAHAL-EITTE, **txahal-eittia**: iz. Txahala jaiotzea. *Gure aitta zanari nao entzunda ni, ba, hamen orduan baziala soldauak gabian, eta txahal eittia kortan.*

TXAHAL, **txahala**: **1.** iz. Ternero. **2.** iz. fig. Gonbitoa.

TXAHALA EIÑ: **1.** DU aditza. Behiak txahala egin **2.** lgart. Oka egin. *Gehixegi eran najuan bart, eta atzenian txahala ein najuan etxeko portalian.*

TXAKUR, **txakurra**: iz. Txakurra. **Txakurrak ere eza(g)utu**: Denek eza-gutu. *Haura Elgoibarren ezagutzen eztaban txakurrik eztago. Txakurra ta katua bezela ibili*: (Bi lagun) ondo ez konpondu, beti liskarretan ibili. **Txakurrak hankautsik han ere**: Gauza txarrak edo okerrak leku guztietan gertatzen direla adierazteko erabiltzen da. **Txakurranak esan**: Sekulakoak esan. **Txakurrari ere ez opa (zerbait)**: Gauza oso desatsegin bat inori opa ez diogula adierazteko.

TXAKUR-EZTUL, **txakur-eztula**: iz. Kukurruku eztula. **Kukurruku-eztula** ere erabiltzen da.

TXAKUR HAUNDI, **txakur haundixa**: iz. “Perra gorda”, pezetaren 10 zentimo. *Ba, litro esnia lau txakur haundixan ezin saldu.*

TXAKUR TXIKI, **txakur txikixa**: iz. Antzinako txanpon bat, pezetaren 5 zentimo balio zituena, gazt. “Perra chica”.

TXAMAR, **txamarrak**: iz. Zuhaitzetako adar txikiak.

TXANAL, **txanala**: iz. Garai batean, Altzola auzoan batez ere, erabiltzen ziren txalupa txikiak, salgaiak garraiatzeko. *Horren aitxitxa ibiltze zuan zerian... Txanalakin da, e! [Altzolan, ibaian].*

TXANDAPASA EIÑ: DU aditza. Txandan norbaitek beste norbaiti aurrea hartu; norbere txanda galdu. *Medikua-na jua biha naban, baiña txandapasa ein juat; hurrenguan juango nok.*

TXANKA, **txankia**: iz. pei. Hanka, izterra. Ikus **Txankaluze** eta **Txankamehe** sarrerak.

TXANKALUZE, **txankaluzia**: izond. Hanka luzek dituen.

TXANKAMEHE, **txankamehia**: izond. Hanka meheak dituen. *Txankamehe bat dok nere lagun andria [hankamehea].*

TXANKULU, **txankuluak**: iz. Eguerezko oinetakoak, zuekoak.

TXANPIÑOI, **txanpiñoia**: bot. “Champiñon”. **Txanpiñoie** ere bai.

TXANTXAGORRI, **txantxagorrixa**: zool. “Petirrojo”.

TXAPEL, **txapela**: **1.** iz. “Boina”. **2.** iz. Mendi-tontor baten inguruko lainoa. **Karakateko txapela**: Karakate mendiaren tontorra lainoak hartuta dagoenean, eguraldi txarra dakarrela esan nahi du normalean.

TXAPLIO, **txapliuak**: Ikus **Etxaplio** sarrera.

TXAR, **txarra**: izond. Txarra. **Txarrera hartu**: Gaizki hartu. **Txarrian**: Gogorrear, txarrean. *Onian ona nok, baiña txarrian...*

TXARA, txaria: iz. Berez sortutako basoa (pagadia, artadia...), hark sortzen duen gunea, gerizpea.

TXARRANKA-ZOPA, txarranka-zopia: iz. Txarri-hankarekin egindako zopa.

TXARRERAKO, txarrerakua: iz. Txarrerako joera izan, asmo txarrak izan. **Txarrerakua euki.**

TXARRI, txarrixa: izond. Irain moduan asko erabilia. Hala ere, lagunartean, ez du beti, nahitaez, zentzu iraingarria. *Hi, txarri hori! Etorri hari hona! Kottxino!* ere erabili izan da. **Txarri eñi:** Asko zikindu. *Holako lokatzia. Sartu hanka bat, eta jota erropak eta dana txarri eñi, eta bua! / Txarri einda gelditzen dok San Frantzisko kalia zapatu gabetan.* Ikus **Txarri zikiña!** Irain moduan erabiltzen da hau ere.

TXARRIBODA, txarribodia: iz. Txerri-hiltzea eta horren ostean egiten den oturuntza.

TXARRI-KORTA, txarri-kortia: iz. Txerrien ukuilua. Leku edo gauzaren bat zikin eta nahasi daukagunean ere erabiltzen da. **Txarri-kortia bezela euki (zeoze):** *Autua txarri-korta bat bezela daukat: laste garbittu bihako dot.*

TXARRIDUN, txarriduna: iz. Txerrien tratantea.

TXARRIKERIXA, txarrikerixia: iz. Zikinkeria. *Ein biharra bai, kazan. Basurdia ta txarrikerixia badago baztarretan!*

TXARRIKI, txarrikixa: iz. Txerri-okela edo txerrik eratorritako edozein elikagai.

TXARTEL, txartela: iz. fig. Isuna. **Txartela eñi:** euf. Isuna egin, ipini. *Kalian kotxia nun lagarik eztao. Errekauetara junda ere, segitxuan daukazu aguazilla txartela eitzen.*

TXATXAR, txatxarra: izond. Pertsona mirrina, mengela. *Neska txatxar bat zuan etxera etorri zana.*

TXATXARA, txatxaria: iz. Arduragabeheria. *Hori dok txatxaria, hori!*

TXEPEL, txepela: izond. Pertsona makala. Sinplea. *Pertsona txepela dok hori, etxakak ez nerbixorik, ez ezer!*

TXEPETX, txepetxa: zool. "Chochín".

TXIKITEO, txikiteua: iz. Txikitoak edanez, tabernarik taberna ibiltzea.

TXIKITO, txikitua: iz. Basoerdia. **Txikitua jo:** txikitua edan. *Txikito bat jo biha juau hamen, Txarridunanian.*

TXILIBITO, txilibitua: haur. Zakila.

TXILIXO, txilixua: iz. Garrasia.

TXIMA, tximia: iz. pei. Ilea. Pluralean eta zentzu gutxiesgarrian, askotan. *Horrek dittuk tximak, horrek! / Mutill tximaluze bat etorri dok ate joka, eta etxauat atia iriki.*

TXIMISTA, tximistia: iz. Tximista. **Oiñaztarrixa** ere bai.

TXINBO, txinbua: zool. "Chimbo".

TXINDURRI, txindurrixa: zool. Inurria.

TXINGA-ERUATE, txinga-eruatia: iz. Herri-kirola, zeinetan ahal diren plaza gehien egin behar izaten baita esku bat natan pixu bat (**txinga**) eramanez.

- TXINGOR, txingorra:** iz. Kazkabarra. **Harrixa** ere bai. **Txingor-zaparradia.** *Dana puntu-puntuau dauanian botatze'izu txingor-zaparrada bat eta danak hondautu lagatze'ittu*
- TXINPARTA, txinparta:** iz. Inarra, pindarra. **Txinpartak etarutzen ibili:** fig. Sututa, sua dariola. *Txinpartak etarutzen jakik* Miren, eta ez hari beragana hurreratu.
- TXINTXARRI, txintxarrixa:** iz. Zintzarria.
- TXINTXILIZKA:** adlag. Zintzilik.
- TXIO, txiua:** 1. zool. Txori txiki mota bat, "Mosquitero". 2. iz. Txorien kantua. Ikus **Txioka**.
- TXIO-TXIO:** haur. Txoria.
- TXIOKA (jardun):** DU aditza. Txoriak kantuan jardun. *Hor dabiz, goizian goizetik, txorixak txioka.*
- TXIPIROI, txipiroia:** zool. "Chipirón".
- TXIPLI-TXAPLA IBILI:** haur. Urarekin jolas egin.
- TXIPRIZTIÑ, txipriztiña:** iz. Zipriztina.
- TXIRIPA, txiripia:** iz. Kasualitatea. *Txiripaz irabazi zaban partidua.*
- TXIRLO, txirlua:** iz. Bola-jokoan, bola-rekin jo beharreko makila. Elgoibar inguruan, hiru txirlorakin jokatzeko da boletan.
- TXIRRIÑ, txirriña:** haur. Zilborra.
- TXIRRINBOLA, txirrinbolia:** Haur-jolasa, Uztaia. *Txirrinbolia zan aro bat. O egurrezkoa, burdiñezkoa, ta barilla bat eiñ hola, ta bueltaka jute zana.*
- TXIRRISKILLA, txirriskillia:** zool. "Verdecillo".
- TXIRRIST EIÑ:** Ikus **Irrist eiñ**.
- TXISKERO, txiskerua:** iz. Pizgailua.
- TXISTU, txistua:** iz. Hiru zuloko txirula.
- TXISTULARI, txistularixa:** iz. Txistua jotzen duen musikaria.
- TXITTA, txittia:** zool. Txita. "Pollito". **Txita** aldaeran ere bai.
- TXITTIK BESTE JAN:** esap. Oso gutxi jan.
- TXITXARA, txitxaria:** zool. "Lombriz".
- TXITXI, txitxixa:** zool. Txori txiki mota bat.
- TXITXI, txitxia:** haur. Okela.
- TXIX, txixa:** iz. Txiza, pixa.
- TXIXAGURE, txixaguria:** iz. Txizagura, pixagalea. **Txixalarri** erabiltzen da gehiago.
- TXIXALARRI, txixalarrixa:** iz. Txizagura, pixagalea. Baita **Txixaguria** ere.
- TXOFER, txoferra:** iz. Gidaria. **Txofer jakin:** Autoa gidatzen jakin. *Txofer banakixan*, karneta banaukan garai haretarako.
- TXOKANTE, txokantia:** izond. Harritzekoa, harrigarria. **Txokatzekua** ere bai. *Txokatzekua dok, ba, Miren zinera ez etortzia.*
- TXOKAU:** ZAI O aditza. Harritu. *Esate jako, baiña ezteu nahi erten ere. Txokatzekua jatak hori hola izetia!* **Harritu** ere erabiltzen da.

TXOLIÑ, txoliña: izond. Pertsona berritsu eta kaskarina. Batez ere emakumeei zuzentzeko erabiltzen da.

TXOMIN(TXO) ETORRI: haur. Logurea etorri. Baita **Asto zurixa etorri** ere.

TXONDOR, txondorra: iz. Landare-ikatza egiteko egur-pila.

TXOPO, txopua: bot. “Chopo”. **Makala** ere bai.

TXORI, txorixa: iz. Txoria. **Txorixak akabatzeko moduko berua eiñ:** izugarrizko beroa egin. **Txorixa baiño ariñaua izan:** oso arina izan. **Txorixak baiño buru gitxiago euki:** buruarina izan.

TXORIBURU, txoriburua: izond. Pertsona kaskarina.

TXORIKUMA, txorikumia: iz. “Polluelo”.

TXORIMALO, txorimalua: 1. iz. (Txori-)izugarria. 2. izond. fig. Pertsona tentela. *Ene! Makiña bat txorimalo-useiñ hartu jok grabadoriak!*

TXORO, txorua: izond. Eroxka, buruarina. *Bai, hor ibiltzen da hori, txoruan moduan. Iñok eztiio ezer eitxen, baiña zaunketan jartzen da iñor etortzen denerako [txakurra].*

TXOROPITO, txoropitua: izond. Pertsona kaskarina, buruarina.

TXORO-USAIÑ, txoro-usaiña: iz. Txotakeria.

TXORRO-MORROKA: Haur-jolasa. Astoka ibili. Bi talde egiten ziren; talde batekoak makurtu egiten ziren, kate

bat osatuz, eta beste taldekoek gainera jauzi egiten zuten: salto egin duen taldeko kapitainak hatz bat jartzen zuen makurtuta zegoen lehenbizikoaren bizkarrean, eta, **txorro-morro-piko-taillo-ke** esan ondoren, honek asmatu egin behar zuen zer hatz jarri zuen: txorro (erpurua), morro (erakuslea), piko (luzea), taillo (nagia) ala ke (txikia).

TXORROSTADA, txorrostadia: onomat. iz. Ur edo edari apurtxo bat edalontzi batean botatzen denean ateratzen den zarataren onomatopeiari, **txorrost**-i dagokion izena. *Hi, bota'ixok kafari patxar-txorrostada bat.*

TXORTA, txortia: 1. iz. Sorta, “ristra”. *Eta porruak zakazen eztakit zenbat, hola txorta baten. Sorta* aldaeran eta **Azao** ere bai. 2. iz. Sexu-harremana. **Txortan eiñ:** lgart. Larrutan egin, larrrua jo.

TXORTEN, txortena: bot. Fruten buztantxo, txurtena. *Madarixan txortena ez'ik jan behintzat!*

TXOR-TXOR (jardun): adlag. onomat. Asko hitz egiten dutenengatik esaten da. **Txor-txor jardun:** berrikeretan jardun, etengabe. **Txor-txorrian jardun** ere bai.

TXOST: onomat. Zerbait zuloren batean sartzean ateratzen den zarataren onomatopeia; adibidez, kanika bat zuloan, edo pelota ezker-pareta eta lurra elkartzen diren lerroan. *Txost eiñez amaittu jua pelotapartidua.*

TXOTXOLO, txotxolua: izond. Pertsona ergela, tentela. *Txotxolua dok hori galanta!*

TXUERRE, txuerria: zool. “Gorrión”.

TXUKUN, txukuna: izond. Garbia, ordenazalea, egokia. *Ez, danian gu ondo hartu gaiztue oiñ artian: eo geu onak izen, eo txukunak isen, eo...*

TXUNDA-TXUNDA: haur. Musika.

TXURRUT, txurruta: Edanaren onomatopeia. Baita **Txurrust** ere. *Zaukazen apurrak txurrustian gatzatze jaittuan, eta akabo!*

TXUTXUMUTXU, txutxumutxua: iz. Esamesa.

TUNANTE, tunantia: izond. Pertsona alferra, alproja. Batez ere gazteez eta ikasleez esaten da, modu iraingarrian. *Estudiante, tunante.*

U

UAU-UAU: haur. Txakurra.

UBAR, ubarra: iz. Herdoila. **Uharra** aldaeran ere bai. **Herdoixa** ere bai, nahiz gutxiago.

UBARIXO, ubarixua: Ikus **Ugarixo**.

UBARROI, ubarroia: zool. “Cormorán”. *Altzolan ikuste ititut nik ubarroiak aingirak harrapatzen.*

UBARTU: Da aditza. Herdoildu.

UDA, udia: iz. Uda. *Udan eta neguan, Ondartza esate iuen hori beti hankautsik.*

UDAGUEN, udaguena: iz. Udazkena. **Udazkena** erabiltzen da gaur egun gehiago. *Lehenago, garixa ta ererre zan sasoi haretan, julio aldia izate zan.*

Gaur, en kanbio, hori eztao, eta udaguen aldian eoten da lanik gehixen kasikan.

UEZABA, uezaba: iz. Ugazaba.

UFAL, ufala: iz. Uholdeak. Pluralean normalean: **Ufalak**.

UGALDU: DA aditza. Ugaritu. *Hori dana kotxiak ekarri jok. Kotxia ugaldu danian, baztar guztiak kotxez lepo. Ugeldu* ere bai. *Oiñ dirua danian ugelduta.*

UGARI: adlag. Asko. **U(g)eri** ere bai.

UGARI, ugarixa: izond. Ugaria.

UKABILL, ukabilla: iz. Ukabila. **Ukabilka (jardun).**

UKULONDO, ukulondua: iz. Ukon-
doa.

ULERTU: DU aditza. Ulertu, aditu. **Enten(d)i(d)u** erabiltzen da gehiago. **Aittu** ere erabiltzen da. *Pixkat bai, aldia bai. Baiña ulertu dana. Enteniu? Bai!*

UMEL, umela: izond. Hezea. *Umelak daude erropak oindik: etxe honetan, kostatzen da sikatzia.*

UMIA ENKARGAU: DU aditza. Haurdun geratu. *Ba al dakizu Mirenek umia enkargau dabala?*

URAK EUKI: esap. Antza izan. *Aittan urak daukaz semiak. Aittan semia izan* ere bai; berdin gainerako ahaideekin: **Aman semia izan, Aittan alaba izan...** Baita **Aittan kastakua izan** ere.

URAK HARTU: esap. Bainuetxean, ur minerala hartu, hartan bainatu. *Udan*

jendia etortze zan Altzolara [Bainuetxera], urak hartzera.

URARRE, urarria: izond. Ur zikina, nahasia, lohitasun ugari duena. *Ta ura zikintze zanian, pixkat urarria eo zauanian da, ta jaso, ta iual barbu mordua ta, ra.*

URDAI, urdaixa: iz. Xingarra, urdakia.

URDAIAZPIKO, urdaiazpikua: iz. Pernila.

URDIÑ, urdiña: bot. Gibelurdina, perretxiko mota bat.

URDINDU (illia): ZAI0 aditza. Ilea zuritu.

UR-GELDI, ur-geldixa: iz. Putzua, ura geldirik duena.

UROILLO, uroillua: zool. “Gallineta”, uretako oiloa, ibai eta erreka bazterretan ibiltzen den hegazti txikia. **Uroillo haundixa** eta **Uroillo txikixa**.

URRI, urrixa: iz. Urria. Arruntago erabiltzen da gaur egun **otubria**.

URRIÑ: adlag. Urrun. **Urruti** erabiltzen da askoz gehiago, baina edadetuek **urriñ** ere badarabilte, tarteka.

URRITZ, urritza: 1. bot. “Avellano”. 2. bot. Kolore moreko perretxikoa, “Rúsula”.

URRUSA, urrusia: zool. Animalia emea. *Txabal urrusia jaixo jaku.*

URRUTI: adlag. Urrun. **Urrutiko in-txaurreak hamalau, gertura juandakuan lau:** Alegia, kanpokoa ez daukagula beti besterik gabe miresten ibili beharrik.

URTE, urtia: iz. Urtea. Urteak izendatzeko, erdarakadetara jotzen dute adinekoek erabat: *Ni jaixo nitzan “mil nobezientos treinta”.* Antzera gertatzen da bestelako zenbakiekin ere: *“Setenta i zinko” eingo dittut juniuan.*

URTEN: Ikus **Erten** sarrera.

URTIK EIÑ: DU aditza. Urteak bete.

UR-ZOZO, ur-zozua: zool. Uretan ibiltzen den zozo klasea.

USAIÑ, usaiña: iz. Hitz elkartuen bigarren osagai gisa sarritan, X-usaiñ: **ton-tousaiñ, txorousaiñ, txorimalousaiñ:** Txorakeria. **Useiñ** aldaeran ere bai, ez gutxitan.

USAIÑ EIÑ: DU aditza. Usaindu. Ez da erabiltzen **usaindu** gisako aditzik. **Usaiña hartu (zeozerena):** errezeloren bat izan.

USARIXO, usarixua: iz. Ohitura. **Ohitturia** eta **Kostunbria** (gutxiago) ere bai.

USAU: DU aditza. Ezagutu; erabili. *–Basarriko bizimodua gustatze jatzue zueri? –Bueno, gustau bai. Beti hauxe usau dou ta, badakizu. / –“Ardixa” ere esate diue batzuk, “ardixa”. –Nik eztot usau nik hori. “Arkakosua”, bai.*

USAUTAKO, usautakua: izlag. Bigarren eskukoa. *Ba, tratora bat nahi zaban, tratora usautakua, berrixa bi-hiru milloi eskatze zebala ta. / Eta, handik ero hamendikan usautako bat, besterik ez zauan da, usautako automobil bat ingurau zaban Freire horrek.*

USTE, ustia: iz. Ustea. **Uste(rik) gixienian:** Gutxien uste dugunean. *Eta*

uste gitxien danian tonterixak ere eitte'ittuk, e!

y

UZTAO, uztaua: bot. Belar txarren artean ezagunena.

UZTARRI, uztarrixa: iz. Uztarrria. Ikus **Buztarrixa** sarrera.

x

XAGU, xagua: iz. Sagua.

XAMUR, xamurra: izond. Samurra, erraz murtxikatzen den jakia.

XAMURTU: DA eta ZAIIO aditza. Katarroa bigundu. *Xamurtu jata pixkat katarrua.*

XAPII: Katuak uxatzeko soinua.

XEHETU: DU aditza. Zerbait txikitu, txiki-txiki egin. *Aguazilla etorri ezpalitz, hantxe bertan xehetuko juen haura mutilla.*

XELEBRE, xelebria: Ikus **Zelebrea**.

XIRRIZTO, xirriztua: iz. Atea erabat itxirik ez dagoenean uzten den bitartea.

XIXKO EIÑ: DU aditza. Apurtu, txikitu, hondatu, zentzu adierazgarrian. *Txankako zubiko azidenteko koxia xixko einda geratu zuan. / Bai, bai, hauraxe buruan [lana]... Hirurogei urterako ezin, xixko einda!*

XULDAR, xuldarra: iz. Zaldarra.

XURRUT: Edanaren onomatopeia. **Txurrut**-en aldaera.

YA LO KREO: interj. Mintzakideak esandakoa berresteko erabiltzen da, lagunarteko jardun zaindugabeen. *–Sei pezeta zuan biajia zeera, “ida y vuelta”. –Ta orduan sei pezeta asko izango zan... –Sei pezeta! Jolin! Ya lo kreo!* Perpaus osagarriak ere goberna ditzake: *–Astelen goizeko seiretan ertenda dao, hamendikan. Zu, hori gogorra da, e? –Ya lo kreo dala gogorra!*

z

ZABAL, zabala: izond. Neurriak adierazteko arruntagoa da **zabalian x metro izan**, *neurtu* aditza baino. *Eta luzian hartzen deu, ehun da larogeta... eztakitx hamahiru ala hamabi kilometro. Eta zabalian berrogeta bi. Osea, itxasua da, konpletamente itxasua.*

ZABALDU, zabaldua: iz. Laugunea. *Albitxuriko zabaldua dana tallarrez bete da. Laua* ere erabiltzen da.

ZAHAR: Aditz-partizipioa aurretik delala, ezezko forman, zerbait berriki egin dela adierazteko: **Jan zaharra, etorri zaharra...** *Jan zaharra enok, eta ez idak eman ezer merixendatzeko. / –Hartu izu tarta pusketa bat. –Ez, ez, ez gera bazkaldu zaharrak eta (Aspaldi bazkalduak ez izan). **Zaharrak berri:** Erantzun moduan erabiltzen da batez ere: *–Ze berri? –Zaharrak berri.* Nobedaderik gertatu ez dela adierazteko. Bukae-ran honako hau gehituta ere bai: **Zaharrak berri, gaztien amorragarri.***

- ZAHARTE(R)IXA, zaharte(r)ixia:** iz. Zahar-jendea. *Hamengua ezta geldittuko: hamengo zaharterixia juten danerako, gatzia dator berritz.*
- ZAILDU:** DA aditza. Ahalegindu, landu, gogortu (lan bat edo kirolen bat egiteko). *Pertsona zaildua dok hori.*
- ZAILL, zailla:** izond. Zaila.
- ZAINDDU:** DU aditza. Zaindu. *Umia zaindduko dozu, ni gaixorik nao ta? / Ardixak zaintzera jun zan Ameriketara. Zaindu ere bai, gaur egun gehiago.*
- ZAIÑ EGON:** DA aditza. Zain egon.
- ZAIN Tiratu, zaintiratu:** iz. Bihurdura muskularra.
- ZAKAR, zakarra:** izond. Desatsegina, gogorra. *–Jatuna naiz ni, e! Oiñ ere bai, oindiok. –Zakarra. Errietan itxe'iuet. Ahuan asko xehetu biha deu jatekua. / Haize zakarra ibili da bart gabian.*
- ZAKU-KARRERA, zaku-karrerria:** iz. Haur-jolasa, hankak zakuetan sartuta egiten den lasterketa.
- ZALE, zalia:** izond. Zaletua. *–Oiñ ere neskatan Inazio! –Bai, zalia dok txarri hori!* Atzizki modura ere bai, aditz-partizipioaren ondoren: *Eztok, ez, hori gauza berrixak probau zalia.* Atzizki arrunt moduan ere bai: **ardo zalia, gonazalia...** *Saltsa-gauza zalia nok, eta dezente jan.*
- ZALGA, zalgia:** bot. Gari artean hazten den belar txarra.
- ZAN, zana:** Zena, hila. Pertsona-izen edo senide-izen baten ondoren erabiltzen da normalean: X + zana. *Andra zanak ekarritakua dok. / Tolosatikan beratzi kilometro daure. Fernando zana hangotxia zan. / Han, nik aitta zanari entzuten nion lau zulo ziela. Baita -a mugatzailerik gabe ere: Gure aitta zan batek eta, asko lana. / Nere tio zan batek esate zaban eze hamen dabizen abioiak-eta, itxuria, amosperia dana jan dabe hor goikua. Difuntual-ia hitza ere erabiltzen da, nahiz gutxiago.*
- ZANAORIXA, zanaorixia:** iz. bot. Azenarioa.
- ZANKAPE, zankapia:** iz. Belaunaren atzeko alde.
- ZAPABURU, zapaburua:** zool. “Rencuajo”.
- ZAPARRADA, zaparradia:** iz. Eurijasa.
- ZAPATERO, zapaterua:** iz. Zapataria. **Zapateruak, oiñetako zaharrak.**
- ZAPATU, zapatua:** iz. Larunbata. *Zapatuetan eztok giro izaten Maala aldian!*
- ZAPELAITZ, zapelaitza:** zool. “Ratonero”, “busardo”, hegazti harrapari handia. **Arranbeltza** ere bai.
- ZAPLA:** Kolpe bat edo matraileko bat ematean ateratzen den zarataren onomatopeia. Handik eratorri dira **zapladia** eta **zaplatekua**.
- ZAPLADA, zapladia:** onomat. **Zapla** onomatopeiatik datorren izena, kolpea. *La ostia! Zaplada galanta atzapparretan, da hona itxurrira garbitzea auro.*
- ZAR, zarra:** izond. Handia, atzizki modura erabiltzen da, zerbait ohikoa bai-

no handiagoa dela adierazteko. *Hau dok etxezarra, hau. / Haura zuan tronkozar garaua! Garaua* ere erabiltzen da, *-zar*-ekin batera ere bai, ikusten denez.

ZARATA, zaratia: 1. iz. Zarata, hotsa. 2. iz. Zurrumurrua, esamesa. **Zaratia egon:** Zurrumurrua ibili. Perpau osagarriak goberna ditzake. *Za(r)atia dao separau ein zeatela. / Gaixorik dauan zaratia dao. / Zaratia dao gaixorik dauala.*

ZARRATRAJO, zarratrajua: izond. Pertsona zarpaila, gaizki jantzita dabilena.

ZART: onomat. Zer bait hautsi, pitzatu edo eteten denean ateratzen duen zarata.

ZARTADIA EUKI: esap. fig. Norbait burutik sano ez dagoela adierazteko ere erabiltzen da. **Zartaria** aldaeran ere bai. *Horrek jakak zartadia buruan! Pitzatua* ere bai, zentzu berean.

ZARTADA, zartadia: iz. Pitzatua. **Zart** edo **zarta** onomatopeietatik datorren izena. *Paretak zartadia daka [zartatuta dago]. / Hamen tirua, Juanitok hartu jok zartadia balia sartuta. Zartatekua* ere bai.

ZARTAU: DA aditza. Zartatu, pitzatu. *Ezpainak beti zartatze jakoz mendixan, haize hotzak.*

ZATI, zatixa: 1. grad.: **Zatixa ...-agua:** Dezente ...-agoa. **Zati bat ...-agua** ere bai. Baita (nahiz gutxiago) sozietiboan ere: **Zatixakin.** *Zatixa haundixaua da gure etxia. / Gaur alpertu ere bai zati bat, baiña kapazidadia bai. / Zatixakin jende gehixao etorri zian iez.* 2. “Peda-

zo, trozo”. *Goixa zauan behera etorritta zati haundi bat, jausitta.*

ZAUNKA: iz. “Ladrido”.

ZAZKAR, zazkarra: izond. Pertsona zakarra.

ZAZPIKI, zazpikixa: izond. Pertsona ipurterreei esan ohi zaie.

ZAZTA-ZAZTA: onomat. zztada baten onomatopeia. *Idixa ipintzen debe lotuta, atzian harri galanta, eta ezin badau ere zazta-zazta, eraiñ hantxe, akuluakin.*

ZE: gald. Zer. *Ze habill baztarrak nabasten? Zer* ere bai.

ZE: Perpau kausazko edo azalpenezkoetan erabiltzen den lokailua. *Bastante denporara izengo zan, ze normalizauta zauan gauzia.*

ZEIÑ: gald. Zein.

ZEIÑ BAIÑO ZEIÑ: esap. Lehia adierazten du. *Hor a(r)i zittuazen, zeiñ baiño zeiñ gehixao zan pelotan. / Horrek bixak zeiñ baiño zeiñ aldrebesauak dittuk.*

ZEKEN, zekena: izond. Zikoitza, xuhurra. **Xurra** eta **Zimurra** ere bai.

ZELA: gald. Zelan, nola. **Nola** ere erabiltzen da; ez, ordea, **zelan**.

ZELA: Kausazko perpauak osatzeko lokailua: **Zela ...-eN.** *Baiña hau zela dan landara haundixa, honek lur gehixao eskatze jok.* Ikus **Nola** sarrera.

ZELA-HALA: adlag. Nola edo hala. *Ein gendun behintzat hillebetiori zela-hala, ta atzera etorri giñan.*

- ZELAKO, zelakua:** izlag. Nolako. Ondoren izenondo bat edo adberbio bat duela ere erabiltzen da. *Zelako ondo ibili geran!* / *Zelako politta dan zure kotte berrixa!* / *Zelako ondo ibiltze'ian umiak hondartzan!* **Nolako** ere erabiltzen da.
- ZELEBRE, zelebria:** izond. Bitxia. *Hamen, ba, nik hau zelebria ikuste'ot, ez izetia bat, idioma euskeria, ta danian diperente.* **Pertsona zelebria:** Barregarria, bitxia, harrigarria. **Xelebre** aldaera palatalizatua ere badu.
- ZEMENDI, zemendixa:** iz. Azaroa. Gaur egun ia galduta dago, eta **No-bienbria** erabiltzen dute adinekoek ere.
- ZENBAITT:** zenbtz. Zenbait. *Zenbaittek uste dau dana libre dauala.*
- ZENTZUN, zentzuna:** iz. Konortea, zuhurtasuna. *Istripua izan dau, eta zentzuna galdu dauala entzun dot.*
- ZEOZER:** Zer edo zer. **Zeoze** ahoskatzten da testuinguru gehienetan.
- ZER DALA TA:** gald. Zergatik. Zer dela eta. *Zer dala ta zaude nerekin hasarre?*
- ZE(R):** gald. Zer. **Ze** ahoskatzten da testuinguru gehienetan.
- ZE(R) IKUSI (juan):** Ikusmiran joan. *Ze ikusi juan gaittuk kostaldera.*
- ZE(R)A:** Ahozko hizkuntzako makuluhitza, edozer kategoriatako edozer gauza ordezkari dezakeena. Hona hemen adibide gehiegizko, bortxatu bat: **Ze(r)eko ze(r)a ze(r)atu juat ze(r)ian.** Ondarruara juteko *zerarik* ez, eta beti *etxian*. / *Rejimentua zera zan, "sexta región veterinaria"*.
- ZERBAITT:** izord. Zerbait. **Zeozer** baino gutxiago erabiltzen da.
- ZEREN, zerena:** zool. "Carcoma". **Zerenak jandako egurra. Zerenak jota egon.**
- ZERTAN:** gald. Zergatik, kausazko galde-hitza. *Zertan ez zerate nere etxera etorri?* / *Eztakat zuri zertan esplikaziorik eman.*
- ZE(R)GATIK EZE:** Kausazko perpauseri hasiera ematen dien lokailua. *Etzan komeni han gelditzerikan, ze(r)gatik eze berriz ere beste disparto bat ero, neu hantxe nauala igual alleauko zan.*
- ZERKA, zerkia:** iz. Kalexka estua. *Nik neure umetako denporia gehixena pasau najuan, zea, hor Naparraneko zerkan bajatu? Presa azpizan? Eote giñan gu presa azpizan.*
- ZERRAU:** DU aditza. Itxi. *Zelai hori zerrautau daukau, bestela ganauak sartze'ia eta.* / *Gero, baguaz, Bianiako holako lehengo palaziuak ere badauaz. Zerrautau dauaz asko, baiña batzuk bai ikusteko moduan.*
- ZERRAU:** adlag. Itxi. *Probintziatumugatik harutz eta mugatik honutz, ze alde dauan? Han dana bizkaitarra eitte juek zerrau, zerrau eitte juek.*
- ZERTZUK:** gald. **Zer** plurala.
- ZÉRUAN (moztu illia):** adlag. Ilea arras moztu. *Baiña askotan soldauan kastingua illia zéruan moztia izate zan.*
- ZERZETA, zertzeta:** zool. "Cerceta".
- ZETAKA, zetakia:** iz. Gorputzean gertatzen den zikin-kostra.

- ZEZAIÑA, zezaiña:** iz. Zezina, gatzetan ondutako okela, gatzartua.
- ZIBILI-ZABULUAN IBILI:** Haur-jolasa. Zabuan ibili. Ikus **Zinbilizanbulua** sarrera.
- ZIDAR, zidarra:** iz. Zilarra. *Hartu eskutada bat pezetia, zidarra (...) orduko dirua. Da harek erun juan poza etxera!*
- ZIHARRETARA:** adlag. Zeharka, alboka.
- ZIHERO:** adlag. Zeharo, erabat. *Bi bizitza zian hor. Hau zauan zabarra. Eta ointxe dala hiru-lau urte berritxu ein naban dana zihero.*
- ZIHEROKO, ziherokea:** Erabatekoa. **Ziherokea ez izan:** Pertsona erabat normala ez izan.
- ZILBOR, zilborra:** 1. Zilborra. 2. fig. Sabela, tripa. *Horrek daka zilborra, horrek!*
- ZILL, zilla:** iz. Zilborra.
- ZIMELDU:** DA aditza. Landare bat ihartu, lehortu.
- ZINBILI-ZANBULUA:** Haurren jolasa, zabua, kulunka. **Kulunpikuak** ere erabiltzen da gaur egunean. Baserrietan, hurbil zegoen arbola bateko adar lodi batean esekitzen zen zinbuluzanbulua: soka bat eta esertzeko zaku bat behar ziren.
- ZINTTA-KARRERA, zintta-karrerria:** iz. Haurren eta nagusien jolasa. Txirrin-du baten gainean doala, eta hura gelditu gabe, jokalariai zotz bat sartu behar du esekita dagoen eraztun batean: lortzen badu, sari bat eroriko zaio. Altzolan asko jokatzen zen oraintsu arte.
- ZIRAUN, zirauna:** zool. Sugearen antzekoa, pozoirik ez duena. “Lución”.
- ZIRIMIRI, zirimirixa:** iz. “Llovizna”.
- ZIRIÑ, ziriña:** iz. Hegaztien gorotza. **Oillo-ziriña.**
- ZIRIXA MODUAN GERATU:** esap. Oso argal geratu.
- ZIRIXA SARTU:** DIO aditza. Adarra jo, engainatu. Ikus **Adarra jo** sarrera. *Erramon beti jabik daneri zirixa sartu nahixan.*
- ZIRT-(EDO)-ZART (egin):** esap. onomat. Etsi-etsian erabaki. *Zirt edo zart ein biha juau, eta behingoz erabaki.*
- ZITTAL, zittala:** izond. Zitala, jenio txarreko pertsona, doilorra. *Hutsagatikan berotzen dok hori, zittal hutsa dok! / Pertsona zittala da hori: kontuz ibili hari!*
- ZIZA, zizia:** bot. Ziza. Ikus **Zuza**.
- ZIZTRIÑ, ziztriña:** izond. Pertsona ziztrina, mengela.
- ZOKOR, zokorra:** iz. Soroko lur koskorra. **Erpill** ere bai. *Zokor-mazua baiño tontuaua dok.*
- ZOPAK EIÑ:** Haur-jolasa, harri zaplanak uretara jaurti eta hari ur gainean jauziak eginaraztea.
- ZOR ZAHARRA, ZOR TXARRA:** esaer. Aspalditik daukagun zorra gauza ona ez dela adierazten duena.
- ZORAMEN, zoramena:** iz. Eromena, zorotasuna. *Zoramena izan da gaurko goiza: enaue bakian laga miñutu batian ere.*

- ZORIONEKO, zorionekua:** izlag. Delako, ditxosozko. *Zorioneko* “*Gran Hermano*” hori! Zer daka, ba, hainbeste jendek ikusteko?
- ZORNA, zornia:** iz. Zornea. **Pasmua** ere bai.
- ZORNA-BEDAR, zorna-bedarra:** bot. “*Cardo enano*”.
- ZORO, zorua:** izond. Eroa. *Sigmakua-ero zan, da mozkorra ero erdi zorua ero estakitt ze zan.*
- ZORO-HAIZE, zoro-haizia:** iz. Hego-haizea. Ikus **Hego-haize**.
- ZORRIXA BAIÑO ALPERRAGUA IZAN:** esap. Oso alferra denagatik esan ohi da. *Zorrixa baiño alperraua da gure Iñaki.*
- ZOTZA BAIÑO IHARRAGUA IZAN:** esap. Oso argala denagatik esan ohi da.
- ZOZO, zozua:** zool. “*Mirlo*”. Zozoa. **Zozuak beliari, ipurbetz.** Ikus **Kazuak zartainiari, ipurbetz.**
- ZUHETZ, zuhetza:** iz. Belarrarekin egiten den zuhatza. **Zubetza** aldaeran ere bai. **Metia** gariarekin egiten zenari esaten zaio. **Gardatza**, berriz, garoarekin egiten denari.
- ZUKA EIÑ:** Aditzean, tratamendu neutroa erabili, alokutiboa ez dena. *Bueno, hika ala zuka eingo juau?*
- ZUMAR, zumarra:** bot. “*Olmo*”.
- ZUME, zumia:** bot. “*Mimbra*”.
- ZURDA, zurdia:** iz. Arboletan geratzen den izotza.
- ZURI, zurixa:** izond. Pertsona alferra, nagia. *Zurixa dok gure Amaia, gero!* Baita **esku zurikua izan** eta **esku fiñekua izan** ere.
- ZURITU: 1.** DU aditza. Frutari azala kendu. **2.** DU aditza. Elurra loditu.
- ZURRUNKA, zurrunkak:** iz. Zurrunga. **Zurrunkaka jardun.**
- ZURRUT, zurruta:** Edanaren onomatopeia, **Txurrut**-en aldaera busti gabea, palatalizatu gabea.
- ZURRUTERO, zurruterua:** izond. Zurrutean eta mozkorkerian sarri ibiltzen denari esan ohi zaio.
- ZUZA, zuzia:** bot. Ziza. Udaberriko perretxiko preziatua. **Ziza** ere bai.
- ZUZTAR, zuztarra:** bot. Landare baten sustraia.

7. TESTUAK

Atal honetan bildu ditudan testuek gainerako ataletan arloz arlo aztertu dudan Elgoibarko euskararen erakusgarri bat izan nahi dute, erakusgarri praktiko bat. Orain arte, halako hizkuntza-gertaera jakin bat ilustratzeko erabili dut Elgoibarko hiztunen jarduna, baina hitzak eta perpausak soilik erakutsiz; inoiz, kasurik zabalenean, paragraforen bat. Erakusgarri luzeagoak eskaini nahi izan ditut atal honetan: hemen, testuak izango ditugu, eta ez hitzak, sintagmak edo perpausak. Hartara, elgoibartarron hitzak eta egiturak testuinguru zabalagoan txertatuak ikusteko aukera izango du irakurleak.

Testuak aukeratzeko erabili ditudan irizpideen artean, lehenbizikoa hizkuntzarena dela esan behar; hizkuntzaren aldetik, bereziki, interesgarriak iruditu zaizkidan hiztunak eta pasarteak aukeratu ditut, eta, era berean, oreka gordetzen ahalegindu naiz Elgoibarko auzoen artean eta emakumezko eta gizonezkoen testuen artean.

Bestalde, bigarren maila batean, hizkuntzaz gaindiko interesa izan dezaketen pasarteak ere jaso nahi izan ditut, elkarrizketatutako hiztunen belaunaldiaren bizimoduari lotutako pasarteak, hain zuzen: eskuen artetik badoakigun garai baten lekukotasunak, pentsamolde eta jokamolde desberdin baten testigantzak.

Beraz, hizkuntza da atal honen lehenbiziko interesgunea, baina, esan bezala, balio etnografikoa duten testuak ere jaso nahi izan ditut.

Atalez atal sailkatu ditut testuok, hizketagaiaren arabera: eskola, soldadutzatza, gerra, lana, baserriko bizimodua, erromeriak, ospakizunak, jolasak, Elgoibarko euskara... Horiek guztiak izan dituzte hizpide kapitulu honetako berriemailek.

Transkripzio-irizpideei dagokienez, lan honen hasieran aipatu ditudan erabili ditut: *h*-aren eta *s/z* eta *ts/tz* bereizketaren salbuespenarekin (horietan,

azaldu dut *h*-a ez dela ahoskatzen eta txistukarien artean ez dela bereizketarik egiten Elgoibarren; hala ere, *h*-a erabili dut testuetan eta txistukarien arteko bereizketa gorde dut irakurleari testua ulergarriago gertatzeko); salbuespen horrekin, berriro diot, gainerakoan soinu guztiak ahoskatu bezala ematen ahalgindu naiz, betiere euskara batuko alfabetoa erabiliz.

Gatozen, bada, elgoibartarren testu libre hauekin.

7.1. ESKOLA

JOXE GURRUTXAGA: Gabeko eskolia emate zan len. Eta hantxe. Baiña gu hasi giñan, ba, oin bezela ez, lau urtekiñ eta hirukiñ. Orduan zortzi-beratzikiñ edo hola haste zan; eta bost-sei bat urte edo. Astixa zauanian jun bihar izate zan.

GALDEGILEA: Bai, bai. Lengo baten, zeñek esan zian? Gaartzako Joxek-edo esan zian, eurixa eitte zabanian, eurixa eitte zabanian...

JOXE: Bai, ba, len esan douna, hamen zauan kuadrilliakin ere, bizimodua ateratzeko... Hamen ardixa eta ganaua asko eote zan.

GALD.: Bai, e?

JOXE: Eta... “Gaur atsaldian eztaok iñoako zearik, eta jun hari, jun hari eskolara”. Eta, len gogo gitxi... Hauxe zan edarra: noizian behin jun.

JOXE: (...) Ba, eskolara jute giñuazen eualdi txarra zanian. Bestela, eote zittuan... lanak etxian.

GALD.: Eta orduan, piper.

JOXE: Bai. Orduan aittak esandakua ein bi'izete zuan, e! Eta jute giñuazen eskolara eualdi txarra zanian; eta, bestela, eote zittuan... ardixak zaittu, behixak zaittu, ittulan eiñ... Eta lanak eitteko etxian. Eta eualdi txarra zanian, lanik ez zuan eoten, eta “segi eskolara”, esate juan. Jute giñuazen eskolara, eta han eote giñuazen, bestiak aurrian eta gu beti atzeko zerian, filan. Maistriak, hara, (...) “peloton de torpes” esate ziun, eztakik hori?

Eta hola ibiltze giñuazen eskolan. Eta etxe zaharra, oin konpondu jue(k) pa, hor, San Lo(re)ntzon? Hor zauan gure tia bat. Gero, Saturixon hil zuan haura. Gure tia zuan haura, eta harek ipintze jauan bazkaixa morduari, hemen

básarrixetako ume mordúari, bazkaixa erun-da; babak eta al zana. Erun, eta han jate genduan mahai haundi baten, eztaki pa zenbat izango giñan, dozena bat bai kanpoko umiak. Azka(r)atekuak hor maiz bazkaltze juen.

GALD.: Eta oiñez etortze zian?

JOXE: Juaristikuak hementxe bazkaltze juen, eskolara etortze zianian. Ezin, ba, jun zeera, etxera. Etxauan orduan autobusikan. Pedro *Txankilluak* jakan bakarrik autobusa.

GALD.: Zein da hori?

JOXE: Hil zuan Pedro *Txankillua*. Txatarrerua zuan, antziñakua. Harétxek autobus bat jakan bakarrikan, eta hola ibiltze giñuazen. Eta gero, bazkaldu, eta éskolara berriz ere. Eta atsaldian, bazkaldutakuan, eskolatik erten-dakuan, lau t'erdia, etxera azkar.

(Joxe Gurrutxaga)

GAU-ESKOLA

GALD.: Eskolan ibilli ziñaten zuek gaztetan?

PEDRO LARIZ: Asko ez, ni behintzat. Hau, eztakitt.

GALD.: Zu bai?

PAKO ISASTI: Ni hamabost urtera arte bai. Baiña bueno, gero eskolan, lanian hasi tta gero ere, gabeko eskolan da, hor ibiltze giñan.

GALD.: Hasi, zenbat urtekiñ hasi ziñaten eskolan?

PEDRO: Eskolan orduan, sei urte arte ez zeben ametitzen. Seittik aurrea. Seirekin. Eta gero, seittikan atzerako urtiak, batian behiak zaitzen, bestian ittulan basarrixan, eta, al zanian eskolan. Eta holaxe. Gero, Elgoibarren hasi nitzan ni Itturriñian lanian, hamahiru urtekiñ.

GALD.: Hamahiru urtekiñ?

PEDRO: Hamahiru urtekin, bai. Orduan, hemezortzikuak zerian, frentian, zauden da.

GALD.: Ze maistra zian zuenak?

PEDRO: Bueno, bi emakume, partikularrak zian.

GALD.: Partikularra izate zan eskolia?

PEDRO: Hárek etzauken hola puestorikan, eskolaik eta. Etxian, nahi zabanari. Eta basarritikan jute giñan hiru-lau mutill, edo gehixao ere bai, giñxiao ere bai, pare bat ordu.

GALD.: Tallarretik urten eta gero?

PAKO: Tallarretik ertenda, bai. Zeoze ikistera. Ez gendun astirik euki aurretik ikisteko ta.

(Pedro Lariz - Pako Isasti)

ESKOLAKO ZIGORRAK

PEDRO: Kaskarreko edarrak partitze zittun maistriak.

GALDEGILEA: Eske, len esate zaben, garai batian oso gogorrek ziala, makilliakin da...

PEDRO: Bai, bai. Gu bazkaldu ta frontoera jute giñan, edo elizpea. Pelotan eiñ, eta, eskuak zikin-zikiñ einda, eskolara. “A ver –listia pasatzen–, Pedro. A ver esas manos”. La ostra! Zaplada galanta atzaparretan! Da hona, iturrira, garbitzera a(g)uro. Go(g)orra? Hoixe!

GALD.: Oiñ halakorik eztao.

PEDRO: Keba!

PAKO: Haura zan go(g)orra, etxerako emate zizuen leziua, eta hárek eiñ ein bi'izete zian, bestela...

PEDRO: Oiñ ere emate jittuek, e!

GALD.: Bai, bai.

PAKO: Bai. Nik uste'et orduan go(g)orrao hartze zittuela, deskuidorik ein be.

PEDRO: Bai, bai. Baiña orduko go(g)ortasuna neretzat txarrao. Jo etxok ein bihar! Buruan-da iual kaskarrekuak!

GALD.: Bai.

PEDRO: Hori ere goorregixa da. Kastigau, edo “zigortu” esaten dana, beste modu batera. “Gaur bi illera daukazuz eskolan eitteko? Kastiguakin, lau. Eta bixar ezpazatoz, bost”. Haura txarraua esan nahi dot, oingua baiño.

GALD.: Bai, bai.

PEDRO: Oingua baiño haura txarraua. Holakotxe kañabera goorra izaten da, ba?

GALD.: Bai.

PEDRO: Halakotxia. Eta, ño! Kaskarran behera!

GALD.: Hori, okerrak ziñatelako izango zan...

PEDRO: Keba! Bera, okerra! Ni ezkertixa naiz, izetetz...

GALD.: Eta lagatze zizuen ezkerrakiñ idazten?

PEDRO: Laga?! Hasi iñoiz, eta etorri atzekaldetik, ttaka!, atzaparretan da. Joe! Hola. Eta gero, bestiakin ein bihar.

GALD.: Eskubixakin.

PEDRO: Nik oiñ, jan da eskribitzen, eskubixakiñ, hantxe ikessita.

GALD.: Bai, baiña oin ya, zuk eskubixakin eingo'zu dana, ezta? Ohittuta.

PEDRO: Len eskribittu eta jaten. Ogixa eba(g)i ere, nik ezkerrakin ein bihar. Eta pelotan, ez gea oiñ ibiltzen baiña ibili bihar bada, hau, ezkerria, nagusi.

GALD.: Bai, bai. Jende asko hola, e!

PEDRO: Len etzeben ametitzen; esan det, ba.

GALD.: Bai, bai.

PEDRO: Iual hola zerian hasi, eta atzekaldetik etorri iual, eta danga! Atzaparretakua galanta kañaberiakin! Eta kendu eskua atzera, eta benga bestiakin! Bihako eskubixakin eiñ!

(Pedro Lariz - Pako Isasti)

DOTRINA ETA ESKOLAKO ZIGORRAK

Escolatik erten eta dotriñara jute giñan abadiana. Dotriñia ikaste ezpazan, etzauan komuniorik eitterikan. Bi komunio zauden, komunio haundixa eta txikixa. Komunio txikixa zazpi urtekiñ-eo eitte zan, eta hamaikakiñ-eo, hamaikiñ-eo, segun dotriñia zela zakizun, komunio haundixa. Atzeratu ezkerria,

beste bronka bat etxian. “Danak hamar edo hamaika urtekin komuniua eitten, eta hik zer? Aittitta eín eta gero jun bi’ek?”.

Zigorra jaso ezkerro, akabo! Han etzauan motiborik preguntatzerik. Batian regliakin, bestietan zumitzan egurrakin, taka! Eta gero ez jun etxera esanez “maixuak jo ein ditt”, e! Bestela, beste bat zauan da!

Guk euki gendun Don Cesareo Moreno izeneko maixu bat; txikixa zan, baiña oso maixu ona (santanderinua zala uste’et). Baiña, klaro, iual hiruroeta hamar laun eskolan. Zazpittik hamalau urtera artekuak, danak gela batian. Danak zaitzeko ere, nik eztet esaten jo bihako zanik, baiña maixu oso goorra zan; ondo preparautako jende askok erten zaban haren eskuetatik. Panorama haura ikusitta, zeoze ein biha zaban. Harek beti esate zaban “entran unos y salen otros, y siempre domando potros”. Maixua sartze zan goizian bertziretan, eta urtengo zaban eskolatikan atsaldeko zazpiretan, eta gero gabeko eskolia berriz beste batzueri. Gaur gitxiaorekin ere erreko dia maixuak iual, ezta? Nik eztet esaten jotzia ondo congo zanik, baiña...

“Cara al sol” eta horrek ikasi genduzen.

(Jabier Arriola)

7.2. NESKAMETZA

TEODORA ARAKISTAIN: Biarritzen eon nitzan bi urtian. Bi urte pasau. Ezkontzeko etorri. Eta, egixa da, konde batzuen etxian.

GALDEGILEA: Eta ze mo(d)uz han?

TEODORA: Ondo. Bageundezen... hiru laun zian eurak, eta beste bost kriaueo bagenguazen. Ondo. Geo, jentia asko. Beti bazkaltzen baten batzuek. Bera kondesia zan, eta gustatze (j)akon berari. Eta beti, ba, gónbirauak. Eta gónbirauekin, ba, preparau ein bi’ozu, egun guztian lana. Ostian, ondo.

GALD.: Ta zela jute ziñan? Zela topau zendun lan hori?

TEODORA: Ba, zera, hemen zauan San Lo(re)ntzoko zeran, Begoñan, tia bat, aittan arreba, han iñude eonda familixa harekin. Hiru zauren, eta gero jun giñan tia Maria eta beste Azkoittiko neska bat, Argaingua, eta ni, hiru haren lekura. Eta gero, etorri nitzanian ni hona, Munastegi Errotako Maria juan zan hara. Hil zan. Maria ezautuko zendun, Munastegi Errotakua?

GALD.: Eztakitt, entzunda bai. Orduan, frantsesa ikasiko zendun.

TEODORA: Berba batzuk. Nik, hola gauzen izenak eta: “de pomme, de pomme de terre”... eta hola. Patatia, sagarra, hola, berba sueto asko. Denpora gehixokin, ikasiko naban, baiña españolak zian eurak ere.

GALD.: Españolak zian?

TEODORA: Españolak zian, bai. Bat Zaragozakua, bata; bestia, eztakitt nungua zan. Españolak zian, kozineria ere zan Fuentarrabixakua, euskaldun jatorra. Nik harekin (sukaldian pintxe eon nitzan, ba), euskeraz asko. Eta kriaua kastellanua, eta ostian erderia. Eta holaxe pasau nittuan bi urte pasau.

GALD.: “Internazionala” zera, orduan!

TEODORA: Bai. Izen giñan behintzat han ere.

GALD.: Gero ein zendun, handik etorri, eta ezkondu?

TEODORA: Bai. Etorri, zerian, abriilian etorri, eta febreruan ezkondu edo. Ez, febreruan etorri, eta abriilian ezkondu edo. Febreruan amaittu hangua, eta abriilian... Domekan pasau zian urtiak. San Markos egunian hoeta bost urte, domekan, ezkondu giñala.

(Teodora Arakistain)

7.3. SOLDADUTZA

GALDEGILEA: Nun eon ziñan soldau?

JOXE GURRUTXAGA: Leku askotan. Hasi, Estellara jun giñuazen lelengo soldau. Eta gero Zaragozatican, Terueletikan, Castellondikan, Valentzia aldian zihar da.

GALD.: Biajau, biajau dozu, orduan?

JOXE: Toki askotan. Eta gero, ba, hola, soldautzia luzia izan zuan guria.

GALD.: Bai, amamak esan zian aittitta hiru urte eon zala, marinan.

JOXE: Marinan bai, baiña gero gerran eon zuan haura.

GALD.: Bai?

JOXE: Bueno, ausiliarretan eon zittuan hárek. Eta han ibili giñuazen prente ta adar ta. Eta halako baten, etxera bialdu giñuazen noizbaitten. Eta, berriz ere, mobilizau giñuazen beste denporale bateako, eta Burgosera eruan giñuazen beste denporale bateako.

GALD.: Bai.

JOXE: Orduan Asturiasko mendixetan eta hemen, Peñastegixan da, *makixak* esate jauen orduan.

GALD.: *Makixak?*

JOXE: *Makixak* esate jauen gerra onduan mendixan zaudeneri; ba, hola, orduan taka-taka eitte jauen askori gerria amaittu zanian (...). Hor zebizela bilddurra zauken nahikua, itxuria, ezkutauta eon zittuan pixkaen baten edo. Eta hárek zebizela ta, makixak, ETA-kuak bali(r)a bezela edo.

GALD.: Bai.

JOXE: Francon kontrakuak ziala ta, gero etxakixat hogeii hillabete edo, zenbat ein giñuazen. Kontua dok sei urte inguru ein giñuzela soldau.

GALD.: Zenbat?

JOXE: Sei urte inguru.

GALD.: Joe! Oin beratzi hillabetekiñ, eta kejau eitte gea. Eta zela jute ziñaten? Biajiak eta, zela eitte zenduezen?

JOXE: Trenian. Permisuak ere, gu han ibili giñanian (urte eta erdi-eo), bat ere ez, etxera etorri be. Eta gero, Burgosera eruan giñuazentian ere, ni enitzuan batere etorri etxera, behiñ ere permisorian ez. Permisorik izete ezkerro, halako lekutik etortzeko, ba, bihe izate zuan, ba, zortzi-hamar egun eo gi-xienez. Eta hogeta bi bazian, hobe.

GALD.: Hoixe!

JOXE: Bai, eta permiso txikirikan ez genduan aprobetxatzen. Zerian eon giñanian bai, berroeta bigarren urtian izengo zuan alemanak Frantziara sartu ziana, bai Frantziara. Hortik bai, hortik jaiero etortze giñuazen, Irundikan. Eta alemanak sartu zianian, ba, han gauazen gu zubixan, hemendik geure guardixia eitten. Hondarrabittikan, Irundikan, hau autopistia oiñ amaitzen dan tokiraiño.

(Joxe Gurrutxaga)

7.4. GERRA ZIBILA

LUIS ETXANIZ: Akordau, bai, bai, bai. Ni akordatze nok zela eote giñan, han itxetik behera Urruzuno, mina-zulua daok han, gure etxetik behera?

GALD.: Bai, bai.

LUIS: Mina-zulo haundi bat daok. Han eote giñuazen. Eta... dinbi! Eta... daunbi! Eta daunba, daunba! Goizian jun, eta sartu han e(g)un guztia. Han eote zuan umiekiñ ama, eote zuan gurekiñ. Eta aitta ibiltze zuan árdixe-kiñ eo, kanpuan eo ibiltze zuan aitta. Eta batzuen batzuk etortze (j)akozen beti basarrira; hárekiñ eote zuan aitta.

Eta etortze zuan aitta, illuntzi aldian etortze zuan: “Bueno, oin kalmau da, eta er ten hortik...”.

Gaberako beti, ze(r)a eitte zuan, ba... kalmau eitte zuan. Eta gero hartu, eta gabian lo eittera, etxera. Baiña hurrengo goizian, berriz ere zulora; Urno-bittako puntian ostian ere beste egun baten onda gauaz.

Da basarrixan ere, nun dau etxiak paretaik lodixena? Haren parian. Dinbi da danba! Dinbi da danba!! Etxiak mobittu eitte jaittuan. Joe! Buf! Haura goorra zuan!

Bai, han mina-zuluan eon giñuazen, makiña bat aldiz bai. Han gaiñetik bonbak jo arren, etxuek apurtuko haura, lodiera haundixa jaukak eta. Eon haiz sekula han, mina-zuluan?

(Luis Etxaniz)

DIONISIO TXURRUKA: (...) Ta gero, ba, hamen ibili zan, anaixak alkarren kontra.

GALD.: Bai.

DIONISIO: Bata batetik, eta bestia bestaldetik. Eta hola ibiltze zan jentia. Bilddurra zaon, eta aurrera juan zianak emaztia laga etxian, eta gizonak aurrera. Eta aurrian, ba, milizianuak jartze zittuen, eta: “Vengo del frente”.

GALD.: Han bildurtuta, eta gero bildurtuta hemen ze pasauko ete zan ere bai.

DIONISIO: Bai, bai, klaro ba. Klaro, hamen justizia gitxi eon zan. Eta hill ere, Elgoibarren hill ere, batzuk ein zittuen.

(Dionisio Txurruka)

PEDRO BARRUTIA: (...) Bai. Bueno, hemen bonbak eta bota, bonbar-deua eta dana izan zan. Gernikan eta Eibarren botatzen eon zianian, hor Karakatetikan eon giñan be(g)ira.

GALD.: Goittik?

PEDRO: Bai, goittik. Juan Zabaleta, Eibarren bizi da oiñ, eta ni. “Pedro, jun ingo gaittuk ikustera”. Eta, “Bai”.

Eta tiruak batetikan da bestetikan; da gu jarri han, zera, hau bedarran metia, bedarran meta ostian jarritta. Eta han, seña gero, beste batzuek, eta gero, ra, ra! Abioiak eta, danba, danba, danba! Da Eibarren botatzen ikusten, ikusi eitte genduzen, zela bota zittuen.

GALD.: Ixo ein bihar da hor gora hori ikustera, e!

PEDRO: Gero, Elgoibarren ere, ba, gu han gaudela, zera, kañonazuak bota zittuen. Eta hemen bat, surtidora badao, ba? Hantxe errekan birek esplotau zeben. Jota esplotau zebenian, jota ura goora baiña! Zelako txorrua! Buenooo! Ixa Elgoibarko torrian alturara! Demasa! Da horrek danak ikustia tokau jaku.

(Pedro Barrutia)

TEODORA ARAKISTAIN: Aittitta gerrara jun zan. Hona nazionalak sartu zian, eta gero. Hamen etorri zianian, pentsatze zaban jentiak, ba, etzala jungo mutillik soldau, baiña gero hartu zittuen atzetik. Bai, ba. Eta hamen beratzi hillabete ein zittuen nazionalak, e!

GALD.: Nun? Elgoibarren?

TEODORA: Elgoibarren! Bai, ba, handikan eutsi jauen da! “Julio, diezio-txo”, juliuan erten zaban. Eta diezio txuan Andres jaixo zan, otsaillian, febre-ruan; eta juliuan, harek zortzi hillebete, Elgoibar hartu zebela, harek zortzi hillebete zaukazela. Ni akordatze nok hárek etortzen eta ni ume txikixakin titixa ematen da, tak! Ta handik jotze zittuen balazuak (...) ataike atia (...) koltxoia ipinitta eon giñan etxeosteko atiari: pasau, bestela!

GALD.: Bai? Eta...

TEODORA: Zertzen... Eta gero, aitta ta zea, aittittta eta aldeko Joxe eta Satur zeekua, Aldazabalgo gizona, hona etorritta, hamengua zaban ama ta. Eta ezkutau zian, Gartzenatakua esate ziuén harrixa jaso, eta hortxe ezkutau zian. Sasixa dao hor haundixa, ondoko so(r)otikan han gora, eta hantxe ezkutau zian. Eta eurak, “milizianuak” esate zitzakuen háreri, han pasau zittuan, eta holaxe ikuste zittuen gero sasittikan bilddurtuta eurak goittik eta: “Aquí no hay paso” esan ei zaban batek, eta hiru edo lau jirau, eta atzera. Bestela, joste jaittuek bertan!

GALD.: Jesus! Eta Antxolan bertan sartu zian?

TEODORA: Barrura etzian sartu; hárek aurrera juan zian. Hona bat etorri zan zeakin, astokadiakin. Asto bat aurrian, eta gosiak. Basarrixetan emate giñon geuk ere, txarrixa hilda jauan orduantxe, eta txarri zati haundi bat eman giñon.

GALD.: Eureri? Jateko?

TEODORA: Bidian jateko. Eta gero, erun nahi zittuen hemengo Joxepa zana ta, Nikolasa ta, hórrek erun nahi zittuen aurrera. Eurak erun jaittuen, asko erun zittuen aurrera. Eta aittak ezetz, eurekin batera jungo zala, bera jun biha bazan, eurak etzixezela. Laga ez harek neskak eruaten; bestela, bajiezak! Juan hari, ba, háren billa!

Eta gero esate zaben moruak zatozela atzetik, eta hárek hill eitte zittuela neskak, eta holakuak esate zittuen aurretikan. Gerran, ba, moruak zatozela, eta hárek iual harrapauko zittuela neskak eta. Gizurra!

GALD.: Bildurra ematia(g)atik.

TEODORA: Bilddurra eman, moruak azaldu ei zian hona, e! Bitorixara eo, esate zeben.

(Teodora Arakistain)

TEODORA: (...) Bai, ba. Urtiak, Kandelarixa egunian, eta bi urtera, hoeta be(r)atzi zittuan egunian, juan zan soldau. Gerrara. Eta Andres, txiki-txikixa; hemen ni. Eta orduan etorri zian Santaeskaliak hona. Ni akordatze naiz, aldeko Bittorik, Joxen amak, zela esan zaban: “Soiñuakin zatozte hona? Errosaixuakin etorri biha dok hona, errosaixuakin!”. Gu he-

men erdi negarrez, orduantxe erten zaban trenera ta. Hori zuan ona! Bestiak atian soñua jotzen. Bueno...!

(Teodora Arakistain)

Lekeittion zazpi hillabete eon giñan erregian modura. Ein zaban uda bat ikusgarrixa, epel-epela. Eta gero, tropak atzera barrura. Ofensibia ein zeben, eta Ondarrun zaturen tropak, eta Lekeittion gorrixak. Etorri zanian abantzia, ba, koño, alde ein bihar. Alde eitteko, ba, barkua. Peskero txiki hórretakua. Sartu giñan barkuan, lenengo aldiz, gaiñera, eta kriston itxaso txarra atera jakun. Eongo giñan hamabost laun, Elgoibarko hiru familixatakuak. Danok zuluana sartuta, antxoa-kaja artian. Gora eta behera dana bota biharrian ibili ostian, barko bat urten zan aber nora guazen galdezka: “Sartu Elantxobera, sartu Elantxobera”, esate zi(g)un.

Bilbora jutia zan gure asmua, baiña Elantxoben sartu bihar izan gendun. Elantxonbeko portuan sartu, eta jua giñan batzokira. Teia bakarririk zua. Te berua hartu, eta hurrengo eunian gure lehengusuari abixau zion aittak. Militarra zan orduan, eta kamioia zakan. Etorri zan kamioiakin Elantxobera, eta handikan eruan giñuzen Bilbora, etxe partikular batera. Santolaya-ta zaozen bertan. Han eon giñan e(g)un baten, eta gure aittak eta billau zaben txalet bat modukua Algortan, ortu eta guzti, kriston txaleta, eta hara jua giñan. Baiña jatekorik ez, eta han, bi hillabetian pasau genduzen kristonak. Kriston etxia, baiña jatekorik ez!

Armero eote zan aitta tropekin retaguardian, armak, fusillak edo ametraladorak árreglatzen ibiltze zan. Behiñ etorri zan aitta oillaxkua eta konejuakin. Sekula halako banketerik ezto eiñ!

(Manolo Unzilla)

GERRAOSTEKO POBREZIA

Entzun! Errosaixo kalia; gu gaztetxuak, ezta! Da ni ez naiz hori akordatzen baiña, pentsa'izu zelako bizimorua zatoren, e! Ba, andrak, bero haundixa, ta preskuena Elgoibarren Errosaixo kalia da, bero haundixa dauanian da; etara mahai zaharren bat ero, ze etaako zaben, etara behintzat, da andrak hantxe jarri jokuan. Kartetan eitzen ei zaben bero haundixa zauanian.

Da gero, batenbat gaixotzen bada, orduan sobrekamia ipiñi biha zan derrior, sobrekama zuri hórrek, badaukaz bi gaiñera nik, eukiko'zu zuk, Joxepa, antiuale-

ko “bamos” sobrekama zurixak, edarrak, bai. Da batek bazaukan: “Hi, badaukan sobrekama zurixa? Prestauko dian?”; merikua etortzeko, ba, ez zauala ondo ero famelixan batenbat, eta, “Bai”, “Ba, prestau, orduan”; halaxe sobrekamia prestau bata(k) bestiai. “Fi(j)ate si eran pobres o no eran!”. Hori... kontatzekuak dia, e! Hori benetan pasautakua da, e! Da halakotxe konformidadia baiña: kartetan eif, da zeoze okerra bada, bata bestiari ba, serbidu, merikua zaturrenian.

(Agustina Arrizabalaga)

AGUSTINA: Baiña pobriak! orduan zan..., ez'iazu esan!, lau txakur haundixan, e, litro-esnia ezin saldu! Hori berandu, e, hau berandukua ya, gerria ixa urtenian zauan da. Berandukua da, ba, litro-esnia lau txakur haundixan ezin saldu. Da zauan, gaiña, gerra aurretian zauan dana jenerua ointxe dauan dana, botata zauan jenerua, e! Ni horrek akordatze jataz oif. Da zer da, ta erosteko kaleko jentia esate zian: “Baiña eztaka(g)u diruik”, kaleko jentia esate zaban; da gu ere, baakizu, gu ere estu antzian ba; nahiko jatekua basarritxarrak zela dauken ugerixa etxian, zela geunkan guk, gitxiao igarri giñon, e, baiña kaleko jentia bai, gerria urten, eta ez zauala dirurik.

JOXEPA: Guk behixa euki gendun, behixa euki genduan, behi bat. Han Pollerixan, haura dana behiak, dana guria zan, kortia. Txákurak, aitxa kazarixa zan, lau txakur iual... da behixak, da behixa eta oilluak. Eta háretxekin.

AGUSTINA: Eske, oillua ere, ointxe esaten dot nik, aberatsa da, e! Zeatxikan arrautziakiñ, arrautziakin gauza asko adornatzen dozu ointxe ere, honbre! Ta hor, len oillua oso karua zan. Nik basarritxikan ekartze nitxuan oilluak asko edarrak hona, berdura plazara, buuuuu! e(g)uenetan da. Geuk etxian ez giñuan jaten; jate genduan San Pedruetan da, Gabonetan da, hórretan, baiña bestela saldu ein biha zan diru pixkat hartzeko, jenerua etxera eruateko, entenitzen dozu? Haura dala, bestia dala, etxian gauza asko biha da, e! Oif esaten dou oillaxkua jaten, nere semiak esaten dau solteruak: “Oillaxkuak, oif ere ei da oillaxkua basarrixan”. Kanpua ikuste'itxu, gaiñera, beti mendixan dabill, ba, nere seme hori, eta esaten deu, “oif badabiz edarrak oilluak eta oillaxkuak kanpua, baiña haura doblia baiño gehixo pagau bi'ozu haura oillaxkua, e!”. Ta halaxe ei dao, basarriko oillaxkua oso karu ei dao, bai. Nik uste naban iual saltze zebela oif.

(Agustina Arrizabalaga - Joxepa Aranberri)

GERRAOSTEKO HILETAK

GALD.: Entierruak-eta aitxatu ditzuzenez, orduan bazian entierruak primerakuak, kanpaiak ere desberdiñak...

AGUSTINA: Bai, da holaxe zian, bai.

JOXEPA: Ba, dotoria nahi zauanak, dotoria.

AGUSTINA: Ona nahi bazenduan, ona; da eskasua nahi bazendun, eskasua; ta eskasua nahi bazenduan, eskasua.

JOXEPA: Da oiñ danak igola. Dirua...

GALD.: Dirua zan dana, ezta?

AGUSTINA: Bai ba, bai ba. Zelako gauzak, ezta?

GALD.: Gogoratzen dozue zeintzuk zian primerakuak? Medikiak eta holakuak izango zian, ezta?

AGUSTINA: Bai, bai ba, dirua zaukanak, dirua zaukanak!

GALD.: Hamen Elgoibarren gitxi izango zian, ezta?

AGUSTINA: Hamen gehixao korrientia izango zan entierrua; gehixao, korrientia, normala.

JOXEPA: Eo segundia.

AGUSTINA: Segundia o holaxe, bai.

GALD.: Tristia izango zan ba, batzuk primeria ta...

JOXEPA: Eeez! Halaxe ohitxuta geunden, batere ez.

AGUSTINA: Ta altarak ere, oin kendu ein ditzue; hamen San Antonion altaria ta animen altaria, ta danak altarak zian hor. Eta, hola, jente zer bat [garrantzitsu bat] hiltze zanian, mezia, entierrua, ezta? Hori eza(g)ututa gaure, han altara ixa gehixenetan danak mezak ematen batera, abare asko zauan orduan Elgoibarren, ta mezak ematen! Akordauko zara hori!

JOXEPA: Bai, bai.

(Agustina Arrizabalaga - Joxepa Aranberri)

GERRAKO KONTUAK

Ni jaixo nitzan..., zarrena nitzan. Aitxa hil jatan zortzi urtekin; ama, hamalaurekin. Neuk zortzi nitxuala, aitxa hil jaten, ta ama, hamalaurekin. Hamazortzi urtekiñ ezkondu nitzan, e! Gazterik, ezta? Pentsa'izu! Gazteik ezkondu nitzan, da famelixia atea dot aurrera. Hamazazpi urtekua zarrena, handik beherakuak geratu jatazen beste guztiak, e! Ta hamazazpi urtian alkarrekin bizi izen giñan. Geo, [senarra] gerratian soldau erun tzeben, han gaixotu zan, hil jaten... Goixan zerua ta behian lurra geatu nitzan!

Ni gerratia...? Bai, gerratia. Hamengo bonbardeuak eta, ez zaban akaborik euki orduan, e! Hartu ta erten etxetik eta kanpora, aber abanzadan. Eibarko koñata bat hamentxe eon tzan, bere umiekin da bere gizonakin. Prentia jarri zan zortzi hillebetian, eta zortzi hillebetian hamentxe, ta iño(r)a mobitzeik ez zauan, ez harutz, ez honutz. Arraten heri(d)utako ueri hamen, bestaldian hor, kamillan hartuta, Altzolará pasatze zitxuen: "Ay madre mia, ay madre mia!", ma(j)iñat bider esate zaben, akordatze zian amakin, akordatze zian, bai. Ai, maiñat kontu pasau dot nik, neure denboran ma(j)iñat istorixa.

(Pastora Ansola)

7.5. BASERRIA

GALD.: Basarriko bizimodua gustatze jatzue zueri?

BALENTIN EGAÑA: Bueno, gustau bai. Beti hauxe usau dou, eta baakizu.

GALD.: Zuri?

INAZIO EGAÑA: Gustau bai. Horretxeatik etorritta gauaz, bestela...

BALENTIN: Bestela, alde einda honezkero.

GALD.: Gogorra dala pentsatzen dozue?

BALENTIN: Bai. Bueno, oiñ ezta len beste, e! Len zan lan asko basarrixan, e! Hamen eote zan garixa eta artua, eta hartze zan kantida(d)ia. Eta lana orduan, bai. Gaur basarrixan eztao len aiña. Goorra bai, e! Goorra. Baa-kizu.

GALD.: Beste basarrixetan berdiña esan die.

BALENTIN: Bai, bai, bai. Basarrixan hori, hori karkulauta dao.

GALD.: Eta lanik gogorrena zuentzat? Lanikan gogorrena, txarrena zein da zuentzat?

BALENTIN: Bueno, ze izengo'a, ba? Len esan douna: gaurko eunian, ba, dana makiñia daok.

GALD.: Eta len?

BALENTIN: Len, segia ta, segia ta iitaixa ta, dana hauxe. Eta oiñ, berriz, bedarra eta holakua, ba bedarra ezta hainbesterako oiñ. Danak ganauak libre egote'ia baztarretan. Danian dabixaz oiñ.

GALD.: Baiña congo zan lan bat bestiak baiño txarraua zana zuentzat, ezta?

BALENTIN: Bueno, gari-ebaitzia ta izete zian hórrek. Itaixakin-da izete zan. Gero, makiñekin-da hasi zianian... Baiña lana len asko eitte zan. Gure aitta zan batek eta, asko lana. Boj! Ask! Len esan douna. Eta gero, berriz, so(r)uetan ere, ba, laixa ta izete zian.

GALD.: Bai.

BALENTIN: Eta gero goldia-ta zela sartu zian, ba, (...) holaxe izaten da hori.

GALD.: Eta urtian zihar garairik gogorrena?

BALENTIN: Urtian zihar garairik goorrena, ba, hauxe izate zan.

GALD.: Garixana?

INAZIO: Garixa eta bedar-ontzia, eta holakotxiak. Ostian, ba, ze esango'o(t), pa? Neguan lan gehixao jeneralian, baiña udan estuasunekuak: bedarra ta, garixa ta... behintzat estuasun haundixenekuak. Eta gero, handik aurrera, ba, lasaixao... Beti lana baiña.

GALD.: Basarrixan beti lana. Basarrixan paro(r)ik eztao.

BALENTIN: Eztao paroikan. Gure anaixak esate zabana, horrek len esan dounak, Mintxetako horrek, hil zanak (haura kalian gero lanian ibili zan): harek esate zaban, "kalekuak eztakitt ze ta, ordua da ta... Basarrixan eztao ordurik. Illunian edo eunez (...) jaiki, eta illunduta laga. Han eztaok ordurik, ezta eoten basarrixan". Halaxe da ta. Basarrixan etzara hasiko kalian mouan, "ya bostak dittuk edo bost t'erdia", eta laga.

(Balentin eta Inazio Egaña)

GALD.: Zuk pentsatzen dozu kaleko jendiak badakixala ze dan basarrixan lan eittia? Estimutzen dau?

BALENTIN: Batzuek estimau. Bertakuak izen dienak baakixe, basarrikuak dienak, askok. Baiña kalia jaixotakuak ze daki, ba? Kanpua ibiltzia dala, euzkixa hartzia, eta kitto!

GALD.: Hori pentsatzen dozu pentsatzen debela?

BALENTIN: Gehixenak, bai.

(Balentin Egaña)

AZOKA ETA GANADU-FERIA

GALD.: Oiñ azokara bajau, etzera bajatzen, baiña len bai, askotan.

TEODORA ARAKISTAIN: Ni ez. Len bai. Len esniakin jute nitzan-da beti. Nik esnia; jute nitzan esniakin kalera beti. Han basarritik ere bai. Iriarte-Etxeberritik, neure etxetik ere bai.

GALD.: Eta zela bajatze ziñan?

TEODORA: Astuakiñ. Astuakin beti. Eta antxixika zortzi tt'erdietako mezetara; astua hartu eta esniak ere. Astua kortan laga, Majestadeko kortan astua, eta mezetara (...) Merkatura beti. Len ere, larunbat, zapatu zerian, hillan azkenian ferixia izete zan. Ni ferixara enitzan juten. Ni goizao juate nitzan ésniekin-da, ferixara. Iñoiz, eunen baten bai, oillaixkua zauanian-da, handik-hemendik saltzera. Azokiari bai, azokiari beti bueltia eiñ, baiña ferixetan ez.

(Teodora Arakistain)

JOXE GURRUTXAGA: (...) Da, baiña basarriko gizonak ferixara jute'ittuk, esate baterako... Bueno, gehixaotan ere jungo'ittuk kalera, baiña hillian behiñ, ferixara. Eta ohitturia, ba, kafia hartu koadrillan. "Koño! Kafia hartuko juau?". Eta: "Bai". Eta bueno, kopia ta puru bat plazara juterako. Baakik: gizona hazi eitte jok harek, eztakik?

GALD.: Hoixe!

JOXE: Bai, eta gero kaletarrak (oin gitxitxuao, laun gehixao dittuk oin basarrixan eta kalian orduan baiño)... orduan kaletarrak basarritarra, ostikua jo eta txakurra bezela bialtze juen.

GALD.: Bai? Geizki ikusitta zauan basarritarra len?

JOXE: Bai, gizona! Gu komurgau giñan sasoian-da!

GALD.: Bai?

JOXE: Hori, zera haundixa eote zuan, bai, burla haundixa. Eta len esan dotena: puruakin, kafia ta kopia ta puruakin. Ba, perixara plazara, eta han batekin da bestiakin kontuak esaten da, kaleko gizonak, hi, gizon sasoekuak, gero, e!: “Hi, basarrixetan geizki bizi diala! Beittu’ik horra, hi, puruakin danak!”.

Eta eurak etzittuan kónturatzen zapatuetan jai hartu, eta sartu tabernan da atsalde guztia han, puruak erre ta puruak erre. Eta jaixa etorri, eta iual; eta zapatu gaba etorri, eta kalera andriakin eo, bakarrik eo, láunekin eo; eta etzittuan konturatzen, baiña basarritarren bat ikusten bazeben puru bat erretzen... Buenoo! Perixa egun baten uste juat eukiko zabala eskubidia basarritarrak, eztok?

(Joxe Gurrutxaga)

KALEA ETA BASERRIA

Kaletarra naiz. Santana kalian jaixua naiz. Gure gazte-denporia gerra ostian izan zan, baiña politta izan zan. Gerria etorri arte, umetan, gure bizimoua politta izan zan. Gero, gerra-asuntuakin, kanpora jun giñan, Bilbo aldera, ihesi. Aitta gerran hil zan. Kartzelan sartu zaben, eta hantxe hil zan aitta. Altzolan jaixua zan, eta ama Elgoibarkua. Aman gurasuak, hemenguak danak, inguruko básarrixetakuak, baiña aittan gurasuak Etxarri Aranazkuak. Aittan aittitta, Etxarrikua, lanera etorri zan Altzolara. Karretekin ibiltze zian.

Orduan Altzolara sartze zan itxasua, eta juate zian kargak hartzera Altzola eta Mendaro ingurura. Gure aittitta-eta ibili zian kargamentuekin, barkutikan ateratzen eta ekartzen herrira-ta. Nik eztot ezautu, baiña behixekin juate zian kargamentu billa. Behixak karruakin. Hala esan zi(g)uen guri amamak eta gurasuak. Hiru anai etorri zian Etxarritik. Haren semiak bi geatu zian Altzolan, eta birek hotela euki zaben Altzolan. Bestia Elgoibarerra etorri zan.

Ostian, gaztetan bizimo(d)u normala ein gendun. Beti fubolian edo pelotan. Hor, Plaza Txikixan eskolakuak beti fubolian, baiña fubolian aka(b)atzera beti, e!

(Manolo Unzilla)

BASERRIKO LANA

Zeleta basarrixan jaixua naiz: San Migelera bidian Metalkua pasau, eta kilometro erdira dao gitxi gorabehera. Gaur egunian, inbernadero haundi batzuk daure. Ni hantxe bizi izan nitzan ezkondu arte, eta gero kalera etorri nitzan. Gaur egun nere koñata alarguna eta Arantxa illobia bere bikotiakin bizi dia han. Noizbehinka basarrira jute giñan bixitan, baiña bizi, kalian.

Basarriko eta kaleko bizimoua oso diferentiak dia. Gaur egungo basarriko bizimoua ezta lengua bezelakua, orduan goorragua zan. Basarrixan eztao ordurik: goizian eguna argittutakuan hasi biha da, eta lana ezta amaitzen.

Bazkaixa beti ordubata aldian izaten da, baiña noiz erretirauko ze(r)an eztakizu. Bero dauanian bero daualako, hotz dauanian hotz daualako, eta eurixa danian eurixa dalako, beti keja, baiña lana eñ ein biha da. Gaur egunian makiñerixa ona dao, eta lana erreztuta dao, baiña, hala ere, goorra da: han eztao oporrik.

(Antonio Berasaluze)

BASERRIA ETA EGURALDIA

PASTORA: Bai, zeoze eukiko'on, illargixak, e! Bai, hilberia ta hilberrixa ta. Hilberia ba, hazixa ta urtekua ereitteko, hor.

BEGOÑA (Pastoraren erraina): zuk botatzen ba'ozu perrejilla hilberrixan, zatixa lenao goratu itxe jatzu, ta letxugia botatzen ba'ozu, berdiñ; dana goratu. Hilberan botatzen ba'ozu, ezta goratzen hala. Alde haundixa dao, haundixa aldia.

GALD.: Udaberrixan eualdi honek kalte eitxe'io?

PASTORA: Uuuu, eualdi honek kalte, kalte! Kalte haundixa, eualdi honek kalte. Eualdixa ona [behar da]. Hamen sarritxan, eurixa ein, da garbi; bero garbixa biha da. Baiña haura bero garbixa len ezautze genduan geu gaz-

tiak giñanian, bero garbixa: hau gerriau pasau zan ezker, bero garbirik sekula ez. Len bai, len bai, baña oiñ...

Ne(r)e tio zan batek esate zaban eze “hau goiko... hamen dabizen abioiak-eta itxuria amosperia dana jan dabe”, esate zaban. Len, illuntzixan euzkixa sartze zan, bero demasak eta, euzkixa. “Bixar holaxe ein biha dau”, halaxe eiñ ere. Bixaamonian, sasoian jaikitxa ibiltze ezpazan lanak eitxen, ganaukin da kanpau... , ganauak haste zian hamarretaako, oiñ adelantauta daure zeak, oiñ orduak eta danak, baiña orduan goizeko lauretaako jaikitxa, ganauak ibili... Hamarretaako haste zian [erretiratzen], holaxe, biaiak atara ta... auantau ezinda beruakin ganaua. Da pertsonak ere bai! Pentsa'izu ebardiko berua ze izango zan.

(Pastora Ansola)

7.6. LANTEGIA

DIONISIO TXURRUKA: (...) Beti, bai, bai. Eta ostian, bazabiz biharrian, ba, konpaazio bateako, ni Txixarruanian ibili nitzanian, eitte naban fresadoran iual, tornuan iual, kopixa(d)oran ere bai, retifika(d)oran ere bai, mandrina(d)oran ere bai... Eta, ba, baten fallua baldin badao, ba, hara bialtze zaittue, eta orduan, ba, kubriu eitte'ozu asko.

(...) Da Elgoibarren ni ointxe bi urte-ero izan nitzuan esposiziua ikusten. Eta makiñarixa ona etarata dao Elgoibarren, e! Hónek, *Danobatek* eta, *Etxetar* batek eta, *Kondiak* eta, *Soraluzek* eta ...

GALD.: Bai. Baakizu zenbat taller dauan hemen?!

DIONISIO: Asko, asko. Industria asko dao Elgoibarren ere, e! Eta kanpora mordua jun diala! Itziarreaño ta; pentsa'izu.

GALD.: Itziar esaten debe ai dala zabaltzen.

DIONISIO: Bai, bai, ikeraarri, ikeraarri. Eta hor ere problema txarra dao: familixia apurtuta geratzen da. Gizona jute jatzu... egun guztian han.

GALD.: Kotxia bi'ozu, gaiñera, denbora guztian.

DIONISIO: Bai, denpora guztian. Eta zeozer etxian, hau, hori baldin bada ero, abixau ein bihar. Teleponua jo bihar, edo bestia, edo bazkaixa aparte ein bihar...

(Dionisio Txurruka)

7.7. ERROMERIAK

“DULTZE MENEÓ”

LUIS ETXANIZ: Erromeixara, baatik: Madarixara, Kurutzetara, San Lorentzora... Gero, mendi-erromeixak, asko: Sarguate ta, Irukurutzeta ta...

GALD.: Eta danera ibiltze ziñaten?

LUIS: Hórretara, dánetara. Larraskanda ta... Hor bazittuan, Aittolako Kurutzian da... Bueno! Hor Urbixan hasi tta, zeian, Xoxoten da, erro-meixak... Udan beti eote zuan nunbaitten. Eta gu, dánetara. Baiña zuenian eote zuan, zeian eote zuan...

GALD.: Kurutzetan eote zan.

LUIS: Kurutzetan eote zuan, pijo! Eta Ma(d)arixan. Iual jute giñuazen lenengotik Ma(d)arixara. Ma(d)arixan etxuen, ba, dantza lotua eitten la(g)atzen.

GALD.: Ma(d)arixan ez? Hori bateron batek kontau zian.

LUIS: Azkoittiko partian etxuen lagatzen. Azkarate gaiñian, Elgoibarko partetik dantza lotua eitte zuan. *Dultze meneo* esate jakuan Azkoittixan horri. Eta Azkoittiko partetik dana sueltua ein bi'izate zuan, dana sueltuan.

(Luis Etxaniz)

IBILALDI LUZEAK

DIONISIO TXURRUKA: Ezkondu gu ein giñan, ba, “el año cuarenta y ocho” ezkondu giñan, bai. “Kuarentaiotxuan”. Harta(r)aiño bittartian, ba, erromeixara, batera-bestera. Etzan oingo mouan. Orduan jute zan, gazte(r)ixia, ba, oiñez San Migelera ta beste aldea-ta.

GALD.: Bai, bai.

DIONISIO: Oiñ ez, oin kotxia hartu, eta di-da juaten da jentia; baiña dipeentia, oso dipeentia gelditzen da, bai. (...) Pentsa'izu, ba, Santa Eufemia baatik nun daon? Baatik nun daon?

GALD.: Nun dao hori?

DIONISIO: Markiñatik harutz, Santa Eufemia.

GALD.: Markiña baiño harutzao?

DIONISIO: Bai, bai, harutzao oindio.

GALD.: Bai.

DIONISIO: Eta hara-ta, oiñez juate giñan.

GALD.: Oiñez?

DIONISIO: Oiñez! Ez hemendik bakarrik, baita hortikan ere, Ma(d)arixa aldetik eta Urruzuno balletik, San Lorentzo balletik-eta; oiñez danak, hamen goizaldian, daka, daka, daka... Eta etorri ere bai.

(Dionisio Txurruka)

NESKA-LAGUNTZEA

LUIS ETXANIZ: (...) Bai, neska-la(g)untzera ta, hoixe! Beti ez, baiña askotan bai. Neskak etortze zittuan da...

GALD.: Eta jun ein bihar.

LUIS: Hi, eta gaur eztok ezer! Gaur basarri dánetara kamiñua daok. Mutíllak ezpadauka, neskiak kotxia jakak, berakin jungo haiz.

GALD.: Bai.

LUIS: Baiña orduan ze? Orduan basarri batera ere etxauan kamiño(r)ikan, etxauan... Ezer ere etxauan: etxauan kotxeikan, etxauan... Motorra eo, baten batek ekarri zabanian... danak motorrari be(g)ira, ahua zabaldua, hi. Han Kurutzetan azaldu zanian lenengotik motorrakin, ba: "Ene!". Atzian beste laun bat eo hartuta: "Aiba! Hori, hori millonaixua izengo'ok", pentsatzen mouan. Ez zuan orduan...

GALD.: Eta orduan, sorgiñak eta holako kontuak etzian entzuten?

LUIS: Bai, bai, bai. Sorgin-kontuak eta...

GALD.: Eta etxerakuan bueltan, bakarrik zuazenian bildurrik ez? Edo ohittuta iual?

LUIS: Bai, baiña sorgin-kontu hori asko entzute zuan orduan. Batian da, bestian da, entzute zuan. Azkoitti aldian-da ertetze zittuan, gaiñera, asko. Hamen ertetze juen batzuetan... Paillazo batzuek!

GALD.: Bai.

LUIS: Paillazo batzuek! Gero hor, baten batzuek deskuidau zittuan harrapatzen edo, eta... ba, paillazo batzuek, bertakuak. Eta ezer ez. Neri etxaan sekula erten, makiña bat lekutan ibili nitzuan da.

Orduan lokatzia eote zuan, pistarik etxauan da. Dana ganaua ta burdixa ibiltze zan. Holako lokatzia! Sartu hanka bat, eta jota erropak eta dana txarri eiñ, eta, bua! Oiñ, oiñ eztok iuala... zapatakiñ ibiltzeko mouan dao. Orduan hor zera, abarkakin da, botiñekin da, jute giñuazen neska-laguntzera ta juteko. Biheko!

Orduan, eualdi ona bazan, ba, ni abarketa zurixekin lenengo. Gaztetan, abarketa zurixekiñ ibiltze zuan jentia asko, abarketa zurixa. Eta orduan, Azkoi-ttiko partian behintzat, dana abarketa zurixa ikusiko zuan. Eta Ma(d)arixara jun, pelota bat harrapau, eta abarketa pare batekin jun, bérrixekiñ, apurtu pelotan, beste bat erosi, eta hola... Bertan eote zittuan saltzen, eta etxera ere bai iñoiz.

(Luis Etxaniz)

NESKATAN EGITEN

Guk, koadrillan, oso gitxi eitte gendun neskatan, gehixao izan gea parrandazaliak, neskazaliak baiño. Juergarik juerga, txikiteua, kantuan eiñez: hoixe zan guri gustatze (j)akuna. Eibarrera ta beste herri askotara jute giñan parrandara. Mendira jutia ere asko gustatze (j)akun, eta neskatan eitteko denporarik ez zakagun.

Ni berandu ezkondu nitzan, 34 urte nakazen, ixa mutilzar; justu-justu harrapau zian. Orduan jende asko geatze zan mutilzar eta neskazar. Zelako neskak, gaiñera! Gaur egunian ikuste'ittut emakume onak, jatorrak, eta eztot entenitzen zela geatu dian hórrek neskazar! Eliziak indar asko zakan orduan, eta dana pekatua zan; andrazkuentzat, gaiñera, gehixao, eta zaila zan eurenztat mutilletan eittia.

Nere andria Endoixakua da, eta Itziarren ezkondu giñan. Biajia Valentzia eta Alicante aldera ein gendun. Hogei egun inguru eon giñan, eta oso ondo ibili giñan. Gerora, seme-alabak etorri zian.

(Joxe Mari Betelu)

7.8. EZTEIAK, EZTEI-BIDAIK

GALD.: Ezkondu zuek, baiña, Elgoibarren ezkonduko ziñaten, zu ta aititta?

TEODORA ARAKISTAIN: Baaai, Elgoibarren. Nun ezkonduko giñan, ba? Elgoibarren ezkondu. Bizimodu guztia Elgoibarren ein dou ta!

GALD.: Eta biajia ein zenduen?

TEODORA: Donostian hiru eun. Euenetik zeera, euenetikan zapatura. Eta zapatuan, ezteixak. Bazkaixa ta afaixa jentiakin. Baiña erromeixia ta dana, e! Hortxe aska aurrian eon giñan. Eon zan Gelatxo soiñuakin. (...) Barre eitten dok? Makaleko juergia!

GALD.: Ondo?

TEODORA: Jo! Zera ere bai, Dionisio Estarta hementxe zan bodan, Bibianakin ezkondu ta zauan da. Margari jaixotzeko zauan artian.

GALD.: Eta ze ein zenduen ezkondu ta gero?

TEODORA: Ezkondu, bazkaldu ta hara jun, eta hiru egun pasau Donostian.

GALD.: A, bazkaldu ta gero jun.

TEODORA: Bazkaldu, ez. Armuzau guk kalian, eta jun. Eta gero, bueltan, bazkaixa. Len hala izate zan, zapatu-domekan.

GALD.: Bueltan?

TEODORA: Bueltan bazkaixa, gero, jentiari zerian, bueltan. *Ezteixak* esate zitzakon, *bodia*. Ondo, soiñua nehikua behintzat eta.

GALD.: Orduan ze eitte zenduen? Jan, jan da jan?

TEODORA: Jan eta dantzan eiñ. Eta gero, mezia San Lo(re)ntzon entzun, eta bixaamonian, berriz bazkaltzera jentia.

GALD.: Gelatxokin?

TEODORA: Gelatxok soiñua. Jesus! Lengusua naban, gaiñera, Gelatxo.

GALD.: Ze Gelatxo? Honen...

TEODORA: ... honen aitta. Manuel. Hau zan gure erromeixako soiñujolia ere. Lengusua zan, e! Julianan lengusua, nere lengusua. Zubizarreta da haura bigarrena. Julianan ama, haren ama ta nere ama, ahiztak: Arakistain.

GALD.: Familixakuak orduan.

TEODORA: “En familia”, hara! Ondo pasau genduan orduan. Holaxe zan, ba. Eta gero, ondokuak, Artazoko ta..., hola jentia bodan. Eta gero, senidiak: tiuak eta...

GALD.: Orduan, boda-eguna ondo, ezta?

TEODORA: Bai, neuk behintzat, ondo pasau naban.

(Teodora Arakistain)

7.9. JOKOAK / JOLASAK

“TRES NAVIOS”

“Tresnavios” ibili zifñaten, “tres navios en el mar, tres por alta mar...”. Bat jartze zan, eta danak ezkutau: “tres navios en el mar y otros y nada más”. Orduan bat geratze zan hola, eta bestiak erantzute zabenian, hárek billatzera.

(Agapita Soraiz)

ZINTA JOKOA

(...) Gehitxuao iual eukiko naban, zeatik eze Eibarren, beti izan zan Eibar “socialista” ta “republicano”, hamenguen aldian... oso abantzauak! Eta han, “Casa del Pueblua” ere bazuan! Eta han, jaixa-ero zan, jaixa Eibarren. Hamen etzan artietan holakoikan. Eta, zintxa jokua, bizikleta gaiñian jarri eta zintzak... holakotxe lazo edarrak izate zian, luziak, metro t’erdikuak ero, metro bat ingurukuak, karrete batzuetan batu, eta anilla bat han barrenian, eta paluakin bizikleta gaiñetikan sartu ein bihar zan, han zerian...

Hola ipintze zian bi makilla, ezta? Eta gero soka bat, soka bat eta alanbre bat. Eta han anillak sartze zian, holaxe txintxilizka, e! Holakotxe anillak; eta bizikletan zuazela, gaiñetikan, gelditxu be poliki-poliki, palotxo batekiñ... lapitz puntiakiñ ero holaxe, hantxe sartu, eta ra, ra, ra, norberak eruan biha zaban.

Oso famosua zan hori; jai guztietan agertze zan hori.

Gero ugaritxu ein zan, baiña artietan etzan leku askotan izaten. Eta hamen San Bartolomietan eta hola izate zan hori. “Carrera de cintas” esate zitzakon erderaz.

(Juanito Arrieta)

PILOTAN MADALAN

JUANITO ARRIETA: Pelotan, ointxe ere dauan eleizako fatxadan, zerian, Maalan, pelotan asko ein genduan guk.

GALD.: Han, kamiñuan ez zan autorik ibiltzen da.

JUANITO: Ez, ba! Arratsalde guztian iual automobill bat ero. Etzauan horren arduraikan.

(Juanito Arrieta)

KAMIÑEROKO FRONTOIA

FLOREN LEIARISTI: (...) Ez. Kamiñerokua ezta basarrixa, Kamiñerokua, ze esango'izu(t) pa nik, hor kurban, oin karrozeixia dao, len frontoia zan hor. Len, Kamiñerokuan zan frontoia. Eta gu danok han frontoian beti, anai bat pelotaixa euki naban, beste bat korredoria; o sea ke, gu danok pelotako mutillak izan gara, deporte horta(r)akua. Oñ ere ni jaiero Eibarrera jute naiz partidua ikustera: gustau eitte (j)ata pelotia asko.

GALD.: Nundikan euki dozue zuek halako zaletasuna?

FLOREN: Ba, esate'izut: frontoian jaixo..., hor Kamiñeroko frontoian bizi izan giñala gu; béntanatik beti beittu, eta frontoia geunkan, hamendik kalia bezela; guk frontoia geunkan, etxetik. Eta beti, beti frontoian, granujetan ere, etorri etxera eskolatik, bazkaldu, eta antxitxika frontoira: izardixa daixola eskolara. Aitta ta ama beti errietan, “beti hola” ta...; holaxe kontuak...

GALD.: Hango frontoia ze zan, Plazako frontoia aiñakua?

FLOREN: Iuala, iuala; kubiurtua izatia; oso frontoe politta; da hor partiduak-eta len jokatzte zian praka zurixekin da, profesionalak, e, jokatzte zeben! Da hamen, Elgoibarren sasoe baten zian, ee, ze esango'izu(t) pa, nik, Artazo ta, Fermin da... gure anaixa ere pelotaixa zan da, hola jaixetan-da horrek ipintze zittuen jokatzten. Eta hola ibiltze zian.

(Floren Leiaristi)

PILOTA

Pelotan ere ondo moldatze nitzan. Koadrillan ixa danok izan gea onak; anaixa-ta. Orduan hamen pelotan danak eitte zaben ondo. Eta frontoia, hartu ezinda, txandaka. Orduan erresetau eitte zan txandia, baiña ondo erresetau, e!

Orduan zauan “Pitxirri”, Gerardo Arriola, eta haren anaixak, Bizentek, eta bixak pelotak eitte zittuen, eta eroatera edo alkilatzeraz jute giñan.

Erriala edo hogeizentimo ordu t’erdirako; plazan. Frontoian, egun guztian zabizen pelotaixak, miñutu bat ere etzauan hutsikan, goizetik gabearate. Eta gero, gaiñera, illuntzixan, ba, hónek profesionalak, Eibarkuak, Estarta, Zabala, Sol-en aittitta... horrek zian hemen onak, eta jende guztia hórrak ikustera. Temia zaken bata bestian kontra. Dirurik jokau batere ez, baiña letxia... Askotan txaketia hartu, eta ihesi etxera, hasarauta han frontoian. Zan... ikustekua! Pundonorra kristona zaken. Han mundu guztiak jokatze zaban pelotan.

Oingua da rarua, hamengua, frontoia beti hutsikan edo ráketekin, bestiekiñ... eta eskuz, iñok ez. Ikarauta nao hamengo gazteixiak. Orduan etzauan eskolaikan. Len bi ordu goizian eta bi arratsaldian, eta libre. Etzauan notak etxera eruan biharrik eta. Gero, musikia, inglesa, frantsesa... oingua da... zoratsekua! Illobak ikuste’ittut etxian, eta bueno! Bizimoua diferentia zan.

Orduan diruik ez: hori zan problema. Zinera juteko, nere amama arrainduna zan, eta Eibarren saltze zaban Ondarrutik ekartze ziuere arraiña. Betiere amaman mantala ate ostian zauanian, nun harrapauko erriala zinera jutekoero, hara juteko etzauan diruik orduan-eta. Halakuak asko ein dittugu. Gure bankua amama izan da beti. Beti amamari erriala edo bestia hartu; beti hari. Goorra zan haura, amama.

(Manolo Unzilla)

IBAIA

PEDRO BARRUTIA: (...) A, bai. Al zanian, libre harrapatzen bagendun jolasian eitteko hemen gauza bat edarra gendukan hemen: errekoa.

GALD.: Bai.

PEDRO: Hau dana libre.

GALD.: Eta garbixa.

PEDRO: Hemen, hasi sasoi honetan... Bai, sasoi honetarako, zera, igarixan.

GALD.: Bertan.

PEDRO: Bai, bai, juan bertara, eta, zera, hau gero, arraiña, peskan. Eta amorrauak giñan gu, hau Kondia difuntua?

GALD.: Eztakitt nik.

PEDRO: Hau, ba... Ez zara akordauko. Hau... Urban Konde, zera, Kondia tallarra?

GALD.: Bai, hori, bai.

PEDRO: Ba, hori fundau zabana. Neure intimua. Eta ointxe dala lau urte hil tzan, eta haura ta gu, peskan amorrauak giñan. Ni ez hainbeste, etxian beti nakan zeoze ein biharra... Harek eta..., baitta hau... bestia..., Nemesio Ansola, "Txamugaiña" esate'iuena. Hortxe bizi da ta... Haura ta, joe!

Gero, zerian da, peskan da, bai. Hartu peskia ta, haura segurua izate zan da, beste batzuen zestuak errejistau, zaitxu...: ba, "fulanok Albitxurritikan bota jok", "bestiak han bota jok, bestiak eta... Jaso ein bi'juau".

Eta ura zikintze zanian, jaso, eta iual barbo mordua, eta ra! Txabalituak eta, ba, orduantxe hamabost bat urte ero, eta gero tabernara (...) jatera ixilikan. Eta enterau eitxe zan jendia: "Ene! Goiko Errotak eta Urbanek eta eztakitx zeñek eta, harrapau juek! Mekauen la letxe!". Hortikaldian zestua zakenak: "Hórrek gure zestua errejistrauko juen". Ja, ja, ja!

Eta holakotxe gauzak asko ein douz. Ostian, hortxe, arraiñetan-da; asko ikuste genduan, gero, ángulia. Gero, zela ixotzen daban gora. Aurreraka ezta juaten, e!

Eta Elgoibarren, nere akorduan, hiru-ero itxo zian bakarrikan errekan.

(Pedro Barrutia)

APUSTUAK

JOXE GURRUTXAGA: Urkittikan probia zela jokatu genduan, hori ezingo juau esan.

GALD.: Zer? Probia?

JOXE: Idixekin probia jokatu genduana. Probia badakik ze dan? Badakik ze dan?

GALD.: Bai, bai, bai.

JOXE: Ba, haura jokauta nao ni. Kaletikan Azkaratera zein, ordu batian, zein lenao juan, zein gorao juan. Urrategiri jokatu giñuan, hil tzan anaia zaharrenak eta nik, etxeko ídixekin.

GALD.: Eta?

JOXE: Puf! Karga haundixakin zuan, eta guk erten genduan, Juaristiko so(r)ua, badakik?

GALD.: Bai.

JOXE: Juaristiko so(r)o-barrena, Parapandik gorako buelta haundi haura? Haraiñotxe jun giñuazen. Josus, Maria! Ni, zu erdi haundi enitzuan orduan, mutill!

GALD.: Zu zorauta zaude!

JOXE: Eta gero Urrategik jokatu bihar juan gure markia eittera. Eta etxuan erten harek. Bilddurtu ein zuan. Ezin zaikiela harek ein da.

GALD.: Eta bixok bakarrik orduan?

JOXE: Eez, guk irabazi genduan! Eta kitto; hori orduan amaittu zuan. Holakuak, mordua!

(Joxe Gurrutxaga)

7.10. OSPAKIZUNAK

“AMABIRJINA GAROTARAKO”

JOXE GURRUTXAGA: Pilarika e(g)una, “doce de octubre” ezto(k), pa, izeten?

GALD.: Bai.

JOXE: Hillan hamabixan da. Eta harén zaiñ eote zittuan basarritarrak mendirako la(g)unak izeteko. Tallarretan jai, eta garota(r)ako launak. Han zabizenen zai eote zittuan, gure zaiñ eote zittuan. Eta gero, asmau jauen horreri *Amabirjiña Garotarako*. Amabirjiña Pilarrekua esan biharrian, *Amabirjiña Garotarako* esate jakuan horri.

(Joxe Gurrutxaga)

DOMUSANTU EGUNA

(...) Hori izen zan Maalan. Gero, hórrek denporok pasauta, Maalako kapellauan zera, monagillo izan nitzan, hamen ere bastante denpora. Baiña hamen, goizian seiretan izate zan mezia, goizian seiretan. Ánimetan da, Domusantu egunetan, egun hórretan hiru meza emate zitxuan apaiz bakoitzak, hiru. Eta, lenengua goizian lauretan edo lau t'erdietan edo. Eta, holaxe juate giñan. Ni gogoratze naiz, gure aitxa zanak, etxian (gu bizi giñan planta bajan, eta gero lelengo pisuan)... lelengo pisuan zaukagun, hango sala baten, su bajua, eta gaztaiñak erretze zitxuan gure aitzak, batez ere Domusantu egunian. Eta izate zan gaztaiña-erre egunan mouan eo, lenengo aldiz gaztaiñak erretze zian eguna. Eta, háretxek, gero illuntzixan, gáztaiñak afalonduan jan, eta hurrengo goizerako ere, preparau, eta, hárek janaz, mezetara.

(Juanito Arrieta)

SAN ANTONIO EGUNA (URKIOLAN)

Butrongo tabernia eztakitx ezautu zenduan zuk. Oin fruteixia badao hamen, *La Huerta* eo, badao, ba? Han izan zan... Ezautu naban nik tabernia orduan ere, Butrongo tabernia. Eta, hara inguru hartan, behintzat, bizi zianak, hamen kaletarrak edo, maalatarrak batez ere, gu, Maalakuak. Eta San Antonio egunian (juniuan hamahiruan izaten da San Antonio eguna, Urkiolakua), eta eun horretarako basarritxarrak, Azkoitxi aldetik-eta basarritxarrak etortze zian oiñez, hor bueltako basarritxar asko, tren espeziala hartzeko, goizian seirak-sei t'erdietan izate zan da, horrako. Eta tabernia gau guztian irikitxa eote zan, gau guztian. Bai, zeatik eze hama-bixak alderarte eo iual eongo zian normalian, eta ordubatak edo ordubixetaako banaka batzuek haste zian, eta han janaldixa ero, en fin, jatordua eitxe zeben Butronguan, gero estaziora juan eta lasai hartzeko trena, Durangora.

(Juanito Arrieta)

SANTA ESKE EGUNA

FLOREN LEIARISTI: Gure aitta zan soiñujolia, guri ez ziun ematen aurrerapenik sekula. Soiñujolia, beti bera lanian; da lan nekosua da soiñua, e! Harek ere soiñua joten-da ibiltze zanian-da, haundi-haundi eukitze zaban es-

kuturra ere; haura nekosua da. Oiñ, gaur eunian, adelanto haundixak daure, eta aurrian euren mahaitxuan soiñua ipiñi gaiñian, eta fazilidade haundixakin joten dabe gaur; baiña len ez. Gure aitta zana goorra zan: harek eitte zaban... tallarrian lana eiñ, Santa Eske euna izate zan, Santa Eske eunian ertetze zian tallarrian zortzi-hamar laun, eta bueno, zu soiñuakin, beste bat bertsoaia, juntatze zian kuadrillia, eta gau guztia Santa Eskian ibili.

GALD.: Etxetik etxera.

FLOREN: Etxetik etxera, eta gero, bixaamon goizian, lanera zuzenian lorik batere ein be.

(Floren Leiaristi)

INUZENTE EGUNA

Garai batian jendiak bilddur haundixa eukitze zaban Inuzente egunian. Izan ere, inuzentekeixa goorrak, astunak eitte ei zittuen. Halako batian, langille gazte bateri nagusixak esan ei zion:

—Hartu'ik txunguria, eta erua'ik halako lekura [herriaren beste muturrera]¹. Allau, ta:

—(Bestia kónturauta inuzentekeixia zala) Hi, uezabak gaizki esan dik; ez-tok hamen! Txankakua zubiko errementeira eruan bi'ok txunguria.

Langille gaztia, kejauta, txunguriak zaukan pixuakin. Allau zan, eta errementeixak, errukittuta, adarjotzia zala esan ei zion.

—Adarra jo dixe, inuzentekeixia ein dixe, bai, eta erua'ik berriz ere txunguria bere lekura.

Langille gaztiak, hasarrian hasarriakin, hartu txunguria, eta Txankakua zubittik behera bota ei zaban, ibaira.

Haura ikusi zabenak esaten dabe oindik hor eongo dala ehun kilo inguruko txunguria, Txankakua zubittik gertu, ibaixan.

(Joxe Mari Betelu)

¹ 'Ingudea', ehun bat kilo izango zituen.

7.11. EUSKARA

GALD.: (...) Eta auzuetan, berdin eitte'ozue euskeraz?

DIONISIO TXURRUKA: Bueno, auzo artian, Elgoibarren, konpaazio bateako, auzo artian danak iual eitten dou. Bestela, dipeente eitten dabe, bai, dipereente oso. Oso dipeente Azkoittira ere. Elgoibartik Azkoittira sartu zaitte, Madarixara juan zaitte, eta dipereente eitten dok han. Azkaraten bertan pasatze zaanian, dipeente eitten dozu berba ya.

Guk iual eitten dou, baiña eurak dipeente eitten dabe. Oíñ, entendi u ondo eitten gera alkarrekiñ, e! ezta! Baiña euskera batuaua, hor zihar; euskera... edarraua.

GALD.: Auzuetan eztabe desberdiñ eitten?

DIONISIO: Ez, ez, ez. Hamen Elgoibarren dana iual eitten dou. Hamen ere, pasatze zera Urkaregiñ, Gipuzkua-Bizkaia muga...

GALD.: Bai.

DIONISIO: Hor ere kanbixau eitten da, kanbixau eitten da; hain da gauza rarua...

GALD.: Bai, bai.

DIONISIO: Eta Debara ere bai. Debara ere jute zea, eta dipeente eitten dabe han ere. Eta Azkoitti aldera ere bai. Mondragoi aldera juten baldin bazea, han ere bai. Han ere dipeente. Oíñ, herri bakoitzian entendi u alkarrekin iual eitten dou, e! Hori dao ipinitta, itxitura bat bueltan ipintzia bezela, berba iuala eittia.

GALD.: Bai.

DIONISIO: Euskeraz behintzat. Oíñ, erderia, ba, erderia danian da iuala, eta akabo! Erderiak eztaka inportantziarik, baiña euskariak... Euskaria danian iuala biha litzake.

GALD.: Ba, oin batua badao.

DIONISIO: Bai, bai, baiña hori...

GALD.: Telebisuan da, batua ta, hasieran kostau ein jatzuen entenditzia?

DIONISIO: Batua entenitzen, gu úmiekiñ ibiltze gara geizkixen. Úmiak eskolatik batua ekartzen dabe, eta matematikak, hau ta bestia ta, ze esan daban

ezin dou guk enteniu, ezin diou esan, ezin diou laundu, úmieri ezin diou laundu. Eta, en kanbio, baldin badao bat, oin, konpaazio bateako, gure illoba, hogei urte dakazena, hor euskera batu hori ikesten, horrek laundu leike asko.

GALD.: Bai.

DIONISIO: Horrek beste bateri laundu eitten dio asko.

GALD.: Bai.

DIONISIO: Hortara ikesi bihar da. Besterik eztou guk entenitzen: “Ait-ta, aittitta, hitz honek ze esan nahi dau?”. Eta, euskaldunak izan, eta eztagigu ze esan nahi daban.

(Dionisio Txurruka)

EUSKALKIEI BURUZKO IRITZIA

LUIS ETXANIZ: (...) Oiñ, euskeria, hau baiño garbixaua izango dala haura? Hori pentsatze juat nik.

GALD.: Azkoittikua garbixaua?

LUIS: Azkoitti, Azpeitti, hor Tolosa. Hor goittik beherakua, hori euskera garbixaua dala. Hori dana. Elgoibarren, hamengo jentiak eta Eibarkuak eta ere, erderaz etxuau eitten, eta euskeraz etxuau eitten. Bentaniari Azkoittixan *leixua* esate jauek; hamen *béntania* esate jauau, eta *ventana* dok erderaz.

GALD.: Bai.

LUIS: *Fazill* esate juau. Ez erderaz, eta ez euskeraz. Azkoittixan-da *leixua* esate jauek. Horreatikan, euskeria hor askoz garbixaua daok hamen baiño.

(Luis Etxaniz)

AUZOETAKO HIZKEREN ARTEKO DESBERDINTASUNAK ETA KALEKO ETA BASERRIKO HIZKERAK

GALD.: (...) Eta gero, hemen auzuen artian ere diferente eitxe'ozue zuek? San Mi(g)elekuak, Urruzunokuak...

JOXE GURRUTXAGA: Ez, ez, ez. Hemen dana iual samar eitten dok.

GALD.: Bai? Eztao alderik?

JOXE: Hemen, Arratez hemendikan, San Migelen, eta hemen Mendaron da, ez. Mendaron pixkat zertzen dittuk: *badek* eta *badok*. Guk esaten doun bezela: *Bai holako badek!* Edo, *halatan dek!* Eta holako gauzak Mendaron, baiña bestela, berdintsu. Debatik harutz gehixao, diferentzia gehixao jaukak.

GALD.: Eta eztozu pentsatzen auzuen artian alderik dauanik?

JOXE: Ez. San Migelen izen, hemen izen, hemen San Lo(re)ntzon izen, hemen goi etxetan izen, berdiñ, iual eitte juau danok.

GALD.: Eztakitx, iual eragiñen bat Azkoitxi aldekoa edo...

JOXE: Bai, hemen Azkaratekuak eta, Kortaberri ta, baatik nun dauazen?

GALD.: Bai.

JOXE: Hórrek Azkoittikua asko nahaste juek. Guk bai, *biha juat nik* esan biharrian, *ber ditt nik*, eta holako gauzak. Hor Azka(r)ate, hemen Otxortia, Kortaberri, Azkaraten ere bai, pixkat nahaste juek. Horrek gehixao jute'ittuk Azkoittira gu baiño, eta azkoittiarrekin konta(k)to gehixao jaukek hórrek. Entenitzen dok?

Ertetzen dian auzuak dittuk, eta hau Azkaraten hemengua dok, eta hau Azkoittikua dok, baiña bixak hona datoz alkarrekin lanera. Auzuak egote'ittuk alkarri launtzeko, eztakik? Lanetan da, zeretan. Eta nahastu eitte'ittuk pixkat. Baiña gitxi, gitxi.

GALD.: San Migel aldian berdiña pasauko jakue iual.

JOXE: Baitta, baitta. Horrek, horko ta, hónek ee..., Belaustegi tta, horrek [Markiña] Etxeberri aldeko hizketia nahaste juek pixkat. Baiña San Migeletik honuzkuak eta, ez.

GALD.: Eta kalekuak? Zuen eta kalekuen artian diferentziarik?

JOXE: Kalian etxakixek euskeraz! Iñok ere ez! Kalian euskeraz gaizki, gaizki, beti gaizki. Nik askotan esan izan jauet tallarrian ibiltze giñanian da: "zuek eztakizue ez erderaz, eta ez euskeraz". Egixa dok, geñera. Gauza bat *eittia* esan bihar dok, eta *eitxia* gaizki daok. Hau geizki daok.

GALD.: Bai.

JOXE: Ume bat ero, iual dok nobixiari edo andriari esan bihar badiok *maitxia!* *Maittia* esan bihar badiok ere, *maitxia*. Eta bueno, oiñ etxatak momentuan etortzen, baiña gauza asko holaxe, eta gaizki. Eta boza txarra eman, gañera. Ez gure mouko, hau euskera boz hau.

GALD.: Diferente eitzen dabe?

JOXE: Bai! Kalian. Hemen tallarrian neekin ibilittakuak, hik izena esanda ez tittuk ezautuko asko: Traperuanekua ta, hor beste neekin ibili dianak eta... Gero, badakik? Gu ibili giñanian ez artian, baiña gerra onduan éskoletan eon tzuan diziplina bat... euskeraz hitz eittiakiñ...

GALD.: Bai?

JOXE: Dana erderaz eitte zuan orduan. Eta oiñ, berroeta hamar urte, ya hirurogeira dixezenak, mordua dauaz euskeraz éztakixenak. Elgoibarko semi-ak, e! Nik dakidazenak, neurekin lanian ibilittakuak eta lanian ibili bekuak. Euren artian, beti erderaz. Ahiztu! Euskeria ahiztu! Eskoletan laga ez, eta gero, kalera jun, eta tto, tto, tto! Dana erderaz. Etxian ere erderaz.

(Joxe Gurrutxaga)

LUIS ETXANIZ: Azkoitti aldera juate zara, eta hor hasten da pixkat euskera batuaua: *haxek* eta *hoxek*..., eta hor dipeente hasten da pixkat. Eta Andoain aldera sartzen baldin bazara, ba, hor ondo, e! Hor euskera garbixa. Hor eitten dabe euskera e(d)arra: Tolosa, Andoain, Hernani alde haretan da, hor danian. Nik hau zelebria ikusten dot, ez izetia bat, idioma euskeria: danian dipeente.

GALD.: Hamar kilometron barruan gaude eta...

LUIS: Eta dipeente. Deban ere dipeente eitten dabe. Eta Zumaia aldera, Zarautz aldera juan zaitte, eta han ere dipeente. Oiñ, entendi eitten doula, e!

GALD.: Daneri entenditze'iozu?

LUIS: Bai, bai, entendi eitten dou. Baiña, dipeente. Geixkixen, hónetxek, bizkaitarrak.

(...) Hori lengua zuan. Lengo euskeria daok inguakin zihero diperentia, edo behintzat asko, asko dipeentziatzen dana, zeatik eze, gaur dauden gauzak, asko enteniu etxaittu eitten. Enteniu etxaittu eitten guk. Gaurko zuen euskeria, hamen dauan mouan euskera batu hau da... enee! Gero bai, ya kalkulau, eta bueno, hauxe izengo'ok. Baiña asko enteniu etxuau eitten zuen euskeria.

GALD.: Bai, normala.

LUIS: Eta zueri guriakiñ hoixe pasatze jatzue.

GALD.: Nik zeoze, nik entenditzen dot, baiña nere la(g)unak aitzari eztiue entenditzen ezer ere.

LUIS: Ja, ja, ja!!

GALD.: Ezer ez, e! Esate'ie, "zure aitzak inglesezt eitzen dau", esate'ie.

LUIS: Ja, ja, ja.

GALD.: Eurak, baietz eitzen debe buruakin, entenditzen deben plantak eitzen.

LUIS: Ja, ja! Zure ama, bueno, ama ta aitta ere bai, hamen zela San Lo(re)ntzokuak dian bixak, ba, guk ibili doun euseria, iuala dana guk. Guk hor ibili douna, bertako euseria danok, hurrekua.

(Luis Etxaniz)

EUSKARA ETA FRANCO

Orduan bai, dana. Eske, gu izan giñanian [eskolan], dana euseraz eitxe zuan, Franco etorri arte. Guk gehixena, euseraz.

(Pedro Barrutia)

EUSKARA ETA FRANCO (2)

(...) Haura eta mordua mutill, gizon sasoekuak, haren launak eta. Eta oiñ hurrengo jai eguerdi baten, bota najauen bronka bat! Txikito bat, entierro baten izen giñuazen, eta txikito batera sartu nitzuan ni taberna batera, eta han jihar-duan. Bozian ezautu najuan. Zaata haundixa daban bat dok, eta erderaz; eta esan nion kanpuan: "Hantxe baztarretik ezautu juat hire boza. Eta oiñ ere hola diharduk, erderaz diharduk oiñ ere". Esan jaan, erderaz esan jaan, gaiñera:

—Beittu, Joxe, horren kulpia Francok jakak, Francok!

—Hik ere bai, horren kulpia hik ere baaukak. Hik baakik aspaldixan euseraz ikixi bi'zuana. Ez haiz batere enpeñau, eztok ezer ere heure partetik ipini, eta euseraz geruo ta tontuo eingo haiz. Eta erderaz eztakik, gaiñera!

Holaxe esan nion. Kalian gaizki eitte juek euseraz, gaizki. Oiñ, ikixitta, gaztiak oinguk batu hori, edo zabaldu hori, etxakixat ze dan. Eingo juek, ikesiko juek eta, baiña ostian, gaizki euseraz.

(Joxe Gurrutxaga)

EUSKARA ETA ESKOLA

(...) Bai, horretaako, guk beti ein dou euskeraz. Oiñ, gaztetan, eskolan ibili giñan sasoi haretan, galdu ere bai, galerazi ein zi(g)uen euskeria pratika-tzia. Euskeraz berbetan eitxia galdu erain zi(g)uen. Eta gouan dakat eskolan ibili giñanian maistriak nola esate ziun, Altzolan, San Antolindik junda, nola esate ziun maistriak: “Zerian [eskolan] ez, e!”, esate ziun. Kanpuan nahi genduana, “baiña eskolan ezta berbarik ere euskeraz, e!”. Eta dana erderaz. Gero, umiak, hori dan mouan, ohitxu ein giñan erderaz eitxera kanpora ertenda ere, eta la(g)unartian ere: ya, euskeraz baiño errezaio kasik eitxe gendun orduan erderaz; erderaz, zihero erderara. Eta gure atzera(g)okuak, oindik gehixao. Sasoe baten, ya zihero galdu zan euskeria. Guk, etxian da, ez; basarrixan eitxe gendun euskeraz, famelixan euskeraz, ezta? Baiña kanpuan, la(g)unartian da, erderia eitxe gendun.

(Ventura Arrieta)

EUSKARA BATUA

(...) Bai, zuek oiñ, gaztiak, berriz ere bai. Oiñ ere bazuazte berriz atzera gaztiak euskeraz. Euskeria, nere ustez, hor gerra aurreko sasoi baten, euskeraz garbixao eitxe zan, oiñ ipini deben euskera batu hori baiño. Oiñ ipini deben euskera batu hori, ni askotan pentsatzen eote naiz, ez tala euskeria; erderiak in eta euskeriakin mezklauta preparau daben gauza bat. Baiña euskeraz garbi hitz eiñ ezkeru, beste forma baten hitz eitxen dala, beste euskera baten. Esaten dabe gaiztua dala, eta horre(g)atik preparau dabela, ipini debela hau euskera batua erderiak in pixkat mezklautako hori.

(Ventura Arrieta)

ETB-REN EUSKARA

GALD.: Telebisiokua-ta, entenditzen dozue?

DIONISIO TXURRUKA: Bai, bai.

GALD.: Ondo?

DIONISIO: Bai, bai. Telebisiokua ta, bai.

GALD.: Oin bai; eta lenao? Hasi zianian?

DIONISIO: Lenao, hasieran, ba, dipeentia eitte zan, baiña Euskal Herri-
kua ya entenditzen da telebisuan ere, e!

(Dionisio Txurruka)

Euskeria bai, euskeria pixkat kanbixatzen da Naparruan ere, pixkat ber-
bak eta, bizkortxuaua ta. Hor Frantzia aldera ta, ba, bixkortu eitten da, eus-
kaldun asko dao hor ere baiña. Pixkat bixkorraua, diperentia. Baiña moldatze
zara asko, e!

GALD.: Gauza batzuk diferente. Basarrixetan eta kalia diferente eitten
dozue.

DIONISIO: Eske, kalia ere, dao kanpoko jentia asko, e! Hamen Elgoi-
barko... bertan jaixotakua baldin bada, Elgoibarko berbia eingo dau, baiña
asko dao kanpoko jentia ere Elgoibarren ezkondata, sartuta. Kastillano-jentia
ere bai. Eta gallego-jentia, eta hortik datorren jentia; umiak aitta ta amari ezin
diue erakutsi euskeraz. Eurak euskeraz entenditzen dabe, eta aittak eta amak
tutik ere ez. Ja, ja, ja!

(Dionisio Txurruka)

MARKINAKO ETA ELGOIBARKO EUSKARA

BALENTIN EGAÑA: Markiñakuak... *enbixek*, edo *einbixek*, ez, ee...
Zera, oso dipeente. Guk arreba daukagu Markiñan.

GALD.: Bai.

BALENTIN: Eta Markiñan, haura Markiñan ezkondata dao, eta harek
urte mordoxkia daruaz han. Eta hona etortze'anian, hari hartze (j)ako hizketa
diferentia.

(Balentin Egaña)

GAZTEEN ETA ZAHARREN EUSKARA

Gaztiak eta zaharrak diperente eitten dou oiñ. Oin gaztiak gero ta gehixao
datoz euskera batuakin, eta zaharrak, linguakin. Zaharrak lengotikan ezin
dou erten. Oin, batzuek eitten dabe hamendikan ezkondu kanpora. Hemen-

gua kanpora ezkondu, horra Azpeitti, Azkoitti edo Andoain. Eta horrek ya, entsegida hartzen dabe hangua.

(Dionisio Txurruka)

TRATAMENDU ALOKUTIBOA

BIZENTE LARIZ: Hasarrrauta *nagok*. “Hi” eitten de(g)u; bestela, “zu”. Nik kostunbria emakumieri-tta, “zu” beti. Gaztia bada, hari, “zu”.

GALD.: Eta gizonezkueri? Hika?

BIZENTE: Gizonezkueri, zaharrak badia, edo ezautu bekua bada, gitxi ezautzen dana, ba, “zu”; bestela, “hi”.

(Bizente Lariz)

7.12. GAITZIZENAK²

POSTARIA

Ama batek ez zaban eza(g)utu semian izena, gaitzizenez ezautze zabalako, bai berak eta bai herri guztiak:

POSTARIA: Hamen bizi al da Inazio Etxaniz?³

INAZIOREN AMA: Ez, hamen ezta Inazio Etxanizik bizi!

AUZOKO BAT: Ez al da, ba, Inazio Etxaniz zure semia?

INAZIOREN AMA: Aiba Dios! Nere semia da, barren!

(Joxe Mari Betelu)

² Gaur egun baino askoz gehiago erabiltzen ziren gaitzizenak lehen. Herritarrak ez ziren hainbeste beren izenarekin ezagutzen, baizik baserriaren izenarekin (Gorriñaga, Abetxte, Munaundi, Artazo, Borrajen, Ondarru...), senarraren deiturarekin (Pakita Canales, Martina Rivero...), beren edo gurasoen ogibidearekin (Pako sakristaua, Felix abarketerua, Kristina seroria...), beren edo gurasoen jatorri-izenarekin (Aizarna, Mañua, Bermeania, Bixkai, Toloxa, Naparra, Plaentxi, Azkoitti...), ezaugarri fisikoekin eta abar.

³ Asmatutako izena da hori.

GUTUNA DONOSTIARA

Donostiara bialdu ei zaben karta bat gaitzizena bakarrik zabala azalian.

— Kartia ein bihar jat *Tariña* nere la(g)unari.⁴

— Baiña, ba al dakiz haren señaak?

— Ez, baiña ikusiko'ok nola allatze jakon azalian *Tariña* ipinitta.

— Bai, zera! Nola allauko'o(k), pa!

— Posturia eingo juau, nahi baok!

— Bale!

Bai jabia(ga)na allau ere kartia! Eta posturia, karta-bidaltzailliak irabazi.

Etara kontuak zenbateaiño zauden sartuta gaitzizenak!

(Joxe Mari Betelu)

7.13. GOSE- ETA HAIZE-URTEA

GALD.: *Biaje de novios*ik ein zenduen? Nora jun ziñaten?

JOXEPA: Bai. *El año del hambre* zan. *El año cuarenta y uno*. Eta, zela hor zihar ez zauan jatekorikan, ba, ze ein genduan? Ibili. Ba, lelengo Donostian, gero Bitorixan, eta gero Logroñon, eta hortxe ibili giñan. Eta gero haize haundixak, eztozu entzunda euki? Haize haundixak Elgoibarren eon tziala? Dani-an! Hamen, trena bota zabala ta, eztozu sekula entzun? Haiziak trena bota zabala ta? Baguazen Bitorixatik Logroñora, uste'ot, eta gizon sonbrerodun dotore bat, eta harek igarri ein tziun, bi pareja giñan alkarrekin, eta ezautu ein ginddun hamenguak giñala ta: “¿De dónde sois vosotros?”. Eta “Pués, nosotros de Elgoibar”. Eta “¿De Elgoibar?”. “Si”; “Pués allí han pasado terribles males, porque también ha tirado el tren... y no sé qué y no sé cuántos”. Eta bilddurtu giñan. Eta gero, etxera ez genduan pentsatzen etortzia oindio, baiña etxera etorri giñan, Logroñotik, etxera. Eta gero, automobilla topau ezinda, taxista bat topau genduan bidian, eta gero etorri giñan etxera (kostauta ekarri genduan); da Maalan, Guardia Zibillak, farolak eztakitt ze zaukala, ta multia gizajuari. Ja, ja, ja. Eta gu, etxera.

⁴ Hau ere asmatutako gaitzizena da.

GALD.: Gaiñera! Esango zaban harek!

JOXEPA: Bai, bai, gizajua. Kostau zitzakon, gaiñetik. Arbolak eta danak, kamiñuan botata zauren batetik bestera. Eta gizonak urten autotik, eta arbolak kentzen da. Haundixak pasau zian, e, orduan haiziakin! Eztakitt zela eztaukazun entzunda! Ba, orduantxe zan, *El año del hambre y el año del viento*.

GALD.: *El año del hambre* esan dozu. Zela moldatze ziñaten? Estraperlua ta eongo zan...

JOXEPA: Hamen? Bai, bai. Bitorixa aldetik edo Bilbotik etortze zian neska batzuek, neska gaztiak hárek, ekartze zeбен azukria ta, kafia ta, ekartze zeбен. Guk tabernia euki genduan, eta ezaunak zian, eta ekartze zeбен. Guk ez genduan pasau goserik. Soldauak eta... Zenbat ogi zuri jun zian ibaixan zihar! Akordatzia ere zenbat ogi zuri jun zian! Goserik, sekula ere ez. Gabonetan, urte harétan aiña turroi sekula eztou jan. Bai, ba, zerak, kartoi hárek, zer dia hórrek? Soldauak ez baiña... hárek ekartze zi(g)uen, debalde zeuken eurak eta, ekartze zi(g)uezen; eta guk, jan.

(Joxepa Aranberri)

7.14. ALTZOLAKO BERRI

PEDRO LARIZ: Hamen frentia zeian eon zan, Kalamuan.

GALD.: Kalamuan.

PEDRO: Eta Muskurutxun. Hor, bata bestiari tiroteua, eta gu horra mendira, eta tenplau beira. Umiak!

PAKO ISASTI: Hamen zeian, balnearixuan, zea eote zan, ospittala eote zan hor.

PEDRO: Ospittala balnearixuan.

GALD.: Bai, gerra-denporan.

PAKO: Balnearixuan. Eta hor, bueno, hildakuak-eta morduak ikuste genduzen guk, gerrakuak. Gu mutilkozkorrak, eta zea, hildakuak eta barra-barra ikuste genduzen.

GALD.: Etzan giro eongo orduan, e?

PAKO: Bueno!

PEDRO: Hori kapilliori, hor dauan lekuan? Zea, komandantzia. Eta Hotel Alzola dan lekuan, militarrek zaozen len. Kuartela, baiña militarrena.

PAKO: Bai, dana militarra zauan hamen.

PEDRO: O sea, jefena, e! Kapitana, tenientia eta holakuak. Eta han ospitala, honék esaten dabana, eta hamen Zubia (hau restaurantia) dauan lekuan, kuartela. Prentetikan bajatze zian hiru-lau kamioika(d)a soldau, eta beste batzuk jun. Relebua, prentian. Italianuak ere mordo bat eote zian hamen. Eta elizpian ere bai. Estaziuan ere bai, mula mordua galanta, jatekua gora-ta altzatzeko ibiltze zittuenak.

(...)

PAKO: Hórrekin reketiekin, eta haura elizako haura, eztakik? Abadiana?

PEDRO: Bai. Don Markos, monagillo nenguan ni orduan. Bai, bai. Errosaxua erreztatzen abadia.

GALD.: Bai.

PAKO: Euskeraz.

PEDRO: Harek errezatze zaban, uda partia zan, da udan balnearixuan zaon kapilla bat, kapilla txiki bat. Parrokixan euskeraz errezau, gero hara jun, eta han erderaz errezatze zaban, ba, kanpoko jendiantzako ta... Hamenguak, ba, bueno, nahi zabanantzako, bi modutara. Eta, euskeraz erreztatzen daola, reketete batek, ra, erten, da: "Oiga, haga usted el favor de callar!". Pulpittuan, abadia, Markos, Don Markos. "Haga usted el favor de callar!". Eta bilddurtu, eta ixildu da. Eta han zauan elizan orduan koronela izandakua, erretirautako bat, Doloresenian eote zana, gizon haundi bat. Eta abade hori bilddurak hona etortzeko; bestia bidian ertenda. Eta ni monagillo nenguan harékin orduan. Eta hona, eta ba(g)atozen bixok, eta horrek, koronel horrek: "Usted tranquilo, e! Que no le va a pasar nada". Eta reketia han zaon zaiñ, baiña horrek koronel horrek eman zion errespetua, o sea, bronkia, eta "a callar", eta kitto.

Holakuak...! Orduan...! Honen anaixa zana ta neri, nik len esan de(d)ana, jertse horrek, kaiku horrek, hola bolekin da?

GALD.: Bai.

PEDRO: Ikurriñakiñ ez, e! Dibujuak bai, baiña euskaldunen zerak. "Cómo os vea otra vez con ese jersey, os voy a matar a los dos!".

PAKO: Pentsa'izu!

PEDRO: Hamentxe, zubi-kantoiari. Hori etxatak neri ahaztuko burua ondo daukaten artian. Etxera jun, ama zanari esan, harek eba(g)i, honen amak eta nere amak bakoitzak soltau, eta gero lisu(a)o, beste modu batera eifn, eta...

Hamen, gero, gerra-denporan, Elgoibarko ospittalekuak hamentxe eon zian. Ospittalian oin daon jentia, bueno, "oin daona", entenditzen da. Ospittalian zauan bonbardeuen bilddurra(g)atikan. Hamentxe bota, Zelaia zan hau [hotela], hor, horko hau. Hortxe eon zan.

GALD.: Hemen, garai baten, hotel asko zauan, ezta?

PEDRO: Hamen? Ba, zazpi eo zortzi.

PAKO: Dana zan hotela hamen! Dana!

PEDRO: Balneario, Hotel del Balneario, bat; Hotel Larrañaga, bi; Hotel Boulevard, hau, hiru; Hotel Alzola, lau; Hotel Zelaia, bost; Hotel Albizkua, sei; Hotel Sebastiana, zazpi; Hotel Ituarte, zortzi.

GALD.: Eta horrenbeste hotel zertarako?

PEDRO: Udaako.

GALD.: Udarako?

PAKO: Udan jendia etortze zan, urak hartzera etortze zan.

PEDRO: Urak hartzera balnearixora. Urak eta baiñuak hartzera.

PAKO: Baiñuak hartzera, eta deskantsura etortze zan hamen jentia, deskantsura. Bueno, batzuk bai deskantsura; etortze zian batzuk eee...

PEDRO: ... eta batzuk juergara ere bai.

PAKO: Juergara ere bai. Ba, hor parian jokau dirua! Jokatzet zaben!

GALD.: Bai?

PAKO: Balnearixuan?! Bueno!

GALD.: Gau guztian.

PAKO: Balnearixuan, eta hor, kafian ere bai. Zea, Larrañaga kafia zauan han.

PEDRO: Kafia baiño gehixao han, han saloian, reserbauan eurak.

PAKO: Bai, saloian, goizalde arte, taka-taka dirua. Baiña jokau!

GALD.: Aberats-jendia etorriko zan kanpotik eta...

GALD.: Bai, ba!

PAKO: Hoixe! Dana kanpoko jendia!

GALD.: Zuek ere askotan eongo ziñaten balnearixuan, ezta?

PAKO: Bueno, bai. Gu etxequak, gaiñera, hor.

GALD.: Zuek etxequak.

PAKO: Bai, monagillo ibiltze giñanian da. Balneaixora gustora jute giñan, gaiñera, launtzera goizian. Eta ez bat bakarrikan, e! Lau eo bost meza iual goizian laundu!

PEDRO: Orduan hamen, eunak mordua uda partian hamar meza emandakuak, laundutakuak.

GALD.: Hamar meza?

PEDRO: Kanpoko abadiak.

PAKO: Kanpoko abade asko etortze zan.

PEDRO: Beraniatzera, o sea ke, urak hartzera etorri, eta mezia ematera.

PAKO: Danak mezia ematera etortze zian da.

PEDRO: Gu monagillo. Jota belaunak mintzeraifño, hantxe belaunak pegauta!

GALD.: Ja, ja, ja!

(Pedro Lariz - Pako Isasti)

TXIRRINDULARIAK ALTZOLAN

Rekuerdo txar bat ere badaukat. Basualdo izeneko ziklista bat afzionaue-tan ziklokroseko “campeón del mundo” izan zan. Haren rekuerdua daukat, gaur arratsaldian izan balitz bezela. Bazkalostian musian ein gendun alkarre-kin, eta bixaamonian hill ein zan azidentian, Deskargan. Deskarga bajatzen zorua bezela zixela, kamioia jo zaban, eta hantxe geraus zan.

Beste ane(k)dota bat: Bahamontes eta Loroño. Ikusi nittun burrukan Bahamontes eta beste katalan bat, Vicente Iturat, oso ziklista ona zan. Hotel Alzolan burrukan, han kanpuan. Bixak ekipo baten korritze zaben. Bixaamonian haste zan *Bizikleta Eibarresa*, eta bezperan han, burrukan. Bixaamonian ni lanera, Altzolara, eta Bahamontes zortziretako trenera, Altzolako estaziora, bere bizikletia eta maletak hártuta. Ordenia eman ziuén, nahi zabanak korri(d)u *Bizikleta Eibarresa*, baiña bixak ez.

(Jabier Arriola)

8. ONDORIOAK

Azterlan honetako kapituluetan zehar, Elgoibarko euskara ahalik eta xehekien deskribatzen ahalegindu naiz; arloz arlo aritu naiz eginkizun horretan: fonologiaren arloan, izenaren morfologiarenean (kasu-markak eta postposizioak batetik; eratorpena eta elkarketa bestetik), aditzaren morfologian, sintaxi-mailan eta hiztegian.¹

Arloz arloko ibilbide horretan, irakurlea konturatuko zen bai mendebaleko eta bai erdialdeko hizkeren ezaugarriak dituela Elgoibarkoak: batzuetan alde batera jotzen duela, eta beste batzuetan bestera. Zenbaitetan, erdibideko jokaera erakusten du Elgoibarko euskarak: alegia, fonema, lexema, atzizki edo egitura jakin batean (ezaugarri batean) bietariko ezaugarriak erabiltzea (maiztasun edo indar handiagoarekin edo txikiagoarekin), mendebalekoa eta erdialdekoa; gertatzen da hori, ez gutxitan, eta are hitzun baten jardunean ere.

Bi indarren arteko dialektikan ikusten dut Elgoibarko euskara: mendebalekoaren eta erdialdekoaren artean. Bertako berri-emaileen esanetan, “nahaste haundixa” dago gure euskararen. Batzuetan, indartsu eusten zaio mendebaleko ezaugarriari; beste batzuetan, ahulago, eta gehiago nabaritzen da Koldo Zuzok erdialdeko esaten dion euskalkiaren eragina.

Hori guztia formalizatzen ahaleginduko naiz kapitulu honetan, zer ezaugarri lotzen duten Elgoibarko euskara mendebalera eta zer ezaugarri erdialdekora.

Bide batez, Elgoibar bezala euskalki muga horretan dauden beste herri batzuetako ezaugarriekin egingo dut konparazioa, erakusteko herri horietako

¹ Ahozko jardunaren ezaugarriak aletzen eta aztertzen ere ahalegindu naiz bosgarren kapituluaren, baina azken kapitulu honetarako, dialektologia-bereizketarako, ez zait iruditzen beste arloek duten adina pertinentzia dutenik hizkera jakin batekoak baino gehiago orokorrak diren ahozkoaren ezaugarri horiek; horregatik, alde batera utzi ditut kapitulu hartakoak azken laburbiltze honetan.

euskarak nora egiten duen gehiago, mendebalera edo erdialdera: Mendaro eta Mutriku aztertuko ditut bereziki, baina ekarriko ditut hona Debako eta Eibar aldeko ezaugarriak ere, erakusteko euskalki batetik besterako igarotzea ez dela bortizki gertatzen.²

Koldo Zuazo izan da aztergai dudan eremuaren, Debabarrenaren, kokapen dialektologikoari buruz gehien ikertu eta idatzi duena, eta haren eta Badiharduguren lanak hartu ditut hemen abiapuntutzat (Zuazo 1999, 2000b, 2006 eta Zuazo-Badihardugu 2002). Lan horietatik abiatu, eta datu gehiago ekarri nahi izan ditut inguru honetako hizkeren arteko konparazio-
ra, haien bereziketa dialektologikora. Eibarko hizkera oso ondo jasota dago, eta bibliografia-iturrietara egin dut hango hizkerako datuak jasotzeko; Elgoibartik beheragoko hizkeretan, berriz, batez ere bertako hiztunengana jo behar izan dut.

8.1. ELGOIBARKO EUSKARA MENDEBALEKO EUSKARAREKIN ALA ERDIALDEKOAREKIN?

Arloz arlo egingo dut ezaugarrien laburbilpena, kasu bakoitzean mendebaleko garbi diren Eibar aldeko hizkeretara hurbiltzen duten ezaugarriak eta erdialdekoetara hurbiltzen dituztenak ekarriz³; bi indar horien arteko dialektikan mugitzen da Elgoibarko euskara, eta indar horien arteko bat nabarmen nagusituz gero, bagenuke Elgoibarko euskararen kokapen dialektologiko zehatza.

Kapitulu honetan aipatzen diren ezaugarriak ez dira beti-beti garbiki mendebaleko edo erdialdeko; batzuetan, bi eremu horietakoak diren ezaugarriak ere erabili ditut: alabaina, ezaugarri horiek hemen aipatzeko arrazoia da pertinentekak iruditu zaizkidala Elgoibarko euskararen kokapen dialektolo-

² Debarroaren hegoalderagoko beste inguru batzuetan, muga markatua dago Oñati eta Legazpia artean eta, leunxeagoa (Larrañaga, 1998, 5), Antzuola-Bergara eta Zumarraga-Urretxu artean, Antzuolara eta Bergarara sartzen baitira erdialdeko zenbait ezaugarri; haietan ez bezala, edo askoz leunago behintzat, mailakatze bat gertatzen da azterkizun dugun euskalki-muga honetan: Ermua, Eibar eta Soraluzeko hizkera mendebaleko “garbi”etatik hasi (mendebalekotzat hartzen diren ezaugarri asko eta asko betetzen dira Ermua-Eibar-Soraluze inguruan) eta erdialdeko hizkera “garbi”etan (Deba eta, areago, Itziar) amaitu dut mailakatzea: pixkana-pixkana goaz euskalki batetik besterako igarotzean Eibar-Elgoibar-Mendaro-Mutriku-Deba-Itziar kate horretan. Mailakatze hori ilustratzeko, herri horietako ezaugarriak ekarri ditut.

³ Basauri-Sarasua-k (2003, 19) diote mendebaleko euskalkiaren markatza hartutako hogeita hamahiru ezaugarritatik hogeita hamaika betetzen direla Eibarren.

gikorako: eremu zabalagokoak izan arren, baliagarri gertatu zaizkit zenbait ezaugarri, jakiteko kasuan-kasuan zer hizkerarekin batera zihoan Elgoibarkoa, Eibar aldekoarekin edo Deba aldekoekin. Horietan, beraz, ez da ulertu behar Elgoibarko euskara mendebaleko hizkera guztiarekin batera doanik, baizik gure eskualdeko mendebalarekin, Eibar, Soraluze eta horiekin; eta beste aldean, berdin.

Gatozen, bada, ikerlan honetan ezagunak zaizkigun ezaugarriok berrikus-tera, eta horietako zer indar nagusitzen den egiaztatzen (bietakoren bat nagusitzen baldin bada behintzat).

8.1.1. EZAUGARRI FONOLOGIKOAK

Fonologiaren arloan, ezaugarri hauek partekatzen ditu Elgoibarko euskarak, oro har, **mendebalarekin**, edo, hurbilagoko erreferente zehatzago bat hartuz, mendebaleko garbi diren Eibar aldeko hizkerekin:⁴

- *-a + a > -ia: alabia, gonia...*
- *-e > -a: lora, andra, landara, altara, laba...*
- *a > e / i, u (C)__: ikesi, uezaba, siketu, izen (<izan), bihetza, i(g)uel... betiere hitz barruan.*
- *Soinu frikariak sandhietan: esan zaban, hil zan, ze(r) zan hori?, ahal zabana... batez ere.*
- *-i + V arteko <x>: ogixa, zatixa, zelaixetan...*
- *-e > -a / __R: edar, baztar, txarri, izardi... (baina ez Eibarren bezain sarri: *bardin, *barri).*
- *-AI- > -EI-: geiztua, geizki, geñera...*
- *-Z + J- > -TX- aditzetan: etxako jausi, etxaukan bildurrik...*
- *L / D auzian, bigarrena duten formak: bedarra, idarra, zidarra...*

Hona, berriz, Elgoibarko euskara mendebaleko hizkeretatik (oro har) edo (zehazkiago) Eibar eta Debagoiena inguruko hizkeretatik urruntzen eta **erdialdeko** hizkeretara hurbiltzen duten ezaugarriak:

⁴ Bereziki aipatu ditut hemen Debaerdiko Eibar aldeko hizkerak (Eibar, Ermua, Elgeta, Soraluze), Eibar ardaztat hartuz haiekin egin baitut konparazio estuena; horrek ez du esan nahi, ordea, ez dugunik Debagoieneko hizkerekin ezaugarri komunik, ez eta gutxiagorik ere; ezaugarri askotxo daude Deba ibar osoari dagozkionak (ikus, besteak beste, Zuazo-Badihardugu 2002 eta Zuazo 1999).

- $a > e / i, u$ (C)___ : *laguna, harrixa, ...* eta ez Debagoieneko **lagune, *harrixe...* izenaren flexioan.
- f -dun hitzekin batera, p -dunak: *apari, praillia, perixia...*
- *-AIN* eta ez **-AN*: *ezpain, zain, gain, labain...* eta ez Eibar eta Soraluze-ko **ezpan, *zan, *gan, *laban...*
- *-INDD-*, *-ILDD-* soinu-kateak badira, baina Eibar inguruko aldean indargalduta daudela esan behar: *indar, beldur, hilda...* gehiagotan aldaera palatalizatuak baino.
- Ez da gauzatu mendebaleko arau hau: $Vj + z, tz > V + x, tx$: *haize, haritz, bakoitz, gaitzizen...* eta ez **haixe, *haretx, *bakotx, *gatxizen...*

8.1.2. EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK: IZENA

Izenaren eta izen-sintagmaren jokoan, ezaugarri hauek partekatzen ditu Elgoibarko euskarak, oro har, **mendebalarekin**, edo, zehatzago hitz eginda, mendebaleko garbi diren Eibar aldeko hizkerekin:

- Hurbiltze adlatiboko *-rutz* atzizkia: *etxerutz, mendirutz...*
- Ezker-eskuineko erakuslea erabiltzen da: *hau semiau, hori etxiori, haura gizona...*
- Erakusleek erro bera dute singularrean eta pluralean (azentuak bereizten ditu): *etxe honetan, horretan, haretan...* Ez da erabiltzen *hauetan, horietan, haietan* gisakorik.
- *Neuk, zeuk* erako izenordain indartuak: ez da **neronek* erakoa erabiltzen.
- *-TXO* atzizki txikigarria erabiltzen da, eta ez erdialderagoko **-XE*.
- Izenaren osteko *bi* zenbatzailea erabiltzen da (gaur egun indar handiena mendebalean duen ezaugarria), bestelako hurrenkera duenarekin batera: *etxe bi, herri bi...*

Hona, berriz, Elgoibarko euskara mendebaleko edo Eibar aldeko hizkeretik urruntzen eta, horren ondorioz, **erdialdeko** edo Deba aldeko hizkeretara hurbiltzen duten ezaugarriak:

- Ez da erabiltzen sozilatiboko *-gaz* atzizkia: *-kin* bakarrik ezagutzen da.
- Ez da erabiltzen Eibar eta Soraluze aldean ezaguna den destinatiboko *-endako*: *-tzat/-tzako* bakarrik: *amantzat, aittantzako, alabantzat...* baina ez **alabandako*.
- *-AN* espletiboa erabiltzen da *-k* amaiera duten atzizkietan: *etxetikan, handikan, horregatikan, ogirikan, ez daukat etortzerikan...*
- *HAURA* erakuslea erabiltzen da, eta ez mendebalderagoko *HA*.

- *-ZIO* atzizkia erabiltzen da hitz maileguzko eta eratorrietan, eta ez **ZIÑO*.
- Adberbioetan, ez da *-N* amaiera erabiltzen: *zela* (eta ez **zelan*), *holaxe* (eta ez **holantxe...*).
- [*EDO* + galdetzailea] erako izenordainak indargalduta daude: *edozein*, *edozer* hedatuak bai, baina ez mendebaleko **edonun*, **edonundik*, **edonungo*, **edonora...*
- [galdetzailea + *EDO* + galdetzailea] egiturak indargalduta: ez dira erabiltzen **nonor* (*nor edo nor*), **nonoren* (*nor edo noren*)... Salbuespenen bat edo beste bai: *nora-nora* (< *nora edo nora?*), eta zabalduak diren *noiz edo noiz*, *nun edo nun*.
- Ez da erabiltzen *BARIK* postposizioa: *dirurik bagelbe*, eta ez **diru barik*.
- Adberdioetako *-ki* atzizkidun formak: *edarkilederki*, *poliki*, *gaizki...*

8.1.3. EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK: ADITZA

Ezaugarri hauek partekatzen ditu Elgoibarko euskarak, oro har, **mendebalarekin**, edo, bestela, mendebaleko garbi diren Eibar aldeko hizkerekin:

- *EGIN* erroa ahalerako, subjuntiboko eta aginterako aditzetan: *ekarri* (*eg*), *erosi daixen*, *egin neike...*
- *-z* pluralgilea: *dauaz*, *diodaz*, *dakidaz...*
- 2. pertsona pluraleko *-(i)e*: *dittue*, *dakixe*, *ziñakie*, *leukie...* Nahiz ez beti (*zeratel*/**zarie*, *zabiztel*/**zabizie*).
- *EDUN* erroan, *-o-*: *dot*, *dozu...* (Altzolan, baina, *det*, *dezu...*).
- Nor-Nori paradigmak, *j-*: *jausi jata*, *etorri joko...*
- *EDUN*-en hitanoan, *j-*: *esan juat*, *ekarri jok...*
- N-N-N hitanoan, *j-*: *eman jauat*, *esan jan...*
- *JARDUN* aditzaren forma trinkoak erabiltzen dira: *dihardut*, *niharduan...*
- *ERTEN*, *IXO* erabilera iragankorrean: *erten dot*, *ixo dozu...*
- Zenbait aditzen erregimen bereziak: *damutu jata*, *hasarrau joko*, *zorau ein joko...*
- *-AU* partizipio-amaiera maileguzko *-ado* aditzetan: *kantsau*, *preparau...*
- *-I(D)U* partizipio-amaiera maileguzko *-ido* aditzetan: *partidu*, *eskribidu*, *aburridu...*
- *-TZEN* amaierak *-N* partizipioko zenbait aditzetan: *jakitzen*, *jardutzen*, *entzutzen...*
- Aditz faktitiboak *-TU ERAGIÑ*-en bitartez: *liburua erosi era(g)in diot alabari*.

Hona, berriz, Elgoibarko euskara mendebaleko hizkeretatik urruntzen eta, horren ondorioz, **erdialdeko** hizkeretara hurbiltzen duten ezaugarriak:

- *ARI IZAN* ere erabiltzen da (*jardun*-ekin batera).
- *IZAN* erroan, *-a-*: *gara, zara...*, baina baita *-e-* dunak ere (*gera, zera...*).
- Iraganeko 3. pertsona ez da *ø-*, *z-* baizik: *esan zaban, erosi zeбен, za-(g)uan...* eta inoiz ez **esan eban, *erosi eben, *eguan...*
- Mendebalean baino pluralgile aukera handiagoa dago: *-z-* rekin batera, *-it-* mendebaleko hizkeretan baino gehixeago, *daude/daure...*
- Aditz-izenetan ez da erabiltzen mendebaleko *-etan*: *apurtzen/*apurketan*.
- Ez da erabiltzen mendebaleko *-TUTEN/-DUTEN* aditz-izena: *aburritzen, hartzen...* eta ez **aburriduten, *hartuten...*
- Nor-Nori paradigmak, iraganean, *zit-* hasiera duten adizkiak ere erabiltzen dira: *zitzatan, zitzakon, zitzakun...*
- Nor-Nori-Nork paradigmak ez da erabiltzen *EUTSI* erroa: *esan dio, diot, nion...* eta ez Eibarko **detsa, *detsat, *netsan*, ez eta Soraluzeko **dotxa, *dotxat, *notxan...*
- *JOAN* aditzean, erdialdera egiten duten formak: *nixe, dixe...* eta ez **noia, *doia...*
- *-AU* partizipio-amaiera euskal jatorriko aditz batzuetan ere: *zorau, hasarrau, aukerau, aixkirau, ingurau...*
- Ez dira *-ITTU* partizipio-amaierak erabiltzen: *hoztu, belztu, hustu...* eta ez **hotzittu, *belzittu, *hutsittu...*
- Ez da erabiltzen mendebaleko *-TZEN* aditz-izena mugimenduko aditzetan: *-tzera juan*, eta ez **-tzen juan*. *Ogixa erostera juan da*, eta ez, besteak beste, Debagoieneko **Ogixa erosten juan da*.
- *ESAN* aditzaren forma trinkoa **-IO-*, eta ez **-IÑO-*: *hala dio, jiok, jiuhan...* eta ez **diño, *jiñok, *jiñuan...* gisakorik.

8.1.4. EZAUGARRI SINTAKTIKOAK

Ezaugarri hauek partekatzen ditu Elgoibarko euskarak mendebaleko garbi diren Eibar aldeko hizkerekin:

- Perpaus osagarrietan *-NA* atzizkia: *Horixe etorriko dana!*
- *BARREN* lokailua erabiltzen da, Debaerdiko herrietan bezala.⁵
- *EDO*-rekin batera, *ALA* juntagailua ere erabiltzen da.

⁵ Azkoitian ere erabiltzen dela dio Zuazok (2000b, 40).

- Kontzesio-perpausetako *BAIÑA* menderagailu enklitikoa erabiltzen da.
- *-TU ORDUKO* menderagailuaren aurrekotasunezko balioa: *eguna zabaldu orduko, mendixa kazariz beteta egoten da.*
- *-TU OSTIAN* menderagailua erabiltzen da.
- *-TZIARREN* menderagailuak bi balio izan ditzake, helburuzkoa eta kausazkoa.
- *-TZIAGATIK* menderagailuak bi balio izan ditzake, kausazkoa eta helburuzkoa.
- Debaerdikoan (Bergara aldean) ezaguna den *-TUANIAN* menderagailua erabiltzen da: *Hartu guardasola, eurixa egiñanian ere.*
- *-TZE ALDERA* menderagailua erabiltzen da, perpaus helburuzkoen mota bat osatzeko.
- Mendebaleko *BEHIÑEPEIÑ* (*behinik behin*) lokailu emendiozkoa erabiltzen da.
- Mendebaleko *OSTIAN* eta *OSTONTZIAN* lokailu emendiozkoak erabiltzen dira.

Hona, berriz, Elgoibarko euskara mendebaleko hizkeretatik urruntzen eta, horren ondorioz, **erdialdeko** hizkeretara hurbiltzen duten ezaugarriak:

- Baldintza-perpausetan *BALDIÑ* lokailua
- *NOLA ...-eN* kausazko perpausetan, *ZELA*-rekin batera.
- Konparazio-perpausetan, mendebalean arrotzak diren *BEZELA* eta *BEZELAKO* erabiltzen dira (*MODUAN* eta *MODUKO*-rekin batera).
- Ez da erabiltzen *LEGEZ* postposizio konparaziozkoa.
- Ez da erabiltzen *LAKO* postposizio konparaziozkoa.
- Bai-ez erako galderak egiteko *AL* partikula ere erabiltzen da (galderetako entonazio bereziaz gain).
- Ez da erabiltzen aurkaritzako *BAIÑO* juntagailua (*baizik*-en baliokidea): **Hori eztoz nik eiñ, Mirenek baiño.*
- Ez dira ezagunak *etorri dator* gisako egitura enfatikoak.
- *ERE* lokailuaren aldaera hau erabiltzen da Elgoibarren, eta ez *BE(RE)* aldaera.

8.1.5. LEXIKOA ETA ALDAERAK

Jakina den bezala, hiztegiaren eta aldaeren arloa oso zabala da, eta hemen hitz-sailak eta hitz esanguratsuenak bakarrik hartuko ditut aintzat: lexemei eta alderei buruzko datu exhaustiboagoak seigarren kapituluan, hiztegian, aurkituko ditu interesa duenak.

Hona, hasteko, Elgoibarko euskarak oro har **mendebalarekin** eta, zehatzago hitz eginda, Debaerdiko hizkerekin partekatzen dituen item lexikalak eta aldaerak:

- **Item lexikalak:** asteko egunak (*martitzen, eguasten, eguen, barixaku, zapatu, domeka*), *abade, amaittu, antxitxika, apurtu, armozu, artazixak, batu, berba, berba egiñ, bihar ('lana'), berakatzza, ei, eruan, eskuma, gatzatu, ganora, ixutu, jaurti, jausi, kantsau, karu, korta, lantzian behiñ, oratu, ortu, odoloste, ugarixo, urriñ, zill...*
- **Aldaerak:** *ahizta, ardau, erabagi, ete, gitxi, gizur, jente, narru, sardau, urten...*

Hona, berriz, mendebalarekin barik **erdialdearekin** partekatzen dituenak:

- **Item lexikalak:** *laga* (eta ez *itxi*), *bukatu, esnatu, faborez* (*mesedez eta faborez* gisako esamoldeetan), *nabi izan* (eta ez *gura izan*), *saltaka, zaiñ* (eta ez *gatx*), *mingaiñ, guraizak, hitz, hitz egiñ, heldu, lan, ilbeltza, otsailla, pareta, triku, aurrena, anai* (eta ez *neba*), *hankautsik* (eta ez *ortozik*), *urruti* (eta ez *urriñ*), *buelta* (eta ez *ostera*), *azkar/bizkor* (eta ez *ariñ*)...
- **Aldaerak:** *berriz, beltz, berdin, berri, eman, eskuin, etzan, ezpaiñ, ille, il-tze, iriñ, iritzi* (eta ez *eritxi*), *premixa* (eta ez *premiña*), *soro, zaiñ...*

Zerrenda hauek ez dute esan nahi, kasu jakin bakoitzean, item edo aldaera jakin bakoitzean, alde batera edo bestera egiten duenik Elgoibarko hizkerak: zenbaitetan, bistan den bezala, bietariko aukera egiten da eta bietariko hitzak eta aldaerak erabiltzen dira, elkarren lehian: *eskuma/eskubi, lantzian behiñ / noizian behiñ, moduan/bezela, antxitxikalsaltaka, kirikixo/triku, artazixak/guraizak, berba/hitz...* Halako kasuez ohartzeko, ikus beheraxeago presatatu ditudan taulak (+ eta -, bi ikurrak, agertzen dituztenak dira Elgoibarren bietarikoak erabiltzen direnak), edo, bestela, seigarren kapitulua, hiztegiari eskaini diodana.

8.2. ELGOIBARKO EUSKARA INGURUKO BATZUEKIN ALDERATZEN: EIBAR, ELGOIBAR, MENDARO, MUTRIKU ETA DEBAKO DATUAK TAULETAN

Ikus dezagun orain, tauletan, goiko ezaugarri horiek nola betetzen diren inguruko herrietan: horrela ohartuko gara non amaitzen den ezaugarri baten esparru geografikoa eta non hasten den haren osagarria litzatekeen ezaugarriaren esparrua; ezaugarri bakoitzari dagokion isoglosa bereizi ahal izango dugu era horretara.

Hego-mendebalera Eibar hartu dut, eta Ipar-ekialdera, Mendaro, Mutriku eta Deba.

Ezertan hasi aurretik, ordea, ohar batzuk egin nahi ditut ezaugarrien taulak egoki interpretatu ahal izateko.

TAULAK ZUZEN INTERPRETATZEKO OHAR BATZUK

a) Koherentzia gordetzeko, mendebaleko hizkeren ikuspuntutik planteatu ditut ondorengo taula hauek; zer esan nahi dut horrekin? Bada, mendebaleko ezaugarriak hartu ditudala erreferentetzat, eta erdialdeko ezaugarriak direnean Elgoibarren erabiltzen direnak, horiek itzulikatu, eta haietako bakoitzari dagokion mendebaleko ezaugarri osagarria ezarri dut lehenbizi, eta parentesi artean erdialdekoa); hortik dator ezaugarri batzuen ezezko forma (“-AN espletiborik gabeko formak bakarrik”; “ARI IZAN aditzik eza (*jardun...*)”; “JOAN aditzean, erdialdeko formarik eza: *nijua, nixe...* motakoak”). Era horretara, ezaugarriei dagokien ezkerreko zutabeen, beti ezarri dut hasieran mendebaleko ezaugarria, eta bigarrenik eta parentesi artean, erdialdekoa: hartara, zeinu bakoitzak, (+) eta (-) zeinuek, beti gauza bera adieraziko dute: (+) zeinua (+ mendebaleko) izango da, eta (-) zeinua, (- mendebaleko).

b) Batzuetan, bietariko ezaugarriak egokitzen dira hizkera jakin batean (+/- eta -/+ markatu dut halakoetan); horietan, lehentasunak markatu nahi izan ditut, zeinuen hurrenkeraren bitartez (lehenbizi markatzen dudana zeinua bigarrenari nagusitzen zaio maiztasunean; zeinuren bat parentesi artean jartzen dudanean, esan nahi du indar handiegirik ez duela ezaugarri horrek).

Iruditzen zait (+) eta (-) zeinuekin nahiko argi ikusten direla ezaugarrien isoglosak: Eibarko euskararen eta Debabarrenekoen artean bada isoglosa-mordoxka bat (Eibarkoan, guztietan (+), eta gainerakoetan, (-)); Eibar, Elgoibar eta Mendaro elkarrekin doazen kasu asko ere badira (herri hauetan (+), eta Mutrikun eta Deban (-)), eta isoglosa horiek Mutrikuko auzo den Astigarribia ere hartzen dute mendebalekoen barruan; azkenik, Deba Debabarrenako gainerako herrietatik aparte geratzen den kasuak ditugu (Deba (-), eta gainerakoak (+)); azken kasu horietan, Debak erdialdeko hizkerek bezala jokatzen du, eta gainerako herriek, mendebaleko bezala. Azterketa honetan Itziar sartu izan banu, hor ere isoglosa batzuk izango zirela iruditzen zait Debaren eta Itziarren artean, mendebaleko ezaugarriak Debara bai baina Itziarrera iristen ez diren kasuetan (nabarmenetakoa, nire ustez, -z pluralgilearena: Deba *dioz* / Itziar *dizko*).

Hona hemen, bada, ezaugarrien taulak arloz arlo sailkatuak.

8.2.1. EZAUGARRI FONOLOGIKOAK DEBABARRENEAN

Ezaugarriak	Eibar	Elgoibar	Mendaro	Mutriku	Deba
-a + a > -ia: <i>alabia, gonia...</i>	+	+	+	+	+
-e > -a: <i>lora, andra, landara, altara, laba...</i>	+	+	+	+	+/-
Txistukari frikarietan eta afrikatuetan, oposizioaren neutralizazioa.	+	+	+	+	+
a > e / i, u (C)___ : <i>ikezi, uezaba, siketu, izen...</i>	+	+	+	+	-
Soinu frikariak sandhietan: <i>esan zaban, hil zan, ze(r) zan hori?</i>	+	+	+	-/+	-
-i + V arteko <x>: <i>ogixa, zatixa, zelaixetan...</i>	+	+	+	+	+
-e > -a / ___R: <i>edar, baztar, txarri, izardi...</i>	+	+ / (-)	+ / (-)	+ / (-)	+ / -
-AI- > -EI-: <i>geiztua, geizki, geinera...</i>	+	+	+	-	-
-Z + J- > -TX- aditzetan: <i>etxako jausi, etxaukan ...</i>	+	+	+	-	-
L / D: <i>bedarra, idarra, zidarra...</i>	+	+	+	+	-
a > e / i, u (C)___ : <i>lagune, barrixe...</i>	-	-	-	-	-
f-dunak bakarrik (p-dunik ez: <i>apari, prailia, perixia...</i>)	+	-	-	-	-
-AN, eta ez -AIN̄: <i>ezpan, zan, gan, laban...</i>	+	-	-	-	-
-INDD-, -ILDD- soinu-kate palatalak	+	-/+	-/+	+	-
Vj + z, tz > V + x; tx: <i>haixe, haretx, bakorx...</i>	+	-	-	-	-
D > R: <i>biria, ero, abaria, ostikaria...</i>	+	+	+	+	+ / -

8.2.2. EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK DEBABARENAN: IZENA

Gatozen orain izenaren morfologiako ezaugarriekin.

Ezaugarriak	Eibar	Elgoibar	Mendaro	Mutriku	Deba
Hurbiltze adlatiboko <i>-nutz</i> atzikia: <i>etxerrutis, horrutz, harutz...</i>	+	+	+	+	-
Ezker-eskuineko erakuslea erabiltzen da: <i>hau semiau, bori etxiori, baura gizona...</i>	+	+	+	-/+	-
Erakusleek erro bera singular nahiz pluralean	+	+	+	+	-
<i>Neuk</i> erako izenordain indartuak (vs. <i>neronek</i> erakoak)	+	+	+	+	+
<i>-TXO</i> atzizki txikigarria (vs. <i>-XF</i>)	+	+	+	+	+/-
Izenaren osteko <i>bi</i> zenbatzailea erabiltzen da: <i>etxe bi, herri bi...</i>	+	+	+	-	-
Soziatiboko <i>-gaz</i> atzikia	+	-	-	-	-
Destinatiboko <i>-endako</i> atzikia	+	-	-	-	-
<i>-AN</i> espletiborik gabeko formak bakarrak <i>-K</i> amaierako atzizkietan	+	-	-	-	-
<i>HA</i> erakuslea (vs. <i>HAURA</i>)	+	-	-	-	-
<i>-ZINO</i> atzikia (vs. <i>-ZIO</i>)	+	-	-	-	-
Adberbioerako <i>-N</i> amaiera: <i>zelan, bolan...</i>	+	-	-	-	-
[<i>EDO</i> + galdetzailea] erako izenordainak: <i>edomun, edonundik, edonungo...</i>	+	-/+	-/+	+	-
[galdetzailea + <i>EDO</i> + galdetzailea] egiturak: <i>monor, nonoren...</i>	+	-/+	-/+	+	-
<i>BARIK</i> postposizioa	+	-	-	-	-

8.2.3. EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK DEBABARRENEAN: ADITZA

Ezaugarriak	Eibar	Elgoibar	Mendaro	Mutriku	Deba
<i>EGIN</i> erroa ahaleran, subjuntiboan eta aginteran.	+	+	+	+	-/+
Nor-Nori-n, <i>ziti-</i> hasierako formatik ez iraganean: oraina + -n: <i>jatan, zatan</i>	+	+/-	+/-	+	-
<i>ARI IZAN</i> aditzik eza (<i>jardun...</i>)	+	+/-	+/-	+	-
Iraganeko 3. pertsona ø-	+	-	-	-	-
-z pluralgilea	+	+	+	+/- ⁶	-/+
pluralgile aukera txikiagoa (+) / handiagoa (-)	+	-	-	-	-
<i>EDUN</i> erroan, -o-: <i>dot, dozu...</i>	+	+/- ⁷	-	-	-
<i>IZAN</i> erroan -a-: <i>gara, zara.</i>	+	+/-	-	-	-
N-N-N <i>EUTSI</i> : <i>detsa, dotsa, dotxa...</i>	+	-	-	-	-
Nor-Nori paradigmaman <i>j-: jausi jata, etorri jako...</i>	+	+	+	-	-
<i>EDUN</i> -en hitanoan <i>j-: esan juat, ekarri jok...</i>	+	+	+	-	-
N-N-N hitanoan <i>j-: eman jauat, esan jan...</i>	+	+	+	-	-
Aditz trinkoen hitanoan <i>j-</i>	+	+/- ⁸	+/-	-	-
2. pertsona pluralako -(i): <i>dittue, dakixe, zinukie, leukie...</i>	+	+/(-)	+/(-)	-/+	-

⁶ Mutriku oso gurtxi erabiltzen da pluralgilea; erabiltzekotan, hori bai, -z erabiltzen da nagusiki.

⁷ Dakigun bezala, Elgoibar ia osoan *dot, dogu* erakoak ditugu nagusi; Altzolan bakarrik erabiltzen da *det, degu...*

⁸ *D-* ere erabiltzen da: *daok, dabik...*

Ezaugarriak	Eibar	Elgoibar	Mendaro	Mutriku	Deba
<i>JARDUN</i> aditzaren forma trinkoak erabiltzen dira: <i>dihardut, niharduan...</i>	+	+	+	+	-
<i>ERTEN, IXO</i> erabilera iragankorrean: <i>erten dot, ixo dozu...</i>	+	+	+	+	+
Aditz batzuen erregimen bereziak: <i>dámutu jata, hasarrau jako, zorau jako...</i>	+	+	+	-	-
<i>-AU</i> partizipio-amaiera maileguzko <i>-ado</i> aditzetan: <i>kantsau, preparau...</i>	+	+	+	+	+
<i>-ATU</i> partizipio-amaiera euskal jatorriko aditzetan: <i>zorau, hasarrau, aukerau, aixirau...</i>	+	+/-	+/-	+/-	+/-
<i>-(D)U</i> partizipio-amaiera maileguzko <i>-ido</i> aditzetan: <i>eseribidu, aburridu ...</i>	+	+/(-)	-	-	-
<i>-TZEN</i> amaierak <i>-N</i> partizipio-amaierak aditzetan: <i>jakitzen, jardutzen, entzutzen</i>	+	+	+	+	-
Aditz-izenetan <i>-etan</i> atzizkia: <i>apurketan...</i>	-	-	-	-	-
Aditz faktitiboak <i>-TU ERAGIN</i> : <i>liburua erosi erain diot.</i>	+	+	+	+	+
<i>JOAN</i> aditzean, erdialdeko formarik eza: <i>nijua, nixe...</i> motakoak.	+	-	-	-	-
<i>-ITTU</i> partizipio-amaierak: <i>hotzittu, belzittu, butzittu...</i>	+	-	-	+	-
<i>-TZEN</i> aditz-izena mugimenduko aditzetan: <i>ogixa erosten juan.</i>	-	-	-	-	-
Mendebaleko <i>-TUTEN/-DUTEN</i> aditz-izena.	-/(+) ⁹	-	-	-	-
<i>ESAN</i> aditzaren forma trinkoa: <i>*-IÑO-</i> (vs. <i>*-IO-</i>).	+	-	-	-	-

⁹ *Abaztutzen* omen da Eibarren salbuespen bakarra (Sarasua-Agitirbeña-Zenarruzabeitia (2005, 253)).

ADITZ-FORMA BATZUK DEBABARRENEAN

Euskara batua	Eibar	Elgoibar	Mendaro	Mutriku	Deba
etorri zara	zara	zera/zara	zera/zara	zera	zera
erori zait	jata	jata/jat	jat(a)	zat	zat
erori zitzaidan	jatan	jatan/zitzatan	zitzatan	zaten/zitzaten	zitzaten
erori zitzaizkion	jakozen	jakozen	jakozen	zakozen	zitzakon/ zakozen
egin zuen	eban/zeban	zaban	zauan	zoan/zuan	zuan
egin zuten	eben/zeben	zeben	zeuen	zeuen	ze(b)en
erosi du	dau	dau/deu	deu	deu	deu
erosi dute	dabe	debe	deue	deue	de(b)e
erosi dut	dot	dot/det (Altz.)	det	det /ret	det
erosi dik	jok	jok	jok	dik	dik
erosi nuen	neban	naban/neban	nauan	noan	nuan
haiek ni ikusi naitek	najuek najone	najuek najone	najuek najonen	nauek naune	natxiobe ¹⁰ natxiobene
hark ni ikusi naik	najok najon	najok najon	najok najon	nauk naun	natxiok natxion

¹⁰ Adizki hauek eta azpiko gelaxkakook, Yrizar (1991, 569).

Euskara batua	Eibar	Elgoibar	Mendaro	Mutriku	Deba
eman dio	detsa	dio	dio	dio	dio
eman diot	detsat	diot	diot	diot	diot
eman dizkio	detsaz	dioz	dioz	dioz, dio	dizko
eman zioat	jetsat	jauat	jauat	dixuat ¹¹	ziot
eman zionat	jetsanat	jaonat	jaonat	dixonat	zionat
eman zioak	jetsak	jaok	jaok	diok	ziok
eman zizkiok	jetsaz	jauaz	jauaz	diozek ¹²	ziozk
etxera noa	noia	nixe	nixe/nua	nijua/nua	nijua
dago	dao	dao	do	do	do/dao
nago	nao	nao	no	no/ noi	no/nao
naramate	narue	narue	naramate	naramate	naramate
jardun/ari izan	dihardut	dihardut/a(r)j naiz	dihardut/a(r)j naiz	dihardut	a(r)j naiz
<i>EGIN</i> erroa	eruaizu	eruaizu	eruaizu/eramaizu	eramaizu	eraman zazu ¹³

¹¹ Yrizar (1991, 586).

¹² Yrizarrek batutako forma da; gaur egungorik ez dut lortu, ia erabili ere ez baita egiten alokutitboa Mutriku.

¹³ *EZAN eta *EGIN*, bi erroak erabiltzen dira: *eraman zazu*, *ekarri zazu*, baina *eualdi ona ein daixen* ere bai.

8.2.4. EZAUGARRI SINTAKTIKOAK DEBABARENNEAN

Ezaugarriak	Eibar	Elgoibar	Mendaro	Mutriku	Deba
<i>BARREN</i> lokailua erabiltzen da.	+	+	+	-	-
<i>EDO</i> -rekin batera, <i>ALA</i> juntagailua ere bai.	+	+	+	+/-	-
Kontzesio-perpausetako <i>BAINA</i> enklitiko erabiltzen da.	+	+	+	+	+
<i>-TU ORDUKO</i> -ren aurrekotasunezko balioa: <i>eguna zabaldu orduko, mendixa kazariz beteta egoten da.</i>	+	+	+	+	-
<i>-TU OSTIAN</i> menderagailua erabiltzen da.	+	+	+	-	-
<i>-TZIARREN</i> menderagailuak bi balio, helburuzkoa eta kausazkoa.	+	+	+	+	-
<i>-TZIAGATIK</i> menderagailuak bi balio, kausazkoa eta helburuzkoa.	+	+	+	+	-
<i>-TUANIAN</i> menderagailua baldintzazkoa: <i>Harru guardasola, eurixa egiñanian ere.</i>	-	+	-	-	-
<i>-TZE ALDERA</i> menderagailua erabiltzen da.	+	+	+	+	+
<i>BEHINPEIN</i> lokailu emendiozkoa erabiltzen da.	+	+	+	+/-	-
Mendebaleko <i>OSTIAN</i> lokailu emendiozkoa erabiltzen da.	+	+	+	-	-
Mendebaleko <i>OSTONTZIAN</i> lokailu emendiozkoa erabiltzen da.	+	+	+	+	-
Baldintza-perpausetan <i>BALDIN</i> lokailurik ez.	+	-	-	-	-
<i>NOLA</i> ... <i>-eN</i> formarik ez kausazko perpausetan, (<i>ZELA</i> bakarrik).	+	-	-	-	-

Ezaugarriak	Eibar	Elgoibar	Mendaro	Mutriku	Deba
BEZELA eta BEZELAKO konparaziokoen eza.	+	- ¹⁴	-	-	-
LEGEZ konparaziozkoak osatzeko postposizioa.	+	-	-	-	-
LAKO konparaziozkoak osatzeko postposizioa.	+	-	-	-	-
Galderatako AL partikularik eza.	+	-	-	-	-
BAINO juntagailua (<i>baizik</i> -en baliokidea): * <i>Hori eztoz nik eiti, Mirenek baiño.</i>	+	-	-	-	-
<i>Etorri dator</i> gisako egitura enfatikoak.	+	-	-	-	-
BE lokailu-aldiera erabiltzen da (vs. ERE).	+	-	-	-	-

¹⁴ MODUAN eta MODUKO ere erabiltzen dira Elgoibarren, Mendaron eta Mutriku.

8.2.5. LEXIKOA ETA ALDAERAK DEBABARRENEAN

Atal honetan, banaketa hau egin dut: item lexikalak (erro desberdina duten hitzak) eta aldaerak (erro bereko aldaera desberdinak).

ITEM LEXIKALAK

Item lexikalak	Eibar	Elgoibar	Mendaro	Mutriku	Deba
abade (vs. apaiz) ¹⁵	+	+	+	+	-/(+)
amaitru ¹⁶ (vs. bukatu)	+	+/(-)	+/-	+/-	+
aittona (vs. aittitta)	+/-	-	-	+	-
aittäjaun (vs. aittätta)	(+)	-	-	-	-
amona (vs. amama)	+/-	-	-	+	-
amandre (vs. amama)	+	-	-	-	-
antxitxika (vs. saltaka)	+	+/-	-	-	-

¹⁵ Item lexikaletan eta aldaeretan, bi aukera daude lehia: aurrena ematen dudana da (+) markari dagokiona, eta parentesi artean ematen dudana, berriz, (-) markari dagokiona. Herriren batean bi formak agertzen badira, bi markak agertuko zaizkigu: antzeko maiztasunarekin erabiltzen badira, markak bakarrik agertuko dira, eta bietakoren bat nagusitzen bada, besteari dagokion marka parentesi artean eman dut. Adibide bat emateko: *berrizo* (vs. *berriz*)-i dagokionez, Elgoibarren hau eman dut: -/(+). Horrek esan nahi du *berriz* (hau da, (-)) erabiltzen dela gehiago, zeren eta *berrizo*-ri dagokion marka (+) parentesi artean baitago.

¹⁶ Herri guztietan baizeko emaitzak ematen dituzten kasuak ere agertzekoak direla iruditzen zait, hitz edo aldaera horien esparru geografikoa ezagutzeko besterik ez bada etc.

Item lexikalak	Eibar	Elgoibar	Mendaro	Mutriku	Deba
apur bat (vs. pixka bat)	+	-(+)	-	-	-
apurru	+	+	+	+	+
Aratuztiak (vs. Karnabalak)	+	-	-	+	-
ardi (vs. arkakuso)	+/-	-	-	-	-
armoza (vs. gosari)	+	+	+	+	+/-
artaxiak (vs. guraizak)	+	+/-	-	-	-
barixaku (vs. ostiral)	+	+	+	+	-
baru (vs. bildu)	+	+	+	+	-
begittandu (vs. iruditru)	+	+	+	+	-
berakatz(vs. baratxuri)	+	+	+	-	-
berba (vs. hitz)	+	+	+	-	-
berba egiñ (vs. hitz egiñ)	+	+/-	+/-	-	-
berriro (berriz)	+	-(+)	-	-	-
bider (vs. aldiz)	+	+/-	+/-	+/-	-
bihar (vs. lan)	+/(-)	+/-	-	-	-
domeka (vs. jai)	+	+	+	+	-
drogan ibili	+	(+)	-	-	-
egusten (vs. asteazken)	+	+	+	+	-

Item lexikalak	Eibar	Elgoibar	Mendaro	Mutriku	Deba
eguen (vs. ostegun)	+	+	+	+	-
ei (vs. omen, emen)	+	+	+	+	-
emendau/amatau (vs. itzali)	+	+	+	-	-
eruan (vs. eraman)	+	+	+/-	+/-	-
eskaratz (vs. sukalde)	+	-	-	-	-
eskeko (vs. eskale)	+	+/-	-	-	-
eztei/eztegu (vs. boda)	+	+/-	+/-	-	-
febrero (vs. otsaila)	+	+/-	+/-	+/-	+/-
gaitzizen (vs. ezizen)	+	+	+	-	-
gaitzo (vs. zail)	+	+/-	-	-	-
ganora	+	+	+	+	+
garbatu (vs.damutu)	+/-	-	-	-	-
garzatu (vs. mami)	+	+	+	+	+
gatx (vs. zail)	+	-	-	-	-
gorantziak (vs. eskumiñak)	+	+	+	-	-
gura izan (vs. nahi izan)	+	-	-	-	-
hagiñ bakarrik (vs. hagiñ/hortz)	+	+	-	+	-
higiñ (vs. nazka)	+	+	+/-	-	-

Item lexikalak	Eibar	Elgoibar	Mendaro	Mutriku	Deba
horma (vs. pareta)	+	-	-	-	-
hurrian (vs. gertu, hurbill)	+	+	+	+	-/+
enero (vs. ilbeltz)	+	+/-	+/-	+/-	+/-
itxi (vs. laga)	+/-	-	-	-	-
itxuria	+	+	+	+	+
ixutu/ixotu (vs. piztu)	+	+	+	-	-
itzal/itzel (demaseko)	+	+	+	+	-
jaurti (vs. bota)	+	+	+	-	-
jausi (vs. amilddu, erori)	+	+	+	- ¹⁷	-
kantsau (vs. nekatu)	+	+	+	+	+/-
karu (vs. garesti)	+	+	+	+	+/-
kerizpe (vs. itzal)	+	+	+	+	+
korta (vs. ukuillu)	+	+	+	+	+/-
kirikixo (vs. triku)	+	+/-	-	+	-
lantzian behiñ (vs. noizian behiñ)	+/-	+/-	+/-	+/-	+/-

¹⁷ Mutriku *amilddu* esaten da, eta Deban *ero(r)i*. Deba inguruko kosta partean xebezeria bezala kontatzen da aditz honen berezitasun bat: Lekeitiotik hasi eta Deba bitarteko lau herrietan hitz edo aldaera desberdina erabiltzen dute; ikus dezagun: Lekeitio (*jausi*), Ondarroa (*jausi*), Mutriku (*amillu*) eta Deba (*ero(r)i*).

Item lexikalak	Eibar	Elgoibar	Mendaro	Mutriku	Deba
larregi (vs. gehixegi)	+	-/(+)	-	-	-
lehenengo/lehelengo (vs. aurren)	+	+/(-)	+/-	+/-	+/-
mesedez (vs. faborez)	+	+	+/-	+/-	-
miñ (vs. mingain)	+	-	-	-	-
mitxilikote (vs. tximeleta)	+	+	+	- ¹⁸	-
neba (vs. anai)	-	-	-	-	-
nor (vs. zein)	+/-	-	-	-	-
odoloste (vs. odolki)	+	+	+	+	-
olgetan (vs. jolasian, txantxetan)	+	-	-	+/-	-
oratu (vs. heldu)	+	+/-	+/-	-	-
orri (vs. ostro)	+/-	-	-	-	-
ortozik (vs. hankautsik/oiñutsik)	+	-	-	-	-
ortu (vs. baratze)	+	+	+	-	+/-
ostera (vs. buelta)	+	-	-	-	-
ostu (vs. lapurretan)	+	+/-	-	+	-
pastore (vs. artzai)	+/-	+/-	+/-	+/-	-

¹⁸ *Kalapuxixa* erabiltzen dute Mutrikan.

Item lexikalak	Eibar	Elgoibar	Mendaro	Mutriku	Deba
piku (vs. moko)	+	+	+/-	+/-	+/-
sats (vs. simaur)	+/-	-	-	-	-
permill (vs. urdaiazpiko)	+/-	-	-	-	-
txar (vs. gaizto)	+	+/-	+/-	+/-	+/-
-tzu: zeintzuk, zertzuk...	+	+	+	+	-/+
ugar/ubar (vs. herdoi)	+	+	+	+	+
ugarixo (vs. igel)	+	+	+/-	+	-
ugazaba	+	+	-	-	-
urriñ (vs. urruti)	+	-/(+)	+/-	-	-
zapatu	+	+	+	+	+
zill (vs. zilbor)	+	+	+	+/-	-

ALDAERAK

Aldaerak	Eibar	Elgoibar	Mendaro	Mutriku	Deba
*-ani > -ain (arraín, usain...)	+	+	+	+	+
-an: ezpan, zan, laban (vs. -ain)	+	-	-	-	-
-l- > -d- (edur, idar...)	+	+	+	+	+
ahizta (vs. ahizpa)	+	+	+	+	+
ardau (vs. ardo)	+	+	+	+	-
atzamar (vs. atzapar)	+	+/-	+/-	-	-
baltz (vs. beltz)	+	-	-	-	-
barri (vs. berri)	+	-	-	-	-
bardin (vs. berdin)	+	-	-	-	-
barre (vs. parre)	+	+	+	+	-
burdi (vs. gurdi)	+	+	+	+	-
denpora (vs. denbora)	+	+	+	-	-
ebagi (vs. ebaki)	+	+	+	-	-
emon (vs. eman)	+	-	-	-	-
erabagi (vs. erabaki)	+	+	+	-	-

Aldaerak	Eibar	Elgoibar	Mendaro	Mutriku	Deba
eskuma (vs. eskubi)	+	+/-	-	+	-
ete (vs. ote)	+	+	+	+	+
etzun/etzin (vs. etzan)	+/-	-	-	+	-
esegi/isigi (vs. eseki)	+	+	+	+	-
gizur (vs. gezur)	⁺¹⁹	+	-	+	-
gitxi (vs. gurxi)	+	+	+	+	-
jentia (vs. jendia)	+	+/-	+/-	-	-
kipula (vs. tipula)	+	+	+	+	+
matraill (vs. masail)	+	+	+	+	+
mustur (vs. mutur)	+	-	-	-	-
narru (vs. larru)	+	+	+	+	+
nasai (vs. lasai)	+	+/-	+/-	+/-	-
adberdioerako -to (vs. -ki)	+	-/(+) ²⁰	-/(+)	-	-

¹⁹ *guzur*²⁰ Eibarrekin alderatuz, guxiago erabiltzen da Elgoibarren atzizki hori; ia erabili ere ez da egiten hedatuak dauden *ondo* eta *hobeto* salbuesten baditugu: *politro* erabiltzen da, gehiegi ez bada ere, baina *edar-ki* (eta ez Eibarko *edarto*) eta *gaizki* erabiltzen dira (eta ez Eibarren, *gaizki*-rekin batera, erabiltzen den *txarto*).

Aldaerak	Eibar	Elgoibar	Mendaro	Mutriku	Deba
premiña (vs. premixa)	+	-	-	-	-
sardau (vs. sagardo)	+	+	+	+	-
solo (vs. soro)	+	-/+	-/+	+	-
txarri (vs. txerri)	+	+	+	+	+
ule (vs. ille)	+	-	-	-	-
ultze (vs. iltze)	+	-	-	-	-
urten (vs. erthen)	+	+/-	+	+/-	-
urun (vs. iriñ)	+	-	-	-	-
zentzuna	+	+	+	+	-

8.3. AZKEN ONDORIOAK

Arlo guztietako hainbat ezaugarri izan ditugu hizpide azken kapitulu honetan, ehun eta hirurogei inguru guztira.

Lehen esan bezala, ezaugarri horiek mendebaleko edo erdialdeko hizkeretakoak izan zitezkeen, batekoak edo bestekoak, baina ez beti: badira bi eremuetako ezaugarriak ere (edo, are, orokorrangoak), baina, hala ere, erabili ditut kapitulu honetan, zeren pertinenteak iruditu baitzaizkit Elgoibarko euskara dialektologikoki kokatzeko, kasuan-kasuan ezagutzeko Eibarko euskararekin edo Debakoarekin batera doan Elgoibarkoa. Beraz, *mendebaleko* eta *erdialdeko* izendapenak zentzu horretan ulertu behar dira: ez zehazki mendebaleko hizkera guztietara egiten duela Elgoibarkoak ezaugarri jakin batean, baizik Eibar aldera egiten duela; berdin, *erdialdeko* diogunean: kasu horietan, ulertu behar dugu Deba aldera egiten duela.

Orain, datuon nolabaiteko kuantifikazioa edo balioespena egin behar: Elgoibarren kasuan behintzat hala dagokidala iruditzen zait.

Kapitulu honen hasieran, 8.1. atalean, arloka eman ditudan 161 ezaugarrien artean (item lexikoak eta aldaerak barne) hau da Elgoibarrek arloz arlo ematen duen emaitza.

ELGOIBARKO EUSKARAREN EZAUGARRIAK KUANTIFIKATZEN

Ezaugarriak	Mendebalekoak	Erdialdekoak
Ezaugarri fonologikoak	9	5
Ezaugarri morfologikoak: izena	6	10
Ezaugarri morfologikoak: aditza	14	13
Ezaugarri sintaktikoak	12	9
Ezaugarri lexikoak: item lexikoak	35	23
Ezaugarri lexikoak: aldaerak	10	15

Jakina, ezaugarri guztiek ez dute erabilera eta garrantzi bera; ezin dute izan garrantzi berbera sistematikoki gauzatzen den arau fonologiko edo morfologiko batek eta item lexiko batek: hori argi dago. Ezin dute garrantzi berbera izan, orobat, ezaugarri sintaktiko batek edo hainbat adizkitan erabiltzen den

morfema batek, alde batetik, eta erabilera askoz mugatuagoa duen erro lexikal jakin batek, beste aldetik. Horregatik egin dut arloz arloko ezaugarrien kuantifikazioa.

A) Lehendabiziko ondorio nagusia da Elgoibarren orekatu samartuta daudela bi indarrak, Elgoibar mendebalarekin (oro har) eta Eibar aldeko hizkerekin (zehazkiago) lotzen duena batetik, eta erdialdearekin lotzen duena bestetik; hizkuntzaren arlo guztietan ikusten dugu oreka hori. Eman berri dudana taulari begiratu bat ematea besterik ez dago horretaz ohartzeko.

B) Mendebaleko euskalkitik erdialdekora iragaitean, ez dago jauzi bortitzi Debabarrenean, **era mailakatuan** egiten da iragaite hori. Hauek lirateke aipatu mailakatzearen katebegiak, [+mendebal] eta [+erdialde] erreferentzia-tzat hartuz sailkatuak:

(+MENDEB.) Eibar/Soraluze-Elgoibar- Mendaro-Mutriku-Deba-Itziar (+ERDIALD.)

Argi eta garbi esan daitekeen bezala Eibarko eta Soraluzeko euskara mendebalekoak direla, berdintsu esan daiteke Itziarkoa erdialdekkoa dela. Tarteko hizkera horietan, kate-mailan duten lekuaren arabera, euskalki bataren eta bestearen ezaugarri gehiago edo gutxiago dituzte: Debako euskarak (mendebaleko eragin batzuk izan arren) gehiago ditu erdialdekoak, eta Elgoibarko euskarak (eta berdintsu Mendarokoak) gehixago mendebalekoak, nahiz erdialdeko hizkeren eragin nabaria izan.

Euskalkien arteko jauzi bortitzagoa dago, lehen esan bezala orografiak eta giza harremanek hala eraginda, Debaerdian (Antzuola/Bergararen eta Zumarraga/Urretxuren artean) eta batez ere Debagoiengan (Oñatiren eta Legazpi/Zegama/Seguraren artean).²¹

C) Inguruko herrien artean, **Elgoibarko hizkeratik hurbilenekoa Mendarokoa** da, zalantzarik gabe (Astigarribia auzoko hizkerak ere, administrazioz Mutrikukoa izan arren, Mendarora egiten du ia erabat). Ezaugarri gutxi

²¹ Zuazok (2000, 50) dio kokapen horretan gertatzen dela hizkeren arteko alderik handiena, ez bakarrik, gainera, arrazoi orografikoengatik, baita arrazoi ekonomikoengatik ere, Oñatik Gasteizekin zuen lotura handiagoagatik.

dira bi hizkerak bereizten dituztenak²². Eta **hizkera horiek dira, Debabarrean, mendebalekoekin lotura handiena dutenak**, Mutriku eta, batez ere, Deba baino gehiago.

Ez da kasualitatea izango seguruenik Elgoibar eta Mendaro izatea hizkeren “bidegurutze” linguistiko honetako hizkera mendebalekoenak: bat dator datu hori erromatarren aurreko leinuen banaketa antzinakoarekin eta leinuen banaketa kontuan hartuz egin zen geroagoko elizbarrutien banaketarekin (Kalahorra eta Iruñea, X. mendetik 1862 urtera bitartekoa). Dakigun bezala, hor zegoen antzinako karistiarren eta barduliarren arteko banaketa-lerroa, eta banaketa-lerro hori erabili zuen elizak antzinako elizbarrutiak antolatzeke: bai Elgoibar eta bai Elgoibarri zegokion Mendaroko Mendarozabal auzoa Kalahorrako elizbarrutikoak ziren, eta Mutriku eta Deba, eta hurrenez hurren haietara egiten zuten Mendaroko Azpilgoeta eta Garagartza auzoak, Iruñekoak.

Ezaugarri askotxo leudeke, eta pisuzkoak gainera, Elgoibar eta Mendaro mendebalekoarekin lotzea justifikatuko luketenak (ezaugarri horietatik ez gutxi isoglosak ezartzen dituzte alde batetik Elgoibar-Mendaro eta bestetik Mutriku-Deba artean); hona horietako batzuk:

- Fonologian, -a + a > -ia (*loria, alabia, gonia*), -e > -a: (*lora, andra, landarra*), -i + V arteko <x> (*ogixa, zatixa, zelaixetan*), -e > -a / __R (*edar, baztar*)...
- Izenaren morfologian, ezker-eskuineko erakuslea (*au semiau, ori etxiñori*), izenaren osteko *bi* zenbatzailea (*etxe bi*), erakusle singularrek eta pluralek erro berebera izatea.
- Aditz-sistemaren parte nagusia mendebalekoa da: *EGIN* erroa, -z pluralgilea, 2. pertsona pluraleko -(i)e, *EDUN* erroan, -o- (Elgoibarren baka-riik), adizki zenbaitetako hasierako *j-*, *JARDUN* aditzaren forma trinkoak...
- Sintaxian, perpaus osagarrietako -eNA menderagailua, *BARREN* lokailua, -*TZIARREN* eta -*TZIAGATIK* menderagailuen balio-bikoiztasuna, *behiñepeñ, ostian, ostantzian* lokailuak...
- Hiztegian eta aldaeretan, hainbat erro eta aldaera mendebaleko: *abade, apurtu, armozu, batu, ei, gatzatu, korta, ortu, odoloste*...

²² Aditz-forma gutxi batzuetan (Elgoibar: *dot, dau-deu, debe, esan zaban, harek esan jan, na(g)o, aburri(d)u* / Mendaro: *det, deu, deue, esan zauan, harek esan jian, no, aburrittu*) eta hitz eta aldaera zenbaitetan (Elgoibar: *izan-izen, eruan, higuñ, biharra-lana, artazixak-guraizak, mesedez, gizur* / Mendaro: *izan, eraman-eruan, higuñ-nazka, lana, guraizak, faborez, gezur*).

Gauzak aldatu egingo ziren, ordea, gerora. Lehenago hasita ere bai, Zuazok dioenez (2000b, 49²³), baina 1862an elizbarrutien banaketa berri baten ondorioz, Gasteizko elizbarrutiak hartzen ditu gaur egungo Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko lurraldeak, eta hortik aurrera sendotu zen “euskara giputzaren nagusitasuna” —hala dio Zuazok (2000b, 48)—, apaizen sermoien eta predikuen bidez, Deba ibar osoan.

Harrezkeroztiko erdialdeko hizkeren eta, garai modernoagoetan, euskara estandarraren eraginez, Elgoibar mendebalarekin lotzen zuten ezaugarri batzuk indargaldu eta are desagertu ere egin dira, eta, goian ikusi dugun bezala, gaur egun badira Elgoibar erdialdearekin lotzen duten ezaugarri nahikotxo (ezaugarri horiek isoglosa askotxo ezartzen dituzte batetik Eibar-Soraluze eta bestetik Elgoibar-Mendaro artean); hona horietako batzuk:

- Fonologian, *f*-rekin batera *p*: (*apari*, *praillia*), *-INDD-*, *-ILDD-* soinukate palatalizatuen indargaltzea, [Vj + z, tz > V + x, tx] gertatu ez izana (*haize*, *haritz*/**haixe*, **haretx*)...
- Izenaren morfologian, *-gaz* eta *-endako* postposizioak ez erabiltzea, *-AN* espletiboa erabiltzea, *HA* erakuslea ez erabiltzea, *-ZIO* eta ez *-ZIÑO* erabiltzea, adberbioetan *-N* amaiera ez erabiltzea, *BARIK* postposizioa ez ezagutzea...
- Aditz-sistemaren parte handi bat mendebalekoa izanik ere, badira honetan ere Elgoibar eta Mendaro mendebaletik bereizten dituzten ezaugarriak: iraganeko 3. pertsona *z-* da (eta ez *ø-*), *IZAN*en erroa *-e-* (*zera*), Nor-Nori paradigmako *zit-* hasierako formak, Nor-Nori-Nork paradigmaman *EUTSI* erroa ez erabiltzea; horietaz gain, *ARI IZAN* erabiltzea, *ESAN* aditzaren forma trinkoa **-IO-* izatea, *JOAN* aditzean erdialdeko formak erabiltzea (*dixe*)...
- Sintaxian, baldintza-perpausetan *BALDIÑ* lokailua erabiltzea, *NOLA ...-eN* egitura erabiltzea, konparaziozkoetan *BEZELA(KO)* erabiltzea,

²³ Hala zioen Uriartek Bonaparteri 1859an, Erdialdeko hizkeren nagusitasunaz: “En Elgóibar sucede que la parte de la población, que se halla situada hacia Azcoitia, participa algo más del guipuzcoano, pero aún debe agregarse a Vizcaya, aunque esto no acomoda a los guipuzcoanos.”

“Sucede en todas estas poblaciones [Deba ibarreko herri bizkaieradunetz ari da] que miran con desdén el bascuence de Vizcaya y son muy apasionados al dialecto de Beterrí: los sermones y pláticas se predicán en ese dialecto de Beterrí, y muchísimas personas hacen estudio de este dialecto, por cuyo motivo hacen una mezcla; pero todavía no han podido guipuzcoanizar al vulgo.”

galderetako *AL* partikula, *ERE* lokailua (eta ez *BE*), *LEGEZ* eta *LAKO* ez ezagutzea...

- Hiztegia eta aldaeretan ere badira erdialdeko eragina erakusten duten hainbat hitz eta aldaera: *laga*, *bukatu*, *eskubi*, *esnatu*, *faborez*, *hitz egiñ*, *urruti*...

D) Bateko eta besteko ezaugarriak ikusi ditugu, eta iruditzen zait ez dagoela erabateko nagusitasuna alde batekoen edo bestekoen alde; seguruenik garai batean gauzak ez ziren hala, baina gaur egun oreka bat badagoela iruditzen zait lehen aipatu ditugun indarren artean, mendebaleko eta erdialdeko indarren artean. Gauzak horrela, ongi ulertzen ditut orain arteko dialektologoek Elgoibarko euskararekin izan dituzten zalantzak eta dudamudak: “Elgoibarkoa bizkaiera zela”, “Elgoibarkoa bai, baina Altxolako ez zela bizkaiera”, “Elgoibar eta Altxolakoak gipuzkerakoak zirela”, eta abar eta abar.

Berrikiagotan, Koldo Zuazok berpiztu egin ditu Azkueren eta Yrizarren zalantza historiko haiek (sarrera-kapituluan aipatu ditut), eta hark ere zalantzak izan ditu: izan ere, Zuazo 1998 (230 or.) lanean Elgoibar eta Mendaro mendebaleko hizkeretan sartu zituen, eta hark aipatzen duen Debarreneko “hiruki” horretatik (Elgoibar, Mendaro eta Mutriku), Mutriku bakarrik jo zuen tarteko hizkeratzat (ez bateko eta ez bestekotzat, baizik zubi-hizkeratzat). Geroago, lan horretan bertan, dio Elgoibar eta Mendaroko hizkerak sakonago aztertzeak ekarri diola erabakia aldatu beharra: Debarreneko hiru hizkerak, Elgoibarkoa, Mendarokoa eta Mutrikukoa, ezin har daitezkeela —dio (Zuazo 2000b, 47)— ez euskalki batekotzat ez bestekotzat, bien “**tarteko hizkeratzat**” baizik.

Gaur egungo datuen arabera, ados nago Zuazoren azken ondorio horrekin, eta halakotzat hartzen ditut nik ere hiruki honetako hizkerak; hark dioen bezala, hurbilago betiere mendebaleko hizkeretatik Elgoibarkoa eta Mendarokoa Mutrikukoa baino, eta, gaineratzen dut, hurbilxeago Elgoibarkoa eta Mendarokoa Eibar aldeko hizkeretatik erdialdekoetatik baino.

- Deba ibarreko herrietan zehar dagoena baino jauzi linguistiko handiagoa dago, zalantzarik gabe, bai **Elgoibarren eta Markinaren** artean, eta bai **Elgoibarren eta Azkoitiaren** artean. Oraingoz, eginkizun uzten dut hizkera hauekiko konparazioak egitea, baina berri-emailei oharmenezko dialektologiari buruzko galdekizunak eginda, bi herriotako berri-emailei egindako elkarrizketak entzunda eta hizkera haien ginean

egindako lanak kontsultatuta²⁴, argi geratzen da, kidekotasunak kidekotasun, hurbiltasun handiagoa duela Elgoibarrek Eibarrekin eta are Mendarorekin, ezen ez Markinarekin (Zuazok Lea-Artibaiko azpieuskalkian sartzen duenarekin —2000, 71—) eta Azkoitiarekin: orografiak badu seguruenik hor eragina, zeren eta Deba ibarrean gora eta behera batere mendaterik zeharkatu beharrik gabe ibil gaitzkeen bitartean, Markina eta Elgoibar bitartean Urkaregiko lepoa eta Azkoitia eta Elgoibar bitartean Azkaratekoa baititugu; horretaz gain, Elgoibarrek Deba ibarrarekin izan du mendeetan zehar harreman komertzial nagusia, Lea-Artibairekin eta Urolarekin izan duena baino handiagoa, Debatik itsasoz zetozen produktuak Deba ibarrera eta handik zehar Gaztela aldera eramaten baitziren, eta alderantzizko bidea egiten baitzuten beste salgai batzuek.

E) Elgoibarko auzoen artean, ez dut bereizketa nabarmenik antzematen hizkuntza-kontuetan; egia da Azkoitia aldera dauden baserri batzuetan (Azkarate gainaren inguruan dauden batzuetan) Azkoitiko hizkeraren eragina somatzen dela eta Etxebarria aldera dauden batzuetan (Urkaregiko lepoaren inguruan dauden batzuetan) Markina aldeko hizkeren “ukitu” bat nabaritzen dela (“toketxo” bat, berri-emaile batzuen esanetan), baina, oro har, ez dago desberdintasun aipagarriarik auzoen artean.

Nire iritziaz gain, berri-emaileena ere halaxe da: oharmentzeko dialektologian egiten diren galdera moten aurrean (“Zer desberdintasun dago Elgoibarko auzoetako hizkeren artean?”, “Nongo ukitua nabaritzen diozu zure auzoko euskarari?”...), nik azaldu bezalaxe erantzun digute elkarrizketatu guztiek.

²⁴ Hor dira, Markina-Xemeingo euskarari buruz, Baraiazzarraren lana (1986) eta dezente lehenagoko Rollorena, eta, Azkoitiakoari buruz, Castillo-Romo-Giralt (2001), eta, nola ez, Yrizarren aditz-taulak (1991 eta 1992).

9. BIBLIOGRAFIA

- Alberdi, Jabier (1996): *Euskararen tratamenduak: erabilera*. IKER 9. Bilbo. Euskaltzaindia.
- Alcoba, Santiago (coord.) (1999): *La oralización*. Barcelona: Ariel.
- Altuna, Patxi (1956): “Azpeitiko euskerea aztertuz”, *Euskera* I, 169-173.
- (1967): “Loyola inguruan osatutako iztegitxo”, *Euskera* XII, 25-60.
- Alzibar, Idoia (2004): *Ekilikua. Euskal sinonimoen ahozko bilduma*. Labayru Ikastegia-Bizkaia irratia-BBK Fundazioa.
- Amonarriz, Kike (1998): “Euskarazko umorea eta hizkera erakargarria”, in Rodríguez, Fito & Esnaola, Imanol (ed.), *Euskara mintzatuaren erronkak*. Leioa: EHU.
- Amonarriz, Kike; Egaña, Andoni & Garzia, Joxerra (2004): *Euskararen kalitatea: zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Amundarain, Iñaki (2002): *Juntadura eta elipsia euskaraz*. EHUko Argitalpen zerbitzua.
- Apalauza, Amaia (2006): “Araitz-Beteluko hizkera adierazkorra: biraoak”, *FLV* 102.
- Arana, Iñaki (2003): *Burdina: errementariak eta perratzaileak*. Bergarako Udala.
- Aranberri, Fernando (1996): *Ermua eta Eitzako euskara*. Ermua. Ermuko Udala.
- Aranzadi Zientzia Elkarte (1983-1990): *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa* (2 liburuki). Donostia. Aranzadi.

- Arejita, Adolfo (1992): *Euskal joskera*. Durango. Leopoldo Zugaza.
- Arejita, Adolfo, Etxebarria, Juan Manuel, Irazola, Jose Mari & Uriarte, Javier (1989): *Bizkaierazko joskera*. Gasteiz. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila. Eusko Jaurlaritza.
- Areta, Nerea (2003): *Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea*. Bilbo. Deustuko Unibertsitatea.
- Argoitia, Juan Andres, Azkarate, Nerea & Gezuraga, Xabier (1995): *Eibarko euskeraren esakera eta bestelako berezitasun batzuk*. Eibar. Eibarko Udala.
- Arrieta, Jose Agustin (1974): *Un estudio sobre el habla vasca de Motrico*. Deustuko Unibertsitateko lizentziatura-memoria argitaragabea.
- Askoren artean (1999): *Arrasateko euskara*. Arrasate. Arrasateko Udala.
- Aurrekoetxea, Gotzon (1986): “Euskal Herriko Hizkuntza Atlas (EHHA): inkesta metodologia eta ezezko datuak”, *Euskera* 31, 413-424.
- (1995): *Bizkaieraren egituraketa geolinguistikoa*. Bilbo. EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- (1996): “Hizkerak banatzeko ezaugarriez”, *ASJU* 30, 127-143.
- (1997): “Ahozko testuak transkribatzeko irizpideak”, *Uztaro* 23, 87-94.
- Aurrekoetxea, Gotzon & Videgain, Xarles (arg.) (1992): *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak*. Iker 7. Bilbo. Euskaltzaindia.
- Aurrekoetxea, Gotzon, Videgain, Xarles & Iglesias (2005): «*Bourciez*» bildumako euskal atlas: gramatika, *ASJU* 39, 1-277.
- (2007): «*Bourciez*» bildumako euskal atlas: lexikoa, *ASJU*.
- AUSPOA saila (herri-literatura): Antonio Zavalak sortua eta zuzendua. Gaur egun, Sendoa argitaletxeak argitaratzen du.
- Azkarate, Miren (1990): *Hitz elkartuak euskaraz*. Donostia. Deustuko unibertsitatea.
- Azkarate, Miren & Altuna, Patxi (2001): *Euskal morfologiaren historia*. Donostia. Elkarlanean.
- Azkue, Resurrección M^a (1905-6): *Diccionario Vasco-Español-Francés*. Bilbo. La Gran Enciclopedia Vasca (1969).

- (1923): *Morfología vasca*. Bilbo. La Gran Enciclopedia Vasca (1969).
 Badihardugu Euskera Alkartia: www.badihardugu.com
- Bähr, Gerhard (1926-35): “Estudio sobre el verbo guipuzcoano”, *RIEV* 17 eta hh.
- Baraiazarra, Luis (1986): “Markina-Xemeingo euskara aztertzen”, *Euskera* XXXI, 1986-1, 143-170.
- Basauri, Serafin & San Martin, Juan (1972): “Eibarko euskerari buruz”, *Egan* 32, 32-37.
- Basauri, Serafin & Sarasua, Asier (koord.) (2003): *Eibarko hiztegi etnografikoa*, Eibar. Eibarko Euskara Mintegia, Eibarko Udala.
- Beinhauer, Werner (1929): *El español coloquial*. Madrid. Gredos.
- Bidegain, Xarles (1991a): «Lexikoaren inguruan Euskal-Herriko atlas linguistikoaren inkestagintzan», *ASJUren gehigarriak XIV, Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, Diputacion Foral de Gipuzkoa, Donostia. 1060-1092.
- (1991b): “Lexikoaren bilketaren baldintza zenbait”, in *IKER* 7. Bilbo. Euskaltzaindia. 559-576.
- Bonaparte, Louis Lucien (1991): *Opera Omnia Vasconice*. (4 liburuki). Bilbo. Euskaltzaindia.
- Briz, Antonio (1996): *El español coloquial: situación y uso*. Madrid. Arco.
- Burgete, Xabier & Gaminde, Iñaki (1991): *Otxandioko euskaraz*. Bilbo.
- Camino, Iñaki (1997): *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Iruñea. Nafarroako Gobernu.
- (arg.) (1998a): *Nafarroako hizkerak*. Bilbo. UEU.
- (1998b): “Zer dago dialektologiaren gibelean”, in Camino, I. (arg.), 111-144.
- (2009): *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia. Elkar.
- Chambers, J. K. & Trudgill Peter (1998): *Dialectology*. Cambridge University Press.
- Echaide, Ana M^a (1984): *Erizkizundi Irukoitza*. Iker 3. Bilbo. Euskaltzaindia.

- Eibarko Aditz-Batzordia (1998): *Eibarko aditza*. Eibar. Eibarko Udala.
- Elexpuru, Juan Martin (2005): *Bergara aldeko hiztegia. Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbeekin osotuta*, Bergarako Udala.
- Elgoibarko Izarra (2005): *Izarren hautsa 40 urtean*, Elgoibarko Izarra.
- Elhuyar (1996): *Elhuyar hiztegia*. Usurbil. Elhuyar.
- Elortza, Jerardo (1994): “Aditzaren izen-formak Deba Garaian eta Araba aldean”, in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), 465-477.
- Epelde, Irantzu (2003): *Larresoroko euskara*. EHUren tesi argitaragabea.
- Esnal, P. (1987-1989): “Ahozko euskarari buruz”, Euskararen Kutxa atalean argitaratutako artikulu-sorta, *HABE*.
- Etxabe, Karmele & Garmendia, Larraitx (2003): *Zaldibiako euskara. Bertako bizimodua, ohiturak eta pasadizoak*. Zaldibiako Udala.
- (2004): *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera*, Ordiziako Udala.
- Etxebarria, Joxe Maria & Etxebarria, Juan Manuel (1991): *Euskalki guztien etno-testuak*. Bilbo. Labayru Ikastegia.
- Etxebarria, Joxe Maria (1983): *Euskal dialektologiarako testo eta ariketak*. Gasteiz. El Carmen.
- Etxebarria, Toribio (1965-66): *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*. Euskaltzaindia. *Euskera* 10-11.
- Euskaltzaindia (1984): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I*. Bilbo. Euskaltzaindia.
- (1987a): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I (Eraskina)*. Bilbo. Euskaltzaindia.
- (1987b): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak II*. Bilbo. Euskaltzaindia.
- (1987c): *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo. Euskaltzaindia.
- (1990): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak III (Lokailuak)*. Bilbo. Euskaltzaindia.
- (1993): *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Bilbo. Euskaltzaindia.

- (1994a): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak IV (Juntagailuak)*. Bilbo. Euskaltzaindia.
- (1994b): “Eratorpenaz”, *Euskera* 39, 3. 1039-1058.
- (1999a): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V (Mendeko perpausak 1)*. Bilbo. Euskaltzaindia.
- (1999b): *Euskal Herriko Hizkuntza Atlas: Ohiko Euskal Mintzamoldeen Antologia*. Bilbo. Euskaltzaindia.
- (2004): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak VI (Mendeko perpausak 2)*. Bilbo. Euskaltzaindia.
- (2008): *Hiztegi Batua. Euskera*. Bilbo. Euskaltzaindia.
- (2009): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak VII (Mendeko perpausak 3)*. Material argitaragabea.
- Gaminde, Iñaki (1988): *Ahozko bizkaieraz*. Bilbo. Bizkaiko AEK.
- (1995): *Bizkaieraren azentu-moldeez*. Bilbo. Labayru Ikastegia.
- (1997): “Mendebaldeko azentuak”, in Askoren artean, *Mendebaldeko euskara XX. mende goienean*. Bilbo. Mendebalde Euskal Kultur Elkarte.
- (1999a): *Bakio barbarik berba*. Bilbo. Labayru Ikastegia, Bilbo Bizkaia Kutxa & Bakioko Udala.
- (1999b): *Euskaldunen azentuak*. Bilbo. Labayru Ikastegia.
- (2001): *Mungia barbarik berba*. Mungiako Udala.
- Gaminde, Iñaki & Hualde, Jose Ignacio (1995): “Euskal azentu-ereduen atlasarako: zenbait isoglosa”, *ASJU* 29-1, 175-197.
- Garate, Gotzon (1988): *Erdarakadak*. Mensajero.
- (1996): “Bizkaiera eta gipuzkera”, *Jakin* 92, 89-103.
- (1998): *27.173 Atsotitzak. Refranes. Proverbs. Proverbia*. Bilbo. Bilbao Bizkaia Kutxa.
- (2002): *Euskal atsotitzak*. Bilbo. DEIA bilduma.
- (2004): “Bizkaiera”, *Karmel* 2004-3, 52-71.

- Garzia, Joxerra (1998): “Hedabideetako euskara mintzatua”, in F. Rodríguez & I. Esnaola (arg.), *Euskara mintzatuaren erronkak*. Bilbo. EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- (1999): *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak. Marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa*. Leioa: EHU/doktore tesiak.
- (2008): *Jendaurrean hizlari. (Ahozko) Komunikazio gaitasuna lantzeko eskuliburua*. Alberdania.
- Goenaga, Patxi (1978): *Gramatika bideetan*. Erein (1991).
- (1984): *Euskal sintaxia: konplementazioa eta nominalizazioa*. Leioa. EHU.
- (1985): “Complementación y nominalización en euskara”, *ASJU* 2, 493-570.
- Goikoetxea, Juan José (2002): *Historias de una Guipúzcoa desconocida (misceláneas del Bajo deba)*, Mendaroko Udala, Debegesa, RSBAP.
- Gomez, Ricardo & Lakarra, Joseba Andoni (arg.) (1994): *Euskal Dialektologiako kongresua. ASJUren gehigarriak, XXVIII*. Donostia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Harana, Mielanjel, Tapia, Joseba eta Bergizes, Aingeru (1998): *Gelatxo*. Haritz euskal dantzari taldea, Ongarri eta Euskal Herriko Trikitixa elkarteak.
- Hualde, Jose Ignacio (1989): “Acentos vizcaínos”, *ASJU* 23-1, 275-325.
- (1991): *Basque Phonology*. London-New York. Routledge.
- (1997): *Euskararen azentuerak. ASJUren gehigarriak, XLII*. Donostia & Bilbo. Gipuzkoako Foru Aldundia & EHU.
- Hualde, José Ignacio & Bilbao Xabier (1992): *A phonological study of the basque dialect of Getxo. ASJUren gehigarriak XXIX*. EHU-Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Hualde, José Ignacio, Elordieta, Gorka & Elordieta Arantzazu (1995): *The basque dialect of Lekeitio. ASJUren gehigarriak XXVIII*. EHU-Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Hurtado, Irene (2001): *Goierriko eta Tolosalde Hegoaldeko hizkerak*. Lazkao. IX. Gerriko Ikerlan-Sariketa.

- Ibarra, Orreaga (1995): *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*. Iruñea. Nafarroako Gobernua.
- Ibarretxe, Iraide (2006): *Euskal onomatopeien hiztegia. Euskara-Ingelesera-Gaztelania* [Diccionario de onomatopeyas vascas. Euskara-Inglés-Español]. Donostia. Gaiak.
- Isazelaia, Jaione (1997): *Linua, ebuna, artilea*. Bergarako Udala.
- Iturain, Iñaki & Loidi Loren (1995): *Orioko euskara*. Orioko Udala.
- Izagirre, Cándido (1970): *El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y zonas colindantes*. ASJUren gehigarriak, VII. Donostia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Izagirre, Koldo (1981): *Euskal lokuzioak*. Hordago.
- Labaka, Ana, Azurza M^a Eugenia & Bereziartua Juan Inazio (1996): *Lasarte-Oriako euskararen azterketa*. Lasarte-Oriako Udala.
- Labayru Ikastegia (2001): *Bizkai Euskerearen Jarraibide Liburua. Lehenengo Pausuak*. Labayru Ikastegia-BBK-Eusko Jaurlaritza-Bizkaiko Foru Aldundia-Bizkaia Irratia.
- Larramendi, Manuel (1756): *Corografía de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa*. Donostia (1969). Amigos del Libro Vasco.
- Larrañaga, Jone (1998): *Antzuolako euskara*. Antzuola. Antzuolako Udala.
- Laspiur, Imanol (1999a): *Eibarrera jatorraren bidetik*. Eibar. *Eta kitto!* Euskara elkarte.
- (1999b): *Eibarko euskeriaren deklinabidia eta entonaziñua*. Eibar. Eibarko Udala.
- León, Jabi (2004): *Elgoibartarren esanetan*. Elgoibar. Elgoibarko Udala.
- Lizarralde, Koldo (1994): *Apuntes etnográficos 1. Elgoibar*. Elgoibar. Elgoibarko Udala.
- Makazaga, Jesus Mari (2006a): “Non dago ahozko jardunaren adierazgarritasuna? Erakusgari batzuk Elgoibarko euskaratik”, in Fernández, Beatriz & Laka, Itziar (arg.), *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*. EHUren Argitalpen Zerbitzua. 663-678.
- (2006b): *Elgoibarko aditz-taulak*. Badihardugu Euskara Elkarte, Deba Ibarra.

- (2007): *Elgoibarko euskara: berbak, egiturak eta irakurgaiak*. Elgoibar, Elgoibarko Udala.
- (2008): “Ahozko jarduna komunikazioaren lagungarri: ekarpen bat ahozkoaren estrategia komunikatiboez”, in (Artiagoitia & Lakarra arg.) *Gramatika jaietan: Patxi Goenagaren omenez*, 545-560. EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- Mendebalde Kultura Alkartea: www.mendebaldekultur@gmail.com
- (1998): *Mendebaldeko euskeraren ekarria*. Bilbo. BBK.
- (2000): *Mendebaldeko berbetearen formalizazinoa*. Bilbo. BBK.
- (2003): *Ahokotasuna aztergai*. Bilbo. BBK.
- Michelena, Luis (1961): *Fonética Histórica Vasca*, 3. arg. (1985). Donostia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- (1964a): *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Donostia: Auñamendi.
- (1964b): *Textos arcaicos vascos*. Madrid: Minotauro.
- (1981a): “Lengua común y dialectos vascos”, *ASJU* 15, 289-313.
- (1981b): “Encuestas lingüísticas en el País Vasco”, *Euskera* 26, 133-145.
- (1988): *Sobre historia de la lengua vasca* (2 liburuki). *ASJU*ren gehigarriak-10. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- (1991): “De dialectología vasca”, *FLV* 58, 179-203.
- Mokoroa, Justo M. (1990): *Ortik eta emendik. Repertorio de locuciones del habla popular vasca*. Bilbao: Labayru / Eusko Jaurlaritz. Etor.
- Montoya, Estibaliz (2004): *Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara*. Iruñea. Nafarroako Gobernu.
- Mujika, Luis Maria (1989): *Euskal toponimiazko materialeak, XV zenbakia: Mutriku, Elgoibar, Eibar*. Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Mujika, Plácido (1981): *Diccionario Vasco-Castellano, Castellano-Vasco*. Mensajero.
- Mugarza, Pello (2006): *Mallabiko euskara*. Mallabiko Udala.
- Narbaiza, Anaje (2001): *Zura: arotzak eta etxegileak*. Bergarako Udala.

- Olano, Mikel (1998): *Areso eta Leitzako hizkerak bertako hitz eta historian barrena*. Iruñea. Nafarroako Gobernua.
- Olañeta, Amaia & Urkiola, Argiñe (1998): *Txondorrek, karobiak, elurzuloak*. Bergarako Udala.
- Ong, W. J. (1987): *Oralidad y escritura*. Mexico. Edit. Fondo de Cultura Económica.
- Oñederra, Miren Lourdes (1990): *Euskal fonologia: palatalizazioa. Asimilazioa eta hots sinbolismoa*. Leioa. EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- (2004): *Fonetika Fonologia hitzez hitz*, Leioa. EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- Ormaetxea, Txipi (2002): *Aramaioko euskara*. Aramaio. Aramaioko Udala-Arabako Foru Aldundia.
- (2006): *Aramaioko euskara (azterketa dialektologikoa)*. Leioa. EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- Osa, Eusebio (1990): *Euskararen hitzordena, komunikazio zereginen arauera*. Leioa. EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- Oyharçabal, Beñat (1987): *Etude descriptive de constructions complexes en basque: propositions relatives, temporelles, conditionnelles et concessives*, Thèse de Doctorat d'Etat, Université de Paris 7, Atelier de publication des thèses de l'Université de Lille 3.
- Pagola, Rosa Miren (1984): *Euskalkiz euskalki*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritzia.
- (1991): *Dialektologiaren atarian*. Bilbo. Gero.
- Plazaola, Estepan, Agirregabiria, Karmele & Bikuña, Karmen (2005): *Ahozko jarduna hobetzeko proposamenak*. Badihardugu Euskara Elkarte.
- Preston, D. R. (1988): *Perceptual Dialectology: Nonlinguists' Views of Areal Linguistics*. Foris. Dordrecht.
- Rollo, William (1925): *The Basque dialect of Marquina*. Labayru Ikastegia (2006).
- Ruiz de Larrinaga, Juan (arg.) (1954): “Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte”, *ASJU* 1, 35-106.
- Salaberri Zaratiegi, Patxi, Kamino, Peio & Zubiri, Juan Jose (2004): “Luzai-deko hizkera adierazkorra: sakreak”, *FLV* 96, 317-332.

- (2005): “Goizuetako hizkera adierazkorra: biraoak”, *FLV*99, 411-452.
- Salaburu, Pello (1984): *Hizkuntza teoria eta Baztango euskalkia* (2 liburuki). Leioa. EHU.
- (2005): *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Nafarroako Gobernua-Euskaltzaindia.
- Salvador, Gregorio (1987): *Estudios dialectológicos*. Madrid. Paraninfo.
- San Martín, Juan (1953): “Eibar’en erabiltzen diran burdin langintzako itz teknikoak”, *Euskera* III, 141-157. Euskaltzaindia.
- (1959): “Eibar’en teknika gaietan egin dan eboluzioari buruz”, *Euskera* IV, 127-139. Euskaltzaindia.
- (1960): *Zirikadak*. Berrargitaratua: Elkar (1984).
- (1967): *Ibiltarixanak*. Ego ibarra (1993). Kutxa.
- (1975): “Perretxiku izenak Eibarren”, *Euskera* XX, 317-324. Euskaltzaindia.
- (1978): “Txori izenak Eibarren”, *Euskera* XXIV, 271-277. Euskaltzaindia.
- (1981): “Eibarko aditz-laguntzailearen paradigmak”. *Iker* 1, 331-342. Euskaltzaindia.
- (2000): “Toribio Etxebarriaren Lexicón-i gehigarriak”, *Euskera* 43, 1001-1020. Euskaltzaindia.
- Sarasola, Ibon (1996): *Euskal hiztegia*. KUTXA fundazioa.
- (2005): *Zehazki*. BBVA-Alberdania.
- Sarasua, Asier (1996): *Eibarko hegaztiak*. Ego Ibarra.
- Sarasua, Asier, Agirrebeña, Aintzane & Zenarruzabeitia, Leire (2005): *Eibarko euskara. Gure hizketaren doinu eta berbak*. Eibarko Udala.
- Schouten, M.E.H. & van Reenen, P. Th. (eds.) (1989): *New Methods in Dialectology*. Foris. Dordrecht – Holland/Providence RI – U.S.A.
- Telleria, Alberto (2003): *Berbeta berua*. Eibar: Badihardugu Euskera Alkartia.
- Trask, Robert Larry (1997): *The History of Basque*. London. Routledge.
- Trudgill, Peter (1983): *On dialect*. New York University Press.

- (1986): *Dialects in contact*. New York. Basil Blackwell Ltd.
- (1988): “On the role of dialect contact and interdialect in linguistic change”, in Jacek Fisiak (arg.), *Historical Dialectology: Regional and Social*, 547-563.
- Txurruka, Alazne & Urbiet, Josune (2003): *Debako euskara*. Debako Ostolaza Kultur Elkarte.
- UEU (1987): *Euskal dialektologiaren hastapenak*. 2. arg. Iruñea.
- UNED (1988): *Bergarako euskera*. Bergara. Euskal Kultur Departamentuaren Argitalpenak.
- Urmeneta, Asisko (2003): “Kolokiala = Koloniala (?)”. In *Ahozketasuna aztergai*, Mendebalde Kultura Alkartearen VII. Jardunaldiak. Bilbao: BBK.
- Urmeneta, Asisko & Zazpiak Batman kolektiboa (2000): *Mantxut*. Komunikazio biziagoa S.A.L. Argia.
- (2001): *Mantxut, Mantxut?* Komunikazio biziagoa S.A.L. Argia.
- (2002): *Freexkue*. Komunikazio biziagoa S.A.L. Argia.
- Villasante, Luis (1968): “Oñatiko euskera”, *Egan* 27, 80-94.
- Yrizar, Pedro de (1981): *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* (2 liburuki). Donostia. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- (1991): *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano* (2 liburuki). Donostia. Euskaltzaindia & KUTXA.
- (1992): *Morfología del verbo auxiliar vizcaíno* (2 liburuki). Bilbo. Euskaltzaindia & BBK.
- Zelaieta, Edu (2005): *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*, EHUko doktorego-tesi argitaragabea.
- Zuazo Koldo (1988a): *Euskararen batasuna*. Iker 5. Bilbo. Euskaltzaindia-EHU.
- (1988b): “Bizkaieraren ezaugarriez gehiago”, *ASJU* XXII –2, 367-377.
- (1998): “Euskalkiak, gaur”, *FLV* 78, 191-233.
- (1999): *Deba ibarreko euskera*. Deba ibarreko udalak.
- (2000a): *Euskararen sendabelarrak*. Irun. Alberdania.

- (2000b): “Debabarreneko euskara”, *Dialektologia gaiak* (K. Zuazo arg.). EHU-Arabako Foru Aldundia.
- (2003): *Euskalkiak Herriaren lekukoak*. Elkar.
- (2005): *Euskara Batua. Ezina ekinez egina*. Elkar.
- (2006): *Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta tokiko batua*, Badihardugu Euskara Elkarte.
- Zuazo, Koldo & Badihardugu elkarte (2002): *Deba Ibarretik Euskararen Herriara*. Deba ibarra. Badihardugu.
- Zubimendi, Joxe Ramon & Esnal, Pello (1993): *Idazkera-liburua*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.
- Zubiri, Ilari & Zubiri, Entzi (1995): *Euskal Gramatika Osoa*. Bilbo: Didaktiker.
- Zubiri, Juan Jose & Perurena Patziku (1998): *Goizueta eta Aranoko hizkerak*. Iruñea. Nafarroako Gobernu.
- Zubizarreta, Iñaki (2009): *Manuel Lasarte. Iturria ondare*. Auspoa saila.

ERABILI DIREN WEB ORRIAK

Ahotsak proiektua: www.ahotsak.com

Badihardugu Euskera Elkarte: <http://www.badihardugu.com>

Barren aldizkariaren web-orria: : <http://www.elgoibarren.net>

Bergara aldeko hiztegia: www.bergarakoeuskara.net

Udalerrikako estatistika-informazioa: <http://www.eustat.es>

Eibarko Euskeria: <http://www.eibarko-euskara.com>

Elgoibarko Udalaren web-orria: <http://www.elgoibar.org>

Euskararen kale-neurketak: <http://www.sortu.org>

...eta kitto! Euskara Elkarte: <http://www.etakitto.com>

Goiena, Debagoieneko ataria: <http://www.goiena.net>

Intza proiektua (Euskal lokuzioak sarean): <http://intza.armiarma.com>

ISBN 978-84-95438-66-9



9 788495 438669

18 €